

Giza Eskubideen Nazioarteko IV. Biltzarra

*Herritarrak eta Giza Eskubideak:
geroko hizketa*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIOA SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

Lan honen bibliografia Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren
Katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgybiblioteka>

Argitaraldia: 1.a, 2012ko urtarrila

Ale kopurua: 500


© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Justizia eta Herri Administrazio Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

ISBN: 978-84-457-3226-7
L.G.: BI - 415-2012



Giza Eskubideen Nazioarteko IV. Biltzarra Herritarrak eta Giza Eskubideak: geroko hizketa

Bilbo, 2010eko iraila

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Aurkezpena

Bizitzeko modu benetan demokratikoak lortu nahi dituzten gizarteek, balio etiko, juridiko eta politikoen inguruan antolatzen dituzte ideiak. Horrez gain, pluraltasunean eta elkarrenganako errespetuan balio horiek bermatzen dituzten gizalegezko jokabideak erabiltzen dituzte ideiak antolatzeko.

Demokrazia eta giza eskubideak eskutik lotuta doaz, gizakion nortasunaren askatasun eta erabateko garpenerako baldintzak baitira.

Giza eskubideak ez dira kontzeptu juridiko eta politiko hutsa, kontzeptu globala baizik.

Herritar bihurtzearen ondorioz, alde batetik, denok eduki behar dugu giza eskubideez bete-betean baliatze eta gizarte demokratikoaren babesa sentitzeko aukera.

Eta, beste aldetik, gizarte-bizitzari dagokion guztian parte-hartze aktiboa eta arduratsua izan behar dugu eta etengabe errespetatu behar ditugu beste guztien eskubideak.

Giza eskubideak sustatzeak, pentsamendu kritikoa garatzen eta elkarbizitza zer den ikasten lagundu dezake.

Elkar ezagutza, kulturen arteko harremana, elkartasuna, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta komunitate barruko nahiz komunitateko kideen arteko harreman harmoniatsuak ere errazten ditu.

Giza eskubideen arloko prestakuntzak, gainera, askatasunaren, pluraltasun politikoaren eta pertsonen eskubideen printzipioen nahiz legearen inperioaren kontzientzia hartzen laguntzen du.

Estatuek giza eskubideekin zerikusia daukaten tresnak praktikan benetan erabiltzen ere laguntzen du.

Premisa horietatik abiatuz, Eusko Jaurlaritzak Giza Eskubideen Nazioarteko Laugarren Kongresua antolatu zuen, herritar izatearen kontzeptua aztertze eta gizarte-eskubideen etorkizunari tankera hartze helburuarekin.

Asmatu genuen hala eginda eta, horregatik, atsegin handiz aurkezten dut ideiak aztertu eta kontrastatzeko esparru hartan parte hartu zuen nazioarteko aditu-talde bikainak egin zituen ekarpenak biltzen dituen liburu hau.

Europa soziala ametsa da baina, Taylor Gooby irakasleak ondo dioten bezala, ameslari asko dituen ametsa. Oraingo eta geroko zalantzek ez gaitzatela urrundu europarrok azken mende-erdian elkarrekin eraiki dugun ametsetik.

IDOIA MENDIA CUEVA
Justizia eta Herri Administrazioko sailburua

AURKIBIDEA

PETER TAYLOR-GOOPY

Europa sozialaren etorkizuna. (Banakoen) giza eskubideen eta (taldearen) gizarte elkartasunaren arteko paradoxa. 7

FÉLIX OVEJERO LUCAS

Zer ongizate estaturen etorkizuna? Ongizate estatuaren etorkizuna ez da iragana bezalako izango . . . 21

GONZALO MAESTRO BUELGA

Estatu sozialaren etorkizuna. 39

DANIEL RAVENTÓS

Herritarrak, jabetza, askatasuna eta existentzia materiala 55

GORKA MORENO MÁRQUEZ

Herritartasunaren eta Ongizate Estatuaren gaineko gogoeta berria XXI. mendean 75

VICENÇ NAVARRO

Politika sozialak eta krisi globalaren ondorio sozialak. 93

LUIS MORENO

Maila anitzeko herritartasuna eta gizarte politikak. 107

ARANTXA RODRÍGUEZ BERRIO

Gizarte politiken etorkizuna: falaziak eta beste katastrofismo batzuk 121

MANUEL CALVO GARCÍA

Eskubide sozialen inplementazioa eta eraginkortasuna krisi garaian. 139


GERRY STOKER

Gizarte Ongizateko Sistemetan Koprodukzioa garatzea: Iraultza Heuristikoa ote? 157

QUIM BRUGUÉ

Parte hartzea eta gizarte sareak, gizarte kohesiorako 175

ESTHER RAYA DÍEZ	
Ongizatearen gizarte sareen etorkizuna	193
OLIVIER DE SCHUTTER	
Oinarrizko eskubide sozialak eta Europako Itunen helburu ekonomiko eta sozialen balantzea	207
LUIS ORTEGA	
Europa Soziala	235
LAURA GÓMEZ URQUIJO	
Ekonomia eta Diru Batasunaren krisitik Europa sozialaren krisira	251
JOHN E. ROEMER	
Etorkizuneko belaunaldien eskubideak eta klima aldaketa	267



PETER TAYLOR-GOOPY

Kent-ko Unibertsitatea

p.f.taylor-gooby@kent.ac.uk

Europa sozialaren etorkizuna. (Banakoen) giza eskubideen eta (taldearen) gizarte elkartasunaren arteko paradoxa

I. Sarrera: Gobernuaren ataka: aurrekontuak murriztea eta gizarte elkartasuna

Europa soziala ametsa da, baina ameslari asko dituen ametsa (Googlen, 95.500.000 emaitza 29 segundotan). Ametsa esparru ekonomikoa (merkatu bakarra; euroaren esparrua) eta politikoa (presidentzia komuna) gaindituko dituen eta gizarte ongizatea barne hartuko duen kontinente osoaren integratze sisteman datza. Herralde bakoitzaren gizarte laguntzen tradizioak erdiko klasearen eta langile klasearen arteko ezartze soziala lortzeko moduan garatzen diren elkartasunetan oinarrituta daude (Bladwin 1990). Familia mantentzen duen gizonezkoa, emakumearen menpeko lan-banaketa, biztanleriaren egitura egonkorra eta hazkunde segurua ezaugarri nagusi dituen estatu-nazioaren, gizarte industrialaren konpromiso horren oinarriak huts egin du gaur egun. Erregimen moten arteko bereizketak jarraitzen du (Allen eta Scruggs 2004; Schroeder 2009, Vis 2010), baina badirudi ongizatea gehiago zatitzeko joera identifikagarria dagoela. Globalizazioaren, eskaerak hedatzearen eta baliabide mugatuaren presioek ongizate estatu korporatibistek gizarte segurantzaren laguntza zehaztasun handiagoz bideratzea eta sistemaz kanpo daudenentzako hautatutako bitartekoak eta sustapen politikak garatzea eragin dute (Seelieb-Kaiser 2002, Palier eta Martin 2008). Herralde sozial demokratikoetan antzeko politikak helmen urriagoarekin ezartzen dira (Timonon 2003, Meyer eta Bridgen 2008), eta, hala, bi talde horiek herralde liberaletara hurbiltzen dira. EBko ongizate estatu berriak ez dira berdinak, baina alderatu daitezkeen joerak dituzte, batez ere garatuenean (Seeleib-Kaiser 2008 c. 5 eta 13, Aspalter *et al.*, 2009).

Testuinguru horretan, EBko *Gizarte Agenda Berritua (2008)* aukera berdintasuna eta aukeretara iristeko bide errazagoa lortzeko konpromiso komunaren aldeko elkartasuna erdiesten ahalegintzen ari da. Ikuspuntu horrekin aurrerapen handiak lortzea zaila da. Azken mende laurdenean, oro har, Europako gizarteak (batzuk beste batzuk baino biziago) desorekatuagoak izan dira (Atkinson 2005). Gizarte mugikortasunean alde handia dago herralde batetik bestera, eta ez dirudi Europar aurrerapenik dagoenik (Jantii *et al.* 2006, Corak

2004). Europa sozialean elkartasunari buruzko beste bi ikusmolde daude. Bata banakakoa eta juridikoa: biltzar honen lehen gai nagusia den gizarte eskubideen ikuspuntua. Bigarrena kolektiboagoa eta tokikoagoa da: boterea herritarrengan deszentralizatze prozesu demokratikoa. Terminoak jarduera ugari biltzen ditu, demokrazia zuzenagoa jomuga: iritzi inkestak, kontsultak, parte-hartze jarduerak, abokatuak ez diren pertsonen ordezkariak, epaimahai herritarrak eta erabakitzeko inkestak (Stewart 2007, 1. taulak eskema ona biltzen du). Zenbait egilek asko eztabaidatu dute horri buruz azken urteetan (Thompson 2008, Ryfe 2005, Stoker 2006, Renn 2008, Fishkin 2009).

Ikuspuntu horiek ez dira independenteak. Giza eskubideak eta demokrazia kontzeptualki eta historikoki lotuta daude. EBko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko (2000) eskubide asko demokrazia handiagoarekin daude lotuta, esaterako, adierazpen askatasuna, biltzeko askatasuna, edo negoziazio kolektiboak eta herritarren eskubideen sail guztia. Askok zuzenean gizarte zerbitzuekin lotuta daude, adibidez, gizarte segurantza eskubideak, osasun zaintzak, adindunen duintasuna, haurren beharren lehentasuna eta hezkuntza askatasuna. Dena den, arreta indibidualismoan duen giza eskubideen ikuspegiak arazoak ere badakartza, batez ere, interes partikularrak eta anitzak dituzten taldeek eskubideak beren taldearen aldeko interesak sustatzen dituzten erakundeak ezartzeko baliatzen dituztenean, gizarteko beste talde batzuen kaltetan. Zenbait arlotan, esaterako, hezkuntzan, eta desoreka gero eta handiagoa den nahiz mugikortasun sozial segururik ez dagoen testuinguruan, askoz nabarmenagoa da hori.

Artikulu honek deszentralizatzeko demokratikoaren eta ikuspuntu indibidualistenen arteko harremana jorratzen du, eta, gai hori azaltzeko, Suediako eta beste zenbait lekutako hezkuntzaren ereduak erabiltzen ditu. Gaiari buruz Erresuma Batuan bereziki biziak diren eztabaidak aintzat hartzen ditu, gobernuaren xahupena atxikitze behararen eta, era berean, herritarren babesari eusteko behararen arteko harremana kudeatzeari buruzko eztabaida ohikoenak. Gizarte gobernamenduaren demokratizazioa handitzeko egiten ari den bidea aztertzen du, eta, ondoren, ikuspuntu horrek banakoa lehenesten duten moldeetara eta molde kolektiboagoetara hurbiltzea nola eragin duen eta erabiltzaileak komunitatearen hezkuntza librea zuzenean kontrolatzeko kontzeptua nola txertatzen den aztertu duten autoreen lanak berrikusten ditu. Gizarte politikan merezi duen arreta jasotzen ez duen talde jarrierari buruzko literatura soziopsikologikoaren materiala ere barne hartzen du. Azkenik, demokraziaerantz giza eskubideak beharrezkoak direla ondorioztatzen du. Hala ere, gizarte desorekatuan banakoen eskubideak pixka bat nabarmenak hiri, eskualde edo herrialde mailan (eta, gutxiago, kontinente mailan) gizarte elkartasuna sustatzeko ahalmena ahuldu dezake. Banakoen giza eskubideak ez dira erakunde demokratiko kolektiboak indartzeko alternatiba.

Gizarte gobernamendua demokratizatzea

Azken urteetan demokratizatzeko arreta piztu du, gizarte ongizatearen bi arazo nagusiak areagotu ditza-keela baitirudi: gobernu politika onargarriak gauzatzeko eta baliabideen presio intrantsigenteak bultzatzea. Herritarrek zuzenean bultzatu dituzten neurri politikoak onartzeko joera handiagoa izan dezakete. Konpromiso publikoak proaktibitate, konpromiso eta finantzatzeko baliabide berriak ekar ditzake. Politikan nagusi diren bi ikuspegiak (indibidualismo kontsumista eta demokratizatze politikoa) eta eztabaida teorikoaren bi korronte nagusiak (habermasiarra eta anglosaxoia) aztertuko ditugu. Biek erakundearen diseinuaren garrantzia nabarmen dute, hala erabakitzen duten parte-hartzaileen interakzioan nola foro demokratikoaz kanpo erabakitzen duten taldeek gizartearekin duten harremanean.

II. Planteamendu politikoak: kontsumismoa eta demokratizatzea

Demokratizatze kontsumista eta politika

Erresuma Batuan nagusi den eta beste zenbait tokitan ere eragina duen joera baten arabera (Taylor-Gooby 2009 c. 2, 3), banakoak (hornitzaileak eta erabiltzaileak) hautatzaile proaktibo eta autoerregulatzaileak dira. Osasun zaintzan eta hezkuntzan, gizarte zerbitzuak kudeatzeko hierarkia burokratikoak zatituta daude, eta eguneroko kudeaketa gutxi-asko arautua dagoen merkatuan lehiatzen diren banako unitateen (ospitaleen, kliniken eta eskolen) esku dago. Zerbitzuen erabiltzaileak informazio gehiago duten eta aukeratzeko eskubidea baliatzen duten herritar kontsumitzaileak dira. Helburua zerbitzuak errentagarriago eta irekiago egingo dituzten sustapen neurriak ezartzea da, gobernuak aurre egin behar dien bi arazoei heltzeko (PMSU 2006). Kideko logika bat ahalmen urrikoak ez diren edo urritasun txikia duten, eta ordaindutako lanik ez duten pertsonen zuzendutako sustapen neurriak egituratzen saiatzen ari da, pertsona horiek lanean has daitezten. Banakoak kontsumitzaile proaktiboak bihurtzeko mugimenduaren beste aldaera bat aurrekontu pertsonalera aldatzearen baitan dago, esaterako, gizarte laguntzan, non baliabideak eta erantzukizuna banakora bideratu diren (SCIE 2009). Planteamendu hori eta horrekin lotutako independentziari eta aukera berdintasunari buruzko ideologia sakon jorratu dira, eta ez dira gehiago landuko (ikus Le Grand 2007, Taylor-Gooby 2009).

Gizarte zerbitzuen gobernamenduaren bigarren joera alternatiboaren arabera, pertsonak animalia sozial eta politikoak dira, besteen kezka bereizteko eta horiei erantzuteko gai dira, eta aukera kolektiboak egiteko ahalmena dute. Joera horrek aldaketa kulturalen eta hezkuntzan egin diren aurrerapenen garrantzia eta, gizarte hierarkikotik gizarte interkonektatuagora egindako bideari esker, informazio eskuratzeko aukeran, komunikatzeko ahalmenean eta gizarte testuinguruaren ulermenean aldi berri bat zabaldu izana nabarmentzen du.

Analisi horrek merkatua aukera kolektiboa mugatzen eta zuzentzen duen tresnatzat jotzen du, eta herritarrek, komunikazio eta politika eragile gisa, ez soilik eragile independente eta ekonomiko gisa, zeregin garrantzitsuagoa izan behar dutela dio. Gobernamendu molde demokratizatu eta deszentralizatu ugari daudela nabarmentzen du (Hau ere, sakon landu da: Thompson 2008, Goodin 2008a, Chambers 2003, Ryfe 2005, Stoker 2006, Renn 2008). Eztabaida politikoetan ez da hainbeste aintzat hartu.

Bi joera horiek bat egiten dute berriki Erresuma Batuan formulatu diren politiken garapenetan, Suediako, Zeelanda Berriko, AEBko eta beste toki batzuetako politiken ezaugarriak kopiatu dituzten garapenetan. Erreforma horiek erabiltzaileak kontrola zerbitzua eskaintzen dien instituzio espezifikoaren mailan berean izan dezaten sustatzen du. Adibide bat «eskola librearen» proposamenak dira, «hezkuntza lanei, guraso eta irakasle elkarteei, kooperatibei eta halakoei estatu eskola berriak, independenteak eta ez-selektiboak, abiatzea asko erraztuko dutenak» (Alderdi Kontserbadorea 2010). Eskolek estatuak finantzatzeko aukera izango dute, ez dira tokiko gobernuaren menpe egongo, eta estatuak curriculumaren (eta ziur aski onarpenaren eta gobernamenduaren) gaineko kontrol mugatuagoa izango du. Komunitatetik hurbil dauden hornitzaile independente gehiagok enpresa, kudeaketa eta, beharbada, finantzatze baliabide berriak baliatzea espero da. Zerbitzuen erabiltzaileak gogobeteko egongo dira haiek diseinatutako eta kontrolatutako zerbitzuekin. Gobernamenduaren bi helburuak lortuko dira.

Esperimentu horrek beste bide batzuk zabal ditzake gizarte politikaren garapenean. Eskola libreek herritarrek ezar dezaketen demokrazia erradikala, nahiz talde partikularretan eta norberaren beharrak eta interesak eskola abiatzerakoan identifikatzean oinarritutako indibidualismo erradikala txertatzen dute. Desoreka area-

gotzen den testuinguruetan eskolek garrantzia berezia dute, eta elkartasunaz arduratzen dira, hezkuntza gizarte mugikortasunarekin eta bere mugekin lotuta baitago. Gizarte psikologiaren saiakerek gizartearen aldeko lorpenen eraginkortasunean eragiten dute.

III. Demokrazia zuzenaren tradizioak: planteamendu habermasiarra eta anglosaxoia

Habermas eta erakunde eraldatzaileak

Arlo hau «diskurtsoaren egoera ideala» kontzeptuak biltzen duen Habermasen diskurtso normatiboaren azterketan oinarrituta dago. Ideia nagusia helburu normatiboa duen edozein diskurtsok balioak parte-hartzaile guztiengandik hartzen dituen komunikazio libre, ireki, arrazional eta globala duen mundu ideala eskatzen du, arauari buruzko diskurtso orok hori baitakar berekin. Halaber, arauari buruzko erabaki demokratikoek (adibidez, haurrak nola hezi beharko lirartekeen) gai hauei buruzko komunikazio ideala dakarte: «Eragile baten jarrera aukera arrazionalaren paradigmari egokitu dakioke ala ez, baina erabakitzeke jardueran parte hartzen dutenen komunikazio jarrera paradigmari dagokio, maila batean edo bestean, beti ere, eragileak jarduera horretan parte hartzen badu» (Habermas 2005, 40).

Jakina, parte-hartzaileen gaineko eskakizunak urriak dira (Ryfe 2005, 49, Thompson 2008 509). Zentzu horretan, parte-hartze demokratikoak ideala imajinatzen duenez eta lortu nahi duenez, eraldatzailea da. Parte-hartzaileak eraldatzen ditu, eta gizartearen aldeko helburuetara bideratutako ikaste prozesua dakar.

Hipotesi horiek bi motatako erantzunak eragin dituzte. Lehenik, jokoaren teoria, diskurtsoaren analisia, ikerketa empirikoa eta beste hainbat metodo erabiltzen dituzten aditu askok diote diskurtso batean parte hartzen dutenek, praktikan, gezurra esan dezaketela, informazioa ezkutatu dezaketela eta eztabaidan esperientziarik ez duten parte-hartzaileak baino trebeagoak izan daitezkeela edo horiek baztertu ditzaketela, horixe interesatzen baitzaie (Goodin 2008b, Ryfe 2005, 61, Stewart 2007, 1073-4). Taldeen interakzioan esperientzia handia izatea ez da baldintza egokiena (Landa *et al.* 2009). Habermasen ikuspegiaren arabera, parte-hartze demokratikoaren eragile ohikoek hausnartze irekiaren konpromiso idealetan oinarritutako helburuak dituzte.

Bigarrenik, demokraziaren alderdi eraldatzaileen eta gizartearen aldeko alderdien ideia benaz hartzen dutenek garapenaren psikologia eta taldeen interakzio esperientzien azterketa erabili dute nahi diren aldaketak lortu ote diren aztertzeko. Rosenbergekin, Piaget eta Vygotskyren ikasketa moralari buruzko teoriari jarraiki, garapen demokratikoan prestakuntza izateko testuinguruaren eta ikasteko aukeren garrantzia nabarmentzen du, haurren ideia sozial eta moralen garapena ere inguruko eraginekin eta aukerekin lotuta baitago. Esperientzia eta garapenean dauden desberdintasunek erabakitzeke interakzio ahalmenean ere desberdintasunak eragiten dituzte. «Laburbilduz, ikerketa soziopsikologikoaren eta garapenaren ikerketaren arabera, banakoak ez dira erabakitzeari buruzko teoria demokratikoak uste bezain logikoak, arrazionalak eta zentzuzkoak... herritar guztiak ez dute argudioak eratzeko, justifikazioak emateko, besteen tokian jartzeko eta norberari buruz edo bere egin dituzten egiuneei buruz kritikoki hausnartzeko ahalmen bera» (2007, 347).

Puntu horiek Habermasen ikuspuntuaren hipotesi idealistenetako batzuk zalantzan jartzen dituzte, eta, horrekin batera, esparru instituzionalek erabaki egokiak hartzeko behar diren dohainak ikasteko aukera emateko egituratuta egon beharko luketela iradokitzen dute. (Rosenberg 2007, 59-60). Puntu horiek gizartearen aldeko ikasketa sustatzen duten egoerak kontuan hartzea dakarte. Lan korrante baten arabera, espe-

rientzia kolektibo handia izatea kalterako da. Gizarte zibileko talde boluntarioetan parte hartzeak interes globalera bideratuta ez dauden iritzi anitzen banaketa bidezkoaren aurkako ikaste esperientzia ekar dezake (Theiss-Morse eta Hibbing 2005, 244). Saioei buruzko zenbait aipamen zehatzen arabera, demokrazia zuzenak asko eskatzen die parte-hartzaileei («eguneroko arrazoitze ohiturak aldatzea» baitakar, Ryfe 2005, 56) eta instituzioei (gardentasun, berdintasun eta errespetu handia eskatzen baitu, Thompson 2008, 512-3). Eta ez dira beti aintzat hartzen.

Epaimahai herritarren esperientziak (Smith eta Wales 2000, Wakeford 2002, Gooberman-Hill *et al.* 2008, Doheny eta O'Neill 2009) eta inkesta demokratikoei (Fishkin 2009, Jensen 2008, Renn 2008, c. 8) adierazten dutenez, banakoak giro irekian hainbat ikuspegi errespetuz kontuan hartzen diren egoerara iristeko gai dira, baina, horretan ere, egoerak garrantzi handia du. Interes adierazgarri guztiak biltzea funtsezkoa da eztabaida inpartziala izan dadin.

Eztabaida horrek demokrazia zuzenaren kontzeptu eraldatzailea zabaltzen du, eta esparru instituzionalen garrantzia nabarmentzen du. Habermas interakzioak berekin dakartzan gizartearen aldeko arauetatik abiatzen da. Beste lan batzuek arauen ahalezko aniztasuna nabarmentzen dute, baina baita instituzioek arauak sortzeko duten ahalmena ere. Nudge ekonomiak lehen puntuan laburbildutako oztopoei aurre egiten die, baina ez du bigarren puntuan iradokitako arauari buruzko ikaste esparrua eskaintzen. Gobernamendu demokratizatuaren interakzio kolektiboak egin dezake, baldin eta parte-hartzaileek interes guztiak biltzeko konpromisoa hartzen badute, elkarren arteko desberdintasunak onartzen badituzte eta, horretarako egokia den eta hori bultzatzen duen testuinguruan, berdinak bailiran jokatzeko badute.

Tradizio liberal indibidualista

Demokrazia erabakitzailearen tradizio anglosaxoiak ere egoera eta diseinu instituzionala nabarmentzen ditu. Oinarria herritarren kontzeptu liberalagoa eta indibidualagoa da, tradizio europarraren gizarte, hezkuntza eta erantzun ereduaren orde. Banakoek gai komun bat konpontzeko eta interes guztiei erantzuteko jokatzeko aukeratu dezakete. Arazo nagusietakoa Olsonek (1965) eta Hardinek (1978), edo, lehenago, Hobbesek eta beste askok artikulatu zutena da: interes desberdinak dituzten eta, besteen helburuen aurka, beren helburuak lortzeko jokatzeko duten banakoen artean, nola lor daiteke konfiantzan oinarritutako elkarlan zabalak? Horregatik, oso interesgarriak dira prozesu horiek enpirikoki aztertzen dituzten lanak, bereziki, Ostromek baliabide komunak kudeaketari buruz egin zuen ikerketa, pertsonak banaketa negoziatzen duten joko esperimentalen azterketa eta benetako bizitzako parte-hartze esperimentuak.

Ostromek banakoen taldeek baliabide komunak egoki kudeatzen dituzten hainbat kasu aztertu zituen (ur eskubideak, arrain populazioak, kutsaduraren kontrola). Interes indibidualak bilatzeak baliabideen erreserba berehala murriztuko lukeen arren, Ostromek hainbat arau orokor aurkitu zituen. Hauek dira garrantzitsuenak: baliabide sisteman ondo zehaztutako mugak ezartzea, etekinen eta kostuen arteko baliokidetasun proportzionala, aukeraketa kolektiborako neurriak, jarraipena egitea, baimen mailakatuak, gatazkak konpontzeko mekanismoak, sistema handiagoen parte diren baliabideetan gobernuak eta enpresek ez nahastea (Ostrom 2010b, 18). Ostrom hipotesi indibidualista zehaztatetik abiatzen da (*Governing the Commons*, 2005, jokoaren teoriaren norik bere buruarekiko jarrera ereditatik abiatzen da).

Egile horren arabera, informazioaren ziurgabetasunaren eta akats, ustelkeria eta eragin politiko arriskuen eraginez, kanpo agintaritzek ezin dituzte baliabideak bermatu; banako eragileek, ordea, bai. Banakoak

egoera horretara egokitu daitezke, eta ondasunak kudeatzen ikas dezakete, taldeko arauak eboluzionatzen duten prozesuan. Testuinguru horretan, ospe fidagarriak ezartzeko banakoek duten konfiantza eta ahalmena funtsezkoak dira. Estatuaren kanpo interbentzioak ezin du hori eman (2010a, 71). Ostromen lana banakoen ekintza arrazionaletik hasi eta arau esparru kolektibo eta iraunkorretaraino iristen da.

Baliabide partekatuei buruzko jarrera eredu experimental asko bat datoz (ikus Bowles *et al.*, 2005, Camerer eta Thaler 1995, Sally 1985). Eredu horiek baliabide partekatuak ekoizteko jokoetan oinarritzen dira, eta, akordiorik ezean, banakoek beren interes hurbilenei erantzuteko moduan diseinatuta daude. Orduan, taldeek nola jardun dezakete urruneko interes komun baten aldeko elkarlanean? Ikerketak adierazten du joko horietan parte hartzen dutenek berehala arauak eta baimenak sortzen dituztela, ihes egiteko arriskua murrizteko eta banakoak, baimenak betetzearren, etekin pertsonalei uko egiteko prest egon daitezen (Gintis 2005, c. 1). Interes pertsonalak dituzten banakoek interes komuneko arauak sortu eta atxiki ditzakete, eta horiek betetze-ko joera dute, aurrez jorratutako psikologia sozialak erakusten duenez.

Ziur aski, gehien aipatu den demokrazia zuzenaren adibide positiboa Brasilgo Porto Alegreko aurrekontu parte-hartzaileen esperimentua da. Ekimen horren arrakasta herritar anitzek, auzo taldeen bidez, aurrekontu eztabaidatan parte hartzea lortzeko ahalmenean datza, talde guztien interesak bildu ahal izateko, eta hori «urrun dago antzeko beste saio batzuetatik» (Baiocchi 2001, 43, 64).

1999az geroztik, Munduko Bankuaren Pobrezia Murrizteko Estrategia Dokumentuetan laguntza lortzeko baldintza nagusietakoa parte-hartze orokorra da (munduko Bankua 2010). Horren ondorioz sortu diren ekimen askok porrot egin dute, gizarte zibileko taldeek berdintasunean konpromisoa hartzea lortu ez delako. Esaterako, Boliviako Elkarrizketak ez zituen talde interesatu guztiak bildu, bereziki emakumezkoak eta indigenak, enpresa txikiak, *Enlaceren* alde egin zutelako eta elizako taldeak kontsulta foroetan nagusitu zirelako (Morrison eta Singer 2007). Halaber, Habersen (2007) arabera, Mexiko Hiriko auzo programek gutxien politizatutako zenbait talde kanpoan utzi zituzten, eta horrek zenbait eremutan babes demokratikoa lortzeko ahalmena urritu zuen. Ayletek antzeko ondorioetara iritsi da Durbaneko ingurumenari buruzko ekimenen arrakasta mugatua aztertzean (2010).

Erresuma Batuan egindako beste lan batzuek tokiko gobernuan parte hartzeko programen esperientzia bildu dute (Pratchett *et al.* 2009). Ondorio praktikoa parte-hartze eta konpromiso jarduerak arrakastarako baldintza bertsuak izan behar dituztela da: garrantzitsuena talde guztiek benaz hartzen dituztela ikustea, informazio garrantzitsua eskuratzeko benetako aukera izatea, eztabaida eraginkorrean parte hartzea eta beren parte-hartzeak gauzak aldatzeko eta erantzunak emateko balio duela sentitzea da. Eskalen arteko aldeek (Bochel *et al.* 2008) nahiz parte-hartzaileen eta tokiko gobernuaren ahalmenak (Somerville eta Harris 2008, 76) baldintza horien ahultzen dituzte, eta parte-hartzea kaltetzen dute.

Demokrazia zuzenaren eta parte-hartze ariketen azterketa enpirikoan, arrakastaren baldintzak identifikatzeko, bereziki, ikuspegi anglosaxoia hartu dute kontuan. Iruzkin askok lau faktore nagusi aipatzen dituzte: taldeetan, banakoek status bera izan behar dute, eta diskurtso «begirunetsu eta eraikitzailean» parte hartu behar dute (Thompson 2008, 507); eztabaida gizartearen aldeko helburuetara bideratu behar da; parte-hartzaile guztiek inplikatu behar dute (Renn 2008, c. 2); eta jarduera emaitzak lortzeko prestatu behar da (Stoker 2005, 96). Lehen hiruek Habermasen ikuspegia jasotzen dute, eta laugarrena edozein parte-hartze jardueran kontuan hartu beharreko kontu praktikoa da. Bi tradizio nagusiak ez datoz bat herritarren status sozialari eta orientazioari dagokienez (Robinson Crusoe ala animalia soziopolitikoak diren) nahiz aldatzeko ahalmenari dagokienez. Hala ere, bide desberdinetatik antzeko ondorioetara iristen dira:

arau partekatuei jarriki, gizartearen aldeko parte-hartze eraginkorra posible da, baina hein handi batean parte-hartzea egiten den esparru instituzionalaren menpe dago. Erabakitzaile demokratikoen taldean harremanak orekatuak, irekiak eta aniztasunarekiko begirunetsuak izan behar dute. Taldearen eta gizartearen arteko harremanean, interes guztiak aintzat hartu behar dira, eta agintaritzak erantzun egin behar du.

IV. Talde psikologia eta gobernamendu deszentralizatua

Gobernuaren erreforman eztabaidatutako demokratizatze eta deszentralizatze jarduerak eremu oso zabala hartzen dute. Puntu hauetan bat egiten dute: banakoak benaz hartu behar dira, erantzun behar dute, eta interes aniztasunean eutsiko dion hitzarmen iraunkorra bilatu behar dute. Masak kontsultatzeaz harago doazen jarduera guztietan, talde handiaren izenean erabakiko duen talde txikiagoa osatu behar da. Gizarte eta talde psikologiaren ondorioek gizarte testuinguru globalarekin nola erlazionatzen diren ulertzen laguntzen dute.

Garbi ezarritako ondorioetako bat talde joerari buruzkoa da (Stoner 1961). Talde batekoa izatearen eta taldeko interakzioaren eraginez, banakoek aurretik taldeko kideek zuten jarreraren batez bestekoa baino muturrekoagoa den jarrera hartzeko joera dute. Gehiengoaren iritzia indartzen eta gutxiengoarena gutxies-ten duten prozesuen eraginagatik gertatzen dela argudiatu ohi da, dinamika hori askotan gertatzen delako. Batez besteko iritzia adierazi ordez gehiengoarena adierazten duten taldeetan, lidergoak porrot egin dezake (Breakwell 2007). Puntu hori xehetasunez aztertu du Sunsteinek epaimahai eta talde erabakiei buruzko esperimentuen analisiaren bidez, banako indartsuen eraginak, hurbileko banakoek proba errepikatuak sendotzeak eta gutxiengo iritzia adierazteko uzkur agertzeak gehiengoaren iritzia finkatzea dakarrela baieztatzen. «Informazioaren gizartean» komunikazio orokortu eta azkarrak duen eraginaren kritika sofistikuaren parte da hori (adibidez, Sunstein 2006, c.1).

Lan berriagoek argudio horiek indartu dituzte, taldearen iritzia oreka manipulatzeko esperimentuek emaitzetan eragin dezaketela erakutsiz (adibidez, Levine *et al.* 2000). Horrek guztiak adierazten du demokrazia deszentralizatuetan ordezkari batzordeen, erabaki taldeen eta antzeko eragileen funtzioan mugak egon daitezkeela, taldeen barne dinamika batez besteko iritzia ordezkatzeko ez duen moldeetara hurbildu baitaiteke. Egile askok jorratu dituzte prozesu aringarriak. Fishkinek erabaki inkestak esperimentuetan taldeak iritzi liderrek agertzeko aukera gutxi izan zezaten egituratu zituen, eta, Thompsonen arabera (2008), egitura horrek taldeak gizartearen iritzi globalak ordezkatzeko eta horiei erantzuteko gai izatea azaltzen du (ikus, gainera, Renn 2008, 318-9). Aztertutako egile guztiek taldeak ordezkatzeko dituzten interesekin estuki lotuta ego- tearen garrantzia nabarmentzen dute, eta, gainera, gizarte testuinguru globaletan informazioa eta harremanak eskura izan behar dituztela diote. Beste alderdi batzuek banakoak interes partikularrekin ala taldeekin soilik eta estuki zer mailatan bat egiten duten jorratzen dute, eta gizarte taldeetako zeharkako kide izatearen nahiz erabaki taldeen identitateen garrantzia nabarmentzen dute (Brown 2008).

Ziur aski, talde teoriari egindako ekarpen garrantzitsuenak Tajfelena da (Tajfel 1978, Tajfel eta Turner 1981, ikus Brown 2008). Hasieran, Tajfel arrazakeriarekin eta aurreiritziarekin lotutako prozesu psikologi-koen interesatuta zegoen. Bere lankideekin batera, Festingerren erkaketa sozialaren teoria originala eta taldeko/taldeaz kanpoko analisiak garatu zituen (Sherif 1954), taldeko kide izateak eta taldeko identitateak jo- kabidean duen eragina aztertzen. Sailkapena oinarritzakoa da mundua, edozein mailatan eta nominalismo hutsaren gaintik, kontzeptualizatzeko. «Sailkapena taldeen arteko harremanen gizarte psikologia modernoaren erdian [datza]» (Oakes 2001, c. 1). Tajfelek dio pertsonen, banako gisa, taldeko kide izatearen bidez eta

beste taldeko kide gisa sailkatutakoengandik bereizita sailkatzen dutela beren burua: «norberaren definizioa testuinguru sozial batean» (1978, 61). Gizarte identitatea taldeko kide direnen eta ez direnen bereizketarekin estuki lotuta dago.

Ikuspuntu horrek fenomeno sozial guztiak aztertzea lortu du, eraso, aurreiritzia, identifikatzea eta motibazioa barne, eta hiru prozesu biltzen ditu. Abiapuntua gizarte sailkapena egiteko behar kontzeptuala da. Taldearen identitateak norberaren ebaluazioan eragiten du. Horrek beren taldea beste taldeekin alderatuta ebaluatzen duten taldeen arteko eraketak egitea errazten eta eskatzen du (Tajfel eta Turner 1979; ikus Brown, 2008, 311-5). Norberaren taldeko gainerako kideak ere ebaluatzen dira, eta horrek taldean gizartearen aldeko arauak sortzea errazten du.

Analisi horrek interes gatazkak dituzten banakoei gizartearen aldeko irtenbideak lortzen laguntzen dieten prozesu psikologikoen azalpen egokia ematen dute, «Komunen Tragedia» delakoarekin lotuta edo lehen aztertutako Gintisen hautaketa kolektiboko jokoetan. Baliabide komunak kudeaketan edo jokoen interakzioetan, banakoak talde gisa sailkatzen dira. Identitate komunak kideen arteak konponbidea sortzeko eta atxikitzeko ohiko ahalmen nahasgarria indartzen du. Kanpoko interbentzioek talde prozesu horiei eragiten diete.

Ikerketa berriagoek talde identitateari eta sailkapenari buruzko argudioak zabaldu dituzte. Postmesek eta beste batzuek (2005) gizarte taldeak sortzeko barne eta kanpo prozesuei buruzko lana osatu dute. Tajfelen ikusmoldeak identitatea eraikitzea norberak, kanpoko munduaren aurrean, bere burua talde bateko kide gisa sailkatzean oinarritzen dela aztertzen du. Gizartearekiko interakzioaren bidez egin ordez antzeko taldeekiko interakzioaren bidez egiten diren talde barruko balioeste prozesuek eta lehen jorrotutako indartzeak talde identitate sendotuko dute. Hainbat esperimentu lanek teoria hori babesten dute.

Zomerenez konpromiso emozionala erantsi du, eta talde bateko kide izatea sinpatia eta konfiantza sentimenduen bidez sortu eta indartu daitekeela azaldu du (2008). Spensek mugimendua lan psikologikoan aztertu du (Gigerenzerrekin alderatuta), maiz orokortzen diren baina irrazionalak eta kaltegarriak diren prozesuak nahiz prozesu moldagarri eta eraginkorrak interpretatzeko. Talde identifikazioak maiz taldeko kideen interesei erantzuten diela dio (2010). Hala ere, talde identitateak taldearen gizartearen aldeko joera indartu dezakeen arren, ikuspuntu hori ezin da gizarte osora zabaldu (Dryzek eta Braithwaite 2000, Brown 2008, 341-60).

Tajfelen teoriak demokrazia deszentralizatuaren teorietan interakzio orekatuak, begirunetsuak eta gardanak sustatzeko beharrezkoak diren talde arauak sortzea ahalbidetzen duten prozesuak azaltzen ditu. Hori arretaren eta konpromisoa gizarte eremu zabaletik aldentzearen kontura egiten da, eta funtsezkoa ere bada, konpromiso publiko prozesu horiek talde zehatz batek komunitate handiago baten interesak ordezka ditzan ahalbidetzen badute. Horregatik, hainbat adituk, esaterako, Brownek (2008, 341-54), kanpoko gizarteari eta zeharkako talde identitatei buruzko informazioaren garrantzia nabarmentzen dute.

Garapen politiko berrien garrantzia

Puntu horiek demokrazia deszentralizatuaz aztertzerakoan garatutako argudio batzuk indartzen dituzte. Erabakitzeko taldeen barruko prozesuek berdinak eta irekiak izan behar dute. Taldearen jarduerak ikuspuntu globala eta komunitateari irekia ahalbidetu behar du, eta gizartearen kezak jaso behar ditu. Ondorioetako bat hezkuntza librearekin lotutako prozesuak eta jarrera politikoak baldintza horiek betetzeko aukera gutxi izatea da.

Biztanle gehienak bizi diren hiriguneetan, banakoen eskolek auzo jakin bateko haurrak onartzen dituzte, eta beste auzoetakoak, aldiz, ez. «Gurasoek, ia beti... maila akademiko altuko eskolak lehenesten dituzte» (Burgess *et al.* 2009, 33). Hezkuntzari dagokionez guraso gehienek gutxi gorabehera gauza bera nahi dutenez eta eskolak ikasleak erakartzeko ahalmenaren arabera finantzatzen direnez, eskolak zuzenean lehiatzen dira. Edozein eskoletako jarduerak ikasleen gurasoei eskolaren kudeaketan parte hartzea ahalbidetzen duen sistemaren barruan ez dauden interesetan eragiten dute.

Hezkuntza librearen ikuspuntuak eta gizarte zerbitzuetako antzeko ekimenek beren interes propioetan inplikaturakoen arreta bereganatzen dute, eta, gizartearen alde kezkak indartu ordez, norbera indartzea sustatu dezaketen lidergo sistemak errazten dituzte. Testuinguru horretan, taldeko kideek partekatzen dituzten interesei erantzuten dieten arauak ezarri eta baimendu daitezke, baina gizartearen kezkak ordezkaturako direla bermatzen duen mekanismorik ez dago.

Autore askok gurasoen eta komunitatearen konpromisoa mobilizatzeko eta onarpen publikoa zabalagoa lortzea xede zuten hezkuntza sistema anitzak eta deszentralizatuak ezartzeko ahaleginen historia aztertu dute. Hauek izan dira emaitzak: eskolen arteko zatiketa soziala, hautatze arauak gorabehera; aukera berdintasuna; eta finantzatze politiken berdintasuna. Azterketa horrek hainbat eskoletako politikari buruz berriki egin diren ikerketak barne hartzen ditu, hala nola eskola erlijiosoak (Ball 2008, Machin 2009), matrikula irekiko mekanismoak buruzko azterketa (Burgess *et al.*, 2005), esparruetan oinarritutako sistemen analisia (Leech *et al.* 2003), biltze irekiko sistemena (Gewirth *et al.* 1995), konpetentzia sistema globalak (Gibbons *et al.* 2008), laguntza lekuak eskola pribatuetan (Whitty *et al.* 1998) eta Europa Iparraldeko hezkuntza librea (Bohlmark *et al.* 2008, Allen, 2010). Eremukako edo eskolako gabezia neurrien arabeko alderantzizko baliabide politiki esker, emaitzak pixka bat hobetu dira (Lupton *et al.* 2009, 4.3. irudia). Ongizate estatuaren instituzioen bidez demokrazia zabaltzeak alde guztien konpromisoa eskatzen du. Hau da, interes guztiak bilduko dituen sistema behar da. Hezkuntzan, hori banakoen eskolaren gainetik dagoen mailan egin beharko litzateke.

V. Ondorioa: Psikologia eta ataka politikoa

Demokratizatzeari buruzko lanen arabera, herritarrak interes publikoei buruzko erabaki egokiak hartzeko gai dira, baina parte-hartzea bideratzen duten instituzioek interes adierazgarri guztiak bilduko dituztela eta interakzio zuzen eta begirunetsua sustatuko dutela bermatu behar da. Interakzio horrek emaitza positiboak izan ditzake, eta, batzuetan, eraldatzaileak. Talde interakzioen psikologian egin diren saioek argudio horiek indartzen dituzte: interes guztiak jasotzea beharrezkoa da taldearen joeraren eragina mugatzeko; parte-hartze bidezkoak taldean gizartearen aldeko arauak bultzatu ditzake.

Bi eremuetan taldearen eta komunitate orokorraren arteko erlazioa nabarmentzen da. Soilik interes guztiak kontuan hartzen dituzten taldeek bereganatu dezakete demokratizatze ekimenetako talde guztian konpromisoa; talde psikologiak taldean sartzeko edo taldeaz kanpo uzteko prozesuak nabarmentzen ditu, gizartearen interes orokorrak gutxiesten edo baztertzen dituzten taldeetan arauak sor ditzaketen prozesuak. Bi kasuetan diseinu instituzionala funtsezkoa da.

Beste ondorio bat taldeek kontrolatutako ekimenek, esaterako, hezkuntza libreak, arduradun politikoek aurre egin ohi dieten arazoak konpon ditzaketela da: eskola bateko erabiltzaileen berehalako interesak aintzat hartzeak kudeaketa eta finantzatze baliabide berriak ekar ditzake. Herritarrak zuzenean inplikaturak dauden

hori babesteko prest daude. Ikusmolde horrek gizartearen interes orokor ahulduak arriskuan jartzen ditu, zaila baita eskolek inguruko interes guztiak aintzat hartzea eta, hala, baztertze prozesuek kontuan hartzen ez diren interesak kaltetu ditzakete, eta gizartearen onarpena ahuldu dezakete.

Artikulu honek azterketa psikologikoa erabiltzen du talde erabakitzaileek jaso ez dituzten interesak kontuan hartzeko ahalmena talde prozesuek nola ahultzen duten aztertzeko. Analisi psikologiko askok indibidualismo enpirikoan eta ez-axiomatikoan oinarrituta daudenez (hein batean, indibidualismo liberaletik gertu egon arren), banakoarekin lotutako elementu psikologikoen arteko erakarriak dute. Beste psikologia lan batzuen arabera, gizakiek, gizarte eragile gisa, arauak sortu, bete eta aldatzen dituzte, eta gutxi-asko inklusiboak diren gizarte instituzioen barruan egiten dute. Horrek ondorio erradikal era desafiatazaileak dakartza, deszentralizatzeko demokratikoak taldeak barne hartzeko edo baztertzeko ahalmena duela eta, beraz, bidegabekeriaren nahiz demokraziaren motor bihurtzen dela esan nahi baitu.

Oro har, beren interesak bultzatzeko banakoek zein gizarte taldeek duten ahalmenaren eta hitzarmen global eta inklusiboagoa sustatzeko gobernuak duen ahalmenaren arteko tentsioa sortzeko arriskua dute giza eskubideen aldeko ikusmoldeek. Giza eskubideak beharrezkoak dira demokrazia eraginkorra lortzeko. Horrez gain, gizartean helburu demokratiko globalak lortzeko aukera mugatzen duten guneak sortzeko moduan definitu eta gauzatu daitezke. Biltzar honek giza eskubideetan oinarritutako Europa sozialaren etorkizunari buruzko diskurtsoa garatzeko balio badu, gizarte zerbitzu modernoak ahalbidetu zituzten eskubide demokratiko eta politikoak lehenetsi behar ditu.

Erreferentziak


- Allen, R. (2010), «Replicating Swedish “free school” reforms in England», *Research in Public Policy*, Summer 4.-7. or.
- Asch, S. (1951), «Effects of group pressure upon the modification and distortion of judgment», in H. Guetzkow (arg.), *Groups, Leadership and Men* Carnegie, Pittsburgh.
- Aspalter, C.; Jinsoo, K. eta Sojeung, P. (2009), «Analysing the welfare state in Poland, the Czech Republic, Hungary and Slovenia», *Social Policy and Administration*, 43, 2, 170.-185. or.
- Atkinson, A. (2007), «The distribution of earnings in OECD countries», *International Labour Review*, 146, 2, 41.-60. or.
- Aylett, A. (2010), «Participatory planning, justice and climate change in Durban», *Environment and Planning, A*, 42, 99.-115. or.
- Ayoubkhani, D.; Baird, A.; Munro, F. eta Wild, R. (2010), «Education productivity», *Economic and Labour Market Review*, 4, 1, 55.-60. or.
- Bächtiger, A. eta Hangartner, D. (2010), «When deliberative theory meets empirical social science», *Political Studies*, 58, 4.
- Baiocchi, G. (2001), «Participation, activism and politics», *Politics and Society*, 29, 1, 43.-72. or.
- Baldwin, P. (1990), *The Politics of Social Solidarity*, Cambridge.
- Ball, S. (2008), *The Education Debate*, Policy Press, Bristol.
- Blanden, J. eta Machin, S. (2007), *Recent Changes in Intergenerational Mobility in Britain*, Sutton Trust report.
- Bochel, C. eta H.; Somerville, P. eta Worley, C. (2008), «Marginalised or enabled voices?», *Social Policy and Society*, 7, 2, 201.-210. or.

- Bohlmark, A. eta Lindahl, M. (2008), «Does school privatisation improve educational achievement? Evidence from Sweden», IZA DP 3691.
- Bowles, S.; Fong, C. eta Gintis, H (2001), *Reciprocity and the Welfare State*, Westview Press, Boulder Co.
- Breakwell, G. (2007), *The Psychology of Risk*, Cambridge University Press.
- Brown, R. (2008), *Group Processes*, Blackwell's, Oxford.
- Burgess, S.; Greaves, E.; Vignoles, A. eta Wilson, D. (2009), *What Parents Want*, wp 09/222, CMPO, Bristol.
- Burgess, S.; Propper, C. eta Wilson D. (2005), *Will more choice improve outcomes in health care and education?* CMPO, Bristol.
- Camerer, C. eta Thaler, R. (1995), «Ultimatums, dictators and manners», *Journal of Economic Perspectives*, 9, 23, 209.-219. or.
- Chambers, S. (2003), «Deliberative democratic theory», *Annual Review of Political Science*, 6, 307.-326. or.
- Chhotray, V. eta Stoker, G. (2008), *Governance Theory and Practice: A Cross Disciplinary Approach*, Basingstoke: Palgrave.
- Clarke, J.; Newman, J. eta Westmarland, L. (2008), «The antagonisms of choice», *Social Policy and Society*, 7, 2, 245.-55. or.
- Conservative party (2010), *Manifesto*, http://www.conservatives.com/Policy/Where_we_stand/Schools.aspx
- Corak, M. (arg.) (2004), *Generational Income Mobility in North America and Europe*, Cambridge.
- Doheny, S. eta O'Neill, C. (2009), «Becoming deliberative citizens», *Political Studies*, Early View.
- Dryzek, J. eta Braithwaite, V. (2000), «On the prospects for democratic deliberation», *Political Psychology*, 21, 2, 241.-66. or.
- Esping-Andersen, G. (1999), *Social Foundations of Post-industrial Economies*. Oxford: Oxford University Press.
- EB (2000), *Charter of Fundamental Rights of the European Union* 364/01, Europako Parlamentua.
- EB (2008), *Renewed Social Agenda*, <http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=547> 2009.02.26
- Festinger, L. (1957), *A theory of cognitive dissonance*. Stanford University Press.
- Fishkin, J. (1993), *Democracy and Deliberation*, Yale University Press.
- Fishkin, J. (2009), *When the People Speak*, Oxford University Press.
- Fitzpartick, M. (2005), «Why can't the Daily mail eat humble pie over MMR?», *BMJ*, 331, 1148, 12 Azaroa.
- Furedi, F. (2002), *Culture of Fear*, Continuum.
- Gewirth, S.; Ball, S.J. eta Bowe, R. (1995), *Markets, Choice and Equity*, Open University Press.
- Gibbons, S.; Machin, S. eta Silva, O. (2008), «Choice, competition and pupil achievement», *Journal European Economic Association*, 6, 4, 912.-947. or.
- Giddens, A. (1994), *Beyond Left and Right*, Polity Press, Cambridge.
- Gigerenzer, G.; Todd, P. eta ABC Ikerketa Taldea (1999), *Simple heuristics that make us smart*, Oxford University Press.
- Gigerenzer, G. eta Brighton, H. (2009), «Homo heuristicus», *Topics in cognitive Science*, 1, 107.-143. or.
- Gilbert, N. (2002), *Transformation of the Welfare State*, Oxford University Press.
- Gintis, H.; Bowles, S.; Boyd, R. eta Fehr, E. (2005), *Moral Sentiments and Material Interests*, MIT Press, Cambridge, Mass.
- Glennerster, H. (2009), *Understanding the Finance of Welfare: What it costs and how to pay for it* Bristol: Policy Press
- Goldstein, N.; Cialdini, R. eta Griskevicius, V. (2008), «A room with a viewpoint», *Journal of Consumer Research*, 35.
- Gonzalez, C. eta Tyler, T. (2008), «The psychology of enfranchisement», *Journal of Social Issues*, 64, 3, 447.-66. or.

- Goberman-Hill, J.; Horwood, J. eta Calnan, M. (2008), «Citizens' juries in planning research priorities», *Health Expectations*, 11, 3, 272.-281. or.
- Goodin, R. (2008a), *Innovating Democracy*, Oxford University Press.
- Goodin, R. (2008b), «Deliberative lies», *European Political Science*, 7, 194-8.
- Greener, I. (2008), «Choice or voice?», *Social Policy and Society*, 7, 2 197-200.
- Grodzins, M. (1958), *The Metropolitan Area as a Racial Problem*, Pittsburgh: University of Pittsburgh Press.
- Guardian (2009), «Jobless to be offered "talking treatment" to help put Britain back to work», *Guardian egunkaria* 2009.12.04
- Guardian (2010), «Health regulator to recommend minimum alcohol price?», *Guardian egunkaria*, maiatzak 30.
- Habermas, J. (2005), «Concluding comments on empirical approaches to deliberative politics», *Acta Politica*, 40, 384.-392. or.
- Harbers, I. (2007), «Democratic deepening in third wave democracies», *Political Studies*, 55, 38.-58. or.
- Hardin, G. (1968), «The Tragedy of the Commons», *Science*, 162, 1243-8. or.
- Hargreaves-Heap, S.; Hollis M.; Lyons, B.; Sugden, R. eta Weale, A. (1992) *The Theory of Choice* Blackwell, Oxford.
- HM Treasury (2009), *Long-term public finance report*, http://www.hm-treasury.gov.uk/d/pbr09_publicfinances.pdf.
- IMF (2009), *Fiscal Implications of the Global Economic and Financial Crisis* IMF Staff Position Note SPN/09/13 Washington DC: IMF.
- Jantii, M., Røed, K., Naylor, R., Björklund, A., Bratsberg, B., Raum, O., Österbacka, E. eta Eriksson, T. (2006), *American Exceptionalism in a New Light*, IZA DP 1938.
- Landa, D. eta Meirowitz, A. (2009), «Game theory, information and deliberative democracy», *American Journal of Political Science*, 53, 2, 427.-444. or.
- Le Grand, J. (2007), *The Other Invisible Hand*, Princeton University Press.
- Leech, D. eta Campus, E. (2003), «Is comprehensive education really free?», *J Royal Statistical Society*, 166, 1, 135.-154. or.
- Levine, J.; Higgins, E. eta Choi, H. (2000), «Development of strategic norms in groups», *Organisational Behaviour and Human Decision Processes*, 82, 1, 88.-101. or.
- Lupton, D.; Heath, N. eta Salter, E. (2009) «Education», in Hills, J.; Sefton, T. and Stewart, K. (2009), *Towards a More Equal Society*, Policy Press, Bristol.
- Machin, S. eta Wilson, J. (2009), «Academy Schools and pupil performance», *Centrepiece*, 2009ko udaberria CEP, Londres.
- Meyer, T. eta Bridgen, P. (2008), «Class, gender and chance», *Ageing and Society*, 28, 353.-381. or.
- Modood, T. (2005), *Multicultural Politics*, Edinburgh University Press, Edinburgh.
- Morrison, K. eta Singer, M. (2007), «Inequality and deliberative development», *Development Policy Review*, 25, 6, 721.-740. or.
- Nelson, T., Oxley, Z. eta Clawson, R. (1997), «Toward a psychology of framing effects», *Political Behavior*, 19, 3, 221.-246. or.
- Nolan, J.; Schultz, P.; Cialdini, R.; Goldstein, N. eta Griskevicius, V. (2008), «Normative influence is undetected», *Personal Social Psychology Bulletin*, 34, 913.-923. or.
- Norris, P. (arg.) (1999), *Critical Citizens*, Oxford University Press, Oxford.
- Oakes, P. (2001), «Categorisation; the root of all evil?», in Brown, R. and Gerther, S. (arg.), *Intergroup Processes*, Blackwell, Oxford.
- OECD (2009), *Economic Outlook*, 85, Ekaina, OECD, Paris.

- Offe, C. (1996), *Modernity and the State: East, West*. Cambridge: Polity.
- Olson, M. (1965), *The Logic of Collective Action*, Harvard University Press.
- Ostrom, E. (1990), *Governing the Commons*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Ostrom, E. (2010a), «The challenge of the common pool», *Environment*, 50, 4, 8.-20. or.
- Ostrom, E. (2010b), «Revising theory in the light of experimental findings», *Journal of Experimental Behaviour and Organisation*, 73, 68.-72. or.
- Palier, B. eta Martin, C. (2008), *Reforming the Bismarckian Welfare Systems*, Blackwell, Oxford.
- Penaloza, M.; Hardie, M.; Wild, R. eta Mills, K. (2010), «Public service outputs inputs and productivity: health care», *Office for National Statistics*, Londres.
- Pierre, J. (2009), «Reinventing governance, reinventing democracy?», *Policy and Politics*, 37, 4, 591.-609. or.
- Rhodes, R. (1997), *Understanding Governance*, Open University Press, Milton Keynes.
- PMSU (2006), The UK Approach to Public Sector Reform, July, http://www.cabinetoffice.gov.uk/strategy/work_areas/public_service_reform.aspx,
- PPI (2010), *What could the coalition government mean for pensions policy?* BN 56, <https://www.pensionspolicyinstitute.org.uk/>
- Pratchett, L.; Durose, C.; Lowndes, V.; Smith, G.; Stoker G. eta Wales, C., (2009), *Empowering Communities*, Department for Communities and Local Government.
- Renn, O. (2008), *Risk governance: coping with uncertainty in a complex world*, Earthscan, Londres.
- Rosenberg, S. (2007), «Rethinking democratic deliberation», *Polity*, 39, 335.-360. or.
- Ryle, D. (2005), «Does deliberative democracy work?», *Annual Review of Politics*, 8, 49.-71. or.
- Sally, D. (1985), «Conversations and co-operation in social dilemmas: a meta-analysis 1958-92», *Rationality and Society*, 7, 58.-92. or.
- Schroeder, M. (2009), «Integrating welfare and production typologies», *Journal of Social Policy*, 38. 1. 19.-45. or.
- Schultz, P.; Nolan, J.; Cialdini, R.; Goldstein, N. eta Griskevicius, V. (2007), «The constructive, destructive and reconstructive power of social norms», *Psychological Science*, 18, 5, 429.-434. or.
- SCIE (2009), *The Implementation of Individual Budgets in Adult Social Care*
- Seeleib-Kaiser, Martin (2002), «A Dual Transformation of the German Welfare State?», *West European Politics* 25, 4, 25.-48. or.
- Sherif, M. (1937), «On the self-erasing nature of errors of prediction», *Sociometry*, 1, 90.-98. or.
- Sherif, M. (1954), «Experiments in group conflict», *Scientific American*, 195, 54.-58. or.
- Simpson, H. (2007), «Productivity in the Public Services», wp 07/164 CMPO, Bristol.
- Slovic, P. (2000), *The Perception of Risk*. Londres: Earthscan.
- Smith, G. eta Wales, C. (2000), «Citizens' juries and deliberative democracy», *Political Studies*, 48, 51.-65. or.
- Smithers, A. eta Robinson, (2010), *Worlds Apart*, Sutton Trust, <http://www.suttontrust.com/annualreports.asp>
- Somerville, P. eta Haines, N. (2008), «Prospects for local co-governance», *Local Government Studies*, 34, 1, 61.-79. or.
- Spears, R. (2010), «Group rationale, collective sense», *British Journal of Social Psychology*, 49, 1.-20. or.
- Stewart, K. (2007), «Write the rules and win», *Public Administration Review*, November, 1067.-1076. or.
- Stoker, G. (2006), *Why Democracy Matters*, Palgrave, Basingstoke.
- Stoker, G. (2010), *Nudge economics*, PST2020 Trust working paper.
- Stoner, J. (1961) «A comparison of individual and group decisions involving risk», Thesis, quote' in Brown 2008.
- Sunstein, C. (2006), *Infotopia: How Many Minds Produce Knowledge*, Oxford University press, Oxford.
- Synnøve, H. (2008), «Deliberative democracy in practice», *Acta Politica*, 43, 71.-92. or.
- Tajfel, H. (1978), *Differentiation between Groups*, Academic press, Londres.

- Tajfel, H. eta Turner, J. (1981), «An integrative theory of intergroup conflict», in Austin.W. eta Worchel, S. (1979), *Social Psychology and Intergroup Relations*, Wadsworth, Belmont, California.
- Taylor-Gooby, P. (2004), *Psychology, Social Psychology and Risk*, SCARR WP 3, <http://www.kent.ac.uk/scarr/>
- Taylor-Gooby, P. (2009), *Reframing Social Citizenship*, Oxford University Press, Oxford.
- Thaler, R.H. eta Sunstein, C.R. (2008), *Nudge*, Yale University Press, New Haven.
- Theiss-Morse, E. eta Hibbing, J. (2005), «Citizenship and civic engagement», *Annual Review of Political Science*, 8, 227.-249. or.
- Thompson, D. (2008), «Deliberative democratic theory and empirical political science», *American Review of Political Science*, 11, 497.-520. or.
- Timonen, V. (2003), *Restructuring the Welfare State*, Edward Elgar, Cheltenham.
- Tversky A. eta Kahnemann, D. (1974), «Judgement under uncertainty: heuristics and biases», *Science*, 185, 1124.-1131. or.
- Tversky, A. eta Kahnemann, D. (1981), «Framing of decisions and the psychology of choice», *Science*, 21, 453.-458. or.
- Vis, B. (2010), *The Politics of Risk-Taking*, Amsterdam University Press.
- Wakeford, T. (2002), «Citizens' juries: a radical alternative for social research», *Social Research Update*, 37.
- Whitty, G.; Power, S. eta Halpin, D. (1998), *Devolution and Choice in Education: the School, the State and the Market*, Milton Keynes: Open University Press.
- World Bank (2010), *Poverty Reduction Strategies*, <http://web.worldbank.org/>
- Zomeran, M.; Postmes, T. eta Spears, R. (2008), «Toward an integrative social model of collective action», *Psychological Bulletin*, 134, 4, 504.-535. or.



FÉLIX OVEJERO LUCAS

Bartzelonako Unibertsitatea

felix.ovejero@gmail.com

Zer ongizate estaturen etorkizuna?

Ongizate estatuaren etorkizuna ez da iragana bezalako izango

Laburpena: Ongizate estatuari (OE) buruzko eztabaidan bi ideia erabiltzen dira: eredu erregulatzaile gisa, eta produktu historiko gisa. Balioestean agertzen den arazo bat nahasketa da. Ondorioz, baldintzarik gabeko defentsa sortu da, eta ez dira egonkortasun arazoak kontuan hartu. Ongizate estatuaren arazoak eta patologiak ez dira bere defendatzaileek gutxi gorabehera modu egokian babestutako printzipioak (berdintasunezkoak eta ongizatezkoak) gauzatzeko ezintasunaren froga. Egia esan, ongizate estatuaren arazoen zerikusi handia dute diseinu instituzionalekin, berdintasunezko helburuak sortzeko arazoekin; esaterako, lehia eta merkatu demokraziarekin. Izan ere, diseinu horiek beren erantzukizunak (eskaerak barne) alde batera uzten dituzten herritarrekin lan egiten dute, eta mota horretako herritarrak sustatzen dituzte. Ongizate estatua —edo antzeko zer-bait— eredu arauemaitzat hartzeko edozein saiakerak bere arazoak aitortzea (iraunkortasun arazoak, munduko ekonomian sartzeko arazoak, botere politikoari dagozkion arazoak) eta herritarrengandik espero denaren arabera, erakundeak konfiguratzeko aukerak funtsatzen eta esploratzen dituzten ereduak bateraezina den guztia berraztertzea eskatzen du.

0. Ongizate estatuaren bi «eredu»

OE ezker berdintzailearen iltze gori bilakatu dela dirudi. Atzean gelditu da boteretik urrun zegoen ezkerrek ongizate estatua mespretxatzen zuen garaia; sistema kapitalista babesteko bidean (James O'Connor-en lexikoan, «harmonia mantentzeko» (1973)) klase gatazkak baretzeko eta desagerrarazteko modu gisa ikusten zuen. Beste ezkerrek berriz, denbora askoan kudeatu zuen, baldintzarik gabe defendatzen zuen, lotsatuta bezala, ideologiaren amaierari eta sistemen bat etortzeari buruzko ideien defendatzaileekin ados jarrita, Estatuko Departamentuko nominan egoteaz akusatutako egile gisa; geroago jakin ahal izan genuen bezala, kasuren batean, ez arrazoirik gabe (Saunders, 2000). Orain, gauzak aldatu egin dira, eta, bat-batean, OE onena balitz bezala agertzen da, ezkerren gauza onena bezala; gutxienez, oraindik zentzu berdintzailea mantentzen duen ezkerrena. Bestetik, pare bat mendeko itzulera bidean, komunitarismoaren eta nazionalismoaren mila bertsio onartu dituenaz, hobe ez hitz egitea.

Baldintzarik gabeko gaitzespenetik baldintzarik gabeko gorazarrera pasatu da, argi eta garbi, sorta osoa erosituta, eta merkantzia behar bezala tasatu gabe. Beharra bertute egitea ohitura bilakatu da. Tradizio horrek ez ditu hegeliar hondarrak uzten; ez da tradizio teologiko hutsa, eta guztia nahasten eta parekatzen du: logika eta historia, positiboa eta arauemailea. OE ez da historian oinarrituta interpretatu, «ergel ezezagun batek kontatutako zalaparta eta haserrean» oinarrituta, dinamika konplexu baten emaitza bezala, xederik gabeko prozesuen emaitza bezala; gidoi baten esana beteta bezala baizik, *totum revolutum* batean bideratutako programetan erabat aurreikusitako proiektu gisa, eta beharra, kausalitatea eta ongiaren bidea gauza bera balira bezala. Ongizate estatuaz hitz egitean, «europar gizarte eredu» aipatzea ohitura bilakatu da. Erabilera horien atzean, gizarte teoriarik hedatu ohi diren bi ereduaren arteko nahasketa bat dago. Nahasketa horrek arazo handien gaineko arrastoak ematen ditu, eta horiek balioestean, eta hala dagokionean, aldarrikatzean, ondorioak txarrak izan ohi dira: benetako zailtasunak alde batera uzten dira, eta defendatu ezin daitezkeen gauzak defendatzen dira.

Zentzu *teoriko arauemaile* batean, «eredua» eredu erregulazaitzat hartuko genuke, sozialismoak denbora jakin batean bizitza ekonomikoa (eta ez ekonomikoa bakarrik) antolatzeko hartu zuen modu gisa, eta alderdi sozialisten programa politikoak eman zituen eredu gisa. Zentzu zorrotzago batean, interpretazio berdina dago ikuspunturen batetik interesgarriak diren emaitza teorikoak gauzatzeko eta praktikara eramateko saiakeren atzean. «Merkatu sozialismoaren» askotariko ereduak adibide bereizgarriak dira (Ollaman, 1998; Bardhan, Roemer, 1993). Lehia perfekturako baldintzak sortzeko egindako esku-hartze publikoak ematen dituzten merkatu eredu idealizatuak antzeko eran funtzionatzen dute; hau da, helburu gisa jarduten dute, eta, aldi berean, ekonomia erreala balioesteko irizpide gisa.

Zentzu *teoriko berreraikitzailearen* arabera, ereduak errealitatearen segmentu baten idealizazioari egiten dio erreferentzia; hau da, sistema erreal baten funtzionamendua deskribatzen duten oinarritzko harremanen zehaztapenari. Gure kasuan, prozesu ekonomiko eta sozialak antolatzeko modua litzateke; esaterako, feudalismoaren (edo globalizazioaren) eredu bat lantzen dugunean gertatzen dena. Eredu horiek egitura bat ezagutzeko aukera ematen dute; hain zuzen, beren funtzionamendua aztergarri izanagatik praktika politikoak oinarritzeko irizpide gisa jarduten ez duten egiturak ezagutzeko. Klasikoki esateko, ez dira gizarte ingeniariaren inspirazio iturri. Ekintza planak baino maketa edo mapak dira. (Egungo egoeran biziraupen aukerarik luke ten galdetu beharko genuke, eta, aldi berean, egungo egoera mantenduz gero, ekosistema jakin bat zenbat denboraz mantentzerik dagoen galdetu beharko genuke. Horiek horrela, ongizate estatua ardatz hartuta, galdera horiek zorrotzasun analitiko eta formaltasun handiz egin dira: (Hassler, Rodríguez Mora, Storesletten, Zilibotti, 2003: 87-ss).¹

Zerbaiteko balioko balu, lehenengo ideiarako OEren gaineko ezagutza gordetzea eta «europar gizarte eredu» bezalako esaterak besterako uztea gomendatuko nuke, askotariko prozesu sozial eta politikoetarako asmorik ez duen produktu gisa: emigrazioak, borroka sindikalak eta egoera politikoak, besteak beste. Edo-

¹ Zentzu horretan, aurreko bereizketa ez da oso konbentzionala: mundu posible batean gauzak nola diren (eta zein baldintzetan funtzionatzen duten) deskribatzen dituen eredu bat, ikuspuntu jakin baten arabera, mundu posible horren baldintzak kopiatu nahi dituen ipar bat bezala uler daiteke. Funtzionamendu baldintzen analisi batek, pragmatikoki bada ere, interpretazio arauemaile bat eskatzen du; gomendio bat. Esaterako, gauzek orain dauden bezala jarraitzen badute, eredu berreraikitzaile baten arabera, sistema erreal jakin batek ezingo du biziraun, eta aipatutako baldintza batzuk aldatu beharko ditugu (edo, alderantziz, desagertutako errealitate batera itzuli nahi badugu, gauzak modu horretan berreraiki beharko ditugu berau lortzeko; betiere, zerbait egin badaiteke, noski: lurraren gainean asteroide erraldoi baten erorketa deskribatzen duen eredu batek, ziurrenik, ezer gutxirako balioko du, ikuspuntu praktikoa batetik. Baina hauek hirugarren hamartararen gaineko gogoetak dira, eta ez diote interesatzen zaidan alde politikoari eragiten, alegia, berreraikuntza positiboaren eta idealizazio arauemailearen arteko desberdintasunari).

zein kasutan ere, erronka politiko jakin batzuei noiz-nolako erantzuna emateko (luze iraun eta behin betiko ezar daitezke), eta, betiere, esparru instituzional jakin batzuen barnean. Baina badakigu, teoria ekonomikoaren arlo batzuetan izan ezik, lexiko partekatu bat ezartzeko hitzarmen aukerak oso mugatuak direla, eta azkenean, hitzen zentzua, Cervantesek esan bezala, erabileraren eta herri xumearen kontua da. Hala, etsi-etsian, goazen aurreko bereizketa oroitzera, defendatu nahi dudan tesia azaltzeko: OE gutxi gorabehera printzipio arauemaile garbietan (eta gizarte eta politika eskaeretan) oinarritutako hainbat politikatan gogoko gertatu bada ere, ezin daiteke aurrez ezarri den eta lortu nahi den eredu (proiektu) gisa ikusi. OE ez da zubi edo erloju bat. New Delhiren edo erdi aroko hiri baten antza gehiago du Brasilia edo Dubairena baino; beharbada, historia funts bati buruzko plangintza partzialak dituen europar hiri batena.

Testuinguru instituzional batzuen barruan, gobernuek askotariko egoera ekonomikoei eta gizarte borrokei erantzun diete. Askotan, erantzun gabe erantzuten dute, onena «ezer ez egitea eta aldaketari atea ixtea» dela jakinda, besteak beste, Frantziako Iraultzan ikasitako ikasbideagatik —gutxienez, Tocqueville-k (2004, 79, 225)—. Izan ere, askotan, aldaketa txiki bati zirrikitu bat zabaltzeak hortik gutxira iraultza bolada bati aurre egitea eskatzen du, zerbait alda daitekeela berehala ikusten delako, eta beste mila aldaketa egin daitezkeela pentsatzen delako; betiere, arrazoi «klasikoak» ahaztu gabe. Besteak beste, Aristotelesek demokraziaren aurka emandakoak, eta, gaur egun, teoria ekonomikoak bermatutakoak argi azaltzen dute desberdintasuna dagoenean demokraziari zergatik zaion beldur (gertagaitzagoa da): boteretsuak ongizatea eta birbanaketa eskatuko denaren beldur direlako (Acemoglu, Robinson, 2005).

Baina beste batzuetan, erronkei «soluzioak» emateko ahalegina egiten da, oinarrizko paisaia instituzionalan aldaketa handirik egin gabe; eta denborarekin, soluzio horiek paisaia instituzionalaren parte izaten amaitzen dute. Hala gertatu zen gizarte aseguruaren hasieran, 1881ean, Bismarck-en garaiko Alemanian. Eta gaur egun ere gertatzen da, dinamika politikoak beste edozein gogoetaren gainean ezartzen direnean: azken urteotan kritika ugari jaso baditu ere, OEK ez du behaldirik izan (ez da murrizketa garrantzitsurik ere gertatu transferentzietan eta zerbitzuetan: (Glyn 2005). Kasu horietan, garrantzitsua da izan dena erdietsi nahi zena-ekin ez nahastea. Ekintzen emaitza (oso epe laburrerako ekintzak) ekintzen helburu gisa lantzea Luis XVI.ak Estatu Jeneralak deitzean Frantziako Iraultza nahi zuela esatea bezala da. Konparazioa erabat egokia dela uste dut, batik bat, beste aldetik ikusten badugu: Frantziako Iraultzak ekarri zuena ekarri zuen; gaur egun ezagutzen ditugun erakunde ugari, programa zehatzik gabe, plangintzarik gabe, bat-bateko jardunekin, eta hilabete pare batean, hain zuzen, 1789ko ekainaren 20tik abuztuaren 26ra bitartean. Eta gauza dakigun bezala atezara zen, «arrazoiaren maltzurkerian» sinetsi beharrik izan gabe, eta Hegelek gertakizun hura aipatzeko sortu zuen formula zehatza esanda. Ikuspuntu jakin batetik begiratuta, ongizate estatuari buruzko sailkapen ariketak gertakizun hori ezagutzeko modu gisa har daitezke: ez dago praktika politikoak iradokitzen dituen eredurik, modu desberdinetan gauzatzen diren askotariko bide historikoak baizik (Esping-Andersen, 1996).

Aurrekoak ez du esan nahi OE justifikazio arauemaileaz hornitzeko saiakerarik egin ez denik (Goodin, 1986; Harris, 1987; Goodin, Mitchell, 2000) eta hori egiteko arazorik egon ez denik (Shapiro, 2007). Baina saiakera horiek *a posteriori* egin dira. OE bere justifikazio arauemaileen aurretikoa da. Zentzu horretan, legitimazio estrategiez eta atzera begirako ingeniariaritzaren moralaz hitz egin beharko litzateke, gizarte ingeniariaritzaren aurretik (eta, noski, judizio honetan, ez dago balioespen negatiborik; besterik gabe behin-behinekoa da, eta arrazoiak aurrerago emango dira). Giza eskubideak apelatzea estrategia goiztiarrenetariko bat da, eta batzuetan aipatzen direnen artean, kalitate gehien duenatariko bat. Zentzu hertsian, ezin daiteke ongizate estatuari erreferentzia egiten diotarik esan. Eta beraz, ez diegu minutu bakar bat ere eskainiko hauteskunde erretorika hutsagatik merkatu politikora irtetzen diren etiketa hutsei (berrienak aipatzearen, hirugarren bidekoak eta zentro berrikoak).

Nire ustez, OE ulertzeko hobe da mugimendu sindikalean babes nabarmenak dituen eta sentsibilitate berdintzaile eskasa duen gizarte demokraziaren ikusmuga baten gainean aztertzea. Hain zuzen, hainbat arrazoiengatik, sozialismo klasikoaren proposamen instituzionalak egitea eta sostengatzea oso zaila izan duen gizarte demokrazian (Ovejero, 2007). «Erantzuna» bi mekanismotatik abiatuta landuko da: hauteskunde lehia, lehentasunak hautemateko mekanismo gisa, eta merkatua, ekonomia koordinatzeko mekanismo gisa. Diseinu instituzional hori gizarte eskaerak identifikatzeko eta horiei erantzuteko nahikoa sendo izatea espero da. Bere iraunkortasuna baldintza horien egonkortasunarekin lotuta dago. Baina baita euskarri dituen baldintza politiko eta sozialekin ere. Ildo horretan, bi krisi formez hitz egin daiteke: barnekoa eta kontzeptuala, «jada gehiago ematen ez duelako»; funtsezko baliabideen suntsipenagatik ekosistema baten krisiaz hitz egiten den bezala, hau da, ugaltze baldintzak asetzen ez direnean. Marxen arabera, ekoizpen indarren eta ekoizpen erlazioen (edo irabazi tasak behera egiteko joera) artean kontraesana zegoen. Batzuen ustez, sozialismo errealak behea jo zuen; kanpokoa eta materiala, «egoera bideragarria baina inori interesatzen ez zaiona». Moda bat amaitzen den bezala edo jada inork praktikatzen ez duen edo jada funtziorik betetzen ez duen ohitura bat bezala. Marxen arabera, klase borroka kapitalismoan jarduten zuen bezala; eta askoren ustez, Tocqueville barne dela, Frantziako Iraultza babes sozialak desagertu zirelako eta kanaberak lantza bilakatu zirelako heldu zen. Kanpo baldintzak bi ikuspuntuaren artean kokatuko lirake, sistema ekonomiko bat orokortzen denean desagertu daitekeen bezala, lehengaiak desagertzeagatik. Izan ere, lehengaiak funtsezkoak dira. Gure kasuan, eta labor esateagatik, prozesu globalizatzailearengatik desagertu daiteke. Horren gainean oso gutxi esango dut.

Eredu horren funtzionamendua eta zein ikusmuga politikoren gainean erregistratzen den oroitarazten hasiko naiz: sozialismo klasikoaren porrota eta negatiboki hasitako OE bat ezkerren ikur izatera nola heldu den. Liberalismotik jarauntsitako proposamen instituzionalen itzulpen eszeptikoa da: izan zitekeen guztiak «merkatua eta lehia demokrazia» parearen barruan izan behar zuen. OE historian oinarrituta hobeto ulertzen denez, gutxi gorabehera egonkorak diren dinamika eta prozesuen dekantazio gisa, lehen aipatutako hiru ikuspegiak hartuko ditut ardatz. Lehenik, funtzionamenduaren barneko baldintzak eta baldintza kontzeptualak aztertuko ditut, eta herritarren (ona) eta kontsumitzailearen (hobea) arteko eten arauemailearekin lotutako ezegonkortasuna epaituko dut, apur bat kargatutako hitzekin esateko. Ondoren, kanpo baldintzak aipatuko ditut, baina oso gutxi. Hain zuzen, modu zehaztugabea adierazi ohi dugun «globalizazioak» markatutako paisaia ekonomikoa aipatuko dut. Ondoren, kanpo baldintzak eta baldintza materialak aipatuko ditut; beren biziraupenaren egoera politikoak, eta horien sorreran bertan izan ziren agenteen aukera eta gaitasunak. Egoera politikoen aldaketa aztertzean, OEren esku-hartzeen izaeran gertatutako aldaketak aipatuko ditut. Beharbada, ikuspuntu enpirikotik ez dira oso garrantzitsuak izango, baina bai, ordea, horiek mantentzen dituen gogoeta teorikoan. Izan ere, egoerei eta babes politikoei eragiten diete. Azkenik, jada ikuspuntu arauemaile batean, beste ikuspuntu batean, eta ikusitakoak ikusita, behin ere arauemaile hartuta, OEren edozein ideiak izan ditzakeen aukerei buruzko gogoeta egingo dut. Hori guztia, noski, ikuspuntu orokor batetik.

1. Ongizate estatua ezkerren tradizioan

OEren defentsa sozialdemokrata, hein handi batean, sozialismo errearen arazoek eragindako eszeptizismoetatik hasi zen (Ovejero, 2007). Hobeto ulertzeko, onena sozialismo errearen horrek oinarri zituen ideiak azkar eta modu eskematikoan gogoraraztea izango da; hau bai, gizarte ingeniari bezala pentsatuta. Sozialismo honen sorrera antolamendu kooperatiboa sortzeko, norberaren interesak eta guztien interesak modu

harmonikoan joateko, eginkizun ekonomikoetan eskuzabaltasuna egoteko eta politikariek partaidetza borondatea izateko, jabetza kentzea eta lehia nahikoak direla uste izatearekiko bereizezina da. Uste horren atzean, bazen tradizio marxistan bermeak zituen ideia bat: gizarte kapitalistan, giza harremanak merkatuak aldatzen zituen. Harremanak mekanismo independente gisa agertzen ziren, jendeak hala nahi ez bazuen ere. Hala, gizarte prozesu guztiak gizabanakoen gainean ezartzen ziren, bigarren izatasun bat bezala. Aldiz, gizarte komunista batean, prozesuen eta bere aktoreen arteko alienazio hori desagertu egiten zen, eta beren xedeen gaineko kontrola berreskuratzen zuten. Baldintza horietan, ez zen ezer gertatzen jendeak nahi izan gabe. Tesi honen bertsio arinago baten arabera, klase desberdintasunak historiaren motor izateaz gain, gainerakoak murrizten dituen gizarte mugapenaren bide dira; alegia, gatazka guztien oinarritzko agertokiak. Hala, zera baieztatu zitezkeen, behin ekoizpen harreman kapitalistak, klase desberdintasunak eta distortsioak desagertuta, gizabanakoak balio partekatutako onartuko zituztela eta «aingeru onenak» izango lirakekeela. Gauzak hala, behin herritarrek ongiaren ideia komun batean parte hartuta, gizarte ordenatzeko arazoa desagertuko litzateke; horretarako, lehentasun ordena berdina izan behar dituzte, lehentasunak zehazteko, hau da, egoerak balioesteko, gatazka neurtzeko eta helburuak zehazteko. Gainera, hori guztia jada klasikoa den eta bere presentzia gehiegi nabarmenduko ez den hipotesi baten arabera: mugarik gabeko ugaritasuna, ekoizpen indarren mugarik gabeko garapena, ekoizpen harreman kapitalisten kortsea bereganatuta, eta, besteak beste, gizarte talentutako bridatuta. Urritasunarekin ere, ordea, partekatutako balio egokiek eta antolamendu egokiek bakoitzak libreki zati bat aukeratu ahal izatea bermatuko lukete, gainerako beharrak alde batera utzi gabe.

Proiektu honen zailtasunak asko dira, ustezko ugaritasunaren irrealtasunetik hasita. Eredu konpartituetan ere, elkartasuna irreal da, batik bat, «pluralismo menderaezina» duten gizarteetan. Hau da, bizitza partekatua nola bizitzeari buruzko desadostasunak daudenean; horiek ez dira ekoizpen harremanen epifenomeno arruntak. Kultura, sexu eta adin desberdintasunak ez dira desagertzen desberdintasun ekonomikoak desagertuta. Arrazionaltasun eta inpartzialtasun irizpideek gobernatutako deliberazio demokratikoaren esparruan desadostasun asko konpon daitezkeela uste bada ere, arlo askotan, besterik gabe, ez dago soluzio «zuzenik»; hainbat soluzio daude. «Okerrekin» bizitzea bidezkoa da, edo ebazpen prozedurei eragiten dieten desadostasunak agertzen dira.

Edonola ere, ongizate sozialdemokrataren jatorriaren gaineko zalantzak ulertzeko, zailtasun garrantzitsuenak beste batzuk dira. Eta herritarrek balio horietan parte hartzen badute ere, gizarte prozesuak kopiatzeko koordinazio bat eskatzen du, eta hori ez dago beren borondate on edo txarraren mende bakarrik. Zalantzarik gabe, «borondate faltarekin» lotutako arazo asko daude. Ekintza kolektiborako zailtasun handienek, laburki esanda (ez gara orain xehetasunetan sartuko), gizabanakoen norberekerian edo lankidetzan faltan dute sorburu. Gizabanakoek mozkinetikiko interesa dute, baina ez dute horiek lortzeko nekerik egin nahi. Ekonomia sozialisten «motibazio» arazoak, askotan, egoera horrekin lotuta zeuden: gizabanakoek ziurtatuta zituzten emaitzak, beren ekarpena kontuan hartu gabe, eta nahiago zuten lorpenean ez kolaboratu. Ondorioz, eginkizun komunak gaizki betetzen zen, edo ez zen betetzen; enpresek beren ekoizpen aukerei (benetakoak baino gutxiago) eta beren beharrei (benetakoak baino gehiago) buruzko informazio distorsionatua ematen zuten, planen betetzea ziurtatzeko. Eta gauza bera beren gizabanakoen talentu eta beharren gainean. Egia da motibazioak *homo oeconomicus*arenak (etekinazale egoistak) baino konplexuagoak direla, baina denboran zehar mantendutako eta jende askori dagozkion portaerak kontuan hartuta, «nor bere kasa» ibiltze hori ez da salbuespen bat. idioia

Baina asmo onenekin eta xede partekatuekin ere, diseinu instituzionaletik ondorioztatutako arazoak daude; koordinazio arazoak. Festa jendetsu baten ostean, guztiok batera ekortzen hasten bagara, elkarri enbarazu egingo diogu, eta zikinkeria birbanatu baino ez dugu egingo. Altruisten komunitate batean sute bat gertatzen

bada, agian ez da hondamendirik egongo, guztiak lehenengo irteten saiatuko direlako, eta, elkarri traba egingo diotelako; baina elkarri pasatzen utziz gero, hondamendia gertatu ahalko litzateke, irteteko erabakia inork ez hartzeagatik. Presioen kalkuluari eta merkatu sozialismoari (Hayek eta Lange, lehenik) buruzko iragan mendeko eztabaida zoragarria egoera horren aitorten intelektual ezin hobea izan zen. Nolabait esatearren, esku sozialista bat (ikusgarria edo ikusezina) aurkitzeko arazoa aitortu zen, prozesu sozialen (eta informazio garrantzitsuen fluxuak, lehenik) koordinazioa bermatzeko modu bat, norberaren helburuak helburu partekatuekin harmonizatzeko modu bat (Robinson, Nove, Nuti, 1972).

Egoera horren gaineko ezjakintasunak, bizimoduetan klase desberdintasunetan amaitzen ez diren desberdintasunak daudela ez jakiteak, jendearen egoismo eta elkartasunaz aparte jarduten duten motibazio konplexuak, mekanismoak eta prozesuak ez ezagutzeak, eta helburuak harmonizatzeko arazoek *zailtasunen personalizazioa* dute ondorio: arazoak agertzen badira, gauzek funtzionatzen ez badute, behar bezala jardun ez delako da, «borondate iraultzailea» falta delako. Gizaki berriaren eta errepresioaren arteko, gizakiaz gaindiko moraltasuna eskatzen duen optimismo antropologiko baten, baldintzarik gabeko altruismoaren eta mozkin sistema gisa zigorrean bakarrik sinesten duen etsipenaren arteko tradizio iraultzaileen joan-etorri iraunkorra ez da kasuala. Eskuzabaltasuna zigorrekin eraikitzeko saiakeran, «herritar onak» berreziketa esparruetan eraikitzeko saiakeran, soluziorik ez duen paradoxa bat dago.

2. Erantzun sozialdemokrata eta esku-hartze berriak

Eredu klasikoaren arazoak bi eszeptizismo etsikorren jatorrian daude. Ongizate sentsibilitate eta sentsibilitate berdintzaile urria duen sozialdemokrazia baten erantzunaren atzean daude, eta OĒren funtzionamenduari zerikusirik handia dute: gizabanakoei buruzko eszeptizismo bat, beren ekintzekin konprometituta dauden eta justizia printzipioak dituzten herritar bertutetsuen gainean; eta merkatua ordezkatzen duen koordinazio sistema ekonomiko baten gaineko eszeptizismo bat. Lehenengoa demokraziaren ideia etsikor baten emaitza da, alderdien lehiarako demokrazia (Schumpeter, 1970), funtsean, demokraziaren teoria ekonomikoak bere funtzionamenduan deskribatua (Downs, 1957): boto-emaitzen eskaerei erantzuten ahalegintzen diren alderdi politikoen arteko lehia sistema bat, politikariengan eta herritarrengan gizabiderik sumatu gabe. Alexander Hamilton-en hitz klasikoetan esanda, erakunde publikoek honako honetan oinarrituta eraikitzen dute: «Gizateriaren interesari leialtasunez erantzuteko, onena interesak betebeharrarekin bat etortzea da» (*The Federalist Papers*, 72). Sistema politikoaren funtzionamendua ezaguna da. Alderdi politikoen arteko lehiak elite politikoak hautatzeko (edo zigortzeko) aukera ematen du, eta herritarrek ez dute zertan informatuta edo interes orokorreko konprometituta egon behar. Alderdi politikoek gobernatu nahi badute, eskaintzak egin behar dituzte, betiere, boto-emaitzen gehiengoaren lehenetsunaren arabera. Boto-emaitzek beren interesak defendatzen dituzten proiektuen aldeko apustua egiten dute. Sistemak jasotzen duen informazioa interesekin lotuta dago (gainerakoaren interesekin edo beren ahotsa agertzeko gaitasun handien dutenen interesekin), eta ez interes orokorreko edo justiziaren intereseko gogoeta inpartzialekin. Alderdien proposamenek «gizarte eskaerei» erantzutea dute xede, eta eskaera horiek bokoetan adierazten dira. Herritarren interesak, zuzenean edo boto «sortzaileen» bidez iragazita, presio taldeen edo iritzitzaileen interes bilakatzen dira.

Beste eszeptizismoak, gizarte koordinazioari eta prozesu ekonomikoari erreferentzia egiten dienak, merkatuan zehaztutako konfiantza adierazten du. Egoera batzuetan (ondasun publikoen hornikuntza, kanpo eraginak, eskala ekonomiak, denbora arteko esleipenak, etab.) bere funtzionamendua txarra bada ere, esleipen

sistema nagusitzat hartzen da. Besterik gabe, huts egiten duen hori osatu beharko litzateke (esku hartu); hain zuzen, baliabideen esleipen eraginkorra bermatzen ez denean. Eraginkortasuna OEren esku-hartzeak zuzenduko lituzkeen irizpide arauemailea litzateke, baita esku-hartze horiek hainbat estrategia dituztenean, hainbat banaketa efektu dituztenean eta hainbat ondorio dituztenean ere. Efektu horiek klaseen arteko botere harremanetan dute eragina. Klasikoek, nolabait esatearren, izaera makroekonomikoa zuten, antiziklikoa (bidezkoa da esatea, geroz eta gutxiago nabarmentzen direla, eta hala egiazta daiteke duela hogeita hamar urteko «Ogasun Publikoaren» edozein eskuliburu gaur egungo testuekin konparatuta; esaterako: (Leach, 2004)). Berrienak, hau da, izaera mikroekonomikoa dutenak, nolabait esatearren, anbiguoagoak dira banaketa efektuetan. Esaterako, ingurumen kanpokotasunei aurre egiteko esku hartze batek aurka jarri ditzake langileak. Tokialdaketa horrek ondorio politiko garrantzitsuak izango ditu OErekiko; behin gizarte desberdintasun biko egoerekiko bere bateragarritasuna behatuta, babes politiko klasikoaren desagerpenari, konpromiso arauemaileari, herritarrek horrekiko duten konpromisoari eta euren arteko harremanei eragiten die. Ikus dezagun laster batean esku-hartze horien arloko aldaketa.

Lehenengoetan, birbanaketa ondorio berdintzaileak zituztenetan, oinarrizko ideia (Kalecki, Keynes) zera zen, herritar klaseen kontsumorako joera handia ikusita, eskari eraginkorraren gorakada ziurtatzeko eta erabili gabeko baliabiderik ez gelditzeko (langabezia) modu onena errenta behartsuen alde birbanatzea zela: aurrezteak inbertsioa izango luke emaitza, eta hazkundera bermatuta geldituko litzateke. OEren defendatzaile goiztiarren ia argudio guztiek bide bera zuten ardatz: ondasun publiko jakin batzuen ekoizpenak, esku-hartze antiziklikoak eta gizarte gatazkak arintzeko askotariko gizarte gastuek, *tresna* gisa (edo azpiproduktu bezala zuten), esku-hartze birbanatzailea eskatzen zuten. Baina azkenean, birbanaketa eraginkortasun arazoietan justifikatzen da, eta ez justizia arazoietan; baita azken emaitza bidezkoagoa den banaketa bat balitz ere.

Ondorio birbanatzaileak dituen beste estrategia bat, baina ikuspuntu mikroekonomiko batetik (klasikoarekin eta bereizketa eztabaidagarriarekin jarraitzeko) kanpokotasun negatiboak (delinkuentzia, gizarte gatazkak, osasunaren narriadura, etab.) desagerrarazteko esku-hartzeetan gauzatzen da. Orain ere, eraginkortasuna lortzeko tresna onena berdintasunaren aldeko apustua da, nahiz eta zuzenean errenta mailetara jotzen den, eta, zentzu horretan, klase sozialetara. Horien inguruan, ikerketa berriagoetan oinarrituta, beste esku-hartze batzuk birbanaketa eraginkortasunaren izenean defendatzen dute, eta lehenengoko berdintasunaren ondorioak giza kapitalaren gainean apelatzen dituzte. Aukera berdintasun handiago bat sustatzen du, giza baliabideen kalitatea hobetzen du, eta hala, posible da gai publikoen kudeaketa (politikariak eta ekonomialariak, eta baita negozioak ere) kudeatzaile hobeen esku erortzea (Benabou, 2000). Kontuan hartu beharreko argudio bat da, elite politiko eta ekonomikoak hautatzeko mekanismoen kalitatea eztabaidagarria delako; besteak beste, merkatu politikoekin lotutako informazio asimetrikoari dagozkion arazoengatik (Calvert, 1986; Ferejhon, Kuklinski, 1990; Ovejero, 2002).

Aparteko aipamena merezi dute esku-hartze «paternalistek». Hautatze baldintzak hobetzea dute xede, kasu askotan agenteak informazioa prozesatzeko eta erabakitzeko moduan ez daudela kontuan hartuta. Aurrezteko hautaketekin, pensio planen hautaketekin eta hipoteken hautaketekin gertatzen da: parametroak asko dira, eta konplexuak. Kasu horietan, normalean, portaera arrazionaletik urruntzen diren askotariko joeretara lerratzen gara. Arau inertzialekin jarduten dugu, iritzi probabilistikoak gutxiesten ditugu, oraina neurritz kanpo balioztatzen dugu, eta aukerak aurkezteko moduagatik behar ez bezala lerratzen gara (Baron, 2000). Ondorioz, hauteskundeak ez dira optimoak, ezta agenteen xedearen ikuspuntutik ere. Arazoa are garrantzitsuagoa ere izan daiteke; egoera jakin batzuetatik harago, hautaketa esparru neutral bat edukitzeko nahiari kimera bat agertzea. Richard Thaler eta Cass Sunstein-ek, esperimentu mental baten bidez, zailtasun hori erakutsi dute.

Ikasleek jantoki batean egiten duten kontsumoa, batik bat, elikagaien antolaketaren mende dago. Ez da gauza bera, lehenengo postreak aurkeztea, edo barazkiak aurkeztea, edo espagetiak aurkeztea. Ordenaren arabera, eta beti bat aukeratu behar bada, ikasleen osasuna, banatzaileen irabazia, kontsumo denbora edo beste edozein gauza maximizatuko da. Hautaketak hautatze esparruen mende daude, eta ez dago esparrurik gabeko hautaketarik. Horrelako egoeretan, zentzuduna dirudi esku-hartze batek hautaketa baldintzak hobetzen laguntzea eta lehentasunak argitzen laguntzea; eta bistako arrazoiengatik, esku-hartze horrek errenta baxuenak dituzten gizabanakoei lagunduko diela pentsatu behar da; hain zuzen, baliabide ekonomiko urrienak dituzten gizabanakoei, informazio maila txikiagoak dituzten gizabanakoei eta aholkulari profesionalik ez duten gizabanakoei.

Azkenik, aurreikusi gabeko efektu birbanatzailea duten esku-hartzeak daude; ia guztiak merkatuaren akats klasikoekin lotuta daude. Oro har, merkatuetan informazio asimetria garrantzitsuak nabarmentzen dira, eta horiek eraginkortasunik ez edukitzen edo merkatua kolapsatzen amaitzen dute. Aurreko formulazioetan ez bezala, banaketari dagokionez, esku-hartze hauek (produktuak, kontsumitzaileentzako berme sistemak, kontratuak espezifikatzeko exijentziak eta arau-hausleen publizitatea ikuskatzeaz arduratzen diren erakunde publikoak) itsuak dira (neutroak). Zentzu orokor batean ongintzakakoak badira ere, baliabideen esleipen eraginkorra ziurtatzen dutenean, *a priori*, ez diete herritarren segmentu espezifikoiei edo gizarte klase jakin batzuei mesede egiten. Sektore jakin bateko enpresari eta langileek kalteak jasan ditzakete esku-hartze publikoarengatik, eta gainerako herritarrekiko interes kontrajarriak izan ditzakete. Egia esan, esku-hartze hauen banaketa ondorioak ezin dira aurreikusi. Kasu bakoitzaren arabera, desberdinak dira. Batzuetan, efektu berdintzaileak izan ditzakete, esaterako, kanpokotasun negatiboak (delinkuentzia, gizarte gatazkak, osasunaren narriadura, etab.) desagerrarazteko xedea duten esku-hartzeen kasuan. Baina beste askotan, ez da hala. Produktu kutsagarrien kontsumoa murrizteko zergak txiroenei egokitzen zaizkie, hiriaren kanpoaldean bizi direlako, eta beren irabazien parte garrantzitsu bat energia kontsumoan gastatzen dutelako.

Edonola ere, ongi dago gogoraraztea merkatuaren funtzionamendu txarra ez dela, besterik gabe, esku-hartze publikoen aldeko argudio bat. Nahikoa zehaztasunez ezagutzen ditugu «Estatuaren oker» batzuk: helburu kolektibo bat zehazteko arazoak, eta herritarren lehentasunetatik abiatuta, helburu publikoak zehazteko arazoak; politika publikoen sinesgarritasun falta, eta ondorioz, eraginkortasunik eza, hein handi batean, boto-emaileen berehalako eskaerei erantzuteagatik, hain zuzen, hauteskundeak irabazteko aukera ematen duten bakarrak eskaera horiek direlako; erabaki politiko ororen izaera zentralizatuarekin eta Estatuak izan ditzakeen informazioekin lotutako arazoak; agente politikoen motibazio gaiztoak (presio taldeak, helburu publikoen aurkako politikarien pizgarri pribatuak); motibazioekin eta burokrazien informazio banaketarekin lotutako patologiak; horrek aurrekontu gehiago lortzeko eginkizunak asmatzea dakar. Horren gainean, esan bezala, ekoizpen ugari eta sendoa dago. Alderdi hauek gogorarazi nahi nituen, literaturari justizia egiteko, eta OEren arazoak aipatzean, ez naizelako horietara itzuliko.

Edozein kasutan ere, aurreko erreparotik nabarmentzea gustatuko litzaidakeena zera da, literaturan behintzat, banaketan eragina duten esku-hartzeek geroz eta garrantzi gutxiago dutela. Horrek eragin politikoak izango ditu ongizate estatuak babestean. Horrek, noski, ez du esan nahi sozialdemokraziak sentsibilitate berdintzailea galduko duenik. Ez dugu ahaztu behar sentsibilitate horrek eraginkortasun argudioak mespretxatzen zituela, eta daukan asko ala gutxi horrek jada ez duela ez babesik, oihartzunik edo presiorik, txiroen artean. Nolabait esatearren, jada ez gaude sindikatu handien garaian; esaterako, neo-korporatibismoarenak bezalako teoriak eman zituen garaian (Schmitter, Lehbruch, 1979). Aldaketak hemen aipatzen direnekin baino gauzekin gehiagorekin lotuta daude (adibidez, ekoizpen prozesuetan gertatutako aldaketekin), baina orain nabarmentu nahi ditudanak OEren esku-hartzeetan gertatu diren aldaketak (esku-hartzeen justifikazioak) dira

3. OEren egonkortasuna

Nire ustez, arazo handiena oinarritzkoagoa den OEren beste alde batekin lotuta dago. Lehen aipatutako ereduak gezurrezko iragazkortasun baten mende funtzionatzen du, *banatze iragazgaitzekin*. Horren arabera, helburu berdintzaileek ez dute banakako motibazioen eraginik. Gizabanakoek beren interes partikularrei erantzunez, zuzenean merkatuan, eta ondorioz, politikan jardungo balute ere, horrek ez lituzke ongizatearen xedeak arriskuan jarriko. Adibide klasiko bat hartuta: pastel bat zati berdinetan bana daiteke «altruisten» artean; besteengan pentsatuta, libreki zati bat hartzen dute, baina egoisten artean, pastela mozten duenak azkeneko zatia hartzeko araua ezartzen dute (Ralws, 1971). Herritarrek beren interesez bakarrik arduratzen badira ere, erakundeak helburuek porrot ez egiteko moduan osatuko lirатеke. Herritarren ahalmen urriak ez lieke ongizate eta berdintasun helburuei eragingo.

Errealista al da *banatze iragazgaitzen* hipotesia? Posible al da OE mantentzea herritar pasibo, arduragabe eta eskatzaileekin? Ez dugu galdera horri baietz erantzuteko arrazoirik; are gehiago, adierazgarri batzuek OEren egonkortasuna arriskuan jar daitekeela pentsarazten digute. OEK ongi funtzionatzeko, besteak beste, ekoizteko gai ez den gizabidea behar du; hain zuzen, bere dinamikak ahalmen horiek zigortzen dituzten prozesuak ekartzen ditu. Norberekeria eta portaera oportunistak, oro har, merkatuak sortzen duen portaerak dira, eta hala egiaztatu dute hainbat ikerketa esperimentalek. Portaera horrek *erreduktore kognitibo* batek bezala jarduten du: merkatu harremanek gizabanakoek objektu desberdinen arteko konparaketak egitea (eta trukea onartzea) sustatzen dute, eskubide eta arauak barne; lehia egoerak portaeren (moralgabeak) justifikazioa sustatzen du, eta beste egoera batean, gizabanako berdinek hautatze berdina egin beharko balituzte, ez lirатеke sinplifikatzeko edo onartzeko prest egongo; jarduerak (ordainduak) berezko balio bat edukitzetik instrumentalak izatera pasatzen dira, eta hala, motibazioa murrizten da, eta askotan, baita eraginkortasuna ere (Lane, 1991). Labur esanda, ez dago merkatuak sustatzen dituen portaerak mugatzeko eta estrategia menderatzailerak sortzeko aprobetxatzen diren egoerak (ekonomikoak, oro har) mugatzeko modurik.

Herritarrek Estatuarekin duten tratuan anibalentzia (osterantzean, hutsaltasuna) nabarmentzen da (Taylor-Gooby, 1995). Gai publikoetan parte hartzeko gogo urria eta zergak estortsio gisa ikustea ohikoak dira etengabeko zerbitzu eta babes eskariekin batera; eskariei epe luzeko ondorioak (ingurumen, aurrekontu eta osasun ondorioak) eta jatorriak kontuan hartu gabe erantzuten zaie; konpondu beharreko okerrak ez dira ezbeharren emaitzak (minusbaliotasunak, familiarren pobrezia), modu autonomoan hartutako erabakien ondorioak baizik (errentagarriak ez diren inbertsioak, kontsumo patologikoak, gaixotasunak edo portaera arriskutsuekin lotutako istripuak). Herritarrek sorospen laguntzen gainean duten iritzian ere, arduragabekeria zibiko eta pertsonal berdina hautematen da. Nahiz eta guztiek eskatu, herritarren arteko baztertze lerro gisa ikusten dituzte; batik bat hartzaile «errukarriak» baztertzeke. Horiek ez dute herritar gisa izendapena jasotzen, komunitate politikoaren parte izateagatik; ez zaie beren bizitza proiektuak aukeratzeko autonomian laguntzen. Estigma bilakatzen diren ezaugarri jakin batzuk dituzte (gutxiengoak, zaharrak, ama ezkongabeak, langabeak). Egoera horren ondorioz, gainerako herritarrek parasito edo «esplotatzaile» gisa ikusten dituzte, eta hartzaileek laguntza irain gisa hartzen dituzte, beren autoestimua irain bezala, gutxiengo izateagatik irain bezala, edo beren autonomia mugatzen duen xantaia bezala (langabeak).

Herritar kontsumitzaile arduragabearekin bat etorriz, OEren laguntza sistemak *ex post* esku hartzen du beti. Gizabanakoek ez dute errenta bat ziurtatuta, askatasunez aukeratu ahal izateko edo hautaketan ondorioak euren gain hartzeko. Hain zuzen, *ex ante* errenta. Beren okerren ondorioengatik jasotzen duten konpentsazio gisa hartzen dituzte laguntzak. Egoera horrek, epe laburrera, arduragabetasun zibikoa dakar, eta epe ertainera, berriz,

OERI eskaerak (eta desorekak) gehitzen zaizkio, etengabe. Hori guztia atzeko igarobide baten gainean. Bertan, herritar taldeak antolatzen dira interes koalizioetan eta presio taldeetan (*lobbies*), beren eskaerak beste batzuenak baino lehenago erantzunak izan daitezzen, beren eskakizunen justizia kontuan hartu gabe; eta horrek amaierarik gabeko gerra posizionalak eragiten ditu, eta lasterketa horretan, denak atzean gelditzeko beldur dira.

Eskubideak eskatze hori ez da erantzukizun zibikoekin batera ematen; funts bat eta aktibatze mekanismo bat ditu. Funtsa: herritar kontsumitzailearen funsgabekeriak, gogobetetzeen gordetegi batera murriztuta, ez du bitzta bere erantzukizun gisa ulertzen. Mekanismoa: lehia sistema politikoak promesen lanketa sustatzen die herritarrei, eta horientzat politika erantzukizunen eskuordetze bat bezala da, eta justifikaziorik onartzen ez duen eta behar ez duen lehentasunen adierazpen bat bezala. Ondorioz, politikari arduratsuenek agenda demokratiko-ko lehia politikotik arazo politiko garrantzitsuenak atera nahi dituzte, hain zuzen, komunitate politikoen jarraitutasunarekin lotutakoak; eta horretarako, «Estatu itunak» egiten dituzte, edo soluzioak erakunde «independentei» eskatzen dizkiete, hots, demokratikoki legitimatu gabeko erakundeei (esaterako, banku zentralai).

Aurreko zailtasun horiek modu askotan hauteman dira. Nanna Kindal-ek (2006), adibidez, hiru tentsio arauemaitan laburtu ditu: a) gizarte eskubideak banakako erantzukizunen aurka; b) paternalismoa autonomiaren aurka; c) familia erantzukizunak banakako erantzukizunen aurka. Niri orain beste ikuspuntu bat nabarmentzea interesatzen zait, hain zuzen, OERen funtzionamendurako garrantzitsuak diren ondorio patologikoei dagokiena, ezegonkortasunari dagokiona. Gogora ditzagun forma batzuk:

- a) Aurrekontuaren aurrerantzako ihesa. Aurrekontu lasaiko esparru batean, lehentasunekiko erantzukizun faltak herritar antolatuek edo eragin gaitasuna eta gutxiengoa duten segmentu politikoei (lurraldeen arabera edo helburu bakar batean bilduta, boto erabakigarriak dituzten taldeak) hobarien banaketa eskatzea dakar (diru laguntzak industria jakin batzuei, inbertsioak eskualde batzuetan, etab.). Politikariek eskaera horiek onartu egingo dituzte, erresistentziarik gabe kostuak erkidegoan urtu ahal dituzten bitartean. Guztiei aldi berean gogobetetzeko modu bakarra gastuak areagotzea da; bereziki, sektorialki banaketa koalizioetan antolatzeko moduan dauden gogobetetzea lortzeko. Gauzak hala, erantzungo diren eskaerak ez dira arrazoi onenengatik izango, indar negoziatzaile gehien edukitzeagatik baizik; hain zuzen, antolaketa gaitasuna, helburu garbiak eta koordinazio kostuetarako baliabideak dituzten talde txikien eskaerak. Talde militar/industrialak adibide on bat da (Buchanan, 1965; Tollison, 1982). Egoera horrek mekanismoaren kopia sustatzen du, eskaera eta presioen lehia amaiezin batean. Are gehiago: kontuan hartzen diren eskaerak bidezkoenak ez izatea eta presente egiteko gaitasun handien dutenak izateak herritarrek desinhibitzen ditu erreklamazioak egiterako orduan, badakitela ez dituztela beren lehentasunak justifikatu behar eta ez dutela horien gaineko erantzukizunik eduki behar. Gainera, hobeak ez diren beste arrazoi batzuei aurrea hartu behar zaie.
- b) «Merkatuaren okerrak» konpontzeko zailtasunak. Oker horietako gehienak kontratuak zehazteko ezintasunetik, eta ekoizten denari buruzko eta ekoizpen baldintzei buruzko informazio fidagarria edukitze-ko ezintasunetik sortzen dira, eta, oro har, prozesu ekonomiko eta sozialen koordinazioan eraginkortasuna bermatzen duten arauak esker arindu daitezke (*nice values* izenekoak: konpromisoa, leialtasuna, ospea, konfiantza, ohorea, elkarrekotasuna). Kontrakoa esanda: konfiantza maila baxu batek kontratu garestiagoak eta xehatuagoak, eta beren lanketaren gaineko zainketa handiagoa (ezinezkoa) eskatzen ditu. Hori bai, berau bereizten duten elkarreraginen izaeraren arabera (suntsikorrak, sarrera eta irteera kostu baxuagoekin, inbertsonalak), merkatuak sozialki funtzionatzeko beharrezko motibazioen jokoa sinplifikatzen du, eta hala, *nice values*ak deuseztatzen ditu: harreman anonimoei garrantzirik gabeko

egiten dute ospea; sarrera eta irteera kostu baxuek (azpi)taldeen sortzea murrizten dute (taldeen auke-raketa, zehaztapen biologikoetan), eta balio partekatuak ugaritzen dira; segmentazio faltak tratu onar-garria deuseztatzen du, behin eta berriroko elkarreragina, eta horrekin, konpromisoa edo ohorea lan-tzea; topaketa bereizgarrigabeek gainerakoen zintzotasunari buruzko informazioa eskuratzeko kostuak areagotzen dituzte, eta, aldi berean, ez dute lana batere interesgarri egiten; prezioekin eginiko zigorrak ospearean, konfiantzaren edo eskuzabaltasunaren ikuspuntutik egindako zigorren beharra desagerraraz-ten du (Bowles, 1998). Baldintza horietan, eta egoera edo esparru instituzional batetik besterako estra-tegiak (egoistak) hedatzeko eskuragarritasuna dela eta, zailtasunen iraunkortasuna bermatuta dago.

- c) Politika publikoak egiteko arazoak. Esku-hartze publikoak erraztu egiten dira herritarren lankide-tza dagoenean: herritarrek informazioa ematen dute, egikaritzea gutxi gorabehera garesti egiten dute, eta amaitzean, beren gain hartzen dute ala ez. Herritarrek mesfidantzaz edo ezaxolaz ikusiz gero, zaila izango da horiek garatzea, ez dituztelako justizia arrazoietan oinarrituta ikusiko, eragin gaitasunean oi-narrituta baizik. Ildo horretan, gizabideak bi arazo mota konpontzen laguntzen du: a) informazioaren arazoa. Herritarrek informazio hobea ematen dute, eta beren erabakiak informazio hobearrekin hartzen dituzte (Elkin, Soltan, 1999); b) konfiantzaren arazoa. Esku-hartzeen kostua «merkatzen» du (Warren, 1999). Hemen ere, badira gauzak beste modu batekoak direla pentsatzeko ebidentzia batzuk. Askota-riko esperimentu ekonomikoek egiaztatzen dutena zera da, ondasun publikoen joko batean, pizgarri bateragarrien mekanismoak ondasun publikoak eskuratzeko gizabanakoen interes egoistak lotzeko xe-dea edukiz gero, emaitza txarragoak eskaintzen dituela, justizia printzipioez gidatutako portaera batek baino (Frolich, Oppenheimer, 1995).

Baina OEren arazo «zibikoek» larritasun jakin bat hartzen dute prozesu globalizatzailearen testuinguruan.

4. Globalizazioa

OEren krisiaz hitz egiteran sarriago agertzen den prozesuetako bati minutu batzuk eskatzea ezinbestekoa da. Eztabaidaren garapenak hartu dituen esparruak bakarrik aipatuko ditut, harago joan gabe, denbora arra-zoiez gain, gaitasun faltagatik. Garrantzitsuenak aipatuko ditut, gai honetan literatura zehatz bat topatzea zaila delako; globalizazioaren ideiatik hasita.

Prozesu globalizatzailea OErako mehatxu bat dela dioen tesiak hainbat interpretazio egiteko aukera ema-ten du. Lehenengoaren arabera, OEk ekonomia autobilduetan bakarrik funtzionatuko luke, kanpoko men-dekotasun gutxirekin. Tesi hori, bestalde, tautologikoa da, halabeharrez. Bere onargarritasuna kontuan hartu gabe, lehen aipatutako inspirazio eredu keynesiarra ekonomia itxi baten baldintzetan aurkezten zen. Baldin-tza horietan, baieztatzen zenaren baliozkotasuna bermatzen zen, jakina zelako txiroenen aldeko birbanaketak izendapena hobetuko zuela (horrek ez du esan nahi beste batzuetan balio ez dezakeenik). Interpretazio ho-rrren aldaera tautologiko batek kopia baldintzei eragiten die. Ekonomia itxi batean, definizioz, ezin daiteke ekoizten dena baino gehiago kontsumitu. Baldintza horietan, gizarte prestazioei esleitutako edozein baliabi-dek kontsumo pertsonalak murriztea eskatzen du, eta, ondorioz, kontsumo gaitasuna birbanatzea, zerga sis-temaren bidez. Ildo horretan, OEren maila herritarrek indar politikoa emateko eta onartzeko duten ahalaren mende egongo da. Edozein kasutan ere, tesia mantentzeko komenigarria da kritikatzeko, eta modelizazioen izaeraren (itxia) mende dagoela kontuan hartzea, eta bere interesa, batik bat, teorikoa dela kontuan hartzea.

Nahi izanez gero, interesa birtuala dela esan daiteke, eredu funtzionamendu baldintzei dagokielako, eta ez errealitateari. Gure tresnen baliozkotasun baldintzek gure teoriaren adibide onena ematen dute. Gauzak nolakoak diren deskribatzen dute, betiere, argiaren abiadurarekiko abiadura txikiagoak direnean; esaterako, tratamendu newtondarra. Beti Planck-en konstantearekiko oso handiak diren ekintza dimentsioekin egiten dugu topo mekanika klasikoan. Teorien mugak gauza bat dira, eta errealitatea beste bat. Teoriaren munduan, eredu itxi edo estatikoak daude, baina teoriaren mundua ez da mundu erreala. Ona da funtsezko gauza hauek gogoratzea, gaitzespenak norantz orientatu jakiteko, eta gure ondorioetan, premisek ahalbidetzen dutena baino harago ez joateko. Honekin ez dut esan nahi OEk ekonomia ireki batean arazorik ez duenik. Badiuela uste dut, eta orain hitz egingo dut horren gainean. Esan nahi dudana da, ez zaiela aipatutako teoriari jarraitzen eta, besterik gabe, ez direla horretaz arduratzen.

Bigarren interpretazioak ekonomia errealeara itzultzen du begirada, enpiriara (oharrean aipatu bezala, bereizketak konbentzionaltasuna izan dezake —eta du—). «X prozesuak (esaterako, globalizazioa) OE ezinezko egiten duela» dioen uste enpiriko baten atzean, uste kontrafaktiko bat dago: «X prozesua gertatuko ez balitz, *ceteris paribu*, OE posible litzateke»). Horren arabera, globalizazioarekin lotutako hainbat prozesuak OE sortzeko erabilitako gizarte itunak hondatzen dituzte. Nahikoa da izaera desberdineko hiru aipatzea. Lehena: korporazio handiek legedi nazionalerara eta fiskalera jotzeko duten aukera, nazioarteko zerga sistemarik ez dagoelako, eta laneko legedietara eta langileek eskuratutako eskubideetara jotzeko duten aukera: soldata altuak, lanaldiaren iraupena, haurrentzako lana, baldintza higienikoak, segurtasun baldintzak, etab. Gutxiago biltzen da, eta gainera, alde bakarretik, Estatu bakar batek ere ezin ditu erregulazioak egin: horiek ezarri gero, enpresak bizilagunaren etxera doaz. Bigarrena: prozesu migratzaileetarako sozietateen irekieraren eta herritarrek zergak ordaintzeko ahalmen murrizketaren artean behatutako lotura, herritarrek honako hau pentsatuko balute bezala: «Onuradunak “gutarrak” badira, gehiago laguntzeko prest gaude» (Alešina, Glaeser, Sacerdote, 2001). Egoera hori, noski, ez da kultura homogeneotasunaren aldeko argudio bat.

Hirugarren zentzu batean, OE erlazio txarra du prozesu globalizatzaileekin, nahiz eta kasu honetan, nolabait esatearren, kate kausala ematen den: OE eragozpen bat da planeta irismeneko erronka politikoei aurre egiteko; hurrengo urteetan, besteak beste, ingurumen arazoei aurre egin beharko zaie. Izan ere, prozesu globalizatzailearen babesean sortu berri diren ekonomiek ingurumen arazoak larriagotu dituzte. Lehia demokrazia herritarren eskaerekiko bakarrik da sentikorra. Herritarrek lehentasun miope eta epe laburzaleak dituzte, eta herritarren epe luzeko interesak bermatzeko esfortzua egiteko eskatzen dien edozein politikari zigortzen dute. Hori dela eta, lehen aipatu bezala, geroz eta proposamen gehiago entzuten dira eztabaida politikoko arazo politiko «larriak», edo hobeto esanda, hauteskunde lehiaren arazoak alde batera uzteko. OE interes nazionalen eta eskariaren gehikuntzaren mende dago, eta horiek guztion interesen aurkako norabide batean doaz.

OEren arazoak, ordea, ez daude bere ezegonkortasun zibikoarekin («banatze iragazgaitzen» irrealitatearekin) eta prozesu globalizatzailearekin bakarrik lotuta.

5. Porrot politikoak

OEren biziraupena, berehalako zentzu batean, urte askoan mantendutako egoera jakin batzuen iraunkortasunaren mende dago. Bai, esan bezala, OE gutxiago ulertu behar da prozesu politiko eta sozialen aldekotasunaren eredu bat bezala; izan ere, prozesu horiek indar eta ahalmen arauemaileen korrelazio bihurtzen dira, eta egoera horien aldaketak, noski, ondorioak izango ditu. Indarren osaeraren aldaketaren adibide bat zera

da, OEtik onura gehien lortu zuten, edo behintzat, bere euskarri tradizionalak sortu zituzten segmentu sozialek izandako gaitasun negoziatzailearen galera. Langileak OEren mantentze lana beren gain hartzeko prest dauden galdetzean, ezin dezakegu gizarte lehentasuna ezartzeko gaitasuna alde batera utzi. Lan munduan gertatutako aldaketen ondorioz, besteak beste, indar politikoa murriztu da, eta beren artean erlacionatutako aldaketak gertatu dira: ekoizpen prozesuetan (batik bat, industria handiaren desagerpena); laneko negoziazio ereduetan (deszentralizazio handiagoa); sindikatuen protagonismoan (gaur egun, erabat defentsarako dira, eta batzuetan, hondarrak).

Bigarrenaren adibideak, hain zuzen, ahalmen arauemaileen aldaketen adibideak, lehen aipatu bezala, bereziki, OEren esku-hartze berriekin lotuta daude. Kanpo eraginetan edo informazioan oinarritutakoak dira, eta banaketari dagokionez, beste garai batzuetan baino anbiguoagoak dira. Alde batetik, OE batekin konpromisoa hartzeko nahi gutxiago behatzen da, bere berehalako abantailak ez direlako hautematen; eta bestetik, gizarte polarizazioa ugartzean elkarrekikotasun portaerek aurrera egiteko zailtasun handiagoa dagoela ikusten da. Desberdintasuna areagotzean, nekez gertatzekoa da herritarrak «ontzi berean» egotea: ez dira «objektiboki» egongo, hainbat esperientzian parte hartzen dutelako eta erronka desberdinak dituztelako, ezta «subjektiboki» ere, herritarren alde laguntzeko eta arduratzeko interesa nekez erakutsiko dutelako, euren arazoekin eta xedeekin (Tocquevillek ohartarazi zuen jada delibrazio demokratikoaren eta ekintza kolektiboaren ezintasunaz, desberdintasunak zorrotzak direnean (2004, 247-8)) zerikusi gutxi dutela iruditzen zaielako. Eta ez hori bakarrik. Pribilegiatuenek sistema pribatuen (irakaskuntza, osasuna) alde egitea espero da, eta horregatik, ez dira oso prest egongo erabiltzen ez duten guztia finantzatzeko. Gainera, ahots kritiko (boteretsuak, edukazio onekoak) gisa jarduteari utziko diote, eta zerbitzu publikoak behatuko dituzte. Horrek zerbitzuen kalitatea txartzea ekarriko du (Hirschman, 1970), eta ondorioz, batzuen eta besteen arteko esperientzien amildegia sakonduko du.

Edozein kasutan ere, aipatutakoak bezalako egoerak garrantzitsuak dira OE mantentzearen aldeko gogobetetasunik dagoen ikusteko, eta ildo horretan, aipatutako ereduaren bigarren ideiarekin lotuta dauden jakiteko. Baina iraunkortasun aukera horrek ez digu OEren bideragarritasunaz edo nahiaz ezer esaten. Gerta daiteke gogobetetasunek agonia bat denbora askoan luzatzen laguntzea. Gainerakoan, egoeren konplexutasunak berak betoa jartzen dio edozein ondorio argiri (eta ildo horretan, herrialde sozialistetako «krisia» eredugarria da).

Beste gauza bat zera da, OEren epe luzeko bideragarritasunari buruzko diagnostiko ezkorra baieztatuz gero, araei dagokionez interesgarria den eta ereduaren lehengo ideiarekiko hurbilago dagoen biziraupen batean pentsatzeak erdua birdiseinatzea ekarriko lukeen pentsatzea. OEren ezegonkortasunaren gainean lehen ikusitakoarekiko bateragarriak diren koordenatu batzuk ematera mugatuko naiz.

6. OEren aukera baldintzak

Honaino egindako bideak, eta bereziki, OEren egonkortasun arazoen OE oinarritzeko proposamenerako irakaspen batzuk lortzeko aukera ematen dute, jada beste maila batean, eta eredu arauemaile gisa onartu ostean. Oro har, eta begien bistakoa dena alde batera utzi gabe, erakundeen diseinuari eta herritarren prestasunari dagokie; beren oinarritzeko motibazioak, «justizia senak», motibazio arauemaileak eta «justizia iritziak» barne hartuta. Baldintza politikoak ere aipatu beharko liriateke, arlo horretan ideiek indar eta interesekin bat egiten dutelako. Hemen, ordea, ez dut jada esandakoaz gain beste ezer esango. Ez dugu ahaztu behar baldintza horiek ez direla jokoen arauetikiko eta erakundeetikiko independenteak (adibide bat aipatzearen: lan falta dagoen egoera batean, langabezia aseguru bat ez badago, langileek nekez hasiko dituzte ekintza kolektiboak).

Edozein OE «berriren» iraunkortasuna, hein handi batean, herritarrek bere mantentzean erantzukizunak onartzeko duten prestasunaren mende dagoela pentsa daiteke. Botere eraginkorra duten nazioarteko erakundeen faltari begira (besteak beste, erakunde fiskalak), hau da, behin korporazio handiak aintzakotzat har ezin daitezkeela onartuta (zergak saihesteko aukeragatik, edo zergak ordaindu arren, beren ekarpena garrantzitsua ez izategatik), OEren biziraupena, hein handi batean, bere onuradun potentzialak elkarrekikotasun printzipioen arabera portatzeko duten prestasunaren mende dago; besteak beste, etorkizuneko belaunaldien interesak onartzeko eta erakunde esparruaren jarraipena onartzeko duten prestasunaren mende. Glyn-ek aipatu bezala: «Galdera nagusia hau da: posible al da OEren biziraupenerako soldatapekoak konbentzitzea zerga gehiago ordain ditzaten?» (Glyn, 2006: 163).

Gai horri heltzeko, beharrezkoa da, lehenengo, honako galdera honi erantzutea: Herritarrek ba al dute halako prestasunik? (Elster, 2009). Eta horrek, aldi berean, beste galdera bat planteatzen du: erakundeak prestasun horiekiko sentikorrak al dira? (Kolm, Yhtier, 2006). Azkeneko galdera hori beharrezkoa da, gerta daitezkeelako erakundeak portaera egokiekiko hautemangaitzak izatea (edo zigortzea), eta norabide zuzenean bokazio zibikoak kanalizatzeko modurik ez egoteagatik helburuak zapuztea. Herritarren ahotsa (beren iritziak, ongi zer iruditzen zaien eta zer ez) entzuten ez duen erakunde batek irteteko aukera bakarrik ematen du; etxera joateko aukera. Erosoagoa da, baina ez informatzailea, jendea aldena izanaren arrazoia ematen ez duelako (Hirschman, 1970).

Herritarrek horrelako prestasunik duten galderaren erantzuna oso erraza da. Hemen hainbat dimentsio sartzen dira. Batik bat, bi. Lehenengoa, oinarrizkoa, antropologikoa, zentzu bizian. Bere kitapena ez da ezinbestean ezkorra; lehen «justizia sena» bezala aipatu dudanari egiten dio erreferentzia. Eta hemen emaitza empirikoei erakusten dutena zera da, «gainerakoekin lankidetzan jarduteko eta lankidetzara arauak urratzen dituztenak kostu pertsonalekin zigortzeko aurretiko joera dugula, baita kostuak beste batzuekin konpentsatzea edo beranduago konpentsatzea espero ez denean ere» (Gintis, Bowles, Boyd, Fehr, 2005: 8). Ez gara «izatez egoistak». Ez «izatez» ezer ez garelako, baizik eta «izatez» askoz gauza gehiago garelako. Gizaki guztiak erabat egoistak garelako ustea erabat gezurrezkoa da, guztiok erabat altruistak garelako ustea bezala. Beharbada, horren frogara onena zera da, merkatuan ere ez litzatekeela posible izango guztiok egoistak bakarrik izatea. Merkatuak egoera arauemaile eta instituzional baten gainean lan egiten du, eta horri esker, akordioak betetzen dira, truke legitimoak aitortzen dira, jabetza onartzen da, banaketa irizpide batzuk bidezkoetat jotzen dira, eta lehia modu batzuk desegokitzat hartzen dira (Schultz, 2001). Labur esanda, dakigunaren arabera, ondoriozta dezakegun gauza bakarra zera da, norberekeriaz gainera, beste portaera batzuetan pentsa daitezkeela; hain zuzen oinarrizko prestasunetan. Nahikoa da aukera hori alde batera uzten ez duten erakunde arteko beste aukera batzuk behatzea. (Gainerakoan, psikologia ekonomikoaren emaitzak interpretatzean, zuhurrak izan beharko genuke, eta egoistak ez garela erakutsi beharko genuke. Ekonomia-urte askotako laztasun psikologikoaren ondorioz, normala da hala izatea. *Homo oeconomicus*enganako interesa sortu dute, baina ez dut uste asko kostako litzatekeenik, milaka esperimentu bezala, sarritan gurera goazela erakustea. Eta gainera, politika egiten denean, batik bat, politika ekonomikoa, askorentzat zentzuzkoa da jendeak interes tasen igorri kreditu gutxiago eskatuz erantzutea, eta horrela, zerga berriei aurka egitea eta soldata jaitsierekin kexatzea).

Bigarren dimentsioak herritarren balioespen irizpideak hartzen ditu barne; hain zuzen, beren printzipio arauemaileak eta justizia iritziak. Emaitzen arabera, justiziazko gogoetekiko sorrak eta lizunki egoistak diren gizabanakoen irudia ere ez da erabat egiazkoa. Europako herritarrek beren herrialdeetan desberdintasunak daudela aitortzen dute, desberdintasun horiek bidezkoak ez direla uste dute, eta horiek arintzeko lana botere publikoei dagokiela pentsatzen dute (Förster, Mira d'Ercole, 2005). Motibazioen eta iritzien arteko

bide erdian, beste emaitza batzuk daude, eta horiek ongizateari buruzko informazioa eta herritarrek ongizateari buruz duten iritzia ematen digute. Dirudienez, gizabanakoen ongizatea zuzenean berdintasunarekin lotuta dago, errenta mailarekin baino lehenago. Desberdintasunean tematzen diren argudioak (ustez, ralwsia-rrak) aztertzean, alde batera utzi behar ez den emaitza zera da, baliabide gutxien dituztenentzat aberatsenen eta argieneko ekoizpen bokazioa sustatzea onuragarria dela, errenta maila handiagoak eskuratzen dituztelako, berdintasun esparru batean. Inkestek erakusten dutenaren arabera, desberdintasunaren efektu «onuragarri» (eztabaidagarria) egiazkoa izan ala ez, herritarren nahiago dute berdintasuneko gizarte bat (Alesina, Di Tella, MacCulloch, 2002). (Zoriontasunaren ekonomia deiturikoaren emaitzek, zalantza ugarirekin, errentarekin zoriontasuna handitu arren, une jakin batetik aurrera, handitze hori garrantzitsua ez dela (herrialde aberatsen kasua) eta langabezia zoritxarraren iturri nagusietako bat dela erakusten dute (Layard, 2004; Luigino, Porta, 2005). Ongizateaz hitz egitean, aldagai sorta zabala aztertzeke xedez, lanorduen eta bizitzarekiko atsekabearen arteko erlazio positiboaz hitz egin beharko genuke (Alesina, E. Glaeser, B Sacerdote, 2002). Azken finean, herritarrek ongizateatzat hartzen dutena ez dago, besterik gabe, sarrera maila handiagoekin lotuta; berdintasun baldintza batzuekin lotuta dago (eta horrek, aldi berean, elkarrekikotasuna eta guztioi onura dakarkiguten eginkizunetik konpromisoa hartzeko prestasuna sustatzen du).

Amaitzeko, beste dimentsiora pasatuko naiz, jokoaren arauetara, erakundeetara. Prestasun hauek sustatzearen alde agertzen al dira? Prestasun zibikoak berreskuratzeko eta hain publikoak ez direnak zaintzeko gai al dira? Hasiera batean, ez dirudi hala denik. Esan bezala, gure erakundeak suposizio antropologiko ezkorren arabera diseinatu daude: gizabanakoek inoiz ez dute interes publikoa erdiesten eta portaera oportunistari bakarrik erantzuten diote (Goodin, 1996; Brennan, Hamlin, 2000). Hori da, hain zuzen, merkatuaren, esku ikusezinen, *homo economicus*en eta gure lehia demokraziaren kasua. OEk oinarritzat dituen erakundeek ahalmen aukeretan orokortutako mesfidantza eredu baten mende funtzionatzen dute: «portaera txarra» zigortzen da, eta «zintzoari» ez zaio aukerarik ematen. Herritarren bokazio publikorako faltatik abiatuta, hipotesia herritarren ageriko axolagabetasunarekin baieztatzen da, axolagabetasun hori erakundeak beren iritziekiko iragazkorrak ez direla dakitenen erantzun arrazionala dela kontuan hartu gabe. Inork kasurik egiten ez duela jakinda, hitz egiten jartzea irrazionala da.

«Mesfidantza ereduari» begira, portaera txarra zigortzeari utzi gabe, portaera bertutetsua kontuan hartzen duten erakundeak sortzean pentsatu beharko litzateke, ahalmen publiko gutxirekin funtzionatzeko, eta bertutea aintzatesteke eta sustatzeko gai izateko. Oso labur esanda, bi printzipioei erantzunda konfiguratu beharko lirateke: a) *Bertutearen errealismo printzipioa*: erakundeak diseinatzeko, kontuan hartu behar da gizabanakoek ez dutela interes publikoa beren kabuz erdiesten. OEko erakundeak inspiratzen dituen da. b) *Bertutearen aukera printzipioa*: erakundeak gizabanakoen prestasun zibikoa kontuan hartuta diseinatu behar dira. Kasu honetan, egoerak eragileen erantzukizun aktiboaren (autonomia, zuzentasun egokia) aukera (eta lantzea) kontuan hartuta sortu behar dira (Boyens, 1998; Goodin, 1996). Bertutearen aukera printzipioak erakundeak erabakien erantzukizuna, autonomia, zentzu praktikoa eta arrazoitutako justifikazio kontuan hartuta diseinatzeko aukera ematen du.

7. Amaitzeko

Azkeneko epigrafeko gogoetak zorrozki interpretatu behar dira. Ez da OErekiko «irtenbide» bat eman nahi izan, besteak beste, hasieran aipatutako arrazoiengatik. OE ez da gizarte ingeniarietako proiektu bat; poeta batek esan bezala, «gainerako hondoratzeen hondarra» baizik: birbanaketa ekonomiko batzuetan eta botere bir-

banaketa batzuetan gauzatzen diren gizarte prozesu batzuekiko eta gatazka interesgarriekiko joerak baliabideak eskuratzeko aukera ematen du, lehiaren demokraziak eskari kolektiboak eta merkatuaren eskariak identifikatzeko aukera ematen duen erakunde esparru batean. Eta, eskariei ahalik eta hobekien erantzuteko, komenigarriak diren esku-hartzeak egiten dira. Bere euskarriek eta dinamika politikoek bere biziraupena bermatzen ez dutela ikusi da. Horrek ez du esan nahi OE egun batetik bestera desagertuko denik. Eta desagertzen bada ere, OEren jatorrian dauden dinamikek bere produktua iraunaraziko dute: erakundea; jada funtziorik betetzen ez duten konfigurazio egokigarrietan mantentzen den bezala. Hori ez da beti txarra; alderantziz, oso ongi dago, erakundetzeak berak sinesgarri egiten dituelako akordioak: ez da gauza bera egun batetik bestera aldatzen den politika zehatz bat, edo belaunaldiz belaunaldi eta ia betirako mantendu den eskubide finkatu bat (botoa, esaterako). Behin OE sortuta, erakunde ororen iraunkortasunaren logika zorrotzera lerratzen da, nahiz justifikatuta egon ala ez. Gizabanakoak horretara egokitzen dira, eta beren portaerekin, gainerakoen portaerak aurreikusten laguntzen dute. Baina ondare horretan defenda daitekeena eta defenda ezin daitekeena mugatzen jakin behar da, eta defenda daitekeena orain arte bezala egiteaz gain, modu hobea batean egin daitekeen jakin behar da.

Edozein kasutan ere, OEren inguruan sortu diren erakundeen proposamen batzuen egonkortasun baldintzez galdetu behar dugu. Eta ildo horretan, aurkeztutako batzuk erabilgarriak izan daitezke; betiere, neurtzen badira, eta direna bezala hartzen ez badira. Gauzak hala izango ez balira, guztia desberdina litzateke; esaterako, herritarrak altruistak eta kantiarrak balira, eta erakundeek beren arazoak kontuak hartuko balituzte, arazo gutxiago edukiko genituzke; baita OEren kasuan ere: herritarrek ez litzukete burugabekeriak salatuko, eta zuzen epaitutakoan laguntzeko prest egongo lirateke. Gainera, errazagoa litzateke, behar bezala erabiltzen ez diren baliabideak hautemango lituzketelako.

Baina ikusi dugun bezala, horiek ez dira arazo bakarrak. Ezin ditzakegu beren dinamiken patologiak alde batera utzi, ezta globalizazioaren inplikazio erabilezinak ere. Azken gogoeta kontrafaktiko hauek gaur egun gauzak nola dauden ikusita (azken epigrafean jasotakoaren oso bestelako moduan), OEren iraunkortasuna gertagaitza dela erakusteko egin dira. Hala eta guztiz ere, ondorio horrek ez luke harritu behar.


Edozein kasutan ere, serio hartu beharra dago, beste zentzu batean esandakoa: OE eredu baten azken kristalizazio bezala ulertu ezin bada, eta hori bere defentsen gehiengoaren izaera erreaktiboarekin erabat bateragarria izanik, hau da, apologia zakarrenetan hauteman daitekeen «hobe gauden bezala gelditzen bagara» horrekin bateragarria izanik, OEren krisia ez da bere printzipioak (berdintasunezkoak eta ongizatezkoak) gauzatzeko ezintasunaren froga gisa hartu behar. Nire ustez, onena lurraldeak mugarritzea, eta beharrezkoa denean, ideario sozialista, berdintzaile eta demokratikoren (edo deitu nahi den bezala) lexikoa berreskuratzea da; eta edozein kasutan ere, proiektuen zehaztasuna proposamen zehatzetan bilatzea. Eta horretarako, iker-tzaileek, ezinbestean, modu xehatuan esploratu behar dute.

Erreferentziak

- Acemoglu, D.; Robinson, J. (2005), *Economic Origins of Dictatorship. and Democracy*, Cambridge U.P.: Cambridge.
- Alesina, A.; Glaeser, E.; Sacerdote, B. (2005), «Work and Leisure in the U.S. and Europe: Why So Different?», *NBER Working Papers 11278*.
- Alesina, A.; Glaeser, E.; Sacerdote, B. (2001), «Why Doesn't the US have a European-Style Welfare State?», *Brookings Papers on Economic Activity*, 2.

- Alesina, A.; Di Tella, R.; MacCulloch, R. (2002), «Inequality and Happiness: Are Europeans and Americans Different?» (*NBER Working Paper No. 8198*);
- Bardhan, P.; Roemer, J. (1993) (arg.), *Market Socialism. The Current Debate*, Oxford: Oxford U.P.
- Baron, J. (2000), *Thinking and deciding* (3. arg.), New York: Cambridge University Press.
- Benabou, J-M. (2000), «Meritocracy, Redistribution and the Size of the Pie», K. Arroz; S. Bowles; S. Durlauf (arg.), *Meritocracy and Inequality*, Princeton: Princeton U. P.
- Bovens, M. (1998), *The Quest for Responsibility*, Cambridge: Cambridge U.P.
- Bowles, S. (1998), «Endogenous preferences: the cultural consequences of markets and other economic institutions», *Journal of Economic Literature*, XXXVI. liburukia, martxoa.
- Brennan, G.; Hamlin, A. (2000), *Democratic Devices and Desires*, Cambridge, Cambridge U.P.
- Bruni, L.; Porta P. (2005), *Economics and Happiness: Framing the Analysis*, Oxford: Oxford U.P.
- Buchanan, J. (1982), «An Economic Theory of Clubs», *Economica*, otsaila, 1965; R. Tollison, «Rent Seeking: A Survey», *Kiklos*, 35.
- Calvert, R. (1986) *Models of Imperfect Information in Politics*, N. York: Harwood Academic Publishers.
- Downs, A. (1957), *An Economic Theory of Democracy*, New York: Harper and Row.
- Elkin, S.; Soltan, E. (arg.) (1999), *Citizen Competence and Democratic Institutions*, Penn State Press, University Park, Penn.
- Elster, J., (2009), *Le désintéressement*, Paris: Seuil.
- Esping-Andersen, G. (1996), *Welfare States in Transition*, Londres, Sage, 1996.
- Ferejhon, J.; Kuklinski, J. (arg.) (1990), *Information and Democratic Processes*, Urban: University of Illinois Press.
- Förster, M.; Mira d'Ercole, M. (2005), «Income Distribution and Poverty in OECD Countries in the Second Half of the 1990s», *OECD Social, Employment and Migration Papers*, 22. zk.
- Frolich, N.; Oppenheimer, J. (1995), «The incompatibility of incentive compatible devices and ethical behaviour: some experimental results and insights», *Public Choice Studies*, 25
- Gintis, H.; Bowles, S. Boyd, R.; Fehr, E. (2005) (arg.), *Moral Sentiments and Material Interests. The Foundations of Cooperation in Economic Life*, The MIT Press: Cambridge, Mass.
- Glyn A. (arg.) (2005), *Social Democracy in Neoliberal Times*, Oxford: Oxford U.P.
- Glyn, A. (2006), *Capitalism Unleashed. Finance, Globalization, and Welfare*, Oxford: Oxford U.P.
- Goodin, R. (1988) (arg.), *Reasons for Welfare. The Political Theory of the Welfare State*, Princeton: Princeton U.P.
- Goddin, R. (1996 (arg.), *The Theory of Institutional Design*, Cambridge: Cambridge U.P.
- Goodwin, R.; Mitchell, D. (2000) (arg.), *The Foundations of the Welfare State*. 3 liburuki. Northampton, Mass.: Edward Elgar. Publishing.
- Harris, D. (1987), *Justifying State Welfare*, B. Blackwell, Londres, 1987.
- Hassler, J.; Rodríguez Mora, J.; Storesletten, K.; Zilibotti, F. (2003), «The Survival of the Welfare State», *The American Economic Review*, Martxoa.
- Hirschman, A. (1970), *Exit, Voice, and Loyalty: Responses to Decline in Firms, Organizations, and States*. Cambridge, MA: Harvard U.P.
- Kildal, N.; Kuhnle, S. (arg.) (2006) *Normative Foundations of the Welfare State: The Nordic Experience*. Londres: Routledge.
- Kolm, S-K.; Ythier, J-M. (arg.) (2006), *The Economics of Giving, Altruism and Reciprocity*, Amsterdam, Elsevier.
- Lane, R. (1991), *The Market Experience*, Cambridge, Cambridge U. P.
- Layard, R. (2004), *Happiness. Lessons from a New Science*, Londres: Penguin Books.

- Leach, J. (2004), *A Course in Public Economics*, Cambridge U.P.: Cambridge, 2004
- Ollman, B. (arg.) (1998), *Market Socialism: the Debate Among Socialists*, Londres: Routledge.
- O'Connor, J. (1973), *The Fiscal Crisis of the State*, N. York: St. Martin's Press.
- Ovejero, F. (2002), *La libertad inhóspita*, Bartzelona, Paidós.
- Ovejero, F. (2007), *Proceso abierto*, Tusquets, Bartzelona.
- Ralws, J. (1971), *A Theory of Justice*, Cambridge, Mass: Harvard U.P.
- Robinson, J.; Nove, A.; Nuti, M. (arg.) (1972), *Socialist economics: selected readings*. Harmondsworth, Middlesex: Penguin books.
- Shapiro, D. (2000), *Is the Welfare State Justified?*, Cambridge, Cambridge U.P.
- Saunders, F. (2000), *The Cultural Cold War*, The New Press: N. York.
- Schmitter, P. C. and Lehbruch, G. (arg.) (1979), *Trends toward Corporatist Intermediation*, Londres: SAGE.
- Schumpeter, J. (1976), *Capitalism, Socialism and Democracy*, New York: Harper (e.o. 1949).
- Schultz, W. (2001), *The Moral Conditions of Economic Efficiency*, Cambridge: Cambridge U.P. 2001.
- Taylor-Gooby, P. (1985), *Public Opinion, Ideology and State of Welfare*, Roudtledge, Londres.
- Thaler, R.; Sunstein, C. (2008), *Nudge: Improving Decisions about Health, Wealth, and Happiness*, New Haven, CT: Yale U.P
- The Federalist Papers* (1961), Mentor Book: N. York.
- Tocqueville, A. de (2004), *El Antiguo Régimen y la Revolución*, Istmo, Madril (e.o. 1856).
- Warren, M. (arg.) (1999), *Democracy & Trust*, Cambridge, U. P., Cambridge.



GONZALO MAESTRO BUELGA

*Konstituzio Zuzenbidean katedraduna,
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea*

Estatu sozialaren etorkizuna

1. Atariko gogoetak

Estatu soziala amaitu dela defendatzen dut. Estatu soziala amaitu dela, eta beste Estatu modu batek ordezkatu duela, merkatu-Estatuak (Bobbitt, 2002). Beraz, Estatu sozialaren etorkizunaz hitz egiteak ez du zentzurik. Estatu sozialaren oinarri materialak desagertu egin dira, eta bai subjektu politikoak eta sozialak, gatazka industrialarekin erlazionatu daudenak, bai botere publikoaren eta gizartearen arteko harremanak, nabarmen aldatu dira.

Noski, gauza batzuek berdin diraute, eta, esate baterako, Estatuaren politika sozialak eta jarduera ekonomikoak garrantzi handia dute merkatu-Estatuan, baina beren esanahia nabarmen aldatu da.

Nire proposamena azaltzen saiatzeko, Estatu sozialaren ezaugarriak azaldu beharko ditut, eta, oinarri horretatik abiatuta, Estatu sozialeko eredu integratzailea hautsi dela baieztatuko dut.

1.1. Estatu soziala

Estatu sozialaren krisiari buruzko lehenengo aipamenak aspaldi egin ziren arren (Rossanvallon, 1981; O'Connor, 1981), azkeneko bi hamarkadetan doktrinak ez du sakondu Estatu sozialean gertatu diren eraldaketan ondorioetan. Konstituzionalismotik abiatuta, ez da eratu Estatu sozialaren teoriarik, neurri batean kultura juridiko konstituzionalean Estatu moduaren kontzeptua bera mesfidantzaz hartzen delako, eta, agian, horretan datza arazoa. Horrela bada, Estatu sozialaren zatikako hurbilketa egin da, Estatuak babes sozialaren arloan gauzatutako esku-hartzearekin erlazionatuta, edo erlatibizatuta, momentuaren arabera intentsitate desberdina duen eta malgutasun handiko kontzeptu gisa aurkeztu den printzipio konstituzional bat bailitzan (Lopez Guerra, 1980: 171-91; Aragón Reyes, 1995: 121-41). Eta gehienen gustukoa ez den ikusmolderik ezean, Estatu sozialari buruzko hausnarketak indarra galdu du. Horregatik, abiatu aurretik, hurbilketa kontzeptuala egin beharko dugu.

Kontuan hartu behar den lehenengo bereizketa honako hau da: politologiak eta soziologiak giltza desberdina erabiltzen dutela hurbilketak egiteko, konstituzionalismoari dagokionez. Estatu sozialak eta ongizatearen Estatuak (kontzeptu soziologiko-politologikoa) ez dute esanahi bera. Ongizatearen Estatuak babes sozial

publikotik abiatuta definitzen da, eta hurbilketa horretan datza, hain zuzen ere, kontzeptuaren urritasuna. Gianninik, Estatu soziala ikuspuntu horretatik definitzea zaila dela adierazi zuen, eta, gainera, kontzeptua bera baliogabea dela erakutsi zuen, babes sozial publikoaren maila-bakartasunak gogora ekartzen duen zama murriztailea dela-eta (Giannini 1977: 139-50). Bigarren Mundu Gerraren ondoren «Estatu klaseaniztun» gisa hedatu eta sendotu zen Estatu modua definitzeko proposamenaren bidez, Estatu sozialaren ezaugarritze ardatza lanaren integrazioaren inguruan kokatu nahi izan da (Maestro Buelga, 2002, a). Testuinguru horretan txertatu behar dira babes sozialerako mekanismoak, bereziki Eskubide sozialak. Lanaren integrazioa, Estatu liberaleko (klase bakarreko Estatu) klase bazterketaren aurrean. Integrazioa maila ekonomikoan eta politikoan artikulatzen zen, eta integrazio ekonomikoa bi norabidetan agertzen zen, merkatuaren bidez eta esku-hartze publikoaren bidez. Arreta bereziki integrazio ekonomikoan jarriko dugun arren, integrazio politikoa Estatu liberalaren demokratizazioarekin (botoa eta elkarte politikoak), eragile sozialen onespén politiko-konstituzionalarekin eta politikaren eta erabaki politikoaren ikusmolde berriarekin (politologiak eta soziologiak korporatibismo edo neokorporatibismo izendatu zutena; Schmitter, 1974: 85-131) lotuta dago. Integrazio ekonomikoari dagokionez, gogoeta sakonagoa egin beharko dugu.

Hasteko, merkatuaren eta botere publikoaren arteko harreman berri bat ezartzen du jarduera ekonomikoetan, eta «sistema ekonomikoarekiko lotura sozial» gisa izendatu dezakeguna barneratzen du (Maestro Buelga 2002 b: 35-111). Esku-hartze ekonomikoa lotura horrek berak legitimatzen du, hain zuzen, eta haren inguruan eraikitzen da, kontzeptualki, Estatu sozialaren konstituzio ekonomikoa.

Ongizate sozialaren estandarren bermea ez zegoen erlazionatuta babes sozial publikoarekin eta Eskubide sozialekin bakarrik; aipaturiko lotura sozialean ere oinarritzen zen. Eta lotura horrek, logika banatzailea txertatzen zuen merkatuaren funtzionamenduan. Soldata, kapitalaren etekinen kontrako elementu gisa jo ordez, eskari erantsiaren zirkuituan eta aberastasunaren eta hazkunde ekonomikoaren eraketan integratu zen. Ekonomiarekiko lotura sozialean esku hartzeko mekanismo juridiko-konstituzionalak, sistemaren funtzionamendua premia sozialekin lotzen zuten esku-hartze arauetatik eta lanak aberastasun ekonomikoaren sorkuntzan duen parte-hartzea artikulatzen zuten Eskubide sozialetatik ateratzen ziren. Sindikazioak eta grebak, gatazka eskubide gisa eta negoziazio kolektiboak, merkatuaren bidezko banaketaren prozedurak ezartzen dituen eskubide gisa, lotura sozialaren banaketa alderdia juridifikatzen zuten. Eta gainera, lan merkatuaren xedea lana subjektu politiko gisa sendotzea eta bere zentraltasun politikoa eta soziala bultzatzea dela jotzen zen. Lanaren tutoretzak, zuzenbide konparatuan hainbat formularen bidez artikulatzen zenak, merkatuaren funtzionamenduen bidez banaketan esku hartzeko gai zen gatazka ahalmena indartzeko joera zuen.

Esku-hartze ekonomiko publikoak, banatzeko aukera ematen zuen hazkunde orokorra ahalbidetzen zuen, eta, gainera, banaketa eta hazkundera uztartzen zituen. Esku-hartze tresnek (zerga sistema, enpresa publikoa, zerbitzu publikoa, etab.) Estatu sozialaren egitura bere egiten zuten. Baina banaketa mekanismo publikoen bidez gauzatzeaz gain, merkatuan bertan ere txertatzen zen, eta, horretarako, merkatuak bere autonomia galdu zuen (gaiari buruzko teoria Friburgoko eskolak edo ordoliberalismoak garatu zuen; Di Nella, 1999: 171-228), eta, gainera, politikoki gobernatzen zen, ekonomiarekiko lotura sozialean oinarrituta.

Babes sozialerako esku-hartze publikoa merkatuaren bidezko integrazio ekonomikoaren eta sistema ekonomikoaren funtzionamenduen osagarri da, eta ekonomiaren funtzionamendu orokorrean mekanismo horiek banaketari buruz zuten ikusmolde bertutetsuan txertatzen da. Babes soziala ez zen ikusten ekoizpenari erantsitako kostu ekonomiko gisa, baizik eta eskariaren parte gisa. Babes sozial publikoaren konstituzionalizazioa, Estatu sozialaren osagai bereizgarrienak diren Eskubide sozialen bidez gauzatzen da, baina Estatu sozialak baditu osagai gehiago ere.

Estatu sozialean, eskubide sozial prestazionalak izaera konplexua dute, eta bi alderdi dituzte: bermearen alderdia eta gatazkaren alderdia. Lehenengoari dagokionez, bermea ahula den arren, izaera konstituzionala du, eta konstituzioaren eraginkortasun arau-emailearen ondorio da. Tutoretza teknikak ez dira nahikoak izan babes maila egokia bermatzeko, eta jurisprudentzia konstituzionalak ez die oso harrera ona egin beren eraginkortasunaren aldeko iritziei. Hala gertatu da, adibidez, Espainiako Konstituzio Auzitegian. Gatazkaren alderdia, berriz, Eskubide sozialen banaketa izaerarekin erlazionatuta dago, eta, juridikoki, Eskubide sozialen edukia legegintzako boterearen eta erregelamendu ahalaren esku jarriz mamitzen diren formulen bidez adierazten da. Eskubide sozialen ahultasun konstituzionalaren arrazoiak banaketarekiko lotura eta merkatuarekiko konexioa dira, hain zuzen. Jurisprudentiaren ikuspuntutik, zuzenbide konparatuan, erreserbaren klausulak eta eskubide baldintzatuen eta ez-baldintzatuen arteko bereizketak eskubideen edukiaren eskuragarritasuna artikulatzen dute. Espainiako Konstituzioko 53.3 artikuluan ideia bera dago adierazita.

Eskubide sozial prestazionalak eta gainerako eskubide konstituzionalak desberdinak direla defendatzeko arrazoi teknikorik ez dago, eta beren *status* konstituzional desberdina Estatu sozialaren izaera konpromisarioari zor zaio. Hala ere, Alemaniako Konstituzioan, badirudi azkenean Forsthoff izan zela garaile (Forsthoff, 1973) Estatu sozialaren klausularen izaerari buruzko eztabaidan.

Eskubide sozial prestazionalen ahultasun konstituzionala bereziki nabarmena da gaur egun, Estatu soziala hausten ari delako. Izan ere, gatazkaren alderdia nagusitzen ari da bermearen alderdiaren aurrean, eta konstituzionalismo sozialak ezarri zuen oreka ezegonkorra desagertzen ari da.

1.2. Metodologiari buruzko ohar bat

Lehenago esan dudana bezala, Estatu soziala amaitu dela eta merkatu-Estatuak ordezkatu duela defendatzen dut, baina alde zuzetik, Konstituzioaren aginduekiko kontraesana gainditzeko aukera emango duten gogoeten berri eman beharko dut. Espainiako Konstituzioa, Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu zen konstituzionalismo sozialaren tradizioan txertatuta dago (1.1 artikuluko formula horren adierazle da). Hala ere, zenbait nabardura egin daitezke, Espainiako Konstituzioa krisiaren konstituzioa edo trantsizioko konstituzioa dela adierazteko (Maestro Buelga, 2002 a: 152-7). Baina ez da momentua gai horri buruzko gogoeta sakona egiteko, eta, beraz, gure aukera labur-labur justifikatuko dugu.

Aurreko mendeko 90eko hamarkadaz geroztik, Estatu sozialeko eduki bereizgarriekin guztiz kontrajarrita dauden eraldaketak gertatu dira. Eta eraldaketa horiek ondorio sakonak izan dituzte. Ez da izan berrikuspen kuantitatibo edo aukera berrikuspen soil bat, eta, hortaz, Estatu modua hautsi dela esan behar da. Merkatu-Estatuko osagai berriek, indarrean dagoen konstituzio formala hautsi egin dela eta konstituzio material berri bat azaleratzen ari dela adierazten dute. Proposamen mortatiarrak (Mortati, 1941), Konstituzioaren edukien eta errealitatearen arteko kontraesana ebazteko aukera ematen du. Estatu sozialeko edukien arau konstituzionalak atzeraldian sartu dira, arau eraginkorrak dituen merkatu-Estatuko konstituzio material berriaren aurrean. Eta europar integrazioak momentu normatibo-konstituzionala korapilatzen lagundu du. Itunek, sortzetikoetatik hasi eta gaur egun indarrean dagoenera arte (Lisboako Ituna), materialki konstituzionala den edukia dute, konstituzionalismo sozialari kontrajarria dagoena eta merkatuaren zentralitate nabarmena bereizgarri duena. Eduki hori Europa osoko ordenamendura hedatu da, eta Estatu sozialean merkatuaren eta eskakizun sozialen artean ezarritako harremana behetik gora jarri du. Europar integrazioa areagotu bitarte (Maastricht-eko Ituna izenpetu bitarte), bi eredu kontrajarrien arteko elkarbitza posible izan zen, baina

Maastricht-eko Ituna izenpetzearekin batera, Estatuak politika ekonomikoaren eta sozialaren gaineko autonomia galdu zuten.

«Europako konstituzioak», Batasuneko herrialde askotako Estatu sozialarekin erlazionatutako konstituzio formalaren eta merkatu-Estatuko konstituzio materialaren arteko kontraesana ebatzi du, merkatu-Estatuaren edukiak inposatuz.

Esan dugun bezala, hau ez da une egokia proposamen honetako alderdi metodologikoak zehatz-mehatz aztertzeko, baina ezinbestekoa da gutxienez proposamena formulatzea, gero esango duguna ulergarria izateko. Nahiz eta badakigun aipaturiko jarrerak polemikoak direla.

Ikuspuntu horretatik, Estatu sozialaren etorkizunari buruzko eztabaidak garrantzia galdu du, eta ahituta dago, Estatu soziala merkatu-Estatuak ordezkatu duelako. Gaur egungo momentu konstituzionalari buruzko hausnarketan, ezinezkoa da Estatu sozialaren logika berreskuratzea, non eta ez den erabiltzen krisiaren aurrean banaketaren eta merkatuaren gobernuaren papera berreskuratzeko proposamen gisa. Izan ere, krisiaren eraginez, irismen luzeko hausnarketa egin beharko da konstituzionalismotik abiatuta.

2. Merkatu Estatuari buruzko aipamen laburrak

Estatu soziala hautsi dela esan ondoren, beharrezkoa da Estatu modu berriko konstituzio materialaren edukien hurbilketa egitea. Merkatu-Estatuari buruzko gogoeta orok Estatu sozialari buruzko aipamenetatik abiatu beharko du, nahitaez. Izan ere, Estatu modu berriko edukiak Estatu sozialari kontrajarrira ezarriko dira.

Estatu sozialaren hausturaren konstituzio materiala definitzeko lehenengo hurbilketa, gure proposamenaren parte dena, honako hau da: konstituzio materialak disolbatu egiten ditu sistema ekonomikoarekiko lotura sozialak, konstituzionalismo sozialak ezarri zituenak. Konstituzio materialak Estatua berriro merkaturatzen du, eta, horregatik, «merkatu-Estatua» esamoldeak Estatuaren eta gizartearen arteko harreman berria islatzen du, literalki.

Estatu liberalean konstituzio materiala ezkutuan mantentzen zen, baina orain, Estatu eredu honetan, merkatu globaleko eskakizunekiko mendekotasuna agerian dago. Berriro merkaturatzeak, Estatu moduaren erdigunean merkatua eta bere funtzionamendu ez-baldintzatua jartzea eta jarduera publikoa merkatuaren bermearekin eta tutoretzarekin lotzea esan nahi du.

Estatu sozialean subjektu konstituzional indartsu gisa agertu zen lanaren integrazioa, baina orain, baztertu egin da. Orain, gatazkaren integrazioa eta bere osaera zehazteko gaitasuna galdu du. Horregatik, sistema ekonomikoaren interes sozialarekiko lotura, lanaren integrazioaren inguruan definitzen zena (enplegu bete politika ekonomikoaren helburu gisa, babes soziala eta ongizate orokorraren bermea), gainbehera joan da, eta galdu egin du ekonomiaren gaineko esku-hartze publikoa legitimatzeko gaitasuna. Merkatuaren autonomiaren tutoretza eta kapital metaketaren sustapena dira orain ekonomiaren gaineko esku-hartze publikoaren helburu.

Konstituzio ekonomikoa, Estatu sozialeko konstituzio materialaren muina osatu zuena, eskubideen sistema eta Estatuko jardueraren antolakuntza definitzen zituena, aipaturiko hausturaren adierazle da. Badirudi ordena berrian elementu sozialek iraun dutela, baina funtsean, bestelako esanahia dute, legitimazioaren arlo mugatzen dena. Interes ekonomikoak balio nagusitatzat hartzen ez direla adierazi arren, konstituzio ekonomikoa baldintzatzen duten neurrian, erabakigarriak dira proiektu orokorra definitzeko. Konstituzio ekono-

mikoak Estatu sozialeko konstituzio materiala definitzen zuen, eta, bertatik abiatuta, Estatu modu horretako proiektua erabakitzen zen. Estatu sozialean, arlo horretan egin ziren eraldaketak guztiz berritzaileak eta bereizgarriak izan ziren. Boterearen eta gizartearen arteko harremana espazio horien arteko bereizketaren amaieraren gainean eraiki zen, konstituzionalismo sozialeko konstituzio ekonomikotik abiatuta. Horregatik, Estatu modu berria eta bere konstituzio materiala definitzeko abiapuntua konstituzio ekonomiko berria da.

Merkatu-Estatua azaleratzen ari dela erakusten duten eraldaketak nabarmentzeko, bost gorabeherari erreparatuko diegu.

2.1. Merkatuaren gobernuaren versus botere publikoaren mendekotasuna merkatuaren aurrean

Eztabaida hau apropos proposatu dugu, gobernu ekonomikoaren gaia funtsezko gai gisa azalatu delako krisiaren ondorioz. Badakigu «merkatuaren gobernuaren» formulak merkatuaren kontrola iradokitzen duela eta hori ez datorrela bat Estatu sozialean ezarritako harremanarekin. Baina merkatuaren gobernuaren baino gehiago, zentzu hertsian, Estatu sozialeko konstituzio ekonomikoak merkatua baldintzatzeko mekanismoak ezartzen zituen, politikoki definitutako helburu sozialak erdiesteko eta bere autonomiaren amaiera berresten zuen. Konstituzionalismo sozialean merkatua baldintzatuta zegoen, eta lotura sozialek merkatuaren funtzionamenduaren aurka egiten zuten, lehiaren eta etekinaren arauak indarra kenduz. Esku-hartze tresnek (plangintza indikatibotik hasi eta sektore publikora arte) lotura sozialaren gailentasuna adierazten zuten, eta merkatuaren funtzionamendua mugatzen zuten, etekin pribatuaren eta lehiaren arauen bateragarritasun eta mendekotasun printzipioan oinarrituta. Merkatu-Estatuak buelta ematen dio erlazio horri, eta lotura ekonomikoa ezarri du gizarteari eta bere interesei begira. Ekintza publikoa eragiten duen faktorea merkatua da, eta bere tutoretza eta sustapena esku-hartze ekonomikoaren legitimazio bihurtu dira. Horren guztiaren ondorioz, Estatu sozialeko konstituzio ekonomikoak sortutako esku-hartze mekanismoak bertan behera utzi dira.

2.2. Esku-hartzea versus erregulazioa

Noski, merkatu-Estatuak ekonomian esku hartzen ez duela esateak ez du zentzutik. Politikaren eta ekonomia-aren bereizketaren printzipio liberal zaharra, merkatuaren autonomia eta nagusitasuna bermatzen zituena, merkatu-Estatuko konstituzio ekonomikotik kanpo dago; hala ere, esku-hartzearen esanahia guztiz desberdina da. Behartua dirudien arren, bi kontzeptuak aurrez aurre jartzea eta bi esku-hartze mota bereiztea komeni da: merkatua baldintzatu nahi dutenak eta merkatuaren funtzionamendua bermatu nahi dutenak. Esku-hartze modu horien logikak desberdinak dira. Horregatik, bereizketa horretan sakontzeak merezi du, jarraitutasun formalak gertatu diren eraldaketen irismena ezkuta dezan saihesteko.

Esku-hartze hitza erabiltzen dugunean, Estatu sozialeko esku-hartze moduei buruz ari gara, merkatua baldintzatzeko zuten esku-hartze moduei buruz. Aldiz, *erregulazio* hitzak Friburgoko eskolako printzipioak heredatu dituen ereduaren barneratu du. Ordoliberalen merkatuaren buruaskitasunaren eta autonomiaren mitoa lurperatu zutela adierazi dugu. Merkatuaren naturalismoa haren artifizialtasunaren eta jatorri politikoaren kontzientziak ordezkatu du, merkatuaren existentzia bermatzeko esku hartu behar dela jakiteak. Pentsamolde ekonomiko anglosaxoiak, Friburgoko eskolako bezalako egitura teoriko konplexurik ez duenak, antzeko ondorioak atera zituen *antitrust* araudia garatuz, merkatuaren tutoretza modu gisa. Proposamen horien azpian datzana da merkatuak euskarri publikoa behar duela irauteko, baina esku-hartzearen bidez ez dela merkatua baldintzatu nahi,

baizik eta bere legeen arabera funtziona dezan bermatu nahi dela. Lehiaren tutoretza erregulazioaren interbenzio ardatz bihurtu da, eta jarduera antiziklikoa eta esku-hartze soziala funtsezko helburu horren mendekoak dira, eta ez dute merkatua baldintzatzen. Proposamen ordoliberalak teorikoki jaso du Estatu erregulatuaren formulak (Majone eta La Spina, 2000), merkatu-Estatuko merkatuaren eta botere publikoaren arteko harremana artikulatzen duen paradigma gisa taxutzen denak. Egiaz, lehiaren tutoretzak ez ditu ahitzen erregulazioaren helburuak; nahikoa da ikustea EBk zer neurri hartu dituen krisiaren kontra borrokatzeko. Baina denak merkatuaren funtzionamendua berreskuratzen ahalegintzen dira, bere legeen arabera edo bere funtzionamendua desitxuratzea saihestuko duten osasun baldintzak berrezarritik. Azken batean, logika berari erantzuten diote.

2.3. Merkatuko banaketaren amaiera

Banaketak Estatu sozialean zuen formaren aurrean, merkatu-Estatuak interpretazio liberala berreskuratu du: dimentsio bakarrekoa, soldata kostu gisa ikusten duena, etekinarekiko eta merkatuarekiko harreman kontraesankorra ezartzen duena. Laneko ordainsariaren ikusmolde ricardiarrak, Estatu sozialean baztertu zen eragina berreskuratu du, lanaren integrazio ekonomikoaren amaiera berresten duena. Merkatuak dagoeneko ez du aberastasuna gizartean birbanatzeko eginkizunik, eta mekanismo normatiboak, gatazka sozialeko eskubideak, negoziazio kolektiboa, etab., ez dira gai konstituzionalismo sozialean zuten funtzioa berreskuratzen. Iraun dute, baina erresistentzia ahularen eremuan giltzapetuta daude, eta ez dute birbanaketarik eragiten. Are gehiago, merkatu-Estatuak harreman gatazkatsua du eskubide horiekin; mendekotasun eta bazterketa harremana. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak besteak beste Laval eta Viking enpresetako kasuetan eman dituen epaiak, lehen birbanaketari laguntzen zioten eskubideen narriaduraren eta mutazioaren adibide dira. Ordainsaria eta banaketa eskariaren zirkuituan integratu ordez, zorduntze pribatua agertu da, hazkunderako beharrezkoa den kontsumo maila mantentzeko aukera ematen duena. Krisiari buruzko lan batzuek (Bellofiore eta Halevi, 2010; Fumagalli, 2009:99-124) maileguaren eta zorduntze pribaturen papera azpimarratu dute, laneko errentak desjabetzen dituen metaketa modu berri batean, eta kapitalaren aldeko banaketan edo alderantzizko banaketan sakondu dute. Krisiaren irakurketa horiek agerian uzten dute Estatu sozialarekikoak egin dituen eredu bateranzko trantsizioan gaudela. Mendebaldeko lan merkatuen erreformak ezaugarri horren adibide dira.

2.4. Babes sozial publikoa

Estatu moduaren aldaketak babes sozial publikoan islatzen dira. Noski, babes sozial publikoa mantendu egin da, eta gastu publikoaren ikuspuntutik, garrantzi kuantitatibo nabaria mantentzen du. Hala ere, logika estatistikoak ezin ditu ezkutatu merkatu-Estatuak babes sozialaren arloan egin dituen aldaketak, merkatuko banaketari buruz esan denarekin paraleloan. Gai horri buruz, bi aipamen egitea komeni da. Batetik, babes publikoak merkatu-Estatuan dituen ezaugarriak, eta bestetik, aldaketa horiek Eskubide sozialean duten eragina.

Lehenengoari dagokionez, banaketa alderdi alderdi legitimatzaileak ordezkatzen du, bazterketaren kontrako esku-hartze gisa, lanaren integrazioaren amaierarekin bat eginda. Babes sozial publikoko sistemen intentsitate galerak (Maestro Buelga eta García Herrera, 1999:62-4) eta sistemon merkaturatzeak agerian jartzen dute babes soziala ekoizpeneko kostu gisa ikusten dela orain (Jessop, 2000:95-125) eta, hortaz, babesa eta merkatua kontraesanean daudela. Babesaren intentsitatearen murrizketa eta haren merkaturatzea hainbat modutan adierazten dira, sektorearen arabera, baina joera garbiak direla esan daiteke.

Babesaren intentsitatearen galera bere kabuz azal daitekeen arren, badirudi merkaturatzea ez dela hain agerikoa. Pentsioen auto-finantziazioaren printzipioak, sistemaren krisiari buruzko diskurtsoa jasan behar duenak, merkataritzako logika barneratu du babesaren arloan, eta, gainera, babesaren espazioa zabaldu du, merkaturako eremu gisa. Literatura soziologikoaren arabera, babes sozialaren arloan arriskua eta tutoretza maila pribatura igarotzen ari dira pixkanaka (Hacker, 2006), eta babes sozialak Estatu sozialean zituen ezaugarriak desnaturalizatzen ari dira.

Eskubide sozialei dagokienez, Estatu modu berrirako trantsizioak gatazkaren alderdia areagotu du, bermearen alderdia ahuldu du, eta bi alderdion deskonstituzionalizazioa eragin du (Maestro Buelga, 2006 a: 63-90; Cantaro, 2006: 91-13). Lehenago esan dugunez, azkenean Forthoff izan da garaile, Eskubide sozialak desnaturalizatu direlako; horixe izan zen konstituzionalismo sozialaren benetako ekarpena, konstituzionalismo liberaleko eskubideen ikusmoldeari beste norabide bat eman ziona. Europako konstituzio ekonomikoak Eskubide sozialen sistema estatalean izan duen eragin normatibo-konstituzionalak eta merkatu-Estatuko konstituzio material berriak inposatzen dituen eraldaketek areagotu egin dute eskubideen erabilgarritasun politikoa, eta eskubideak maila azpikonstituzionalean kokatu dira; hortaz, merkatuarekiko mendeko bateragarritasuna inposatu izanaren ebidentzia juridikoak daude.

3. Europako eredu soziala

Badirudi Estatu sozialaren etorkizunari buruz hitz egiten denean «Europako eredu soziala» nahitaez aipatu behar dela; batetik, Estatu sozialeko edukiak europar integrazioak baldintzatzen dituelako, bereziki integrazioaren fase honetan, eta, bestetik, «Europako eredu soziala» Batasuneko herrialdeetako muineko sistema sozialen eraispena ezkututzen duen ordezkotako formula bihurtu delako. Egiaz, Batasuneko zuzenbidean eredu soziala definitzea falta da, termino politikotako bat da. Eredu soziala Itunetan barneratzeko ahaleginak ez zuen arrakastarik izan, hain zuzen ere porrot egin duen Itun konstituzionala lantzeko garaian, eta Lisboako Itunetan bertan behera utzi zen. Eredu soziala Europako sorrerako zuzenbidean txertatu izan balitz, Europako konstituzionalismoko printzipioen egiaztapenean eta osieran barneratzeko aukera normatibo ahul bat egongo litzateke, baina Europako eredu sozialak ez ditu zeharkatu politikaren mugak.

Nolanahi ere, bere edukietan sakontzen saiatzea komeni da. Egiaz, Europar Batasuneko Estatu sozialek 2004ko zabalkuntzara arte izan zuten prestigioaren gozamina izan nahi du terminoak. Terminoaren edukia Europako oraintsuko iragan historikoko (15en Europa) tradizioarekin lotuta zegoen, baina ez zuen Batasuneko zuzenbidetik eratorritako berezko edukirik. Hortaz, eginkizun legitimatzaile berria zuen, Europako ordenamenduak inposatutakoa. Ereduen ikuspuntutik, nekez defini daitekeen «Europako eredu soziala» elkartasun lehiakorren terminoarekin definitu den Estatu sozialari kontrajarri zaio (Streeck, 2000: 3-32). Ereduen arteko gatazkak agerian uzten du «Europako eredu soziala» ez dagoela kokatuta Estatu sozialaren logikan, haren hausturaren logikan baizik.

Batasuneko Estatuak oso egoera desberdinetan daudela ikusirik, zaila da Europako eredu sozialari buruz hitz egitea (Scharpf, 2002) eta are gehiago azkeneko zabalkuntzen ondoren; izan ere, lehen benetako sozialismoaren mundukoak ziren herrialdeak Europar barneratu ondoren, Estatu sozialarekin erlazionatutako ereduarekin zerikusirik ez duen ereduak ezarri da. Gainera, eredu soziala moderniza dadin eskatzen ari dira aspaldian Batasuneko erakundeak, eta horrek auzia asko korapilatzen du. Baina eredu soziala definitu ere egin ez denez, moderniza dadin eskatzea paradoxikoa da, eta, gainera, badirudi aurreko mendeko 80ko hamarkada

dara arte 15en Europan sortu ziren babes sistemetatik iraun duena erreforma dadin eskatzen dela. «Europako eredu soziala» ongizatearen Estatuko hondarrak gaintuz zehazten da, babesaren eta merkatuaren arteko kontraesan politikoa ezarriz.

Europako erakundeek europar ereduari buruz hitz egiteko garaian egiten dituzten aipamen normatiboak Maastricht-eko Itunaz geroztik politika sozialeko eskumenetan egindako areagotzei buruzkoak dira, bereziki Amsterdameko Itunaren bidez ezarri zen enplegu politikari buruzkoak (Nizako Kontseiluko lehendakariaren ondorioak; 2000ko abendua). Lisboako Itunak ekarri dituen berritasunak gorabehera («merkatuko gizarte ekonomia sozial guztiz lehiakorra» (Lisboako Ituneko bertsio bateratuko 3.3 artikulua) eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna), Europako eredu sozialak eta Estatu sozialak kontraesanean jarraitzen dute (Maestro Buelga 2006 b, 2008 eta 2010). Kontseiluak, definizio politikoak egiteko garaian, porrot egin duen Lisboako Agendako proposamenak hartu ditu oinarri, 2002ko martxoko Bartzelonako Kontseiluko ondorioetan zehaztu zirenak, inongo berrikuntzarik egin gabe. Egia esan, Europako erakundeek Europako eredu sozialari egin dioten ekarpen politiko nagusia malgusegurtasunaren (malgutasuna + segurtasuna) kontzeptua dela esanenez, Batasuneko Estatuetakoa lan merkatuak erreformatzeko eskakizunekin lotuta dagoena. Lan merkatuaren malgutasuna eta lanpostuen bermea bateratzen saiatzeko, Danimarkako eta Holandako esperientziak hartu dira oinarri, baina zaila da esperientzia horiek gainerako herrialdeetan ezartzea. Malgusegurtasunak, Batzordearen definizioa kontuan hartuta (ikus «COM (2007) 359 final» dokumentua) eta nola ezartzen den ikusita, babesik gabeko lan merkatuen malgutasunean jartzen du azentua. Esku-hartze bakar bat dago, prestakuntzakoa, enplegarritasuna sustatzeko. Ondorioz, malgutasunaren kontrako jarrera justifika daiteke; izan ere, kontzeptu onuragarria zirudiena, bestelakoa da errealitatean, eta malguesplotazioetik gertuago dago (Gray, 2004).

«Europako eredu soziala» ezin da hartu jarraipen formula gisa, Estatu sozialak irauteko aukera emango duen egokitzapen formula gisa; aldiz, merkatu-Estatuko eredu soziala berresten du, konstituzionalismo sozialeko tradizioaren aurka (Maestro Buelga, 2006 b:7-44).

4. Krisiari buruzko gogoeta batzuk

Bistakoa denez, ez dugu krisiaren interpretaziorik proposatu nahi; mintzaldi honen helburuetatik haratago dago hori. Alabaina, hurrengo ataletako oinarri izango diren adierazpen batzuk egitea komeni litzateke.

Batetik, krisia sistemikoa dela uste dugu, eta azkeneko bi hamarkadetan garatu den metaketa ereduaren uztan du agerian, desberdintasuna sakontzean oinarritzen den ereduaren. Azkeneko bi hamarkadetan lan errentek atzera egin dute, irabaziak berreskuratzeko eskakizun gisa, eta Estatu sozialean zuten paperarekin kontraesanean jarri dira.

Gaur egun, ekonomiaren ikuspuntutik, desberdintasuna ezinbestekoa da metatzen jarraitzeko, eta hiru ondorio hauek ditu: batetik, herritarren bizi maila okerrera egiten ari da (azkeneko hogeita hamar urteetan lan errentek nabarmen egin dute atzera, kapital errentekin alderatuta); bestetik, babes sistemak berrikusi dira, eta indarra galtzen ari dira, banaketa alderdia bertan behera utzi delako; eta azkenik, enplegu bete dagoeneko ez da sistemaren helburu, eta lana gero eta ezegonkorrago da.

Testuinguru horretan, finantziarizazioaren bidez, arriskua eta bere tutoretza eremu publikotik pribatura igaro dira. Eta horretarako, zorduntze pribatua areagotu behar izan da, desberdintasunei aurre egiteko. Aldi

berean, baliabide ekonomikoak (lan errentak) xurgatzeko aukera ere ematen du zorduntze pribatuak, eta, hala, baliabide horiek zirkuitu finantzarioetan sartzen dira, eta kapitalismo finantzarioaren metaketa eredu berria osatzen dute.

Krisiak, agerian utzi du merkatu-Estatuan garatutako metaketa ereduaren jasanezintasun soziala. Jasanezintasun horrek, krisiaren ondorioz, aberastasuna birbanatu dadin eskatzen du. Estatu sozialak auzi horri erantzun zion, baina krisiak auzia berriro piztu du, eta etekin pribatuaren eta banaketa sozialaren arteko harremana berriro proposatu du. Hala ere, krisirako erantzunen arabera, eredia mantendu behar da.

Bestetik, krisiak agerian utzi du merkatuak ez duela gaitasunik erregulatzailer sozial eta ekonomiko gisa jarduteko. Krisiak berriro piztu du merkatuaren gobernu politikoari buruzko eztabaida, eta egin dugun lehenengo adierazpenarekin uztartu du. Krisiaren hasieran merkatuaren amaierari buruz egin ziren adierazpen hanpatsuak alde batera utzita, krisia gainditzeko politikak hondar zuzenketak bakarrik egiten dituzte, eta merkatua gobernatzeari uko egiten diote. Krisirako erantzunei esker merkatua politikoki suspertu da, eta krisiaren jatorrian dagoen eredia berrezarri da.

Estatu sozialaren etorkizunari buruzko edozein mintzaldik bi adierazpenoi egin beharko die aurre.

5. Krisia, birbanaketa eta Europar Batasuna

Krisia analisi eremu erabakigarria da aztergai dugun gaiari begira. Hizketa normatibotik haratago, Batasuneko ordenamenduaren eta birbanaketa sozialaren arteko kontraesana egiaztatzea komeni da. Zehatzegiak izan gabe, bi dokumentu hartuko ditugu erreferentzia gisa. Batetik, «Ekonomia Suspertzeko Europako Plana» (COM (2008) 800 final), Europako Batzordeak 2008ko amaieran egin zuena, eta, bestetik, «Europa 2020. Hazkunde zentzudun, iraunkor eta integratzaileako estrategia» (COM (2010) 2020), Europako Batzordeak 2010eko martxoan (Lisboako Ituna indarrean jarri eta gero) egin zuen proposamena.

Europar Batasunak «alderantzizko banaketaren keynesianismo» gisa definitu den estrategia erabili du krisiari aurre berritan erantzuteko. Kapitalerako laguntzek eragin duten asimetria erradikalari krisiaren ondorio sozialak erantsi behar zaizkio. Jarduera ekonomikoari eustea helburu duen esku-hartzeak (keynesianismoa) zeharkako ondorioak ditu banaketan, eta krisiaren ondorio sozialak neurri batean bakarrik arintzen ditu. Bestalde, aurrekontuen diziplina berreskuratuta, krisiaren bigarren faseko politika ekonomikoaren printzipio indartsu gisa, alderantzizko banaketa areagotu da, eta Estatuak etorkizunean izango dituzten politika sozialak errotik baldintzatu dira.

Gaur egun, banaketa sozialaren eta Europar Batasunaren arteko harremanaren metafora Grezia da. Batasuneko herrialdeetako welfare sistemen eta lan merkatuen gaineko presioak agerian uzten du justizia sozialaren eta merkatuaren artean zer-nolako tentsioa dagoen krisi garaian. European, susperraldi ekonomikoaren kudeaketak Estatuaren atzeraldi soziala (politika sozialen murrizketa) inposatu du, eta, atzeraldi horretan, aurrekontu diziplinak argumentu diziplinatzailearena egiten du. Baina susperraldi ekonomikoaren kudeaketa haratago iritsi da, eta zuzenean soldatetan eragin du, alderantzizko banaketaren bidez. Krisiak nolabaiteko desjabetzea eragin du soldatetan eta kapitala areagotu du, eta, hala, banaketako desberdintasunak areagotu dira.

Krisiak eztabaida abiarazi zuen gobernu ekonomikoari buruz, merkatua baldintzatzeko esku-hartzea berreskuratzeko, eta banaketari buruz. Eta eztabaida horien bidez botere publikoaren erantzunak neurtu

beharko lirateke, krisia bera azkeneko hamarkadetako konstituzionalismo ekonomikoak inposatutako merkatuaren paradigmen funtzionamenduaren emaitza den neurrian. Lehenengoa, merkatuarekiko lotura soziala berrezartzeko aurrekontua zen, Batasuneko herrialde askotako Estatu sozialeko konstituzio ekonomikoaren printzipio bat berreskuratzeko (inplizituki erlazionatua tradizio konstituzional komunarekin). Eta bigarrenak, Estatu soziala desagiteko politiken eragina zuzentzea zuen helburu: arrisku soziala herritarren eta familien gain uztea, welfarea pribatizatzeko estrategia gisa. Botere publikoaren egitekoa berreskuratzea, ongizate orokorra bermatzeko. Merkatu finantzarioei laguntzeagatik gertatu zen alderantzizko banaketaren asimetria erradikalak eragin duen zilegitasun falta dela eta, botere publikoaren egitekoa berreskuratzea presakoa da.

Ekonomia Suspertzeko Planean ez dago banaketari edo ongizate soziala mantentzeari buruzko aipamenik. Zeharka, krisiaren ondorio sozialetan dute eragina, jarduera ekonomikoa mantentzearen isla gisa. Neurri finantzarioek, banketxeak erreskatatzeko neurriek eta proposatu diren zergak murrizketek, alderantzizko banaketaren programa berresten dute. Gainera, Planean gogorarazten den esparru normatiboa Egonkortasun eta Hazkunde Ituna da, eta, hortaz, ekonomia suspertzeko aurrekontu neurriek itzulgarriak izan beharko dute, eta krisiko momenturik gogorrenak igaro ondoren, diziplina berreskuratu beharko da. Era berean, porrot egin duen Lisboako Agenda esku-hartze esparru gisa erabil daiteke. Ildo horretan, erreforma estrukturalak eta lehiakortasunaren hobekuntza, eskaria suspertzeko esku-hartzearekin uztartu beharko dira. Ekonomia Suspertzeko Planaren aipamen labur honek argi uzten du helburu sozialak bigarren mailako gaia direla bertan, eta eredu sozialaren ikusmoldea berdin mantendu dela.

Datorren hamarkadako estrategia ekonomikoa definituko duen etorkizuneko proiektu gisa, Lisboako Agenda ordezkatu duen «Europa 2020» proposamena interesgarriagoa da. Formari dagokionez behintzat, aipaturiko bi gaiak aztertu dira proposamenean: gobernu ekonomikoa eta maila soziala. Proposamenaren azpituak bere inspirazioa uzten du agerian: hazkunde zentzudunak, berrikuntzaren arloan lan egitea esan nahi du; hazkunde iraunkorrak, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak esan nahi ditu; eta hazkunde integratzaileak, protagonismoa pertsoneri ematea esan nahi du, enplegu maila handiekin, prestakuntzan inbertituz, pobreziaaren kontra borrokatuz eta lan merkatuak eta babes sozialeko sistemak modernizatuz.

Honako ardatz hauek proposatu dira, 2020 Agendako lehenengo agertoki gisa ageri den krisia gainditzeko: finantza sistemaren erreforma, aurrekontu diziplina berreskuratzea («finantza publikoen saneamendua») eta aurreko ardatzarekin lotutako koordinazio ekonomikoa. Esku-hartze soziala eta gobernu ekonomikoa, jarrera adierazita dagoen moduan laburbildu daitezke.

Esku-hartze sozialaren baitan, bi «ekimen adierazgarri» daude: prestakuntza eta lanpostu berriak eta pobreziaaren kontrako europar plataforma. Lehenengo ekimenak, malgusegurtasunaren eta enplegarritasunaren paradigmatik ekiten dio berriro, politika sozialeko esku-hartze gisa, lan merkatuen erreformaren baitan. Malgusegurtasunari buruzko eztabaidak agerian utzi du azentua malgutasunean jartzen dela eta ez, ordea, segurtasunean. Malgutasun eskaerek lanaren tutoretza ahuldu dute, eta heziketa, lehiakortasun teknologikoa areagotzeko politikaren isla baino ez da izan. Hortaz, porrot egin duen eta babesgabetasunean oinarrituta dagoen strategiari ekiten ari zaio berriro. Malgusegurtasuna, lan merkatuaren kudeaketaren paradigma gezurtatua da, gero eta neurri handiagoan, eta malguesplotazioaren formula doktrina iuslaboralistaren hurbilketa boluntarista batzuk baino gertuago dago errealitateetik. Bigarrenak, pobreziaaren kontrako plataformak, gizarte bazterketaren kontrako borrokan kokatzen du banaketa eta sistemaren marjinalitatean esku hartzen du. Banaketa ez da erabiltzen ongizate orokorra zaintzeko modu gisa, baizik eta bazterketa arriskua dagoenean, muturreko egoeretan. Banaketa gizarte laguntza gisa, arrisku soziala herritarren eta beren familien gain jartzeko

testuinguruan. Europako politika ekonomikoaren eta sozialaren estrategiak merkatuaren eta integrazio sozialaren arteko kontraesan materialari eusten dio.

Gobernu ekonomikoaren erreferentzia, Europako buruzagien ahotan dagoena, «governantza indartsuagoa» formularen bidez adieraz daiteke. Baina, zer irismen du formula horrek? Batzordearen dokumentuan ez dago gobernu ekonomikoari buruzko berrikuntzarik, baina ezin liteke bestelakorik espero, Batasunaren Funtzionamenduko Itunaren aurreikuspen normatiboak ikusirik. Baina Itunen logikari jarraiki, badago are garrantzitsuagoa den zerbait: zuzendaritza ekonomikoak, oreka makroekonomikoak mantentzeko neurri sanitarioak faltsutzen ditu, eta Europa 2020 proposamenarekin erlazioatutako helburuen oharrak dituen diziplina fiskala da. Diziplina momentu indartsuan egoteak eta Europak gobernu ekonomikorako tresnarik (aurrekontua) ez izateak, gobernu ekonomikoa ezartzeko asmoari indarra kentzen diote. Tresna «berriak» Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren betetze mailari buruzko txostenak (Estatu bakoitzekoak) eta Europa 2020ko helburuak dira. Hots, Estatuei gomendio zehatzak egitea eta betetzeko epeak ezartzea, eta betetzen ez dituzten Estatuei «abisua» helarazteko mehatxua, Funtzionamendu Ituneko 121.4 artikuluan aurreikusita dagoen bezala. Berrikuntza horiekin, badirudi «governantza indartsua» edo gobernu ekonomikoa mamirik gabe gelditu dela, guztiz *naifá* dela. Batzordearen dokumentuaren arabera, arau esparrua 1466/97 arauan definituta dago, Egonkortasun eta Hazkunde Ituneko konpromisoak biltzen dituen 126. artikuluan (lehen-go 104.a) eta politika ekonomikoetako orientazio nagusiei buruzko 121. artikuluan. Hortaz, lehen-go eskema bera errepikatzen da, «gobernu ahula eta kontrol indartsua» formulaz definitu duguna, merkatuaren funtzionamendu ez-baldintzatua bermatzen duena eta arreta diziplinaren eta saneamendu makroekonomikoaren arloko esku-hartzean jartzen duena. Batasunaren etorkizuneko estrategiak ez entzunarena egiten jarraitzen du krisiaren eskakizunen aurrean (merkatuaren gobernu eta banaketa), eta integrazio sozialarekiko kontraesan materiala baieztatuta dago. Horrela bada, defizit publikoaren eta zor subiranoaren ondorioek eragin duten larrialdi egoerari emandako erantzunak bizkor itzali du Europa 2020 proposamena. Greziako metafora hedatu egin da, eta Batasuneko muin gero eta adierazgarriagoan eragin du. Erresuma Batua, Espainia, Irlanda, Portugal, Italia eta Grezia, «egokitzapen itzela» egin beharko duten lehenengoak baino ez dira. Baino Greziak ez bezala, gainerakoek ez dute azaldu zer egoeran dauden Estatuena zerga eta aurrekontu mailako ustelkeriaren eraginez. Besterik gabe, Europar Batasunak krisia gaintzeko egin duen proposamena adierazten dute. Funtsean, Greziako metafora ezin da hartu larrialdi egoera gisa, estrategia gisa baizik. Greziako metaforak Europa 2020 proposamenari lekua kendu dio, estalki erretorikoak kendu dizkio, eta erdigunean diziplina fiskala eta alderantzizko banaketa jarri ditu.

6. Lisboako Ituna: porrot egin duen ituna

Lisboako Ituna merkatu finantzarioen funtzionamenduak eragindako krisiaren testuinguruan jarri zen indarrean, baina bere irismena handiagoa da, dudarik gabe.

Konstituzionalismoak hiru mailatan egin behar dio aurre krisiari: banaketaren konstituzionalismo gisa, merkatuaren gobernu konstituzionalismo gisa eta naturaren konstituzionalismo gisa. Lehenengo biak, Bigarren Mundu Gerraren osteko muin konstituzionala osatu zuten, eta, ikuspuntu horretatik, merkatu-Estatuko konstituzio materialak kanporatutako eta Batasuneko ordenamenduak inposatutako edukiak berriro azaleratu ditu krisiak. Hirugarrenak, ikuspuntu ez-merkantilistik, naturaren tutoretza ezartzen du gizakiak jarraipena izateko berme gisa. Banaketak eta ingurumenaren tutoretzak politika indartzen dute merkatuaren aurrean,

eta azkeneko hamarkadetan finkatu den konstituzio materialean politikak ekonomiaren aurrean izan duen mendekotasuna desegiten dute. Horregatik, krisiaren eskakizunak eta Europako konstituzio ekonomikoa aurrez aurre jartzea bidezkoa da. Europako ordenamenduan, bere erabileraren zilegitasunaren kontrako argudioak gainditu dituen nagusitasun kontzeptuala eskuratu duen konstituzio ekonomikoa. Ituneko baliabide erregulatzailerak krisi-aurreari dagozkionak dira, eta azkeneko bi hamarkadetan finkatu den eta orain agortzen ari dela dirudien kapital metaketaren eredia kudeatzen dute. Lisboako Ituna krisitik urrun dago, eta funtsezko erabakietan ez da aldaketarik egon, krisiak bestelakorik eskatzen badu ere. Eraketa itunetan bezala, integrazio sozialaren ikusmoldeak merkatuarekin lotuta jarraitzen du, eta merkatuarekiko mendeko bateragarritasuna du, funtzionala, eta harreman horren gainean eraikitzen da ekonomiaren eta banaketaren arteko kontraesan normatiboa. Lisboako Itunak merkaturia jarri du Europako ordenamenduaren muinean, eta haren esku utzi du premia sozialen gaineko esku-hartzea; subsidiarioritasun horizontala ezarri du arlo horretan, eta, hala, banaketa zokoratu du. Merkatuaren nagusitasunak, Lisboako Itunean aldaketarik jasan ez duen sorrerako printzipio gisa, zein politika sozialaren eta Eskubide sozialen erregulazioak, printzipio hau onartu dute: esku-hartze sozial mugatua, salbuespenezkoa eta merkatuarekiko funtzionala. Baina printzipio hori ez dago Europako ordenamenduarekiko kontraesanean; aitzitik, esan dugun moduan, bere muina da.

Bestalde, politika sozialak eta Eskubide sozialek Lisboako Itunean duten lekuari buruzko azken gogoe-tak ere egin nahi ditugu. Itunak esku-hartze sozialaren zatiketa berresten du, eta Eskubide sozialen kategoria bera itxuraldatu du, kontzeptualki. Gainera, gogoeta hori bizi-bizi dago, Alemaniako Konstituzio Auzitegiak Lisboako Itunari buruz eman duen epaiak Europako ordenamenduko asimetriaren sakontasunari buruzko erreakzioak eragin dituelako eta Europako proiektu bakarra eraikitzeko zailtasuna onartu duelako.

Konstituzio Auzitegiak Alemaniako nortasun konstituzionala jarri du integrazioaren muga gisa, eta horretan datza epaiak maila sozialean duen eragina. Epaiaren 249. eta 252. ataletan, berariaz, maila soziala aipatzen da. Hala, 249. atalean adierazita dagoenez, «nolanahi ere, ezin da gauzatu Estatuak bizi baldintza ekonomikoak, kulturalak eta sozialak politikoki antolatze beharrezkoa den lekua mantendu gabe». Eta 252. atalaren arabera, «sarrera eta gastu publikoei buruzko funtsezko erabaki fiskalak -bereziki politika sozialak eragindakoak». Doktrinaren batek, Estatu sozialaren nortasun konstituzionala mantendu behar dela adierazi du, baina europar ordenamenduaren (Lisboako Ituna) eta Estatu sozialaren arteko kontraesana ikusirik, ordenamenduen arteko harremana beste moduren batean ikusi beharko da, joan den mendeko 70eko hamarkadako tentsioa saihesteko. Integrazio soziala, integrazioaren alderdi garrantzitsu gisa azaleratuko litzateke ordenamenduen arteko harremanean. Interpretazio hori boluntarista eta frogatzeko zaila iruditzen zait; ez formalki artikulatu ezin delako, baizik eta errealitateak gezurtatu duelako. Estatu sozialeko printzipioen eta europar ordenamenduko printzipioen arteko kontraesana behin eta berriz aipatu da, baina ez da adierazi kontraesan horrek integrazioan eragin lezakeela, kontra-mugen esparruan gerta daitekeen gatazkaren muinean. Nire ustez, metodologiaren ikuspuntutik hartu behar da auzia, eta doktrinak alboratuta zeukan kontzeptu bat, konstituzio materialarena, mahai gainean jartzea komeni da. Merkatu-Estatuko konstituzio materiala Estatu sozialeko konstituzionalismo formalari nagusitu zaio Batasuneko Estatuetan, eta Europako ordenamendua, nagusitasun printzipioaren bidez, konstituzionalismo sozialaren eraldaketaren bide normatiboa besterik ez da izan, eta merkatu-Estatuko konstituzio materialaren eta Europako ordenamenduaren arteko normaltasun harremana berrezarri du.

Bestalde, Alemaniako Konstituzio Auzitegiaren epaiak ordenamenduen artean sortu duen tentsioaren eraginez indarturiko asimetriaren ondorio den zatiketa ere aipatu behar da. Ildo horretatik, egin dezakegun lehenengo gogoeta honako hau da: zatiketa soziala, baldintza sozialen zatiketa, Batasuneko ordenamendua-

ren ezaugarri genetikoa da, sortzetik. Erromako Ituna (aurretiko CECA eta EUROTAN Itunek baino harre-
ra sozial eskasagoa izan zuena) izenpetu aurretik, gogoeta bera egin zen. Spaak txostenak integrazio prozesu-
ko desberdintasun sozialak berresten zituen, eta eraketa Itunek, adierazi dugun moduan, merkatua berriro
funtzionamenduan jarri nahi zuten, Estatueta egoera soziala homogeneizatzeko. Europar proiektuak mer-
katuaren esku utzi zuen helburu hori, eta Estatueta baldintza sozialen zatiketa eta homogeneotasunik eza
gorabehera, integrazio ekonomikorako proiektua gauzatu zitekeela pentsatu zen. Merkatuak eta zatiketa so-
zialak, bateragarriak izateaz gain, elkarren beharra dute; izan ere, ordenamenduen arteko lehia soziala ezar-
tzen dute, eta lehiaren printzipioa areagotzen dute Batasuneko ordenamenduan. «Elkar aitortzearen» prin-
tzipioaren, ordenamenduen arteko lehia sozialaren eta funtsezko askatasun ekonomikoen eta eskubideen
(batez ere sozialen) arteko harremanaren arteko sinergiak, Batasuneko proiektuaren nortasun genetikoan du
oinarria; Itunetan, Lisboakoa barne, mantendu den nortasun genetikoan. Asimetria sozialak azkeneko zabal-
kuntzetan lortu du onarpen ofizial adierazgarriena, 2004az geroztik. Horietan, kohesio sozialaren arloan jar-
duteari uko egin zaio berriaz eta Europaren eraikuntzako iraganaldi historikoarekiko apurketa berretsi da.
Hala, asimetria ekonomiko, sozial eta konstituzionala europar proiektuan integratu da, modu naturalean.

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak, Europako ordenamenduan Eskubide sozialen ai-
torpen gorena egin duenak, asimetria hori berresten du. Baina kontua askoz larriagoa da, zatiketa eta asime-
tria eskubideen kontzeptuarekin kontraesanean daudelako; izan ere, eskubideek, beren eremu normatiboan,
ezin dute aniztasun geografikorik jasan edukien definizioari dagokionez. Edo batzuk dira, edo ez dira. Esku-
bide sozialek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean duten lekuari buruzko gogoeta egitea
komeni da. Eskubide sozial prestazionalen aitortpenak zatiketa nazionala eragiten du beren edukiak zehazte-
ko garaian, eta, ondorioz, zaila da Europako ordenamenduan eskubide horiek aitortzea. Eskubide sozial pre-
stazionalen arloan, Oinarrizko Eskubideen Gutunak honako eskubide hauek aitortzen ditu: bidegabeko kale-
ratzearen aurkako babesari, gizarte segurantzaren eta gizarte laguntza, osasunaren babesari, eta interes orokorreko
zerbitzu ekonomikoak. Arlo horietan, Itunek oro har ez dituzte finkatu Batasunaren eskumenak, eta finkatu
badituzte, araubide bereziaren bidez eta gauzatzeko zailak diren esku-hartze baldintzetan ezarri dituzte.

Bidegabeko kaleratzearen aurkako babesari dagokionez, eskubidearen edukia Estatu bakoitzeko legedian
eta jardunbideetan definitu behar da; izan ere, Batasuneko zuzenbideak azaletik baino ez du ukitu arlo hori.
Gizarte segurantzari eta gizarte laguntzari dagokienez, formula bera erabili da, eta osasunaren babesari eta in-
teres orokorreko zerbitzu ekonomikoari dagokienez, berriz, eskubide horien edukiak Estatu bakoitzeko lege-
dira bakarrik bidali dira.

Oinarrizko Eskubideen Gutuna Batasunaren Funtzionamenduko Itunera eta politiketara bidaltzearen on-
dorioz, eskubideak desnaturalizatu dira, eta jarduera baldintza bereziki zorrotzak ezarri dira kaleratzearen
tutoretzaren eta gizarte segurantzaren arloetan (153.1 artikuluko c) eta d) atalak) batera gertatzen diren bi
eskumenetan. Batetik, esku-hartzea ahula da: babesari eta osagarriak. Eta bestetik, arlo horietan jarduteko pro-
zedura berezia da: Kontseiluaren nagusitasuna eta guztien adostasuna. Batasunak lan merkatuen malgutasu-
naren arloan zer politika duen ikusita eta prozeduretan ezarritako eskakizunak kontuan hartuta, ziur asko epe
laburrean ez da ezer egingo. Gainera, gizarte segurantzaren arloan, Lisboako Itunak erreserba nazionala ezarri
du, Estatuaren alde: «Artikulu honi jarraiki ezartzen diren xedapenek ez dute eraginik izango Estatuaren ahalme-
netan, beren Gizarte Segurantzako sistemen oinarrizko printzipioak definitzeko garaian, eta, era berean, ez
dute eragin nabarmenik izan beharko Gizarte Segurantzako sistemen oreka finantzarioan ere» (153.4 artiku-
lua). Modu horretan, eduki erlazionala Europako ordenamenduaren ikuspuntutik bakarrik duen eskubidea
antzutzen da.

Eskubideen edukia legedia nazionalak definitzen badute, Gutunak Batasunaren eskumenak areagotzen ez dienez, Batasuneko ordenamenduko Eskubide sozialak zatikako eskubideak izango dira, asimetrikoak, eta subjektuen lurralde desberdintasuna berretsiko dute. Arauei dagokienez, espazio konstituzional ius-funtsezkoan, oinarrizko eskubideen kontzeptua errefraktatzen duen asimetria berresten da.


Europako ordenamenduak merkatuaren batasuna eta asimetria soziala berresten ditu horrela, proiektuaren zati gisa, integrazio ekonomikoaren eredu ez dagoelako eztabaidan.

Krisiak europar integrazioari egin dizkion hiru eskakizunak oro har onartuta daude, eta jarduera ardatz gisa adierazi dira Batasuneko proposamenetan. Baina arazoa honako hau da: eskakizunoi nola ekin, zer ikuspuntutik. Eta horretarako, Lisboako Itunean berretsi den proiektuari jarraipena eman beharko zaio. Proiektu horretan ez dago aldaketarik existitzen ez den gobernu ekonomikoari dagokionez edo finantza publikoen kontrolari dagokionez, eta EEE osatu zenetik banaketaren eta merkatuaren artean dagoen tentsioa mantentzen du (Eskubideen Gutunak ere ez du aldaketa nabarmenik ekarri arlo horretan). Horrela bada, Lisboako Ituna ez da gai izan eskakizunoi erantzuteko, eta, hortaz, porrot egin duela esan dezakegu. Itunak ezarri duen arau esparrutik abiatuta ezin zaio erantzunik eman Europako ordenamenduaren eta justizia sozialaren arteko kontraesanari.

Bibliografia

- Aragón Reyes, M. (1995), *Libertades económicas y Estado social*, Madril, Mc. Graw Hill.
- Bellofiore, R. eta Helevi, J. (2010), «Deconstructing labor. Whats is new in contemporary capitalism and economics policies: a marxian-kaleckian perspective», in Gnos, C. eta Rochon, L.P. (arg.), *Employment, growth and development. A postkeynesian approach*, Cheltenham (aurki).
- Bobbitt, P. (2002), *The shield of Achilles: War, peace, and the course of History*, New York, Anchor Books.
- Cantaro, A. (2006), «Diritti sociali e neocostituzionalismo europeo», in *Diritti e società di mercato nella scienza giuridica europea* (La Rocca, D.) Turin, Giappichelli.
- Di Nella, L. (1999), «La scuola di Friburgo, o dell'ordoliberalismo», in *Diritto ed economia. Problemi e orientamenti teorici*. Padua, Cedam.
- Forsthoft, E. (1973), *Stato di diritto in trasformazione*, Milan, Giuffrè.
- Fumagalli, A. (2009), «Crisi económica global y governace económico-social», in *La gran crisis de la economía global*, Madril, Traficantes de sueños.
- Giannini, M.S. (1977), «Lo Stato sociale una nozione inutile», in ilan, Giuffrè, *Scritti in onore di C. Mortati*, vol I, M.
- Gray, A. (2004), *Unsocial Europe: social protection or flexisplaitaion*, Londres, Pluto press.
- Hacker, J.S. (2006), *The great risk shift*, Oxford U.P.
- Jessop, B. (2000), «Reflexiones sobre la (i) lógica de la globalización», in *Zona Abierta*, 92-3.
- Lopez Guerra, L. (1980), «Las dimensiones del Estado social de derecho», in *Sistema*, 38-9.
- Maestro Buelga, G. (2002), *La constitución del trabajo en el Estado social*, Granada, Comares.
- Maestro Buelga, G. (2002), «Constitución económica e integración europea», in *Revista de Derecho Político*, 54.
- Maestro Buelga, G. (2006), «Diritti sociali e nuovi diritti: il nuovo paradigma dei diritti nella Carta di Niza», in *Diritti e società di mercato nella scienza giuridica europea* (La Rocca, D.) Turin, Giappichelli.
- Maestro Buelga, G. (2006), «El impacto de la ampliación de la IE sobre el modelo social europeo», in *Revista de Derecho comunitario Europeo*, 23.

- Maestro Buelga, G. (2008, «La inaprehensible ciudadanía social europea», in *Revista de Derecho Político*, 73.
- Maestro Buelga, G. (2010), «La crisi della integrazione: economica e costituzionale», in *Il costituzionalismo asimmetrico dell'Unione. L'integrazione europea dopo il Trattato di Lisbona*, (Cantaro, A.) Turin, Giappichelli.
- Majone, G. eta La Spina, A. (2000), *Lo Stato regolatore*, Bologna, Il Mulino.
- Maestro Buelga, G. eta García Herrera, M.A. (1999), *Marginación, Estado social y prestaciones autonómicas*, Bartzelona, Cedecs.
- Mortati, C. (1941), *La costituzione in senso materiale*, Milan, Giuffrè.
- O'Connor, J. (1981), *La crisis fiscal del Estado*, Bartzelona, Peninsula.
- Rossavallon, P. (1981), *La crise de l'Etat providence*, Paris, Seuil.
- Scharpf, F.W. (2002), «The european social model: coping with the challenges of diversity», in MPIFG Working paper 02/08.
- Schmitter, P. (1974), «Still the century of corporatism», in *Review of Politics*, 36.
- Streeck, W. (2000), «Il modello sociale europeo: dalla redistribuzione alla solidarietà competitiva», in *Stato e Mercato*, 58.



DANIEL RAVENTÓS

Universitat de Barcelona

danielraventos@ub.edu

Herritarrak, jabetza, askatasuna eta existentzia materiala

«Jabetza eskubideak, beste eskubide orok bezalaxe, besteren eskubideak errespetatzeko betebeharra du muga.»

(Maximilien Robespierre, 1793)

1. Sarrera

Pertsonak ez du aske izaterik, baldin eta existentzia materiala bermatuta ez badauka; hau da, eguna joan eguna etorri besteri bizitzeko baimena eskatu beharrean badago. Pobreziak ez baitu esan nahi soilik premiazko ondasunak kontsumitzeko ezintasuna, komunitatean integratzeko zailtasuna eta gizarte patologia jakin batzuk jasateko arrisku handiagoa; beste batzuen irrikarekiko mendekotasuna eta autoestimaren hondamena ere esan nahi du. Eta, autoestima galduz gero, Rawlsek dioen moduan (1971: 67), ezerk merezi ez duelako sentipena sortzen da; autoestimarik gabe, proiektu jakin batek pertsonarentzat balioa izanda ere, pertsonak ez du izango kemenik proiektu hori gauzatzeko. Pobreziak, beraz, pobre denaren bakartze soziala dakar, azken batean.

Askatasun errepublikanoaren aldezkariak egiten duten moduan berdintasuna eta askatasuna elkarri loturiko bi helburu direla abiapuntu hartuz gero; besteekiko berdintasunik ezak pertsonari aske izatea eragozten diola onartuz gero; gizarte berdintasunik eza milioika lagunen askatasunaren eragozgarri dela uste izanez gero; orduan, bistan da pobreek ez daukatela aske izaterik. Eta alderantziz: pobreen askatasun falta hori, egunero bizirik irauteko besteri baimena eskatu behar horrek, berdintasunik eza elikatzen du, era berean.

X -k Y -rekiko mendekotasuna badu eguneroko bizitzan aurrera egiteko, Y -k ez du aitortuko X -rekiko inolako berdintasunik (askatasunaren elkarrekikotasun gisa), X -k harekiko duen mendekotasun horrek besteren eskubide baten mendeko subjektu bihurtzen duelako X : *alieni iuris*, «alienatua», alegia. Eta pobrea beti izango da *alieni iuris*, existentziaren oinarri materiala bermaturik ez daukan heinean. Arrazoi asko daude, indar handikoak gainera, pobrezia deuseztatzeko; baina bada bat bereziki indartsua, aurrerago azalduko den askatasun errepublikanoaren ikuspegiari lotua: existentzia soziala ahalbidetuko dioten baldintzak eman behar zaizkio pobrezia eraginez hain zuzen ere orain arte existentzia sozialetik baztertuta egon denari.

Hitzaldi honetan,¹ herritartasunagatiko Oinarrizko Errentaren (aurrerantzean, OE) proposamena azalduko dut, eta, zehatzago, haren justifikazio errepublikanoa. OEren proposamena kontuan hartu beharra dago ongizate estatuaren, herritarren eta gizarte politiken geroari begira. Are gehiago, egoera ekonomiko eta sozial honetan, defizit publikoei aurre egiteko aitzakian 2010. urtearen hasieratik ongizate estatuaren lorpenei egin zaizkien aurrez aurreko erasoak direla eta.²

OEren proposamena herritar edo egoiliar izatea beste baldintzarik bete gabe diru kopuru bat ematean datza,³ eta berebiziko indarra hartu du azken urteetan.⁴ Izan ere, ez da ohikoa izaten hedadura handiko gizarte proposamen batek —eta halakoxea da OEren proposamena— askotariko jatorri politiko, filosofia eta herrialdeetako kideak biltzea. Eta mota guztietako aldekoak erakarri ditu, hain zuzen, OEK: multzo horretan aurki daitezke bizitzea egokitu zaigun gizarte honen errotiko aldaketaren oso urruneko pentsamendu politikoa duten kideak; proposamena begi onez ikusten duten aktibista feministak; edo *statu quo*aren aurrez aurre dau den mugimendu sozialetako kideak. Era berean, OEren proposamenari sostengua edo arreta eman diote zenbait akademiko liberal edo errepublikanok ere (nahiz eta «errepublikanoez» eta «liberalez» aritzea ez den asko esatea, informazioaren ikuspegitik, gero azalduko dudanez).

Justua al da OEren proposamena? Beste batzuek galdera orokorrago formulatzen dute: etikoa al da OE? Nork bere morala du. Moral batzuk bat-batekoak edo arinak izan daitezke; beste batzuk, berriz, oso sofistika-tuak; eta badira nekez defenda daitezkeenak ere. Etikak lotura estua du moralarekin; baina ez da gauza bera. Honela defini daiteke etika: «Eduki edo arau moralen azterketa kritikoa, eta moral alternatiboen arteko hautua egiteko irizpide arrazionalen lanketa» (Mosterín, 2006: 370).⁵ Nire ustez, OEri dagokionez, egokiagoa da «justiziaz» jardutea, «etikaz» jardutea baino, nahiz eta bi hitzak erabiltzen diren, sarritan, nahasian. Eta *justiziaren teoria* deritzenek aztertzen dute, hain zuzen ere, proposamen sozial bat justua den edo ez. Edonola ere, funtsezkoa da gure buruari galdetzea OEren proposamena justua ote den. Alferrekoa bailitzateke politikoki edo ekonomikoki bideragarria izanik ere justua ez den neurri sozial bat.

¹ Hitzaldi honetarako, Raventós (2007) eta Domènech eta Raventós (2008) hartu dira oinarri, hein handi batean.

² Domènech *et alteri* (2010) eta Domènech, Raventós eta Buster (2010).

³ Ez dira nahastu behar —begi bistakoa izango delakoan nagoen arren— proposamen hau eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan orain arte indarrean zegoen «oinarrizko errenta» izeneko gizarteratze-errenta (orain izena aldatu diote).

⁴ 2007. urteko azaroaren hasieran, Monterreyn (Mexiko) egin zen Fórum de las Culturaren (Kulturen Foruma), *Azaleratzen ari diren Giza Eskubideen Adierazpena* onartu zuten forum hartako partaideek. Lehen artikulua hirugarren puntuan, zera dio adierazpen horrek:

«Oinarrizko errenta edo herritarraren diru sarrera unibertsalerako eskubideak duintasuneko baldintza materialetan bizitzeko eskubidea aitortzen dio pertsona orori, edozein dela ere bere adina, sexua, egoera zibila edo lan egoera. Hain zuzen ere, oinarrizko premiak asetzeko adinako diru kopuru bat jasotzeko baldintzarik gabeko eskubidea aitortzen dio gizartean bizi den kide bakoitzari, zerga erreformen eta estatuko aurrekontuen kontura, eta herritartasun eskubide gisa, baita beste edozein errenta iturri badu ere.»

Monterreyko Adierazpenaren artikulua horrek garrantzi handia du, ez delako ari bizirik irauteko eskubideari edo bizi oinarri batzuk bermatuta edukitzeari edo goseak ez hiltzeko bermea emateari buruz soilik: «Herritarraren diru sarrera edo oinarrizko errenta unibertsalerako eskubidea» aldarrikatzen du, modu esplizituan (Raventós, 2008).

⁵ Eta zera ere badio egile horrek: «Badira moral erlijiosoak, baina ez dago etika erlijiosorik (oximorona litzateke hori). «Etika batzorde» usteko batzuk moral erlijioso jakinen ordezkari hutsak dira, eta hobe lukete “moral katolikoko batzorde” izena hartzea. Horrela, ulergarriagoa litzateke zelula amei edo haien jatorrian dauden blastulei bezain aitzakia moral gutxi ezar dakiekeen erakundei buruz hain milikak izatea».

OEren arau-oinarriak finkatzeko hainbat estrategia daude. Izan ere, OE justua ez izatekotan, ez luke me-reziko haren bideragarritasun ekonomikoaren azterketa egitea ere. OEri jar dakiokkeen aitzakia nagusia ez baita hura materialki finantzatzeko ezintasuna, baizik eta justua ez izatea. Hitzaldi honen parte batean, arau-oinarriari buruz jardungo dut.

2. Justiziaren teoria liberalak eta errepublikanoak: argibide zenbait

OEren justifikazioa aztertu duten justiziaren teoriak bi multzo handitan bereiz daitezke: liberalak eta errepublikanoak. Bigarren multzokoei helduko diet nik, errepublikanoei; baina, hala ere, beharrezkoa da, nire ustez, lehen multzokoei buruzko aipamen kontzeptual batzuk egitea.

Lehenik eta behin, izenari berari buruzkoa: «liberalismoa». Hitz hori ardatz hartuta, hainbat bereizketa, zati-keta eta azpimultzo egin litezke. Adibidez, liberalismo proletarista eta liberalismo solidarioa (edo igualitaris-ta); liberalismo ekonomikoa eta liberalismo politikoa; etab. Nolanahi ere, hemen ez diegu erreparatuko azpi-banaketa horiei. Bai, aldiz, funtsezko bereizketa honi: liberalismo politikoaren eta liberalismo akademikoaren arteko aldeari. Teoria liberal akademikoen artean, alde handiak daude; Friedrich Hayeken edo Nozicken joera-ko libertarioen eta John Rawlson artean dagoena adinakoa. Baina ezaugarri komun bat dute guztiek: «Gizar-tean bizimodu onari buruz dauden ikuspegiaren artean hierarkiarik ezartzeko debekua» (Van Parijs, 1991: 244). Horrek guztiak —egia izanik ere— ez du asko esaten, eta zehaztaperen gehigarri batzuk egin beharko lirarteke.

Liberalismo politikoa duela bi mende sortu zen.⁶ Historialariei dagokie, orain, haren zeregina aztertzen jarraitzea, baita demokraziarekin, askatasunarekin eta berdintasunarekin tradizioz izan duen areriotasunean sakontzea ere.⁷ Liberalismo akademikoa, aldiz, askoz ere esparru zabalagoa da, eta berdin-berdin bil ditzake bere baitan oso eskuineko egileak, erdiko joerakoak nahiz ezkertiar gutxi-asko moderatuak.

Interesgarria da, halaber, akitu arte errepikatutako «egia usteko» batzuk aipatzea, justiziaren teoria libe-ralak eta errepublikanoak bereizten dituztenak, ustez. Hona hemen egia usteko horietako bat: liberalismo akademikoak ez du bertutearekiko konpromisorik, eta, beraz, ez da doktrina politiko moralki perfekzionis-ta; eta, arrazoi horrexegatik, estatuari buruzko ikuskera neutrala izan dezake. Arrazoi hori dela eta, liberalis-mo akademikoa doktrina politiko ez-sektarioa da, eta tolerantzia sustatzen du. Argudio berari jarraituz, eta modu simetrikotan, errepublikanismoa (gero arituko naiz haren izaera askotarikoaz) konprometituta dago he-rritarren bertutearekin, eta, horrenbestez, moralki perfekzionista da; eta, horrexegatik, bateraezina da ongia-ren ikuspegiei dagokienez jarrera neutrala izango duen estatu batekin. Azkenik, errepublikanismoa doktrina politikoki sektarioa da, eta, hortaz, ongiaren ikuspegiaren arteko tolerantziarekin bateraezina.⁸

⁶ «Liberalismo» hitza Espainian asmatu zuten, Kadizko Gorteetan, 1812an. XIX. mendeko fenomeno historiko aipagarria izan zen, eta anakronismo nabarmena da —inola ere ez oharkabekoa, bide batez esan dezagun, eta ondorio politiko-ideologiko asko dakartzana— XVII. mendeko edo XVIII. mendeko egileak liberalizat hartzea» (Domènech, 2009: 67). Sarritan esan ohi da Immanuel Kant (1724-1804), John Locke (1632-1704) eta Adam Smith (1723-1790) liberalak izan zirela. Zer garaitan bizitzea egokitu zitzairen kontuan hartuta, nekez izango ziren liberalak. Ikus, John Lockeren askatasun errepublikanoaren ikuspegiaren justifikazio xeheari buruz: Mundó (2005, 2006); Immanuel Kantenari buruz: Bertomeu (2005b); eta Adam Smithenari buruz: Casassas (2010).

⁷ Análisi magistrala, Domènech (2004). «Antidemokrata naiz, liberala *naizelako*», zioen Matthew Arnold poetak (1822-1888). Aipua: Domènech (2006a: 270).

⁸ Bertomeu eta Domènech (2006).

Arrazoibide hori, hainbat bertsio sofistikatutan, liburu eta artikulu akademiko askotan irakur daiteke, eta munduko unibertsitate askotan entzuten da. Baina horrela al da, benetan?

Hel diezaiozun, lehenik, bertuteari. Tradizio historiko errepublikanoak inoiz ez du aztertu bertutearen auzia modu a-instituzionalean, hau da, psikologia moral soilaren esparruko auzi gisa. Aristotelesek berak ere, bertuteari erreferentzia egin zionean, bertute hori ahalbidetzen duten (edo ez duten) oinarri sozial eta materialei buruzko gogoetekin eta gogoeta instituzionalekin lotu zuen. Bertuteak, jakina, beti du atxikita alderdi psikologiko-morala, baina, alderdi horren analisisan, errepublikanismoak beti txertatu izan du bertutea eratzeko existentzia sozio-materialaren oinarria ezinbestekoa dela dioen baieztapena. Aristotelesek, aurrerago azalduko dugunez, ukatu egiten zuen pobre libreak existitzeko oinarri autonomorik duenik, ez baitu jabetzarik. Oinarri autonomorik ez edukitze horren ondorioz —edo existentzia materialik ezaren ondorioz—, pobre libreak eskubide politikoez gabetu behar zirela aldarrikatzen zuen Aristotelesek, demokrazia atikoaren kritikariak. Bertute errepublikanoak ez du inolako zerikusirik perfekzio moralarekin, eta ez du aldarrikatzen gizarte erakundeetatik aldendutako bizimodu onaren ikuspegi bat. Aitzitik baizik: tradizio errepublikanoak dio herritarrek gai izango direla beren bizitza pribatuan beren burua gobernatzeko gaitasuna garatzeko, errepublikak existentzia sozial autonomorako oinarri material bat bermatzen dien heinean. Eta, gainera, gizabanakoen existentzia sozial autonomorako oinarri materialaren berme horrek jarduera publikorako gaitasuna garatzeko aukera emango die gizabanako horiei. Bistan da oinarri material horren bermeak telebistako saio gaiztoeinei begira garagardo kaskarrez horditu eta animalia koipez asetako jakiak irenstera beste ezertara ez lituzkeela eramango jende asko eta asko. Errepublikanismoaren aldekoek ez dute ukatzen era horretako halabeharrak gerta daitezkeenik; baina orobat diote goian aipatutako oinarri material horrek aukera ematen duela jarrera zibiko edo gizalegezkoa garatzeko, hau da, bizitza pribatuan nork bere burua gobernatzeko gaitasuna garatzeko, eta, hortik abiatuta, bizitza publikora iristeko, eta, han, herritar izaera erabat gauzatzeko, hau da, alderdi materialetik gizabanako guztiz independente gisa jarduteko.

Azter dezagun, orain, estatuaren neutraltasunaren auzia. Akademikoki, zera ulertzen da estatuaren neutraltasunaz mintzo garenean: estatuak ez hartzea bizimodu onaren ikuspegi jakin baten aldeko jarrera. Bizimodu onaren ikuspegiak aukerak norberaren hautua behar du izan. Justiziaren teoria liberalak bizimodu onaren gaineko ikuspegiei dagokionez neutralak direla onartzen da. Bizimodu onaren ikuspegi jakin baten alde egiten duten eta hura saritzen duten justiziaren teoriak, aldiz, perfekzionistak dira. Horrela dago finkatuta eztabaida akademikoetan. Baina, egia esateko, ez dut uste bereizketa horrek ezer konponduko duenik, bigarren mailako xehetasunen bat ez bada. Tradizio historiko errepublikanoarentzat, beste bat da garrantzizko alderdia. Estatuak herritarrek bizimodu onari buruz izan ditzaketen ikuspegiak begirunez hartu behar dituela ez dute inola ere zalantzan jartzen askatasun errepublikanoaren aldekoek. «Gainerakoan, estatuaren neutraltasunaren tesia asmakizun errepublikanoa da, bete-betean, Perikles bera bezain antzinakoa, gutxienez» (Bertomeu eta Domènech, 2006: 74). Errepublikanismo historikoari kezka sortu izan diona beste alderdi bat da, nire ustez askoz ere asaldagarriagoa dena: estatuak interferentzia oldarkor «nahitaezkoa» bideratzea, pertsonen, enpresen edo beste edozein elkarte partikularren oinarri ekonomiko eta instituzionala suntsitzeko (edo mugatzeko), baldin eta kolokan jartzen badute estatuak onura publikoa zertan dantza zehazteko duen eskubidea. Hau da, pentsa dezagun botere pribatuak bere nahia (onura pribatuaren ikuspegi) estatuari ezartzerainoko indarra duela. Estatuaren neutraltasuna *de facto* suntsituko luke horrek. Eta, aldi berean, onura pribatuaren ikuspegi horren eraginpean geldituko litzateke herritarren parte handi bat. Estatuaren neutraltasunaren ikuskera errepublikanoak estatuak inposizio hori eragozteko parte hartzeko premia aldarrikatzen du, hain zuzen ere. Bi adibide jar daitezke hori argitzeko: «Weimarko Errepublika estatuaren neutraltasunaren alde ari zen Hitler boterera eramateko prozesua finantzatu zuten Alemaniako industria pribatuko *Kartell*

handien kontra borrokatu zenean —porrot egin zuen—; Estatu Batuetako Errepublika estatuaren neutraltasunaren alde egiten saiatu zen Roosevelt —arrakastarik gabe—, monopolioen kontrako 1937ko legearekin “monarka ekonomiko” zeritzenak menderatzen saiatu zenean; etab.» (Bertomeu eta Domènech, 2006: 74).

Estatuaren neutraltasunaren auzian, tradizio errepublikanoarentzat, gakoa ez da errespetatu behar ote den bizimodu onaren ikuspegi jakin bat —adibidez, onura H.P. Lovecraften obren irakurketa errepikatuaren eta John Lennonen obren entzunaldi ia etengabearen arteko konbinazioarekin uztartzen duena—, edo estatuak errespetatu behar duen. Jakina errespetatu behar duela. Kontua da ea pertsona baten edo pertsona talde handi baten existentzia materialak transnazional baten inbertsio planen mende egon behar duen. Edo espekulazional talde baten mende.⁹ Edo herrialde osoen energia baliabideek enpresa handi batzuen administrazio kontseiluen esku egon behar duten. Kasu horietan, hirugarrenen oinarri materialari erasotzen dioten bizi planak dira —bizimodu onaren ideia jakin batzuen araberrakoa—, eta, alderdi horretatik, hirugarrenen askatasuna urratzen dute. Estatu errepublikanoak eragotzi egin behar ditu era horretako egoerak.

3. Errepublikanismoak

Zer da errepublikanismoa? Nola justifika dezake errepublikanismoak OE? Aise erantzun dakieke galdera horiei, nire ustez.

Aurrez, ordea, bereizketa batzuk egin behar dira, beste behin ere. Lehenik, «errepublikanismo» hitzari buruzko zenbait bertsio daude, baita askatasunaren ikuspegiari soilik dagokionez bada ere.¹⁰

Errepublikanismoaren gaur egungo bertsio akademikoek gehiago jotzen dute tradizio ez-demokratikora, tradizio demokratikora baino (Erromara, Atenasera baino gehiago). Neorerrepublikanismo akademiko horren parte handi batentzat,¹¹ lausoa da, itxuraz, jabetzaren eta askatasun errepublikanoaren arteko lotura —eta, horrekin batera, demokraziaren eta jabetzaren arteko funtsezko tentsioa—, errepublikanismo historikoarentzat funtsezkoa dena.

«Pettitek modu inteligentean berreraiki du askatasun errepublikanoa kontzeptu disposizional gisa, interferentzia gabekia hutsa ezaugarri duen askatasun liberal negatiboari aurre eginez. Askatasun errepublikanoa mendekotasunik eza litzateke, beste partikular batzuen (edo estatuaren) interferentzia arbitrariorik eza. Errepublikanismo historikoarentzat, aldiz, independentzia materialik eza da hauskortasunaren eta interferentzia arbitrarioaren iturri nagusia. (Ez da halabeharra latinezko *dominium* hitzak “jabetza” nahiz esklaboak barne hartzen dituen jabetza horren erabilera aserako gaitasuna adieraztea). Menderatzeko gaitasunaren funtsezko erro instituzional horri arretarik ematen ez bazaio, orduan “menderatzea” lausotu egiten da, desinstituzionalizatu, eta haren mende gelditzen dira errepublikanismo historikoak sekula politikoki onargarri joko ez lituzkeen giza harremanen hainbat alderdi: errukizko gezurra, esaterako, “menderatzeko” molde bat izan liteke, errukiz gezurra esaten duenak interferentzia arbitrarioa gauzatzen baitu gezurra esaten zaionaren bizitzan.» (Domènech eta Raventós, 2008: 195).

⁹ 2008an lehertutako krisi ekonomiko larriak erakusten duenez.

¹⁰ Hurrengo atala honako hauetan oinarrituta dago, batik bat: Casassas eta Raventós (2008), eta Domènech eta Raventós (2008).

¹¹ Batik bat, Pettiten obran (1997), baina baita Quentin Skinner eta J.G.A. Pococken lanetan ere.

Errepublikanismo historikoaren ikuspegiak ideia hau du ardatz: gizabanakoak ez du aske izaterik, baldin eta haren existentzia materiala politikoki bermatuta ez badago. Historikoki, bi errepublikanismo molde bereizi izan dira: oligarkikoa eta demokratikoa. Biek izan dute askatasunari buruzko ikuspegi bera —gizabanakoak ez du aske izaterik, baldin eta haren existentzia materiala politikoki bermatuta ez badago—; baina bi joerak ez datoz bat existentzia materiala bermatuta eduki behar duten herritarren multzoari dagokionez. Hain zuzen ere, errepublikanismo oligarkikoaren arabera, jabetza molderen bat duten gizonei dagokie —eta egokitu behar zaie— askatasuna; hau da, independente egiten dituen baliabide material sorta bat bere esku duten horiei. Aldiz, errepublikanismo demokratikoaren aburuz, komunitatean bizi diren gizon-emakume guztiei dagokie askatasuna: gizabanako guztiek eduki behar dute beren existentzia materiala politikoki bermatuta. Errepublikanismoaren arabera, interferentzia arbitrario orok mugatu egiten dute askatasun indibiduala. Hala ere, ebidentzia enpirikoak erakusten duenez, interferentzia horietako batzuk adierazgarriagoak dira beste batzuk baino, arauari begira, erakunde sozialek nola diharduten ulertzeko eta nola jardun behar-ko luketen ezartzeko garaian. Izan ere, interferentzia horiek —eta ez beste batzuk— estu lotuta daude gizartearen dinamika arautzen duten oinarriko mekanismoekin, hala nola klase borroka batzuekin. Beste era batera esanda: interferentzia arbitrarioak dira iruzurra, eroskeria eta gezurra, eta eragin negatiboa izan dezakete interferentzia eragiten zaien eragileen bizitzan. Hala ere, gizarte garaikideen egitura ez da oinarritzen iruzurrean, eroskerian eta gezurrean; jabetza eskubideetan baizik. Hortaz, esan liteke horixe dela gizarte garaikideak ulertzeko egin beharreko bereizketa nagusia: aberatsen eta pobreen arteko bereizketa. Hala, jende aberatsaren eta pobreen arteko bereizketa aristotelikoari heltzea komeni da (aurrerago sakonduko dut horretan). «Jende aberatsa» eta «jende pobrea» esapideek «jende independentea» eta «jende mendekoa» (beste batzuekiko mendekoa) esan nahi dute, hurrenez hurren. Bereizketa hori askatasunaren hedadura kalibratzeko esanguratsuagoa da, arauari begira, bereizketa diru sarreren mailan oinarritutako irizpideetan oinarrituta egitea baino, hala nola, biztanleko errentaren %50 edo 60ko irizpidean oinarrituta (gaur egun pobreak definitzeko erabiltzen den irizpidea). Gizarte garaikideetan, existentzia bermatzen dien baliabide materialen sorta bat dute aberatsek, eta pobreak baliabide material horien jabeen saltzen diete beren burua asteen bost egunez edo gehiagoz, bizirik irauteko, soldatako langile bihurtuta.

Gaur egungo gizarte kapitalistetan, baliabide material ugariren jabe diren gizabanakoek edo gizabanako taldeek —bereziki enpresa transnazionalak— milioika lagunuen aukeretan interferentzia arbitrarioa eragiteko ahalmena dute: ahalmena dute merkatuen egitura moldeatzeko eta ekonomia osoen izaera baldintzatzeko; ahalmena dute beren mende bizi direnen lan baldintzak ezartzeko, ekoizpen unitateetan eta legebiltzar askotan; ahalmena dute milioika pertsona pobre —mendeko— ekoizpen arloaren kudeaketa molde tradizional nahiz alternatiboei eusteko baliabideez gabetzeko, herrialde pobre nahiz aberatsetan; eta, amaitzeko, ahalmena dute agenda eta erabaki politikoak baldintzatzeko. AEBko 32. lehendakari Franklin Delano Rooseveltek 1935eko «Batasunaren Egoeraren Gaineko Diskurtsoan» adierazi zuenez: «Alde batera utzi beharra dago aberastasuna eskuratzeari buruzko ikuspegi hori, neurritz gaïndiko irabaziak lortuz botere pribatu neurrigabea eragitea dakarrena, eta, horrela, gutxi batzuei arlo pribatuan eta, guretzat zoritxarrez, arlo publikoan ere interferitzeko ahalmena ematen diena» (Roosevelt, 1935). Horregatik da funtsezkoa ulertzea pertsona guztien existentzia materiala bermatzera eta haiek bizi plan propioak praktikan jartzera bideratutako neurri sorta baten parte izan daitekeela OE.

Orain, hainbat garaitako errepublikanoen ikuspegi nire ustez nagusiei arreta emango diet, bi helburu hauekin: 1) askatasunaren ikuspegi errepublikanoaren alderdi esanguratsuenen bilakaera historikoa aztertzea (kontuan hartu beharra dago askatasunaren adierazpen eboluzionista dela, ez kreazionista; hau da, ez da askatasunaren ikuspegi bat «sortzen» eta haren gaineko eztabaida egiten: askatasun errepublikanoaren ideia

aztertuko da, hainbat aro historikotan haren aldezkari gailen batzuek ulertu duten moduan); eta 2) O Eren azalpen errepublikanoa ematea.

4. Aristoteles: existentzia materiala, askatasunerako baldintza gisa

Ez da harrizkoa mundu klasikoko historialari nagusietako batek —G.E.M. de Ste. Croix (1910-2000)— Aristoteles greziar politikaren soziologo handia izan zela esatea.¹² Azter dezagun, bada, askatasun errepublikanoaren ikuspegi aristotelikoa, baina Aristotelesek kritikatu zuen gizartearen ikuspegi orokorraren berri emanda, labur bada ere.

Aristoteles Atenasko demokrazia handiaren azken garaian bizi izan zen. Garai hark gure aroko 507. urtetik 322-321. urtera bitarteko tartea hartu zuen, eta haren amaiera Aristoteles hil zen garaiarekin bat dator ia. Aro luzea izan zen —185 urtekoa—, beraz, eta azpimarratzekoa da oligarkia berrezartzeko saiakera pare bat besterik ez zirela gertatu bitarte luze hartan: 411n eta 404-403an. 322-321ean demokrazia bertan behera gelditu zen arte, 462-461eko «Efiatesen erreformak» deritzenek ekarri zuten Atenasera aldaketa nagusietako bat. Erreforma horien muina eginkizun politikoak betetzearen truke ordainsaria jasotzean zetzan. Lehenik, justizia auzitegiatiko epaimahaietako eta batzarreko gaiak prestatzen zituen Kontseiluko (*boulé*) kide izategatik; gero (403an) batzarrera joate hutsagatik. Ordainsariak ez ziren altuak (eskulangileen soldata baino txikiagoak), baina herritar pobreei aukera eman zien hiriko bizitza politikoan eraginkortasunez aritzeko, hala nahi izanez gero (Rosenberg, 1921). Erreforma efialtiko horien ondorioz, «bizitza politiko inbaditu zuen *dêmos* pobreak. Pobreen alderdi demokratikoak iraunkorki gobernatutako errepublika izan zen Atenas» (Domènech, 2004: 51).

Garai haren amaiera bizi izan zuen Aristotelesek, Atenasko demokraziaren amaierako garaia, hain zuzen ere. Aristoteles Atenasko demokraziaren kritikari handi eta arras zintzoa izan zen. Haren obra politikoak ulertzeko (bereziki *Politika*), ezinbestean kontuan hartu beharra dago ezaugarri hori. Aristotelesek askotan agertu zuen kezka (arrazoirik gabe, demokraziak arlo horretan zuen eskuzabaltasuna kontuan hartzen badugu) «muturreko» demokraziaren «gehiegikeriak» zirela eta, zehazki, jabe handien aberastasunen balizko desjabetzea zela eta; baina demokrazia oso barkabera izan zen aberatsekin. Gerra garaian, halere, *eisphora* ordaindu behar zuten, Errepublikaren arma gatazkei aurre egiteko ekarpena. Edonola ere, *eisphora* ordaintzeko betebeharra ez zen desjabetzearen parekoa, inola ere.

Aristoteles iritzian —eta hala izaten zen, oro har, greziarren artean—, gizon baten egoera ekonomikoa zen haren jarduera politikoa gidatzen zuen faktore erabakigarria. Ez zuen horri buruzko argudiorik eman zuzenean, jakintzat ematen zuelako, bere munduan modu unibertsean onartutako zerbait izaki.

Aberatsez eta pobreez gainera, Aristotelesek *hoi mesoi* deritzenak aipatu zituen bere obraren pasarte batzuetan, hau da, aberastasun moderatuko aberatsak. Baina eredu dikotomikoari eutsi zion, oro har: aberatsak eta pobreak. Edo, zehatzago: jabeak eta ezeren edo ia ezeren jabe ez direnak (*hoi aporoi*). Aristotelesentzat,

¹² «Marx eta haren jarraitzaileei mugatutako aberrazio anakronikoa ez izateaz gainera, klase ekonomikoaren kontzeptua, greziar gizartearen berezitasunaren eta haren zatiketa politikoen definizioaren oinarritzko faktore gisa, bat dator, harrigarriki, greziarren beren ikuspegiekin; eta Aristotelesek, greziar hiriaren soziologiako eta politikako adituak, beti hartu zuen klase analisia oinarri, jakintzat emanez gizonek batik bat beren egoera ekonomikoaren arabera jardungo dutela politikan, beste edozein esparrutan bezalaxe.» Ste. Croix (1981: 79).

esan bezala, pertsona baten portaera politikoa haren egoera ekonomikoaren arabera izaten da, oro har. Eta, bide batez esanda, iritzi horrekin bat etorri dira mende askoan hainbat egile.¹³

Era berean, Aristotelesen aburuz, ez dago zalantzarik boterea lortzen duen klasea edozein dela ere —alegia, aberatsen klasea nahiz pobreen klasea dela ere—, bere onurari begira arituko dela agintean: «Tirania monarkaren interesari begirako monarkia bat da, hain zuzen ere; oligarkiak aberatsen interesen alde egiten du; eta pobreen alde dihardu, azkenik, demokraziak» (*Pol.*, 1279b 5). Aristotelesek dio aberastasun gehien dutenek beste guztien gainekotzat dutela beren burua (*Pol.*, 1301a 31-33) eta jabetza handien jabe direnek guztiz bidegabetzat joko dutela inolako jabetzarik gabeko gizonak politikoki haien maila berean jarri nahi izatea (*Pol.*, 1316b 1-3).

Aristotelesek garrantzi handia eman zion aberats-pobre dikotomiari. Aberatsak eta pobreak hiriaren osagai nagusiak dira, haren aburuz. Haren hitzetan: «Ezinezkoa da herritar berak pobre eta aberats izatea aldi berean. Horregatik, horiek dira, itxuraz, hiriaren osagai nagusiak: aberatsak eta pobreak. Gainera, oro har gutxi direnez aberatsak eta asko pobreak, hiriaren osagai horiek elkarren arerio modura ageri dira, eta, nagusitasuna bietako zeinek duen, horren arabera erregimena eratuko da, bi hauetako bat, itxuraz: demokrazia edo oligarkia» (*Pol.*, 1291b 8-13).

Zer dira Aristotelesentzat aberatsak eta pobreak, «hiriaren osagai nagusi» horiek? Aristotelesek pobre libreen eta esklaboaren arteko bereizketa egin zuen. Aristotelesen aburuz, tresna soilak ziren esklaboak —hitz egiteko gaitasuna duten tresna soilak—, eta, hala, gizarte zibiletik guztiz kanpo gelditzen dira. Pobre libreen multzoari dagokionez, Aristotelesek —baita haren garaikideek ere— inolako jabetzarik gabeko pertsonak sartzen ditu multzo horretan (miseria gorrian bizi ziren nekazariak, etxeakoak mantentzeko doi-doi ematen zuten sailen bat lantzen zutenak; jornalariak; igeltseroak; margolariak; eskultoreak; harginak; funditzaileak; tindatzaileak; urreginak; dekoratzaileak; grabatzaileak; gurdizainak; postalagunak; sokagileak; larrugileak; errepideak eraikitzen jarduten zutenak...). Pobre horiek beren lanetik ateratzen zuten bizibidea, eta besteen enpleguaren —jabeen enpleguaren— beharra zuten lanerako.

Aberatsak jabeak ziren; existentzia materiala bermatuta zeukatenak, jabetza horri esker, hain zuzen. Antzina —aurrerago beste hainbat mendez bezala— lurraren gainekoa zen jabetza garrantzizkoena. Jabeen klasea «bizimodu onaren premien (eta luxuen)» hornidura besteengandik lortzen zutenek osatua zen (Ste. Croix, 1981). Herritar ez-jabeen eta jabeen arteko erlazioa 4 eta 3koa zen. Aipagai dugun garaian, Atenasen 35.000 hiritar heldu gizonezko zeuden. Horietatik 20.000 ziren ez-jabeak, eta 15.000 jabeak. Era berean, ez-jabetzat hartuak ziren burgesiaren oinarriko mailetako kideak: artisau pobreak, bizibidea ikastunik gabe atera beharra zutenak. Gakoa, hemen, ez da, hainbeste, aberastasunaren zenbatekoa; baizik eta beste inorekiko mendekotasunik gabe bizi ahal izateko moduko egoera materiala edukitzea. Aberatsek bermatuta zeukaten existentzia materiala —batzuek beste batzuek baino askoz ere aberastasun maila handiagoa izanik ere, jakina—.

Aberatsen gobernu oligarkia da; eta pobreena, berriz, demokrazia. «Demokraziaren eta oligarkiaren arteko bereizketa pobrezia eta aberastasuna dira; eta, ezinbestean, boterea aberastasunaren mesedetan erabiltzen denean, izan aberats gutxi edo asko, oligarkia osatzen dute; eta pobreek agintzen dutenean, aldiz, demokrazia osatzen da» (*Pol.*, 1279b 39 - 1280a 1-3). Hortaz, erregimen bat oligarkikoa edo demokratikoa izango da, ez

¹³ 1852an, Marxek hau idatzi zion Josep Weydemeyerrri (1818-1866): «Ez da nirea gizarte modernoan klaseak daudela eta beren artean borrokan dihardutela aurkitu izanaren merezimendua».

soilik gehiengoaren arabera, klase izaeraren arabera baizik (aberatsen eta pobreen arteko bereizketa, jabeen eta jabez ez ziren herritar libreen arteko bereizketa).

Aristotelesek ez zuen begi onez hartzen Atenasko demokrazia, gauza jakina denez. Haren aburuz, pobre askeak (*phaulós*) ez dauka bermatuta existentzia materiala, ez duelako jabetzarik. Eta *horrexegatik* ez dauka aske izaterik, existentzia materiala edo «bere existentzia sozial autonomorako oinarri materiala» bermatuta ez duenez (Bertomeu eta Domènech, 2006: 74) besterekiko mendekotasuna duelako bizitzeko. Aristotelesek zioen ez duela inolako zentzurik eskubide politiko osoa emateak beren existentzia materialaren baldintzen ondorioz aske izaterik ez duten kideei. Azpimarratzekoa da atenastarrek ez zutela ukatu Aristotelesen balioespenaren oinarria (handik hainbat mendera errepublikanoek egin ez zuten bezala); are gehiago: demokratek, hain zuzen ere, hedatu egin nahi izan zuten («unibertsalizatu»), eta herritar guztiei aplikatu. Horregatik erabaki zuten pobre libreen partaidetza politikoa ahalbidetzen zuela *misthónak*, hau da, pobre libreek kargu publikoak bete ahal izan zituzaten erreforma efaltikoen bidez ezarritako ordainsari sistemak, ordainsari publiko hori gabe nekez onartu ahal izango baitzuten halako kargurik. Horregatik agertu zen, halaber, Aristoteles *misthón* delakoaren kontra, eta horregatik egin zuen batzar publikoetara joaten ez ziren aberatsei diru isunen zigorrak ezartzeko kontraproposamena. Aristotelesek argi eta garbi ikusi zuen *misthóna* jabetzaren ordezkio modura, pobreen existentzia materiala ahalbidetzen den elementu gisa. Baina hori ez dagokio Aristotelesen *realpolitik* delakoari, eta, horregatik, ez dugu horretan sakonduko.

Gogoan eduki beharreko oinarria hauxe da: Aristotelesen iritzian, existentzia materiala bermatuta ez duenak ez du libre izaterik, berme hori eduki ezean besteren mende bizi delako.

5. Zizeron: jabetzarekiko obsesioa

Erromatarren munduan obsesio bihurtu ziren aberastasuna eta *statusa*. *Statusa* ematen duena aberastasuna da. *Dat census honores* («jabetzak adierazten du heina»), Ovidiok zioenez (*Amodioak* III. VIII. 55). Erromatar *ius civile* deritzona zorrotasun intelektualaren monumentua bete-betea da, erromatar herritarren orotariko harreman pertsonalak eta familiaratekoak zehatz arautzen dituena. Eta horretan arreta bereziz landutako zerbait bada, jabetza eskubideen auzia da; gai sakratua, Erromako agintari klasearen aburuz. Zizeron —errepublikano handia hura ere (oligarkikoa, zalantzarik gabe)— obsesionatuta bizi zen jabetza eskubideek eduki beharko luketen urraezintasun horrekin. Baina, aurrez, erromatar zuzenbideak egiten zuen bereizketa argigarri bat azaldu nahi nuke, labur-labur, bereizketa horrek erakusten baitu erromatar askatasun errepublikanoak nola zioen existentzia materiala bermatu gabe zeukana —eta, beraz, bizitzeko beste batekiko mendekotasuna zuena— askatasunaren beraren ukotzat hartzen zen egoera batean zegoela.

Erromatar zuzenbide zibilak bereizten zituen bi lan kontratu motez ari naiz, hain zuzen: *locatio conductio opera* eta *locatio conductio operarum*. Lehena obra kontratu bat zen, partikular batek beste bati (adibidez, urregin bati) egiten ziona, kontratuan zehaztutako obra egiteko. Bigarrena, berriz, zerbitzu kontratu bat zen: partikular batek kontratua egiten zion beste bati, berak agindutako lanak egin zituzan, denbora tarte jakin batean. Bigarren kontratu mota hori duingabetzat hartzen zen, kolokan jartzen zuelako askatasuna bera; lehenena, berriz, guztiz duintzat zuten, haren bidez gizon aske batek kalifikazio jakin baten araberrako zerbitzua (adibidez urregin bati zegokiona) eskaintzen ziolako beste gizon aske bati. *Locatio conductio operarum* duingabea zen gizon libreentzat, partikular bat beste baten mende jartzen zuelako, eta, beraz, askatasuna bera kolokan zegoelako. Nork bere lan indarra beste partikular baten eskura jarrita, hark nahi zuen lanetarako, lan

indarra eskaintzen zuenaren mendekotasunezko egoera sortzen zen. Lan indarraren eskuragarritasun orokor hori eta haren truke jasotzen zen ordainsaria «morrontzako titulua» zirela esan zuen Zizeronek, *Lanbideak* lanean. Aristotelesek bi mende lehenago aipatutako «esklabotasun mugatuaren» oso antzeko zerbait.¹⁴

Zizeron funtsezko pertsonaia izan zen errepublikanismo oligarkikoaren muina ulertzeko. Egile horrek begi bistako obsesioa izan zuen jabetza pribaturako eskubideekiko, Nozicken joerako libertarismoaren filosofo handiek baino askoz ere lehenago. Ikus dezagun zer zioen hori buruz. «Lehenik eta behin, estatu bateko agintariak zorrotz begiratu behar du herritar bakoitzak berea den horren gaineko jabetza izatea, eta partikularren ondasunei inolako kalterik ez egitea onura publikoaren aitzakian», dio *Lanbideak* lanean (II. lib., XXI. kap.). Estaturuak kontu handiz ibili beharra dauka jabetza babesteko, eta horrekin loturik, hura birbanatzeko arrisku guztiak uxatzeko: «... aziendak parekatzea... egin litekeen kalterik larriena, jabetza kontserbatzeko xedez fundatu baitziren hiriak eta errepublikak». Libertarianoek baino bi mila urte lehenago, Zizeronek ez zuen inolako zalantzarik justizia suntsitu egingo litzatekeela, baldin eta «ez bada egiten nork bere ondasunen jabetzari eusteko ahalegina; hiri aske, franko baten egoeran, garrantzizkoena zera da: herritar oren jabetza eta ondasunen jabegoa ez izatea ez politikoa ez arriskutsua» (II. lib., XXII. kap.).

Zizeronek, bere errepublikanismo oligarkikoarekin bat etorrira, gutxiespen nabarmena erakutsi zuen lan-gile klaseekiko. *Lanbideak* laneko pasarte batean (I. lib., XLII. kap.), zera dio, Erromako aberastasun handietako baten jabe eta «erromatar hipokresiaren adierazpen jasoena» zenak (Ste. Croix, 1981: 331): «Apala eta morrontzazkoa da halaber jornalariena [lanbidea], eta beren antzeak ez lana baizik erosten zaien oreana». Eta zera gehitzen du aurrerago: «Halaber, ez dira onargarriak, gure ustez, gozamenen hornitzaile diren lanbideak: *arrantzaleena, harakinena, sukaldariena, erraizaleena*, Terentzioek dioenez» (nabarmenduta jatorrizkoan).

Errepublikano oligarkiko edo antidemokratikoek idatzitako hainbat pasarte aipa litezke hemen, baina bi mila urte inguruko jauzia egin, eta geroagoko historiak eman zuen eragin nabariko lehen errepublikano demokratikoaren ekarpenari helduko diogu.

6. Robespierre: existentzia eskubidea

Maximilien Robespierre (1758-1794) Frantziako Iraultzako pertsonaia nagusietakoa izan zen.¹⁵ Haren heriotzaren ondoren, iraultza erreakzio bihurtu zen, eta, handik gutxira, Napoleonen inperioa sortu zen, erreakzio haren ondorioz. Nolanahi ere, ez gara hasiko iraultzaile haren zertzelada guztiak aztertzen, errepublikanismoari egin zion ekarpena baizik. Horregatik, haren obren eta hitzaldien bilduma jasotzen duten 10 liburukietatik (1910etik aurrera argitaratuak), jabetzarekin, gizarte berdintasunik ezarekin, askatasunarekin eta existentzia sozialarekin lotura zuzena duen atalari emango diogu arreta.¹⁶

¹⁴ Harrigarria da, halaber, esparru horretan Aristotelesek eta Zizeronek zuten ikuspegiaren eta John Lockeren ikuspegiaren arteko antzekotasuna: «Gizon libre bat beste baten morroi bihurtzen da, aldi batez hari salduz gero zerbitzu bat, jasoko duen ordainsariaren truke hitzartutakoa». Lockerena da aipua (1960), eta Mundók (2006) eraman ninduen hartara.

¹⁵ Robespierren ebaluazio orekatsurako, ezinbestekoa da Albert Mathiez (1874-1932) historialariaren lana, baina bilketa on eta labur samarra aurki daiteke Mathiezen (1988).

¹⁶ Bosc, Gauthier eta Wahnichek (2005) testu eta hitzaldi horien bilduma hautatu baliagarria eskaintzen dute. Frantsesez, hemen kontsulta daitezke: <http://membres.lycos.fr/discours/discours.htm>.

Labur bada ere, aipa dezagun —baliagarria izango delako, nire ustez— hiriaren osagai nagusiak aberatsak eta pobreak direla Robespierrentzat ere, Aristotelesen kasuan ikusi dugun bezala. Robespierrek hark erabilitako hitz ia berdin-berdinez adierazi zuen hori 2.100 urte geroago (2-2-1790-2-2ko hitzaldian): «Zalantzarik gabe, bi ataletan banatuta dago Frantzia: herria eta aristokrazia».

Zer da jabetza Robespierrentzat? 1793-4-24an Konbentzioari egindako hitzaldian, gogoeta luze batez erantzun zion frantses iraultzaileak galdera horri:

«Galdetu giza haragiaren salerosleari zer den jabetza. Zera erantzungo dizue, itsasontzi esaten dion hilkutxa bat erakutsita, hilkutxa bat zeinetan itxi eta giltzapetu baititu itxuraz bizirik ziren gizonak: “Hauek dira nire jabetzak, buruko hainbatean erosiak.” Galdetu lurrak eta jopuak dituen aitoren seme horri, edo haiek galduz geroztik mundua nahastuta dabilela uste duen horri. Jabetzaren gaineko ideia ia bera emango dizue. Galdetu kapetarren dinastiako kide agurgarriei; esango dizute herentzia eskubidea dela jabetza guztietan sakratuena, zalantzarik gabe, antzinatik beren esku izan dutena; Frantziako lurraldean bizi ziren hogeita bost milioi gizonak zapaltzeko, zitaltzeko eta nahi bezala legez eta monarkikoki itotzeko eskubidea.»

Jabetzaren deskribapen ezin bizi eta gordinago hori har daiteke Robespierrek hari buruz duen ikuspegi arautzailearen atze-oihal modura; hau da, jabetzak haren ustez zer izan behar duen, sozialki justua izango bada. Zera esan zuen horri buruz diskurtso berean, artikulu modura emanda:

«1. art. Jabetza da herritar bakoitzak legeak bermatzen dion ondasunen parte gozatzeko eta erabiltzeko duen eskubidea.

2. art. Jabetza eskubidea mugatua da; beste guztiak bezala, besteren eskubideak errespetatzeko betebeharrak mugatuta dago.

3. art. Ezin kalte egin diezaioke hurkoaren segurtasunari, askatasunari, izateari eta jabetzari.

4. art. Printzipio hori urratzen duen jabetza oro, salerosketa oro, legez kanpokoa eta moralgabea da.»

Robespierrentzat, jabetzak mugatua behar du izan, eta ez dio kalterik egin behar ez askatasunari, ezta existentziari ere. Jabetza, baldin eta oinarri horietakoren bat betetzen ez badu, legez kanpokoa eta moralgabea izango da. 1792-12-2an Konbentzioari egindako hitzaldian, hau adierazi zuen: «Zergatik ez dute legeek geldiarazi behar monopolistaren esku homizida, hiltzaile arruntarekin egiten duten modu berean?».

Jabetza eta askatasuna elkarri estu lotuta daude. Beste une batean, zera adierazi zien diputatuei:

«Askatasuna definitzeko garaian —gizonen ondasun lehena eta sortzez dagozkien eskubideetan sakratuena—, arrazoiz esan duzue besteren eskubideak dituela muga. Zergatik ez diozue, bada, printzipio hori bera aplikatu jabetzari, erakunde soziala den aldetik, naturaren lege betierekoak gizonen hitzarmenak bezain urraezinak ez balira bezala? Artikuluak gehitu dituzue, jabetza gauzatzeko askatasun handiagoa bermatzeko, baina ez duzue ezer esan haren izaera zilegia finkatzeko.» («Gizonaren eta Herritarren Eskubideei Buruzko Adierazpena», 1793-4-24ko hitzaldia).

Robespierren lanean, behin eta berriz nabarmentzen da jabetza oro ez dela zilegia. Askatasuna urratzen badu, orduan, jabetza ez da zilegia. Eta ondare izugarri eta neurrigabeek gizarte berdintasunik eza sortzen

dutenez, askatasunari kontra egiten diote. Robespierrearen aburuz, ekonomia arloko berdintasunik eza da askatasunaren hondamenaren gako. Berdintasunik eza da, haren iritzian, «gaitz guztien iturria». 1791-4-5eko hitzaldian, zera leporatu zien legegileei: «Legegileok, ez duzue askatasunaren alde ezer egingo, baldin eta zuen legeek ez badute aberastasunen arteko berdintasun falta larria murrizteko bidea irekitzen, molde gozo eta eraginkorren bidez». Eta ideia horri berari heldu zion 1793-4-24an: «Benetan, ez dago iraultza baten beharrik unibertsoari azaltzeko aberastasunen arteko proportzio falta larria dela krimen eta gaitz askoren jatorria».

Aipagarria da lehenago egindako diskurtso batean, 1791ko apirilean, Robespierrek adierazi zuela jabeak ez direla beren burua herritar izendatzeko eskubidea duten bakarrak: «Aberatsak... saiatu dira ezartzen jabeak baino ez zirela herritar tituluaren duin. Interes orokor izendatu dute beren interes partikularra, eta ahalmen sozial oroz jabetu dira, ahalegin hark arrakasta izan zezan bermatzeko».

Jabetzari, askatasunari eta gizarte berdintasunik ezari buruz duen ikuspegiaren ondorio gisa ia, Robespierrek behin eta berriz erakutsi zuen bat zetorrela gizarteak herritarren existentzia materiala bermatzeko premiarekin. Oso ugariak dira horri buruzko zuzeneko aipuak. Baina frantses iraultzailearen bizitza laburraren azken urte eta erdikoak dira, agian, onenak.

Herritarren existentzia materiala bermatzen ez duen gizarte bat ez da inola ere justua; eta, beraz, ez du merezi aurrera jarraitzerik. 1793-4-24ko hitzaldian, zera adierazi zuen: «Gizartea behartuta dago bere kide guztien biziraupena bermatzera...». Eta, aurrerago: «Pobreziari aurre egiteko laguntzak aberatsak pobrearekin duen zorra dira. Legeari dagokio zor hori nola kitatu behar den zehaztea». Gizarteak eta, zuzenago esanda, gobernuak baitira gosearen, pobreziaren, miseriaren erantzuleak: «Herritarren miseria gobernuen krimena da» (1793-5-10eko hitzaldia). Nolanahi ere, badago gizarteak herritarren existentzia materialari buruz dituen betebeharrei buruzko aipu bat, sarritan errepikatua merezimendu osoz; biziraupenari buruz 1792-12-2an egindako hitzaldian esandako hau, hain zuzen ere:

«Zein da gizartearen xede lehen? Gizakiaren eskubide iraungiezinei eustea. Zein da eskubide horietan lehen? Existentzia eskubidea. Lehen lege soziala, beraz, gizarteko kide guztiei izateko bitartekoak bermatzea izango da; eta haren mende egongo dira gainerako guztiak; jabetza ez da eratu, ezta bermatu ere, lege haren euskarri gisa ez bada; bizitzeko edukitzen dira jabetzak. Eta ez da egia jabetza ezin izan daitekeenik gizonen biziraupenari kontrajarria.»

Orain artean, hiru egile hartu ditut ardatz (Aristoteles, Zizeron eta Robespierre¹⁷); eta indar handiko argudioak daude, hainbat arrazoiengatik, haiek garrantzi handikotzat hartzeko, tradizio errepublikanoaren baitan. Egin dezagun nolabaiteko laburpena.

7. Askatasun errepublikanoa

Aristotelesen eta Zizeronen askatasun errepublikanoaren ikuspegi oligarkikoaren eta Robespierrearen ikuspegi demokratikoaren arteko aldeak gorabehera (arreta bereziz aztertu ditudan hiru egileak aipatzearen), modu berean azaltzen dute denek askatasunaren auzia. Beren arteko alde bakarra askatasunaren hedadura

¹⁷ Egia da frantses iraultzaile horrekin batera aipa zitezkeela Jean-Paul Marat (1743-1793) eta Louis de Saint-Just (1767-1794) aditu gaztea, esaterako, baina, nire xedeari dagokionez, nahikoa da Robespierre oinarri hartuta.

da: askatasun hori merezi duten gizarte taldeei buruzko erabakia. Alegia, askatasuna aberatsei soilik ote dagokien, errepublikano oligarkikoez dioten moduan; edo herritar guztiei dagokien, errepublikano demokrati-koen iritzitari jarraituz.

Aldera ditzagun berdintasun falta larriak askatasunari dakarzkion ondorio izugarriez Robespierrek duen kontzientzia eta hura hil eta hilabete gutxira Termidorreko erreazioaren aitzindari nagusietako bik egindako beste bi hitzaldi hauek. Hona hemen zer dioten lehenak, Boissy d'Anglasenak (1756-1826):

«Bikainetan bikainek gobernatu behar gaituzte; bikainetan bikainak dira ikasienak, eta legeari eusteko interes biziena dutenak. Baina, kontuz: salbuespen batzuk salbuespen, ez duzue halako gizonik aurkituko jabetzaren bat dutenen artean baizik, beren jabetza kokatuta dagoen herrialdeari atxikiak, hura babesten duten legeei atxikiak, hura kontserbatzen duen baretasunari atxikiak; jabetza horri eta hark ematen duen lasaitasunari zor diotenak hezkuntza, aberriaren joera zehazten duten legeen abantaileri eta eragozpeni buruz eztabaida burutsu eta zehatzak egiteko aukera ematen dien hezkuntza (...) Jabeek gobernatutako herrialde batean gizarte ordena dago; jabe ez direnek gobernatutakoa [demokrazia], aldiz, berezko egoera da.»

Bigarren hitzaldia Dupont de Nemoursena da (1739-1817). Hona hemen zer zioen Termidorreko diputatuak:

«Bistan denez, herritarrak jabeak dira, zeinen baimenik gabe inork ez bailuke aurkituko ostaturik eta mantenerik herrialde osoan. Subiranoak dira, Jainkoaren, naturaren, beren lanaren, beren inbertsioen eta beren arbasoen lanaren eta inbertsioen graziaz.»¹⁸

Dupont de Nemours Termidorreko erregimenaren aldeko ospetsua izan zen; izen bereko enpresa sortu zuen, eta kimika arloko multinazional indartsua bilakatu zen enpresa hura. Boissy d'Anglas ere Termidorreko diputatua izan zen.

Edonola dela ere, askatasun errepublikanoaren ikuspegi xehea emateko moduan gara dagoeneko. Labur esanda, *X* aske izango da, ikuspegi errepublikanotik (gizarte bizitzaren baitan), baldin eta:

- a) bizitzeko beste partikular baten mende ez badago. Horrek esan nahi du existentzia sozial autonomoa bermatuta eduki behar duela edo, beste era batera esanda, erosotasunez bizirik irauteko aukera ematen dion nolabaiteko jabetza duela (gogora ekar dezagun, tradizioz, errepublikanismoarentzat, lurraren jabetza zela aukera hori ematen zuena, nagusiki);
- b) inork ezin sor bidezake interferentzia arbitrariorik (hau da, legez kanpo edo zilegitasunik gabe) *X*-ren existentzia sozial autonomoaren esparruan (haren jabetzan);

Eta horrela:

- c) errepublikak zilegitasuna du *X*-ren existentzia sozial autonomoaren esparruan interferentzia sortzeko, betiere *X*-k berdintasunezko harreman politikoa badu errepublikako gaineko herritar libre guztiekin, eta haien gaitasun bera badu gobernatzeko eta gobernatua izateko;

¹⁸ Bi aipuak Lefebvrerenak dira (1957: 199-200). Honako honetan ere aurki daitezke aipuak: Domènech (2004: 92).

- d) zilegitasunik gabekoa da *X*-ren existentzia sozial pribatuaren esparruan egiten den interferentzia oro (partikular batena nahiz errepublika osoarena), baldin eta *X*-ren esparru horri egiten zaion kaltearekin hari autonomia soziala galarazten bazaio, eta, horren ondorioz, *X* hirugarrenen mende gelditzen bada;
- e) errepublika behartuta dago *X*-ren existentzia sozial pribatuaren esparruan interferitzeko, baldin eta esparru pribatu horrek *X*-ri gaitasuna ematen badio errepublikak onura publikoa definitzeko duen eskubidea bereganatzeko lehian arrakastaz jarduteko. Hau da, errepublikak askatasun errepublikanoa bermatu behar die herritar guztiei.

Amaitzeko:

- f) *X*-k finkatuta du bere askatasun zibiko-politikoak, herritar askearen izaera galdu gabe inork kendu ezin dizkion eta berak hala nahi izanez gero ere alienatu (saldu edo besteri eman) ezin dituen eskubide *konstitutiboen* (ez soilik instrumentalak) oinarri sendo gutxi-asko handi baten bidez.¹⁹

Tradizio errepublikanoarentzat (Aristoteles, Zizeron nahiz Robespierrentzat, beste askoren artean), *X*-k duen aukera sorta existentzia sozial autonomoa ahalbidetzen dioten jabetzek mugatua da, argi eta garbi. Ez da edonolako aukera sorta bat; bere aukera sorta zehatz hori baizik. Erabateko herritartasuna ezin gauza daiteke independentzia materialik gabe edo horrela zehaztutako aukera multzo osoaren beraren gaineko «kontrolik» gabe. Tradizio errepublikanoaren arabera, askatasun politikoa eta herritartasuna gauzatzea bateraezinak dira guztiz libre ez izanik orotariko interferentzien mende dauden haien gainean jabe eta aberatsek mendekotasun harremanen bidez ezartzen duten *dominiunarekin*, bai etxeko bizitzan bai herriko bizitzako erlazio juridikoetan, hala nola lan kontratuetan eta ondasun materialen salerosketa kontratuetan. Baina puntu horretan, bereizketa bat dago errepublikano demokratikoen eta errepublikano oligarkikoen artean. Errepublikano demokratikoentzat, hau zen gakoa: askatasuna ahalbidetzeko mekanismoak diseinatzea; herritar guztiei existentzia material hori bermatzeko mekanismoak diseinatzea. Aldiz, errepublikano oligarkikoak beti saiatu izan ziren *sui iuris* ez zirenak bizitza politiko aktibotik kanporatzen. Botoa emateko gaitasuna bada herritarra kualifikatzen duen ezaugarria, eta gaitasun horren aurrebaldintza bada komunitatearen parte ez ezik kide ere izan nahi duenaren independentzia —beste batzuekin batera jarduten delako, baina bere erabakimenez—, orduan, errepublikano ez-demokratiko batzuek pentsatu zuten bereizketa egin beharra zegoela herritar pasiboen eta aktiboen artean. Kantek, esaterako, esaten zuen beste gizabanako batzuen mende dagoenak ez duela independentzia zibilik. Ez dute adingabeek, emakumeek eta morroiek, beren izateari beren kabuz eutsi ezin diotelako, sostenguari eta babesari dagokienez; ezta jornalarietarako ere, edo beren lanaren emaitza salmenta publikora atera ezin dutenek eta *sui iuris*aren borondatek eratorritzen diren aldi baterako morrontzako kontratu edo hitzarmen soilik pribatuen mende daudenek.²⁰

Tradizio errepublikanoan, jabetzak ematen duen independentzia ez da norberaren interes pribatu soilarekin lotura duen zerbait. Aitzitik, garrantzi politiko erabatekoa du, bai askatasuna gauzatzeko, baita autogobernu errepublikanoa gauzatzeko ere, oinarri materialaren bermatuta edukitzea ezinbestekoa baita norberaren independentziarako eta eskumen politikorako.

¹⁹ Bertomeu eta Domènech (2006).

²⁰ Kant (1989).

8. OEren justifikazio errepublikanoa

Argudio batzuk errepikatzea bada ere, nire ustez azpimarratu beharra dago askatasunaren ikuspegi errepublikanoaren alde aritu diren egileak bat datozela gutxienez bi uste hauetan, beren artean beste desberdintasun batzuk izan arren:

- 1) Aske izateak zera esan nahi du: besteren mendekotasunik ez edukitzea bizitzeko, ez izatea beste partikular baten interferentzia arbitrarioaren subjektu; bizitzeko beste norbaitekiko mendekotasuna daukanak ez du aske izaterik. «Existentzia eskubidea» bermatuta ez duena —Robespierrek erabilitako esapide egokiari jarraituz—, jabetzarik ez duenez, ez da eskubide propioaren subjektu —*sui iuris*—, beste batzuekiko mendekotasunean bizi da, eta ez da gai bertute herritarra lantzeko —eta, are gutxiago, gauzatzeko—; eta hori horrela da, beste partikular batekiko mendekotasun horrek besteren eskubidearen subjektu egiten duelako: *alieni iuris*, hau da, «alienatu».
- 2) Askatasun errepublikanoak jende asko (demokrazia plebeioa, errepublikar demokratikoei aldarrikatzen duten moduan) edo gutxi (oligarkia plutokratikoa, errepublikar oligarkikoei aldarrikatu bezala) har dezake; baina beti egongo da jabetzan eta hartatik eratortzen den independentzia materialean oinarritua. Eta askatasun horri ezin euts dakioke baldin eta jabetzaren banaketa berdingabe eta polarizatuaren eraginez partikular gutxi batzuek erronka jo badiezaioke errepublikari eta aukera baldin badeute onura publikoaz duten ikuspegia ezartzearen herritarren kontra arrakastaz lehitzeko. Jabetza berdintasunik gabe banatuta egonez gero, tarte txikia gelditzen da —edo batere ez— besteen askatasunerako, askatasunaz jabetuta dauden askatasunerako.²¹

Jabetzak ematen duen independentzia, existentzia materiala, oinarri autonomoa (inolako eragozpenik gabe truka litezke hemen) ezinbesteko baldintza da askatasuna gauzatzeko, dagoeneko esan dudanez. Hortik eratortzen da OEren aldeko errepublikano zenbaitek aldarrikatutako ideia hau: «jabetza unibertsalizatzea». Jabetza unibertsalizatze hori metafora modura hartu behar da. Guztiei existentzia materiala bermatzearen baliokidetzat ulertu behar da hemen (Casassas eta Raventós, 2007).

OE finkatzeak gaur egun dutena baino independentzia sozioekonomiko handiagoa ekarriko lieke herritar askori; existentzia oinarri autonomo handiagoa. Batez ere, gizarte garaikideetako sektore ahulenei eta mende-koenei: soldatapeko langile asko eta askori; pobreei, oro har; langabeei; emakumeei, etab. Azken batean, OE ezarri gero, askatasun errepublikanoa lortzeko aukera gehiago izango lukete talde ahul zenbaitek. Ikus dezagun hori sakonago. Talde ahul deritzot beste pertsona talde batzuen edo pertsona jakin baten interferentzia arbitrarioa jasateko arriskua duten pertsonen multzoari.

8.1. Emakumeen mendekotasun materiala

Lehenik eta behin, emakumeek osatzen duten talde handi heterogeneo horri helduko diot. Irakurlearen inteligentziari iseka egitea litzateke emakume guztiak egoera sozial berean ez daudela azaltzeko beta hartzea, instant batez balitz ere. Baina, bestalde, nahiko argia dirudi emakumeek osatzen duten ahultasun sozial nabariko talde handi heterogeneo horri gaur egun ez duen independentzia ekonomikoa emango liokeela OEek.²² OE

²¹ Puntu honi buruz, ikus Bertomeu (2005a).

²² Parker (1993); Robeyns (2001); Añón eta Miravet (2004); Pateman (2003, 2006); XRB- RRB (2006); Bambrick (2006).

definizioz lan moduan egin daitekeen ekarpenarekiko independentea den arren, aipatu beharra daukat hemen emakume gehienek lan egiten dutela, trukean inolako ordainsaririk eskuratu ez arren. Lan ordaindua lan mota bat baino ez da. Badira beste mota batzuetako lanak. Bi, hain zuzen ere: etxeko lana eta borondatezko lana.²³

Jarraian, OEren aldeko argudio errepublikano batzuk emango ditut, emakumeei loturik:

Lehenik eta behin, OEK dakarren independentzia ekonomikoak etxeko «kontrabotere» moduko bat ahalbidetzen du, eta, horren bidez, aldatu egin ahal izango lirakeke sexuen arteko mendekotasuneko erlazioak, eta areagotu egingo litzateke emakume askok etxean duten negoziazio indarra, bereziki senarren mende bizi direnena edo iraunkorki lanean ari ez direnez edo lanaldi partzialean lanean ari direnez oso diru sarrera apalak dituztenena.

Bigarrenik, banakako asignazioa izanik, OEK hobetu egingo luke gizonetzko batekin bizi diren emakume ezkondu askoren egoera ekonomikoa, batez ere gizarteko maila pobreenetakoena. Izan ere, baldintzapeko dirulaguntza gehienek familia heterosexuala dute esleipen unitate gisa. Oro har, familiaburua izaten da sari horiek jasotzen eta administratzen dituena —gizona, nagusiki—, eta, hala, posizioak ahulenean dauden pertsonak —emakumeei, nagusiki— ukatu egiten zaie diru sarrera horietarako sarbidea eta horien erabileraren gaineko kontrola. Patemanen arabera (2006: 115): «OE garrantzi handiko bitartekoa da feminismoarentzat eta demokratizazioarentzat, hain zuzen ere, *gizabanakoei ordaintzen zaielako, herritar diren heinean, eta ez etxeci.*»²⁴

Hirugarrenik, azpimarratzekoa da OEK erantzun argia ematen diola gizarte politika bizikidetzat moldeen aldaketetara egokitzekeo premiari, bereziki emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiak ugaritzeak sortutako premiei.

Laugarrenik, egile feminista askok azken hamarraldietan erakutsi dutenez, herrialde aberatsetako gizar-te segurantzako sistema eraikitzekeo garaian, emakumeak ekonomikoki beren senarren mendeko zirela jotzen zen. Horren ondorioz, emakumeek gizar-te segurantzatik lortzen zituzten irabaziaz beren senarrek egindako ekarpenetatik eratorriak ziren, eta horri esker jasotzen zituzten, ez herritar izateagatik. Gaur egun *male breadwinner* estereotipoa etengabe zalantzan jartzen ari dela kontuan hartuta, ez da inondik ere apeta hutsa etxeko lanei loturiko erabakiak gaur egun baino askoz ere adostasun gehiagor har litezkeela pentsatzea.

Baina, lau puntu horiekin batera, hedadura handiagoko gogoeta egin liteke OEK emakumeen existentzia materiala ikuspegi errepublikanotik mesedetzeko egingo lukeen ekarpenaz. Carole Patemanek iradoki du gogoeta hori. Labur adierazita, honela azal daiteke: azken urteetako filosofia politikoan elkarrekikotasunaren gaiari loturik landutako arazo askok lan ordainduarekin zerikusituz zuzena duten jardueren soilik egiten die- te erreferentzia. Elkarrekikotasuna urratzen da pertsona batek baldintzarik gabeko saria jasotzen duenean²⁵ —OE, gure kasuan—, baldin eta pertsona horrek lan ordaindua egiteke baldintza guztiak bete arren besterik gabe lan hori egin nahi ez badu, eta, beraz, bizkarkin modura badihardu (*free-rider*)? Patemanen iritzian, arazoari heltzeko oso modu estua da hori; izan ere, lan ordaindua besterik ez du aintzat hartzen. Aldiz, entzun- gor egiten dio nagusiki eta oro har emakumeek egiten duten ordaindu gabeko lan batean —etxeko lanean— gertatzen den elkarrekikotasunaren arazoari (eta *free-riderraren* arazoari). Nire ustez, gainera, horrek askoz ere hedadura handiagoa duen eta errepublikanismo demokratikoak landu izan duen beste arazo batekin du lotu- ra: historikoki, baita Antzinako Erregimeneko legeak abolituz geroztik ere, emakumeek gizonetik izan du-

²³ OEren eta etxeko lanaren eta borondatezko lanaren arteko erlazioaren gaineko eztabaida biltzen du Raventósen (2007) 4. kapituluak.

²⁴ Jatorrizkoan nabarmenduta.

²⁵ Whitek dioen moduan (2003a, 2003b).

ten mendekotasun egoerarekin, hain zuzen. Kasu historiko bat erabiliko dut nora iritsi nahi dudan zehatz eta arinago azaltzeko. 1792an, Robespierrek abolitu egin zuen herritar aktiboen eta pasiboen arteko bereizketa; hau da, botoa emateko eskubidea izan zezaketen eta halako eskubiderik ez dutenen arteko bereizketa —gizabanakoek ordain zitzaketen zergen zenbatekoaren arabera ezartzen zena—. Beste era batera esanda, herritar aktiboa zen aberastasun maila jakin bat zuena; eta, aldiz, maila horretara iristen ez zena jotzen zen herritar pasibotzat. Hori guztia, gizonei zegokienez, jakina. Kanpoan gelditzen ziren emakumeak, gizonekiko mendekotasunean bizi ziren subjektu ziren heinean.²⁶ Hor egiten dut lotura goian Patemanen kezkarri buruz esandakoarekin. OE, herritartasunaren izaera unibertsala aitortzen duenez (edo egoiliar izaera egiaztatua), ez dago ez etxeei ez ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsoneri bideratua (gizonei, esaterako). Arrazoi hori dela eta, OE baliabide eraginkorra izan daiteke gaur egun beren existentzia materialean senar edo maitaleekiko mendekotasuna duten emakumeen multzo handi baten oinarri autonomoa bermatzeko.

8.2. Langileriaren negoziazio ahalmena edo lanaren desmerkantilizazioa

Bigarrenik, langileriarentzako OE bat ezartzeak errepublikanismoarentzat duen interesa aipatu nahi dut; hain zuzen ere, langileria baita goian aipatutako talde ahuletako bat, errepublikanismoaren ikuspegitik.

Lehenik eta behin, zenbait egilek landutako alderdi bat aztertuko dugu: OE eta lan indarraren desmerkantilizazioa.²⁷ Ekonomia kapitalistetan, lurjabe edo ekoizpen bideen jabe ez diren pertsonen lan merkatuan saldu behar diote beren lan indarra lurjabeei edo ekoizpen bideen jabeari —alegia, enplegatzaileari—, biziraupenerako bitartekoak eskuratzeko. Egoera horri «lan indarraren merkantilizazioa» esan izan zaio (bartzuetan, zuzenean, «lanaren merkantilizazioa»), salgai modura hartzen delako soldatapeko lana saihesteko aukera emango liekeen jabetzarik ez dutenen lanerako ahalmen hori. Langileek gizarte hornidurako mekanismoen bidez eduki ditzakete biziraupenerako premiak estalita. Kasu horretan, beren lan indarra desmerkantilizatuta dagoela esaten da. Hala, lan indarraren merkantilizazio maila zenbait bereiz daitezke (eta baita desmerkantilizazio mailak ere). OEk ondorio jakingarriak izan litzake lan indarraren desmerkantilizaziorako tresna gisa, «enplegatuz ez izateko askatasuna» ahalbidetzeko adinakoa izango balitz, betiere (Pateman, 2006: 104).

Baina OEk beste eragin interesgarri bat ere izan lezake langile klasearen gainean, ikuspegi errepublikanoetik bereziki interesgarria: gizarte klase horretako kideek negoziazio ahalmen handiagoa izango lukete enpresaburuaren edo enplegatzailearen aurrean.²⁸

OEren bermeak diru sarrerei dagokienez ekarriko lukeen segurtasunari esker, langileek ez lukete beren burua edonolako lan eskaintzak onartzera behartuta ikusiko. Lan merkatutik irtetea aukera bideragarria litzatekeen neurrian, orain langileek dutena baino askoz ere handiagoa litzateke haien negoziazio ahalmena (edo erresistentzia ahalmena, bartzuetan esan izan zaion moduan). Oso bestelako kontua baita lan negoziazioak hausturaren mugara eramatea, enpresaburuak bezala aukera erreala edukita lehian ari diren langileen ordezkariak edo

²⁶ Robespierrek berak ere bere bizitzaren amaieran ulertu egin zuen, dirudienez, «nola emakumeen askapen bete ekarri behar zuen *fraternité*», ezinbestean, bizitza sozial, ekonomiko, familiar eta politikoaren *zibilizazio* erabateko eta unibertsaleko programa demokratiko gisa» (Domènech, 2004: 91).

²⁷ Besteak beste: Pateman (2006); Van Parijs (2006); Domènech eta Raventós (2004).

²⁸ Wright (2006); XRB-RRB (2006); Raventós eta Casassas (2003); Raventós (2002); Casassas eta Loewe (2001).

gaur egun langabezian dauden langileak erabiltzeko —garai batean «erreserbako gudaroste industrialak»²⁹ zeritzona osatzen dutenak—, edo biziraupena zuzenean, eta ia eskusiboki, negoziazio mahaiaren beste aldean eserita dauden gizabanakoen eskutik jasotako oradinsarien mende edukita, gaur egungo langileei gertatzen zaien moduan. Kapitalismoaren baitan, lan harremana asimetrikoa da, argi eta garbi. Eta OEK bideragarria egingo luke ez soilik langile askok nahi ez dituzten egoerei modu eraginkor eta sinesgarrian uko egiteko aukera, baita lana antolatzeko molde alternatiboak planteatzekoa ere, pertsona gisa maila jasoagoetara iristeko.

Gainera, greba egin behar izanez gero, baldintzarik gabeko erresistentzia kutxa agorrezin moduko baten modura jardungo luke OEK, eta, bistan denez, langileen negoziazio ahalmena sendotzen lagunduko luke horrek. Hain zuzen ere, greba egin behar izanez gero langileek OE jasotzeko aukera balute, grebari gaur egun baino askoz ere segurtasun handiagoz aurre egiteko moduan leudeke: izan ere, gaur egun, greba egunen kopuruaren arabera, soldatak asko murriz daitezke, egoera jasanezina bihurtzeraino, baldin eta, langile klasean oro har gertatzen den moduan, grebalariak bere soldata beste baliabiderik ez badu.

9. Ondorioak

Hiru egile errepublikanoren ekarpenak ardatz hartuta, errepublikanismo historikoak askatasunari buruz duen ikuspegia azaltzen saiatu naiz lan honetan. Berdintasuna eta askatasuna ez dira aukerako bi aldagai: ezin aukera daiteke batetik gehiago, bestetik gutxiago —eta alderantziz—. Gizarteko berdintasunik ezak askatasunik eza dakar. Arrazoi hori dela eta, errepublikanismo demokratikoak mekanismo instituzionalak proposatzen ditu herritarrek guztiz bermatuta izan dezaten existentzia materiala, horixe baita askatasunaren funtsa. XXI. mendearen bigarren hamarraldiaren hasieran, aberastasun handien pilaketa nabarmena dugu alde batean, eta miseriarik gorriena bestean; eta, hala, arrisku larrian dago —edo are guztiz deuseztatuta ere— ehunka milioi lagun askatasuna; egoera horretan, eta mende berriko baldintza sozioekonomikoak kontuan hartuta, herritar guztiei (eta egoitza egiaztatzen dutenei) existentzia materiala bermatzeko mekanismo instituzional gisa ageri zaigu OE. Aldiz, 2007an nabarmentzen hasitako krisi ekonomikoaren ondorioz,³⁰ eta gobernu askok indarrean ezarritako politika ekonomikoko neurrien ondorioz, gero eta jende gehiagorentzat eta gero eta modu nabariagoan dago kolokan egoera hori. Zera idatzi zuen, orain hilabete batzuk, munduko krisi ekonomikoaren iragarpena egin zuen ekonomialari apurretako batek: «Finantza krisiek modu bitxia dute erreforma erradikalak arrazoizkoak balira bezala itxuratzeko» (Roubini eta Mihm, 2010: 339). Zalantzarik gabe, OE garrantzi handiko erreforma proposamena da, eta, gaur egungoaren moduko mundu batean, oso arrazoizkoa irudi lezake, baita hasieran erokeria zela pentsatu zuten askorentzat ere. Jarrera aldatzeko, aski da OE aztertu eta munduaren gaur egungo egoerarekin alderatzea.

Aipatutako testuak


Añón, María José eta Miravet, Pablo (2004), «El derecho a un ingreso y la cuestión social de las mujeres europeas», in Martínez Ridaura, J. eta Aznar, Mariano J. (eds.), *Discriminación y diferencia*, Valentzia: Tirant lo Blanc.

²⁹ Espainiako Erresuman, 2011ren hasieran, 4 milioi lagunetik gora, datu ofizialen arabera; kopuru altua, beraz.

³⁰ OEK gaur egungo krisi ekonomikoko egoeran dituen aukerez, Lo Vuolo eta Raventós (2009) eta Lo Vuolo, Raventós eta Yanes (2010).

- Aristóteles (1997), *Política*, Madril: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Julián Marías eta María Araújoren itzulpena).
- Bambrick, Laura (2006), «Wollstonecraft's Dilemma: Is a Citizen's Income the Answer?», *Citizen's Income Newsletter*, 2.
- Bertomeu, María Julia (2005a), «Republicanism y propiedad», *El Viejo Topo*, 207.
- Bertomeu, María Julia (2005b) «Las raíces republicanas del mundo moderno: en torno a Kant», in Bertomeu, María Julia, Domènech, Antoni eta De Francisco, Andrés (arg.), *Republicanism y democracia*, Buenos Aires: Miño y Dávila Editores.
- Bertomeu, María Julia eta Domènech, Antoni (2006), «El republicanismo y la crisis del rawlsismo metodológico (Nota sobre método y substancia normativa en el debate republicano)», in *Isegoría*, 33, 51.-75. or.
- Bosc, Yannick, Gauthier, Florence eta Wahich, Sophie (arg.) (2005), *Por la felicidad y por la libertad (discursos de Robespierre)*, Bartzelona: El Viejo Topo.
- Casassas, David (2010), *Propiedad y comunidad en el republicanismo comercial de Adam Smith: el espacio de la libertad republicana en los albores de la gran transformación*. Bartzelona: Montesinos.
- Casassas, David eta Loewe, Germán (2001), «RB y fuerza negociadora de los trabajadores», in Raventós, Daniel (koord.), *La RB. Por una ciudadanía más libre, más igualitaria y más fraterna*, Bartzelona: Ariel.
- Casassas, David eta Raventós, Daniel (2007), «Propiedad y libertad republicana: la RB como derecho de existencia para el mundo contemporáneo», *Sin Permiso*, 2, 35.-69. or.
- Casassas, David eta Raventós, Daniel (2008), «Propiedad y libertad: doce tesis sobre la defensa republicana de la RB», in <http://www.sinpermiso.info/textos/index.php?id=1961>, honako webgune honetan: www.sinpermiso.info. Kontsulta: 2010/8/15.
- Cicerón (1943), *Los oficios*, Madrid: Espasa Calpe (Manuel de Valbuenaren itzulpena).
- Domènech, Antoni (2004), *El eclipse de la fraternidad*, Bartzelona: Crítica.
- Domènech, Antoni (2006a), «Azarosas élites bajo palabra de honor», in *Sin Permiso*, 1, 263.-276. or.
- Domènech, Antoni (2009), «¿Qué fue del marxismo analítico? (En la muerte de Gerald Cohen)», in *Sin Permiso*, 6, 33.-71. or.
- Domènech, Antoni eta Raventós, Daniel (2004) «La RB de Ciudadanía y las poblaciones trabajadoras del primer mundo», *Le Monde diplomatique* (Espainiako edizioa), 105.
- Domènech, Antoni eta Raventós, Daniel (2008), «Propiedad y libertad republicana: una aproximación institucional a la RB», in *Sin Permiso*, 4, 193.-199. or. Ingeleseko bertsioa, apur bat aldatua, *Basic Income Studiesek* eman zuen argitara, eta honako honetan aurki daiteke: <http://www.bepress.com/cgi/viewcontent.cgi?article=1090&context=bis>, www.bepress.com/bis/ webgunean. Kontsulta: 2011/1/15.
- Domènech, Antoni *et alteri* (2010), «La UE y Zapatero o cuando los locos son los lazarillos de los ciegos», honako honetan: <http://www.sinpermiso.info/articulos/ficheros/domenechnadal.pdf>. Kontsulta: 2011/1/31.
- Domènech, Antoni, Buster, Gustavo eta Raventós, Daniel (2010), «La sabiduría asombrada y la contrarreforma del mercado de trabajo en el Reino de España», honako honetan: <http://www.sinpermiso.info/articulos/ficheros/domenechbuster.pdf>. Kontsulta: 2011/1/31.
- Kant, Immanuel (1989), *Metafísica de las costumbres*, Madril: Tecnos.
- Lefebvre, George (1957), *Les Thermidoriens - Le Directoire*, Paris: Armand Colin.
- Locke, John (1960) [1690]: *Two Treatises on Government*, (arg. P. Laslett), Cambridge: Cambridge University Press.
- Lo Vuolo, Rubén eta Raventós, Daniel (2009), «Algunas consecuencias de la crisis económica en Argentina y en el Reino de España y la propuesta de la renta básica (o ingreso ciudadano)», in *Sin Permiso*, 5, 115.-129. or.
- Lo Vuolo, Rubén, Raventós, Daniel eta Yanes, Pablo (2010), «The War Social and Working Rights. Basic Income in Times of Economic Crisis», honako honetan: <http://www.counterpunch.org/vuolo11052010.html>. Kontsulta: 2011/1/30.

- Mathiez, Albert (1988), *Études sur Robespierre*, Paris: Messidor /Editions sociales.
- Mosterín, Jesús (2006), *La naturaleza humana*, Pozuelo de Alarcón: Gran Austral.
- Mundó, Jordi (2005), «Autopropiedad, derechos y libertad (¿debería estar permitido que uno pudiera tratarse a sí mismo como a un esclavo?)», in Bertomeu, María Julia, Domènech, Antoni eta De Francisco, Andrés (arg.), *Republicanism y democracia*, Buenos Aires: Miño y Dávila Editores.
- Mundó, Jordi (2006), «Locke y Aristóteles», in Bertomeu, M.J., Di Castro, E. eta Velasco, A. (arg.), *La vigencia del republicanismo*. Mexiko: Universidad Nacional Autónoma de México.
- Parker, Hermione (1993), *Citizen's Income and Women*, BIRG Discussion Paper 2. Londres: Citizen's Income.
- Pateman, Carole (2003), «Freedom and Democratization: Why Basic Income is to be Preferred to Basic Capital», in Dowding, Keith, De Wispelaere, Jurgen eta White, Stuart (arg.), *The Ethics of Stakeholding* Basingstoke: Palgrave.
- Pateman, Carole (2006) «Democratizing Citizenship: Some Advantages of a Basic Income», in Ackerman, Bruce, Alstott, Anne eta Van Parijs, Philippe (arg.), *Redesigning Distribution*, Londres-New York: Verso.
- Pettit, Philip (1997), *Republicanism*, Oxford: Oxford University Press.
- Raventós, Daniel (2002), «Detrás de la desigualdad hay un problema de libertad o “los que viven con permiso de otros”», in *El valor de la palabra- Hitzaren Bailoa*, 2, 78.-102. or.
- Raventós, Daniel (2007), *Las condiciones materiales de la libertad*, Bartzelona: El Viejo Topo. Ingelese: *Basic Income: The Material Conditions of Freedom*, Londres: Pluto Press.
- Raventós, Daniel (2008), «60 años de derechos humanos y uno de la declaración de Monterrey», honako honetan: <http://www.sinpermiso.info/textos/index.php?id=2221>, www.sinpermiso.info webgunean. Kontsulta: 2011/1/30.
- Raventós, Daniel eta Casassas, David (2003), «La RB y el poder de negociación de “los que viven con permiso de otros”», in *Revista internacional de sociología*, 34, 187.-201. or.
- Rawls, John (1971), *A Theory of Justice*, Cambridge (Mass.), Harvard University Press.
- Robespierre, Maximilienne (1958-1967), *Œuvres*, Paris: Société des Études Robespierriettes.
- Robeyns, Ingrid (2001), «An Income of One's Own», *Gender and Development*, 9. lib.
- Roosevelt, Franklin Delano (1999) [1935]: *State of the Unions 1933-1945*, Groningen: University of Groningen (Department of Alfa-informatica).
- Rosenberg, Arthur (2006), *Democracia y lucha de clases en la antigüedad*, Bartzelona: El Viejo Topo.
- Roubini, Nouriel eta Mihm, Stephen (2010), *Cómo salimos de ésta*, Bartzelona: Destino.
- Sen, Amartya (1992), *Inequality Reexamined*, Cambridge, (Mass.), Harvard University Press.
- Ste. Croix, G.E.M. (1981), *The Class Struggle in the Ancient Greek World From the Archaic Age to the Arab Conquests*, Londres: Duckworth.
- Van Parijs, Philippe (1991), *Qu'est-ce qu'une société juste?*, Paris: Le Seuil.
- Van Parijs, Philippe (2006), «Basic Income versus Stakeholder Grants: Some Afterthoughts on How Best to Redesign Distribution», in Ackerman, Bruce, Alstott, Anne eta Van Parijs, Philippe (arg.), *Redesigning Distribution*, Londres-New York: Verso.
- White, Stuart (2003a), *The Civic Minimum* (Oxford: Clarendon Press).
- White, Stuart (2003b), «Fair reciprocity and Basic Income», in Reeve A. eta Williams A. (arg.), *Real Libertarianism Assessed: Political Theory after Van Parijs*, Houndmills: Palgrave Macmillan.
- Wright, E. Olin (2006), «Basic Income as a Socialist Project», *Basic Income Studies*, 1.
- Xarxa Renda Bàsica (2006), *Preguntes i respostes sobre la renda bàsica*, Bartzelona: XRB-RRB.



GORKA MORENO MÁRQUEZ

Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako irakaslea,
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

gorka.moreno@ehu.es

Herritartasunaren eta Ongizate Estatuaren gaineko gogoeta berria XXI. mendean

Edukiak: 1. Sarrera.—2. Herritartasun kontzeptua, Marshall-en arabera.—3. Enplegua, herritartasuna eta Ongizate Estatuak. 3.1. Enplegu fordiarraren gizarte araua: zirkulu bertutetsua. 3.2. Egungo enpleguaren gizarte araua: gizartea eta bizitza ezegonkortzea.—4. Herritartasunaren gainbehera eta gizarte zaugarritasunaren goraldia.—5. Zein da herritartasunaren eta Ongizate Estatuaren etorkizuna? Aukerak eta proposamenak. 5.1. Egungo egoera mantentzea. 5.2. Enpleguaren eta herritartasunaren arteko erlazioa berritzea. 5.3. Erlazioa haustea.—6. Ondorioa: Eztabaidarako sintesi proposamena.

1. Sarrera

Artikulu honetan, herritartasunaren eta Ongizate Estatuaren arteko erlazioan sakonduko dut. Izan ere, bi kontzeptuen arteko lotura hori funtsezkoa eta gidaria da gizarte modernoetan. Enpleguak bi elementuen zementu edo elkartzaile gisa funtzionatu du; batik bat, herritartasunaren gizarte alderdian. Azken boladan, enpleguak sostengu material eta ekonomikoa eman dio gizartearen gehiengoari, eta, aldi berean, gizarte eskubideetarako sarbidea izan da; batik bat, Ongizate Estatuaren *urrezko aroa* bezala ezagutzen den une historikoan. Garai hori nagusiki Europan bizi izan zen, Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik petrolioaren lehenengo krisira arte (1945-1973).

Hala ere, enpleguan gertatu diren aldaketen ondorioz, eta malgutasunaren eta lan ezegonkortasunaren ondorioz, bere funtzioak kalteak jasan ditu azken urteotan. Ondorioz, enpleguaren gaitasun integratzaileak zalantzan jartzen dira; baita herritartasunaren, enpleguaren eta Ongizate Estatuaren arteko erlazioa ere. Garaipen horretan, eta ondorio gisa, gizarte zaugarritasuna eta *working poors* bezalako fenomenoak nabarmen daitezke. Enplegu bat eduki arren, pobrezia gainditzen ez duten pertsonak dira, eta hori erabat pentsaezina zen duela hamarkada batzuk.

Pentsa daitekeen bezala, horrelako testuinguru batek enpleguaren, herritartasunaren eta Ongizate Estatuaren arteko lotura birplanteatzea eskatzen du, mantendu daitekeen ikusteko, edo, alderantziz, integrazioa eta gizarte kohesioa egituratzeko elementu berriak bilatu behar diren ikusteko. Egoera horretan, hain zuzen,

enpleguaren eta herritartasunaren arteko harremanaren deslotura partziala planteatzen duten proposamenak nagusitzen dira; hots, malgusegurtasunaren eredia. Beste proposamen batzuek, berriz, kontzeptuen erabateko banantzea planteatzen dute; hori da, hain zuzen, Herritarren Oinarrizko Errentaren kasua.

Artikuluaren egiturari dagokionez, hasiera batean, herritartasunari buruzko Marshall-en teorian sakonduko dut. Teoria horretan, hiru zati bereizten dira: zibila, politikoa eta soziala. Bigarren atalean, Ongizate Gizartearen une gorenean enpleguaren eta herritartasunaren arteko harremana nola garatu den aztertuko dut, eta horrek gizarte integraziorako ahalbidetu dituen lotura egokia eta efektu positiboak nabarmenduko ditut. Horrez gain, gaur egun enpleguaren eta herritartasunaren arteko erlazioa zein den aztertuko dut atal honetan. Duela hamarkada batzuetako eskema nola apurtu den, eta, ondorioz, geroz kolektibo gehiago ezegonkortasun eta bizi-zaurgarritasun egoeran nola gelditu diren aztertuko dut. Izan ere, kolektibo horiek ezin dezakete herritartasun osoaz gozatu. Azkenik, eta egungo egoera azaldu ostean, herritartasunaren eta Ongizate Estatuaren berreraikuntzari buruzko eztabaidan erabilgarriak izan daitezkeen hainbat proposamen eta aukera planteatuko ditut. Hain zuzen, hiru planteatuko dira: enpleguaren eta herritartasunaren arteko erlazioa mantentzea, malgusegurtasunaren eredia eta askotariko aldaerak, eta Herritarren Oinarrizko Errenta.

2. Herritartasun kontzeptua, Marshall-en arabera

Modernitateko herritartasunaren ideiak polis grekoko edo antzinako Erromako kontzeptu klasikoarekin antzekotasunik badu ere (Schnapper, 2001), Frantziako Iraultzako balioekin sortu zen, antzinako aristokraziaren pribilegioen aurka, berdintasuna bermatzeko elementu gisa (Heather, 1999). Gizabanakoaren eta komunitate politikoaren arteko lotura gisa, edo bestela esanda, pertsonaren eta Estatuaren arteko lotura gisa. Balibar-en hitzetan, herritartasuna «politika demokratikoen erakunde esparrua da, eta banakakoa eta kolektiboa antolatzeak aukera» (Balibar, 2003: 184). Bi definizio horien arabera, herritartasuna esparru politiko batean eskubide jakin batzuk bermatzen dituen status gisa hartzen da. Eskubideak ez dira gupidaren edo karitatearen bizkar gelditzen; Ignatieff-ek esan bezala, herritartasuna «askatasun istorio bat da, ez gupida istorio bat» (Ignatieff, 1991: 35). Ikus daitezkeen bezala, herritartasuna pertsonaren eskubideak bermatzen dituen elementua da, eta, hala, funtsezko elementua da modernitatearen bilakaera, eta, zehazki, xx. mendeko modernitatearen bilakaera ulertzeko (Roche, 1992).

Herritartasun kontzeptua garatzeko, teoria sozial eta politikoaren esparruan, T.H. Marshall-ek egin ditu ekarpen gehien. Horietako askok 1949an Cambridgeko Unibertsitatean emandako hitzaldietan dute sorburu. Eduki horien arabera, Marshallek hiru dimentsio bereizten ditu herritartasun kontzeptuan. Dimentsio horiek hainbat fase historikorekin bat datoz: xviii. mendea bat dator eskubide zibilen garapenarekin; xix. mendea bat dator eskubide politikoekin; eta xx. mendea bat dator eskubide sozialekin (Marshall, 1998: 31). Sailkapen honek eskubideek modernitatean izan duten garapena ulertzen laguntzen badigu ere, ezin dezakegu ahaztu garapen hori ez dela modu lineal batean gertatu, ezta modu jarraitu batean ere. Leku edo une jakin baten arabera, eskubideen garapen historikoa ez da berdina, eta maila edo abiadura desberdin batean gertatzen da.

Dimentsio zibilak banakako eskubide batzuekin lotuta daude; esaterako, adierazpen askatasunarekin, sinesmen askatasunarekin eta biltzeko askatasunarekin. Politikak ekintza politikoan aktiboki parte hartzeko gaitasuna nabarmentzen du; batik bat, hauteskunde prozesuen bidez (nola aktiboki, hala pasiboki). Bigarren dimentsio horren barruan, sufragio unibertsalaren eta emakumeen sufragioaren aldeko borrokak sartzen dira.

Hirugarrenik, eta garrantzi gehien duen dimentsioan, herritartasunaren gizarte alderdia dago. Pietro Barcellona-ren aburuz, «bizitzan eta lanean segurtasun bermeak lortzeko eta gizabanakoari duintasuna emateko herritar bakoitzak Estatuarekiko duen itxaropena da. Asmo horiek, batik bat, irabazi kuota minimo bat izateko eskubidean laburtzen dira» (Barcellona, 1991: 29). Ondorioz, merkatuari begira, gizabanakoari askatasun jakin bat ematen dioten gizarte eta lan eskubideak dira, edo Esping-Andersen-en arabera, gizarte batean gertatzen den desmerkantilizazio maila (Esping-Andersen, 1993). Hirugarren elementu hori erabat lotuta dago Ongizate Estatuarekin, eta Thernborn-ek adierazi bezala, Europako modernitatearen ezaugarria da (Thernborn, 1995: 89).

Denboraren iraganean, Marshallen teoria kritikatu eta berraztertua izan da, hainbat arlotan eta korronte ideologikotan; esaterako, neoliberalismoa (Held, 1991; Mulgan, 1991), genero ikuspegia eta kultura desberdintasunen garrantzia nabarmentzen duten korronteak (Bottomore, 1998). Edozein kasutan ere, eta Marshallen ekarpenek mugak dituztela eta errealitate berrietara egokitzeko batzuk birplanteatu egin behar ko lirakeela alde batera utzita, gehiengoaren arabera, bere hurbilketak indarrean jarraitzen du eta kontzeptu esparru ahaltua eskaintzen du, egungo gizarte egoera aztertzeko, eta modernitatean zeharreko gizarte gatazka azaltzeko.

3. Enplegua, herritartasuna eta Ongizate Estatu

3.1. Enplegu fordiarraren gizarte araua: zirkulu bertutetsua

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, gizarte eskubideak (herritartasunaren gizarte elementua) Ongizate Estatuaren ardatz bilakatu ziren, Bigarren Mundu Gerraren amaieran martxan jarri zenean. Europako herrialde gehienetan, Estatuak gizarteari gutxieneko ongizate material batzuk bermatzeko ideia (Harris, 1990) juridikoki zigortua izan zen, konstituzioetan *Gizarte Estatuaren* kontzeptua sartu zenean: Frantzia —1946—, Italia —1948— eta Alemania Federala —1949—. Horrelako testuinguru batean, enpleguak (ordaindutako lana), eta, zehazki, enplegu fordiarraren ereduak erabateko garrantzia hartu zuen, gizabanakoaren eta kolektiboaren arteko elementua delako; eta horiek, lehen aipatu bezala, herritartasun modernoaren oinarriak direlako. Era berean, enplegua herritarren gizarte eskubideentzako sarbide eta bermea zen. Herritartasuna, enplegua eta Ongizate Estatu batera joan ziren, gutxi gorabehera 1945ean hasi zeneetik 70eko hamarkada hasierara arte. Europako herrialde gehienetan garatu zen. Pentsa daitekeen bezala, Espainia garapen horretatik kanpo gelditu zen, eta Espainiako Ongizate Estatuaren lehenengo oinarriak askoz geroago garatu ziren; hain zuen, demokraziaren garapenarekin batera.

Enpleguaren garai honetan, gizarte arau baten barruan sartzen diren ezaugarri zehatz batzuk erakusten dira. Enpleguaren ziurtasuna, segurtasuna eta homogeneousotasuna ardatz dira soldatapeko herritarrentzat (gizonezkoak). Enpleguak izaera orokortua eta ia ezinbestekoa du (Handy, 1986). Lan merkatuarekiko lotura goiz hasten da, eta askotan, erretiroa hartzeko legezko adinera iristean amaitzen da. Kotizazio epe luze batzuei lotutako lan bizitza luze horrek kalitatezko gizarte prestazio ugari ahalbidetzen dizkio gizartearen gehiengoari.

Aurreko paragrafoan planteatutako eskeman, bizi-faseak argi zehaztuta eta mugatuta daude. Lehenengo prestakuntza fasea laburra da, eta lan merkaturako sarbidea ahalbidetu du. Bigarren fase batean, soldata lotura sartzen da; denboran, fase luzeena da eta gizabanakoaren heldutasunarekin bat dator. Azkenik, erretiro aldia eta enpleguarekiko loturarik ez edukitzeko aldia dator. Gehienetan, gizarte gainbeherarekin eta

bizi-gainbeherarekin lotuta doa. Fase batetik besterako igarotzeak modu natural eta automatikoan gertatzen dira, eta ez era traumatikoan.

Bizi-linealtasun hori, lan denboraldi luze batekin lotuta, non langabezia salbuespena den eta enplegua sostengu materialerako (soldata) eta subsidio eta pentsioetarako sarbidea den, ziurtasuna eta segurtasuna, lehen aipatu bezala, gerra ondoko mendebaldeko gizarteen euskarri dira. Lan ibilbidea ardatz hartuta, lanaldiak 8 ordukoak izan ohi dira, astean bost egunez eta urtean 11 hilabetez. Denboraldi hori 40-45 urte ingurukoa izan ohi da, eta ikus daitekeen bezala, ia bizitza osoa izan ohi da. Aipatzekoa da lan ibilbide hori lantoki berean garatzen dela, eta, gutxienez, lanbide batean. Hala, gizabanakoen elementu material eta ekonomiko bilakatzeaz gain, enpleguak ekarpen garrantzitsuak egiten ditu gizabanakoaren nortasunean eta gizarte harremanetan.

Enpleguaren bidez lortzen den segurtasunak efektu argiak ditu gizabanakoen bizitzan, eta kasu gehienetan, etorkizun pertsonal, familiar eta soziala zehazten eta moldatzen duen euskarri nagusia da. Lan ibilbidea soldata baxu batekin hasten da, eta gehienetan, prestakuntza handirik behar izaten ez den lan batean; denborarekin, ordea, hobetzen joaten da (Fitoussi, 1996). Lan hobekuntza hori bizi-hobekuntza eta familia hobekuntza batekin lotuta gertatzen da. «Peoi edo ikastun gisa hasten zara, eta fabrikako sektore batean, sail arduradun izatera iristen zara. Era berean, etxe zikin eta zahar batean hasten zara, eta etxetresna elektrikoek eta askotariko erosotasunez hornitutako etxe batean amaitzen duzu (Moreno, 2003: 205). Ondorioz, enpleguak gure bizi-narratiba mugatzen du, eta kasu gehienetan, izaera lineala, mailakatua, jarraitua eta goranzkoa du.

Horregatik, testuinguru hori *30 urte loriotsuak* bezala zehaztu da (1945-1975). Izan ere, enpleguaren eta herritartasunaren arteko harremana perfektua da, eta horrek Ongizate Estatuaren garapena eta atzeraelikatzea ahalbidetzen du. Benetako *zirkulu bertutetsua* sortzen da. Etorkizuna segida aurreragarri eta logikoa bat bezala agertzen da, eta betiereko enplegua prestazio batzuekin eta gizarte eskubide egokiekin lotuta dago. Horrek egonkortasunean oinarritutako gizarte esparru bat osatzen du; biharko eguna gaurkoa eta atzokoa baino hobea izango da, eta aurrerapena ideia motorra da.

3.2. Egungo enpleguaren gizarte araua: gizartea eta bizitza ezegonkortzea

Gaur egun, aurreko atalean adierazitako elementu gehienek aldaketa handiak izan dituzte, eta gaur egungo enpleguaren gizarte araua aurreko enplegu fordiarraren irudi desitxuratu bat dela esan daiteke; batik batik, lan merkatuan parte hartzen duten gazteenentzat. Segurtasunean eta ziurtasunean oinarritutako eredutik *eza* izenondoa daramaten hitzekin defini daitekeen eredura pasatu gara: egonkortasunik *eza*, segurtasunik *eza* eta ziurtasunik *eza*. Eboluzio hori, batik batik, lanaren behin-behinekotasunagatik eta ezegonkortasunagatik gertatu da.

Gaur egun, edukia eta bizi-faseen arteko lotura nabarmen aldatu da. Beste garai batzuekin alderatuta, prestakuntza denboraldia luzatu egin da, eta geroz eta ohikoagoa da lan merkatura 25-30 urterekin sartzea. Era berean, lan merkatutik irteteko adina aurreratu egiten da; kasu askotan 65 urte bete baino lehenago iriteten dira. Beraz, nola goitik, hala behetik, lan fasea laburtu egin da, gure bizitzaren % 20 izan arte. Aurreko garaietan, ordea, fase horrek bizitzaren % 50 irauten zuen (Anton, 2000: 204). Faseen arteko mugek aldaketa garrantzitsuak jasan dituzte, eta batzuen eta besteen arteko mugak geroz eta lausoagoak eta porotsuagoak dira. Hala, geroz eta gehiago dira lan merkatuan sartu arren, berriro ikastera edo prestatzera behartuta daudenak; are gehiago, gaur egungo krisi ekonomikorekin, merkatuak prestakuntza gutxiko langileak kanpora-

tzen dituelako. Testuinguru horretan, geroz eta pertsona gehiago dira lan merkatuan sartze eta irteteak dituztenak, eta enplegu eta prestakuntza denboraldiak tartekatzen dituztenak. Hori erabat pentsaezina zen duela 30 edo 40 urte, eta, gaur egun, berriz, geroz eta ohikoagoa da. Egoera paradoxikoak gertatzen dira; esaterako, 40 urte ingururekin 20 urteko pertsona baten bizi-eskemari jarraitzen diotenak, edo alderantziz, 40 urterekin zaharregiak direnak eta lan merkatuaren garai berrietara egokitzeko enplegarritasuna ez dutenak. Bestela esanda, lan merkatuan *40 urteko gazteak* eta *40 urteko zaharrak* aurki ditzakegu.

Lan fasearen murriztapena (bai urte kopuruari dagokionez, eta bai ordu kopuruari dagokionez) dela eta, enpleguak herritartasun osoa eta egokia bermatzen zuten elementu ugari galdu ditu. Hala, kotizazio denboraldia murriztearen ondorioz, eta kotizazio egokia bermatzen ez duten kontratuen agerpenak maiz eragin ohi dituen zailtasunen ondorioz, kotizazioen mendeko gizarte prestazioen estaldura eta kalitatea txikiagotu egin dira (langabezia, gaixotasuna, minusbaliotasuna, zahartzea). Langabeziarena bezalako prestazioen kasuan, geroz eta ohikoagoa da behin-behineko kontratuak edo arduraldi partzialeko kontratuak dituzten pertsonen prestazioa lortzeko ezarritako minimoa kotizatu ahal ez izatea. Era berean, eta oraindik modu argi eta nabarmenean ez bada ere, pentsatzekoa da etorkizunean geroz eta pertsona gehiago izango direla gehienezko pentsioa lortzeko beharrezko denbora kotizatu ahal izango ez dutenak. Hau da, gutxieneko denbora bakarrik kotizatu ahalko dute, kontribuzio izaerako prestazioa bermatzeko. Prestazio hori jasotzeko denbora, gaur egun, 15 urtekoa da, baina arlo honetan egiten ari diren eztabaiden ostean, nola gelditzen den ikusi beharko da. Izan ere, kasuren batean, kontribuzio izaerako pentsioa jasotzeko gutxieneko kotizazio denbora 20 urtera igotzea proposatu da.

Hein txikiagoan bada ere, enpleguaren pisua murrizteak eta enpleguaren ezaugarrietan gertatuko aldaketek eragina dute, baita ere, sozializazioan eta gizarte harremanetan, eta gizabanakoaren nortasunean eta nortasun kolektiboan. Askotan, eskuratutako enpleguak ez du jasotako prestakuntzarekin lotura handirik, eta, aldi berean, gizabanakoak izaten dituen enpleguak ugariak eta askotarikoak izaten dira. Lan zatiketa hori duela urte batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan egin zen ikerketa batean islatzen da. Ikerketa horretan, lan ezegonkortasunari eta gazteriaren bizi-ibilbideei buruzko bizi-esperientziak jaso ziren. Horietako batean, ekonomia zientzietan lizentziaduna den batek ikasketak amaitu ostean hainbat enplegu izan dituela, eta, besteak beste, zerbitzaria, kartutxo birziklagarrien denda bateko ordezkaria, argitaletxe bateko komertziala, aluminiozko tutuen enpresa bateko langilea eta eraikuntzako peoia izan dela kontatzen du. Beste kasu batean, lanbide heziketa eta gizarte hezkuntza ikasi duen 29 urteko mutil batek propaganda banatzailea, zaharren egoitza bateko osasun laguntzailea, tren txartelen kobratzailea, arropa denda bateko saltzailea, eskola partikularretako irakaslea eta hainbat enpresatan administrari laguntzailea izan dela kontatzen du. Horrez gain, aldi baterako laneko enpresen bidez, hainbat enplegu izan ditu; baita egun bateko enpleguak ere (Alonso de Armiño, Gómez, Moreno eta Zubero, 2002). Horrelako testuinguru batean, enpleguen eta prestakuntzaren arteko lotura eta enpleguen arteko lotura mugatua dela edo loturarik ez dagoela kontuan hartuta, oso zaila da enpleguan oinarritutako banakako nortasun egonkor eta sendo bat eraikitzea. Duela hamarkada batzuk, argi zegoen «zu zer zara» galdetuz gero lanpostuarekin lotutako erantzuna emango zela. Gaur egungo lan esparruan, ordea, galdera konplexuagoa da, pertsona batek urtebetean hiru edo lau enplegu desberdin eduki ditzakeelako, eta, beharbada, enplegu horiek euren artean inolako loturarik ez dutelako.

Aldaketa horiek guztiek enpleguaren gizarte arauan duten eraginaren ondorioz, lan merkatua askoz malguagoa eta ezegonkorragoa da, eta Espainiako merkatuaren kasuan, behin-behinekotasuna gako bilakatu da ezegonkortasuna ulertzeko. Biztanleria Aktiboaren Inkestan jasotako datuen arabera, azken 20 urteotan, behin-behinekotasun tasa soldatapeko guztien herena izatera pasatu da. Europar Batasuneko beste herrialde batzuekin alderatuta, eta Europako batez bestekoarekin alderatuta, oso zifra altua da. BAIren azkeneko da-

tuen arabera (2010eko hirugarren hiruhilekoa), behin-behinekotasun tasa % 25,56koa da; aurreko urteekiko txikiagoa, eta 1998koarekiko antzekoa (EGK, 2009). Murrizketa hori, ordea, ez da gertatu kontratazioan behin-behinekotasuna murriztu delako, krisi ekonomikoaren ondorioz baizik. Izan ere, krisiak kalte egin die lanpostu ezegonkorrei eta behin-behineko lanei. Gainera, kontuan hartu behar da kolektibo batzuek batez besteko behin-behinekotasun tasa baino handiagoa jasaten dutela; hori da, hain zuzen, gazteriaren kasua, % 50,8ko behin-behinekotasuna jasaten baitu. Emakumeen (Enpleguaren Gazte Behatokia, 2009) eta etorkinen kasuan, behin-behinekotasun tasa are handiagoa da. Behin-behinekotasun horrez gain, txandaketa asko egiten dira, eta, noski, lanpostuan egonkortasuna txikia da. Adibide bat jartzearren, Euskal Herriko kontratuen batez besteko iraupena 80 eguneko izan zen 2007an (EGK, 2008: 315). Beste datu deigarri bat Boltanski eta Chiapello-k (2002) eskainitakoa da; Frantziako hiri bateko merkataritza gunen handi batean, lan txandakatzea % 100ekoa izan zen, urtebetean, kalifikazio gabeko langileen kasuan.

Segurtasunean eta egonkortasunean oinarritutako enplegu fordiarra desagertu egin da langile gehienentzat, eta enpleguaren eskema lineal, goranzko eta jarraituaren ordeztu eta bizi-narratibaren ordeztu, enpleguaren hauskortasuna eta ahultasuna eta lan eta bizi-etendurak nagusitzen dira. Izan ere, aurreko eskema apurtu da; ekonomia aurrerapenak eta bizi-aurrerapenak ez dute izaera metatzailea eta lineala, bizi-ibilbidean geroz eta etendura eta gorabehera gehiago gertatzen dira, eta geroz eta antza gehiago du *sigi-saga* batena. Adibide zehatz bat aipatzearren, jada ez da segurua lan baldintza onenak lan ibilbidearen amaieran lortzea, eta kasu askotan, etorkizuna oraina baino okerragoa izan daiteke. Testuinguru horretan, etorkizuna aurreikustea ez da erraza, eta etorkizuneko itxaropenek iraganeko basamentu handia galdu dute: *bihar gaur baino hobea izango da*. Richard Sennet-ek azpimarratu bezala «ezegonkortasun orokortuak gizarte lotura iraunkorrak sortzeko aukera guztiak eragozten ditu» (Sennet, 2000: 23). Hain zuzen, *etengabe behin-behinekoa* den egoera horretan (Carnoy, 2001), herritartasunaren, enpleguaren eta Ongizate Estatuaren arteko erlazioan, krisia sartzen da, enpleguak jada ez duelako Ongizate Estatuaren funtzionamendu egokia bermatzen (kalitatezko enplegua), eta herritarrei ez zaielako gizarte eskubide egokiez gozatzeko aukera bermatzen.

4. Herritartasunaren gainbehera eta gizarte zaugarritasunaren goraldia

Enpleguaren eta herritartasunaren arteko krisia eta *senar-emazte* horiek gaur egun erakusten dituzten ahultasunak direla eta, gizarte sektore askotan, herritarren gizarte eskubideak urratzen dira. Formalki herritar izaten jarraitzen badute ere, praktikan eskubide horiez gozatzeko zailtasun handiak dituzte. Fenomeno horren ondorioz, geroz eta nabarmenagoa da herritartasunaren barruan zatiketa bat gertatu dela, eta geroz eta ohikoagoa dela herritarren artean maila desberdinak egotea. Pertsona batzuek oraindik herritartasun osoaz gozaten badute ere, geroz eta kolektibo eta gizabanako gehiagok dute herritartasun ahul baterako sarbidea; Boaventura de Sousa Santos-en hitzetan (1999), *lunpen herritartasun* baterako sarbidea. Ralph Dahrendorf zuhurrak gizarte errealitate berri horren definizio on bat eskaintzen digu: «Azpiklasea gizarteko erabateko herritarrek behar ez dituztenek osatzen dute: ez dira herritarrak, ez dira jada herritarrak, ez dira jada erabateko herritarrak, ez dira oraindik herritarrak» (Dahrendorf, 1994: 13).

Herritartasun ahul horiek mendebaldeko gizartearen gizarte errealitatearen analisisan geroz eta garrantzi handiagoa duen kontzeptu batekin erabat lotuta daude: gizarte zaugarritasunarekin (Sáez, Pinazo eta Sánchez, 2008). Gizarte zaugarritasunaren kontzeptuak, hein handi batean, Robert Castel soziologo frantzesari zor dio bere jatorria, 80eko hamarkada amaieran kontzeptu hori erabili zuelako integrazioaren eta gizarte

bazterketaren arteko gunea aipatzeko (Castel, 1990; 1992; 2004). Gizarte zaugarritasunaren definizio gisa, honako hau erabil dezakegu: «Integratu samar dauden geroz eta pertsona gehiagok gizarte ezegonkortasuneko egoeretan eta segurtasun sozialik gabeko egoeretan jasaten duten prozesua da. Kasu gehienetan, ezin dezakete bizitza oso bat eduki» (Moreno, 2010: 173).

Kontzeptu hori, gehienetan, termino operatibo gisa agertzen ez denez, zaugarritasun inguruak kuantitatiboki mugatzea zaila da, baina pobrezia eta integrazioaren gainean egindako ikerketak kontuan hartuta, entsegu edo hurbilketa bat egin daiteke. Modu honetan, inkestak eta ikerketak elkartzen baditugu, eta pobreziazat edo neurrizko pobreziazat har dezakeguna gizarte zaugarritasunaren baliokide izan baliteke (beharbada, hipotesi apur bat murriztailea), herritarren % 20 egoera horretan egongo litzateke Espainian (Caixa Catalunya, 2008; Foessa, 2008; Gurutze Gorria, 2009; Eusko Jaurlaritza, 2009). Datuak krisi ekonomikoaren aurrekoak dira, eta, beraz, datu horrek gora egin duela pentsa daiteke. Izan ere, krisiaren inpaktuaren gainean dauden datu urrien arabera, zaugarritasuna nabarmen areagotu da. Miguel Laparra-ren datuei jarraiki, ezegonkortasun egoeran zeuden pertsonak % 34,9 ziren 2007an, eta % 46,3 2009an (Laparra, 2010). Laparrak, ordea, kontzeptuaren definizio zabalagoa du, eta, beraz, aurrez aipatutako gizarte zaugarritasunarekiko portzentaje handiagoak ditu.

Zaugarritasunaren barruan, ezegonkortasun handiagoa jasaten duten hainbat kolektibo nabarmen daitezke; esaterako, gazteria, emakumeak, etorkinak, adingabeak, adinekoak eta *working poors* delakoak. Azkeneko kolektibo horrek aparteko aipamena merezi du, bere ezaugarriengatik, eta lan honen ikergaiarekiko duen erlazioagatik. *Working poors* edo langile behartsuak enplegua eduki arren pobreziazatik irtetea lortzen ez dutenak dira. Duela urte batzuk, errealitate hori pentsaezina zen Europan, eta, batik bat, Estatu Batuetan gertatzen zen, eta hein txikiago batean, Erresuma Batuan. Lan ezegonkortasunaren gorakadaren eta enpleguaren eta herritartasunaren banantzearen ondorioz, geroz eta gehiago dira langile eta pobreak. Labur esanda, *working poors* lan ezegonkortasun eta gizarte zaugarritasun gehien jasaten duen kolektiboetako bat da; eta beste maila batean, aztertzen ari garen herritartasunaren eta enpleguaren arteko loturaren gainbeheraren eredu paradigmatico da.

5. Zein da herritartasunaren eta Ongizate Estatuaren etorkizuna? Aukerak eta proposamenak

Atal honetan, herritartasunaren, enpleguaren eta Ongizate Estatuaren arteko harremanaren gaineko proposamen eta aukera posibleen sailkapen bat egingo da. Hain zuzen, hiru aukera aurkeztuko dira. Lehenengoak herritartasunaren eta enpleguaren arteko erlazioa mantentzea proposatzen du. Bigarrenak erlazio horren berrirakurketa posible bat planteatzen du; alegia, mantentzea, baina gaur egungo egoerara egokitzeko aldaketak eginda. Eta azkenik, hirugarrenak lotura hori erabat berreraikitzea proposatzen du; herritartasuna eta enplegua erabat bereiztea defendatzen du.

5.1. Egungo egoera mantentzea

Atal honen izenburuak adierazten duen bezala, ikuspegi honek (azken hamarkada hauetan egin den bezala) herritartasunaren eta enpleguaren arteko lotura mantentzeko beharra defendatzen du. Horren barruan, bi ikuspegi bereiz daitezke; premisa eta postulatu desberdinetatik abiatuta, eta batzuk aurkakoak ere izan daitez-

keela kontuan hartuta, gutxi gorabehera antzeko ondorioetara iristen dira, erlazioa mantentzeko dagokionez. Alde batetik premisa neoliberalak daude, eta bestetik, aurrerakoitasunetik eta korrante ezkertiarretatik hurbilago dauden premisak.

5.1.1. *Diskurtso neoliberal instituzionala*

Diskurtso hau erakunde publikoek eta erakunde politiko jakin batzuek defendatzen dute; esaterako, Europar Batasunak, gobernu nazional eta autonomiko askok eta udaletxe askok. Ikuspegi horretan, enpleguari dagokionez, hainbat kontzeptu nabarmentzen dira; besteak beste, lehiakortasuna, lan gaitasunak eta enplegu politika aktiboak (ELGA, 1993; Europako Batzordea, 2006). Baina horien gainean, ideia bat gailentzen da: enplegarritasuna; alegia, prestakuntzaren bidez, kalitatezko enplegu egoki bat lortzeko modua. Gaur egun, enpleguari dagokionez, enplegarritasuna ideia motorretako bat da Europar Batasunean (Brunet eta Pastor, 2003). Gizabanakoak lan merkatuaren beharretara egokitzeko duen gaitasuna nabarmentzen du. Hala, pertsona bakoitza lan merkatuaren ezaugarrietara egokitzeko duen erantzukizuna nabarmentzen da, eta banakako soluzioaren alde egiten da, eta ez soluzio kolektiboaren edo soluzio egitura-tuaren alde.

Azkeneko ideia hori da, hain zuzen, kritikatuenetako bat ikuspegi honetan. Egile batzuen aburuz, egitura eta gizarte alderdi batzuen izatea ahazten du, eta alderdi horiek botere erlazioak eta desorekak baldintzatzen dituzte lan merkatuan. Ildo horretan, gizabanakoaren gaitasun eta trebetasunek eragina dute enplegu baten lorpenean eta gizabanakoaren enplegarritasunean, baina badira eragiten duten beste elementu batzuk ere; esaterako, unean uneko egoera ekonomikoa eta erabaki publikoak. Oro har, enplegu programen ebaluazioek zera azpimarratzen dute, gizarte eta ekonomia testuingurua erabakigarri garrantzitsu bat dela programa horien arrakastan, eta enplegarritasunaren eta egindako gastuaren arrakastaren gainean egindako balantzearen arabera, oso zuhurra izan behar da (De Graaf, Frericks eta Maier, 2003; Daguerre eta Etherington, 2009). Gainera, ezin daiteke ahaztu sarritan neurri baten arrakasta ebaluatzeko irizpide bakarra kuantitatiboa dela, hau da, sortutako lanpostu kopurua. Baina kasu askotan, ez da elementu kualitatiboa aztertzen, eta, ondorioz, ez dira kontuan hartzen ez sortutako enpleguaren kalitatea, ez enpleguaren gaitasun integratzailea. Enplegarritasuna sustatzen duten politiken ebaluazio on eta eraginkor batek bi aldeak konbinatu beharko lituzke.

5.1.2. *Ezker langilearen diskurtsoa*

Nabardurekin, eta artikulua honetan egiten den sailkapenak sarrera izaera duela kontuan hartuta, enpleguaren eta herritartasunaren arteko erlazioa mantentzeko aukeraren barruan, korrante ideologiko ezkertiarretatik edaten duen ikuspegi bat dago. Ikuspegi sindikal gehienekin, alderdi ezkertiar batzuekin eta zentro ezkerreko alderdi batzuekin eta iritzi publikoaren parte garrantzitsu batekin bat egiten du. Kasu honetan, ideia nagusia zera da, eraso neoliberalari aurre egiteko lan arloan eskuratutako eskubideak defendatu behar direla. Horregatik, ikuspegi kontserbadore batez ere hitz egin daiteke. Defentsarako sortua da, eta enplegu fordiarren ezaugarriak mantentzea proposatzen du.

Arlo honetan, corpus teorikorik zehaztuta ez badago ere, praktikan, logika eta hurbilketa horretatik edaten duten postulatu eta tesi ugari agertzen dira; batik, bat, enpleguaren zentralitatearen egungo egoe-

ran, gizarte kontratu modernoaren ardatz gisa, eta langile mugimendua, eta, oro har, lan munduan uler-
tzeko funtsezko elementu gisa (Gorz, 1986; Aznar, 1994; Lacalle, 2009). Ikuspegi horretan, eta jarrera
kontserbadore batez hitz egin bada ere, helburua enplegu fordiarraren arauaren ezaugarri asko soldatapeko
herritarrengana zabaltzea da, berriro herritartasunaren eta enpleguaren artean zegoen *zirkulu bertutetsua*
lortzeko.

Hala, bitxia da bai diskurtso honek eta bai diskurtso neoliberalak, postulatu erabat desberdinetatik
abiatuta, bat egiten dutela elementu eta ondorio batzuetan. Adibide bat jartzearen, bi diskurtsoetan,
etengabe eskatzen da enplegu betea gizarte integrazio handiago bat lortzeko, eta diskurtso hau antolatzen
duen elementuetako bat da. Hala, 2008an egindako XVI. Biltzar Nazionalan, Alderdi Popularrak *Gizar-
te politika hobea lortzeko enplegu beterantz (Hacia el pleno empleo como la mejor política social)* izeneko atal
bat aurkeztu zuen bere txosten ekonomikoan. Aldi berean, diskurtso sindikalen barruan, ohikoa da enple-
gu betea helburutzat eta eginkizun politiko eta sindikala zuzentzeko elementutzat azpimarratzea. Bi kasue-
tan, ideiarekin eduki alda daiteke, baina bi hurbilketak egungo testuinguruaren azterketa berdinetik (edo
antzekotik) abiatzen dira; hau da, enpleguaren bidez (enplegu betea), herritar gehienek integrazioa lor-
dutekeela.

Asko dira, ordea, gaur egun enplegu beteaz hitz egitea ekarpen handia ez dela dioten egileak (Schmid,
2002). Enplegu fordiarraren arauaren garaian, enplegu betearekin (ia modu automatikoan) gizarte kohesio
handiagoa lortzen zen, baita lan baldintza egonkor eta duinak ere. Hala, «enplegu gehiagorekin integrazio
gehiago, eta alderantziz» ekuazioa zorrozki betetzen zen Europako Ongizate Estatu gehienetan. Lan harreman-
etan gertatu diren aldaketek eta beste aldagai batzuek (esaterako, sortutako enplegu kopurua) alderdi kua-
litatiboak ere kontuan hartzea eskatzen dute. Batik bat, sortutako enpleguaren kalitateari dagokionez. Izan
ere, gaur egun, enplegu beteak ez du *per se* gizarte kohesio orokortua bermatzen, eta itxuraz ona den datu ba-
ten atzean *working poorsenak* bezalako errealitateak ezkuta daitezke. Imanol Zubero-ren hitzetan, esaterako,
gaur egun, enplegu beteaz baino gehiago, *azpienplegu beteaz* hitz egin beharko litzateke (Zubero, 2000). Bes-
tela esanda, enplegu betearen kontzeptuak bere kontinentea mantentzen jarraitzen du nominalki, baina bere
edukia nabarmen aldatu da. Beck-en arabera (2002), *zombie kontzeptuaren* antza du, eta Guiddén-sen ustez
(2000), berriz, *maskor erakunde* batena.

5.2. Enpleguaren eta herritartasunaren arteko erlazioa berritzea

Ikuspegi honek egungo enpleguak herritartasun osoa bermatzeko dituen gabeziak egiaztatzen ditu, eta,
horregatik, enpleguaren eginkizuna funtzio honetara egokitze eta birplanteatzeko beharra azpimarratzen
du. Enpleguak ekonomia eta lan merkatuaren ezaugarri berrietara egokitze beharra du. Ikuspegi horren
barruan, malgusegurtasunaren kontzeptuak egiten duen ekarpena nabarmendu behar da. Izenak adierazten
duen bezala, lan malgutasuna eta gizarte segurtasuna uztartzeko eta bateragarri egiteko xedea du. Horren ara-
bera, behin-behinekotasunak eta lan malgutasunak ez dute zertan lan ezegonkortasun eta bizi-ezegonkorta-
sun handiagoa eragin behar. Kontzeptu horrek historikoki malgutasunaren eta segurtasunaren artean egon
den dialektika hautsi nahi du, eta lan harremanen barruan, bi kontzeptuen artean zirkulu bertutetsu bat sor-
tzearen alde egiten du.

Europar Batasunean, malgusegurtasuna geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari da. 2006ko azaroan,
adibidez, malgusegurtasunari buruzko Liburu Berdea aurkeztu zen, eta, ondoren, 2007an, Europako Batzor-

deak eredu horren aldeko apustua egin zuen, txosten zehatz baten bidez. Era berean, Lisboako Itunak honako hau jaso zuen 2007ko abenduan: «Malgusegurtasunak Europako Enplegu Estrategia indartuko du, enplegu gehiago eta hobeak sortuko ditu, eta, aldi berean, lan merkatua modernizatu eta kalitatezko enplegua sustatuko du; betiere, egokigarritasuna, enplegua eta gizarte kohesioa hobetzen dituzten malgutasun eta segurtasun testuinguru batean» (Europako Kontseilua, 2007). Proposamen horrek gure mugak gainditu ditu, eta adibide bat jartzearren, 2008ko Kongresu Federalean, PSOE eredu honen alde agertu zen. Kasu gehienguan, eta are gehiago gure inguruan, eztabaidak konnotazio teoriko eta arauemaile argiak baditu ere, praktikan, malgusegurtasunari buruzko eztabaida hobeto aztertzeko balio dezaketen esperientzia batzuk nabarmendu daitezke. Ia beti azaltzen dira Danimarkak eta Holandak garatutako politikak (Polus, 2005; Klammer, 2007), nahiz eta beren artean desberdintasunak dituzten (Keune, 2008).

Holandaren kasuan, 1999an, Malgutasun eta Segurtasun Legea onartu zuen, hainbat enplegu malgu mota sustatzeko. Hala ere, horrek arduraldi partzialeko enpleguaren garapena ekarri du, batik bat; gaur egun, enplegu osoaren % 40 da. Batez besteko hori Europako eta Espainiako batez bestekoen oso gainetik dago. Holandaren kasuan, eta Espainian ez bezala, arduraldi partzialeko lan bat edukitzeak ez du gizarte eta lan eskubideen murrizketa eragiten, eskubide horiek arduraldi osoko lana duen pertsona baten eskubideen antzekoak direlako (Wilthagen eta Tros, 2004). Estaldura bera dute prestazioetarako eta eskubideetarako: oporrak, pentsioetarako kotizazioa, langabezia subsidioak eta amatasun bajak (Wilthagen eta Rogowski, 2004). 2006az geroztik, malgusegurtasunaren ideian, soldataren parte bat gordetzeko aukera dago (urtean, gehienez, % 12), ondoren pertsonak dirua edota denbora behar duenean, diru hori erabili ahal dezan. Baldintza horietan, sei urtez kopuru maximoa aurrezteak urtebeteko eszedentzia hartzeko aukera ematen du (Klammer, 2007).

Danimarkan ez zaio bide horri jarraitu, eta beste eredu bat hautatu dute; hain zuzen, lan mugimendua (batik bat, enplegu politika aktibo eta eraginkor batzuen bidez), gutxieneko lan erregulazioa eta gizarte prestazioen estaldura zabala uztartuta, *urrezko triangeluaren* eredia sortu dute (Madsen, 2006). Bitarteko bide bat da, edo malgutasunaren britainiar ereduaren eta gizarte babesaren eskandinaviar ereduaren arteko hirugarren bide bat (Zubero, 2007). Eredu honen ardatzetako bat lanpostuetako txandaketek eta mugikortasunak osatzen dute. Horren bidez, eszedentzia urteetarako prestazio egokiak lortzen dira. Horrez gain, enplegua duten pertsonak prestatzeko eta behar berrietara egokitzeko aukera dute, eta langabezia dauden pertsonak enplegu bat lortzeko aukera dute. Eredu horretan, kaleratzeak ez du ia zigorrik, gizarte estaldura handiak daudelako, eta langabezia prestazioak lau urtez jasotzen dira. Denbora horretan, azkeneko soldataren % 90 kobratzen da.

Artikulu honen izaera eta tamaina kontuan hartuta, ezin dezakegu bi eredu horietan gehiago sakondu. Edonola ere, interesgarria litzateke beste eremu eta herrialde batzuetara estrapolatu ahal liratekeen ikustea. Europar Batasunaren kasuan, adibidez, Danimarka nabarmentzen da eredu gisa. Lehenik eta behin, Danimarkak 5,5 milioi biztanle dituela aipatu behar da; hau da, Europako beste herrialde batzuek baino gutxiago. Alemaniak 82 milioi biztanle ditu, Frantziak 63 milioi biztanle eta Espainiak 46,6 milioi biztanle. Bestalde, Danimarkako gizarte politiken eta presio fiskalen gastu publikoa oso desberdina da; Europako beste herrialde batzuetakoa baino dezente handiagoa da. Adibide bat aipatzearren, Danimarkako gizarte gastua bere BPGd-ren % 30,1 zen 2005ean; Espainian, berriz, % 20,9 (Petrasova, 2008: 1). Horregatik guztiagatik, korapilatsua da, hasiera batean behintzat, Danimarkako eredia automatikoki beste herrialde batzuetara estrapolatzea. Mediterraneoko herrialdeetara estrapolatzeak, adibidez, arrakasta izan dezake (Algan eta Cahuc, 2005), gizarte estaldura oso ahula delako (segurtasunaren parte kontzeptuaren barruan).

Aurrekoarekin lotuta, malgusegurtasunari buruzko eztabaidan, funtsezkoa da eredia zenbateraino *malgua* eta zenbateraino *segurua* den mugatzea. Aipatu bezala, segurtasunaren *hanka* indartzen ez bada, argi dago eredia *herren* jaioko dela, eta egungo lan merkatua malgutzen eta ezegonkortzen jarraituko duela. Hori da, hain zuzen, eredu honen aurka dauden pertsonen gehien kritikatzeko dutena; horien artean, Europako eragile sindikal gehienak nabarmentzen dira. Itxuraz diskurtso erakargarri eta interesgarria denaren atzean interes ideologikoak daudela eta horiek lan ezegonkortasun handiagoa eragiten dutela azpimarratzen dute. Hau ez da txantxetako kontua, Europar Batasuna osatzen duten herrialdeen arteko gizarte, politika, ekonomia eta kultura desberdintasunak oso handiak direlako.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da malgusegurtasunaren gaineko eztabaidak zuzen mugatzea, eta zertaz hitz egiten ari garen garbi uztea. Hala, eztabaida berrikuntzaren eta anbiguotasunaren artean kulunkatzea saihestuko dugu (Keune, 2008). Aurretiazko horiek kontuan hartuz gero, beharbada malgusegurtasunari buruzko eztabaida erakargarria izango da, eta egungo eztabaidari freskotasuna emango dio, garai berrietara egokitzeko. Ildo horretan, itxuraz, herritar gehienentzat ez da posible izango bizitza osorako enplegu bat edukitzea. Ba horrek ezinbestean gizarte ezegonkortasun handiagoa eragingo al du? Malgusegurtasunaren diskurtso eta praktika egokiak lantzen badira, baliteke eredu horrek galdera horri eta beste hainbati erantzun ahal izatea. Giddens-ek aipatu bezala, «langilea babestu behar da, ez lanpostua» (Giddens, 2006: 17).

5.3. Erlazioa haustea

Hirugarren aukera hau, beharbada, *hausleena* eta berritzaileena da, herritartasunari, enpleguari eta Ongizate Estatuari buruzko eztabaidan. Izan ere, tradizionalki enpleguaren eta herritartasunaren artean egon den loturaren erabateko bereizketa planteatzen du. Eta ikuspegi horren barruan, zalantzarik gabe, Herritarren Oinarrizko Errentaren (HOE) proposamena nabarmendu behar dugu. Hirugarren postulatu honen barruan azken urteotan indar gehien hartu duen ideia da. Gaur egun ezagutzen dugun HOE 70eko eta 80ko hamarkadetan sortu zen, Ongizate Estatuaren eta enplegu fordarraren ereduaren krisiaren ondorioz Hasiera batean ideia arlo akademikoan oinarritu bazen ere, apurka, gizarte eta politika arloetan sartu da, nahiz eta oraindik iritzi publikoarentzat, oro har, ideia ez den oraindik oso ezaguna.

HOEren definizioari dagokionez, Oinarrizko Errenta Sareak landutako definizioaren arabera, HOE «Estatuak, herritarren eskubide gisa, eskubide osoak dituztenei eta gizartean bizi direnei ordaintzen dien diru saria da, lan egiteagatik diru saririk jaso nahi ez duten kontuan hartu gabe, aberatsak edo behartsuak diren kontuan hartu gabe, edo bestela esanda, errenta iturri posibleak kontuan hartu gabe eta norekin bizi diren kontuan hartu gabe» (Oinarrizko Errenta Sarea, 2001). Laburrago esanda, HOE herritarrei eskaintzen zaien diru saria da, baldintzarik gabekoa eta unibertuala. Ez dira kontuan hartzen diru sarrerak, enplegua edukitzea eta etxe berean bizi den pertsona kopurua.

Definizio hau irakurri ostean, normala da ideia honi buruzko zalantza eta kritikak sortzea, gure gizarteetan finkatze historiko garrantzitsua duten alderdi batzuk zalantzan jartzen dituelako. Ondoren, kritika nagusien errepeaso labur bat egingo da, baina lan honen ezaugarriengatik eta ikerketa gaiagatik, horietan sakondu gabe.¹ Gauza *zailenetako* bat enplegurik gabe (eta eduki nahi gabe) dirua jasotzea izaten da. Ideia hori oso

¹ HOEri buruzko kritika nagusietan sakontzeko: MORENO, Gorka (2008): *Crisis y reconstrucción del Estado del Bienestar. Las posibilidades de la Renta Básica de Ciudadanía*, Eusko Jauriaritza, Gasteiz.

finkatuta dago gure gizarteetan, eta aurkako ikuspegiaren arabera, gizabanakoak gizartearekiko duen elkarrekotasunarekin eta erantzukizunarekin hausten du (Galston, 2000; Anderson, 2000). Kritika horri begira, HOEren defendatzaileek enplegua zer den eta lana zer den bereizi behar dela diote; lehenengoa bigarrenaren barruan dagoen modalitate bat da. Enpleguarekin batera, ordea, etxeko lana edo lan boluntarioa egon daitezke, eta biek gizarte erabilgarritasuna dute. HOEz hitz egitean egin ohi den beste kritika bat zera da, herritar guztiek jaso ahal izatea da, irabaziak eta gizartean dauden desberdintasun ekonomikoak kontuan hartu gabe. Definizioan bertan azaldu bezala, HOEk izaera unibertsala du, eta ikuspuntu horretatik logikoa da guztiek jasotzea, osasuna eta hezkuntza bezala. Arlo horietan, zerbitzuen hornikuntza ez da errenta mailaren arabera egiten. HOEren kasuan, osasunarekin eta hezkuntzarekin gertatzen den bezala, erosteko ahalmen handiagoko pertsonak prestazioaz gozatzeko aukera dute, baina, ondoren, zerga sistemaren bidez (mailakatua bada), errenta txikiagokoek baino gehiago ordainduko dute. Ildo horretan, garrantzitsuena azkeneko saldoa da, eta ez HOE jasotzea ala ez jasotzea. Horregatik, HOE defendatzen duten pertsonen arabera, aberatsenei ere ematea ez da justizia edo injustizia kontua, betiere, eredu fiskala mailakatua bada, eta pertsona horiek zergak behar bezala ordaintzen badituzte. Era berean, unibertsaltasuna proposamenaren hedapena eta onarpena ahalbidetzen eta errazten duen elementu bat da, batik bat, erdi mailako klaseen kasuan. Hala erakusten dute osasun publikoaren eta hezkuntza publikoren gainean egindako iritzi ikerketek. Izan ere, erdi mailako klaseak zerbitzu eta prestazio horiez gozaten du; ez du, ordea, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen zuzendutako beste politikarik nahi. HOEren gaineko eztabaidan kritikatu ohi den beste alde bat bideragarritasuna da (zentzu zabal batean). Bai defendatzaileentzako eta bai aurka daudenentzako, *gordiar korapilo* bat da. Bideragarritasunaren barruan, bereizketa bat egin beharko genuke: politikoa eta soziala batetik, eta teknikoa eta ekonomikoa, bestetik (Moreno, 2008b).

Politika eta gizarte bideragarritasunari dagokionez, HOEk, beste edozein berritze proposamen edo gizarte berrikuntzak bezala, iritzi publikoaren eta klase politikoaren babes handia behar du. Ildo horretan, HOEren defendatzaileek argi eduki beharko lukete enplegua eskuratzeko betebeharririk gabe dirua jasotzea bezalako ideia bat ez dutela ongi ikusten Europako gizarte gehienek (Andersson eta Kangas, 2002; Liebig eta Mau, 2002). Baietzapen horrek gogoeta lasai bat eragin behar du: *produktua* hobeto nola saldu eta HOE bezalako proposamen baten apologia atsegin bat nola egin. Eta ideiak ahal bezain besteko onarpena edukitzea nahi bada, kontuan hartu beharko dira errealismo politikoa eta pragmatismoa (Bellvís, 2005).

Bigarren bideragarritasunari dagokionez, hau da, ekonomiko eta teknikoari dagokionez, ezinbestekoa da erantzun egoki, errealista eta sinesgarri bat ematea. Modu horretan, HOEren proposamen orok bideragarritasunean oinarritu behar du, eta ezin daiteke enuntziatu maximalistetatik abiatu; ezin dezake, esaterako, denbora eta espazio jakin batean har ezin daitekeen gastu bat planteatu (Iglesias, 2002). Are gutxiago, egungo krisi ekonomikoan. Ildo horretan, gaur egun, badira HOE-erako aplikazio praktikoko proposamenak; gastu publiko osagarri handirik eragin gabe HOE martxan jartzea planteatzen dute. Gehienek murrizketa mailakatuko erreforma fiskal baten beharra planteatzen dute, Zerga Negatibo baten bidez, HOE bat antolatzeke. Hala, HOE bat ezarrita, kapital errenten gaineko zerga ordainketa handiagoa eragingo litzateke (Atkinson, 1995; 2001; Oliver eta Spadaro, 2004; Sanzo eta Pinilla, 2004). Edonola ere, horrelako proposamen baten benetako efektuak hautemateko, beharrezkoa litzateke programa esperimentalen bat martxan jartzea, horrelako erreforma batek zerga bilketan (Groot, 2004) edo lan merkatuan izan ditzakeen ondorioak hautemateko.

Azken finean, artikulu honetan aurrez zirriborrotutako proposamenekin batera, HOE gaur egun herritartasunari eta enpleguari buruzko eztabaidan gogoan hartzen den beste aukera bat da, enpleguaz kanpoko

errenta bat planteatzen duelako. Edozein kasutan ere, proposamenari buruzko ezagutza orokorra mugatua da, eta bideragarritasuna bezalako aldeak defendatzaileengandik seriozki hartu beharrekoak dira, gizarte arlo eta arlo akademiko jakin batzuetara mugatuta gelditu ez dadin. Eztabaidarekin jarraitzeko, eta proposamen gisa, beharbada probetxugarriagoa izan daiteke HOE erabat iraultzaile eta hauslea den zerbait bezala saldu beharrean, HOEren eta Ongizate Estatuaren ideia motorren arteko lotura nabarmentzea. Ideia horien artean dago lan merkatuaz kanpoko gutxieneko baliabide ekonomikoak bermatzea. Gaur egun, izaera ekonomiko-laguntza eta subsidio ugari daude, eta jendeak begi onez ikusten du hori. Bestela esanda, agian hobe izango da azpimarratzea HOE ez dela ikonoklasta eta iraultzailea, eta, batik bat, Ongizate Estatuaren eguneratzeko eta herritzeko balio dezakeela.

6. Ondorioa: eztabaidarako sintesi proposamena

Lan honetan ikusi ahal izan den bezala, herritartasunaren eta enpleguaren arteko harremana, eta herritartasunaren gizarte elementua Ongizate Estatuaren baliokide gisa ulertuta, enpleguaren Ongizate Estatuaren arteko harremana oso estua da. Azken urteotan enpleguaren gizarte arauan gertatu diren aldaketak Ongizate Estatuaren basamentuan eragiten ari dira. Ildo horretan, enpleguaren eta herritartasunaren arteko polemika funtsezko eztabaida da (Dore, 1996; Edwards eta Revauger, 2000; Roche, 2002; Taylor-Gooby, 2008; Gordon eta Lenhardt, 2008). Bien arteko harremana *zaila* da gaur egun. Lehen zirkulu bertutetsu bat eta hainbat potentzialitate gertatzen ziren; gaur egun, ordea, horiek gainbeheran eta oztopatuta daude, batik bat, lan ezegonkortasunaren eta gizarte zaurgarritasunaren ondorioz. Testuinguru honetan, herritarren zatiketa prozesu batez hitz egin dezakegu, edo bestela esanda, lehen kategoriako herritarrez eta bigarren kategoriako herritarrez.

Horrelako egoera batean, beharrezkoa da enpleguaren eta Ongizate Estatuaren arteko harremana birplanteatzea eta birpentsatzea; betiere, herritarren eskubideek gizarte kontratu modernoaren ardatza osatzen dutela eta gizartearentzat bizitza duin eta dezente baten berme direla kontuan hartzen bada. Eginkizun horretan, ezinbestekoa da hasieratik baliabideak eta helburuak behar bezala bereiztea. Orain arte, herritarren eskubideak bermatzeko baliabidea enplegua izan da, eta herritarrentzat, bai orain eta bai etorkizun laburrean, horrela izaten jarraituko du. Kolektibo batzuentzat, ordea, enpleguak ez ditu baliabide material minimo eta egoki batzuk bermatzen, eta, beraz, bere gaitasun integratzaile batzuk galdu ditu. *Working poorsen* kasua paradigmatikoa da.

Eztabaida honetan, askotan, proposamenak modu baztertzailerik eta bereizian aurkeztearen alde egin da. Lan honetan, baita ere, hiru aukera eskaini eta sailkatu dira, enpleguaren eta herritartasunaren arteko lotura berreraikitzeko. Gertakizun horrek, ordea, ez du esan nahi aukera horien artean kideetasunik ez dagoenik. Are gehiago, eztabaidan aurrera egiteko eta indartzeko, beharrezkoa da desadostasunak nabarmendu beharrean, konbergentziak eta antzekotasunak aztertzea. Gure ustez, herritartasun integratzaile eta kohesionatzaile baten aldeko apustua egiten duen diskurtso neoliberal instituzionala salbuetsita, gainerako proposamenetan antzekotasunak eta kideetasunak aurki daitezke, elkarrizketa interesgarri eta aberats bat edukitzeko, eta herritartasuna berreraikitzeko helburu komunaren inguruan, estrategia komun bat antolatzeko.

Bai ezker langilearen diskurtsoan, bai malgusegurtasunaren kontzeptuan (ikuspegi aurrerakoi bate-tik garatzen denean) eta bai Herritarren Oinarrizko Errentaren kontzeptuan, bada elementu komun bat. Hori gizarte dezente bat martxan jartzeko herritarrei herritartasun osoa bermatzea da (Margalit, 1997).

Desberdintasunak topa daitezke baliabideetan, baina ez hainbeste azken helburuan. Era berean, estrategia edo aukeretarako gutxi gorabehera egokiak izan daitezkeen baliabideak bilatzeko elementu batzuk nabarmen daitezke.

Enpleguaren eta herritartasunaren arteko erlazioa mantentzearen aldeko ideiarekin kasuan (ezker langilearen diskurtsoa), *Lan Ondratuaren* ideia oso interesgarria da, ikuspegi tradizionalagoa badu ere, elementu berritzaileak dituelako, eta, ondorioz, alderdi kuantitatiboek gain (enplegua sortzea), enpleguaren alderdi kualitatiboak eta enpleguaren kalitatea kontuan hartzen dituelako. Kontzeptu hori Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) sortu zuen, 1999an, Juan Somavía erakundeko zuzendari nagusiak idatzitako txosten baten bidez. LANEk askatasun, berdintasun, segurtasun eta duintasun baldintzetan egiten den enplegu gisa definitzen du kontzeptua; eta txostenean bertan, Lan Ondratua honako modu honetan zehazten eta testuinguruan sartzen da: «...ez datza lanpostuak sortzean bakarrik, baita kalitate onargarri batekoak izatean ere. Ez dira enplegu kopurua eta enpleguaren kalitatea bereizi behar» (LANE, 1999). Lan Ondratua geroz eta oihartzun handiagoa duen kontzeptu bat da, batik bat, esparru sindikal eta politikoa. Gertaera hori dela eta, 2008az geroztik, urriaren 7a Lan Ondratuaren eguna da. Laburbilduz, enpleguan oinarritutako ikuspegi batetik begirata, egungo lan ezegonkortasunari aurre egin ahal diezaiokeen kontzeptu bat izan daiteke (Sen, Stiglitz eta Zubero, 2007).

Bigarren ekintza lerro batean, eta malgusegurtasunaren eta HOEren arteko erdibidean, jada existitzen diren hainbat neurri daudela nabarmen daiteke. Horiek hazi gisa funtzionatu ahal dezakete, berritzaileago batzuk martxan jartzeko. Zentzu horretan, prestazio batzuk ugaritzea eta horien unibertsalizazio handiagoa lortzea tresna egokia izan daiteke. Adibide bat jartzearen, egungo gizareratze errenta minimoek, molde unibertsaleko erreforma batzuen bidez, arlo sozialean agertzen ari diren behar berriak estali ahalko litzateke; besteak beste, lan ezegonkortasuna, familiaren eta lanaren bateratzea eta mendekotasuna. Bestela esanda, jada existitzen diren prestazioak unibertsalizatuta, HOEren ildoan lan egin ahalko litzateke, zuzenean aplikatu beharrik izan gabe, baina bertara *de facto* hurbilduta. Gainera, mota honetako estrategia bat iritzi publikoan nagusitzen diren diskurtsoekin bideratu ahalko litzateke, eta horrek HOEren gainean maiz sortzen diren bideragarritasun eta errealismo kritikei aurre egin ahalko lieke.

Ondorioz, dibertsifikatua den, eta indarrak biltzeko, kidetasunak bilatzeko eta diskurtso baztertzailak alde batera uzteko xedea duen estrategia bat bilatzea abiapuntu egokia litzateke, eztabaida serio bat martxan jartzeko, eta herritartasunaren, enpleguaren eta Ongizate Estatuaren etorkizuneko erlazioaz hitz egiteko. Betiere, kontuan hartuta gizarte integratu eta kohesionatu bat bermatzeko herritartasuna beharrezkoa (ezinbestekoa) dela.

Bibliografia


- Algan, Yann eta Cahuc, Pierre (2005), «Civic attitudes and the design of Labour Market Institutions: Which Countries can Implement the Danish flexicurity model?», Centre pour la Recherche Economique et ses Applications-CEPREMAP, www.columbia.edu/cu/alliance/documents/Homepage/Paper-Cahuc.pdf
- Alonso de Armiño, Iban; Gómez, Ixaso; Moreno, Gorka eta Zubero, Imanol (2002), «Precariedad laboral, precariedad vital», *Inguruak*, 32. zk., apirila, 143.-186. or.
- Anderson, Elizabeth (2000), «Optional Freedoms», *Boston Review*, urria-azaroa, www.bostonreview.net/BR25.5/anderson.html

- Andersson, Jan Otto eta Kangas, Olli (2002), «Popular Support for Basic Income in Sweden and Finland», *9th Congress of the BIEN*, Geneva, www.etes.ucl.ac.be/bien/Files/Papers/2002AnderssonKangas.pdf
- Antón, Antonio (2000), «Crisis del trabajo y ciudadanía social», Antón, Antonio (koord.), *Trabajo, derechos sociales y globalización. Algunos retos para el siglo XXI*, Talasa, Madril.
- Atkinson, Anthony B. (1995), *Public Economics in Action. The Basic Income/Flat Tax Proposal*, Oxford University Press, Oxford.
- Atkinson, Anthony B. (2001), «La renta ciudadana haría progresivo el tipo único de IRPF» (elkarrizketa), *El País*, ekainak 25, www.elpais.es/articulo/Completo/economia/renta/ciudadana/haria/progresivo/tipo/unico/IRPF/elpepieco/20010625elpepieco_7/Tes/
- Balibar, Etienne (2003), *Nosotros, ¿ciudadanos de Europa?*, Tecnos, Madril.
- Barcellona, Pietro (1991), «Los sujetos y las normas. El concepto de Estado social», Olivas, Enrique (koord.), *Problemas de legitimación en el Estado social*, Trotta, Madril.
- Beck, Ulrich (2002), *Libertad o capitalismo*, Paidós, Bartzelona.
- Bellvís, Luis (2005), «La comunicación social de la Renta Básica: dificultades y limitaciones», *V. Simposio de la Red Renta Básica*, Valentzia, www.nodo50.org/redrentabasica/descargas/bellvis_valencia.pdf
- Boltanski, Luc eta Chiapello, Ève (2002), *El nuevo espíritu del capitalismo*, Akal, Madril.
- Bottomore, Tom (1998), «Ciudadanía y clase social, cuarenta años después», Marshall, Thomas H. eta Bottomore, Tom, *Ciudadanía y clase social*, Alianza, Madril.
- Brunet, Ignasi eta Pastor, Inma (2003), «Tercera vía, Comisión Europea y estrategias de empleabilidad», *Anduli. Revista Andaluza de Ciencias Sociales*, 3. zk., 11.-26. or.
- Caixa Catalunya (2008), *Informe de la Inclusión social en España*, Caixa Catalunya, Bartzelona.
- Carnoy, Martin (2001), *El trabajo flexible en la era de la información*, Alianza, Madril.
- Castel, Robert (1990), *Les situation-limite du processus de marginalisation: de la vulnérabilité a la désaffiliation* («EC Conference on Poverty. Marginalisation and Social Exclusion in the Europe of the 90's» biltzarrean aurkeztutako txostena. Sassari, Italia).
- Castel, Robert (1992), «La inserción y los nuevos retos de las intervenciones sociales», Alvarez-Uría, Fernando (koord.). *Marginación e inserción*, Endimián, Madril.
- Castel, Robert (2004), «Encuadre de la exclusión», in Karsz, Saul (koord.). *La exclusión, bordeando sus fronteras*, Gedisa, Bartzelona.
- CES (2008), *Memoria socioeconómica. 2007*, Economía eta Gizarte Kontseilua (Euskal Herria), Bilbo.
- CES (2009), *Memoria sobre la situación económica y laboral de España, 2008*, Economía eta Gizarte Kontseilua, Madril.
- Europako Batzordea (2006), «Concerning a consultation on action at EU level to promote the active inclusion of the people furthest from the labour market», www.europa.eu.int/eur-lex/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2006:0044:FIN:en.pdf
- Europako Kontseilua (2007), «Council conclusion. Towards common principle of flexicurity», 2007ko abenduak 5-6, www.etuce.homestead.com/Documents/2008/Flexicurity_annex.pdf
- Gurutze Gorria (2009), *Boletín sobre vulnerabilidad social*, 1. zk., 2009ko uztaila.
- Daguerre, Anne eta Etherington, David (2009), *Active labour marbete policies in International context: Whats works best? Lessons of the UK*, Department for Work and Pensions, Londres.
- Dahrendorf, Ralph (1994), *Ley y orden*, Cívitas, Madril.
- De Graaf, Willibrord; Frericks Patricia eta Maier, Robert (2003), «Subsidied labour as a labour market strategy in European Countries», ESPAnet Conference, Kopenhage, www.sfi.dk/graphics/ESPAnet/papers/graffmaier.pdf

- De Sousa Santos, B. (1999), *Reinventar la democracia, reinventar el Estado*, Sequitur, Madril.
- Dore, Ronald (1996), «Citizenship and employment in an age of high technology», Bulmer, Martin eta Rees, Anthony (arg.), *Citizenship today*, UCL Press, Londres.
- Edwards, John eta Revauger, Jean-Paul (2000) (arg.), *Employment and Citizenship in Britain and France*, Ashgate, Aldershot.
- Esping-Andersen, Gosta (1993), *Los tres mundos del Estado del Bienestar*, Ed. Alfons el Magnànim, Valentzia.
- Fitoussi, Jean-Paul. (1996), *El debate prohibido. Moneda, Europa, pobreza*, Paidós, Bartzelona.
- Fundación Foessa (2008), *VI. Informe sobre exclusión y desarrollo social en España. 2008*, Fundación Foessa, Madril.
- Galston, William (2000), «What about reciprocity», *Boston Review*, urria-azaroa, www.bostonreview.net/BR25.5/galston.html
- Giddens, Anthony (2000), *Un mundo desbocado*, Taurus, Madril.
- Giiddens, Anthony (2006), «Coronar todas las cumbres», *El País*, 2006ko abenduak 3, 17. or.
- Eusko Jaurlaritza (2008), *1984-2008. 25 años de estudio de la pobreza en Euskadi*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Gordon, Jennifer eta Lenhardt, Robin A. (2008), «Rethinking Work and Citizenship», *Ucla Law Review*, 55. lib., 1.161. zk., ekaina, 1.162.-1.238. or.
- Gorz, André (1986), *Los caminos del paraíso. Para comprender la crisis y salir por la izquierda*, Ed. Laia, Bartzelona.
- Groot, Luc (2004), «Why launch a basic income experiment? Proposal for a design of a new experiment», *10th Congress of the BIEN*, Bartzelona, www.etes.ucl.ac.be/bien/Files/Papers/2004Groot.pdf
- Handy, Charles (1986), *El futuro del trabajo humano*, Ariel, Bartzelona.
- Harris, David (1990), *La justificación del Estado de bienestar*, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, Madril.
- Heater, D. (1999), *What is Citizenship?*, Polity Press, Cambridge.
- Held, David (1991), «Between State and Civil Society: Citizenship», Andrew, Geoff (arg.), *Citizenship*, Lawrence & Wishart Limited, Londres.
- Iglesias, José (2002), *Las Rentas Básicas. El modelo fuerte de implantación territorial*, El Viejo Topo, Bartzelona.
- Ignatieff, Michael (1991), «Citizenship and Moral Narcissism», Andrew, Geoff (arg.), *Citizenship*, Lawrence & Wishart Limited, Londres.
- Keune, Maarten (2008), *Between innovation and ambiguity. The role of flexicurity in labour market analysis and policy making*, European Trade Union Institute for Research, Education and Health and Safety, Brussels.
- Klammer, Ute (2007), «Flexiseguridad: perspectiva europea» *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 1. zk., 117.-144. or.
- Lacalle, Daniel (2009), *Trabajadores precarios. Trabajadores sin derechos*, El Viejo Topo, Bartzelona.
- Laparra, Miguel (2010), *Primer impacto de la crisis en la cohesión social en España. Un análisis provisional a partir de las encuestas Foessa 2007-2009*, Foessa Fundazioa, Madril.
- Liebig, Stefan eta Mau, Steffen (2002), «A Legitimate Guaranteed Minimum Income?», *9th Congress of the BIEN*, Geneva, www.etes.ucl.ac.be/bien/Files/Papers/2002LiebigMau.pdf
- Madsen, Per K. (2006), «How can it possibly fly? The paradox of a dynamic labour market in a Scandinavian welfare state», Campbell, John; Hall, John eta Pedersen, Ove (arg.), *National identity and the varieties of capitalism: the Danish experience*, McGill-Queen's University Press, Montreal.
- Margalit, Avisai (1997), *La sociedad decente*, Paidós, Bartzelona.

- Marshall, Thomas H. (1998), «Ciudadanía y clase social», in Marshall, Thomas H. eta Bottomore, Tom, *Ciudadanía y clase social*, Alianza, Madril.
- Moreno, Gorka (2003), *Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto*, Arartekoa, Gasteiz.
- Moreno, Gorka (2008), *Crisis y reconstrucción del Estado del Bienestar. Las posibilidades de la Renta Básica de Ciudadanía*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Moreno, Gorka (2008b), «Las viabilidades de la renta básica de ciudadanía», VV.AA., *XI. Jornadas de Economía Crítica. Bienestar y Democracia Económica Global*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Moreno, Gorka (2010), «Historias de vulnerabilidad: la inestabilidad en el día a día», *Documentación Social*, 156. zk., 171.-192. or.
- Mulgan, Geoff (1991), «Citizens and Responsibilities», Andrew, Geoff (arg.), *Citizenship*, Lawrence & Wishart Limited, Londres.
- Observatorio Joven de Empleo (2009), *Condiciones de empleo y de trabajo de los y las jóvenes en España, Segundo trimestre 2009*, 9. zk., Espainiako Gazteriaren Kontseilua, Madril.
- ELGA (1993), «Active labour market policies: assessing macroeconomic and microeconomic effects», *Employment Outlook*, ELGA, Paris, www.oecd.org/dataoecd/59/23/2485416.pdf
- LANE (1999), *Memoria del Director General: Trabajo Decente*, Lanaren Nazioarteko Erakundea, Geneva, www.ilo.org/public/spanish/standards/relm/ilc/ilc87/rep-i.htm
- Oliver, Xisco eta Spadaro, Amedeo (2004), «¿Renta mínima o mínimo vital? Un análisis sobre los efectos redistributivos de posibles reformas del sistema impositivo español», *XI Encuentro de Economía Pública*, Bartzelona, www.nodo50.org/redrentabasica/descargas/oliver_Spadaro2004.pdf
- Petrasova, Alexandra (2008), «Social protection in the European Union», *Statistics in focus*, 46. zk./2008, Eurostat.
- Polus, Eero (2005), «Flexicurity, General Framework for Long-Term Social Impact Evaluation of an Employment Strategy». www.mol.fi/mol/en/99_pdf/90publications/longterm_socia_impact2005.pdf
- Oinarrizko Errenta Sarea (2001), Oinarrizko Errenta Sarea Elkartearen Estatutuak, <http://www.nodo50.org/redrentabasica/textos/index.php?x=1>
- Roche, Maurice (1992), *Rethinking Citizenship*, Polity Press, Cambridge.
- Roche, Maurice (2002), «Social Citizenship: Ground of Social Change», Isin, Engin eta Turner, Bryan (arg.), *Handbook of citizenship Studies*, SAGE, Londres.
- Saez, Juan; Pinazo, Sacramento eta Sánchez, Mariano (2008), «La construcción de los conceptos y su uso en las políticas sociales orientadas a la vejez: la noción de exclusión y vulnerabilidad en el marco del envejecimiento», *Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración*, 75. zk., 75.-94. or.
- Sanzo, Luis eta Pinilla, Rafael (2004), «La renta básica. Par una reforma del sistema fiscal y de protección social», *Documento de Trabajo 42/2004*, Alternativas Fundazioa, www.nodo50.org/redrentabasica/descargas/docsfinal.pdf
- Schmid, Günther (2002), «Towards a theory of transitional labour markets», Schmid, Günther eta Gazier, Bernard (arg.), *The Dynamics of Full Employment: Social Integration through Transitional Labour Markets*, Edgard Elgar, Chentelham.
- Schnapper, Dominique (2001), *La comunidad de los ciudadanos*, Alianza, Madril.
- Sen, Amartya; Stiglitz, Joseph eta Zubero, Imanol (2007), *Se busca trabajo decente*, HOAC, Madril.
- Sennet, Richard (2000), *La corrosión del carácter*, Anagrama, Bartzelona.
- Taylor-Gooby, Peter (2008), *Reframing Social Citizenship*, Oxford University Press, New York.
- Therborn, Göran (1995), *European Modernity and Beyond*, Sage Publications, Londres.

- Wilthagen, Ton eta Rogowski, Ralf (2002), «Legal regulation of Transitional Labour Markets», Schmid, Günther eta Gazier, Bernard (arg.), *The Dynamics of Full Employment: Social Integration through Transitional Labour Markets*, Edgard Elgar, Chentelham.
- Wilthagen, Ton eta Tros, Frank (2004), «The concept of flexicurity: A new approach to regulating employment and labour markets», *Transfer-European Review of Labour and Research*, 10. lib., 2. zk., 166.-186. or.
- Zubero, Imanol (2000), *El derecho a vivir con dignidad: del pleno empleo al empleo pleno*, HOAC, Madril.
- Zubero, Imanol (2007), «¿A qué huele en Dinamarca?», *Lan Harremanak*, 16. zk., 35.-58. or.



VICENÇ NAVARRO

*Politika Publikoetan Katedraduna, Pompeu Fabra Unibertsitatea,
Public Policytan Katedraduna, The Johns Hopkins University*

Politika sozialak eta krisi globalaren ondorio sozialak

Sarrera

Politika sozialen etorkizuna eta krisi globalaren ondorio sozialak aztertzeko, Osasunaren Mundu Erakunde-ko (OME) Osasunaren Determinatzaile Sozialen Batzordeak prestatutako txosten batean jasotako hainbat datu aurkeztuz hasi beharko nukeela pentsatu dut. Txosten horren arabera, «Suedian jaiotako neska bat Sierra Leonan jaiotako bat baino 43 urte gehiago biziko da». Herrialdeen arteko heriotza tasaren alde ikaragarria da. Baina desberdintasun horiek herrialde bakoitzaren barruan ere azalduko dira, herrialde aberatsak edo garatuak barne. Batzordearen txostena berriro aipatuz: «Glasgow, kalifikazio gabeko langile batek, hau da, langile klaseko pertsona batek Eskoziako diru sarreraren eskalako goi mailako diru sarrerak dituen negozio gizon batek baino 28 urte gutxiagoko bizi-itzaropena izango du». AEBko datuak gehitu nitzake hemen: Baltimoreko ekialdean (The Johns Hopkins University nire unibertsitatea dagoen tokian) beltz gazte langabe batek bulego handi bateko abokatu zuri batek baino 32 urte gutxiagoko bizi-itzaropena du. Beste artikulua batean adierazi dudana bezala, [1] gazte afroamerikar batek gazte amerikar zuri batek baino 1,8 aukera gehiago du gaixotasun kardiobaskular baten ondorioz hiltzeko. AEBn, arraza arteko desberdintasunak handiak dira heriotza tasan, baina are eta handiagoak dira klase sozialaren arabera. Artikulu berean azaldu nuen langile batek negozio gizon batek baino 2,8 aldiz aukera gehiago dituela gaixotasun kardiobaskular batez hiltzeko. AEBn, beste edozein herrialdeetan bezala, heriotza kopuru ahalik eta handiena prebenitzeko modua klase sozial guztiek klase ahaltsuenen (herrialdeko errenta maila gorenekoa dutenak) heriotza tasa bera izatea lortzea izango litzateke. Honako datu mota hauek bildu dituzte OMEko Batzordearen txostenak eta beste lan batzuek. Bizi-kalitatea (horren barruan garrantzi ikaragarria dute osasunak, bizitzak eta heriotzak) sozialki erabakita dagoela gertaera ukazina eta nabarmena da. Kontzeptu horiek oinarritzekoak dira giza eskubideei buruzko edozein eztabaidatan. Bizi-eskubidea, osasun eskubidea eta gizarte ongizaterako eskubidea gainerako giza eskubideak garatzeko oinarritzeko eskubideak dira. Giza eskubideei buruzko eztabaida batek eskubide horien testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoarekin hasi behar du.

Giza eskubideen testuinguru ekonomiko, politiko eta soziala azken 30 urteetan

Azken urteotako aldaketa nabarmenenak Reagan presidenteak AEBn eta Thatcher Lehen Ministroak Britainia handian 70 hamarkadaren bukaeran eta 80ko hamarkadaren hasieran hasitakoak izan dira. 1980-2008 aldian honako esaldi hauetan oinarritutako politika publikoak sustatu direla ikusi dugu: (a) estatuak (edo he-

rri hizkeran deitu ohi zaion bezala «gobernuak») gutxiago esku hartu behar duela jarduera ekonomiko eta sozialerantz; (b) lan eta finantza merkatuak araugabetu egin behar dira merkatuen sormen handia askatzeko; eta (c) merkataritza eta inbertsioa suspertu egin behar dira mugak eta oztopoak ezabatuz, lanaren, kapitalaren, produktuen eta zerbitzuen erabateko mugikortasuna ahalbidetzeko. Politika horiek ideologia neoliberalaren osatzen dute.

Politika horiek ongizatearen estatuaren sektoreetan aplikatzeak honako hauek nabarmentzen dituzten politikak eragin dituzte: (a) herritarren bizi-kalitatearen eta gizarte ongizatearen gaineko erantzukizun publikoa murrizteko premia; (b) zerbitzu publikoen merkatua eta merkaturatzea areagotzeko premia; (c) Osasun Zerbitzu Nazionalak aseguru pribatuen oinarritutako sistema bihurtzeko premia; (d) Gizarte Segurantzaren pribatizatzeko premia; (e) zerbitzu publikoen erabilzaileei (pazienteak osasunbidean eta ikasleak hezkuntzan) bezero deitzen zaien eta plangintzaren tokia merkatuek hartzen duten diskurtsoa garatzeko premia; (f) bizi-kalitatea hobetzea norbanakoen erantzukizun pertsonala da; (g) osasunaren eta bizi-kalitatearen sustapena pertsonen portaerak aldatzeko; eta (h) norbanakoen erantzukizun pertsonala areagotzeko premia haien kapital soziala handitzeko zuzkidura gisa. Azken 30 urte hauetan politika eta praktika horiek mundu osoan nola ezarri diren ikusi dugu: AEBn, EBn eta baita nazioarteko erakundeetan ere, esaterako, Nazioarteko Diru Funtsean, Munduko Bankuan eta baita OMEren ere. Politika horiek *Washingtongo Akordioan*, *Bruselako Akordioan* eta *OMERen Akordioan* azaldu dira, OMEk 2000. urtean munduko osasunari buruz egindako txostenean ikus daitekeen bezala, munduko osasun sistemak gauzatzearen inguruan. [2, 3]. Nazioarteko Diru Funtsa eta Munduko Bankua ahalegin eta intentsitate handiz aritu dira politika horiek sustatzen.

Politika ekonomiko eta sozial horiek garatzeko esparru teorikoa aurrekaririk gabeko hazkunde ekonomikoa eragin duen jarduera ekonomikoaren globalizazioaren bitartez (politika horiek sustatuta) munduko ordena ekonomikoa aldatu egin dela sineste da. Ekonomiako eta munduko ordena berri horretan, badirudi estatuek boterea galtzen dutela eta multinazionalen zentratutako munduko merkatu berri batek ordezten dituela. Multinazional horiek gaur egungo munduko jarduera unitate nagusiak bihurtzen dira. Eszenategi hori dogma izan zen duela gutxi arte eta *New York Times*, *Financial Times*, *Economist*, eta sinesmen neoliberalaren munduan barrena erreproduzitu duten beste hainbat komunikabidek txalotu egin dute.

Finantza estabimenduko organo horiek interpretazio hori edo gure errealitatearen eszenategi neoliberalaren txalotu eta sustatu egiten duten bitartean, beste batzuek (Susan George eta Eric Hobsbawm ezkeriarrek eta globalizazioaren aurkako mugimenduko eta Munduko Foro Sozialerako sektore handiek) arbuia egiten dute. Baina biek modu berean interpretatzen dute errealitatea: haien arabera, mundu globalizatu batean bizi gara eta estatuen boterearen ordez multinazionalen boterea ari da nagusitzen; estabimenduko ahotsek globalizazioa txalotzen duten bitartean, estabimenduen aurkakoei arbuia egiten dute. Errealitatea modu horretan interpretatzearen arazoa, ordea, biak oker daudela da.

Ikus dezagun neoliberalismoaren praktika, eta ez teoria

Errealitatearen interpretazio horien azpian dauden presuntzio ideologikoak aztertu behar dira. Hasteko, teoria neoliberalak diotenaren kontra, ez da egon sektore publikoaren murrizketarik ELGAn herrialde gehienetan. Herrialde askotan, gastu publikoa hazi egin da Barne Produktu Gordinarean (BPGd) portzentaje gisa eta biztanleko gastu gisa. Munduko mugimendu neoliberalaren buru den AEBn, 1980an Reagan presidenteak iraultza neoliberalaren hasi zueneko BPGd-ren % 34tik 2007ko BPGd-ren % 38ra hazi zen gastu publikoa;

per capita gastua, berriz, 1980ko 4.148 \$etatik 2007ko 18.748 \$etara igo zen. ELGAko herrialde gehienetan zergak handitu beharrean txikitu egin direla ikusi dugu BPGd-ren portzentajearen ondorioz: AEBn 1980ko % 35etik 2007ko % 39ra igo ziren. Egoera hori Reagan presidentearen administraziopean hasi zen AEBn, gastu publiko federala BPGd-ren % 21,6tik % 23ra igo zenean eta zergak, behin ez ezik, bi aldiz igo zirenean. Reaganek beste ezein presidentek baino gehiago eta pertsona gehiagorentzat igo zituen zergak (bake garaian). Diru sarrera handieneko biztanleen % 20ri murriztu zizkion zergak eta gainerakoei igo. Honako hau idatzi zuen John Williamson Washingtongo Akordio neoliberalaren aitak: «Aitortu beharra daukagu AEBko gobernuak atzerrian sustatu zuela etxean aplikatu ez zuena».

Eta duela gutxi AEBko esku-hartze federal masiboak ikusi ditugu, finantza industria araugabetzeak eragindako banku krisia ebazteko asmoz egindakoak. Hori da Estatuaren tokia multinazionalak hartzen ari direla dioen tesia okerrekoa dela frogatzen duen adibideetako bat. Estatuak ez dira desagertzen ari. Ikusten ari garena ez da estatuen esku-hartzeen murrizketa, esku-hartze horien izaeraren aldaketa baizik. Hori argi eta garbi ikusten da AEBko gastu federalaren eboluzioa ikusten badugu. 1980an, iraultza neoliberalak hasi zenean, gastu federalaren % 38 pertsonen zuzenduta zegoen, % 41 gastu militarari eta % 21 enpresa pribatuen babesari. 2007an gastu horiek goitik behera aldatu ziren: pertsonen zuzenduriko gastuak % 32ra murriztu ziren, gastu militarra % 45era igo zen eta enpresa pribatuei laguntzeko gastua % 23ra. Eta hori guztia bankuen komunitateari eman zaion laguntza publiko masiboaren aurretik gertatu zen (finantza krisia konpontzeko), AEBko Kongresuak onartu zuen bezala.

Antzeko egoera ikusten da ongizatearen estatuan. Horrela, osasun zerbitzuen gero eta pribatizazio handiagoa ikusi dugu. Osasun sektoreko aseguru konpainien egitekoa hedatu egin da zerga politiken laguntzarekin, esaterako, modu esponontzian handitu diren zerga arinketekin eta subsidioekin. Halaber, zerbitzu publikoen kudeaketa pribatuarekin batera, baterako ordainketen eta baterako aseguru pribatuen gehikuntza egon da. Inbertsio publiko nahiz pribatuaren hazkunde masiboa ere ikusi da ikerketa biomedikoa eta genetikoa garatzeko munduko osasun arazo nagusiak konpontzeko gai izango den «soluzio» biologikoaren bila, eredu biomedikoan arreta berezia jarrita; eta hori guztia industria farmazeutikoaren babespean eta gidaritzapean egiten da, zergen bitartez lortutako diru publikoaren babesarekin.

Aldaketa esku-hartze publikoaren izaeran: klase sozialaren kategoria analitikoaren garrantzia

Esku-hartzearen izaeran izaten diren aldaketa horien ezaugarri bat gure gizarteetako botere banaketan izandako aldaketei erantzuteko gertatzen direla da. Aldaketek talde batzuei egin die mesede, beste batzuen kalteetan. Esku-hartze publikoek klase sozial batzuei mesede egin die beste klase sozial batzuen kontura, arraza batzuei beste arraza batzuen kontura, genero bati beste generoaren kontura eta nazio batzuei beste nazio batzuen kontura. Klase, arraza, genero eta nazioen arteko tentsioak areagotu egin direla ikusi dugu. Klase desberdintasunei buruz hitz egiteak arraza, genero edo nazio desberdintasunez hitz egiteak adinako garrantzia edo handiagoa duela nabarmendu behar da.

Aro postmodernoko elementu bat da klase hitza ia erabat desagertu dela diskurtso politikotik eta zientifikotik. Klase analisia, maiz, arbuia egiten dute zaharkituztat jotzen dutelako, «ideologoentzako» analisi eta diskurtso motatzat jotzen delako, ez zientzialari serio eta zorrotzentzat. «Klase» kategoria ia erabat desagertu da literatura zientifikotik eta «estatus» kategoriak edo hain gatazkatsuek ez diren beste kategoria batzuek ordeztu dute. Klase analisia eta klase diskurtsoa desagertzearen arrazoiak, ordea, politikoak dira. Hori da, hain zuzen

ere, klase boterearen seinale bat (klase menderatzailearen boterea), klase analisia ordena sozialerako hain arris-kutsuak ez diren kategoriek ordeztu dutelako. Eszenategi berri horretan, herritar gehienak erdi mailako klase gisa definitu dira eta pertsona gehienak erdian jarri dituzte, hau da, «aberatsen» eta «pobreen» artean.

Baina klase sozialak existitzen dira. Eta hori frogatzen duten datuak daude. Soziologiako bi tradizio zientifiko garrantzitsuenetarikoak marxista eta webertarra dira, eta ekarpen ikaragarria egin dute gure gizarteak modu zientifikoan ulertzeko. Bien iritziz, klase soziala da botere kategorია gorena eta klase borroka edo gatazka gizarteko aldaketaren determinatzaile nagusia. Klase analisia zaharkitu gisa definitzea zaharra eta zaharkitua nahastea da. Grabitatearen legea zaharra da, baina ez da zaharkitua. Norbaitek uste badu hori ez dela horrela, laugarren solairuko leiho batetik jauzi egin dezake probatzeko. Nik esango nuke gaur egun aurkitzen ditugun analisi asko laugarren solairutik egindako jauziak direla. Kategoría zientifikoak ahazteak edo aintzakoztat ez hartzeak koste handia dakar. Horietako bat gure gaurko mundua ulertzeko ezintasuna da.

Neoliberalismoa da iparraldeko eta hegoaldeko klase menderatzaileen ideologia. Ongizatearen estatuko zerbitzu publikoak pribatizatzea, esaterako, osasunbidea, klase politika bat da, errenta handieneko taldeei mesede egiten dielako klase herrikoiak kaltetan. Politika publiko neoliberal guztiek klase menderatzaileari mesede egiten diote mendeko klasearen kaltetan. Gisa horretako politika neoliberalen garapenak asko handitu ditu desberdintasunak, herrialdeen artean ez ezik, baita herrialdeen barruan ere.

Klase kategoría ahazteak dituen kostuen beste adibide bat mundua herrialde aberatsetan (iparraldea) eta herrialde pobreetan (hegoaldea) banatzea da, herrialdeen barruan, iparraldekoetan nahiz hegoaldekoetan, klase sozialak daudela alde batera utzita. Munduko dirutza handien % 20 herrialde pobreak deiturikoetan dago. Brasilgo klase aberatsenak Frantziako klase aberatsenak bezain aberatsak dira. Brasilgo pobreenak Frantziako pobreenak baino askoz pobregoak dira, baina aberatsen artean ez dago horrenbesteko alderik. Bestalde, ez dugu ahaztu behar Baltimore (AEB) ekialdeko prestakuntzarik gabeko langile gazte batek Bangladesheko batez besteko bizi-itxaropena bezain bizi-itxaropen txikia duela. Herrialde guztietan daude klaseak. Munduan azken 30 urteetan gertatzen aritu dena da iparraldeko eta hegoaldeko klase menderatzaileen arteko ituna eratu dela, bai iparraldean eta bai hegoaldean mendeko klaseen (klase herrikoiak) interesen kontra doazen politika neoliberalak sustatu dituen ituna. Klase menderatzaileen artean iparraldeko eta hegoaldeko klase menderatzaileen antzeko itunak garatzeko premia larria dago.

Klaseen ituna «aldaketarik ezaren» determinatzaile gisa

Esan beharra daukat egoera honen guztiz jakitun izan nintzela Salvador Allende buru zuen Unidad Popularreko Gobernuaren aholkularia izan nintzenez Txilen. AEBk ez zuen ezarri Pinochetek burututako estatu kolpea (garai hartan hala zabaldu zen). Ni Txilen egon nintzen eta ikusi nuen zer gertatu zen. Gertatu zena honako hau izan zen: ekonomia arloko eliteak, finantza sektorea, lur jabeak, eliza katolikoa, goi mailako klaseak eta erdi eta goi mailako klaseak eta indar armatuak gobernu demokratikoaren aurka matxinatu egin ziren eraso faxista batean, baina ez AEBk lagunduta (AEB ez da 300 milioi inperialistek osatutako herrialdea), AEBko gobernu federalak baizik, jendearen gustukoa ez zen Nixon lehendakaria buru zuela (armada bidali zuen Apalatxeetan ikatz meatzarien greba orokor bati amaiera emateko). Ez dira nahastu behar herrialde bateko herritarrak eta bere gobernuak. Eta hori oso garrantzitsua da AEBn, izan ere, herritarren % 82k uste dute herrialdeko gobernuak ez dituela defendatzen euren interesak, talde ekonomiko eta finantzarioen interesak baizik (AEBn klase korporatiboa deiturikoa), AEBko gobernuaren eta Kongresuaren portaera menderatzen dutenak.

Badakit sarritan argudiatzen dela AEBko herritarrek gobernu federalak egindako politika federalisten onura ateratzen dutela. Gasolina, adibidez, merke samarra da AEBn (gero eta garestiago den arren). Egoera horrek AEBko klase langileari mesede egiten diola esaten dute. Baina argudio horrek ez du kontuan hartzen erdi mailako herritarrek garraio pribatuarekiko duten mendekotasun handia eta garraio horrek behe mailako herritarrentzat duen kostua. Behe mailako herritarrek onura handia jasoko lukete garraio publikotik (inkesten arabera, askok nahiago lukete), baina herrialdean ez dago ia garraio publikorik. Automobilaren industriaren eta petrolioaren industriaren arteko akordioaren ondorioa da hori, akordio hori baita garraio publikoa ez garatu izanaren erantzulea. AEBtik kanpo jendea ez dago kontzientziatuta herrialdeko sistema ekonomiko eta politikoaren biktima nagusia hango langileria dela. Osasunaren sektorea da horren beste adibide bat. Ekonomikoki garatutako beste herrialdeetako langileriak ez ditu AEBko behe mailako herritarrek osasun zerbitzuetara iristeko dituzten arazoak. 2006an, 47 milioi estatubatuarrek ez zuten inolako estaldurarik osasun esparruan. Eta jende asko hil zen horren ondorioz. Prebenitu litekeen heriotza kopurua urteko 18.000 (AEBko Medikuntzako Institutu kontserbadorearen arabera) eta urteko 100.000 artekoa (Harvard Unibertsitateko David Himmelstein irakaslearen kalkuluen arabera) dela kalkulatzeko da. «Heriotza prebenigarria» definitzeko moduaren arabera aldatzen da kopurua. Hala ere, urteko 18.000 heriotzako kopuru kontserbadorea irailaren 11n World Trade Centerren izandako heriotza kopurua baino sei bider handiagoa da. Gertakari hark sutan jarri zuen jendea (eta hala izan behar du, gainera), baina medikuen arreta faltagatik gertatzen diren heriotzak ez dira iristen albiste izatera ere. Heriotza horien berririk ez da ematen *New York Times*, *Washington Post*, *Los Angeles Times* edo AEBko beste edozein egunkaritako ez lehen orrialdeetan eta ez azkenekoetan. Albiste izaten ez den eguneroko errealitatearen zati bat baino ez dira heriotza horiek.

Baina aseguruak ezaren arazoaren atzean arazo handiagoa du AEB: aseguru partziala (azpiasegurua). Gutxi gorabehera 108 milioi pertsonak gutxiagoko aseguru zuten 2006an. Horietako askok uste dute osasun aseguru izanda inoiz ez dutela arazorik izango medikuaren fakturak ordaintzeko. Noizean behin, egiari aurre egiten diote: daukaten aseguru gutxiagoa da. Estaldura onena duten familientzat ere, Kanadan eta Europar Batasuneko (EB) herrialde gehienetan eskaintzen dena baino askoz txikiagoa da. Medikuen fakturak ordaintzea arazo larria da pertsona askorentzat. Faktura horiek ordaindu ezina familia porroten arrazoi nagusietako bat da, familia askok mediku aseguru duten arren. Familien % 20 baino gehiagok euren diru sarreren % 10etik gora gastatzen dute aseguru primatan eta medikuaren fakturatan (ehunekoa are eta handiagoa da banakako aseguru dutenentzat). 2006an, AEBko biztanleen laurden batek arazoak zituen medikuaren fakturak ordaintzeko, gehienek osasun aseguru pribatua zuten arren. Sistemaren krudeltasun guztia datu honetan ikus daiteke: eritasun terminalarekin hiltzen ari diren pertsonen % 42k adierazten du kezkatuta dagoela medikuen zerbitzuak nola ordainduko dituzten beraiek edo familiakoek. EBko herrialde bakar bat ere ez dago egoera dramatiko horretan.

Garapen bidean dauden herrialdeen egoera

Klase menderatzaileak eta munduko klaseekiko aliantza dira pobrezia arazoaren eta gutxieneko giza eskubiderik ez egotearen sustraia. Pobreziak eta azpigarapenak bizi-kalitatean duten ustiapen arduratsua irudikatzen du aliantza horrek. *The New York Times* egunkariak, apaltasuneko une arraro batean, Bangladesh «munduko herrialde behartsueneko» pobrezia aztertu zuen [5]. Baina Bangladesh ez da herrialde behartsua; alderantziz, herrialde aberatsa da. Hango jende gehiena pobrea den arren (osasun baldintza eta bizi kalitate

pobreak), herrialdea ez da pobrea. Baliabide ugari ditu. Baliabide horiek nork kontrolatzen dituen da arazoaren sustraia. *The New York Times*-ek dioen bezala:

«Oparotasun erlatiboaren erdian irauten duen malnutrizioaren arrazoia Bangladesheko lurren banaketaren desberdintasuna da. Jende gutxi da aberatsa mendebaldeko estandarren arabera, baina desberdintasunak asko dira eta lurraren jabetzaren pilaketan islatzen dira. Landako biztanleen % 16k kontrolatzen ditu lurren bi heren eta biztanleen % 60k akre bat baino gutxiago du... Nekazaritzako teknologia berriak nekazari handiei egiten die mesede eta egoera hobean uzten ditu herrikide behartuagoekin negoziatzeko. Gobernua lur jabeen eskuetan dago —parlamentuko kideen % 75k lursail handiak dituzte— eta, horregatik, ezin da laguntza ofizialik aurreikusi sisteman aldaketa handiak egiteko... Bangladeshen janariak banatzeko GKEek aitortzen dute herrialdera bidaltzen diren milioika tona janariaren zati txiki bat baino ez dela iristen herrietako jende behartu eta gosetietara. Gobernuak banatzen ditu janariak eta militarrei, polizia eta hirietan bizi diren erdiko klasekoei saltzen dizkie laguntzazko prezioetan.»


Azkenik, honako hau dio *The New York Times*-ek:

«Bangladeshek nahikoa lur dauka herrialdeko gizon, emakume eta ume guztiei elikadura egokia emateko. Lur oparo eta berde honek nekazaritzarako duen potentziala ikaragarria da; biztanle hazkunde saihestezina izango du datozen 20 urtean, baina erraz elika ditzake bere biztanle guztiak.»

*The New York Times*ek dioen bezala, egungo munduko gatazka ez da Iparra Hegoaren kontrakoa. Arazoa ez da globalizazioa edo baliabide eskasia ere. Herrialdeetako klase sozialen botere desberdintasunean eta estatuaren gainean duten eraginean dago arazoaren sustraia. *Horiek dira pobrezia eta giza eskubiderik ezaren arazoaren sustraiak*. Garapen bidean dauden herrialde gehienetako klase dominatzailea bat eginda dago herrialde garatuetako klase dominatzaileekin eta Estatuako organoak kontrolatzen dituzte. Egipto, Tunez eta herrialde arabiarren kasua horren adibide bat da, beste adibide askoren artean. Eta esperientzia historikoak erakusten du lurrak eta beste baliabide batzuk ez dituen herria egoera horren kontra altxatzen denean aldaketa bat behartzeko, Iparreko nahiz Hegoko klase dominatzaileak elkartu egiten direla aldaketari aurre egiteko edozein bitarteko erabiliz, zapalkuntza ankerra barne. Hori da euren bizi-kalitatearen azpigarapenarekin eteteko ahalegina egiten duten herrien historia. Horren adibide bat da AEBko eta EBko komunikabide nagusiek Chavezen aurka Venezuelan edo Evo Moralesen aurka Bolivian azaltzen duten etsaitasun handia, hango klase dominatzaileen akordioaren interes ekonomikoei eragiten dieten erreformak egiten ari direlako.

Neoliberalismoaren porrota

Diskurtso neoliberalen onartzen den beste gauza bat da politika neoliberalen garapenak izugarri suspertu duela hazkunde ekonomikoa eta herritarren osasuna eta bizi-kalitatea hobetu dituela. Hemen, berriz ere, naberitasunak dogma hori ezeztatzen du. Latinoamerikako BPGd-ren benetako hazkundearen batez bestekoa % 82 ikusgarria izan zen 1960-1980 aldian, hau da, Keynesen politikak aplikatu ziren aldian. 1980-2000 aldi neoliberalen, ordea, % 9 murriztu zen eta % 1 2000-2005 aldian. Beherapen horrek azaltzen ditu Latinoamerikan politika neoliberalak ezarri zirenean izandako haien aurkako altxamenduak. Osasun adierazleei dagokienez, 1. irudian ikusten den bezala, azterketa aldiaren hasieran antzeko garapen maila zuten herrialdeek (adibidez,



Iturria: M. Weisbrot, D. Baker eta D. Rosnick (2006), «The scorecard on development: 25 years of diminishes progress», *Int. J. Health Serv.*, 36(2):211-234.

1. irudia


Haurren heriotza tasa

1980an beste herrialde batzuek 1960an zuten garapen maila bera zutenak) haurren heriotza tasan askoz hobekuntza txikiagoa izan zuten 1980-2002 aldian 1960-1980 aldian baino. Antzeko egoera izan zuten herrialde garatuetan ere. AEBn klase sozialagatik heriotza tasa diferentzialaren hazkunde handia egon da eta herritarrentzako arreta sanitarioko zerbitzuen estaldura narriatu egin da. Azken hamar urte hauetan milioi bat lagunek estaldura galdu dute urtero zerbitzu sanitarioen estalduran.

Egoera soziala Europan

Europar Batasunean gertatu dena zehazteko, EB-15eko lan merkatuan, langabezia, soldatetan, lan baldintzetan, babes sozialean, onura sozialean eta enpresa mozkinetan gertatu dena azaldu behar da. EB-15en zentratuko gara horiek direlako EB denbora gehiagoan osatu duten herrialdeak eta, ondorioz, Europar Batasuneko politiken eraginpean denbora gehiagoan egon diren herrialdeak.


2. grafikoak erakusten du langabeziak gora egin duela EB-15en 70eko hamarkadaz geroztik, eta hori bat dator EB ezarri zenean garatutako politikekin. Kontuan izan behar da Europak AEBk baino langabezia tasa txikiagoak izan zituela 1960-1980 aldian eta askoz handiagoak 1980-2003 aldian. 3. grafikoan laneko errentak ikus ditzakegu (hor sartzen dira lanaren ordaina, langileen babes soziala, erretirorako ekarpena eta langabezia aseguruak) EB-15eko BPGd-ren (Barne Produktu Gordina) portzentaje gisa. 1975-2005 aldian behera egin zuten laneko errentek, langile kopurua handitu egin bazen ere. Gainera, ziklo ekonomikoa kontuan izan gabe gertatu zen hori.



Iturria: Urteko Datu Base Makroekonomikoa (AMECO), Europako Batzordea.

2. irudia


Langabezia. Langabeziaren bilakaera (herritarren portzentaje gisa), EB-15eko batez bestekoa (grisa, azpitik ezkerrean eta gainerik eskuinean) eta AEBkoa (urdina), 1960-2003



Iturria: ELGAko gutxi gorabeherako kalkuluak, ELGAko Ikuspegi Ekonomikoko datu basea erabiliz.

3. irudia

Soldatak. EB-15eko errenta nazionalaren gaineko lan ordainaren portzentajea, 1970-2005.
Lan ordain osoan sartzen dira langileen babes soziala eta erretiro aseguratuko eta langabezia aseguratuko ekarpena




Oharra: Austria, Finlandia eta Suediako 1991ko datuak ez daude sartuta 1991n ez zeudelako Europar Batasunean.

Iturria: Eurofound.

4. irudia

Lan intentsitatea. Lan intentsitatearen bilakaera
(laneko estres baldintzetan lanean ari diren herritarren portzentajea). EB-15, 1991-2005

4. grafikoak adierazten du laneko intentsitatea eta estresa EB-15eko ia herrialde guztietan handitu zirela. Presiopean bizi diren langileen kopuruak gora egin zuen 1991ko % 32tik 2005eko % 45era. Horren ondorioz, laneko kontuekin zerikusia duten gaixotasunak areagotu egin dira lantokietan.



5. irudia

Biztanleko gastu publiko sozialaren hazkunde tasaren murrizketa

1. taula

Soldata ordezkenerako tasak gaixotasun, lan istripu eta langabezia aseguruetan eta ordezkenera horien murrizketa portzentaje handiena 1975-1995 aldian (bost urteko aldietan).

Tradizio politikoaren arabera sailkatutako 16 herrialdeetako datuak

Tradizio Politikoa	Herrialdea	Gizarte Segurantzako Programa								
		Gaixotasuna			Lan istripua			Langabezia		
		Maila	Murrizketa		Maila	Murrizketa		Maila	Murrizketa	
Liberala	Australia	48,4	-10,1	a				48,4	-10,1	a
	Kanada	62,9	-15,4	a				72,7	-13,1	a
	AEB							59,8	-12,8	a
	Irlanda	56,3	-33,5	c	64	-31,5	c	56,3	-34,9	c
	Zeelanda Berria	57,5	-34,7	c	94,3	-16	a	57,5	-25	a
	Erresuma Batua	63,4	-43,1	a	71,6	-51,3	a	63,4	-39,9	a
Kristau-demokrata	Alemania	100	0		100	0		74,3	-6,4	a
	Austria	99,2	-4,6	c	100	-3,4	c	47,4	-10,1	c
	Belgika	91,9	-0,3	a	100	-3,7	a	76	-28,1	b
	Frantzia	55,7	-6,8	a	66,8	0		41,1	-7,2	c
	Italia	68,1	0		74,1	0		86,8	-23,8	b
	Herrialde Behereak	84,7	-14,7	b	84,7	-14,7	b	81,6	-13,2	b
Sozial-demokrata	Danimarka	74,7	-21,4	b	74,7	-21,4	b	81,9	-24,5	a
	Finlandia	86,1	-10,3	d	100	0		59,1	-5	d
	Norvegia	55	0		55	0		73,5	-10	a
	Suedia	90,3	-13,8	c	92,6	-21,8	c	77,1	-7,3	d

Nota: aurreko gehieneko urteak: a = 1975, b = 1980, c = 1985, d = 1990.

Fuente: *New Politics and Class Politics in the context of Austerity and Globalization: Welfare State Regress in 18 Countries, 1975-95*. Walter Korpi eta Joakim Palme in *American Science Review*, 97. lib., 3 zk. 2003ko abuztua.

5. irudiak adierazten duen bezala, gastu publiko sozialaren hazkunde tasa murriztu egin zen 1990-2004 aldian. 1. taulan ikusten da onura sozialak (gaixotasunagatiko ordaina, lan istripuagatiko ordaina eta langa-bezia aseguruak) EBko herrialde guztietan murriztu zirela 1975-1995 aldian. Herrialde anglosaxoi liberaletan (Australia, Kanada, AEB, Irlanda, Zeelanda Berria eta Erresuma Batua) izan da onuren murrizketa handiena, herrialde kristau-demokratetan bigarren handiena eta sozialdemokratetan hirugarren handiena; murrizketa ez da lineala; murrizketa batzuk nabarmenagoak dira herrialde sozialdemokratetan zenbait herrialde liberaletan baino. Baina EB-15eko herrialde guztietan murriztu ziren onura sozialak.

Irudi eta taula hauek adierazten duten bezala, langileentzako eta klase apalentzako lan baldintzak eta onura sozialen estaldura narriatu egin dira eta hori ez dator bat enpresa klasearen mozkin handiekin. 1999tik 2006ra bitartean, mozkinak % 33,2 handitu ziren AEBn eta % 36 Eurogunean. Lan kostuak, aldiz, % 18,2 bakarrik handitu ziren.

Laburbilduta, EB-15 sortu zen urteetan kapital sarrerak areagotu ziren bitartean langileen diru sarrerak murriztu egin ziren, soldata desberdintasunak areagotu egin ziren, erregresibotasun fiskala areagotu egin zen, onura sozialak murriztu egin ziren eta baita babes soziala ere eta horrek guztiak gizarte desberdintasunak areagotzea ekarri zuen. Aldi berean, EB-15eko herrialdeetako gero eta jende gehiagok uste du gizarte desberdintasun gehiegi daudela (% 78, II. Mundu Gerraz geroztik portzentaje handiena). Langile klaseetako eta klase apaletako askok uste du euren egoera soziala narriatu egin dela EB ezarri izanaren ondorioz garatutako politikengatik. Arrazoi al dute?

Zer azalpen du Europaren aurkako sentimenduak Europako klase langileen artean?


Galdera horri erantzuna emateko kontuan izan behar da, lehenik eta behin, zein diren Europako establishment deiturikoak —Bruselako Hitzarmena— ematen dituen arrazoiak EB-15eko herrialdeetan langabezia hazi izana azaltzeko. EBko establishment deiturikoak hiru faktoreri leporatzen die hazkunde hori:

- a) lan merkatuen gehiegizko erregulazioa,
- b) gehiegizko eskuzabaltasuna onura sozialetan, eta
- c) gehiegizko gastu publikoa.

Horren ondorioz, Kontseiluak, Europar Batzordeak eta Europako Bantzu Zentralak (EBko establishmenteko kide garrantzitsuenak) honako neurri hauek sartu dituzte:

- a) lan merkatuak araugabetzea sustatzen dutenak,
- b) gastu publikoaren murrizketak edota gutxiagotzeak sustatzen dituztenak. Adibide bat, beste askoren artean, Pedro Solbesen adierazpena da, hainbat urtez EBko Ekonomia eta Diru Gaietarako Europako Komisario eta Espainiako Gobernu Sozialistaren Ekonomia Ministro izan zenarena: «Gehien harrotzen nauen politika Espainian gastu publikoa ez handitu izanarena da», EBko gastu publiko txikiena duen (Portugalen ondoren) herrialdean egindako adierazpena; eta
- c) onura sozialen murrizketa; baimendutako laneko denbora asteko 65 ordura gehitzeko Europako Batzordeak egindako proposamena izan da murrizketa horren adierazpen goren.

Egonkortasun hitzarmenean ezarritako diru politikaren esparruan hasi dira politika horiek. Hitzarmenaren arabera, batetik, austeritatea behar da gastu publikoan, eta, bestetik, Europako Banku Zentralaren politikak lehenestea, inflazioa kontrolatzeari lehentasuna eman diotenak hazkunde ekonomikoaren eta enplegua sortzearen gainean. Erresuma Batuan (Thatcherren gobernupean politika horiek garatu zituen lehen herrialdea), adin talde guztietan heriotza tasa astiro-astiro murriztea izan da politika horien ondorioetako bat, 6. irudiak erakusten duen bezala.



Fuente: Wilkinson, R.G., *Gizarte gaixotuak: desberdintasunaren atsekabea*. Routledge: Londres; 1994c. 5.10 irud. Egilearen eta Taylor and Francis Publishingen baimenarekin erreproduzitua.

6. irudia

Helduen, gazteen eta haurren heriotza tasetako aldaketa indizeak
(M&F konbinatua, Ingalaterra eta Gales, 1975-92)

Zein dira programa nazional baten osagai nagusiak herritarren bizi-kalitatea eta gizarte ongizatea hobetzeko?

Esku-hartze publikoen lehen helburua pertsonen boterea hartzea izan behar du. Beraz, bizi-kalitatea sustatzen duen politika nazionalak herritarren ongizatearen egitura mugatzaileetan oinarritu behar du eta bere osagai nagusien artean honako hauek egon behar dute:

- a) Herritarrek gizartean parte hartzea eta gizartean eragiteko ahalmena sustatzen duten politika publikoak. Gizartearen eta bere erakunde ordezkatzailen benetako demokratizazioa funtsezkoa da giza eskubideak bermatzeko.
- b) Herritarren segurtasuna eta babesa ahalbidetzen duten determinatzaile sozial eta ekonomikoak.
- c) Informazio bideetan askotariko balioak eta programak dituzten determinatzaile kulturalak.
- d) Lan bizitzako esku-hartzeak, lan ona, pizgarria eta ondo ordaindutakoa bermatzen dutenak.
- e) Ingurumena eta kontsumitzailea babesteko esku-hartzeak.
- f) Baldintza onak eta seguruak haurtzaroen, nerabezaroen eta zahartzaroen.
- g) Ongizate estatuaren zerbitzuen eta transferentzien hornidura, herritarren giza garapena ahalbidetzeko.

Nabarmendu egin nahi dut jendeak boterea hartzea funtsezkoa dela. Badakigu Atlantikoaren bi aldeetan, AEBn eta EBN, demokrazia krisian dagoela. Gizarteko ekonomia eta finantza taldeek erakunde ordezkatzailak oso kontrolatuta eta manipulatu dituztela ikusten da. AEBn, establishment politikoarekiko (jendeak «Washington» izenaz ezagutzen du) mesfidantza dago enpresa klaseak eragiten diola uste delako. 2008an hauteskunde primarioetan lehendakariarako hautagai aurkeztu ziren guztiak, John McCain barne, Washingtonen aurkako gisa aurkeztu ziren.

Antzeko egoera ari da gertatzen EBN. Herrialde guztietan, langile klasea Europako Proiektua errefusatzeko ari da, ekonomia eta finantza taldeak gutxienerako parte-hartze demokratikoarekin eraikitzen ari direlako. Frantziak, Holandak eta Irlandak Europako Konstituzioa errefusatu zuten bere garaian baina inkestek adierazten dute Danimarka, Suedia, Alemania eta beste hainbat herrialdeetako langile klaseak ere Europako Konstituzioaren aurka zeudela. Oso garrantzitsua eta urgentea da ordezkari politikoaren garrantzia berreskuratuko duen osasun eta bizi-kalitateko proiektua. Premiazkoa da erakunde ordezkatzailak arduratsuak izatea eta ordezkatuak ematea. Eta hor egin behar diot kritika OMEren Batzordearen txostenari.

Hasieran aipatu dudana bezala, Batzordea OMEren Determinatzaile Sozialen gainean ezarri izana txalotzen eta haren analisia eta gomendioak babestu nituen. Egia esan, Batzordeak Medikuntzako edo Bakearen Nobel Saria jasotzea gustatuko litzaidake egindako lanagatik. Batzordeak txosten sendo, zorrotz eta ausarta egin du, beste edozein txosten baino urrunago iritsi dena osasunaren eta bizi-kalitatearen erabateko garapena lortzeko oztipoak salatuta. Txosteneko «desberdintasun sozialek hil egiten dute» esaldiak indar kontserbadorak eta liberalak iraindu ditu, oso gogorra iruditu baitzaizkie txosteneko kontaketa eta diskurtsoa.

Baina kontua ez da desberdintasun sozialek hil egiten dutela, desberdintasun horien arduradunek (eta desberdintasunen onura jasotzen dutenek) ere hil egiten dutela baizik. Batzordeak saihestu egiten du botere kategoria (klase boterea, arraza boterea, genero boterea nahiz arraza boterea) eta ez du aztertzen boterea nola


sortu eta birsortzen duten erakunde politikoeak. Hori da txostenaren ahultasun handiena. Eta hori, kontu politikoak ukitu gabe politikez hitz egiten duten nazioarteko agentzien jardun sustraituan gertatzen da. Erakunde horiek, oro har, baliabideak birbanatzeko premia nabarmentzen dute baina ez dute adierazten zer baliabide, nola eta zer tresnarekin eta ezta nork kontrolatzen dituen ere. Oso apolitikoak izan nahi dute eta hor dago txostenaren ahultasuna.

Orain arte egin ditudan iruzkinak ez dira Batzordeari egindako kritika, OMEri —eta gaia jorratzen duten nazioarteko beste agentzia batzuei— egindakoa baizik. Agentzia horiek adostasuna lortzen ahalegintzen dira eta adostasunak ahaltsuenari ematen dio beti beto boterea. Mahaian eseritako ahaltsuren bat iraindu dezakeen edozein ondorio, gai edo terminologia ezabatu egiten da. Batzordearen txostena gehiago zentratzen da desberdintasun sozialek jendea nola hiltzen duten deskribatzen. Baina guk ezagutzen ditugu hiltzaileen izenak. Krimenaren inguruan badakigu nola gertatzen den prozesua eta ezagutzen ditugu agente erantzuleak. Eta guk, prozesua ez ezik, hilketa eragiten duten indarrak ere salatu behar ditugu. OMEk ez du inoiz hori egin, baina guk egin dezakegu eta egin behar dugu.

Gogora dezagun Chadwickek, Osasun Publikoaren sortzaileetako batek, 1848 eta 1854 artean Britainia Handiko Osasun Batzordeko Komisario izan zenean, herrialdeko klase pobreak heriotza kausa etengabe, gorrakor eta seguruaren eraginpean zeudela adierazi zuela, honako hau idatzita: «Egoera sozialaren emaitza pertsona horietako 20 mila edo 30 mila euren etxe negargarrietatik atera eta hiltzera eramatearen parekoa izango litzateke». Mende eta erdi geroago, milioika lagun modu horretan hiltzen dira, Iparrean nahiz Hegoan. Eta guk ezagutzen ditugu horren erantzule diren indar politiko, ekonomiko eta finantzarioak eta, horregatik, euren izenez salatu beharko genituzke.

Erreferentziak

- [1] Navarro, V. (1990), «Race or class versus race and class: mortality differentials in the U.S.», *Lancet*, 336:1238-1240.
- [2] Navarro, V. (2000), «Assessment of the World Health Organization Report 2000», *Lancet*, 356:1598-1601.
- [3] Navarro, V. (2000), «World Health Report 2000: Responses to Murray and Frenk», *Lancet*, 357:1701-1702; discussion. 1702-1703, 2001.
- [4] Williamson, J. (1990), *What Washington Means by Policy Reform*. Institute for International Economics, Washington, DC.
- [5] *New York Times*, September 12, 1992.
- [6] Virchow, R. (1941), «Die Medizinische Reform, 2», in H. E. Sigerist, *Medicine and Human Welfare*, 93.



LUIS MORENO

*Ikerketa irakaslea,
Giza eta Gizarte Zientzien Zentroa (IPP-CCHS),
Ikerketa Zientifikoaren Goi Kontseilua (CSIC)*

luis.moreno@cchs.csic.es, www.ipp.csic.es.

Maila anitzeko herritartasuna eta gizarte politikak

1. Sarrera

2007ko AEBko kredituen kolapsoak abiarazitako munduko finantza krisiaren ondoren, Europako Ongizate Estatuaren erronka gizarte ongizatearen eta aurrerapen ekonomikoaren arteko akordioa berritzea da, akordio hori baita europarren bizimodu askiesgarriaren eta Europako gizartearen arteko kohesioaren erantzule. Europan «asmatutako» ongizate estatuaren instituzioa egokitu behar da. Europar eredu bereizgarriaren —esaterako, AEBko edo Txinako eruedetatik bereziten den ereduaren— giza eskubide sozialak babesteaz gain, helburua herritartasun soziala aldaketak gerta daitezkeen ongizate eremuetan zabaltzea da.

Kapitalismo liberal anglosaxoiaren joera gizarte politikak murriztea da, eta zalantzarikoa da Espainiako Ongizate Estatuak presio horri aurre egingo ote dion. Espainiako gizarte babeserako sistemak estaldura nahiko zabala du (osasan zerbitzuak, pentsioak eta langabezia babesa), baina eskasa da familiarren babesari eta banakoen gizarte zerbitzuei dagokienez. Babes intentsitate txikia du, eta pribatizatze nahiz ongizatearen kostuak familiei eta herritarrei egokitzeko joera du (Moreno eta Rodríguez-Cabrero, 2007).

Ekarpen honen bigarren zatian, gizarte xahupenak atxikitze egoeran (*cost containment*) gizarte politikak gauzatzen diren esparru orokorra aztertzen da. Gizarte eskubideak murriztu arren (*retrenchment*), eskualdeetan eta estatuaren barruko gobernu mailatan gizarte herritartasuna zabaltzea daitekeela eta zabaltzea komeni dela proposatzen da. «Gizarte arrisku berriak» (NSR) izeneko eragina herritarrengandik hurbilen dauden eremuetan antzematen da, eta horrek banakoen arreta zerbitzuen nahiz «azken sareko» zerbitzuen hornidura indartzea eskatzen du, hurbiltasun eta proportzionaltasun printzipioei jarraiki. Ondoren, maila anitzeko herritartasuna eta gobernuaz aztertzen dira. Espainian «maila anitzeko herritarrek» talde identitateak eta hainbat gobernu mailaren arteko leialtasun harremanak partekatzen dituzte. Horrek eskualdeek gizarte politikak abiaraztea legitimatzen du, eskualde subsidiariorotasunaren eta kontu emate demokratikoaren printzipioen arabera. Ekarpen honen hirugarren atalean, Espainian gizarte politikak etorkizunean izango duten bilakaeraren bi erronka garrantzitsu identifikatzen dira: bata, kanpotik datorrena, europartze eta mundializazio testuinguruan *welfare state* edo ongizate estatuaren bideragarritasunari buruzkoa da; bestea, barrukoa, lan merkatu formalean emakumezkoen parte-hartzea handitzea eta generoen arteko berdintasun eskubideetan horrek duen

eraginari buruzkoa da. Azken iruzkinek, Europako Gizarte Ereduak arazoei aurre eginez gero, giza eskubide sozialak atxikitzearen garrantzia dute hizpide.

2. Xahupena atxikitzea eta ongizatea zabaltzea

Hirugarren milurtekoaren atariko urteetan, ideologia neoliberalak eta politikari neokontserbadoreek gizarte politikak zalantzan jarri dituzte. ELGAko herrialde garatu gehienetan bezala, Espainian ere jatorria eremu anglosaxoiean eta eremu horren eraginpean dauden herrietan (nagusiki, Australian, Kanadan, Estatu Batuetan, Irlandan, Zeelanda Berrian eta Erresuma Batuan) duen eraso ideologikoa «kutsatu» da. Proposamen neoliberal horiek politika publikoak formulatzeko eta abiarazteko paradigma aldatzarekin lotuta daude, paradigma aldaketa hori, besteak beste, proposamen hauetan dago oinarrituta: (a) arautu gabeko lan merkatuak eta soldaten polarizazioa; (b) bizi itxaropenak indibidualizatzea; (c) ekoizpen jardueraren finantza kontrola; (d) espekulazio kapitalak mugarik gabe mugitzea. 2007an finantza krisialdia hasi zenetik, «Kontinente Zaharrean» gogor kritikatu da kapitalismo eredu anglosaxoia, finantza gehiegikerien erantzule nagusia izan delako. Dena den, EBko estatu kideen uzurtasunak Europaren erantzun koordinatua oztopatu du, eta Europako Ongizate Estatuaren iraunkortasun sozial eta ekonomikoaren etorkizuneko bilakaerari buruz argitu beharreko kontuak azaleratu ditu.

Oro har, eta hirugarren milurtekoan sartuta, Espainian, Ongizate Estatuaren bilakaeraren ezaugarri nagusiak xahupena atxikitzea, bideragarritasunaren erreformak, eskualdeak dezentralizatzea eta irabazi asmorik gabeko merkataritza gizarte zibilaren hornidura uztea izan dira. Europar Batasuneko gainerako estatu kideetan bezala, hornidura hori xahupen publikoaren % 50 inguru da. Zehazki, «gizarte arrisku berriak» direlakoak sortu izanak birkonfiguratzea eskatzen duen erronka berria ekarri die ongizate estatuei, gauzatzeko dagoena eta ekintza profil zehatzik ez duena.

2.1. Gizarte arrisku berriak

Industrializazioaren ondorengo gizarteetako —edo gizarte industrial aurreratuetakoa— trantsizio sozioekonomikoek «gizarte arrisku berriak» (NSR) ekarri dituzte. Arrisku horiek, nagusiki, lan merkatuaren aldaketekin, lanaren eta bizitzaren arteko kontziliazioarekin eta Ongizate Estatuetan «lehenago gizarte arriskueta» (hala nola osasun zerbitzuan edo pentsioetan) izan diren aldaketen ondorioekin dute zerikusia. Gizarte arrisku berriak lau elementu nagusirekin lotuta daude:

- (1) Emakumeen zereginetan izan diren aldaketak, lan merkatu formalean emakumezkoen parte-hartzea handitu izanak agerian utzi dituenak. Halaber, hezkuntzan, prestakuntzan, soldatetan eta lan baldintzetan generoen arteko berdintasunaren aldeko eskaera areagotu egin da.
- (2) Trantsizio demografikoak eta familien osaeran izan diren aldaketak. Mendeko pertsona nagusien kopurua handitu da, haur eta gazteentzako arreta eta zainketa zerbitzuen beharrak ere bai, eta gero eta gehiago dira guraso bakarrek edota pertsona bakarrak osatutakoak.
- (3) Lan merkatuan hezkuntza maila txikiena duten edo «ezohiko» lanpostuak —soldata txikiko eta lan eskubide gutxiko postuak— dituzten langileen artean gizarte bazterketa areagotu egin da. Langabezia

kualifikazio profesional txikiko taldeetan edota deskokatze, azpikontratatzeko edo tertziarizatze prozesuak (*outsourcing*) jasaten dituzten taldeetan biltzen da.

- (4) Zerbitzu pribatuak hedatzea eta dirulaguntza nahiz zerbitzu publikoak desarautzea. Pentsio sistemak helduek eta horien kostuak igotzeko dirulaguntzak eta zerbitzuak apaltzea ekarri ohi du. «Lehenengo gizarte arriskuei» lotutako ongizate politiken «egozte» (*crowding out*) efektuek ekoizpen inbertsioak gutxitzea, enplegu kualifikatua nagusitzea (*pre-empting*) eta ordaindutako lana ez sustatzea eragin dezakete.

Horren guztiaren ondorioz, zenbait herritar talde ahulek behar berriei aurre egin behar diete, esaterako: (a) Ordaindutako lana eta familia erantzukizunak orekatzea (bereziki, haurrak edo pertsona nagusia menpekoak zaindu behar dituztenean; edo familiaren laguntzarik gabeko menpeko bihurtzen direnean); (b) lanpostu segurua eta egokia lortzeko gaitasuna eta prestakuntza ez izatea, edo trebakuntza zaharkitua izatea eta etengabeko trebakuntza prozesuen bidez hobetzeko aukerarik ez izatea; eta (c) Bitarteko pribatuak erabiltzea nahikoak ez diren gizarte zerbitzuak edo laguntza eta zerbitzu ez-segurua eta desegokiak eskaintzeko (Esping-Andersen *et al.*, 2002; Taylor-Gooby, 2004; Bonoli, 2005).

Gizarte arrisku berriek eragin ikaragarria dute herritartasun garaikidea kontzeptualizatzean ere. Demokrazia modernoan zuzenbide positiboan jasotzeaz gain, herritartasunak gizabanakoei beren erreferentzia komunitatean osagai aktibo izatera ematen dieten jardueren eta ohituren multzoa biltzen du. Herritartasuna, nagusiki, eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko oinarriko baliabideek osatutako estatusa da. Baliabide horiek erabiltzeko bereizkeriarik ez izatea da herritartasunaren baldintza ezinbestekoa eta nahikoa. Ondorioz, herritartasun politikak abiaraztea funtsezkoa da adierazpen juridiko eta konstituzional soilak edukiz hornitzeko (Moreno, 2000).

Egiaz, gizarte arrisku berriak sortzeko agerian utzi du ongizate politika publikoen tresna gehienak zaharkituak daudela. Bere garaian, tresna horiek eraginkorrak izan ziren, esaterako, gaixotasun eta langabezia egoeratan edo zahartzaroko pentsioetan, eta Europako herrialdeen legedietan berme eskubide gisa sendotuta daude. Orain, babes politika pasibo «zaharrak» ez dira nahikoak egoera berriei erantzuteko, hala nola lanaren eta familiaren arteko kontziliazioari, belaunaldien arteko desorekari edo herritarrei eskaintutako zerbitzuen, esaterako, hezkuntzaren, osasunaren edo gizabanakoen zaintzaren merkaturatzeari (Naldini, 2006; Moreno, 2009).

Ongizate Estatuak heldutasunera iristeak eta gizarte arrisku «zaharren» estaldurak eragindak «egozte» efektuak (*crowding-out*) gizarte xahupena astunegia bihurtu duela argudiatu izan da. Ekonomismo «ortodoxo» neoklasikoak gizarte ongizateak ezinbestean atzera egingo zuela (*welfare retrenchment*) eta are babes sistemak desegingo zirela zabaldu du. Hala, eskaeren eztegiari soilik erabakien inplosioaz erantzun dakiokela diote (baliabiderik ezak eraginda), eta, ondorioz, gizarte arrisku berriei erantzuteko programa publiko berriak finantzatzea ezinezkoa dela. Egiaz, Ongizate Estatuak sustengatzeko zailtasun finantzarioak hainbat joera ideologikoko gobernuentzat «iraunkortasuna» eta «xahupenak atxikitzea» (*cost-containment*) lehentasunezko helburuak izatea eragin du (Kuhnle, 2000; Pierson, 2001; Esping-Andersen *et al.*, 2002; Taylor-Gooby, 2005).

«Gizarte arrisku berrien» eragina herritarrengandik hurbilen dauden eremuetan antzematen da, eta horrek banakoen arreta zerbitzuen nahiz «azken sareko» zerbitzuen hornidura indartzea eskatzen du, hurbiltasun eta proportzionaltasun printzipioei jarraiki. Ondoren, horren garrantzia nabarmentzen duten hainbat alderdi aztertzen dira.

2.2. Maila anitzeko herritarrak eta gobernua

Subsidiariorotasun printzipioa Europar Batasuneko 1992ko Itunean, Maastrichteko Itunean aldarrikatu zen formalki. Oro har, erabakiak transnasionalki (Batasuneko instituzioek) soilik estatu, eskualde eta udal mailek ezin dutenean hartuko direla ezartzen du. Bestela esanda, erabaki publikoak hartzeko prozesuentzako herritarrengandik hurbilen dagoen eremua lehenesten du.¹ Estatuetak elite politikoek, europartze prozesuan bote-rea eta eragina galduko duten beldur, subsidiariorotasun printzipioa estatu kideen barne «subiranotasuna» babesteko tresna gisa eta, beraz, beren herrialdeetan eta EB osoan protagonista politiko bakarrak izango direla ziurtatzeko tresna gisa interpretatu dute behin eta berriro.

Europartze prozesuarekin bat, dezentralizazioak baliabideen eta eskumenen esleitzea hobetzeko erronkari aurre egiten dio, lurralde subsidiariorotasunaren eta erantzukizun demokratikoaren (*democratic accountability*) printzipioetan oinarrituta. Estatuaz azpiko gobernu —eta gobernamendua—² mailen modernizatze estra-tegientzat lurralde subsidiariorotasuna bultzada berritzailea izan da programa «zaharrak» arrisku egoera «berrietara» egokitzeke politikak esperimentatzeko. Maiz, herritarrengandik hurbilen duten gobernu unitateak «demokrazia laborategi» eta «kontu emateko maila» (*layers of accountability*) bihurtu dira (Goodin, 2008). Berrikuntzaren sariak (*payoff*) «nik agintzen dut eta kitto» bertikalean oinarritutako eredu nazionalen ohiko uniformetasuna gaintitzen du. Hau da, —arazo «berriak» edo konponbideak— berritzeko beharra zenbat eta handiagoa izan, orduan eta zentzu handiagoa du funtzio hori estatuaz azpiko gobernu batek hartzea (Donahue, 1997). Gizarte arrisku berriek eragindako egoera sortari aurre egiteko estatuaz azpiko gizarte politiken artean, hauek dira lehentasunezkoak:

Optimotasuna. Maiz, tamainan eta gizarte politiken (adibidez, zainketa pertsonalen zerbitzuen) hornidurarekiko eskala egokiagoa duten ekonomian oinarrituta.

Kontu ematea. Estatuaz azpiko mailen eta, bereziki, maila ertaineko komunitate politikoetan, erantzukizun demokratikoak herritarren parte-hartzea bultzatzen du (adibidez, programa sareen bidez eta eskualdeko «babes koalizioak» sortuta).

Legezketasuna. Europar Batasunak gutxien garatutako eskualdeen beharrak kohesio funtsez bidez finantzatzek babestua.

Lankidetzeta. Politikak abiarazteko prozesuen arteko mendekotasunaren eta baliabide publiko nahiz pribatu-entuen optimizatzearen ondorioz (adibidez, ongizate agregatua edo *welfare mix*).

Birkalibratzea. «Lokalismo kosmopolita»³ ikuspegia duten eskualdeek ez dute Nazio-estatuetak elite zentralen aginduzko «babesletza» behar.

¹ Egiaz, Maastrichteko Itunak bi subsidiariorotasun definizio jasotzen ditu. Lehenak izaera substantiboa du eta 1. artikulua- ren Atarikoan jasota dago; bertan, hartu beharreko erabakiei buruzko ideia politiko zabal eta kontzeptuala adierazten da. Bi- garren definizioa 5. Artikuluan dago (lehengo 3b), prozedura izaera du, eta legalki inplementatzeak arazoak ekarri ditu (van Hecke, 2003).

² Bestalde, subsidiariorote «horizontalak» inplikaturako eragile asko (*stakeholders*) mobilizatu ditu, eta horiek erabakiak hartzeko prozesuen eta eskualde mailako politiken gobernamenduaren garrantzia nabarmendu dute.

³ Europan lokalismo kosmopolita hedatzea elkarte interesek duten helburu honetan oinarrituta dago: tokiko komunitate sena garatzea, nazioarteko parte-hartze aktiboa barneratuta. Hala, partikularitasuna ea orokortasuna bateratzen dira (Moreno, 2005).

Esan bezala, frankismoaren ondorengo Espainiako demokratizatzeko eta modernizatzeko prozesuaren ezaugarri berezia dezentralizatzeko politiko eta administratibo bizia izan da, maila anitzeko gobernamentua ahalbideratu duena (Hooghe eta Marks, 2001; Moreno, 2003). Espainiako federalizatzeko progresibo eta inductiboak nazionalitateen eta eskualdeen arteko «konparaziozko bidegabekeria» imitazio efekturantz —edo «autonomia mimesirantz»— bideratu du. Espainiako eskualdeek Espainia Europako herrialde aurreratuenekin parekatu den bezala berdintzeko nahiak adierazten du mimesi hori.⁴

Halaber, efektu erakusgarri horrek, politika publikoen ekoizpenean etekinak *ex post* parekatzeaz gain, gizarte ongizatearen eremuan programak berritzea eta esperimentatzea *ex ante* sustatzeko balio izan du. Gutxieneko txertatzeko errentak jardura horien lehen adierazleak izan ziren.⁵ Ondorioz, Espainiako Autonomia Erkidegoek gizarte politiken horniduran protagonismoa hartu dute. Maila ertaineko gobernuak politika berritzaileak abian jarri dituzte, eta horretarako herritarren iritzia oso kontuan izan dute. Espainiako herritarren herenak Autonomia Erkidegoek, gizarte zerbitzuez gain, osasun eta hezkuntza zerbitzuak hornitzeaz arduratu behar dutela uste dute. Gehienek (% 58,2) soilik pentsioei dagokienez uste dute administrazio zentralak kudeatu behar dituela. Halaber, aintzat hartu behar da inkestaren % 15,2 udalerrriak gizarte zerbitzuen horniduraz arduratzearen aldekoak dira. Eskumen horrek Autonomia Erkidegoena izan beharko lukeela uste duten % 33,6 erantsita, Espainiako herritarren erdiek gizarte arrisku berriei aurre egiteko funtsezkoa den eskumen hori estatuaz azpiko (udaletako edo eskualdeetako) gobernuen ardura izan behar duela uste dute (CIS, 2005; Arriba, Calzada eta del Pino, 2006).

Ezaugarri soziodemografikoen, identifikazio politikoaren, kudeaketa ahalmenaren edo eskualdeek ahalmen horretaz duten ikuspegiaren arteko aldeak ez dira erabakigarriak gizarte politiken eskumenak hainbat gobernu mailen esku uzteari dagokionez. Alderdi nazionalisten edo erregionalisten boz-emaelek gizarte politiken horniduran estatuaz azpiko gobernuak ardura gehiago izatea nahi dute, eta, itxuraz, horrek adierazten du Espainiako herritarren lehentasunen osagai kultural eta historikoen eskumenak «berreskuratzeko» nahi handiagoa eragiten dutela.

3. Gizarte herritartasunaren erronkak

Oraindik europarrak herritartzat baino langiletzat jotzen dituen ikuspegia da nagusi. Gehienetan langile horien gizarte eskubideak herrialde bakoitzaren legedian oinarrituta erabiltzen dira, eta hori ez dator bat beti Europako herritar estatusaren kontzeptuarekin. Lan arloko ulermen maila hori ere ez dator bat kontinente osoko gobernu ekonomiko koordinatuarekin, zoritxarrez, 2007an hasitako krisialdiak agerian ipini duenez. Europako herrialdeen gizarte egoera bereziak super-estatu batean edo Europako Estatu Batuetan urtuko direla pentsatzea

⁴ Europako batez bestekoarekin parekatzeko nahiak, hein batean, azken hamarkadatan Espainia ekonomikoki Europako herrialde nagusiak baino gehiago hazi izana azaltzen du. Gogoan izan 1945ean Espainiako biztanleko errenta Europako batez bestekoaren % 49,3 zela (erosteko ahalmen paritarioari dagokionez). 1985ean % 69,8ra iritsi zen eta, 2009an, % 95,2an (EB-15). Aurten Espainia 27 kideko EBren batez bestekoaren % 102,6ra iritsi da (González-Temprano, 2003; Moreno, 2004; Eurostat).

⁵ Gutxieneko txertatzeko errentaren lehenengo programa EAEn abiatu zen 1989an, Frantziako *Revenu Minimum d'Insertion* (RMI) delakoaren gidalerroetan oinarrituta 17 eskualdeetan. Halako programa bat abiarazten azkena, Balear Uharteetako izan zen, 1995ean. Gutxieneko errenten programa autonomikoen xede orokor bera dute, helmenean, estalduran edo onuradunak txertatzeko formulatan aldeak izan arren (Arriba eta Pérez-Eransas, 2007).

zaila da, zenbait pentsalari neofuntzionalistek hori modu hierarkizatuan, «goitik behera» (*top-down*), egin daitekeela iradoki arren. Lurraldetasunaren elementuak funtsezkoa izaten jarraituko du, etorkizunean hainbat sistema politiko garatzeko. Europa batu eta bateratua gerta daiteke. Hori gertatzekotan, europar izaera zibilizatzailearen protagonistak ez dira soilik gaur egungo nazio-estatuak izango. Estatuaz azpiko komunitate politikoen eta komunitate horien maila ertaineko gobernuen bultzadaren eraginez, zenbaitetan, horien protagonismoa parte diren estatuenarekin parekatuko da.

Espainian, datozen urteetan, immigrazioa lehentasunezko gaia izango da gizarte ongizate politiketan, bereziki, etorkinen bigarren belaunaldiaren gizarteratzea eta Espainiako Ongizate Estatuaren gizarte laguntzak horien eskura jartzea. Biztanleria zahartzea eta elementu horren alderdi guztiak ere eremu nabarmenak izango dira etorkizuneko gizarte politiken horniduran. Hala ere, zahartzearen edo immigrazioaren erronkak artikulatzea ez da soilik Espainiako herritarrek Ongizate Estatuari emango dioten zilegitasun handiaren mende egongo (Arriba *et al.*, 2006). Zehazki, Espainiako Ongizate Estatuaren datozen urteetako erronketako bi funtsezkoak dira etorkizuneko erreformei dagokienez. Bata, kanpotik datorrena, europartze eta mundializazio testuinguruan *welfare state* edo ongizate estatuaren bideragarritasunari buruzkoa da. Bestea, barrukoa, emakumezkoek ongizatearen horniduran duten zereginari eta emakumeak «etxe barruko» kontutzat ala Espainiako gizarte osoaren erantzukizuntzat jotzeari buruzkoa da. Ondoren, etorkizuneko bi garapen eremuak labur aztertu ditugu:

3.1. Europartzea eta paradigma aktibatzailea

1990eko hamarkadan, dagoeneko, europar politikak, nagusiki, Europar Batasunean integrazio ekonomiko handiagoa lortzeko abiarazi ziren, Merkatu Bakarra eta, aurrerago, moneta bakarra ezarri ondoren. Horrekin bat, EBko erakundeek barne «merkatu irekian» lehia babestu eta sustatu zuten. EBko herrialdeek aldaketa sakonak egin zituzten politika ekonomiaren ikusmoldeetan, eta herrialdeen zorra mugatzea onartu zuten, finantza publikoak «sanotzeaz» bat. Gainera, inflazio maila baxuei eutsi zieten, eta horrek soldaten hazkundea moteltzea eta gizarte segurantza sistema publikoen kotizazioak egonkortzea ekarri zuen. Europar ekonomietan aldaketak egin beharra argudiatzeaz gain, globalizazioaren diskurtsoa estatu kideen barne eremuetan ongizatearen elkartasunerako hitzarmenak aldatzen saiatzeko erabili zen (Palier eta Sykes, 2001; Moreno eta Palier, 2005; Guillén eta Gutiérrez, 2008).

EBko estatu kideetako gobernuak Keynesen eraginpeko politika ekonomiko tradizioetatik aldentzea erabaki zuten, kontsumoa eta hazkunde ekonomikoa bultzatzeko. Zerga krisialdi betean, Bigarren Mundu Gerraren ondoren ezarritako makro-kontsentsuaren⁶ gainbeherak kapitalismoaren logiken eta ongizatearen elkartasunaren arteko konpromiso neokorporatibista —geroz eta ezegonkorragoa— ekarri zuen⁷. Ongizatearen kapitalismoak «aldaera» asko izan arren, guztiek helburu estrategikoak bateratu zituzten, eta barne mer-

⁶ «Mende Erdiko Konpromisoa» (*Mid-century Compromise*) Ongizatearen kapitalismoaren herrialde industrial aurreratuetan jabetza pribatuaren eta gizarte eskubideen artean (edo kapitalaren eta lanaren artean) lortutako hitzarmen inplizitua izan zen. Elkarren arteko kontzesioen bidez, kapitalismoaren berezko desberdintasunen eta masa herritartasunaren berdintasunen arteko gatazka sorrak instituzionalizatu ahal izan ziren (Crouch, 1999).

⁷ O'Connor (1973), Gough (1979) eta Offeren (1984) tesiak hizpide dituen «O'Gofferen ipuina»ren arabera (*O'Goffe's tale*), elkartasun ongizatea atxikitzeke kontraesan gaindiezin bat badago, sistema liberalaren legitimazio sozialaren elkarren aurkako prozesu eta metatze kapitalistaren mekanismoen babesaren eraginez (Moreno, 2000).

katuetan giza kapitala optimizatzeko kezka partekatzen hasi ziren, munduko merkatuan abantaila konparatiboa lortu nahian.⁸

Paradigma ekonomiko berriak estatu aktibatzaile —edo «gaitzaile» (*enabling*)— schumpeteriarraren arauak barneratu zituen, merkatu askea arrakasta ekonomikorako *sine qua non* baldintzatzen lehenetsita. Helburua herrialdeen ekonomien lehiakortasuna indartzea izan da, ongizate politikak malgutasun eskaeren menpe utzita, eta herritarrek beren ongizatearen ardura har zezaten sustatuta (Jessop, 1994; Moreno eta Serrano, 2007). Gobernu gehienek politiken aldaketak eta erreformak Maastrichteko Itunak ezarritako irizpideak betetzeko nahitazeko eskakizunak zirela argudiatu zuten. Hala, dinamika ekonomikoa, politikoa eta soziala diskurtso politiko eta gizarte nahiz ongizate politika publikoen lanketa eta hornidura bateratuan bildu ziren. Ondorioz, europartze prozesuan ezin saihestuzko erreformatzat jo zituzten (Scharpf, 1996; Moreno eta Serrano, 2009).

Europako ongizate estatuak, hein handi batean neoliberalismoaren diskurtso politikoaren eta kapitalismo anglosaxoiaren aldaerak egindako erasoaren eraginez, oraindik ere galdera honi aurre egin behar diote: zer ongizate maila da ekonomikoki iraunkorra? Erantzuna gizarte babeserako sistemen «iraunkortasun» kontzeptuak berak baldintzatzen du. Gizarte balio partekatuek eta herritartasunak garrantzia handia hartzen dute gizarte politikak instituzionalizatzeko eta horien finantziazioa bermatzeko. Hala, adibidez, zerga sistema progresiboen zilegitasuna balio parekatuen sistemen parte da gizarte europarretan. Ez da harritzekoa «*tanta* jarioaren ekonomia neoliberala» delako bertsiok (*trickle down economics*)⁹ mugak unibertso axiologiko europarrean topatzea.

Hala ere, kapitalismo neoliberal anglosaxoiak eragindako krisiari kapitalismo «koordinatu» europarrak gaur arte eman dion erantzuna ez da batere «koordinatua» izan. Azken bosturtekoetan, EBko erakundeak behin eta berriro gomendatu dute ongizate sare nazionalak indartzea, beharrezko gizarte kohesioa lortzeko. Informazioaren gizartearen aldaketa sozioteknikoa ahalbidetzeaz gain, horrek Europaren erantzun ekonomiko lehiakorra erraztuko luke, AEBren eta Japoniaren indar multinazionalarekin eta goraka ari diren Txina eta Indiaren ekoizpen kementsuarekin lehiatzeko. Erantzun gehienak estatu kide bakoitzak erabakitakoak izan dira, horrela merkatu globalizatuaren lehian zituzten abantailak eta gizarte babeserako sistemak atxikiko zituztelakoan. Dena den, finantza fluxuen bilakaerari erreparatuta, badirudi eremu anglosaxoiaren ohiko indibidualismo «birmerkaturatzailearen» eredu edo Asiako gizarte *dumpinga* lehenesten direla.

Molde axiologiko komuna duen Europako gizarte ereduaren etorkizuneko bilakaera estatu kideen interes nazionalak eta gizarte politikak atxikitzearen mende egongo da. Gizarte politika horiek: (a) lan merkatu

⁸ «Kapitalismoaren aldaeren» ikusmoldearen arabera, ongizate sistemak ahokatzeko politiko eta ekonomiko jakinak egokitzeko sistemak dira. Alde handiena ekonomia eredu hauen artekoa da: ekonomia anglosaxoiak, liberalak eta desarautzeko joera dutenak (AEB eta Erresuma Batua); eredu «renanar» kontinentaleko ekonomiak; eta iparraldeko ereduak, enpresarioen, sindikatuen, finantza erakundearen eta erakunde publikoen arteko negoziatioetan eta akordioetan oinarritzen direnak (Soskice, 1999; Hall eta Soskice, 2001). Teoria politiko liberalari lotutako «kapitalismo anglosaxoi» terminoa Michael Albertek zabaldu du, (1993) eta kapitalismo garaikidearen aldaera liberalarekin erlazionatu du.

⁹ *Reaganomics* delakoaren eta «neocon» proposamenen ohiko ikuspegi honen arabera, aberatsenei eta goi mailako enpresei dirua emanez gero (zerga gutxiago ordainduta) hazkunde ekonomikoa sustatzen da, eta horrek gizarte osoarentzat inbertsio gehiago eta goraldi ekonomikoa ekarriko du. 2007an piztutako krisialdiak ikusmolde hori «gezuratu» du. Hasieran horren alde zegoenetako bat, politika horien emaitzak kritikatzeko hasi zen, desberdintasuna eta zerga defizita areagotzen zaituztelako, eta inflazioa, geldialdia eta gizartearen prosperitatea gutxitzea eragiten zutelako (Stockman, 1986).

malgu eta irekietara egokitu beharko dute; (b) xahupena atxikita, gizarte xahupen politikak arrazionalizatu beharko dituzte; (c) zerbitzuen hornidura sektore pribatura selektiboki eskualdatu beharko dute; eta (d) gizarte babesaren erantzukizunaren zati bat banakoengan eta familiengan utzi beharko dute. Horrek guztiak funtsezko eragin erabakigarria izango du etorkizunean Espainiako ongizate politikak taxutzeko.

Lan jardueraren sustapenari dagokion paradigma aldaketak, zeharka, Europako ongizate erregimen guztiei eragin die, eta aztertzea komeni da, eskortzoan bada ere. Paradigma aktibatzailearen izaerari eta helmenari buruzko eztabaidak indibidualizatzea eta kontraktualizatzea ere ditu hizpide. Ondoren, alderdi horiek aztertuko ditugu:

- a) *Indibidualizatzea*. Banakoen jokabideetan, motibazioetan eta jarreretan eragitean datza, aberastasuna bidezketasunez banatzeko baldintza politiko egokiak finkatzean baino gehiago. Aktibatze politikak interbentzioak gero eta gehiago pertsonalizatzea sustatzen dute, eta eragindako gizabanakoaren parte-hartzea areagotzea eskatzen dute. Politika horien erreferente normatibo eta legitimatzailea banako subjektua da.
- b) *Enplegua*. Politika aktibatzaileen helburua enpleguaren bidez parte-hartze eta autonomia ekonomikoa bultzatzea da. Gizabanakoek lan merkatuan dituzten jarreretan eragiteko politikak dira (sustatu, gogatu, motibatu). Beraz, herritartasuna baliatzen ari diren subjektuen bizitzako eremu ekonomikoaz arduratzen dira nagusiki, eta ez hainbeste eremu politikoaz edo sozialaz.
- c) *Kontraktualizatzea*. Paradigma aktibatzailea zuzentzearen eta legitimatzearen funtsezko metafora kontratua da. Baina, horrez gain, tradizionalki herritartasun kontzeptua artikulatzen zuten *gizarte kontratuaren* baldintzak aldatzea dakar. Funtsean kontratu moral bihurtzen dute. Hala, hala herritarrek beren eskubideak baliatzea baldintzapeko bihurtzen da, herritarrek parte-hartze ekonomikoan duten jarreraren menpeko.

Europako erakundeen paradigma aktibatzailea modu oso eraginkorrean zabaldu dute, baina paradigmatik politikak desberdinak eragin ditu. Zenbaitetan, gizarte herritartasuna baliatzeko aukerak indartu egiten dira, beste batzuetan, aldiz, merkatuaren legea beste elementu batzuen gainera dago, eta horrek soldaten asimetria areagotzen du (Serrano Pascual, 2004). Azken hamarkadatan paradigma aktibatzaile berriak ikaragarriko eragina izan du Espainian, eta hori adierazten du emakumeak masiboki lan merkatu formalean sartu izanak. Gai hori lantzen du hurrengo atalak.

3.2. Emakumeak lan munduan sartzea

Emakumezkoen lan jarduera tasa ikaragarri hazi izana Espainiako gizarte politiken etorkizuneko bilakaeretan gehien eragingo duen prozesu endogenoa da. Franco diktadorea hil ondoren, lan munduan sartzen ziren emakumeen kopurua zabaltzen hasi zen, eta joera hori azken bosturtekoetan areagotu egin da. Gogoan izan, 1977an, emakumezkoen lan jarduera tasa ez zela gizonezkoen tasaren erdira ere iristen. 1. taulan ikus daitekeenez, 1976-2009 aldian emakumezkoen lan jarduera ia hirukoiztu egin zen 25 eta 49 urte arteko adin taldean. Bilakaera horrek Espainiako ongizate erregimen «familistan» funtsezko aldaketa gertatu dela adierazten du, jarduera profesionalen eskakizunei aurre egiteaz gain, «etxe barruan» haurrak izateaz eta hazteaz arduratu behar duten adinean dauden emakumeei eragiten baitie. 2010ean, 25 eta 54 urte arteko 4 emakumezkoen lan jardueraren tasa ikaragarri hazi izana Espainiako gizarte politiken etorkizuneko bilakaeretan gehien eragingo duen prozesu endogenoa da.

kumeetatik 3 Espainiako lan merkatu formalean «aktibatuta» zeuden. Gainera, eta Europako erdialdeko eta iparraldeko beste jarrera eredu batzuetan ez bezala, Espainiako emakumeek lanaldi osoa egiten zuten lan,¹⁰ eta horrek etxeke lana eta lan profesionala «kontziliatzea» oso gaitz bihurtu zuen.

1. taula

Emakumeen lan jarduera tasa Espainian (1976-2020)

Adin taldeak	1976	1980	1985	1990	1995	2003	2010	Biztanleen % adin taldeka
16-19	48,57	39,97	31,97	30,25	21,77	18,4	19,64	4,49
20-24	53,49	54,71	54,53	61,20	57,95	56,36	64,25	6,57
25- 54	29,07	30,40	35,62	47,87	56,47	66,01	77,90	53,81
+55	13,84	11,24	10,05	8,99	8,46	9,68	15,22	35,13
Guztira	28,53	27,77	28,96	34,56	37,86	43,15	55,22	100,00

Iturria: Biztanleria landunari buruzko inkesta (INE, www.ine.es).

Jakina denez Espainian familiak ongizate estatuaren eremu guztietan eragiten du. Familia barruan emakumezkoen zeregin eskuzabalak ongizate politika publikoen gabeziak arindu ditu. Emakumeek lan merkatu formalean gehiago parte-hartzen dutenetik testuingurua modu erabakigarrian aldatzen ari da. Horrek berregokitze sakonak eragingo ditu ongizate laguntzen eta zerbitzuen erantzukizunetan. Mendekotasun Legearren abiarazte progresiboa erronka horien adierazle da. Mendeko pertsonen eta 80 urtez gorako biztanleen gizarte babesak, bizi-itxaropenaren nahiz 80 urtez gorako biztanle kopuruaren hazkundeak, Espainiako familien taimainaren eta funtzioen aldaketak, eta Espainiako emakumeek familia eta lana kontziliatzeko dituzten oztopoek (biztanle zaintzaile informalak % 85 emakumeak dira) epe ertainean emakumeen ordaindu gabeko lanetan oinarritutako zaintza informalak eredu tradizionala bideragarria ez izatea eragiten dute.

Ez dirudi Espainiako ama langileen egungo belaunaldiak etorkizunean beren amen eta amonen zereginak beteko dituztenik, horietako asko «super-emakumeen» belaunaldietakoak baitziren.¹¹ *Mater familias* horien nekeak eta jarduerak funtsezkoak izan dira gizarte mediterraneanen kohesio sozialerako, hazkunde ekonomikorako eta genero berdintasun handiagoa izateko. Hala ere, «super-emakumeen» hiperaktibitatea gradualki apaldu eta «familismo anbibalentea» aldatu ahala, banakoentzako gizarte zerbitzuen familiaren horniduran hutsune gero eta handiagoa azaleratzen da, eta horrek Espainiako ongizate estatuan eta etorkizunean izango duen zalantzazko bilakaeran zeharka eragiten du.

«Etxe barruan», generoen arteko berdintasunak eta emakumeen aldeko (*women-friendly*) politikek familien kultura birdefinitzean eta etxeke lanen banaketan eragiten dute (Moreno eta Salido, 2005). Alderdi hori

¹⁰ 2000ko datuen arabera, seme-alabak dituzten bikote espainiarren % 8an emakumeek lanaldi partziala lan egiten dute; Herbehereetan, berriz, % 53, Erresuma Batuan, % 40, eta Alemanian, % 33 (Moreno, 2007).

¹¹ «Super-emakumeak» etxeke lan ordaindu gabea eta lan merkatu formaleko jarduera profesional geroz eta estuagoa bateratze-gai izan diren emakumeak dira. 45 eta 66 urte artekoak «super-emakume» horien adierazgarri dira (Moreno, 2002).

ez dute aintzat hartzen lana aktibatzen eta gizarte zerbitzuak hornitzeko proposamenetan, baina funtsezkoa da ongizatearen erregimen mediterranearen etorkizuneko ikusmolde guztiak baldintzatzen dituelako.¹²

Familietan banakoen zaintza zerbitzuak kanpotik lortzeko joera geroz eta ohikoagoak bide berezia hartu du, Europa hegoaldeko beste herrialde batzuetan bezala. Nagusiak zaintzeko zerbitzuak etorkinei merke erosten zaizkie, batzuetan «ezkutuko ekonomia» delakoan (Da Roit *et al.* 2008; Moreno-Fuentes 2009b). Haurrak zaintzeko, berriz, estrategia mistoa zabaldu da: aitona-amona «amen» laguntza eskatzeko joera dago, eta, horrekin batera, haurtzaindegi formal nahiz informalen eskaera eta erabilera hazi egin da, eta curriculumetik kanpoko jardueretara maizago jotzen da (Marí-Klose *et al.* 2010). Prozesu osoa 2000-2010 hamarkadan erabat zabaldu da, eta horrek Espainian eta Europa hegoaldeko beste herrialde batzuetan zenbait konponbide kontingente lehenesten direla baieztatzen du. Konponbide horiek bat datoz zerbitzuak modu pribatuan eta noiz-nola hornitzeko eredu anglosaxoiarekin bat datoz, eta iparraldeko eta kontinenteko zenbait herrialderen egitura erreformen ohiko instituzionalizatzetik urruntzen dira.

Espainian, hiru mailatako gobernuek (zentrala, eskualdekoa eta tokikoa) zaintza pertsonalen merkatu pribatua zabaltzeari zuzentuz, baina lasaitasunez, erreparatu diote, diru publikoa «aurreztu» eta ongizate eta gizarte eremuko nahiz kanpoko jardueretara eta politiketara bideratu dezaketelako. Hala, familia zaintza eta zerbitzu pertsonalak merkaturatzea Europako hegoaldeko herrialdeek ongizatearen erreforma prozesuei eman dioten erantzun espezifikoak jo daitezke.

Esan bezala, Espainian emakumeen lan jardura hazteak eragin handia izango du, ez soilik generoen arteko berdintasun eskubideak erabiltzerakoan, Espainiako ongizate estatua berregokitzerakoan baizik. Konpondu beharreko ataka gizarteak emakumeen ama eta langile zereginenez espero duena kontziliatzea da. Hein handi batean, hori egokitzeak eta artikulatzeak ahalbidetuko du Espainiako ongizate estatu «familista» produktibitate ekonomikoa handitzeko eta gizarte kohesioa atxikitzeko erronka bikoitza moldatzea (Salido eta Moreno 2007).

4. Azken iruzkinak

Europar Batasunean gizarte herritartasuna elkartasunaren eta giza eskubideen printzipioak erabaki eta norberaren interes indibidualizatzaileen gainetik lehenesten dituen sistema axiologikoan oinarritzen da. Esaterako, zerga progresibotasunak errentak banatzeari buruz Europako eta AEBko herritarrek dituzten jarreraren eta ikusmoldeen arteko *cleavage* garbia da, eta errenten banaketa ekonomikoki oinarritzeko da gizarte babeserako sistemak atxikitzeko.¹³ Nazio-estatuak, gizarte babesaren eta ongizatearen aldeko ahaleginetan zilegitasun

¹² Adibidez, Espainiako familietan, lanaren sexuaren arabera banaketa oso mantso aldatu da: 1996an emakumeek, batez beste, gizonen baino 4 ordu eta 30 minutu gehiago jarduten zuten etxeko lanetan; 2001ean aldea 17 minutu murriztu zen. Joera horren arabera, 80 urte beharko lirake emakumeek eta gizonen etxeko lanak berdintasunez partekatzen (MTAS, 2003). Halaber, kontuan hartu behar da 2004an etxeko lanen % 75 emakumeek egiten zituztela; halaber, haurrak zaintzeko baimenen % 96,38 eta amatasun/aitatasun baimenen % 98,46 emakumeek hartu zituzten (www.fecyt.es/).

¹³ AEBko herritarren erdiek baino gehiagok pentsatzen dute aberatsek ez dutela pobreak baino zerga portzentaje handiagoa ordaindu behar. AEBko geroz eta zerga-ordaintzaile gehiago daude tasa iraunkorreko zerga (*flat-tax*) nozioaren alde. AEBn errentaren gaineko zerga programa nazional gisa abiarazi arren (1913ko Konstituzioaren 16. zuzenketaren arabera), progresiboki ezartzeak gutxienez babesa jaso zuen AEBn egindako inkesta publikoetan (Lewis-Beck eta Nadeau, 2009).

maila handia lortu du, baina «Europako ereduaren» laugarren bilakaera faseak dezentralizatzeko eta subsidiariorikotasun prozesuak modu eraginkorrean bateratzeko erronkari eusten dio, Europar Batasunean, estatuaz azpiko gobernu eta gobernamendu mailatan, elkartasun muga berriak eraikitze (boundary-building).

Europar herritartasuna hainbat testuingurutik (estatuaz gaindiko, estatuko eta estatuaz azpiko testuinguruetatik) datozen «identitate bateratuen» emaitza gisa kontzeptualizatu daiteke. Europako herritarrek adierazitako identitate anitzak komunitateekiko eta eskualdeekiko atxikimendu eta kidetasun kontinuum aldakorriak lotuak daude, berdintasun, elkartasun eta giza eskubide balioetan oinarrituta egon arren. Ildo horretan, maila anitzeko europarren herritar kulturaren adierazpena «gizalege konposatu» gisa kontzeptualizatu daiteke. Horrek guztiak gizarte politikak abiaraztea legitimatzen du, interes orokorraren (europarraren) printzipioa eta (tokiko/eskualdeko) hurbiltasun printzipioa aintzat hartuta. Maila anitzeko herritartasunaren funtzionaltasunaren eta lurraldetasunaren arteko doikuntzak ongizatearen bilakaera berritua bultzatuko duen ikusteko dago. Orain arte, bilakaera horren protagonismo ia osoa EBko estatu nazionalen eskuetan egon da.*


Bibliografia

- Albert, Michael (1993), *Capitalism vs. Capitalism: How America's Obsession with Individual Achievement and Short-Term Profit has led It to the Brink of Collapse*. Londres: Whurr.
- Arriba González de Durana, Ana eta Pérez Eransus, Begoña (2007), «La última red de protección social en España: prestaciones asistenciales y su activación», *Política y Sociedad*, 44 (2), 115.-133. or.
- Arriba González de Durana, Ana; Calzada, Inés eta Del Pino, Eloísa (2006), *Los ciudadanos y el Estado de Bienestar en España (1985-2005)*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Bonoli, Giuliano (2005), «The politics of the new social policies: providing coverage against new social risks in mature welfare», *Policy & Politics*, 33 (3), 431.-449. or.
- CIS (Centro de Investigaciones Sociológicas). Barómetro (2005eko otsaila). 2.594. azterketa www.cis.es/cis/openem/ES/1_encuestas/estudios/ver.jsp?estudio=4536
- Crouch, Colin (1999), *Social Change in Western Europe*. New York: Oxford University Press.
- Donahue, John (1997), *Disunited States*. New York: Basic Books.
- Esping-Andersen, Gøsta. Gallie, Duncan; Hemerijck, Anton eta John Mylesekin batera (2002), *Why we need a new welfare state*. Oxford: Oxford University Press.
- González-Temprano, Antonio (arg.) (2003), *La consolidación del Estado del Bienestar en España (1993-2000)*. Madril: CES.
- Goodin, Robert E. (2008), *Innovating Democracy: Democratic Theory and Practice alter the Deliberative Turn*. New York: Oxford University Press.
- Gough, Ian (1979), *The Political Economy of the Welfare State*. Londres: Macmillan.
- Guillén, Ana Marta eta Gutiérrez, Rodolfo (2008), «Treinta años de pactos sociales en España: un balance», *Cuadernos de Información Económica*, 203: 173.-181. or.
- Hall, Peter eta Soskice, David (arg.) (2001), *Varieties of Capitalism. The institutional Foundations of Comparative Advantage*. Oxford: Oxford University Press.

* Ekarpen hau «Welfare Attitudes in a Changing Europe» (European Science Foundation, MICIIN, CSO2008-02874-E/SOCI) eta «Política social y gobernanza multinivel: actores públicos y sinergias institucionales en España e Italia» (CSIC-CNR, 2008IT2009) ikerketa proiektuak garatu bitartean idatzi da.

- Hooghe, Liesbet, L. eta Marks, Gary (2001), «Types of Multi-Level Governance», *European Integration on-line Papers*, 5 (11), eiop.or.at/eiop/texte/2001-011a.htm.
- Jessop, Bob (1994), «The transition to post-Fordism and the Schumpeterian workfare state», in Burrows, Roger eta Loader, Brian (ed.), *Towards a Post-Fordist Welfare State?*, Londres: Routledge, 13.-37. or.
- Lewis-Beck, Michael; Nadeu, Richard eta Elias, Angelo (2008), «Economics, Party and the Vote: Causality Issues and Panel Data», *American Journal of Political Science* 52 (1), 84.-95. or.
- Marí-Klose, Pau; María-Klose, Margarita; Vaquera, Elizabeth eta Argeseanu Cunningham, Solvei (2010), *Infancia y futuro. Nuevas realidades, nuevos retos*. Bartzelona: La Caixa fundazioa.
- Kuhnle, Stein (arg.), *The Survival of the European Welfare State*. Londres: Routledge, 2000.
- Moreno, Luis (2000), *Ciudadanos precarios. La «última red» de protección social*. Bartzelona: Ariel.
- (2002), «Bienestar mediterráneo y supermujeres», *Revista Española de Sociología*, 2: 41.-57. or.
- (2004), «Spain's transition to New Risks: a farewell to "superwomen"», in Taylor-Gooby, Peter (arg.), *New Risks, New Welfare. The Transformation of the European Welfare State*, New York: Oxford University Press, 133-157.
- (2005), «Multiple identities and global meso-communities», in Lachapelle, Guy eta Paquin, Stéphane (ed.), *Mastering Globalisation. New Sub-States' Governance and Strategies*, New York: Routledge, 2005, 127.-140. or.
- (2007), «Europa social, bienestar en España y la "malla de seguridad"», in Espina, Álvaro (koord.), *Estado de Bienestar y competitividad. La experiencia Europea*, Madril: Fundación Carolina-Siglo XXI, 445.-511. or.
- (2008), *La federalización de España. Poder político y territorio* (2. ed.). Madril: Siglo XXI.
- (arg.) (2009a), *Reformas de las políticas de Bienestar en España*. Madril: Siglo XXI.
- Moreno, Luis eta Palier, Bruno (2005), «The Europeanization of Welfare: Paradigm shifts and social policy reforms», in Taylor-Gooby, Peter (arg.), *Ideas and Welfare State Reform in Western Europe*, New York: Palgrave Macmillan. 145.-175. or.
- Moreno, Luis eta Rodríguez Cabrero, Gregorio (2007), «Política social y Estado del Bienestar», in Pérez-Yruela, Manuel (arg.), *Sociología en España*, Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas/Federación Española de Sociología, 645.-666. or.
- Moreno, Luis eta Serrano, Amparo (2007), «Europeización del Bienestar y activación», *Política y Sociedad*, 44 (2), 101.-114. or.
- (2009), «Modelo Social Europeo y políticas sociales: una evaluación formativa institucional», *Gestión y Análisis de Políticas Públicas*, 2, 11.-32. or.
- MTAS (Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales) (2003), *Plan de Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres, 2003-2006*. Madril: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- Moreno Fuentes, Francisco Javier (2009), «La gestión del bienestar y la inmigración en España», in Zapata-Barrera, Ricard (arg.), *Políticas y gobernabilidad de la inmigración en España*, Bartzelona: Ariel, 73.-92. or.
- Naldini, Manuela (2006), *Le politiche sociali in Europa. Trasformazioni dei bisogni e risposte di «policy»*. Erroma: Carocci.
- Navarro López Viçenc (koord.) (2004), *El Estado del Bienestar en España*. Madril: Tecnos / Universitat Pompeu Fabra.
- O'Connor, James (1973), *The Fiscal Crisis of the State*. New York: St Martin's Press.
- Offe, Claus (1984), *Contradictions of the Welfare State*, Londres: Hutchinson.
- Palier, Bruno eta Sykes, Robert (2001), «Challenges and changes: Issues and Perspectives in the Analysis of Globalisation and the European Welfare States», in Sykes, Robert; Prior, Pauline eta Palier, Bruno (arg.), *Globalisation and European Welfare States: Challenges and Changes*, Basingstoke: Palgrave, 1.-16. or.

- Pierson, Paul (2001), «Coping with Permanent Austerity. Welfare State Restructuring in Affluent Democracies», in Pierson, Paul (arg.), *The New Politics of the Welfare State*, 410.-456. or. Oxford, Oxford University Press.
- Rodríguez Cabrero, Gregorio (1992), «Fundamentos teóricos de la política social», in Moreno, Luis eta Pérez-Yruela, Manuel (konp.), *Política Social y Estado del Bienestar*, Madril: Ministerio de Asuntos Sociales (Estudios), 21.-44. or.
- (2004), *El Estado del Bienestar en España: Debates, Desarrollo y Retos*. Madril: Fundamentos.
- (2010), «Gasto público social», *Economistas*, 123, 193.-201. or.
- Salido, Olga eta Moreno, Luis (2007), «Bienestar y políticas familiares en España», *Política y Sociedad*, «Estado del Bienestar y Política Social» zenbaki monografikoan, 44 (2), 31.-44. or.
- Sarasa, Sebastián eta Moreno, Luis (arg.) (1995), *El Estado del Bienestar en la Europa del Sur*, Madril: CSIC (Politeya).
- Sarasa, Sebastián (2007), «Pensiones de jubilación en España: reformas recientes y algunas consecuencias sobre el riesgo de pobreza», *Política y Sociedad*, 44 (2), 87.-99. or.
- Scharpf, Fritz (1996), «Negative and positive integration in the political economy of European welfare states», in Marks, Gary; Scharpf, Fritz; Schmitter, Philippe eta Streeck, Wolfgang, *Governance in the European Union*. Londres: Sage, 15.-39. or.
- Soskice, David (1999), «Divergent Production Regimes: Coordinated and Uncoordinated Market Economies in the 1980s and 1990s», in Kitschelt, Herbert; Lange, Peter; Marks, Gary eta Stephens, John (ed.), *Continuity and Change in Contemporary Capitalism*. Cambridge: Cambridge University Press, 101.-134. or.
- Stockman, David (1986), *The Triumph of Politics: How the Reagan Revolution Failed*, New York: Harper & Row.
- Taylor-Gooby, Peter (arg.) (2004), *New Risks, New Welfare: The Transformation of the European Welfare*. Oxford: Oxford University Press.
- Van Hecke, Steven (2003), «The principle of subsidiarity: ten years of application in the European Union», *Regional and Federal Studies*, 13 (1), 55.-80. or.



ARANTXA RODRÍGUEZ BERRIO

*Gizarte Lana eta Soziologia Saila,
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea,
Deustuko Unibertsitatea, Bilbo*

arodrig@deusto.es

Gizarte politiken etorkizuna: falaziak eta beste katastrofismo batzuk

Gizarte politiken etorkizuneko bilakaeraz galdetzen dugunean, erantzuna begien bistakoa dirudi, hasiera batean: une horretan gobernuan dagoenaren araberakoa izango da. Haatik, esperientziak erakutsi du, oraingo krisi garaian batik bat, beste faktore batzuk ere tartean daudela, eta horietako batzuek, gainera, presioa egiten dietela estatuei neurri jakinak har ditzaten. Paradoxa bada ere, neurri horiek orain arte gizarte politikak garatzean erabili izan diren oinarri ideologikoen aurkakoak izan daitezke. Gobernuak ez dira, ordea, horrelako neurriak onartzen dituzten bakarrak, herritarrok ere neurri horiek hartzearen beharra onartzen dugu, ez baitugu zalantzan jartzen aurkezten diguten errealitatea, esate baterako: «Pentsioen sistema publikoa jasanezina da, eta porrot egitera doa», «ongizate estatua eskuzabalegia da, eta ezin dio eutsi gizarte onuren maila horri»,... Gisa bereko argudioak ematen dituzten ezin konta ahala adibide topa genitzake. Garai batean eta bestean errepikatzen dira, ia modu berean adierazten dira, eta barneratzeko gaitasun bera dute planteatzen diren aldiro.

Hauxe da galdera: zergatik ematen diegu gertaera eztabaida ezin maila? Hori egitean, bidea errazten diegu guretzat erabat kaltegarriak diren konponbideei; izan ere, gure gizarte eskubideak urratzen dituzte, eta gure eta hurrengo belaunaldien bizi kalitatea murrizten. Zerk eramaten gaitu, beraz, egoera aldaezin hori onartzera, horren atzean gizarte talde jakinen, eta ez gehiengoaren, interesak babesteko jarrera guztiz ideologikoak gonda?

Estatu osoan banatutako egunkari batean adierazten zen moduan «ahots bakarreko oihu zalaparta» horretan zaila da bestelako ahotsak entzutea, adibidez, Ongizate Estatua, baliorik gabe utziko duten murrizketak egin gabe, mantentzearen erronkari aurre egiteko moduak proposatzen dituzten ahotsak. Oihu zalaparta horrek, ordea, aspaldian gortu gaitu.

Iraganeko krisiei begiratuta eta botere publikoek eman izan dituzten erantzunak kronologikoki ordenatzeko saialdi batean, hauxe irakurri dut: «Gobernuko presidentea konpontzeke dituen arazoez ohartzen da, hala nola: ontzigintza birmoldatzea; enpresa publikoaren saneamendua, non galerak kontrolaezinak di-

ren; “hipertrofiatuta” dagoen pentsio sistema erreformatzea; soldatak moderatzea; ekoizpen sistema malgutzeta; ...» Garai hartako gobernuko presidentearen hitzak, La Vanguardiako ostiraleko edizioan argitaratuak, 1984ko martxoaren 30ean, 41. orrialdean. Zerrendatik ontzigintzaren birmoldatzea kenduz gero, orduko krisia konpontzeko formulak eta gaur egun proposatutakoak berberak dira, hogeita bost urte igaro arren. Bitxia da: arazoak aldatzen dira, baina ez konponbideak. Behin eta berriro irakurtzen ditugun leloak dira, besteak beste, XXI. mendearen erronka berriak, gizarte errealtate berriak eta horien eraginez sortutako arazo berriak, gizarte harreman mota berriak, lana antolatzeko modu berriak, familia egituratzeko modu berriak. Berriak, berriak eta berriak behin eta berriro. Eta berritasun horren guztiaren aurrean, ezin konta ahala proposamen berri ditugu; alabaina, politika ekonomikoaren arloan, «berriak» egon arren, erantzunek bere hartan diraute: defizit publikoaren kontrola, zergen murrizketa, lan merkatuaren erregulaziorik eza, gizartea babesteko sistema erreformatzea.

Hainbestetan errepikatzearen ondorioz, konponbidea horixe dela pentsa genezake, baina, badira beste norabide batean doazen eta gizarte eskubideen murrizketarik gabeko erantzunak proposatzen dituzten ahotsak, eta horien aurrean, hain zuzen, falazia eta katastrofismo bihurtzen dira konponbide errepikakor horiek.

1. Bestelako alternatibak daude?

Ona da hiztegiara jotzea hitzen edukiaren dimentsio osoa ulertu ahal izateko, eta, horrekin batera, hitzen indarra bera jasotzeko. Falazia engainua da, iruzurra edo gezurra, norbait kaltetzeko asmoz egiten dena. Hortaz, politika ekonomikoaren arloan, falazia ez da soilik egia ez esatea, baizik eta zerbait ezkutatzea baten bat kaltetzeko eta norberaren onurara lortzeko. Falazia ez da onik ateratzeko esandako «gezur txikia», estrategia orokorraren tresna baizik, botere borrokaren testuinguruan. Eta horrekin batera katastrofismoa ageri zaigu; gehiegizko jarrera bat, beldurtzeko xedea duena edo gaitz larriak iragartzen dituen, eta, bide batez, falaziari lekua prestatzen diona, egiazat hartua izan dadin.

Biek, falaziak eta katastrofismoak, beren jarduerak bateratzen dituztenean, giro eta gizarte egoera jakinak agertzen dira, non tesi batzuk errealtate natural gisa onar daitezkeen. Eta horren jatorrian, horren eraginez baitatuz gainerakoak, falazia guztien ama dago; hots, Ongizate Estatuaren mugak politikoak eta ideologikoak baino gehiago ekonomikoak eta fiskalak direla dioten tesia; horrela, gizarte politika eta garapen ekonomikoa lotuta ageri dira, bereizteko aukerarik gabe. Hala ere, hainbat egilek dioten moduan,¹ ez dago behin betiko ikerketarik, adierazlerik edo analisisirik gizarte gastuaren eta hazkunde ekonomikoaren arteko harreman esanguratsua, positiboa ala negatiboa, dagoela baieztatzeko bide ematen duenik, ezta hazkunde ekonomikoaren eta zerga sistemen arteko harremanik frogatzen duenik ere. Beraz, faktore objektibo batzuek, hala nola demografikoek eta bereziki biztanleriaren zahartzeari erreferentzia egiten diotenek, gizarte gastuak areagotu eta gizarte estaldura mugatu dezaketen arren, «emandako egoeraren kudeaketa politika ildoan faktore “ez-ekonomikoen” baitan dago gehien bat, esate baterako: pentsio publiko eta pribatuen artean lortu beharreko oreka, enplegu politikak eta lan merkatua, herritarrentzat onargarri den zergen eta ordainketen maila» (Antón, 2009:152).

¹ Egile horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: Mishra (2000), Rodríguez Cabrero (1991, 1996), Navarro (2004, 2006), Antón (2009).

Hazkunde ekonomikoa gizarte gastua finantzatzeko funtsezko elementua dela eta ekonomia garai oparoe-tan gizarte inbertsioa areagotzen dela ukazina da; halere, egia da ere estatuek maniobratzeko dituzten auke-rak funtsezkoak direla ekuazio horretan eta herrialde batek gizarte ongizate eredu bat edo bestea aukeratzeko hartu beharreko erabakia politikoa eta ideologikoa dela batez ere, eta ez ekonomikoa (Mishra, 2000).

Jakina, hona iritsita, falazia planteamendu horretan datzala pentsa dezakegu. Egin dezagun, beraz, pro-posamen horien arteko erkaketa labur bat, eta ikus ditzagun posibleak eta errealistak diren beste alternatiba batzuk.

Etorkizunerako erronka gisa ageri zaigun gertaeretakoa bat da biztanleriaren zahartzea. Pentsio sistemari eusteko, beharrezkoa da sarreraren eta gastuen arteko oreka. Orain arte, sistema hori mantentzeko ezintasuna-rekin beldurtzeaz gainera, gastuari lotutako proposamenak egin dira bakar-bakarrik; kontrakoa, hots, sarre-retan eragiten duten alternatibei arretarik eskaini gabe. Modu horretan, azken bi hamarkadetan *pentsioeta-ko gastuen igoera* izan da gehien errepikatutako ideia, eta, horrekin batera, *igoera hori geratzeko edo eteteko eta sistema arrazionalizatzeko beharra*. Konponbidea: gizarte kotizazioak murriztea edo blokeatzea, eta Estatu-ko aurrekontutik pensio sistemara transferentziarik ez egitea. Horrela, eskuratutako eskubidearen osagaia ahul-tzen da, eta pensioen zenbatekoa sistemaren iraunkortasunaren menpe geratzen da, non enpleguaren bila-kaera giltzarria den, pensioak zehazteari begira.

Horretarako, justifikazio eta legitimazio prozesu konplexuak eraikitzen dira, eta itxuraz zientifikoak diren ikuspegiak pensioen gastua murriztea saihestezina dela diagnostikatzen dute, behin eta berriro.


Haatik, Antonio Antonen arabera: «Pentsioen —eta Ongizate Estatuaren beste osagai batzuen— kos-tuari aurre egiteko eta finantza eta ekonomia bideragarritasunaz hitz egiteko, beste osagai giltzarri bat hartu behar dugu kontuan: ekonomiaren egoera osorik, BPGaren bilakaeraz adierazten dena zerga eta banaketa po-litikarekin batera. Hori are beharrezkoagoa da, faktore teknologikoak eta lanaren antolakuntzak hazkuntza ekonomikoan eta produktibitatean pisu handiagoa dutenean, eta okupazioaren kopuruaren eragina, berriz, txikiagoa denean» (Antón, 2009: 352).

Beste egile batzuek bestelako alternatibak proposatzen dituzte (Zubiri, 2006 eta 2009; Blackburn, 2010; Etxezarreta eta beste batzuk, 2010; de la Fuente, 2007; Navarro, 2010; Martín Seco, 2010; Rodríguez Ca-brero, 2004 eta 2005).

Zubiriren ustez, esate baterako, gaurko pensio sistema iraunkorra da, pensioen zati bat estatuaren sarrera orokorren bidez ordain daitekeela onartzen badugu. «Horrek inplikatzeko du neurri eta konpromisoen multzo bat eratu eta esplizitu egin behar dela, eta, behar izanez gero, baliabideak jarri behar dira, zer baliabide diren adierazita. Era berean, sistemaren zuzentasuna hobetu behar da, eta baita herritarrek etorkizunean pensioak kobratzeko duten bermea ere» (Zubiri, 2009: 53).

Navarroren iritziz, gizarte kotizazioen zenbatekoa funtsezko aldagaia da sistemaren iraunkortasunerako; batik bat, pensioak gizarte kotizazioen bidez —kotizatzen duten pertsonen kopurua (eta kotizazioaren ta-maina) *versus* onuradunen kopurua (eta onuradunen tamaina)— ordaintzen duten herrialdetan. Egilearen-tzat, diskurtso alarmistetan, ez dute kontuan hartzen produktibitatearen igoeran oinarritutako soldaten eta kotizazioen igoerak eta biztanleria aktiboaren igoerak etorkizuneko beharrak ase ahal izango dituztela. «Biz-tanleria aktiboaren igoera eta produktibitatearen igoera oinarritzkoak dira, ongizate estatua hedatzeko» (Na-varro, 2010: 66).

Ikus dezakegenez, balantzak beste alternatiba batzuen alde egiten du:



Balantzak sarreraren gaineko alternatibaren alde egiten badu, zer dela-eta sinesten ditugu gehiago gastuaren gaineko proposamenak? Hau esan nazakezue: hori ez da horrela! Alabaina, egia esanda, 90eko hamarkadan, erdialdean gehien bat, Munduko Bankua eta nazioarteko beste erakunde batzuk txostenak hasi ziren kalera-tzen, mendebaldeko herrialdeen ekonomietan biztanleriaren zahartzeak eragingo zituen kalteei buruz. Ho-

rrren harira, norbanakoen pentsio planak behar-beharrezkotzat jo izan dira, pentsio publikoaren osagarri gisa, eta ideia hori txertatu egin da iruditeria kolektiboan; hortaz, pentsio sistema orokorraren eskubidea balioa galtzen joan da. Dena den, ikus ditzagun gaiari buruzko ideia batzuk:



Hain zuzen, Suedia, Danimarka eta Finlandia 4., 5. eta 6. postuan daude, hurrenez hurren, Munduko Ekonomia Foruak 2009-2010 ekitaldian emandako lehiakortasuneko sailkapen zerrendan.² Ekonomia eta zuzentasunaren binomioa, beraz, posiblea da. Herrialde hauetako politika ekonomikoak garrantzi bere-

² Munduko Ekonomia Foroaren sailkapen zerrenda hemen kontsulta daiteke: www.weforum.org/pdf/GCR09/GCR20092010_fullrankings.pdf

zia ematen dio enplegu politikari, hiru zutabe hauetan oinarrituta: a) gizarte eragileen artean adostutako lan erregulazio malgua; b) gizarte babesteko sistema sendo bat, lanik gabeko pertsonentzat, eta c) lan merkatuaren programa aktiboak, langabeak berriro kokatzeko, beren prestakuntza hobetuz edo aldatuz.

Aditu askorentzat Danimarkako kasua da paradigmaticoena. Hala, malgusegurtasunaz hitz egitea eta daniar ereduari buruz hitz egitea ia gauza bera da. Eredu horrek hazkuntza ekonomiko iraunkorraren eta gizarte ongizatearen konbinazio onena lortu zuen, 90eko hamarkadaren erdialdean batik bat. Garai horretan, gainera, neoliberalismoak zalantzan jartzen zuen eskandinaviar eredia, eta ekonomia globalaren testuinguru berrian, eredu hori ekonomiaren aurrerapenerako eta, gehien bat, lehiakortasunerako oztopo bat zela salatzen zuen.

Danimarka baldin bada jarraitu beharreko eredia, zergatik onartzen dituzte erdiko eta ezkerreko gobernuek neoliberalismoaren dogmak, eta horien artean, zergak jaistearen beharrarena nagusiki? Zergak igotzea gehiengoaren kontrakoa da, eta, hauteskundeetan eragin negatiboa saihestu nahi bada, gobernu batek herritarren eskaerei eta beharrei emandako erantzunak eraginkorra eta argia izan behar du, eta horren emaitzak ahal bezain laster ikusi behar dira. Denboraren aldagai hori nekez kontrolatzen da; izan ere, politika jakin baten eragin positiboa ez da beti berehala hautematen; askotan, politikoei normalean ez duten denbora behar izaten da.


Bestalde, batasunaren esparruan, zaila da liberalismo ekonomikoaren eraginetik kanpo geratzea, izan ere, jarrera aldatuta, martxan jarri behar dira neurri sozioekonomiko zehatzak, honako balio hauek bultzatzeko:

1. gizarte eragileen arteko konfiantza;
2. gizarte eskubideetan sendotasunez sinistea;
3. zintzotasuna; eta,
4. zerbitzu publikoa emateko gogoia.

Donostian, 2007ko ekainean egindako Lanbide Heziketako V. Nazioarteko Biltzarrean, Danimarkako enpresaburuen konfederazioaren ordezkari Gorm Oteen Johansen-ek bere herrialdeko lan merkatuari buruzko hitzaldia eman zuen. Bertan azaldu zuenez, haren herrialdeko merkatuaren malgutasun maila handia, zeharka izanik ere, ongizate estatuaren zerbitzuen babespean dago, hala nola: hezkuntza sistema, lanbide heziketa eta helduen prestakuntza barne; haurtzaindegien sistema; osasun sistema, eta finantzaketa publikoa. Era berean, lan merkatuaren ikuspegitik, ongizate sistema horiek egituretan egindako inbertsioak dira, sistemaren funtzionamendu egokia bermatze aldera; hortaz, ez dira kostu hutsak.

Adierazi zuen, halaber, eta agian hori izango da garrantzitsuena, Danimarkako lezioak beste herrialde batzuetan aplikatzea herrialde bakoitzaren ondare politiko eta instituzionalaren arabera dela, eta baita erformen beharra eragin dezakeen inguruabarren arabera ere. Nolanahi ere, baieztatu zuenez, Iparraldeko herrialdeak eta bereziki Danimarka oso homogeneoak dira, eta berdintasuna, inklusioa eta ekintza kolektiboa lehenesten dute, eta hori izan daiteke, hain zuzen, beren gizartearen funtzionamendu egokiaren gakoia.

Eta hemen falazia bat hasten da eraikitzen, zeinak termino berberak erabiltzen baititu printzipio horien aplikazio errealaren kontrakoak diren neurri ekonomikoak justifikatzeko. Printzipio horien onura berehala-kotasunean datza, eta ez etorkizunean izan dezaketen ahalmenean. Hala, esaten digute neurri «mingarriak» hartu behar direla gaur, etorkizun hobe baterako; etorkizuna, ordea, iraganean eraikitzen da.



Danimarkako kasuak erreferentzia gisa balio digu berriro, emaitza ez baita ongi zehaztutako eskema handi bat, bilakaera historiko jakin bat baizik. Hala, adibidez, enplegu emaileek langileak hartzeko eta kaleratze-ko duten ahalmen askea sindikatuak onartu zuten, gizarte eragileek 1899an sinatutako Iraileko Konpromisoa izenekoaren baitan. Bestalde, laneko negoziazioa deszentralizatzeko prozesua 50 urte baino gehiagoko itun batean oinarritzen da; zehazki, «Lankidetzaren Ituna»k baldintzak ezarri zituen gai garrantzitsuak lantokitan eta gizarte eragileen artean aztertzeko, bi aldeen arteko errespetua eta konfiantza, eta beren erantzukizun maila handia oinarri hartuta. Horrela, lan gatazka bihur daitezkeen arazoei irtenbide egokia bilatu nahi zaizkie. Langileek sistema horretan betetzen duten paperak funtsezko eragina du, % 80 baita sindikatze maila; hots, hamar langiletik zortzi sindikatu bateko nahiz besteko kide dira.

2. Falazia eta katastrofismoetarako bidea prestatuz

Nolanahi ere, demostraziorik edo frogatzerik behar ez duen egia eztabaida ezin gisa hartzea lortzeko falaziez baliatzen direnak erabiltzen duten mekanismoak hiru prozesu ditu: a) interes propioak unibertsalizatzea; b) orainaldia naturalizatzea, eta c) kontraesan sozialak ukatzea.

Agian, zenbait estrategiaren ontasunean sinisten laguntzeko, falazia horiek gizarte osoaren interesekoak izango balira bezala eta gauza natural gisa aurkeztea da, gauzen izaerak berak hala eskatzen duena, «logikoa», «normala»; «herralde honek etorkizuna izango du bere gobernuak gauza normalak egiten baditu»³ gisako esaldiak behin eta berriz errepikatzeak errealitatea gauza bihurtzeko bidea prestatzen dute.

Gauza bihurtzea abstraktua den zerbaiti ezaugarri zehatz bat egotzea da. Eguneroko bizimoduaren errealitatea ordenatutzat hartzen da; dagoeneko objektibatuta aurkezten da, hau da, gutariko gehienak agertu baino

³ Mariano Rajoy oposizio buruak *El País* egunkariari emandako elkarrizketa bateko zatia, 2010eko ekainaren 13an.

lehenago horrela izendatutako objektuen ordena batez osatua. Hizkuntza da gizartean bizitzaren koordena-tuak markatzen dituen eta bizitza hori objektu garrantzitsuz betetzen duena; hori dela eta, gauza bihurtzea giza fenomenoak supra-gizatiar gisa hartzea da. Giza jardueraren produktuak giza produktuak ez balira beza-la hartzea da; naturaren gertakari gisa, lege kosmikoen edo borondate jainkotiarraren adierazpenaren ondorio gisa hartzea, alegia.

Lehen aipatutako adierazpena gauza bihurtzearen adibide argia da. Ez da hasieran eman dezakeen adieraz-pen inozente edo leloa; aitzitik, sinbolismoz eta kausazko atribuzioz beteta dago, eta falaziak eta katastrofis-moak onartzeari bidea errazten die. Izan ere, «normal» hitzarekin beti ezer arrarorik gabe edo ohi bezala ger-tatzen dena aipa dezakegu, edo arau edo erregelaren zentzuaz balia gaitzke. Horrenbestez, «gauza normalak» horren atzean egiteko modu zuzena, naturala, dagoela arrazoitu dezakegu, edozein planteamendu ideologiko-ren gainetik dagoena eta une honetan Gobernuia egiteko gai ez dena edo egin nahi ez duena. Ez dago gaizki gauza bihurtzea hizkuntzako figura gisa erabiltzea; hori erabiltzea erabat onargarria eta polita da poesian, adi-bidez; argumentu logiko baten zati gisa erabiltzea, ordea, falazia da.

Politika sozialari buruzko eztabaidan gauza bihurtzearen beste ohiko adibide bat «ebidentziek hitz egiten dute» esaldia da. Argi dago ebidentziek ez dutela hitz egiten; pertsonak dira ebidentzietatik abiatuta ondo-riok ateratzen dituztenak eta pentsamenduak hitzez adierazten dituztenak. Hala ere, gauza bihurtze horre-kin aurkezten ditugun ebidentzia horiei demostraziorik behar ez dutela ematen duen ezaugarri atxikiak ema-ten dizkiegu.

Egoera hori azaldu du Paul Krugman⁴ Ekonomiako Nobel saridunak *New York Times* egunkarian argitara-tutako artikulu batean. Artikulu hori *El País* egunkarian argitaratu zen itzulita 2010eko urtarrilean, «Aprender de Europa» izenburupean. Artikulu horretan irmotasunez baieztatzen du, arraroa badirudi ere, denok da-kiguna ez dela egia.

Krugmanen arabera, Europak arazo ekonomikoak ditu, baina behin eta berriz entzuten dugun istorioak (hain zuzen, ekonomia gelditurik dagoela, zerga altuek eta onura sozial eskuzabalek pizgarriak ezabatu dituz-tela, eta hazkundera eta berrikuntza geratu egin direla) ez dauka zerikusi handirik gertakariekin. Europaren ikasgaia, egia esan, kontserbadoreek kontatzen dutenaren aurkakoa da: Europa arrakasta ekonomikoa da, eta arrakasta horrek erakusten du demokrazia sozialak funtzionatzen duela.

Hori horrela, Krugmanek honako hau galdetzen du: «Zergatik esaten digute adituek hain gauza desber-dinak?». Erantzuna zera da, AEBko dogma ekonomiko nagusiaren arabera, Europakoa bezalako demokrazia sozialak erabateko hondamendia izan beharko lukeela. Eta, jendeak nahi duena ikusteko joera dauka. Hor-taz, Estatu Batuetako eztabaida publikoetan nagusi diren uste ekonomikoetan egirik badago —batik bat, aberatsei zergak eta txiroei zerbitzuak igotzeak (baita modu neurritsuan ere) lan egiteko, inbertitzeko eta be-rritzeko pizgarriak errotik ezabatuko lituzketela dioen ustea— Europa izango litzateke istorioan gelditurik eta gainbeheran doan ekonomia. Baina ez da horrela. Europa ikasbidea daukan istorio gisa aurkezten da as-kotan, eta erakusten du ekonomia ez hain basatia egiten saiatuz gero eta garai txarretan herrikiideei dagokie-nez gehiago kezkatuz gero, aurrerapen ekonomikoa suntsituko dela. Baina Europako esperientziak aurkakoa frogatzen du benetan: justizia soziala eta aurrerapena elkarrekin joan daitezke.

⁴ Paul Krugmanek idatzitako «Aprender de Europa» artikulutik hartua, *El País* egunkarian 2010/01/24an argitaratua: www.elpais.com/articulo/economia/global/Aprender/Europa/elpepueconeg/20100124elpnegeco_4/Tes

Falaziak eta katastrofismoak onartzeko bidea irekitzen duten beste elementu bat sistemaren beraren kontraesan sozialak ukatzea da, egoera gizakiaren izatearen beraren ondorio gisa aurkeztuz eta, egian esan, sistema ekonomiko-politikoaren izaeraren beraren ondorioa dena berez pertsonalak diren faktoreei egotziz. Modu horretan, krisien eta bat ez etortzeen arrazoiak ez dira sisteman edo hark eboluzionatzen duen moduan bilatzen; aldiz, erruduntzat faktore hauek aipatzen dira: zenbait lider politiko eta ekonomikoen ezgaitasuna, hainbat enpresariaren handinahi neurrigabea edo klase herritarrek edo erdi mailako klaseek errealitatearen zentzua ez izatea.

Hortaz, zera egiaztatzen hasi gara, krisiak eztanda egin eta gutxira hainbat errudun agertu zirela, izenabizenekin;⁵ hain zuzen, 25 errudun, mundu mailan. Baina, era berean, «pastela guztion artean jango dugu» ideia zabaltzen hasi da, eta ideia hori zenbait lider politikok indartzen dute, honelako esaldiekin: «Krisi ekonomikoarekin batera balioen krisia etorri da. Balioen eta pedagogiaren arloko ahalegina egin behar dugu, eta jendeari esan behar diogu dena ez dela doan, eta bizitzan, norbera egindako lanaren eta ahaleginaren emaitza dela».⁶

Hala ere, kapitalismoaren oinarriak kolokan jarri behar zituen eta azkenean suntsitu egin zituen lurrikara gisa hasi zena, gaur egun, proposamen neoliberalen arteko eta gizartean eragina duten funtzioen sozializazioaren arloko hainbat pentsamolde alternatiboren eta goraka ari direnen arteko borroka ideologikora itzultzea da; bertan, norgehiagokaren erdi-erdian ongizatearen estatua zalantzan jartzea dago.

Krisi aurreko aldian, hainbat kontzeptu nabarmendu ziren, hala nola koordinazioa, lankidetzeta eta erantzukizuna. Xedea zera zen, guztien onerako helburuak lortzen laguntzeko koordinatzea; horrela, gobernuak erakunde finantzarioak salbatzen hasi ziren, guztien onerako. Eta une horretan jarri zen autopistaren lehenengo harria; hain zuzen, geroago etorriko ziren falaziak eta katastrofismoak arazorik gabe ibiliko ziren bertatik, baita lehenengo ibilgailuak ere: beldurra eta beharra. Zenbait hilabete geroago, gertaeren eboluzioa eta egoera geroz eta okerragoa izatearen susmoak zirela-eta, ezintasun eta mesfidantza sentimendu bat sortzen joan zen; batik bat, krisi finantzarioaren erantzuna ez zelako erreforma finantzario bat, honakoa baizik: lan erreformak, gastu publikoaren murrizketa, babes soziala gutxitzea, krisia sortu ez zutenentzako politika zorrotzak eta, jakina, ongizatearen estatuaren beste txikitze bat, oraingoan pentsioen sistemak erreformatuz.

3. Onartezina onartzea: parabolak, kontzeptuen esparruak eta beste metafora batzuk

Une honetan, «onartezina onartzen» ari gara. Izan ere, gaur egungo krisia dela eta, gauza bitxiak geratu dira; hala nola, paradoxikoen artean honakoa dugu: kapitalismoaren oinarriak kolokan jarriko zituen lurrikara moduan hasi zenak ongizatearen estatuaren aurkako eraso masiboa izaten amaitu duela, orain arte politika sozialak garatu diren oinarri ideologikoei dagokienez egindako berrikuspen zorrotz batean.

Ez dezagun ahaztu, duela bi urte baino gehiago, 2008ko irailean zehazki, Nicolás Sarkozy kapitalismoaren oinarri etikoak berriz eraikitzea proposatu zuela, eta horretarako, munduko lider nagusiei dei egin behar

⁵ Ikus errudunen zerrendak *The Guardian* edo *The Times* egunkarietan: www.guardian.co.uk/business/2009/jan/26/road-ruin-recession-individuals-economy www.time.com/time/specials/packages/article/0,28804,1877351_1878509,00.html

⁶ Mariano Rajoy oposizioko buruak *El País* egunkariari emandako elkarrizketa baten zati bat, 2010eko ekainaren 13an.

ziela urtea amaitu baino lehen, nazioarteko finantza sistema berreraikitzeke, «zerotik hasita». Arazo guztiak konpontzeko autoerregulazioa amaitu zela esan zuen; «le laissez faire, c'est fini» aldarrikatu zuen; eta behin eta berriz gogor kritikatu zituen finantza exekutiboen soldatak eta irabaziak, eta haien prebendak erregulatzeke legeak martxan jarriko zituela bermatu zuen. Hala eta guztiz ere, azken bi urteotan, Europako gobernuek krisiaren aurka egindako jarduerak ez dira bideratu norabide horretan, hain zuzen. Banka erreskatatu ondoren, ez da kapitalismoa berreraiki; aldiz, guztiz aurkakoa gertatu da. Bankuak ez dira ari krisiaren ondorioak ordaintzen, ongizatearen estatua baizik, honelako neurriak hartu baitira: pentsioen erreforma, defizit publikoaren kontrola eta lan merkatuen liberalizazioa. Bira hori kaltegarria da; izan ere, ezkutatu egiten du krisi finantzarioaren jatorria ez dela izan defizit publikoa, zuhurtzarik eza eta finantzako sektore pribatuaren gehiegikeriak baizik, «zergadunak zoritxarreko egoera honetara eramán dituzten bankarien irabaziak ordaintzen ari dira» (Attali, 2009:16).

Beste paradoxa neurri horiek garatzen diren egoera da; egoera horretan nagusi dira halabeharrezkotasunaren eta onarpenaren sentipena. Krisiak ongizatearen estatuari jartzen dizkion erronkei modu zehatz batean soilik aurre egin diezaiekegula ematen du, nahiz eta erakutsi den beste aukera batzuk ere badaudela. Eta paradoxa zera da, proposatutako neurriek eskubide sozialak murrizten dituztela jakinda eta beste aukera batzuek eskubide horiek mantentzeko bide ematen dutela ikusita, gobernuek lehenengo aukera hautatzen dutela, eragile sozialek (besteak beste, sindikatuek) eta erdi mailako klaseek onartu egiten dutela, eta bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak ekaitzerako prestatzen ari direla.

Baina galdera honako hau da: zergatik onartzen ditugu gure eta ondorengo belaunaldien eskubide sozialak eta bizi kalitatea kaltetzen eta murrizten dituzten irtenbideak? Hori bai dela naturaren aurkakoa, zentzugabea, ohiz kanpokoa eta, hala ere, posiblea.

Argi dago galdera horren erantzuna ez dela erraza eta ezin zaiola gauza bakar bati egotzi; hainbat faktorek eragiten dute, baina faktore horiek nola eragiten duten azaltzeko ahaleginean, parabola bat erabiliko dut, onarpen horretan dauden mekanismoak modu errazagoan eta bisualean azaltzen laguntzeko.

Demagun gizaki bat izan ordez, beste planeta bateko izaki bat naizela, eta Lurreko biztanleek uneoro zer egiten duten ikusteko beharrezkoa den teknologia daukadala; «Lurreko Anaia Handia» moduko zerbait. Demagun, halaber, ustez onurarik gabeko gauzak egiteko (energia gastu handia dutenak eta gogobetetze handia ematen dutela diruditenak) gizakiak duen gaitasunak txunditurik naukala. Hortaz, Santiagora doazen erromes bikote baten abenturetan eta zoritxarretan jarri dut arreta. Bat-batean, bidean, bi gizakiak bidegurutze batera iritsi dira, eta usadio zaharrekoak direnez, ez daukate maparik, ez GPSrik, ezta gidarik ere; bakar-bakarrik seinalei jarraitzen diete, gezi horiei. Arazoa, ordea, honakoa da: bidegurutzean, ezkerreko bidea nahiz eskuineko bidea markatzen duten seinaleak daudela; beraz, hautatu egin behar dute. Nik badakit zein bidek eramango dituen zuzenago Santiagora, baina, halere, nire harridurarako ikusi dut erromes bikoteak aurkako bidea hartu duela. Eta nire buruari zera galdetu diot, nire logika estralurtarrean: zergatik hautatu dute biderik okerrera? Aukera hori hautatzearen arrazoiak honakoak izan daitezke:

1. **Ez dakite:** desinformazioa. Ez daukate bitartekorik aukerak konparatzen laguntzeko informazioa emango dienik. Ez daukate gidarik, maparik, GPSrik, ezta Internetik ere.
2. **Behartu egin dituzte:** botere borroka. Bidegurutzean zenbait talde daude eta presionatu egiten dituzte (mehatxu fisikoa ere egiten diete) norabide jakin batean joateko. Talde horiek ez daude prest erromesek ekartzen dituzten irabaziak galtzeko, ondoko herriaren onurarako.

3. **Sinestarazi diete hori dela aukerarik onena:** falaziak eta beste katastrofismo batzuk. Aurreko gauean, afaldu zuten jatetxean, sinestarazi zieten hori zela biderik onena eta horrez gain, ez zegoela beste irtenbiderik; izan ere, beste bidea moztuta dago aurrerago eta gainera, erasoak egon zirela entzun zuten. Hala ere, bueltan zetorren erromes talde batek bermatu zieten hori ez zela egia, haiek egiaztatu egin baitzuten.
4. **Beren ustez, berdin da:** babesgabetasun ikasia. Aurretik egindako erromesaldietako esperientziak sinestarazi diete berdin dela zer egiten duten; azkenean iritsi behar badute, iritsiko direla, eta bestela, ez direla iritsiko. Alferrikakoa da beren ulermenetik kanpo dagoena kontrolatzen saiatzea.

Parabola hori gure testuinguru historikoari eta sozialari aplikatuz gero, imajina dezakegu bide horiek politika sozialaren arloko aukerak direla, eta bidearen amaiera, ongizatearen estatuaren etorkizuna.

Eskura dezakegun informazioari dagokionez, eta paradoxikoa badirudi ere, *Informazioaren Aroan* baino *Ininformazioaren Aroan* bizi gara; informatutako gizartean baino ininformatutako⁷ gizartean; hau da, auzia informazioaren kopuruan baino informazioaren kalitatean datza.

Gero eta ahots gehiagok adierazten dute nahasmendu orokorra dagoela, eta politika sozial neoliberalen orde bestea aukera batzuk eskaintzen dituztela; hain zuzen, nahaste hori komunikabide nagusiek elikatzen dute, horien helburua nahasmenduaren eta segurtasunik ezaren sentipen hori sortzea baita, eta horretarako, datuak itxuraldatzen, falaziak argumentatzen eta azalpen faltsuak ematen dituzte (Millet eta Toussaint, 2009). Kontrastatutako informazioa eman dezaketen kanal formalak gutxitzen doaz; adibidez, pentsamendu ezkertiarreko zenbat egunkari daude orain Europan, duela 30 urte zeudenekin alderatuz gero? Noren esku daude gaur egungo telebistak eta egunkariak? (Martín Seco, 2010).

Jacques Attaliren arabera, «krisi osoa informazio gabeziaren ondorioa da, orainaldiaren eta etorkizunaren artean informazioaren asimetria beti egongo baita. Asimetria horrek sortzen du krisia» (Attali, 2009: 114-115). Attalik dioenez, arazoa asimetria baino gehiago informazioa eskuratzeko aukera desberdintasuna da. Asimetria beti egongo da, etorkizunari buruzko informazioa ezin baita perfektua izan; hortaz, etsi eta krisia maneiatu beharko dugu, eta horretarako, pentsatu, aurreikusi eta parte hartu behar da. Informazioa eskuratzeko aukera desberdintasuna, ordea, saihegarria da, erregulatu daiteke, eta erregulatu egin behar da.

Gai hori bereziki garrantzitsua da Attalirentzat, merkatuen eta demokrazien arteko harremanari dagokionez. Izan ere, demokrazia estatuaren aparatua aldatzen eta betetzen duen gehiengo batek gidatzen du; aldiz, merkatuak ekoizpen bideak kontrolatzen dituztenen esku daude, beraiek bakarrik dituzten informazioen arabera kapitalak izendatu ditzaketenen esku, bereziki. Horiei *adituak* deitzen die egile horrek. Attaliren arabera, demokrazia perfektua balitz eta berdintasuna ezarriko balu, denok berdin informatuta egongo ginateke, guztiok izango ginateke *adituak*; halere, berdintasunik ezak *adituek* ondasun partikular bati etekina ateratzea eragiten du: informazio ekonomikoari eta finantzarioari, proiektuen errentagarritasunari dagokionez. «Gizarte modernoan, *adituak* kapitala dutenak baino garrantzitsuagoak dira. Adituek behin-behineko errenta dute (informazioa), bertatik etekinak ateratzen dituzte eta horiek nola hazi dakite» (Attali, 2009: 118-119).

Hortaz, Castellsen arabera, borroka horretan zentzua duen eraikuntza independente bat bilatu behar da, baina hori «Internetek posible egin dituen komunikazio sareen eremu komunalak gordetzen baditugu soilik lor daiteke: askatasun zaleen sorkuntza aske bat. Hori ez da erraza izango, gizarte sarean boterea dutenek ko-

⁷ «In» aurrizkia erabili dut, Espainiako Hizkuntzaren Errege Akademiak izendatzen dion adieran: **in-**, **i-** «ezetapena»: *sinesgaitza*, *ez-zilegia*.

munikazio sarea itxi beharko baitute, komertzializatutako eta zelatatutako sareen bidez, adimen publikoa ixteko, komunikazioaren eta boterearen arteko harremana programatuz» (Castells, 2009: 525).

Zentzua duen eraikuntza independente horretarako, Castellsek (2009) boterearen egiturak eusten dituzten balio sozialak berriz antolatzea proposatu du; horretarako, bere ustez, funtsezkoa da boterearen esku ez dauden komunikazio sareak eraikitzea nahiz gure esparru mentalen berreraikitze kritikoa egitea.

Beharbada, esparru mentalak funtsezko giltza dira gezurkeria eta katastrofismoa azaldu izana ulertzeko, norberaren interesaren aurka jotzearen, onartezina dena onartzearen irrazionaltasuna ulertzeko.

Neurozientzia esparruko ikerketak agerian ipini duenez, epe luzean pentsatzeko dugun modua egituratzen duten kontzeptuak gure garunaren sinapsian kokatuta daude. «Kontzeptuak ez dira, besterik gabe, norbaitek gertakizun bat kontatu digulako aldatu daitezkeen gauzak. Gertakizunak azal dakizkiguke, baina guretzat zentzua izan dezaten, aurrez garunaren sinapsian dagoenarekin bat etorri behar dute. Bestela, gertakizunak sartu eta berehala ateratzen dira. Ez ditugu entzuten, ez ditugu gertakizun gisa onartzen, edo nahastu egiten gaituzte» (Lakoff, 2010: 39).

Beraz, zientzia kognitiboak arrazoitze analitikoan sartu baino lehen esparru mentaletan oinarrituta pentsatzen dugula aurkitu du. Esparru mental horiek fisikoki neuronen zirkuituetan eratzen dira. Hala, garunean erregistratutako esparruekin bat ez datorren datu edo informazio bat ematen digutenean, ez diogu jaramonik egiten. Gure esparru mentalekin talka egiten duen orok aukera txikiak ditu gure erabaki kontzientera iristeko.

Lakoffen arabera, esparruak munduaz dugun ikusmoldea taxutzen duten egitura mentalak dira eta, ondorioz, gure helburuak, planak eta jokabidea taxutzen dituzte. Politikan, gure esparruek gizarte politikak eta politika horiek gauzatzeko sortzen ditugun instituzioak taxutzen dituzte. Esparru mentalak ezin dira ez ikusi, ezta entzun ere, kontzienteki iritsi ezin ditzakegun garunaren egituretan daude, baina dituzten ondorioengatik ezagutzen ditugu: arrazoitzeko modua eta, nagusiki, hizkuntza. Hitz guztiak esparru kontzeptualen arabera definitzen dira, eta, hala, hitz bat entzutean, garunean bere esparrua aktibatzen da (Lakoff, 2010: 17).

Egileak, *No pienses en un elefante: lenguaje y debate político* lan ezagunean, hizkuntzaren bidez esparru mentalak aktibatzeak nola funtzionatzen duen azaltzeko adibiderik argigarrienetakoa ematen du. Lakoffek George W. Bush Etxe Zurira iritsi zenetik *zerga arintzea* esapidea erabiltzen hasi zela dio, eta arintze hitzaren esparrua azaltzen du. «Arintzea gertatzeko, aurrez arazoren bat izan behar da, ezbeharren bat, ezbehar hori arintzeko gai den norbaitek egon behar du, eta, azkenean, arazoa arintzen duena heroia bihurtzen da. Baina inor heroia geldiarazten saiatzen bada, gaizto bihurtzen da, arintzea eragozten saiatzen ari delako. *Zerga* hitzak *arintze* hitzarekin bat egiten duenean, emaitza metafora bat da: zergak zorigaiztokoak dira; zergak kentzen dituena heroia da, eta hori geldiarazten saiatzen den oro gaiztoa da. Hori esparru bat da. *Ezbehar*, *heroia* eta halako ideiekin eraikitzen da. Esparrua gogora dakarren hizkuntza Etxe Zuriak sortzen du, eta, prentsa oharren bidez, irrati, telebista eta egunkari guztietara zabaltzen da. Berehala, *The New York Times* egunkariak *zerga arintzea* erabiliko du. Eta Fox, CNN zein BBC kateetan hizpide izango dute, «Presidentearen zerga arintze Plana» delako. Eta aurki demokratek ere beren buruari harrika emango diote, eta *zerga arintzea* erabiltzen hasiko dira. Hain zuzen, horixe da esparruratzea. Esparruratzeak norberak munduaz duen ikusmoldearekin bat datorren hizkuntza aukeratzearekin du zerikusia» (Lakoff, 2009: 24-25).

Ildo horretan, oso interesgarria da, adibidez, globalizazio kontzeptua. Egilea askorentzat, esaterako, Martín Secorentzat (2010), globalizazioa oso fenomeno modernoa da. Agiri Bakarra iritsi baino lehen, esaterako, European ez zen kapitalen zirkulazio libreaz hitz egiten, hau da, erabaki politikoa izan zen, eta, beraz,

globalizazioa errealitate saihestezina dela dioen ideia ez da egiazkoa. Argudio ildo berean, Carlos Taibok dioenez, «globalizazio hitza gure artean ezarri da, dirudienez iraun egingo du, eta ez ziguten objektiboki interesatzen zitzagun ala ez neurtzeko aukerarik eman» (Sampedro eta Taibo, 2009: 27). Egilearen ustez, globalizazioa ez da inolaz ere neutroa edo inprobisatua, inperialismo edo kapitalismo hitzekin lotzerik nahi ez zuen nazioarteko orden berria legitimatzeko beharrek inperialismoa, kapitalismoa eta halako terminoak baztertuko zituen hitz onuragarria topatzea, harreman ekonomiko horiek batera aldatu ez ziren arren». Bere ustez, «*globalizazio* hitza berriro azaleratzea erabaki zutenek lan bikaina egin zuten: goizetik gauera, inolako aldaketarik izan ez zuten harreman oso negatiboak adeitsuki irudikatzen hasi ziren, planeta osoan ilusiozko espasmoa eragingo balute bezala» (Sampedro eta Taibo, 2009: 28).

Era berean, José Luis Sampedroren ustez, hizkuntza gai arrazionalak jorrazteko erabiltzen da, baina egiaz zuzenean emozioei eragiten die. Bere iritziz, *globalizazio* terminoaren arrakasta *globo* hitzarekin lotzean datza; hitz horrek «berehala ideia optimista bat iradokitzen du: globoa biribila da, ederra, maiz kolorez betea, handitsu igotzen dena, inolako ahaleginik gabe. Hori oso erakargarria da» (Sampedro eta Taibo, 2009: 29).

Dagoeneko metaforez ari gara. Metaforak hizkuntza eta garuneko zirkuituak konektatzen dituzten etengailuak dira. Metaforen bidez narrazioak eratzen dira, eta narrazioak garuneko egiturekin bat datozen esparru kontzeptualek osatzen dituzte. Esparruak loturazko neurona sareak dira, eta horietara hizkuntzatik irits daiteke, lotura metaforikoen bidez. Esparruratzeko neurona sare zehatzak aktibatzea da. Hizkuntzan, hitzak eremu semantikoekin lotuta daude. Eremu semantiko horiek esparru kontzeptualei dagozkie. Hala, hizkuntza eta burua garuneko sareak aktibatzen dituzten narrazioak egituratzen dituzten esparruen bidez lotzen dira. Metaforek komunikazioa esparruratzeko, garunaren mapan oinarrituta hizkuntzaren eta esperientziaren arteko lotura espezifikoa hautatuta (Castells, 2009: 197).

Lakoff eta Johnsonen arabera (2009), metaforak hizkuntzaz harago doaz, eta pentsamenari eta ekintzari ere eragiten diete, eta, beraz, eguneroko bizitzari. Egile horientzat gure pentsamena eta ekintzak oinarritzen diren sistema kontzeptual arrunta, funtsean, metaforikoa da. «Gure pentsamena zuzentzen duten kontzeptuak ez dira soilik adimenaren kontua. Xehetasunik txikienez ere eguneroko funtzionamendua zuzentzen dute. Gure kontzeptuek antzematen duguna, munduan mugitzeko modua, besteekin erlazionatzeko modua egituratzen dute. Hala, gure sistema kontzeptualak funtsezko zeregina du eguneroko errealitateak definitzerakoan. Sistema kontzeptuala hein handi batean metaforikoa dela iradokitzean zuzen bagaude, pentsatzeko dugun modua, esperimentatzen duguna eta egunero egiten duguna ere metaforikoa da» (Lakoff eta Johnson, 2009: 39).

Defizit publikoaz hitz egiterakoan erabiltzen diren metaforak aztertuko ditugu, Lakoffek eta Johnsonek (2009) erabiltzen dituzten terminoetan.

Defizit publikoa gure ekonomiaren oinarriak erasotzen ari da.

Defizit publikoak kinka larrian jartzen gaitu.

Orain, gure etsai nagusia defizit publikoa da.

Defizit publikoak menpekoen belaunaldia ekarri du.

Kasu horretan, objektua pertsona gisa identifikatzen da. Lakoff eta Johnsonen arabera (2009), hori metafora ontologiko agerikoena da, giza motibazioekin, ezaugarriekin eta jarduerekin lotzen denean, gizakiak ez diren entitateekin ditugun esperientzia anitzak ulertzea ahalbidetzen baitu. Baina pertsonifikazio prozesua ez

da prozesu bakar, orokor eta bateratua; pertsonifikazio bakoitza bakana da, metafora erabiltzen duenak nabarmendu nahi dituen alderdien arabera.

Defizit publikoari dagokionez, gehien erabiltzen ari den metafora *defizit publikoa etsaia da* da, eta, etsai guztiek bezalaxe, kaltea eragin dakiguke. Metaforarekin lotzen den esparru kontzeptuala kalte, arerio, etsai eta antzeko ideiek osatzen dute, eta horrek, defizit publikoaz pentsatzeko moduan eragiteaz gain, defizit publikoarekiko jokabideari ere eragiten dio. Defizit publikoa eraso, zauritu eta suntsitu gaitzakeen etsaia dela pentsatzen badugu, gobernuaren zenbait ekintza politiko eta ekonomiko onartuko eta justifikatuko ditugu: defizit publikoari gerra deklaratzeko, helburuak ezartzea, ahalegina eskatzea, aginte kate berriak ezartzea eta abar. Metaforak, kasu honetan pertsonifikazioak, halako fenomeno konplexua giza baldintzetan ulertzea erraztu digu, baldintza horiek gure motibazio, helburu, ekintza eta ezaugarrietan oinarrituta uler baititzakegu. Defizit publikoa oso abstraktua da eta horrela ikustea entitate horri zentzua emateko modua da askorentzat. Ulertzeko gaitzak diren faktore ekonomiko eta politiko konplexuek pertsona horien bizi kalitatea kalteztzen duenean, *defizit publikoa etsaia da* metaforak koherentzia dakar, gurekin zerikusia ez duen gauza urrun horrek zergatik eragiten digun ulertzen laguntzen du.

Beraz, metaforek gure esperientziaren zenbait alderdi koherenteago bihurtzen laguntzen du, baina errealtateak ere, bereziki errealtate sozialak, sor ditzakete. «Hala, metaforak etorkizuneko ekintzen gidari bihurtzeko daitezke. Ekintza horiek metaforara egokituko dira. Halaber, horrek metaforak esperientzia koherente bihurtzeko duen ahalmena indartuko du. Zentzu horretan, metaforak beren burua betetzen duten profetia bihurtzeko daitezke» (Lakoff eta Johnson, 2009: 198).

Arrazionaltasun soila edo norberaren interesaren kalkulua jokabidearen eragile nagusia ez dela onartzen dute gehienek, adimen emozionalean oinarritutako analisisen arrakastak baieztatu duenez. Baina politikaren eremuan ideia hori ez da hain erraz onartzen, arrazoiaren bidezko aurrerabidearen ideologia liberal edo marxistak balioak eta identitatea eremu publikoan motibazio iturri gisa baztertu dituelako. Eta, hala ere, hainbeste herritarrek maiz beren kontrako interesak defendatzen dituztenei bozka emateak bestelako botere mekanismoak daudela esan nahi du.⁸

4. Paralisi soziala

Floyd Allporten arabera (1954), gizarte edo talderen batek pertsonen jarrera bat onar dezaten edo modu jakin batean joka dezaten presio handia egiten duenean, biztanleen jokabidearen banaketak ez du erabateko onarpenaren eta erabateko errefusatzearen arteko ohiko kurba izaten, jota alderantzikatu itxura duen kurba baizik. Horrelako kurbek gehienek eskatutako jarrera edo jokabide hori onartu dutela adierazten dute, hau da, gehienek jarrera konformista dutela. Itxuraz espontaneo den konformismoaren eraginez, botere sozialaren mekanismoekin zerikusirik ez duen fenomeno dela pentsa genezake, baina ez da hala. Gogoan izan behar dugu ezarritako sistemaren ohiko funtzionamenduak arauetan, errutinetan eta ohituretan eguneratzen den etengabeko botere jarduna dakarrela, eta, sistema hori zalantzan jartzen denean, boterea indar hertsagarri edo fisiko bihurtua azaleratzen dela. Martín-Baróren ustez, «konformismoaz hitz egiteak batzuen ekintzak

⁸ «La Teoría de Lakoff» Manuel Castellsen artikulutik hartua, *La Vanguardia* egunkariak 2005eko urriaren 1ean argitaratua: <http://hemeroteca.lavanguardia.es/preview/2005/10/01/pagina-27/41818007/pdf.html?search=observatorio%20global%20la%20teor%C3%ADa%20de%20lakoff%20manuel%20castells>

besteen asmoaren edo nahimenaren menpe jartzen duen indar baten, botere sozial baten jarduna adierazten du» (Martín-Baró 2004: 156).

Bestalde, jokabide konformista kontzientea edo inkontzientea izan daiteke, baliteke norberak menperatua izatearen kontzientziarik ez izatea ala menperatzea kontzienteki egitea. Eta kontzientea denean nahitakoa ala nahi gabekoa izan daiteke. Izan ere, pertsonak besteen eskakizunei nahita men egitea erabaki dezakete, baina beste aukerarik ez dutelako edo ez dutela uste dutelako ere egin dezakete.

Eta hor «babesgabetasun ikasiaren» teoriak ezin itzulizko egoera horretara, berez joera gizarte talde jakin batzuen eta ez gehiengoaren interesak babestea xede duten ideologiko hutsak direnak onartzera zerk garamatza ulertzen laguntzen du. «Hala, egitura objektiboan eta subjektiboen arteko, erregimen sozialen eta banakoen ezaugarrien arteko korrelazioa proposatzen duen tesi psikosozial zaharra berriro agertzen da. Ez dago kausa-ondorio erlazio mekanikorik eta «oinarrizko izaerarik» proposatzeko beharrik; erregimen sozial bakoitzaren ordena eta funtzionamenduak jarrera batzuk bultzatu eta beste batzuk oztopatzen dituela, jokabide batzuk saritu eta beste batzuk debekatu edo zigortzen dituela agerikoa da, eta hori egiaztatzea da kontua» (Martín-Baró, 1998: 93).

Babesgabetasun Ikasiaren teoria sakon aztertu dute eta hainbat eremutan aplikatu dute, hala nola droga mendekotasunean, genero indarkerian, osasungintzan, ikasgelako harremanetan eta abar. Teoriaren sortzaile Seligmanek (2000), babesgabetasunari buruzko bere lehen formulazio teorikoan, pertsonak kontrolatu ezin diren gertakizunei aurre egin behar dietenean beren erantzunak ondorioak kontrolatzeko eraginkorrak ez direla sentitzen dutela, eta esperientzia horrek defizit kognitibo, emozional eta motibazionalak eragiten dituela azaldu zuen. Ondoren, Seligmanek eta kolaboratzaileek teoria birformulatu zutenean, pertsonak beren erantzunak ondorioak kontrolatzeko balio ez dutela sentitzeak beren ezintasuna horri egoztea eragiten duela erantsi zuten, eta kausalitatearen egozte horren izaerak kontrol itxaropena sortzea ala ez baldintzatzen duela, baita defiziten intentsitatea eta orokortasuna ere.

Babesgabetasun ikasiari buruzko ikerketa aplikatu gehienetan, gertakizun jakinen ondorioen kontrolik gabeko egoera objektiboari aurre egin behar dieten pertsonak probaren egitekoari defizit orokor nabarmena dute. Zehazki, defizita jokabidearen hiru eremutan antzematen da:

1. Defizit kognitiboa: pertsonak beren erantzunak gertakizun jakinen ondorioekin inolako zerikusirik ez dutela ikasten dute, hau da, gertakizunak ez dutela loturarik nahitako erantzunekin, eta, beraz, ikasketak horrek ondoren erantzunak eraginkorrak izan daitezkeela uste izatea eragotziko du.
2. Defizit motibazionala: defizit kognitiboaren ondoren, pertsonak gertakizun horietan erabakiak hartzea mugatzen dute, eta ondorioak pasiboki onartzen dituzte, ondorioak gainditzeko aukera dutenean ere.
3. Defizit emozionala: gertakizun jakinen ondorioen gaineko kontrolik eza antzemateak depresioaren antza duen jokaera emozionala eragiten du. Seligmanen arabera (1975), jokaera horren aurrekaria beldurra da, baina pertsonak ondorioak kontrolatu ezin dituela ikasten duenean, beldurra gutxitu egiten da.

Babesgabetasuna barneratzen duten pertsonak zergatik ez dira zenbait erantzunen eraginkortasuna onartzeko gai? Gertakizunen ondorioak eta jokaera lotuta ez daudela ikasi dutelako, eta erantzun horiek emateko pizgarria urritu delako. Lehenago konpontzeko aukerarik ez bazegoen, zergatik saiatuko gara ondoren? Erantzuteak ala ez erantzuteak emaitzekin loturarik ez duela behin ikasteak etorkizunean erantzunak emaitzekin erlazionatzeko joera txikitzea dakar.


Esperientzia bera behin eta berriro izan eta etengabe hortik irteten saiatu ondoren, edozein ahalegin alferrikakoa dela ikasten dugu eta, azkenean, konponbidea bilatzeari utziko diogu, hau da, egoeratik irtetea gure esku ez dagoela ikasten dugu.

Horrelako egoerek klase herritarrei gehiago eragiten diete, zaurgarriagoak direlako.

Bibliografia

- Alonso, Luis Enrique (2009), *Prácticas económicas y economía de las prácticas: crítica del postmodernismo liberal*. Madril. Catarata.
- Antón, Antonio (2009), *Reestructuración del Estado de bienestar*. Madril. Talasa.
- Attali, Jacques (2009), *¿Y después de la crisis que...? Propuestas para una nueva democracia mundial*. Bartzelona. Gedisa.
- Blackburn, Robin (2010), *El futuro del sistema de pensiones: crisis financiera y Estado de bienestar*. Madril. Akal.
- Castells, Manuel (2010), *Comunicación y Poder*. Madril. Alianza.
- De la Fuente, Mikel (2007), *Reparto y capitalización. Estudio comparado del sistema de pensiones*. Madril. Consejo Económico y Social.
- Esping-Andersen, Gosta (2000), *Fundamentos sociales de las economías postindustriales*. Madril. Ariel.
- Esping-Andersen, Gosta eta Palier, Bruno (2010), *Los tres grandes retos del estado del bienestar*. Bartzelona. Ariel.
- Etxezarreta, Miren (coord.) (2004), *Crítica a la economía ortodoxa*. Bartzelona. Universidad Autónoma de Barcelona.
- Etxezarreta, Miren; Idoate, Elena; Fernández, José Iglesias eta Junyent, Joan (2010), *Qué pensiones, qué futuro. El Estado de bienestar en el siglo XXI*. Madril. Icaria.
- Lakoff, George (2010), *No pienses en un elefante: lenguaje y debate político*. 6. argitaraldia. Madril. Complutense.
- Lakoff, George eta Johnson, Mark (2009), *Metáforas de la vida cotidiana*. 8. argitaraldia. Madril. Catedra.
- Mishra, R (2000), «Los límites del Estado del bienestar», in Muñoz Machado, Santiago; García Delgado, José Luis eta González Seara, Luis (zuz.), *Las estructuras del Bienestar en Europa*. Madril. Civitas.
- Martín-Baró, Ignacio (2004), *Sistema, grupo y poder*. 4. argitaraldia. El Salvador. UCA Editores.
- Martín-Baró, Ignacio (1998), *Psicología de la liberación*. Madril. Trota.
- Martín Seco, Juan Francisco (2010), *La trastienda de la crisis: lo que el poder económico quiere ocultar*. Madril. Península.
- Moreno, Luis (koord.) (2009), *Reformas de las políticas de bienestar en España*. Madril. Siglo XXI.
- Navarro, Vincenç (2010), «Presente y futuro de la Europa social», en Westendorp, Carlos; Sartorius, Nicolás eta Egea de Haro, Alfonso (arg.), *La Unión Europea ante los grandes retos del Siglo XXI*. Madril. Marcial Pons y Fundación Alternativas.
- Navarro, Vincenç (zuz.) (2007), *La situación social en España II*. Bartzelona. Biblioteca Nueva.
- Navarro, Vincenç (2006), *El subdesarrollo social en España: causas y consecuencias*. Madril. Anagrama.
- Niño Becerra, Santiago (2009), *El crash del 2010*. 4. argitaraldia. Bartzelona. Los libros del linco.
- Patxot, Concepció eta Farré, Ramón (2007), *Evaluación de la sostenibilidad del Estado de bienestar en España*. Madril. Ediciones 2010.

- Pérez Fernández, José Antonio (2010), *¿Pensiones en peligro? Que la banca pague lo que debe*. Bartzelona. El Viejo Topo.
- Rodríguez Cabrero, Greogorio (2004), *El Estado del bienestar en España: debates, desarrollo y retos*. Madril. Fundamentos.
- Rodríguez Cabrero, Greogorio (2005), «El Estado del bienestar en España: procesos de restructuración, impactos sociales y tendencias de desarrollo en la era de la globalización». *Corintios XIII*, 112.-113. zenb., 69.-124. or.
- Roubini, Nouriel eta Mihm, Stephen (2010), *Cómo salimos de ésta*. Madril. Destino.
- Salido, Olga eta Moreno, Luis (2007), «Bienestar y políticas familiares en España», in *Política y Sociedad*, 44. lib. 2. zenb., 101.-114. or.
- Sampedro, José Luis eta Taibo, Carlos (2009), *Conversaciones sobre política, mercado y convivencia*. 4. argitaraldia. Madril. Catarata.
- Taibo, Carlos (2010), *En defensa del decrecimiento: sobre capitalismo, crisis y barbarie*. 3. argitaraldia. Madril. Catarata.
- Taibo, Carlos (zuz.) (2010), *Decrecimientos: sobre lo que hay que cambiar en la vida cotidiana*. Madril. Catarata.
- Zambrana, Justo (2006), *El ciudadano conforme: mística para la globalización*. Madril. Taurus.
- Zubiri Oria, Ignacio (2006), «El futuro del sistema de pensiones», in *Temas para el debate*, 139. zenb., 25.-28. or.
- Zubiri Oria, Ignacio (2009), «El sistema de pensiones español», in *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, extra 1. zk., 31.-57. or.



MANUEL CALVO GARCÍA

Zaragozako Unibertsitatea

mcalvo@unizar.es

Eskubide sozialen implementazioa eta eraginkortasuna krisi garaian*

Edukiak: 1. Ohar kontzeptualak: eskubide sozialen eskagarritasunaren oinarriak ezartzea.—2. Eskubide sozialen betebeharren egitura eta haien urraketen ikuspuntua.—3. Eskubide sozialen urraketak hautemateko eta eskubide sozialen gauzatzearen aurrerapausoak ebaluatzeko helburuen eta adierazleen sistema baterantz.—4. Krisi ekonomikoa eta eskubide sozialen eraginkortasuna.

Eskubideen eraginkortasunari buruzko ikuspuntu formalistek eskubideen eraginkortasunari buruzko gaiak barneko edo nazioarteko izaera duten testu juridikoetan aitortzera eta haien bermatzeko edo gainbegiratzeko aurreikusita dauden erakundeak eta prozedurak aztertzeraz —formalki, baita ere— mugatzen dituzte. Hainbatetan berrikusi dut gai hori ikuspuntu sozio-juridiko batetik. Abiapuntu horrek berez eramaten du ikuspuntu kritiko batera eta formalismo juridikoan ainguratutako tesi tradizionalak gainditzeko beharrera, eta, ondorioz, baita honetara ere: eskubideen baterako berreraikitzea defendatzeraz, praxitik abiatuta eskubideen zatiezintasuna eta elkarmenpektotasuna bermatzeko; eskubide sozialen betebeharren egiturari eta urraketaren ikuspuntuari buruz teorikoki sakontzera, Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Batzordearen garapenetatik abiatuta, eta, noski, irekitze sozio-juridikoak sartzea defendatzeraz, ezagutzaren ikuspuntutik nahiz eskubide sozialen eskagarritasunaren estrategiatik abiatuta, helburuen eta adierazleen sistema bat garatuz (Calvo, 2009). Baina gaur egungo krisi finantzario sakonaren eta horrek eskubide sozialak bermatzen duen eragin oso negatiboaren aurrean, ez du ematen ikuspuntu hori nahikoa denik. Hasteko, zentzugabekeria izango litzateke ikuspuntu sozio-juridiko batetik abiatzea eta jasaten ari garen krisia eta horrek eskubideetan, oro har, eta eskubide sozialetan, bereziki, dituen ondorioak alboratzea.

Egia esan, zehaztasun teorikoetatik harago, ez naiz eroso sentitzen arrazoibide tekniko edo legalista formal batean; baina, era berean, ez naiz eroso sentitzen, oro har, arrazoibide abstraktu batean jarrita, jasaten ari garen krisiaren ondorio larrietatik eta eskubide sozialen atzerakada argitik at. Hala eta guztiz ere, irekitzen ari den aukera ez da mugatzen krisiaren zenbatekoak eta eskubide sozialen atzerakada adieraztera. Oraindik ere,

* Lan hau «El tiempo de los derechos» *Consolider-Ingenio proiektuaren (2010) Laboratorio sobre la Implementación y Efectividad de los Derechos Sociales* (CSD2008-00007) jardueraren baitan egin da.

nire ustez, eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen betebeharreri eta inplementazio eraginkorrari buruzko teoria eta teknika egitea atzo bezain beharrezkoa da gaur ere. Horrez gainera, aurrerapauso garrantzitsuak egiteko bide eman du horien eskagarritasunari eta eraginkortasunari dagokienez. Ezin gara hor geratu, zenbait arrazoibidetan defendatzen den moduan (ikus *supra* 4.); baina, aldi berean, krisiak nire baikortasuna apaldu badu ere, eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen aurrerakadaren eta eraginkortasunaren alde borrokatzeko beharrari buruz dauzkadan uste sendoak indartu ditu. Hori dela eta, lan hau eskubide sozialen eskagarritasunari buruzko berrikuste sozio-juridikoen eta zenbait hausnarketa positiboren erdibidean dago, eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen eraginkortasunez krisiaren eraginari aurre egiteko. Ikuspuntu horien arabera, lehenengo atalean hainbat gai kontzeptual landuko dira, zenbait irizpide ezarriko dira, eta, azken horietatik abiatuta, eskubide sozialen eskagarritasunaren berri emango da. Horri dagokionez, eskubideen baterako berreraikitzea ardatz duen ikuspuntutik abiatuko gara; ikuspuntu horrek praxitik bermatuko ditu eskubide zibil eta politikoen eta eskubide sozialen zatiezintasuna eta elkarmenpekotasuna. Bigarren atalean, aurretik esandakoa oinarritzat harturik, eskubide sozialak eskubide horien eta horien bermeen aitorten eta berariazkotasun osoarekin bat etorrita gauzatzeko betebeharra birkontzeptualizatzeko urratsak emango dira. Helburu hori eskuratzeko, nolakotasunari eta nahitaezko izaerari dagozkion elementu bereizgarrien ordez, inplementazioari eta eskubide horien urraketak identifikatzeko oinarriei dagozkien elementu bereizgarriak analitikoki (eta, batez ere, horien bermeen eta eraginkortasunaren kontrolaren ikuspuntutik) integrazteko ahalegina egingo da. Hirugarren atalean, eskubide sozialen eskagarritasun osorako oinarriak ezartzeaz gain (berme judizialak eta sasi-judizialak barne hartuta, jakina), eskubide sozialen urraketak antzemateko erreferentziatzeko helburuen edo elementuen eta adierazle egokien sistema bat identifikatzeko eta garatzeko xedea duten ahaleginen egokitasuna eskatuko da zenbait kasutan. Azkenik, laugarren atalean, aurreko ataletan aurreratutako hausnarketak aurrez aurre jarriko ditugu jasaten ari garen eta eskubideetan oro har eta eskubide sozialetan bereziki eragin nabarmena duen krisi finantzario eta ekonomiko sakonaren egoerarekin. Atal horretan, nire ustez garrantzi berezia duten bi gai landuko dira: batetik, krisi finantzarioak eta ekonomikoak sortzen ez dituztenei, baina haien eraginak neurrigabe jasaten dituztenei ahotsa emateko beharra, eta, bestetik, paraleloki, mugimendu sozialek eta gizarte zibilak eskubideen inplementazio eraginkorrean duten garrantzia berriz hausnartzeko beharra.

1. Ohar kontzeptualak: eskubide sozialen eskagarritasunaren oinarriak ezartzea

Azken hamarkadatan, eskubideen zatiezintasunaren eta elkarmenpekotasunaren gaia giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen garapenak berak erabaki duela ematen du; hori argi eta garbi geratzen da *Vienako Adierazpenaren eta Ekintza Programaren* I.5 paragrafoan:

«Giza eskubide guztiak unibertsalak, zatiezinak eta elkarren menpekoak dira eta elkarrekin lotuta daude. Nazioarteko komunitateak era globalean, modu bidezkoan eta parekidean eta maila berean tratatuko ditu giza eskubideak, eta guztiei garrantzi bera emango die. Nazioko eta eskualdeko berezitasunak kontuan hartu beharko dira, baita ondare historiko, kultural eta erlijiosoak ere, baina sistema politikoak, ekonomikoak eta kulturalak gorabehera, estatuak giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak sustatzeko eta babesteko betebeharra dauka.¹»

¹ *Vienako Adierazpena eta Ekintza Programa* (A/CONF.157/23). *Giza Eskubideen Munduko Biltzarrean* onartua (Viena, 1993ko ekainaren 14tik 25era), 5. paragrafoa.

Hala ere, erabiltzen den erretorikan eta ahalegin analitiko serio batzuetan ez da gainditu erabat bereizketa hori. Egiaz, urrats garrantzitsuak eman dira eskubide mota guztien azpian dauden betebeharraren kontzeptua eta bermeak batera berreraikitzeke; baina, zenbait testu eta ekarpen doktrinal jakinez harago, alderaketa hori praxian gertatu dela esateko goiz da, agian. Hori dela eta, beharbada, ez dago sobera eskubide sozialen begirunerik eza (nolako egurra halako ezpala) berriz hausnartzea aitorpen osoaren eta bermeen ikuspuntutik.

Jatorriz, eta ideologia juridiko liberalaren planteamenduekin bat etorrita (Calvo, 1994: 260. orria eta hurrengoak), giza eskubideak *eskubide negatibo* gisa sortu ziren, hau da, betebeharrak negatiboak edo «ez egitekoak» sortzen zituzten eskubide gisa, eta tresna legegile orokorren eta behartzeko neurri judizial edo sasi-judizialen bidez berma zitezkeen. Planteamendu horien aurka, giza eskubideak garatzeak *eskubide positibo*en, hau da, eraginkortasunez gauzatzeko botere publikoen ekintza positiboak behar dituzten eskubideen, gai geroz eta zabalagoa onar dadin eragin du. Bestela esanda, Verdrossek (1969; 506, 431) bere garaian adierazitako moduan, *Giza eskubideen adierazpen unibertsalaren* edukia aintzat harturik, «estatuak *non facerea* adierazten duten askatasunari buruzko eskubideekin batera, estatuak *facerea* inplikatzeko duten beste eskubide batzuk daude; horiek eskubide prozesal eta politikoetan, batetik, eta eskubide sozialetan, bestetik, adarkatzen dira».²

Gaur egun, eskubideen garapenak eskubide positiboek garrantzia are gehiago nabarmendu du, haien onarpen kuantitatibo eta kualitatibo geroz eta handiagoari dagokionez behintzat. Estatuak eta nazioarteko gizarteak ez dira mugatzen herritarren askatasun naturala bermatzera, aitorpenaren eta babes negatiboaren bidez, eta eskubide politikoek eta zibilien ez-egiteko betebeharraren bidez, XVIII. mendearen amaierako eta XIX. mendearen hasierako eskubideen adierazpenek aditzera ematen zuten moduan. Oro har, eskubideak gauzatzeko (eskubide zibilak eta politikoak barne harturik) funtzio «promozional» bat onartzeko, estatuak aktiboki esku hartzera behartzen dira, eskubide batak zein besteak betetzeko.³

Eboluzio horren eraginez, eskubide zibilien eta politikoek eta eskubide sozialen arteko aldeak (edozein motatakoak) artifizieltzat eta oinarririk gabekotzat jotzen dira. Horri dagokionez, lan zientifiko askoren arabera, ez dago alde kualitatiborik, ez haien justifikazio axiologikoaren ikuspuntutik, ez bide ematen duten betebeharraren egituraren osakeratik edo ezta haien eraginkortasuna bermatzeko bermeen ikuspuntutik ere. Bereizketa horrek balio heuristikoren bat izan dezakeela onartzen da, baita ez-egitearen eta egitearen betebeharraren *continuum*ean graduko aldeak egon daitezkeela ere eskubideen kategoria baten eta bestearen artean, baina horrek ez du bide ematen eskubide zibil eta politikoetatik eta eskubide sozialetatik datozen betebeharraren izaerari dagozkion alde estrukturalak edo kualitatiboak hitz egiteko.⁴ Are gehiago, bereizketa horrek zen-

² Kontuan hartu, egile horren arabera, «eskubide positiboak» kontzeptuak eskubide zibilak eta politikoak ere barne hartzen dituela. Nik terminologia hori erabiltzea erabaki dut, eskubide sozialak «eskubide prestazional» gisa zehazten dituenaren ordez, nahiz eta gaur egun hedatuago dagoen, beharbada. Izan ere, lan honen helburuetarako egokia da eta zenbait arazo teorikori eta «prestazional» terminoa erabiltzeak planteatzen dituen mugei konponbidea ematen die.

³ Eboluzio hori atzoko eta gaurko eskubideen adierazpenetako eta konstituzioetako hizkuntzan bertan ikus daiteke. Adibidez, 1793ko *Gizonaren eta Herritarren Eskubideen Adierazpenak* «bermatzea», «babestea» edo «ez debekatzea» aipatu zituen; gaur egungo giza eskubideen konstituzioek eta nazioarteko eskubideen testuek «hartu», «bultzatu», «sustatu», «adoretu» eta abar erabiltzen dituzte. Hizkuntzaren erabilera ez dago eskubideen eraldaketetatik at. Estatuak nazioetako bizitza sozialean eta ekonomikoan duen *esku-hartze positiboa* ez da hartzen dagoeneko *botere* soiltzat, eta botere publikoei eska daitekeen *betebehar* gisa hartzen hasi da; batez ere, funtzio laguntzaileei eta balio eta helburu sozial jakin batzuk babesteari eragiten dihonean. Eskubideen funtzio promozionalai buruz gehiago ikus daiteke hemen: Bobbio, 1980: 367. orria eta ondorengoak.

⁴ Abramovich, eta Courtis, 2004: 27. Eskubideen doktrinak eta gainbegiratzeko organoek behin eta berriz aipatu duten gai hori hemen sakontzen da: Sepúlveda, 2002: 115. or. eta ondorengoak.

tzua izan dezake zuzenbidearen teoria tradizionala oinarritzen den ideologia liberalaren ikuspuntutik, edo be-
reizketa hori koartada geostrategikoetarako oinarria izan daiteke, baina, gaur egun, ez luke balioko inolaz
ere, eta soilik eskubide sozialen eskaezintasuna justifikatzeko soilik balioko luke.

Aurrekoaren arabera, beharrezkoa da eskubideen tipologiaren arteko aldeak gainditzea eta bide ematen du-
ten betebeharren egituraren eta haien eraginkortasuna bermatzen duten bermeen arteko korrelazioak agerian
jartzea, eskubide sozialen eskagarritasun osoa edo/eta oinarritzko eskubide gisa haien aitortzea bermatzeko.
Baterako berreraikitze horren ondorioz, eskubide zibilak eta politikoak zein eskubide sozialak oinarritzko es-
kubidetzat har daitezke. Ezbairik gabe, horrek oro har «eskubideen» ikusmolde liberala gainditzea ekartzen
du, eta haien izaera «poliedrikoa» onartzea, «aldi berean positiboak eta negatiboak diren, hein batean presta-
zionalak eta hein batean ez-prestazionalak diren, kostu handikoak eta kostu handikoak ez diren, mugatuak
eta mugagabeak diren, *ex constituzione* eduki eskagarria eta lege osarako edukia duten, dimentsio objektiboa
eta dimentsio subjektiboa duten, aginduen eta printzipio gidarien egitura duten eta eskubide justiziagarrien
egitura duten eskubide» gisa. Baterako berreraikitze horrek, aldi berean, eskubide guztien bermeen, eta bere-
ziki haien justiziabilitatearen, berreraikitze konplexua erraztuko luke (Pisarello, 2007: 111-112).

Aurrekoaren arabera, eskubideen betebeharren egituraren baterako berreraikitzeak eskubide sozialen eta
horien bermeen aitortzen osoa erraztea du xede. Hala ere, helburu horrekin ados egonagatik, elementu be-
reizgarriak gogoan har daitezke, horiek gauzatzen direla bermatzeko helburuetarako, besteak beste. Horrela,
aipatu da «eskubide batzuen eta besteen arteko aldeak ezabatzeak ez diola beti eskubide sozialen kausari me-
sede egiten»; batez ere, horiek gauzatzeko estrategien ikuspuntutik funtsezko aldeak ezabatzen badira. Horri
dagokionez, eskubide sozialek «ekintza politikoaren eta juridikoaren hainbat teknika eska ditzaketela» azpimarra-
tzen da (García Manrique, 2007: 496). Egiaz, eskubide sozialen justiziabilitatea behin eta berriz aipatzen du-
tenen helburua ez da eskubide sozialen dimentsio politikoa —eta emantzipatorioa— edo/eta haien demokra-
tizazioa saihestea, baina eskubide sozialen eta haien eskagarritasun judizialaren funtsezko eskubideen izaera
nabarmentzeko helburuak egiturazko zenbait elementu alda ditzake, eta horiek ulertzea funtsezkoa da horien
kontrola bermatzeko eta eskubide emantzipatorio gisa duten eraginkortasun osoa gauzatzeko (D'Elia, 2008).

Eskubide mota horien ezaugarriekin lotutako beste gai teoriko batzuk alde batera utzita, garrantzitsua da
—aurreko puntuan esandakoaren adibidea emate aldera— horiek inplementatzearekin lotutako datu aipagarri bat
azpimarratzea. Eskubide horiek eraginkortasunez gauzatzeko botere publikoaren ekintza positiboa eskatzen dutenez
askotan, horrek baliabide material eta giza baliabide garrantzitsuak mobilizatzea eskatzen du, eta horiek prozesu
oso konplexu batean antolatzea, honakoak barne hartuta: neurri legegileak, politika publikoak eta sozialak, ekin-
tza planak eta programak eta oinarritzko zerbitzuak eta azpiegiturak antolatzea; hori guztia aurretiko baldintza da,
babespeko subjektuak eta taldeak babesteko eta haien ongizaterako helburu materialak eraginkortasunez gauzatzeko.
Eraldaketa horiek inplementazioko egoera arautzaileak ekartzen dituzte eta eskubideak gauzatzeko egituraren eta
dinamiketan funtsezko aldaketak eskatzen dituzte. Mutazio horiek terminologia aldatzera behartzen dute, baita es-
kubideen garapenaren aplikazioari eta ebaluazioari buruzko azterketa tradizionalen ikuspuntua ere.

«Hasteko, eskubide sozialen logika promozionalak aldaketa garrantzitsuak egitea inplikatzeko du,
bai betebeharen juridikoaren ikuspegitik bai eskubide mota horiek babesten dituzten helburuen, xe-
deen eta balioen gauzatze eraginkorrera bideratutako dinamiken eta politiken ikuspuntutik. Aplikazio
eta kontrol negatiboen prozedura tradizionalen aurka, promoziorako eta kontrolerako bitarteko eta
modu berriak sortu dira, eta horiek funtsezko aldaketa bat zehaztu dute giza eskubideen nazioarteko
zuzenbidearen tresna juridikoetan nahiz politika publikoetan eta estatuaren zuzenbidean. Eskubideen
gauzatze eraginkorra eta gizartearen ongizatea bermatzea xede duen botere publikoaren esku hartze ak-

tiboak lekualdaketa argia sortuko du dinamika juridikoan: berme judizialak eta sasi-judizialak antolatzen, eskubidea balioak eta interes sozialak gauzatzen dituzten programak eta politika publikoak egiteko erabiltzera. Erregulazioa eta «burokratizazioa» esku hartzeko eredu paradigmatico baten adierazpen bihurtzen dira; eredu horrek borondate politikoak eta bitarteko material egokiak aldi berean gertatzea eskatzen du, ezarritako xedeak eta helburuak lortzeko eta eskubide sozialak babesteko tresnak eskuratzeko.» (Calvo, 2005).

Eskubide positiboak eraginkortasunez gauzatzeak, hasteko, esku hartzeko esparru juridiko-burokratikoaren sortzea eta abian jartzea eskatzen du; hain zuzen, balio, helburu eta interes sozial babestuak sustatzera bideratutako programen eta politiken garapena bere gain hartuko duen esparrua. Azken finean, bitarteko ekonomiko, instituzional eta tekniko eta giza bitarteko handiak mobilizatzea eskatzen du: aurrekontu hornidurak, politika publikoak eta esku hartzeko programak diseinatzea eta sustatzea, esku hartzeko tresnak eta azpiegiturak sortzea edo egokitzea —publikoak eta erdi-publikoak—, adituekin lanean hasita, kontrolak eta ebaluazioak ezartzea eta abar. Prozesu horrek aise gaitutuko luke kontrol judizialeko edo sasi-judizialeko eredu logiko edo ia logiko batean oinarritutako ikusmolde tradizionala. Arazo korapilatsuago baten aurrean gaude; horrek ondo justifikatzen du ezartzen ari den aldaketa terminologikoa. Horrela, aplikazioaren kontzeptu zaharraren aurka, «inplementazio» terminoa erabiltzen hasi da, ia modu orokorrean, prozesu konplexu horri buruz hitz egiteko; prozesu hori ez da konpontzen erabaki bakan batekin, oso konplexua izan daitekeen esku hartzeko eredu batekin abiatuta baizik, eta haren ebaluazioan konplexutasun horren eskakizunek eragingo dute ezinbestean.

Laburbilduz, esku hartze positiboko funtsezko osagai bat daukaten eskubideak gauzatzeak (bai eskubide zibilak eta politikoak, bai eskubide ekonomikoak, kulturalak, sozialak edo ingurugirokoak) formalismo juridikoaren xedeak alde guztietatik gainezka egiten duten egoera konplexu batera hurbiltzen gaitu. Ez gaude soilik eskubidearen materializatzearen, diskrezionaltasuna handitzearen eta abarren ikuspegiaren aurrean (Calvo, 2005); aldiz, banaka kontrola daitezkeen erabaki bakanak izan ordez, erabaki kateak izango ditugu.⁵ Bestalde, eskubideak urratu diren hala ez zehatzeko zailtasunak egoteak (hala nola eskubide sozialen baldintza ekonomikoa, subjektuak zehaztea eta behar diren babesen helmena finkatzea, atzeragarritasuna dagoen ala ez egiaztatzea, etab.) zaildu egin dezake horiek formalki kontrolatzea. Noski, kontrol formalaren urritasunak ez dira berme judizialak eta sasi-judizialak ukatzearekin konpontzen, haiek betetzeko bide emango duten garapen teoriko eta praktikoen eta haiek osatzeko bide emango duten gainbegiratzeko beste mekanismo batzuekin baizik. Horri dagokionez, azken urteetan, eskubideen betebeharren egituraren baterako berreraikitzean eta eskubide sozialen helmenaren interpretaziozko zehaztapenetan asko aurreratu da; halaber, eskubideen eskagarritasuna erraztera bideratutako proposamenak ere garatu dira. Horri dagokionez, aurreratu daiteke lorpen garrantzitsuak egin direla bi zentzu horietan. Hala ere, praxiak esaten digu hari-mutur asko daudela lotzeke, eskubide sozialak gauzatzeko. Hori dela eta, ez da gaizki etorriko atal honetan aurreratutako irizpideen arabera gai horri dagokionez egin diren garapen analitiko nagusien aukerak eta mugak berrikustea eta zehatzea.

⁵ Keith Hawkinsek (2002: 39) bereziki kasu buruzko erabakien eta kasu motei buruzko erabakien artean bereiztea proposatu du. Bere iritziz, garrantzitsua da zenbait erabaki mota *policy decisions* gisa hartzea; horiek modu koherentean eta orokorrean aurre egin behar zaien kasu edo gertakari motak edo mailak bilduko lituzkete. Zenbait helbururi erantzuten diotenez eta politika arautzaile zehatz baten barruan daudenez, seriean hartutako erabaki mota horiek erabakiaren teoria berreraikitze behartuko lukete, kasu buruzko erabakiak ardatz dituzten proposamenetan ohi baino konplexutasun maila altuagoa erabiliz (47. orria eta hurrengoak). Agentzia administratiboek —poliziaz; gizarte, osasuneko eta hezkuntzako zerbitzuak; berdintasunerako erakundeak, etab.— testuinguru antolatzaile baten barnean onartzen dituzten politikak egitera bideratutako erabakiak hartzen dituzte; horrek jardura lerro bat zehazten du, baliabide materialak eta pertsonalak administratzen ditu, interbentzionistaren zorrotasuna modulatu du, arau orokorrak hartzen ditu eta, batzuetan, onartutako funtzio promozionalekin eta kontrolekin lotuta noiz eta nola jardun erabakitzen du are zehatzago.

2. Eskubide sozialen betebeharren egitura eta haien urraketen ikuspuntua

Lehenago aipatu dudan moduan, eskubide sozialen inplementazioak erakunde publikoen esku hartze positiboa eskatzen du kasu askotan; hain zuzen esku hartze hori politika sozialak garatzen eta aurreikuspen laguntzaileak egitean datza eta baliabide ekonomiko garrantzitsuen mobilizazioa eska dezake; hortaz, haren gauzatze eraginkorra garapen progresiboaren eredu baten arabera sortzen da eta alderdi diren estatuen bitartekoek baldintzatzen dute. Hasieran, «posible denaren erreserba ekonomikoa» (Contreras Peláez, 1994: 109. orria eta hurrengoak) ere deitzen zaion baldintzatzaile horrek ez die eragiten eskubide negatiboari, baina eskubide positiboak oztopatzen ditu funtsean eta, bereziki, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, estatuko ezgaitasun ekonomikoko kasuetan:

«Paktu honetako Alderdi den Estatu bakoitzak, bere aldetik zein nazioarteko laguntza eta kooperazioaren bitartez, ekonomiko eta teknikoa bereziki, egoki diren neurri guztien bitartez, legegintzakoak barne, *ahal dituen baliabide guztiak erabilita*, pixkanaka hemen aintzatesten diren eskubideen eraginkortasun osoa lortzeko neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du.» (EESKNI, 2.1 art.).

Horren arabera, eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen inplementazioaren arazoa ez litzateke heretik teknikoa izango; aldiz, sozioekonomikoa izango litzateke eta, azken finean, borondate politikoarena. Estatuek eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak bermatzeko duten konpromisoa baliabideen erabilgarritasunaren baldintzapekoa izatea oso nekagarria da justizia sozialaren edozein ikuspuntutatik eta eskubideak existitzen diren ala ez zalantzan jartzea ere eragin dezake, haiek inplementatzeko baldintzarik eta baliabiderik ez dagonean. Baina, horrez gainera, baldintza ekonomikoak dakarren zuloaren bidez eta, ondorioz, hura bermatzen duten mekanismoak gutxitzearen bidez, eskubide sozialen eta haren eskagarritasun baldintzen degradazioa areagotu zen.

Egia esan, degradazio hori 2. artikulua irakurketa oker batean oinarritzen zen, edo hobe esanda, baldintza ekonomikoa soilik azpimarratzen zuen irakurketa batean; hain zuzen, alderdi diren estatuen betebeharrak mugatzeko «ahal dituen baliabide guztiak erabilita» esaten baitu, eta ahaztu egiten baititu betebeharrak modulatzen dituzten beste elementuak. Azken horien arabera, alderdi diren estatuek:

- «neurriak hartzeko konpromisoa hartzen dute ... egoki diren neurri guztien bitartez, legegintzakoak barne»;
- «pixkanaka ... eskubideen eraginkortasun osoa lortzeko»;
- «diskriminatu gabe» (2.2);
- «nazioarteko laguntza eta kooperazioaren bitartez».

Alderdi diren estatuen borondate politikoen itunetik etorritako betebeharrak gauzatzeko aukerak baldintzatu ohi dituzten interpretazio mota horiei begira, «*Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituneko* alderdi diren estatuen betebeharren izaera eta helmena» argitzeko asmoz 1986an Maastrichten egingadako adituen bilerak gauzak bere lekuan jarri zituen; izan ere, ituna ezerezean uzten zuten ihesbideei argi eta garbi uko egiten zieten interpretaziozko oinarriak ezarri zituen.⁶

⁶ Cfr. «*Limburgeko Printzipioak*» izeneko dokumentuan hainbat ondorio azaltzen dira; 16. paragrafoa eta hurrengoak.

Ondoren, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak berak «Alderdi diren Estatuaren betebeharren izaera (Ituneko 2. artikuluko 1. paragrafoa)» dokumentuari buruzko 3. Ohar orokorrean (1999)⁷ *Limburgeko Printzipioetan* garatutako irizpideak zorrotz ezarri zituen, itunaren benetako interpretazioa egiteko:

«Pixkanakako eraginkortasuna» adierazpena maiz erabiltzen da esaldi horren helburua deskribatzeko. Pixkanakako eraginkortasunaren kontzeptuak aitortzen du eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen eraginkortasun osoa oro har ezin dela lortu epe laburrean. Horren harira, betebeharra Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 2. artikuluan ezartzen denaren oso bestelakoa da, eta eskubide egoki guztiak berehalakoan errespetatzeko eta bermatzeko betebeharra ezartzen du. Hala ere, Itunari dagokionez eraginkortasuna denboran zehar edo, bestela esanda, pixkanakakoa izatea ezartzen bada, ez da oker interpretatu behar, eduki garrantzitsu orori uko egiten baitio. ... Horrek helburu hori ahal bezain librean eta eraginkortasun handienarekin lortzera bideratutako betebeharrak ezartzen du.»

Horrez gainera, 3. Ohar Orokor horretako 5. paragrafoak honakoa ezartzen zuen: «egokitzen hartu behar du lirategien neurrien artean, legegintzakoek gain, eskubideei dagokionez baliabide judizialak eskaintzeko neurria dago, eta nazioko sistema juridikoarekin bat etorrira, justiziagarritzat har daitezke». Testu horretan eskubide ugari aipatzen dira, diskriminaziorik ez egotea eskatzeaz gain, horiek «organo judizialek eta bestelakoek berehala aplikatu beharrekoak dira nazioko hainbat sistema legeetan».⁸

Hala eta guztiz ere, beste urrats bat falta zen itunean aitortutako eskubideen beharrezko zentzua sendotzeko eta aurrerakortasunaren *vis attractiva* eta baldintza ekonomikoa gainditzeko. Zentzu horretan, aurreko mendeko 90eko hamarkadaren erdialdera «urraketek» hitz egiten hasten da eta, horrela, beste pauso bat eman zen eskubideak bateratuz eta zatiezinezkotzat hartzeko. Ez dira soilik urratzen eskubide zibilak eta politikoa; aitzitik, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak ere urraketek buruz hitz egin daitezke eta hitz egin behar da. Kontzeptu horren erabilera aurrez landu bazen ere, gaketat har daitezke zentzu horretan 1996an Audrey Chapmanek argitaratutako lana, «urraketen ikuspuntuaren» alde egiten baitu eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak gainbegiratzeko eta haien eraginkortasuna kontrolatzeko (Chapman, 1996: 23-66). Eskubideen urraketak identifikatzen arreta jartzeko proposamena praktikoa da funtsean, eta esku hartzeko eta eskubide sozialei edukia emateko xedea ditu.⁹ Beste ikuspuntu bat da hori eta pixkanakako eraginkortasunaren kontzeptuarekin

⁷ Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 3. Ohar orokorra (1999) «Alderdi diren estatuaren betebeharren izaerari» (Ituneko 2. artikuluko 1. paragrafoa) buruzkoa, 3. paragrafoa eta hurrengoak. Ikus Giza eskubideen itunei jarraiki sortutako organoek onartutako ohar orokorren eta gomendio orokorren bilduma, HRI/GEN/1/Rev.7 (2004ko maiatzaren 12a) 16. orria eta hurrengoak.

⁸ Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 3. Ohar orokorra (1999) «Alderdi diren estatuaren betebeharren izaerari» buruzkoa (Ituneko 2. artikuluko 1. paragrafoa), *cit.*, 5. paragrafoa.

⁹ Chapman, 1996: 36. orria eta hurrengoak. Ondoren, ideia horretara itzuliko da, Sage Russellekin batera, eta han aurreratutako planteamenduak sintetizatuko ditu. Ikus Chapman eta Russell, 1998: 10. Aplikazio maila pixkanakako eraginkortasunaren kontzepturen baten arabera ebaluatzen ahalegindu ordez, urraketak identifikatzea hobea dela uste da. Hemen, benetako eta ageriko azterketa prozesu bat defendatzen da, nazioarteko beste tresna batzuek betetzen diren ala ez zaintzearen pare egongo den betetzea ebaluatzeko. Jarduera bidegabeak amaitzeko eta zuzentzeko urraketak definitzeak lehenetsi handiagoa du hezkuntzarako eskubidearen pixkanakako eraginkortasunaren sustapenak baino. Giza eskubideak eraginkortasunez gauzatzen direla zaintzea ez da jarduerak akademiko bat; horren helburua giza eskubideen nazioarteko arauak urratzeak eragindako giza sufrimendua mugatzea da. Urraketak definitzen arreta jartzearen beste onura bat eskubide horien eduki positiboa kontzeptualizatzeko bitarteko eraginkorrago bat izan daitezkeela da, orain arte egiten saiatu diren azterketa abstraktuak eta filosofikoak baino.

lotutako erretorikak gainditzeko —positiboan eta negatiboan— ikuspegi baterako bide ematen du, eskubide horien inplementazioa hobetzera eta horiek eskubide zibilekin eta politikoeekin parekatzera begira.

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko ituna aplikatzeari buruzko *Limburgeko Printzipioen* hamargarren urteurrena zela eta, Maastrichten aditu talde garrantzitsu batek egindako bileran aipatutako tesiak *Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketari buruzko Maastrichteko arauetan* jaso ziren. Horietan honakoa ezartzen da zorrotz:

«Eskubide zibilen eta politikoen moduan, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturek estatuei hiru klastetako betebeharrak ezartzen dizkiete: errespetatzea, bermatzea eta betetzea. Hiru betebeharrak horietako baten bat ez betetzea eskubide horiek urratzea da.» (D.6).

Eta, pixkanaka, ikuspuntu horrek oihartzuna izango du Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Batzordeak Itunari buruz egindako interpretazioetan.¹⁰ Laburbilduz, garrantzi bereziko ahalegin analitiko baten aurrean gaude; ahalegin horrek eskubideen helmena «modu interpretatiboan» argitzeko balio du, eskubide sozialak eskubide zibilekin eta politikoeekin parekatzeko, eta helburu praktikoko garbiak ditu, eskubide sozialen eraginkortasunari buruzko inplementazioa eta kontrola hobetze aldera.

Urraketari buruzko ikuspuntua ez da bateraezina aurrez egon diren eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen azpiko betebeharren egiturari buruzko garapen analitikoarekin. Modu horretan, urraketan ikuspuntua betebeharren hiruko tipologia izenekoarekin osatzen da; tipologia hori Henry Shuek, Asbjørn Eidek eta G. H. J. van Hoofek garatu zuten berez eta, gero, Batzordeak berak ekin zion gai horri *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituneko* betebeharren izaerari buruz egindako interpretazioetan (Sepúlveda, 2002: 157. orria eta hurrengoak). Zentzu horretan, gaur egun, errespetatzeari, babesteari eta betetzeari buruzko betebeharren urraketak eta horiek sustatzeari buruzko betebeharraren urraketak aipatzen dira; eskubidearen funtsezko gutxieneko edukiaren elementuei buruzko urraketak adierazten dira; urraketak gauzatzeagatik edo ez-gauzatzeagatik izan daitezkeela argi uzten da; diskriminazioa (2.2 artikulua) urraketan ohiko zergatia dela eta neurri erregresiboak eskubideen urraketan jatorria direla azpimarratzen da, eta abar. Diskurtso horren harira, betebeharren edukia eta helmena analitikoki modulatu da, eta alderdi diren estatuen betebeharren azalpenari buruzko garapenak funtsezkoak dira, hala nola errespetatzeari, babesteari eta betetzeari, eta sustatzeari dagozkien betebeharrak.¹¹ Gainera, noski, berehala gauzatzeko eta pixkanaka gau-

¹⁰ *Elikadura egokirako eskubideari* (11. artikulua) buruzko 12. ohar orokorrean agertzen da, 1999, 14. paragrafoa eta hurrengoak; cfr. halaber, ikus *Hezkuntzarako eskubideari* (13. artikulua) buruzko 13. Ohar orokorra, 1999, 43. paragrafoa eta hurrengoak; ikus, batez ere, 58. paragrafoa eta hurrengoak; *Ahalik eta osasun maila onena izateko eskubideari* (12. artikulua) buruzko 14. ohar orokorra, 2000, 46. paragrafoa eta hurrengoak, batez ere 58. paragrafoa eta hurrengoak; etab.

¹¹ *Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketari buruzko Maastrichteko Arauak*. Ikus 6. zk.: «... Errespetatzeko betebeharrak estatuei eskatzen die ez daitezela tartean sartu eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak izateko orduan. Horrela, estatuak huste arbitrarioak eta bortxazkoak egiten baditu, etxebizitzarako eskubidea urratuko da. Bermatzeko betebeharrak estatuei eskatzen die beste batzuek eskubide horiek urratzearen aurka egin dezaten. Era horretara, estatuak ez badu bermatzen enplegatzaile pribatuek laneko oinarritzko arauak betetzea, lan egiteko eskubidea edo lan baldintza bidezkoak eta zuzenak izateko eskubidea urra daiteke. Betetzeko betebeharrak estatuei eskatzen die legegintzako, administrazioko, aurrekontuetako, epailetzako eta beste arlo batzuetako neurriak ezartzeko, eskubide horien erabateko gauzatzea sustatze aldera. Modu horretan, urraketa bat izan daiteke estatuak ez ematea zainketa medikorik horiek behar dituztenei». *Ahalik eta osasun maila onena izateko eskubideari* (12. art.) buruzko 14. *Ohar orokorrak* eta beste zenbaitek «betetzeko betebeharrak sustatzeko betebeharrak dakarrela» dioten nabardura bat gehituko die aurrekoei (37. paragrafoa).

zatzeke betebeharren arteko bereizketa egitea azpimarratzen da eta, beste ikuspuntu batetik, jokabidezko betebeharren eta emaitzen arloko betebeharren artean. Horrez gainera, eragile garrantzitsuen alorra ere handitzen da, betebeharrak dituztenen subjektuen gisa, hala nola alderdi den estatuaz gain, alderdi diren gainerako estatuak, Nazio Batuen organoak, gaiari dagokien erakunde espezializatuak, eragile pribatuak eta gizarte zibileko erakundeak.

Interpretaziozko ahalegin horiez harago, *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren Hautazko Protokoloa*¹² atek ireki dizkio partikularrek eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzko komunikazioak aurkezteari, eta urraketen ikuspuntua indartzen du, 2. artikuluan honakoa ezartzen baitu: komunikazioak aurkeztu ahal izango dituzte «alderdi den estatuaren jurisdikziopean dauden eta alderdi den estatu horrek Itunean aipatzen diren edozein eskubide ekonomiko, sozial eta kultural *urratzeagatik* biktima direla alegatzen duten pertsonak edo pertsona taldeek» (enfasi erantsia).

3. Eskubide sozialen urraketak hautemateko eta eskubide sozialen gauzatzearen aurrerapausoak ebaluatzeko helburuen eta adierazleen sistema baterantz

Kontzeptu esparru bat (eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen «betebeharrei» eta «urradurei» dagokienez) garatzean egindako aurrerapenak geroz eta zabalagoak eta eraginkorragoak diren zenbait estrategia defendatzeak osatu ditu; hain zuzen, eskubide sozialen eskagarritasunaren arloko eta, batez ere, eskubide mota horien eraginkortasunari dagokion kontrolaren *judizializazioari* buruzko estrategiak defendatzeak. Ikuspuntu praktikotik zein teorikotik aurrerapen nabarmenak egin dira gai horri dagokionez. Egia esan, hainbat dokumentutan, hala nola 3. Ohar orokorra edo *Limburgeko Printzipioak* dokumentuetan, zenbait eskubideren kontrol jurisdikzional zuzenerako oinarriak ezarri ziren, oso goiz, modu interpretatiboan; halere, aurrerapausorik garrantzitsuenak geroago etorri dira. Beharbada, zentzu horretan gertaera garrantzitsu bat Batzordeak 9. Ohar orokorrean egindako adierazpen zorrotza da. Izan ere, bertan baieztatzen du egia dela Itunean aitortutako eskubideak modu egokian inplementatzeko baliabide eraginkorrek ez dutela beti baliabide judizialak izan beharrik; baina, halere, egia da «Itunean aitortutako eskubide bat ezin bada erabat gauzatu botere judizialaren esku hartzerik gabe, baliabide judizialak ezarri behar direla» (9. paragrafoa). Ondoren, honakoa ezartzen da:

«10. Eskubide zibilei eta politikoei dagokienez, normalean jakintzat hartzen da funtsezkoa dela eskubide horien urraketen aurkako baliabide judizialak egotea. Zoritxarrez, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri dagokienez, aurkako ustetik abiatzen gara gehiegitan. Alde hori ez dute justifikatzen eskubideen izaerak ezta Itunari dagozkion xedapenek ere. Batzordeak argitu du Ituneko xedapen asko berehala aplikatu daitezkeela. Horrela, 3. Ohar orokorrean (1990) Ituneko artikulua hauek aipatzen ziren, adibidez: 3. artikulua, 7. artikulua a) ataleko i) tartekia, 8. artikulua, 10. artikuluko 3. paragrafoa, 13. artikuluko 2. paragrafoaren a) atala, 13. artikuluko 3. eta 4. paragrafoak eta 15. artikuluko 3. paragrafoa. Horri dagokionez, garrantzitsua da justiziabilitatea (auzitegietan ebatz daitezkeen edo ebatzi behar diren gaiei dagokie) eta berehala aplikatu beharreko arauak (auzitegiek horiek aplikatzeko bide ematen dute, digresio gehiagorik gabe) desberdintzea.»

¹² Nazio Batuen Batzarraren ebazpenaren bidez onartu zen behin betiko, 2008ko abenduaren 10ean, *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren Hautazko Protokoloa* (A/RES/63/117); protokolo horrek eskumenak ematen dizkio Batzordeari partikularren eta taldeen komunikazioak jasotzeko eta aintzat hartzeko.

Inolako zalantzarik ez egoteko, Batzordeak kontrol juridikzionala ekiditeko hartu izan ohi diren zenbait ihesbide ixten ditu:

«Sistema juridiko bakoitzaren planteamendu orokorra kontuan hartzea beharrezkoa izan arren, itunean aitortutako eskubide guztiak dimentsio garrantzitsuak dituzte (justiziabilitatekoak, gutxienez) sistema gehienetan. Batzuetan, iradoki da baliabideen izendapena dakarten gaiak agintari politikoei bidali behar zaizkiela, eta ez auzitegiei. Hainbat botereri dagozkien eskumenak errespetatu behar diren arren, komeni da aitortzea auzitegiek dagoeneko parte hartzen dutela eskuragarri dauden baliabideetarako ondorio garrantzitsuak dituzten gai askotan. Berez, auzitegietatik kanpo kokatutako eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen sailkapen irmoa ezartzea, hortaz, arbitrarioa eta bateraezina izango litzateke bi eskubide taldeak zatietan eta elkarren menpekoak direla dioen printzipioarekin. Halaber, auzitegiek gizarteko talderik ahulenen eta egoera larrienean daudenen eskubideak babesteko duten gaitasuna zorrozki murriztuko litzateke.» (10. paragrafoa).

Gaur egun, korrante doktrinal zabala eta sendoa dago zentzu horretan, eta zenbait herrialdetako, hala nola Hego Afrikako eta Indiako, auzitegien praxiak aukera praktikoa zabalak antzemateko bide ematen du horri dagokionez.¹³ «Irudimena» behar da eta mekanismo prozesal berriak eta mekanismo prozesal tradizionalak erabiltzeko modu berriak garatzea; arlo horretan, aurrerapen nabarmenak egin dira azken urteetan.¹⁴

Aurrekoa azpimarratu ondoren, eta eskubide sozialen inplementazioaren kontrolaren «judizializazioan» egindako aurrerapenei garrantzirik kendu gabe, komenigarria izan daiteke eskubide horien espezifikotasunetan arreta jartzea, kontrol horren problematika eta hori nola osatu aztertzeko edo/eta beste metodologia batzuetatik abiatuta osatzeko. Zentzu horretan, argi dagoela ematen du eskubide sozialak errespetatzeko edo babesteko betebeharren urraketa zehaztea lan nahiko konplexua dela, baina, nolahi ere, ikuspuntu judizial edo sasi-judizial batetik ekiteko modukoa da. Gauza bera esan daiteke errespetatzeko eta babesteko betebeharrei dagokienez ere, eskubideak gauzatzeko diskriminazioen aurka. Hala ere, eskubide sozialekin lotutako betetze betebeharrak gauzatzera bideratutako zenbait politika sozial inplementatzearen tesuinguruan urraketa bat noiz egon den zehaztea jakintza eta praxi tekniko-juridikoa gaindi dezakeen lana izan daiteke. Kasu horietan, eskubide baten asebetetzea bermatzeko betetze betebeharrak erakunde publikoek neurri positiboak har ditzaten eskatzen duenean, eskubideen urraketa antzematea lan konplexuagoa izan daiteke, batez ere baliabideak egotearen edo pixkanakako gauzatzearen baldintzapean badago. Horri dagokionez, zehaztu egin behar da betetze eskubide batek zein kasutan ez dien laguntzen gutxieneko betebeharrei eta urraketa noiz egiten den politika erregresiboen ondorioz edo betebeharraren helmenari buruz egindako interpretazioetan ezarritako gainerako urraketan ondorioz. Aipatutako eskubide sozialen ezaugarri bereizgarriek, adibidez, betebeharren kontrol juridiko-formala zaildu dezakete kasu askotan, batez ere betetze betebeharra, eta tresnak garatzera bultzatu gaitzake noraino eskatu daitezkeen neurtzeko eta konplexutasun handia duten eta askotan urriak diren baliabideak egotearen baldintzapean dauden gauzatze positiboko betebeharren betetzea nola gainbegiratu jakiteko. Kasu horietan, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketa antzemateko bide ematen duten ebaluazio tresna sozio-juridikoen garapena sustatzea beharrezkoa da. Tresna horietako batek adierazleen eta helburuen sistema bat garatuko eta operazio-

¹³ Cfr., adibide gisa, Abramovich eta Courtis, 2004; Ghai eta Cottrell, 2004; Ramcharan, 2005; Coomans, 2006. Azken horrek ikuspegi zabala eskaintzen du hainbat herrialdetan eskubideek duten babes judizialaren praxiari buruz.

¹⁴ Zentzu horretan lan oso interesgarria egin dute Abramovichek eta Courtisek (2004: 46-47; 2. kap. eta 3. kap.). Batzuetan, estrategiak eta aurretiko ulermenak aldatzea eragingo du judizializazioak, eraginkortasuna areagotzeko (Tushnet, 2008).

nalizatuko du, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaletan urritasunak, disfuntzionaltasunak edo urraketak antzemateko.¹⁵

Erreferentziazko helburuen edo elementuen¹⁶ eta adierazleen sistema batek ez-betetzeagatik egindako urraketak antzemateko balio behar du. Zentzu horretan, betebeharren gutxieneko edukiak betetzen diren ala ez neurtzera eta baloratzera bideraturik egon behar da, baita eskumena duten erakundeek eskubide sozialak¹⁷ gainbegiratzean eta bermatzean garatutako interpretaziozko ahaleginetan finkatutako urraketak gertatzen diren ala ez ere. Nolanahi ere, funtzionaltasun aipagarriak izango lituzke beste urraketa mota batzuk azaleratzeko, hala nola eskubide sozialak izateko diskriminazio edo bazterketa egoerek sortzen dituztenak —horretarako, komenigarria izango da modu egokian bereiztea—. Paraleloki, ildo horretan garatutako adierazleen eta helburuen sisteman batek arrisku egoerak antzemateko eta eskubide sozialen urraketan ikuspuntutik talde ahulak zein diren identifikatzeko bide eman behar du.

Hori horrela, agian komeni da azpimarratzea ezaugarri horiek dituen erreferentziazko helburuen edo irizpideen eta adierazleen sistema batek ez daukala zertan beti bideraturik egon soilik itunak betetzen diren ala ez gainbegiratzeko estatu bakoitzak dituen organoek estatuen betebeharrak monitorizatzera. Ezbairik gabe, horrek izan behar du bere xedeetako bat eta, berez, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak gauzatzearekin lotutako adierazleen eta helburuen sistema bati buruzko hausnarketen eta proposamenen jatorria zehazten

¹⁵ Eskubide sozialen arloan, adierazleei buruzko eztabaida Danilo Türken lanekin hasi zen; izan ere, lan horien aztergaia eskubide mota horiek nazioartean zuten eraginkortasunaren monitorizatzeko arazoak ziren. Ikus Danilo Türk, *Realization of economic, social and cultural rights, Report of the Special Rapporteur of the Sub-Commission on Prevention of Discrimination and Protection of Minorities*, E/CN.4/Sub.2/1990/19 (1990); ID, *Realization of economic, social and cultural rights, UN ESCOR, Commission on Human Rights. Second progress Report of the Special Rapporteur of the Sub-Commission on Prevention of Discrimination and Protection of Minorities*, E/CN.4/Sub.2/1991/17 (1991). Prozesu hori zenbait adituk egindako bilera batean amaitu zen; adituek lanak batu eta Vienako Adierazpena idatzi zuten 1993an. Ikus *Informe del Seminario de expertos sobre el empleo de indicadores adecuados para supervisar la realización progresiva de los derechos económicos, sociales y culturales*, A/CONF.157/PC/73 (Geneva, 1993ko urtarrilaren 25etik 29ra). Arlo horretan, aurrerapauso garrantzitsua egin zen 1998an, hezkuntzarako eskubideari buruz eztabaidatzen ari zirela, Paul Huntek (1998) honako hitzaldia eman zuenean: «State obligations, indicators, benchmarks and the right to education», Committee on Economic, Social and Cultural Rights» (E/C.12/1998/11). Une horretatik aurrera, adierazleen gaia beti egon da giza eskubideetako akademikoaren eta erakundearen agendan, batez ere Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) egindako giza garapeneraren adierazleak izandako arakastagatik. Hala ere, aurreraturako lanek agerian utzi dituzte giza eskubideen adierazle «bat» garatzeko zailtasunak. Gauza bera esan daiteke adierazleen sistema bat jartzeaz ere. Duela gutxi, gai horrek gaurkotatua hartu du, Turkun (Finlandia) 2005eko martxoaren 10etik 13ra egindako *Giza Eskubideen Adierazleei buruzko Adituen Bilerako* lanetan. Horri buruzko dokumentazioa hemen aurki daiteke: <http://web.abo.fi/instut/imr/research/seminars/indicators/index.htm>. Adierazleei buruzko hitzaldia berritzearen testuinguru honetan, azpimarratzeko modukoak dira Giza Eskubideen Goi Komisioak egindako lanak ere. Ikus lan hauek: *Informe sobre indicadores para vigilar el cumplimiento de los instrumentos internacionales de derechos humanos*, HRI/MC/2006/7, giza eskubideen itunei jarraiki sortutako organoetako lehendakariaren batzordeari aurkeztua, eta Giza Eskubideen Goi Komisioaren *Cuestiones sociales y derechos humanos* txostena, E/2007/82, pixkanakako gauzatzearen problematikarekin lotutako adierazleen ikuspuntua lantzen duena.

¹⁶ Erreferentziazko helburu eta elementu horien garrantzia Huntek nabarmendu zuen (1998). Horri dagokionez, helburuak eta adierazleak batzeko aldakortasunari buruz, hainbat esperientzia interesgarri daude beste arlo batzuetan. Horrela, 2005eko Munduko Goi Bileran *Milurteko Adierazpena* onartu zen, *Haurtzaroaren aldeko munduko goi bilerako* arauari jarraiki; azken horretan *1990eko hamarkadan Haurren biziraupenerako, babeserako eta garapenerako Munduko Adierazpena* eta hori aplikatzeko *jardueren plana* onartu ziren. Milurteko Adierazpenak *Milurteko Garapeneraren Helburuak* ezartzen zituen, egindako aurrerapenak egiaztatzeko eta horien jarraipena errazteko. Ikus honakoa: *Informe sobre los Objetivos de Desarrollo del Milenio de las Naciones Unidas de 2008*, [http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/pdf/MDG_Report_2008_SPANISH.pdf]. Gai horiei buruz: cfr. Calvo (2003).

¹⁷ Batzordearen Ohar Orokorrek *Itunean* babestutako eskubideen urraketarik larrienak zehazten dituzte. Ikus, *supra*, 20. oharra.

duen xedea da. Aldiz, esan beharrik ere ez dago eskubide sozialen urraketan biktimek, pertsonak nahiz taldeek, etekina aterako diela mota horretako adierazleen sistema batek emandako datuei, beren erreklamazioak eta denuntziak babesteko —eta hori, oraingoz, barneko eremu judizialean nahiz nazioarteko eremuan, *Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren Hautazko Protokoloko* denuntziak egiteko mekanismoari jarraiki—. Aldi berean, dimentsio positiboago batean, helburuen eta adierazleen sistema hori oso erabilgarria izan daiteke politikak eta programak diseinatzeko eta ebaluatzeko; horien bidez, eskubide sozialak betetzeko eta sustatzeko betebeharrak jakin batzuk inplementatuko dira.¹⁸

Adierazleen ahalmenak nabarmentzeko beharrak zerikusia izan dezake adierazleen eta erreferentziatzko elementuen sistema bat eskatzeak oraindik ere zenbait errezelo gainditu behar izatearekin. Zenbait ikuspuntuaren arabera, nazioarteko ikuspegian monitorizazioaren menpekoegia da eta, gainera, eskubide sozialen baldintza ekonomikoari buruzko erretoriken agindupekoa da.¹⁹ Bestalde, adierazleen gaia lantzen hasi bai baina amaitu ezinezkotzat jotzen da. Lehen aipatutako moduan, gai horri buruzko bultzada berriak aipa daitezke, baina oro har eskubideei buruzko eta bereziki eskubide sozialei eta ingurumenekoei buruzko adierazleen eta helburuen sistema bat garatzeko dagoen erronka da oraindik. Hala eta guztiz ere, gaur egun esan daiteke aurrerapauso garrantzitsuak egin direla norabide horretan —batez ere, nazioartean—. ²⁰

¹⁸ Adierazleen sistema baten onuren askotariko dimentsio hori lantzen du, baina hura gainbegiratzeko nazioarteko ikuspegian arreta jarrita, Welling (2008: 940. orria eta hurrengoak).

¹⁹ Hori nabaria izango litzateke, Giza Eskubideen Goi Komisioak egindako azken dokumentuak kontuan hartuz gero. Ikus honako hauek: *Informe sobre indicadores para vigilar el cumplimiento de los instrumentos internacionales de derechos humanos*, HRI/MC/2006/7; *Informe sobre cuestiones sociales y de derechos humanos*, E/2007/82, pixkanakako gauzatzearen problematikarekin lotutako adierazleen ikuspuntuari ekiten zaio.

²⁰ Horri dagokionez, ikus Rajeev Malhotra eta Nicolas Fasel, «Quantitative Human Rights Indicators - A survey of major initiatives»; lan hori Turkun (Finlandian) 2005eko martxoaren 10etik 13ra egindako *Giza Eskubideen Adierazleei buruzko Adituen Bileran* aurkeztu zen: <http://web.abo.fi/institut/imr/research/seminars/indicators/index.htm>. *Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen Batzordeak* onartutako azken ohar orokorrek (12. Ohar orokorretik) ezartzen dute adierazleen eta helburuen edo erreferentziatzko irizpideen sistema bat garatzeko beharra dagoela, eskubideen inplementazioa erraztera eta «egindako aurrerapenen gainbegiraketa zorrotza» egitera bideratuta —nazioarteko ikuspegian—. Horri dagokionez, eredu gisa ikus daitezke 19. Ohar orokorrean, *gizarte segurantzarako eskubideari* buruzkoan, ezarritakoa (9. artikulua) (E/C.12/GC/19): «74. Alderdi diren estatuek gizarte segurantzarako eskubidea gauzatzen dela zaindu beharko dute eraginkortasunez, eta xede horretarako beharrezkoak diren mekanismoak edo erakundeak ezarri beharko dituzte. Gizarte segurantzarako eskubidea gauzatzean lortutako aurrerapenen jarraipena egitean, alderdi diren estatuek beren betebeharrak betetzea oztopatzen duten faktoreak eta zailtasunak zehaztu behar dituzte. 75. Jarraipen prozesu hori errazteko, nazioko estrategiek edo planek gizarte segurantzarako eskubideari buruzko adierazleak eduki behar dituzte, 9. artikulua betez, alderdi diren estatuen betebeharrak betetzea nazioko eta nazioarteko mailan zaintzeko aukera egon dadin. Adierazleek gizarte segurantzako hainbat elementuri buruzkoak izan behar dute (nahikotasuna, arrisku eta ezusteko sozialak estaltzea, eskurakotasuna eta irisgarritasuna), debekatutako diskriminazio arrazioen arabera banakatu behar dira eta alderdi den estatuko lurralde juridikzionalan bizi diren edo haren kontrolpean dauden pertsona guztiak barne hartu behar ditu... 76. Gizarte segurantzarako eskubideari dagozkion adierazleak zehaztu ondoren, alderdi diren estatuei gonbidapena egiten zaie nazioko erreferentziatzko elementu egokiak ezar ditzaten. Aldizkako txostenak aurkezteko aldirian, Batzordeak eta alderdi den estatuak helburu jakinak zehazteko prozesu bat jarriko dute abian. Prozesu horren ondorioz, adierazleen eta nazioko erreferentziatzko irizpideen azterketa bat egingo dute elkarrekin alderdi den estatuak eta Batzordeak; horrek, halaber, txostena egiteko hurrengo aldirian eskuratu behar diren helburuak zehatzeko bide emango du. Hurrengo bost urteetan, alderdi diren estatuek nazioko erreferentziatzko irizpide horiek erabiliko dituzte gizarte segurantzarako eskubidea zein puntutaraino bete den egiaztatzeko. Ondoren, txostenak aurkezteko hurrengo prozesuan, alderdi diren estatuek eta Batzordeak irizpide horiek bete diren ala ez eta sortu ahal izan diren zailtasunen arazoak hausnartuko dituzte. Erreferentziatzko irizpideak zehaztean eta horien txostenak prestatzean, alderdi diren estatuek Nazio Batuetako erakunde espezializatuetako eta programetako informazio zabala eta aholkularitza zerbitzuak erabili behar dituzte».

Halaber, objektatu ohi da adierazleetatik abiatutako gainbegiraketa ezin dela hartu kontrol hertsatzailatzat modu juridikoan. Egiaz, betebeharrak hertsatzaile egiteko eta eskubide sozialen urraketak zuzentzeko beharra estatuaren botere publikoen lanarekin lotu behar da, hala nola: botere legegilea eta, jakina, judiziala; giza eskubideen nazioarteko erakundeak; gainbegiratzeko eta kontrolatzeko nazioarteko erakundeak, eta gizarte zibileko nazioko eta nazioarteko erakundeak. Dena den, aurreko hori ez da oztopoa adierazleen sistemak egin-kizun oso positiboa izan dezaten, kontrolerako beste mekanismo batzuen osagarri gisa, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen urraketak identifikatzeko bide emateko —besteak beste, eskubide horien eskagarritasuna bermatzeko aurreikusita dauden bermeak eratzeko gabeziak—.

4. Krisi ekonomikoa eta eskubide sozialen eraginkortasuna

Giza eskubideetatik eratorritako betebeharren egituraren baterako izaerari buruzko garapen analitikoek eta giza eskubideen zatiezintasunari eta elkarmenpekotasunari buruzko berrespenek praxian parekatzea faboratu dute, eta eskubide sozialen eskagarritasunari aurrera egiten lagundu diote. Era berean, eskubide sozialen urraketak antzemateko erreferentziatzko elementuen eta adierazleen sistema bat identifikatzeko eta garatzeko joera duten garapenek eskubide sozialen eskagarritasun osorako oinarriak ezartzen laguntzen dute, baita elementu bereizgarriak ere, nolakotasunean eta nahitaezko izaeran ondoriorik izan gabe, haiek inplementatzea eragiten baitute. Hori, noski, dagozkion berme judizialei eta sasi-judizialei kalterik egin gabe. Aurreko guztiaren ondorio gisa baieztatu daiteke hari muturrak lotzen joan direla, eta azken hamarkadatan eskubide sozialen eraginkortasun osoa lortzera bideraturiko auresuposizioen bidean asko aurreratu dela.

Aurrerapen horiek aldarrikatzea garrantzitsua da, baina gaur egun ezin gara hor geratu. Aurkezpenean aipatutako moduan, aurreko hausnarketetatik etorritako baikortasuna aurrez aurre jarri behar da eskubideetan oro har eta eskubide sozialetan bereziki eragin nabarmena duen krisi finantzario eta ekonomiko sakonarekin. Dagoeneko argi dago horrek eragin negatiboa duela *Milurteko Garapeneko Helburuetan* eta bereziki agerian uzten du eskubide sozialen atzerakada.²¹ Krisi horrek desberdin eragingo die herrialdeei eta pertsoneri, eta ondorio negatiboagoak edukiko ditu garapen bidean dauden herrialdeetan eta talde ahulenetan, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 63/303 Ebazpeneko *Documento final de la Conferencia sobre la crisis financiera* lanean jasotzen den moduan:

«3. Garapen bidean dauden herrialdeek munduko krisi ekonomikoa eta finantzarioa sortu ez bazuten ere, larriki eragiten die. Azken urteetan eskuratutako aurrerapen ekonomikoa eta soziala, nazioartean hitzartutako garapenerako helburuei dagokienez (hala nola Milurteko Garapeneko Helburuak), mehatxatuta dago garapen bidean dauden herrialdeetan, batez ere horrenbeste garatuta ez daudenetan. Krisiak dakartzan mehatxuen aurrean, herrialde askotan hein batean hazkunde ekonomiko altuak sostengatu zuen aurrerapen hori bermatzea eta sendotzea beharrezkoa da. Gure ahalegi-nean, krisiaren giza kostuei aurre egiteko beharrak gidatu behar gaitu: berez onartezina den pertsona txiroen eta ahulen kopurua handitzea, batez ere gosea, malnutrizioa eta prebenitu eta sendatu daitezkeen gaixotasunak dituzten emakumeena eta haurrena; langabezia areagotzea; hezkuntzarako eta osasun zerbitzuetarako sarbidea murriztea, eta herrialde askotan babes sozialaren arloan dauden ga-

²¹ Nazio Batuak, *Milurteko Garapeneko Helburuak. 2010eko txostena*. New Cork, 2010 [dokumentu elektronikoa: http://un.org/es/comun/docs/?path=/spanish/millenniumgoals/pdf/MDG_Report_2010_SP.pdf]

beziak. Halaber, emakumeek egin behar diote aurre diru-sarreraren ziurtasunik ezari, eta familiaz arduratzean zama astunagoa dute. Giza kostu zehatz horiek ondorio larriak dituzte kaltetuen garapenerako eta giza segurtasunerako.»²²

Atzerakadako egoera hori areagotu egiten du babes soziala narriatzeak; izan ere, azken horrek berarekin dakartza politika neoliberalak krisitik ateratzeko eta susperraldi ekonomikoa bultzatzeko eragiten dituzten gastu sozialaren atzerakada eta eskubide eta ongizate sozialetan murriztapenak egitea. Egoera horren aurrean, ez da onargarria arrazoibide abstraktu batean egotea, jasaten ari garen krisiaren ondorio larrietatik eta eskubide sozialen atzerakada argitik kanpo geratuta. Era berean, ez dut uste beste aukera krisiaren zenbatekoak eta eskubide sozialen atzerakada egiaztatzeraz mugatzen denik. Zentzu horretan, aurreko ataletan egindako hausnarketak erabat baliozkoak direlakoan nago, eta berriz diot eskubide sozialen betebeharrari eta inplementazio eraginkorrari buruzko gauzatze teorikoak eta teknikoak aurrerapen garrantzitsuak ekarri dituztela horien eskagarritasunarekin eta eraginkortasunarekin lotuta, eta krisi ekonomikoaren garaian beharrezkoagoak izaten jarraitzen dutela. Errealitate sozialari dagokionez, ezin gara abstrakzio eta loturarik ezaren maila horretan geratu, oraindik ere zenbait arrazoibidetan ikusten den moduan.²³ Arrazoibide horietan bereziki deigarria da eskubide sozialen atzerakadari buruzko baieztapen teorikoaren ondorio praktikokoak ez direla kontuan hartzen eskubideen urraketa gisa.²⁴

Aldi berean, horrez gainera, krisiak nire baikortasuna apaldu badu ere, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen aurrerapenaren eta eraginkortasunaren alde borrokatzeko beharrari buruzko nire ustea sendotu du. Hori dela eta hasi naiz baikortasunez hitz egiten azken hausnarketa hauetan. Baina espazio arazoak direla eta, une honetan funtsezkoak diren pare bat gai nagusiri buruzko zenbait hausnarketa aipatuko ditut: krisi finantzarioak eta ekonomikoak sortzen ez dituztenei baina haren eraginak modu neurrigabearen jasaten dituztenei ahotsa emateko beharra eta, paraleloki, mugimendu sozialek eta gizarte zibilak eskubideen inplementazio eraginkorrean duten garrantzia birsortzeko beharra.

Bi gai horietako lehenak ez du soilik oro har eskubideek eta bereziki eskubide ekonomiko, sozial eta kulturelek estatuko politika ekonomikoan erabakiak hartzeko duten eginkizuna berriz hausnartzera eramaten; aldiz, gobernagarritasun globalaren auzia mahai gainean jartzen du berrirori ere. Gai hori joan den mendeko azken hamarkadako literatura akademikoan agertu zen eta NBGPren *txosten* batean ere jaso zen (1999). Lite-

²² *Documento final de la Conferencia sobre la crisis financiera y económica mundial y sus efectos en el desarrollo* lana. Batzar Nagusiak onartutako ebazpena (2009ko uztailaren 9an), A/RES/63/303: [dokumentu elektronikoa: <http://daccess-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N09/399/86/PDF/N0939986.pdf?OpenElement>]

²³ Cfr. Arrazoibide «teknikoa» nagusi den adibidea: *Informe de la Alta Comisionada para los Derechos Humanos sobre la aplicación de la normativa sobre los derechos económicos, sociales y culturales (E/2009/90)*. Arrazoibide horrek eskubide sozialen betebeharrari eta inplementazio eraginkorrari buruzko azken garapen teoriko eta teknikoak lantzen ditu, baina, paradoxikoki, ez da «krisi» terminoa aipatzen, 2009an krisi finantzarioaren eta ekonomikoaren ondorioak oso nabariak baziren ere.

²⁴ Ikus: Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea, 3. *Ohar orokorra*, 2. eta 9. paragrafoak; 12. *Ohar orokorra*, 19. paragrafoa, eta 14. *Ohar orokorra*, 32., 48. eta 50. paragrafoak. Horri dagokionez, aurreko oharrean aipatutako *txosten*ean honakoa azpimarratzen da: «Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak pixkanaka egiteko betebeharrak berarekin dakar *hautazko atzerakadaren debekua*. Horren arabera, debekatu egiten da zenbait eskubideek eskuratu duten babes maila murriztera bideratutako neurriak hartzea. Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordek *prima facie* urraketa gisa hartzen ditu hautazko atzerakadak, hala nola dagoeneko agertu diren eskubideak (haurrek lehen mailako osasun arreta zerbitzuak doan jasotzea, esaterako) murriztea edo mugatzea edo eskubide bat gauzatzeko beharrezkoa den legedia indargabetzea; baldin eta estatuak erabat justifikatuak daudela frogatzen ez badu, Itunean eta eskuragarri dauden bitarteko guztiak erabat erabiltzearen testuinguruan aurreikusitako eskubideen osotasunari dagokionez».

ratura zientifiko aitzindariari (Held, 1997; Held eta McGrew, 2003; Falk, 1995; Santos, 1998) eta aipatutako *txostenean*, gobernagarritasun globala giza eskubideak gauzatzeari lotua dago, eta askotan behetik hasitako globalizazio moduan. Ikuspegi hori oraindik ere defendatzen da (Falk, 2000; Brysk, 2002; Santos eta Rodríguez-Garavito, 2005; Benhabib, 2008; Held, 2010).

Gobernagarritasunaren auzia, edo hobeto esanda, erregulazio globalaren auzia, beste zentzu bat hartzen hasi zen Asiako krisiaz (krisi ekonomiko espekulatiboa, baita ere) eta munduko hainbat ekonomia azkar kutsatu izanaz geroztik. Esperientzia horretatik aurrera, hainbat erakundek, hala nola Munduko Bankuak, gobernagarritasun globala edo erregulazio ekonomiko globala aipatu zuten. Arrazoibide horri ekin dio berriro ere G-20 taldeak, gaur egungo krisi finantzarioaren eta ekonomikoaren ondorioz.²⁵

Bistakoa da gobernagarritasun globaleko mekanismoetan aurrera egiten ez bada, ezin dela kontrolatu gaur egungo globalizazio «harrapariaren» prozesuaren (Falk, 2002) buru diren eragile transnazional berrien eta estatuen boterea; galdera, ordea, honako hau da: «governagarritasun globala, nola eta zertarako?». Zehaztasun gehiago eman gabe bistakoa da G-20 taldearen diskurtsoetan gobernagarritasun demokratiko globalari buruzko proposamenen zenbait ardatz nagusiren falta nabarmentzen dela: eskubideen hizkuntza, behetik gorako ikuspuntua eta, azken finean, gobernagarritasun global horren izaera demokratikoa. Nire ustez, argumentua ez da «erregulazio ekonomiko globala edo kaosa», krisi finantzarioak eta ekonomikoak sortzen ez dituzten baina haren ondorio negatiboak jasaten dituztenei ahotsa emateko gobernagarritasun demokratiko globala baizik. Horrek, noski, behetik gorako ikuspuntua aldarrikatzea eskatzen du, baina baita eskubideen eginkizuna eta, bereziki, egungo krisiaren testuinguruan, eskubide sozialen eginkizuna.

Planteatu berri dugunaren antzekoa da eskubideen inplementazio eraginkorrean mugimendu sozialek eta gizarte zibilak duten garrantzia birsortzeko beharri buruzko auzia; baina, halere, aurrerago joaten da, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen inplementazio eraginkorrean mugimendu sozialek eta gizarte zibilak eginkizun nagusia dutela aldarrikatzen baitu. Horri dagokionez, egia da krisia eta eskubide sozialen atzerakada estimulu gisa jardun daitezkeela mugimendu sozialek eta gizarte zibilak protagonismoa berreskuratzeko, baina galdera bistakoa da: zergatik ez dira ia aztertzen literatura akademikoan giza eskubideen eta mugimendu sozialen arteko loturak?

Mugimendu sozialak ez dira sartzen ikuspuntu tekniko-juridikoetan, ezta ikuspuntu sozio-juridiko funtzionaletan ere. Charles Tillyk (2004) lan erakargarri batean honako galdera hau egin zuen: «Nondik datoz eskubideak?». Jakina, izenburu probokatzailea da, eta lanean bertan mantentzen duen tesiarekin bat dator: «Nondik datoz eskubideak? Galdera hori filosofia analitikoaren arlotik planteatu genezake..., metafisikaren arlotik..., edo ekintza arrazionaletik... Baina, horren ordez, Europako historia politikotik planteatu nahi dut». Ikerketa sozio-historikoari lotutako hainbat autoreren (hala nola Moore, Tarrow eta beste zenbaiten) ildo berean, proposatzen du eskubideak, lehenenik, «produktu historikoak» direla eta, bigarren, «borrokaren emaitza» (Tilly, 2004: 273).

Dena den, hori ez da giza eskubideen jatorriari eta gauzatzeari buruzko ikerketetako ikuspuntu nagusia (Stammers, 2009). Mugimendu sozialek eskubide sozialen eraginkortasunean duten eginkizunak garrantzia hartzen du ikuspuntu teoriko batetik abiatuta nahiz praxiaren ikuspuntutik abiatuta. Hasteko, esan behar da diziplina artekoa den eta dimentsio gatazkatsua kontuan hartzen duen ikuspuntu batetik posible dela giza es-

²⁵ Cfr. Malkin, 2009; bertan, giza eskubideak dira nagusi, agertzen ez direlako. Gauza bera gertatzen da, pasadizoko erreferenziaren bat salbu, goi bileretako azken dokumentuak kontsultatuz gero: G20 *Summits* [<http://www.g20.utoronto.ca/summits/index.html> —azken kontsulta 2011ko urtarrilean—]


kubideen eta giza eskubideen praxiko beste elementu batzuen historia ezagutzea; horiek ezagutarazten dute mugimendu sozialek eta gizarte zibilak giza eskubideen jatorrian eta inplementazioan duten garrantzia. Baina, arrazoi teorikoetatik harago, krisi ekonomikoaren eta finantzarioaren gaur egungo egoerak bide ematen du mugimendu sozialek eta gizarte zibilak eskubide sozialen atzerakadaren aurrean duten garrantzia identifikatzeko. Horren harira, hausnarketa hauek amaitzeko, eskubide sozialak eta haien gauzatzea mugimendu sozialekin lotzeko beharra azpimarratu nahi dut berriz ere, eta horiek eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen inplementazio eraginkorren duten eginkizuna birsortu. Horri dagokionez, krisia eta eskubide sozialen atzerakada estimulu gisa jardun daitezke, mugimendu sozialek eta gizarte zibilak eskubide horien alde borrokatzeko duten protagonismoa berreskuratze aldera.

Bibliografia

- Abramovich, Víctor eta Christian Courtis (2004), *Los derechos sociales como derechos exigibles*, 2. arg., Madril, Trotta.
- Abramovich, Víctor; M.^a José Añón eta Christian Courtis (arg.) (2003), *Derechos sociales. Instrucciones de uso*, Mexiko, Fontamara.
- Añón, María José (2008), «Derechos sociales: Inconsistencias de una visión compartimentada», *Estudios en Homenaje al Prof. Gregorio Peces Barba* liburua, 3. liburukia, Madril, Dykinson, 21.-46. or.
- Benhabib, Seyla (arg.) (2008), *Another Cosmopolitanism*, OUP-The Berkeley Tanner Lectures.
- Bobbio, Norberto (1980), «La función promocional del derecho», *Contribución a la teoría del derecho* liburua, itz. A. Ruiz Miguel, Valentzia, F. Torres.
- Brysk, Alyson (arg.) (2002), *Globalization and Human Rights*, Berkeley, U. of California Press.
- Calvo García, Manuel (1994), *Los fundamentos del método jurídico: Una revisión crítica*, Madril, Tecnos, 260. orria eta hurrengoak.
- Calvo García, Manuel (2003), «La implementación del Convenio sobre los Derechos del Niño», *Cursos de Derechos Humanos de Donostia-San Sebastián IV*, arg. Juan Soroeta Liceras, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 151.-172. or.
- Calvo García, Manuel (2005), *Transformaciones del Estado y del Derecho*, Bogotá: Universidad Externado de Colombia.
- Calvo García, Manuel (2009), «La efectividad de los Derechos económicos, sociales y culturales», AA.VV., *Los derechos sociales como una exigencia de justicia* liburuan, Virgilio Zapatero eta M.^a Isabel Garrido arg., Alcalá de Henares, Cuadernos Democracia y Derechos Humanos, 201.-225. or.
- Chapman, Audrey R. eta Sage Russell (1998), «Violaciones del derecho a la educación» (1998). DÍA DE DEBATE GENERAL *sobre el derecho a la educación* eztabaidari egindako ekarpena (Ituneko 13. eta 14. artikulua) 1998ko azaroaren 30a, astelehena (E/C.12/1998/19).
- Chapman, Audrey R. (1996), «A “Violations Approach” for Monitoring the International Covenant on Economic, Social and Cultural Rights», *Human Rights Quarterly* 18/1 zk., 23.-66. or.
- Chapman, Audrey eta Sage Russell (arg.) (2002), *Core Obligations: Building a Framework for Economic, Social and Cultural Rights*, Antwerp, Intersentia.
- Contreras Peláez, Francisco J. (1994), *Derechos sociales: Teoría e ideología*, Tecnos, Madril.
- Coomans, Fons (arg.) (2006), *Justiciability of Economic and Social Rights*, Antwerp, Intersentia-Maastricht Series in Human Rights.

- Craven, Matthew (1998), *The Internacional Covenant on Economic, Social and Cultural Rights*, Oxford, Clarendon.
- D'Elia, Carlos César (2008), *Formulação de políticas públicas sociais: O papel do Estado na perspectiva emancipatória dos Direitos humanos*, zuz. Manuel Calvo García, Zaragoza (Argitaragabea. IAD lortzeko tesia, Soziologia Juridikoan doktoratua).
- Falk, Richard (2000), *Human Rights Horizons. The Pursuit of Justice in a Globalizing World*, Londres, Routledge.
- Falk, Richard (2002), *La Globalización depredadora. Una crítica*, Madril, Siglo XXI.
- García Manrique, Ricardo (2007), «Derechos sin diferencia específica. Los derechos sociales según Gerardo Pisarello», *Anuario de Filosofía del Derecho*, XXIV, 496. or.
- Garriga Domínguez, Ana (2008), «Derechos sociales. una aproximación a su concepto y fundamento», *Estudios en Homenaje al Prof. Gregorio Peces Barba* liburua, Madril, Dykinson, 615.-652. or.
- Ghai, Yash eta Jill Cottrell (2004), *Economic, Social & Cultural Rights in Practice. The Role of Judges in Implementing Economic, Social & Cultural Rights*, Londres, Interights.
- Hawkins, Keith (2002), *Law as last resort: Prosecution decision-making in a Regulatory Agency*, Oxford: Oxford University Press.
- Held, David (1997), *La democracia y el orden global*, itz. S. Mazzuca, Barcelona, Paidós, 1997.
- Held, David eta McGrew, Anthony (2003), *Globalización / Antoglobalización. Sobre la reconstrucción del orden mundial*, Bartzelona, Paidós.
- Held, David (2010), *Cosmopolitanism*, Cambridge, Polity Press.
- Hunt, Paul (1998), «State obligations, indicators, benchmarks and the right to education», Committee on Economic, Social and Cultural Rights, *Día de Debate General sobre el Derecho a la Educación* eztabaidari egindako ekarpena (*Ituneko 13. eta 14. artikulua*) (E/C.12/1998/11).
- Malhotra, Rajeev eta Nicolas Fasel (2005), «Quantitative Human Rights Indicators - A survey of major initiatives», Turkun (Finlandia) egindako *Reunión de Expertos sobre Indicadores de los Derechos Humanos* bilerran aurkeztutako lana, 10-13/03/2005, [<http://web.abo.fi/instut/imr/research/seminars/indicators/index.htm> —azken kontsulta 2011ko urtarrilean—].
- Malkin, Anton (2009), *G20 Finance Conclusions on Financial Crises, 1999-2009. Drawn from G20 finance communiqués*, G20 Research Group [<http://www.g20.utoronto.ca/analysis/conclusions/financialcrisis.html> —azken kontsulta 2011ko urtarrilean—].
- Martínez de Pisón Caverro, José (1998), *Políticas de Bienestar. Un estudio sobre los derechos sociales*, Madril, Tecnos.
- Monereo Atienza, Cristina (2005), «Herramientas para una teoría de los derechos sociales (discusión doctrinal)» *Anuario De Filosofía Del Derecho* 22. zk., 265.-90. or.
- Naciones Unidas (1993), *Informe del Seminario de expertos sobre el empleo de indicadores adecuados para supervisar la realización progresiva de los derechos económicos, sociales y culturales*, A/CONF.157/PC/73 (Geneva, 1993ko urtarrilaren 25etik 29ra).
- Naciones Unidas (2010), *Objetivos de Desarrollo del Milenio. Informe 2010*, New Cork, 2010 [dokumentu elektronikoa: http://un.org/es/comun/docs/?path=/spanish/millenniumgoals/pdf/MDG_Report_2010_SP.pdf —azken kontsulta 2011ko urtarrilean—].
- Naciones Unidas-Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos (2007), *Informe sobre cuestiones sociales y de derechos humanos*, E/2007/82.
- Naciones Unidas-Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos (2006), *Informe sobre indicadores para vigilar el cumplimiento de los instrumentos internacionales de derechos humanos*, HRI/MC/2006/7.
- Naciones Unidas-Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos (2006), *Informe de la Alta Comisionada para los Derechos Humanos sobre la aplicación de la normativa sobre los derechos económicos, sociales y culturales (E/2009/90)*.

- Naciones Unidas (2009), *Documento final de la Conferencia sobre la crisis financiera y económica mundial y sus efectos en el desarrollo*. Bazar Nagusiak onartutako ebazpena (2009ko uztailaren 9a), A/RES/63/303: [dokumentu elektronikoa: <http://daccess-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N09/399/86/PDF/N0939986.pdf?OpenElement> —azken kontsulta 2011ko urtarrilean—].
- Peces-Barba Martínez, Gregorio (1999), *Derechos sociales y positivismo jurídico: (escritos de filosofía jurídica y política)*, Madril, Universidad Carlos III: Dykinson.
- PNUD (1999), *Informe sobre Desarrollo Humano* [<http://hdr.undp.org/es/informes/> —azken kontsulta 2011ko urtarrilean—].
- Peña, Lorenzo eta Txetxu Ausín Díez arg. (2006), *La efectividad de los derechos sociales: De las necesidades básicas al desarrollo humano*, Madril, Plaza y Valdés-Consejo Superior de Investigaciones Científicas, CSIC.
- Pérez Luño, Antonio Enrique (2006), «La positividad de los derechos sociales: Su enfoque desde la filosofía del derecho», *Derechos y Libertades* 14. zk., 151.-178. or.
- Pérez Luño, Antonio Enrique (2005), «Los derechos sociales y su “status” normativo en la constitución española», *Documentación Administrativa* 271: 13.-38. or.
- Pisarello, Gerardo (2007), *Los derechos sociales y sus garantías: Elementos para una reconstrucción*, Madril: Editorial Trotta.
- Ramcharan, Bertrand G. (arg.) (2005), *Judicial Protection of Economic, Social & Cultural Rights*, Leiden, Martinus Nijhoff Pub.
- Ruiz Miguel, Alfonso (1994), «Derechos liberales y derechos sociales», *Doxa* 15.-16. zk., 651.-674. or.
- Santos, Boaventura de Sousa (1998), *La Globalización del Derecho: Los Nuevos Caminos de la Regulación y la Emancipación*, itz. C. Rodríguez, Bogotá, UNC/ILSA.
- Santos, Boaventura de Sousa eta C. A. Rodríguez-Garavito (arg.) (2005), *Law and Globalization from Below. Towards a Cosmopolitan Legality*, New Cork, Cambridge.
- Sepúlveda, Magdalena (2002), *The Nature of the Obligation under the International Covenant on Economic, Social and Cultural Rights*, Antwerpen, Intersentia.
- Stammers, Neil (1999), «Social Movements and the Social Construction of Human Rights», *Human Rights Quarterly* 21/4, 980.-1008. or.
- Stammers, Neil (2009), *Human Rights and Social Movements*, Londres, Pluto Press.
- Tilly, Charles (2004), «¿De dónde vienen los derechos?», *Revista Sociológica* 55, 273.-300. or.
- Türk, Danilo (1990), *Realization of economic, social and cultural rights, Report of the Special Rapporteur of the Sub-Commission on Prevention of Discrimination and Protection of Minorities*, E/CN.4/Sub.2/1990/19 (1990).
- Türk, Danilo (1990), *Realization of economic, social and cultural rights, UN ESCOR, Commission on Human Rights. Second progress Report of the Special Rapporteur of the Sub-Commission on Prevention of Discrimination and Protection of Minorities*, E/CN.4/Sub.2/1991/17 (1991).
- Tushnet, Mark (2008), *Weak Courts, Strong Rights. Judicial Review and Social Welfare Rights in Comparative Constitutional Law*, Princeton University Press, 2008.
- Verdross, Alfred (1969), *Derecho internacional público*, itz. Antonio Truyol y Serra, Madril, Aguilar, 1969.
- VV.AA. (1998), Monográfico sobre Derechos económicos, sociales y culturales, *Derechos y Libertades* 6. zk.



GERRY STOKER

*Politika eta Gobernu irakaslea,
Southampton Unibertsitatea, Erresuma Batua*

Gizarte Ongizateko Sistemetan Koprodukzioa garatzea: Iraultza Heuristikoa ote?

Laburpena: Gizarte ongizateko politikaren muinean koprodukzioa jartzen bada, emaitza sozial baliotsuak Estatuaren eta herritarren arteko elkarreraginaren kalitateak baldintzatuko ditu, edo tarte txikiarekin, zerbitzu-ekoizleen eta erabiltzaileen arteko elkarreraginaren kalitateak. Tesuinguru horretan, gobernuek errotik aldatu beharko dute herritarrekin eta komunitateekin lan egiteko modua. Eta abiapuntu gisa, herritarrak beti kalkulagailu instrumental eraginkorrak direla jotzen dutenen ikuspuntutik haratago, hurbilketa heuristikoa bat behar ote dugun ikusi beharko da, gure mapa kognitiboek, sare sozialek eta arau kulturelek ongizateko politiken aurrean ematen ditugun erantzunei ere itxura ematen dietela onartzeko. Gainera, politika bihur daitezkeen esku-hartze tresnen kategoriak identifikatu beharko ditugu. *Bultzadaxoaren* estrategiak errotik aldatzeko abiapuntu izan daitezke, baina artikulu honetan beste aukera batzuk ere eman go dira politika-diseinatzaileentzat.

Etorkizuneko gizarteek herritarrekiko mendekotasun handiagoa izango dute gizarte ongizateko emaitzak sustatzeko garaian (2020 Zerbitzu Publikoen Batzordea, 2010). Ikuspuntu horrek finantza publikoetako arazoekin du zerikusia, neurri batean. Defizit publikoak eragiten duen epe laburreko presio finantzarioa pilatu egiten da atzeraldian gaudenean eta 2007az geroztik, banketxeen krisiaren eraginez areagotu egin da; hortaz, erronka handia dugu aurrean. Biztanleriaren zahartzeak eragiten duen epe luzeko presio fiskalak, osasun zerbitzuetako aurrerapenak, mundu mailako lehia ekonomikoaren areagotzeak, aurreko gobernuen erabakiek eta herritarren eskariekin bultzada eman diote herritarrek gizarte ongizateko zamaren zati handi bat beren gain hartzeko eskatzen duen pentsamoldeari. Nolanahi ere, gaur egungo gizartearen arazoak direla-eta (ingurumenaren babesetik hasi, eta familia eredu tradizionalaren eta ahaidetasunaren zatiketari aurre egin beharko dion biztanleria zahartuaren premietaraino) Estatuak ezin izango du emaitza onik lortu bakarrik jarduten bada. Egitura konplexuko erronkak alde batera utzi ditugu, eta orain, gure kezka nagusia sinpleagoa da: gizartea, besterik gabe. Eskolak, kaleak eta ospitaleak eraikitzea eta edateko uraren, gasaren eta elektrizitatearen hornidura eta bizimodu modernoaren eskakizun guztiak bermatzea erronka handia izan da, baina orain, egitura sinpleagoa duten erronkak ditugu: komunitate osasuntsuagoetan bizitzea, edo haurrek txikitatik hazteko eta garatzeko estimulu egokiak jasoko dituztela eta giro egokian biziko direla bermatzea.

Etorkizunean, koprodukzio sareek (definitu egin beharko ditugu) gizarte ongizateko emaitza hobeak lor-tzearren lan egingo dute (...).

Koprodukzio sareek gobernuaren, bezeroaren edo komunitatearen ekarpena behar dute. Prozesuak arra-kasta izango badu, kontua ez da ekintza bat betearaztea, inspiratzea baizik. Koprodukzioaren bidez, gobe-rnuak bezeroen edo komunitatearen erantzuna bultzatzea dezan lortu nahi da, eta horretan ahalegindu beharko da (Alford, 2009).

Gero eta interes handiagoa dago herritarrek asmo handiko koprodukzio moduak nola gara ditzaketen ja-kiteko eta era berean, kexa ugari daude zerbitzu publikoetako jarduera adierazgarriak Estatutik gizartera era-mateko moduari buruz (Boivard 2007; Horne eta Shirley 2009; Alford 2009). Koprodukzioa sendotuko bada, aldaketa handiak egin beharko dira zerbitzu publikoak finantzatzeko, antolatzeke eta bidaltzeke mo-duan eta gainera, familiek, boluntarioek, zainzaileek eta komunitateek gizarte ongizateari egiten dioten ekar-penari jaramon egin beharko zaio (Bovaird eta Loeffler, 2011).

Guztiz hedatuta dagoen pentsamoldearen arabera, herritarrentzat hainbat motibaziotan datza koproduk-zioa, norbere interesetik hasi eta moralarekin zerikusia duten gaietaraino (Alford, 2009). Koprodukzio era-ginkorragora eramango gaituzten aldaketan agenda osoa artikulatu honen irismenetik haratago dago. Kasu ho-netan, oinarritzko gai bati helduko diogu: errotiko aldaketa heuristikoko baten premia, gobernuak herritarrekin lan egiteko eta herritarrengana gerturatzeko moduan.

Gure helburua eztabaida piztea da, herrialde anglosaxoietako kudeaketa publikoan eragin handia izan duen *Bultzadatxoa* liburuaren (Thaler eta Sunstein, 2008) estimulua aprobetxatuz. Badira zenbait liburu eta liburuxka politikari buruzko irakaspenak biltzen dituztenak, jokabideen ekonomiari eta psikologia kogniti-boari buruzko iritziez baliatuz, eta, era berean, Britainia Handian zein atzerrian, jarduera politikoen progra-mak jarri dira abian tokiko zein nazio mailan (Halpern *et al.* 2004; Cialdini 2007; Knott *et al.* 2007; Dolan *et al.*, 2010). *Bultzadatxoa* liburuak (Thaler eta Sunstein, 2008) meritu berezia du, jokabide aldaketari bu-ruzko eztabaida bultzatu duelako beste modu batean. *Bultzadatxoa* esparru egokia da herritarren «aukeraketa arkitektura» aldatzeke eta beren jokabidea aldatzeke eta, hala, herritarrentzat zein gizarte osoarentzat hobe-kuntzak ekartzeko. *Bultzadatxoak* gizabanakoaren aukeraketak sailkatzeko ahalegina egiten du.

Mundu konplexu batean bizi gara, eta jarduteko modu egokiari buruzko seinale konplexuak jasotzen ditu-gu, ikuspuntu praktikotik zein moraletik. Arau sozialak erabiltzen ditugu zer egin behar dugun erabakitzeke: Ahalegin handia egin beharko al dut nire jokabidea aldatzeke? Eta gainerako herritarrek egiten dutena alda-tzeke? Jokabide aldaketaren ondorioak bizkor eta erraz gainditu al ditzaket? Gobernuak, herritarrekin elkarla-nean, lagundu egin diezagukete egunero egin behar zituzten aukeraketei forma ematen, eta, hortaz, gu-retzat zein herritarrentzat hobeto izango litzateke aipaturiko arau sozialak behar bezala igarriko bagenu.

Bultzadatxoa liburuko argudioek balio handia dutela uste dugu. Ezin zaio inori agindu bizilagun hobe-a izateke, erretiratzen denerako dirua aurrezteke, norbere komunitatean boluntario lanetan aritzeke edo kli-ma aldaketa saihestearren gehiago birziklatzeke. Helburu horiek guztiak betetzeke pizgarriak eman daitezke, bai, baina azken batean, gobernuak gastatzen duen dirua herritarrek ordaintzen dituzten zergetatik dator, eta kezkatzen gaituzten arazo sozial eta ekonomiko guztiak konpontzeke gastu publiko jasanezina egin beharko litzateke. Dena den, horrek ez du esan nahi gobernuak gaiok alde batera utzi behar dituztenik eta ezer egiten utzi behar ez zaienik. Hala, Thaler eta Sunsteinen iradokizunaren arabera (1998, p. 5-6), «aukeraketa eragi-ten saia daitezke, aukeragileak beren kabuz erabaki dezaten lortzeke», eta, haratago joanda, *Bultzadatxoaren* estrategietako oinarri gisa ezar dezakete «aukeraketaren arkitekturako edozein alderdi, jendearen jokabidea

iragartzeko moduan alda dezakeena, aukera bakar bat ere debekatu gabe edo pizgarri ekonomikoak nabarmen aldatu gabe». Bultzadaxoa ematearen aldekoek erronka luzatu diote aginduetan edo zergetan eta pizgarrietan oinarrituta dauden esku-hartze tresna gogorren nagusitasunari eta tresna malguagoak ere badaudela defendatzen dute.

Orain tresna malguagoak behar dira; izan ere, mendebaldeko demokrazia industrialetako herritarrak ase eginda daude gizabanakoaren askatasunaren, bizitzako aukeraketen eta edozer gauzari buruzko iritzia agertze-ko eskubidearen iturrian. Begirunea galdu dugu, ez gara emanak adituen jakinduria automatikoki onartzera, eta agintea beren esku dutenei desafio egiteko joera dugu. Hautatzaile moral aktiboak gara, edo gutxienez hala izatea gustatzen zaigu, eta, ondorioz, neurritz kanpoko agindu edo pizgarri zuzenak ez dira egokiak gure jokabidea aldarazteko.

Hortaz, arduradun politikoek beren pentsamoldea aldatu beharko dute, edo agian, alde batera utzi diren elkar ulertzeko moduak nabarmendu beharko dituzte. Garai batean Estatuak agintzen zuen (eta herritarrek jarraitu egin zioten) eta pizgarrietan oinarritutako esku-hartzeak aski onak ziren, baina Estatuaren eta herritarren arteko koprodukzio ahalmena garatu nahi bada, tresnak ez ezik, beste pentsamolde bat ere beharko da: errotiko aldaketa heuristikoa bat giza jokaeraren mikro-oinarriak ulertzeko moduan.

Gizarte zientzietan, emaitza sozial orokorrak ekartzen dituzten banakako mekanismoen identifikazioan oinarritzen da mikro-oinarrien bilaketa. Arduradun politikoentzat, mikro-oinarriek eragina dute gobernuaren aukeren konfigurazioan; izan ere, beren lana gidatzen duten oinarritzko arauak ezartzen dituzte. Arduradun politikoentzat, zer egin dezaketen edo eraginkorra eta egingarria zer izan litekeen erabakitzeko hausnarketaren abiapuntua dira mikro-oinarriak. Mikro-oinarriek garrantzi handia dute aukera politikoen norabidea ezartzeko garaian. Gehiengo politikoko arduradunek, etekin bila eta modu arrazionalen erabakitzen duten izakiak bailiran ikusten dituzten herritarrak. Uste hori zalantzan jartzea eta abiapuntu heuristikoen aniztasuna sustatzea du helburu artikulua honek, eta, era berean, errotiko aldaketa heuristikorekin batera erabil litezkeen esku-hartze tresna bigunak adieraztea ere badu helburu.

Argudioaren egitura honako hau da. Hasteko, arduradun politikoen pentsamoldeko arrazionaltasun hipotesien berezko izaera ezarriko dugu. Gizarte zientzietako frogak berrikusiko dira, giza jokabidea sarritan aukeraketa arrazionalaren mundu mikro-fundazioaletik haratago jarduten dela eta beste eragin kognitibo, sozial eta moral batzuek egituratzen dutela iradokitzen dutenak. Gure ustez, aniztasun mikro-fundazionala askoz egokiagoa da arduradun politikoen pentsamoldeari forma emateko. Hipotesi mikro-fundazionalen aukera zabalagoa ezar eta aplika dezaketen esku-hartze tresnen garapena garrantzi handiko erronka da. Artikulu honetan, *Bultzadaxoa* liburuko estrategietatik abiatuko gara (emeki bultzatzeko estrategia), baina gero, jokatibide aldaketari ekiteko garaian, haratago joan beharko dela uste dugu. Arduradun politikoek eskura dituzten aukerak esparruan kokatuko dituen heuristika eskainiko dugu, eta indargune eta ahulgune potentzialak aztertuko ditugu.

Arduradun politikoak eta beren arrazionaltasun hipotesiak

Sarritan, politikariek beren esku-hartzeak diseinatzen dituztenean, gizakiak arrazionaltasun instrumentalak gidatzen dituela eta arrazionaltasun horren baitan aktoreek informazioa modu eraginkorrean erabiltzen dutela eta beren helburuak erdiesteko aurreikus daitezkeen kalkuluak egiten dituztela islatu nahi izaten

dute. Arrazionaltasun instrumentalaren paradigmen nagusitasunaren arrazoiak konplexuak dira. Jacksonen berrikuspeneren arabera (herritarren jokabidea aldatzeko modua arduradun politikoaren aburuz): «Aukeraketa arrazionalaren eredu guztiz hedatuta eta errotuta dago mendebaldeko gizarte modernoko erakundeetan eta egituretan, eta, ondorioz, ezaguna egiten zaigu» (Jackson 2005, p. 27). Bestalde, ohikoa da pentsatzea gizabanakoek beren interesen alde egingo dutela, horretarako aukera badute behintzat. Hala, gizabanakoaren eta taldearen interesek bat etorri beharko dute politika publikoaren diseinuan. Ikuspuntu horretatik, erakunde onak sortuz erantzun beharko dute politika diseinatzaileek, pizgarri egokiak ezartzeko. Politikaren oinarrian dagoen ideien arabera, pertsonak berekoiak dira, baina manipulatu egin daitezke, pizgarriak eta mugak ezarri.

Hipotesi mikro-fundazional horien mamia herri administrazioen sorreraren historian islatuta dago. Ingeniaritza sozialaren printzipioak, XVIII. mendearen hasieran David Humek lehenengo aldiz deskribatu zituenak, «lotsagabeentzako erakundeak diseinatu» esieran jaso ziren, zigor materialak eta jokabide ona dutenentzako pizgarriak eskainiz (Goodin, 1982). Gainera, pentsamolde pragmatikoak historia luzea du erakundeen, konstituzioen eta legeen diseinuan, eta horietan, tradizio Benthamistak oso eragin ona izan du —erakunde publikoak interes gaitzotatik babesteko— (Schofield 2006).

Politika publikoaren ikuspegi modernoa zerbitzuen erabiltzaileen eta hornitzaileen instrumentalitateari buruzko susmoz beteta dagoela uste dugu. Azkeneko hamarkadetan bultzada eman zaio, Eskuin Berriak gero eta kritika gehiago egiten dizkiolako Estatuari eta merkatuko pizgarriak idealizatu dituelako politika publikoak diseinatzeko bide gisa; horren adibide dugu ongizatea sortzeko merkatu gisakoak erabiltzea (Le Grand, 1997). Merkatuko pizgarriak —etekin onagatiko sariak— burokratek onura publikorako duten motibazio egoista bideratzeko modu bat dira. Informazio hobea eta aukera gehiago emanez gero —berriro ere merkatuko printzipioen imitazioa—, aukera horiek baliatzeko aukera izango dute zerbitzu publikoaren erabiltzaileek, beren interesak ezagutzen baitituzte. Erresuma Batuan, Eskuin Berriko gobernuaren administrazio erreformen programak gai horiei eutsi zien (1997-2005), eragileak arrazionalak eta berekoiak direla eta pizgarriek eta mugei aurreikus daitezkeen erantzunak emateko joera dutela pentsatuta (Hood, 2006; Stoker, 2010). Etekina kudeatzeko ikuspuntuaren oinarriek —helburuak, izendatzea eta lotsa ematea— arrazoizotasun instrumentalaren osagai mikro-fundazionalen kiratsa zerien. Zerbitzu publikoaren aukeraketak eta pertsonalizazioak prestigioa eman zion kontsumitzaileek zer interes komeni zaitzkie jakiteko gaitasunari, eta beren interesak bakarrik kontuan hartzen dituzten hornitzaileak estutasunean jartzeko aukera eman zuen. 2010az geroztik, Koalizio Liberal-Kontserbadoreak are gehiago indartu du merkatuko mekanismoen erabilera (...).

Baina oinarri mikro-fundazional horiek ez dira Erresuma Batuko eskusiba. Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko herrialde askotan azkeneko bi hamarkadetan aplikatu diren NGPko (*New Public Management*) erreformak antzeko aktore arrazionalen susmoarengatik babestu dituzte. NGPko nazioarteko ideia eta jardunbide bateraturik ez duen arren (Newman, 2002), aktore arrazionalaren filosofian oinarritutako gai batzuek ez dute mundu mailako oihartzunik. Esate baterako, fokua norbere interesetan jartzeak, burokraziaren eraginkortasunik ezak, banakako premiak nagusitzeak oinarritutako zerbitzu unibertsalen ginetik, eta kontsumitzailearen aukeraketa goraiatzekoak.

Zerbitzu publikoetako Ekonomia Instituzional Berriak, aukeraketa publikoaren teoria, transakzio kostuen ekonomia eta agentziaren teoria ekonomikoa barneratzen dituenak, Zeelanda Berrian zein Erresuma Batuan izan du eragina (Barzelay 2002, Roberto del Monte 2002); eta eragin horrek asko zor dio aktore arrazionalaren ereduari. Estatu Batuetan eta Kanadan, merkataritza estiloko jardunbideak (hala nola, bezeroarengana-

ko zerbitzua areagotzea, kudeaketa autonomia handiagoa edo emaitzetara bideratuta dagoen gauzapena) txertatzeko kezka kontrolatu ditu zerbitzu publikoen erreformak (Roberto del Monte 2002). Alemanian zein Herbeheretan, kontrola eta burokraziaren gardentasuna hobetzeko neurriak eta bezeroarenganako orientazioa indartzeko mekanismoak nabarmendu dira (Schedler eta Proeller 2002).

Arrazoizkotasun hipotesietako ongizate sistemen sorreran eta erreforman argi eta garbi integratuta daude arduradun politikoen orientazioetan eta ikuspuntuetan. Herritarrek onartzen badute tresna politikoak diseinatzekeo garaian kalkulagailu berekoi gisa ikusten dituzula, profezia betez erreakziona dezakete, eta Bryan Jonesek «arrazionaltasunaren tranpa» gisa izendatu zuena sor dezakete (Jones, 2001, p. 120). Badirudi koprodukzioak etorkizun mugatua izango duela, baldin eta herritarrei parte hartzekeo eskaintza egitekeo garaian uste bada ematen dutena baino gehiago jasotzekotan bakarrik parte hartuko dutela. Europako zenbait herrialdeetan inkesta bat egin da herritarrek koprodukzioaren aurrean zer jarrera duten ikusteko eta haren arabera, «herritarrek zerbitzu publikoak hobetzen laguntzeko prest daude, baldin eta ahalegin handiegirik eskatzen ez bazaie eta beste herritar batzuekin, funtzionarioekin edo gobernuan lan egiten duten profesionalekin elkarlanean lan egin behar ez badute» (Bovaird eta Loeffler, 2011). Ondorioz, banakako koprodukzio moduak nagusi dira taldeko koprodukzio moduen aurrean, baina esan liteke arduradun politikoekeo taldeko koprodukzio moduak sustatu nahi dituztela, parte-hartzaileei ez ezik, komunitate osoari ere mesede egiten dietelako. Eragile ekonomiko arrazionalen testuinguru heuristikokoan, badirudi ezinezkoa dela halakorik eskatzea. Baina, zer gertatuko litzateke pertsonak ez balira kalkulagailu berekoi eta arrazionalak?

Hipotesi arrazionalen mugak

Makina kalkulagailu berekoiak ez gabela pentsatzea ez da gauza berria, ez behintzat politika publikoetako ikasleen eta arrazoizkotasun mugatuari buruzko Simonen ikuspuntua ezagutzen dutenen artean (Jones, 2001) eta ideia hori nekez izango da ustekabekoa hausnarketarako gaitasun apur bat duten arduradun politikoentzat. Hala ere, ideia horiek orain hasi dira azaleratzen, pentsamolde politikoari aplikatzeko moduan eta beren indarra dela eta, erronka jo diezaiokekeo modu arrazionalen eta heuristikokoan nagusitzen den arduradunari. Funtsezko ideiek jokaeraren gaineko eragin kognitibo, sozial eta moralak ezartzen dituzte.

Gure bide kognitiboak

Erabakiak hartzen ditugunean modu ulerkorrean bilatzen dugula eta modu guztiz arrazionalen jarduten gabela adierazten denean, ekonomia sozialaren, ekonomia psikologikoaren eta jokabidearen ekonomia-aren arloetako ikerketa ugariarekin nahasi gaitzke (Jones, 2001). Azkeneko hamarkadetan iraultza kognitibo gertatu da psikologian, eta zientzia politikoek, soziologiak eta bereziki ekonomiak bertako ikuspuntuak bildu dituzte (ikus Simon *et al.* 1992). Gizarte zientzietako pentsamolde berri hori arduradun politikoen bidez hasi da barneratzen, eta Thaler eta Sunsteinek (2008) *Bultzadatxoa* liburuan egindako lanari leku nabarmena eman zaio. Funtsezko argudio gisa adierazten da arrazoizkotasun mugatuaren mende gauden arduradunak gabela; izan ere, funtsezko giza arazo bat dugu, informazioa tratatzeko, egoera bat ulertzeko eta ondorioak zehaztekeo garaian, gure gaitasun kognitiboek mugak eta munduaren konplexutasuna kontuan hartuta. Gure barne mundu kognitiboak arreta gauza batzuetan jartzen eta beste gauza batzuei jaramonik ez egiten laguntzen digu, eta pentsamendu ohiturek, arau orokorrek eta emozioek bultzatzen dute. Arra-

zionaltasuna giza adimenaren elaborazioaren funtzio horrek mugatzen. Arduradun politikoek kontuan hartu behar dute esku-hartzeek nola eragin dezaketen pertsonen arreta mailan, zer alderditan eragin dezaketen eta aktoreek «espazio arazoa» nola adierazten, definitzen eta ulertzen duten. Gainera, arduradun politikoek kontuan hartu behar dute aukeraketak eta ikaskuntza estrategiek zer betekizun duten jarduteko aukeren bilaketaren kontrolean eta lotura emozionalak eta leialtasunak zer eragin duten erabakiak hartzeko ingurunea sortzeko garaian. Hemen ekarpen nagusien laburpena egingo dugu (horietako asko *Bultzadatxoa* liburuan ageri dira) eta politiken diseinuan dituzten ondorioetako batzuk identifikatuko ditugu. Adibideok agerian uzten dute *homo psicologicus*-ek zer bidezidor mental erabiltzen dituen erabakiak errazago hartzeko (ikus Simón 19xx, Juan *et al.* 2009).

Ikuspuntuaren teorian (Kahneman eta Tversky, 1979; Thaler 1980) «hornidura efektua» aipatzen da, eta, haren arabera, zerbait eskuratzen dugunean ez dugu galdu nahi izaten. Kognitiboki, garrantzitsuagoa da daukagunari eustea (hau da, ez galtzea), beste zerbait irabaztea baino. Ikerketa esperimentalek teoria hori babesten dute, eta frogatu egiten dute pertsonak ondasun baten balorazioa egiteko garaian jabetzak inportatzea diola; horrexegatik, jabeek saltzaileek baino balio handiagoa ematen diete ondasunei (Kahneman *et al.* 1990). Eta politika publikoari dagokionez, ideia hori jokabide aldaketarako estrategien diseinuan islatzen da, irabazien ordezkariak nabarmentzen direnean. Izan ere, pertsonak zerbait gal dezaketela sentitzen badute, zerbait egiteko joera handiagoa izan dezakete, galera saihesteko. Adibidez, erretzeari uzteko politikean eraginkorragoa da erretzailleak zenbat urte gutxiago biziko diren nabarmentzea, erretzeari uzten diotena zenbat urte gehiago biziko diren nabarmentzea baino (Wilson *et al.* 1987; 1998; ikus Halpern *et al.* 2004). Era berean, isunak sariak baino eraginkorragoak dira jokabide aldaketak bultzatzeko garaian (Dawnay eta Shah 2005).

Gure arkitektura kognitiboaren beste alderdi bat, gure jokabide ez guztiz arrazionala erakusten duena, deskontu psikologikoen erabilera da (Frederick *et al.* 2002). Teoria horren arabera, berehalakotasuna faktore garrantzitsua da proposamenei erantzuteko gaitasunean. Gure erabakietan garrantzi handiagoa ematen diegu epe laburreko ondorioei, epe luzekoei baino. Zerbait irabaziko badugu, nahiago dugu orain irabazi. Mina sentituko badugu, aldiz, nahiago dugu etorkizunean sentitu. Jokabidearen ekonomistek printzipio hori erabiltzen dute sarritan hartzen diren erabaki ekonomikoak ez-perfektuak direla azaltzeko. «Denbora eremu laburretarako deskontu tasa altua eta denbora eremu luzeetarako deskontu tasa baxua» ezartzen dugunean «deskontu hiperbolikoa» gertatzen da (Laibson 1997, p.445). Edo beste modu batean esanda, epe laburreko kontsumoa saturatzen dugu, eta epe luzeko etekinak deskontatzen ditugu, kontsumoa atzeratuz, bakarkako zein taldeko ikuspuntutik optimoak ez diren emaitzak sortuz. Horregatik, gutariko askok ez dugu atsegin erretiratzen garenarako aurrezte, edo ez diegu jaramonik egiten dieta edo erregimen urrien epe luzeko ondorioei. Politika publikoetan konpromiso mekanismoak sor daitezke epe laburreko sariak jasotzeko eta atzeratzeko joera zuzentzeko, eta, hala, koprodukzio ahalmena areagotzeko (O'Donoghue eta Rabin, 1999). Esate baterako, horren adibide dugu pentsioetarako aurrezki programa bat, «orain erosi eta gero ordaindu» printzipioan oinarrituta dagoena eta etorkizun handikoa dirudiena; programa horretan, langileek aurrezki gehigarriak egiteko konpromisoa hartu behar dute, ordaindutako bi urteko oporraldi batekin hasita (Thaler eta Bernartzi 2004). Deskontua ekonomista konbentzionalek erabiltzen duten analisi ezaugarria da, baina literatura psikologikoen arabera (jokabidearen ekonomia barne), ekonomista konbentzionalek onartzen dutena baino modu inkoherenteagoan eta irrazionalagoan deskontatzeko joera dugu.

Lotura zuzena duen fenomeno bat *statu quo*a mantentzeko joera da (Samuelson eta Zeckhauser 1988). Denborak, energia intelektualak eta baliabideek mugatuta, gutariko gehienok, gehienetan, nahiago dugu

gure ohiturak ez aldatu, nahitaez aldatu behar ez baditugu behintzat. Ikerketen bidez egiaztatuenez, erabaki konplexu edo zail bat hartu behar dugunean eta aukera guztiei buruzko informaziorik ez dugunean, sarritan gauden bezala gelditzen gara (Choi *et al.* 2003). Arduradun politikoez erabil dezaketen mekanismo bat, irismen handikoa, «aukeraketaren arkitektura» aldatzea da, aurrez ezarritako jarrera aldatuz, gizarte ongizatea maximizatzeko (Thaler eta Sunstein 2008). Herritarrek automatikoki izena ematen dutenean pentsioetarako aurrezki programetan (Cronqvist eta Thaler 2004) edo organo-emaielen erregistroetan (Johnson eta Goldstein 2003; Abadie eta Gay 2006), badirudi balio lehenetsien aldatetak ongi funtzionatu duela.

Gure jokabideko beste alderdi bat, laugarrena, psikologo sozialek onartzen dutena eta koprodukzioaren garapenerako garrantzitsua dena, koherentzia kognitiboa da. Festingerren ondoren (1957), psikologoek uste dute jendeak sinesmenen eta jokabideen arteko koherentzia bilatzen duela. Baina sinesmenak eta jokabideak bat ez datozenean (disonantzia kognitiboaren fenomeno), sarritan gure sinesmenak aldatzen ditugu, gure jokaera egokitu beharrean. Koprodukzioa sustatzeko nahia dela-eta, zailtasun hori gainditzeko modu bat jendearen konpromisoa lortzea izan daiteke (Dawnay eta Shah 2005). Ikerketen arabera, konpromisoa hartzen denean, adierazi diren sinesmenak babestearren jokabidea egokitzeko motibazioa handiagoa da, bereziki konpromisoa jendaurrean hartu denean. Zerbait egiteko konpromisoa hartzen dugunean, gure buruaz dugun irudia alda daiteke, eta aurrerago hartu beharko ditugun erabakietan, aurrez hartutako konpromisoa betetzeko joera izango dugu. Ingurumen jokabidearen arloko ebidentzien arabera, jendaurrean egindako promesek ura aurrezten lagun dezakete, informazioa modu errazean eskuratzearekin alderatuta McKenzie-Mohr, 2000). Bozketei dagokienez ere antzeko aurkikuntzak egin dira; izan ere, bozketei buruzko inkesta batean parte hartu duten pertsonak bozkatzeko joera handiagoa izango dute, inkestarik egin ez dutenek baino (Greenwald *et al.* 1987). Eta odola emateko erabakietan, pertsonak «erabaki aktiboaren aukeraketaren» aurrean jarriz gero (hau da, aukeraketa aktiboki euren aurrean jarriz gero), odol-emateen tasa areagotu egiten da gaiari buruzko zalantzak dituzten pertsonen artean (al Stutzer *et al.* 2006).

Gizartearen eragina

Koprodukzioa sustatzearen banakako faktore psikologikoak aztertzea garrantzitsua da, baina *homo psicologicus* ez da isolatuta bizi. Pertsonen arteko, komunitateko eta gizartearen harremanek eragina dute jokabide sozialean, eta horrek, koprodukzioarako politika publikoen diseinua ere indartuko du. Psikologo sozialen eta soziologoaren esanetan, aipaturiko harremanek eragin handia dute (ikus Halpern *et al.* 2004). Adibidez, gainerakoek (batez ere kideek) guri buruz zer iritzi duten asko inporta zaigu. Bulegoetan eraginkortasun energetikoa sustatzeko garaian, berriz, ez dirudi enpresen arteko «informazio dibulgazioak» beren ingurumen konpromisoa adierazi nahi duten enpresen arteko «gailurreranzko lasterketa» eragiten duenik (Thaler eta Sunstein 2008). Era berean, froga sozialaren kontzeptuak iradokitzen duenaren arabera, egoera ambiguo baten aurrean gaudenean beste pertsona batzuegan jartzen dugu arreta, beren jokabidearen adierazle sozialak atzemateko (Cialdini 2007). Gainera, begiko ditugun eta fidagarritzat eta sinesgarritzat jotzen ditugun pertsonen eragin handiagoa izango dute guran (Druckman 2001). Kideen babesa eta komunitateko aholkulari sistemak, pertsonen arteko eragina aprobetxatzen duten koprodukzio moduen adibide dira: esate baterako, seme-alabak dituzten emakumeek edoskitzea sustatzeko gauzatzen dituzten programak (Bovaird 2007), edo eskola jazarpena jasan duten haurrek *bulling*-ari aurrea hartzeko gauzatzen dituzten prebentzio programak (Cruz *et al.* 2009).

Talde arteko joeraren teoriak taldeko leialtasunaren eta nortasunaren garrantzia azpimarratzen dute, eta saiakuntzen arabera, elkar ezagutzen ez duten pertsonak taldetan banatzen badira, taldeko leialtasuna gara daiteke, bizkor gainera (Tajfel *et al.* 1971). Taldeko nortasuna garatzen denean, begiko ditugunen jokabidea imitatzeko joera izaten dugu oro har (Tajfel *et al.* 1986). Talde arteko joera eta leialtasuna ustiatzen dituzten teknikak koprodukzioa sustatzeko erabili izan dira. Esaterako, elikagaietako hondakinak ongarri gisa neurri handiagoan berrerabiltzeko saiakuntza egin zenean, auzo bereko kaleetan taldeko nortasuna sortzen saiatu ziren (Nomura *et al.* 2010).

Bestalde, gertuko sare sozialek ere eragina dute pertsonengan, eta, aldi berean, sare sozialak arau sozialetan oinarritzen dira, hala nola elkarrekikotasunean eta mutualitatean (House 1981). Politika publikoaren tresnak, hala nola komunitateko kontratuak, hitzarmenak edo bestelako akordioak eta organo-emaileak edo boluntarioak sustatzeko kanpainak, elkarrekikotasuna edo komunitate sena azpimarratzen dituztenak, halako printzipioetan oinarritzen dira.

Morala

Goodinen arabera, jokabide morala eta motibazioa hiru motatakoak izan daitezke (Goodin, 1980). Bate-tik, zentzuzko morala dago, epe luzeko interesek bultzatzen dutena eta, oro har, gogoeta sakonaren ondorio dena. Bestetik, gizabanakoak aurkitzen eta barneratzen dituen printzipio moralak daude, baina estatus bera ematen zaie motibazio propioago eta instrumental gisa, eta besterengarriak dira, erabakiak hartzeko garaian duten garrantzia dela eta. Azkenik, printzipio moral sakratuak daude, motibazio profanoagoetatik babestu behar direnak eta inola ere besterendu ezin direnak.

Adierazitakoa frogatzeko, odol-emaile baten adibidea jarriko dugu. Odol-emaile batek, epe luzeko interes arrazional gisa ikus lezake odol bankua (baliteke nik odola behar izatea etorkizunean). Baldintza horietan, informazioa eta pizgarriak onar litezke kanpoko sustagarri gisa, eta baita derrigortzea ere (larrialdi kasuetan barkarrik). Bestalde, odol-emaileek konpromiso moral gisa ikus lezakete odol-bankua, eta beren zeregina erraza eta komenigarria den bitartean, odola ematen jarraituko lukete. Azkenik, betebeharrak moral gisa ikus lezakete, eta odola emanez gainerako gizakiekiko konpromisoa adieraz dezaketela pentsa lezakete. Baldintza horietan, odol-ematea derrigortzeak edo saritzeak konpromisoa arriskuan jarriko luke edo motibazio altruista ordezkatu luke. Ideia hori Richard Titmuss akademikoak aurkeztu zuen estreinakoz, opari harremanari buruzko azterketan; bertan, odola emateagatik ordainduz gero odol-emaileen kopurua txikitu daitekeela adierazi zuen. Titmussen arabera, odola emateagatik ordaintzeak balio sozial baliotsuak ahulduko lituzke, eta, hortaz, odola emateko borondatea murriztuko edo guztiz suntsituko litzateke (Titmuss 1970).

Koprodukzio konbentzionala sustatzea helburu duten esku-hartzei dagokienez, politika publikoko tresnek, hala nola pizgarri finantzarioek, helburu altruistak eraldatu ditzakete, nahi gabe, eta norbere interesei buruzko kalkuluak (irabaziak eta galerak) eragin ditzakete: «Berez atseginak diren zereginak betetzeagatik ordaintzen bada, zeregin hori betetzea ez da hain atsegina, eta, gainera, zeregina berriz betetzeko nahia murrizten da» (Goodin 1980, p. 139).

Bruno Freyren berezko motibazioaren ordezkapenaren teorian (Frey eta Jegen 2001, Frey 2007) eta ikerketaren euskarrian Goodinen gogoeten berri eman zen. Adibidez, boluntarioei buruzko ikerketen arabera, boluntario kopuruak behera egin dezake ordainsariren bat eskaintzen bada (Frey eta Goette 1999). Era berean, haurren zaintzari dagokionez, seme-alabak jasotzera berandu iristen diren gurasoei isunak jarritz gero,

arazoa areagotuko da, isuna ordainduta errudun ustea murriztuko delako eta nolabaiteko kontratuzko harremana ezarriko delako (Dawnay eta Shah 2005).

Kanpo pizgarriak ezarrita (bereziki diru bidezkoak) ez da lortzen gizakiek mekanikoki nahi duguna egitea; izan ere, berezko motibazioa bazterratzen dute (Frey 2007, pp. 4-5). Hiru prozesu psikologikoren bidez azaldu daitezke jokoera jakin bat bultzatzeko pizgarrien ezkutuko kostuak eta kanpo trabak. Pertsonak, kontrolatuta daudela sentitzen dutenean, bereziki zainketa intentsiboaren eta erregulazioaren bidez, berezko motibazioari uko egiteko joera izan dezakete; izan ere, kanpo esparruaren zama izugarria denean, berezko motibazioari eusteak zentzua galtzen du. Jendearen berezko motibazioa aintzat hartzen ez denean, autoestimua eta asmoak galdu daitezke. Azkenik, jendeari ez bazaio arrazoirik ematen berezko motibazioak erakusteko, haserrea senti dezakete (ikus Cotterill *et al.* 2009, gaia sakonago aztertzeko).

Arduradun politikoez ezin dute arau orokor gisa erabili makina kalkulagailu arrazionalak garelako adierazten duen hipotesi mikro-fundazionala. Horrek ez du esan nahi pertsonak inoiz ez direla berekoiak eta etekin-zaleak, baina gizarte zientziak sortu zituzten pentsalariak edo beren jarraitzaileetako batzuk aukeraketa publikoaren ekonomian edo kudeaketa eskoletan adierazten dutena baino neurri txikiagoan dira hala. Izan ere, historia ez zen hasi jokabidearen ekonomia sortu zenean, azkeneko bi hamarkadetan; erakunde publikoei dago kienez behintzat, duela hirurogei urte baino gehiago hasi zen, Herbert Simon Nobel saridunaren lan aitzindariari esker (Simon, 1997). Simonek argudiatu zuenez, informazioa prozesatzeko ahalmen mugatua izateak oztupoak jartzen dizkigu bidean, gu arduradun arrazional heroikoak izanik. Arrazionaltasunaren muga nagusia da «burmuin txikia eta arazo handiak» ditugula. Gainera, herritarrak izaki sozial eta moralak dira eta horretantxe datza heuristika mikro-fundazional pluralistagoaren oinarria.

Esku hartzeko heuristikaren garapena

Aniztasun mikro-fundazionalarekiko konpromisoak, esku-hartzearen heuristika berria dakar berekin. Baina zer estrategia erabil ditzakegu herritarren erabakietako dimentsio kognitibo, sozial eta moralei buruzko ikuspuntuetatik abiatuta ongizatearen koprodukzioa babesteko esku-hartze eraginkorrak sortzeko? Gobernu Institutuak (Dolan *et al.* 2010) Kabineteko Bulegorako idatzitako txosten baliotsu bat eskaini du, *Bultzadatxoa* liburuko ideiak nola gauzatu diren eta haratago nola eraman litezkeen azaltzen duena. Txostenaren bidez, arduradun politikoez erregulazio tresnetatik, legeetatik eta pizgarri finantzarioetatik haratago pentsa dezaten bultzatu nahi da. Txostenaren arabera, pentsamoldearen iraultza bide onetik doa. Jokabidearen ikuspuntuak tresna boteretsuak izan daitezke arduradun politikoentzat, delinkuentziaren, gizentasunaren edo ingurumen iraunkortasunaren erronka politikoei aurre egiteko. Tresna horiek aplikatuz kostu eta sufrimendu handirik gabe aurki daitezke herritarrentzako (edo guretzako) konponbideak, *Nugging*-aren bidez (emeki bultzatzea), eta gure pentsamoldearen eta jardunbidearen arabera jarduteko moduak sor daitezke. Ideia horrek garrantzi handia du noiznahi, baina are handiagoa murrizketa fiskalaren mende gaudenean (Dolan *et al.* 2010, p. 7).

Ez diogu zuzenean erronka jo nahi ebaluazio baikor horri, baina adierazi nahi dugu gaur egun tarte handia dagoela prozesu sozial eta psikologikoen ezaguera orokorraren eta ideia horiek ingeniarietza sozialerako tresna eraginkor bilakatzeko gaitasunaren artean. Are gehiago, uste dugu *Bultzadatxoa* liburukoak bezalako esku-hartze gehiago jarri beharko lirakekeela mahai gainean. Gaiok aztertzeko, uste dugu erabilgarria izan daitekeela jokabidean eragina duten mekanismo mikro-fundazionalak buruzko ideia orokorretatik neurri po-

litikoak ateratzeko garaian gobernuek eskura dituzten lau esku-hartze arlo kontuan hartzea (ikus 1. taula). Lanketa, pertsuasioa, sozializazioa eta brikolajea, hain zuzen ere. Lehenengo biak goitik beherakoak dira, gobernu buru dela, baina beste biak behetik gorakoak dira, gobernuak kontrolaren zati bat herritarren esku utzita. Erronka jo nahi diegu jokabide aldaketa goitik beherako esku-hartzeen bidez bakarrik gauzatu daitezkeela diotenei. Gobernuko funtzionarioak goitik beherako esku-hartzeekin erosoago sentitzen direlakoan gaude, baina uste dugu behetik gorako esku-hartzeak ere kontuan hartu beharko lituzketela.

1. taula

Jokabide aldaketa errazteko esku-hartze tresna bigunak: heuristika

Tresna biguna	Ezaugarriak	Sorkuntza prozesua	Indarguneak	Ahulguneak
Enkoadratzea	Aktoreen aukeraketa esparruari forma ematea, jatorrizko balioetan oinarrituta.	Goitik behera.	Esparru aukera ugari eta ongi ezarritako praktika.	Gobernuarekiko konfiantza faltak mezuaren irismena mugatu lezake.
Pertsuasioa	Herritarren sinesmenak aldatzea.	Goitik behera.	Gai konplexuei edo zaili ekitea.	Ikuspuntu edo gatazka asko badaude, sinesmenak aldatzeko ahalmena mugatu daiteke.
Sozializazioa	Talde sozialetan arau positiboak sortzen dituzten prozesuekin lan egitea.	Behetik gora.	Arauk sakon errotutako jokaera faktore boteretsuak dira.	Gobernuek ez dute ematen lanerako lekurik eta denborarik, herritarrek zuzendutako jardueren sostengu gisa.
Brikolajea	Herritarrek aukera konplexuak eta kontraesankorrak dituztela ikusirik, egoeretan pentsatzeko eta ezarritako arauak aplikatzeko moduan eragitea da helburua.	Behetik gora.	Eguneroko erabakietan eragiteko modu ona. Erronka: arauak eta egoerak behar bezala uztartzeko gai izatea.	Gobernuek zailtasun handiak dituzte mundua herritarrek bezala ikusteko.

Enkoadratzea

Enkoadratze jarduerak Thaler eta Sunsteinen (1998) *Bultzadatxoa* liburuaren bihotzean daude, eta herritarren aukeraketa arkitekturaren transferentziara zuzenduta daude. Marketinaren, kanpainaren eta esku-hartze politikoen ezaugarri aski ezagunak dira. Enkoadratzea, politiken formulazioaren testuinguruan, arduradun politiko batek arazo bat aurkezteko modua da, eta kasuan kasuko politikaren hartzaileek nolabait erantzun dezaten sustatzea du helburu. Arazoak aurkezteko moduak eta, bereziki, arazo baten alderdiei emandako garrantziak, jendearen erantzunak eta ondorengo jokabidea baldintzatzen dituzte. Ikuspuntu hori goitik beherakoa da, eta, bertan, herritarren erabakiak eredu politiko baten eraginpean daude; herritarrak direna dira, baina eredu politikoak babesa ematen die erabaki hobeak hartzeko. Gainera, mugaz inguratuta-

ko izaki arrazionalak garenez, batzuetan gobernuaren arrastoak erabiltzen ditugu erabakiak hartzeko urrezko arau gisa.

Oro har, garrantzitsuak izan daitezkeen gogoeta batzuk azpimarratzen dira, jokoan dagoen gai orokorraren parte direnak, jendearen erantzunean eragiteko helburuarekin (Druckman 2001). Aurrera begirako teoriaren adibidea aplikatzen badugu (Kahneman eta Tversky, 1979), irabazien ordezkalerak ekarriko lituzkeen aukera bat aurkeztu genezake. Enkoadratzearen beste adibide bat sekuentziazioaren gaia da. Jokabidearen zientziaren arabera, jendeak neurritz kanpoko garrantzia ematen dio topaketa edo mezua baten amaierari, hori baita gogoan mantentzen den zatia (Chase eta Dasu 2001). Ideia hori aplikatzen bada odol- edo organo-donazioak egiteko edo hondamendi natural baten biktimetzako emaitzak egiteko telebista saio batean (gobernuak babestutako saioa), irudi indartsua eta positiboa eman beharko da mezua baten amaieran.

Bultzadatxoa emateko eredu klasikoaren baitan, adibidez abiapuntua aldatu daiteke, pertsonak aktiboki aukeratu behar ez izateko berentzat eta gizartearentzat onena den bidea (adibidez, herritarrek automatikoki pentsio erregimen baten baitan egotea, beren burua ateratzen ez badute behintzat). Hala ere, azken ikerketen arabera, herritarren ehuneko txiki baten jokabidea bakarrik alda dezakete *bultzadatxoek* (John *et al.* 2011), eta, gainera, baliteke *bultzadatxoak* ez izatea hain onak jokabide errotuen kontra borrokatzeko. Gainera, eliteetako formulazio gaitasuna mugatua da, nabarmen. Saiakuntzen arabera (Druckman 2001), esparruak eraginkorrak izango badira ezinbestekoa da esparruok sortzen dituzten pertsonak fidagarriak eta sinesgarriak izatea. Gobernuko agentziek enkoadratzeko edo bultzadatxoa emateko ahalmena dute, dudarik gabe, baina baliteke herritarrek ez jotzea informazio edo aholku iturri fidagarritzat, eta horrek gobernuko esku-hartzeen irismena mugatuko du, herritarren jokabideko elementu zailenetara iristeko garaian. Erakunde publikoekiko konfiantza elementu aldakorra eta konplexua da (MORI 2003), baina ezin da pentsatu enkoadratze eraginkorrean inplikatzeko beharrezkoa den konfiantza egongo denik beti.

Pertsuasioa

Pertsuasio ekintzek nolabaiteko zerikusia dute enkoadratzearen ideiarekin, bi kontzeptuak desberdinak diren arren. Nelson eta Oxleyren arabera (1999, ikus Druckman 2001), desberdintasun nagusia honako hau da: gogatzeko, *sinesmenaren edukia* aldatu behar dela, eta enkoadratzeko, berriz, sinesmen batzuen garrantzi erlatiboa bakarrik aldatu behar dela; hau da, nolahi ere egin nahi den zerbait plazaratu behar dela. Ildo horretan, Thaler eta Sunsteinen definizioaren arabera (2008), *Bultzadatxoa* ez da pertsuasio jardura baten enkoadraketa. Eurek argudiatzen dutenez (nork? Thalerrek eta Sunsteinek?), amaiera herritarrek aukeratu behar dute, gobernuen ordezkalerak, eta, gainera, bultzadatxoa eraginkorragoa da herritarrek zerbait ona dela eta aukera hori beren buruetan irudikatze laguntza besterik behar ez dutela dakitenean. *Bultzadatxoaren* arrakastaren gakoak jendeak dagoeneko bere erabakia hartu duenean eta dagokion ekintza gauzatzeko prest dagoenean aplikatu daitezke. Hala, *Bultzadatxoak* eragin ditzakeen ekintzen aukera mugatu daitezke, eta kanpoan gelditu daitezke, adibidez, polemikoagoak diren edo gogoeta sakonagoa behar duten gaiak (John *et al.*, 2011).

Baina, zer gertatuko da bultzadatxoa ematek haratago joanez gero? Arazo politiko batentzat interpretazio eta konponbide bakarra ematen denean, ideia bera koherentea da hautesleen eskema kognitiboekin, eta interpretazioa bera «konstrukto kronikoki eskuragarria» da (hau da, interpretazioa eztabaidaezina da neurri handi batean eta hautesleak ohituta daude arazo politikoari buruz modu horretan pentsatzen); horrelakoe-

tan, argudio politikoa onartu egiten da, oro har (Lau *et al.* 1991). Egoera horietan, «informazioaren azaleko azterketan» bakarrik inplikatzeko dira hautesleak. Beren ebaluazioa interpretazio ofizialak baldintzatuko du, nabarmen gainera, baita interpretazio hori beren uste politiko sakonenen kontrakoa bada ere. Aldiz, interpretazio kontrajarriak egiten direnean eta interpretazioak gure eskema kognitiboen kontrakoak izan daitezkeenean (ideiak berriak edo ezezagunak direlako), informazioa sakonago aztertu beharko da. Egoera horietan, hautesleek beren sinesmen politiko orokorretara jo ohi dute, erabakiak hartzen laguntzeko heuristikoa gisa, arduradun politikoek emandako arau orokorrez edo bultzadaxoez baliatu ordez.

Hitz gutxitan esanda, pertsasioak, esku-hartze puntu gisa, ideietarako gaitasun mugatua dagoenean eta mezuari erronka jotzea zaila denean du eragin handiena. Nahikoa da Lurraren berotzean edo MMR txertoan une batez pentsatzea, politikarien pertsasio gaitasuna mugatua izan daitekeela ikusteko, baldin eta aurka ditzuten ideiak eraginkortasunez transmititzen badira.

Sozializazioa

Arau sozialek edo dimentsio moralaren eraikuntzak koprodukzioa sortzeko neurri politikoetan duten betekizuna baliatzen badugu, sozializazio prozesuak behetik gorako esku-hartze puntu bilakatzen dira gobernuentzat. Koprodukzioa babestuko duten arau sozialek sustatzea herritarrak politika publikoetako emaitzak lortzearen alde azaltzeko modu bat izan liteke. Baina arduradun politikoek nekez lor dezakete arauen garapena jendearengan eragina izatea; izan ere, Parsonsek (2010) adierazi zuen bezala, arauak pixkanaka eta modu ebolutiboan garatzen dira taldeen arteko elkarreagin konstantearen bidez. Bestalde, arau sozialek denbora asko behar dute ekintzetan islatzen hasteko. Sozializazioak jokabide aldaketan esku hartu dezakeela onartzeak zentzua izan dezake ikerketaren ikuspuntutik, baina nekez politikaren ikuspuntutik (Putnamek aurkitu duen bezala, kapital sozialaren ideiak esku-hartze politiko eraginkor bihurtzeko eraldaketan; ikus Putnam eta Feldstein 2003).

Sozializazio indarrek ataka gaitutako badute, badirudi gobernuak boterea eman beharko diela herritarrei. Taldeek «jabetza komunaren tragediak» (Hardin 1968) gaitutzeko moduak aurki ditzakete beren kabuz, helburu kolektiboak erdiestearren. Elinor Ostrom Nobel saridunak adierazi zuen moduan (1998, p. X), «eredu guztiz arrazionaletan ez bezala, gizabanakoek sistematikoki parte-hartzen dute tokiko ondasun publikoak sortzeko edo erabilera komuneko baliabideak kudeatzeko ekintza kolektiboetan, kanpoko agintarien laguntzarik gabe». Elkarreaginaren bidez, eta bereziki aurreko elkarreaginaren bidez, baldintzapeko lankidetzari eta elkarrekikotasunari buruz ikasten dute taldeko kideek, eta lankidetzara arauak garatzen dituzte taldeko zigorren eta sarien erabileraren bidez (zigor eta sari materialak edo ospearekin zerikusia dutenak). Taldeko arauak, hala nola lankidetzara faltagatik taldeko beste kide batzuk zigortzeko borondatea, beharbada arau moralen baliokideak dira.

Gobernuek metodo sortzaileak erabil ditzakete, politika publikoko helburuak herritarren lankidetzaren mende daudenean jokabide kooperatiboa aprobetxatzeko, bereziki ekintza kolektiboetan edo «dilema sozial» bat eragiten duten egoeretan (Ostrom 1998), hala nola airearen kalitatea hobetzeko edo zabortegeien erabilera murrizteko. Estatuak, zigortzeko edo sustatzeko tresna tradizionalak erabili ordez, hobe egingo luke herritarrek etorkizunean laguntzeko aukera eman dezakeen aparatua instituzionalaren garapenean lan egingo balu. Praktikan, aurreko aurreko elkarrekintzarako aukerak sortzea, konfiantza garatzea eta elkarrekiko ekintzak egitea esan nahi du horrek.

Ondorioz, bultzadaxoa emateaz gain, beste zati batean argudiatu dugun moduan (John *et al.* 2009; John *et al.* 2011), herritarrei «pentsatzeko» leku eta denbora gehiago emateko estrategiak sortu beharko dira: espazio komun bat aurkitzeko, konponbideetarako bidean pantsatzeko eta jokabidea aldatzeko moduak hitzartzeko. Jokabidean positiboki eragiteko esku-hartze puntuen sorta osoa baliatu nahi badugu, bereziki koprodukzioa sustatzeko saiakeretan, beharbada herritarrei botere handiagoa emateko prest dauden gobernuak beharko ditugu, bultzadaxo kalkulatuetatik haratago. Zerbitzu publikoen etorkizuna erlazionatuta egon daiteke gobernu erakundeek herritarrak banaka zein taldeka beren bizimoduaren eta aukeren berrazterketan inplikatzeko duten ahalmenarekin, eta baita bultzadaxo zentzudunagoak emateko ahalmenarekin ere.

Brikolajea

Goitik behera enkoadratzeko eta behetik gorako hausnarketa eraikitzeko, baliteke gobernuak bere ahalmena gehiago garatu behar izatea, eta, horretarako, herritarrek bezala ikusten hasi beharko du gobernuak, Estatu gisa ikusi ordez. Argudio hori Scotten azterketan oinarritzen da (Scott 1998), ingeniari-tza sozialeko egitasmo handien porrotari buruzko azterketan. Scotten arabera, gobernuan nagusitu daitezkeen pentsamolde azpiratzaile, uniforme, zentralizatu eta kodifikatuaren isla da aipaturiko porrota, bai behintzat neurri batean, eta, bestalde, tokiko ezaguera ez errespetatzearen eta herritarren lanbidearen eta jardunbideen eta ikuspuntuen aniztasuna ez ulertzearen ondorio ere bada. Gizarte zientzietako brikolajeari buruzko literaturan ere aipatzen da gai hori, beste modu batean bada ere. Funtsean, honako hau argudiatzen da: «Pertsonen arazo eta helburu txikitarako balio duten ideiak, arauak eta jardunbideak garatu ohi dituzte, eta, azkenean, ekintza arlo ugari gainjartzen dira, panorama konplexua osatuz» (Parsons, 2010, p.96). Lévi-Strauss aktoreek *ad hoc* ikasteko modua islatzen saiatu zen brikolajeari buruzko metaforaren bidez (Lévi-Strauss, 1966), zerbaiti funtzionatzea lehenesteko premia gisa, egin ahala zentzua emanez eta baliagarria zer den igarritik. Sendagile askok, brikolajearen ideia erabiliz deskribatzen dute nola ikasten duten (Freeman 2007).

Ikusirik prozesuok garrantzi handia dutela herritarrek nola erabakitzen duten aztertze eta beren jardunbidea azaltzeko, lehenago aipaturikoek uste dute Estatuak garrantzi handiko erronka duela aurrean, esku-hartze sotilagoak eta eraginkorragoak garatzeko garaian. Estatuaren begiekin ikusi ordez herritarren begiekin ikusteko gaitasuna erronka handia da esku-hartze tresna berriak eta eraginkorrak garatzeko orduan. Hortaz, eztabaida taldeak eta «bezero misterioitsuaren» baliokide den kolektiboaren erabiltzea funtsezko esku-hartze puntua izan liteke, Estatuaren herritarren ikuspuntutik esperimendatzeko garaian zer sentitzen den jakiteko.

Ondorioak

Artikuluaren arabera, oinarri mikro-fundazionalen ulermen zabalenaren egoera izugarria da, politika publikoen diseinuko jokabide sozialari dagokionez. Bide kognitiboak, arau sozialak eta motibazio moralak hobeto ulertzeaz gain, gobernuaren politiken konfigurazioan funtsezkoak diren faktoreen jarraipen etengabea egin behar da. Ebidentziak eta gizarte zientzien ulermen teorikoak jokabide soziala aldatzeko tresna sotilagoak erabiltzeko aukera emango luke, baldin eta koprodukzioak garrantzi handiagoa hartzen badu politika publikoen garapenean.

Orain arte, koprodukzioari eta gizabanakoaren ahultasun kognitiboen, jardunbide sozialen eta uste moralen salerosketa bilatzen duten esku-hartze moduei buruzko galdera normatiboak saihestu ditugu. Pertsonak norabide jakin bateko erabakiak har ditzaten baldintzatzen ahalegintzea morala ote den iriztea ez da dilema berri bat arduradun politikoentzat, eta tresna estandarrak (legeak, arauak edo zerga sistema) erabiltzeko garaian ere galdetzen da esku hartzeko eskubiderik ba ote dagoen. Baina bultzadatxo batzuen kasuan, esku-hartze modu estandarrak irekiagoak eta esplizituagoak dira asmoei dagokienez, eta, ondorioz, gaia korapilatsuagoa da (dena den, ez dugu argi gutariko zenbatak ulertzen dituzten aplikatzen dizkiguten arauen eta zergen xehetasunak, eta, gainera, badakigu tresna politiko ikusezinoak egin daitezkeela herritarren erresistentzia murrizteko). *Bultzadatxoa ematearen* doinu orokorra honako hau izan daiteke: «Gobernuak zuk baino hobeto daki zer komeni zaizun eta zuk erabaki zuzena hartzeko modu disimulatu bat aurkitu dugu». Badago ideia horren aldeko argudio bat, Thaler eta Sunsteinek «paternalismo libertario» gisa sustatu zutena (2008) eta, haren arabera, aukeraketa behintzat herritarren esku dago, eta demokratikoki aukeratutako gobernuak aukeraketaren *arkitektura* bakarrik diseinatzen dute, arduradun politikoek ustez emaitza onuragarriak ekarriko lituzkeenari babesa emateko. Gobernu Institutuaren txostenaren arabera (Dolan *et al.* 2010), esku-hartzeak eragin dezaketen eztabaidari buruzko irizpenak esku-hartzeak abian jarri aurretik egin behar dira, eta, era berean, esku-hartzeak abiatu aurretik, onespenez demokratikoa edo publikoa bilatu behar da.

Baina erronka moral horiei ekiteko aukera izanda ere, kritiko batzuen arabera, badago beste arazo bat: sinetsi al dezakegu guretzat egokienak diren erabakiak hartuko dituztela gobernuak? Rajiv Prabhakarren arabera (2010, p. 2):

«Jokabidearen Ekonomiararen arabera, gobernuak badaki zer den onena. Baina sarritan, baliteke hala ez izatea. Arrazoi on bat tarteko, baliteke gobernuak zailtasunak izatea arazo politiko baten zatiak desegiteko; (...) baliteke gobernuak ebidentzia egokirik ez izatea bere erabakiak gidatzeko. Gobernuak arlo batzuetan bakarrik jakin dezake zein den bultzadatxo egokia, froga asko daudenean.»

Beharbada argudio horrek gehiegizko interesa eragin dezake *bultzadatxoaren* inguruan, baina nekez izango da erronka handi bat *bultzadatxoa* emateko estrategietarako; izan ere, beste esku-hartze modu batzuetarako ere aplikatzen du gobernuak. Zergak eta arauak ezartzen dituenean, nola daki gobernuak hori dela onena? Dударik gabe, galdera horri erantzuteko pentsa dezakegu gizarte demokratiko batean gobernuak noizbait kontuan hartuko gaituela. Laburbilduz, erabakiak hartzearen konplexutasuna islatzen duten mikro-oinarrien multzo zabalago batek eragindako esku-hartzeak erabiltzeko ideien morala eta bidezatasuna aztertu daitezke.

Baina gure kezka nagusia ez da ideia mikro-fundazionalak erabiliz koprodukzioa sustatzeko esku-hartzeak zer ondorio etiko edo politiko dituzten. Artikulu honetan eztabaidatu dugun kezka nagusia da onartu egin behar dela, zientzialari sozial gisa, prozesu sozialaren ulermen orokorretik abiatuta ingeniarietza sozialeko esku-hartze bideragarriak sortzeko bidearen hasieran baino ez gaudela eta ikerketa eta lan gehiago behar ditugula, zerk, zer neurritan eta zer baldintzatan funtzionatzen duen argitzeko. Bestetik, uste dugu jokabide soziala aldatzeko goitik beherako esku-hartze moduek behetik gorako ikuspuntuak baliogabetzeko arriskua dagoela. Goitik beherako ikuspuntuak bateragarriagoak dira gobernuaren jardunbideekin, eta, egia esan, eraginkorrak izan litezke, baina muga batzuen barruan bakarrik. Behetik gorako ikuspuntuak ezartzeko, berriz, kultura aldaketa nabarmenagoa egin behar da gobernuan, baina goitik beherako bultzadatxoa emateko estrategiek aprobeztatu ezin izango lituzketen aukerak baliatzeko aukera eman lezakete.

Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu Peter John, Graham Smith, Lauren Cumming eta Henry Kippineri, artikulari buruzko iruzkinengatik. Eskerrak eman nahi ditugu, era berean, Erresuma Batuko Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko 2020 Zerbitzu Publikoen Batzordearen bidez jaso dugun finantzaketarengatik.


Erreferentziak

- Abadie, A. eta S. Gay. (2006), «The Impact of Presumed Consent on Cadaveric Organ Donation: A Cross-Country Study», *Journal of Health Economics*, 25, 599-620.
- Barzelay, M. (2002), «Origins of the New Public Management: an International View from Public Administration/ Political Science», in K. McLaughlin, P. Osborne eta E. Ferlie (arg.), *New Public Management: Current Trends and Future Prospects*. London: Routledge, pp. 15-33.
- Bovaird, T. (2007), «Beyond Engagement and Participation: User and Community Co-production of Public Services», *Public Administration Review*, Sept/ Oct 2007, 846-860.
- Borins, S. (2002), «New Public Management, North American style», in K. McLaughlin, P. Osborne eta E. Ferlie (arg.), *New Public Management: Current Trends and Future Prospects*. London: Routledge, pp. 181-94.
- Chase, R. eta S. Dasu (2001), «Want to Perfect your Company's Service? Use Behavioral Science», *Harvard Business Review*, 79, 6, 78-84.
- Choi, J.J.; D. Laibson; B. Madrian eta A. Metrick (2003), «Optimal Defaults», *American Economic Review*, 93, 2, 180-185.
- Cialdini, R.B. (2007), *Influence: The Psychology of Persuasion*. New York: Collins Business.
- Cotterill, S.; L. Richardson; G. Stoker, eta C. Wales (2009), *Reinvigorating the Civic: A Rationale for Our Research Programme*. Working Paper, Rediscovering the Civic Project, Manchester and Southampton: Universities of Manchester and Southampton.
- Coyle, D. (2010), *The Economics of Enough*. Princeton: Princeton University Press.
- Cronqvist, H. eta R.H. Thaler (2004), «Design choices in privatized social-security systems: learning from the Swedish experience», *American Economic Review*, 94, 2, 424-428.
- Cross, E.J.; B. Richardson; T. Douglas eta J. Vonkaenel-Flatt (2009), *Virtual Violence: Protecting Children from Cyberbullying*. London: Beatbullying.
- Dawnay, E. eta H. Shah (2005), *Behavioural Economics: Seven Principles for Policy Makers*. London: New Economics Foundation.
- Dolan, P.; M. Hallsworth; D. Halpern; D. King, eta I. Vlaev (2010), *MINDSPACE: Influencing behaviour through public policy*. London: Cabinet Office/ Institute of Government.
- Druckman, J.N. (2001), «On the Limits of Framing Effects: Who Can Frame?», *The Journal of Politics*, 63, 4, 1041-1066.
- Festinger, L. (1957), *A Theory of Cognitive Dissonance*. Stanford: University of California Press.
- Frederick S.; G. Lowenstein eta T. O'Donoghue (2002), «Time discounting and time preference: A critical review», *Journal of Economic Literature*, 40, 2, 351-401.
- Freeman, R. (2007), «Epistemological Bricolage: How Practitioners Make Sense of Learning», *Administration and Society*, 37, 476-496.
- Frey, B.S. eta L. Goette (1999), *Does Pay Motivate Volunteers?*, Working Paper No. 7, Institute for Empirical Research in Economics, Zurich: University of Zurich.

- Frey, B.S. eta R. Jegen (2001), «Motivation Crowding Theory: A Survey of Empirical Evidence», *Journals of Economic Surveys*, 15, 5, 589-611.
- Gamble, A. (1988), *The Free Economy and the Strong State*. London: Macmillan.
- Gneezy, U. eta A. Rustichini (2001), «A Fine is a Price», *Journal of Legal Studies*, 29, 1, 1-18.
- Goodin, R. (1982), *Political theory and Public Policy*. Chicago: The University of Chicago.
- Goodin, R. (2004), «Heuristics of public administration», in M. Auger eta J.G. March (arg.), *Models of a Man: Essays in Memory of Herbert A Simon*. Cambridge: MIT Press.
- Greenwald, A.; C. Carnot; R. Beach eta B. Young (1987), «Increasing voting behavior by asking people if they expect to vote», *Journal of Applied Psychology*, 72, 315-318.
- Halpern, D.; C. Bates; G. Mulgan; S. Aldridge; G. Beales eta A. Heathfield (2004), *Personal Responsibility and Changing Behaviour: the State of its Knowledge and its Implications for Public Policy*, London: Prime Minister's Strategy Unit, Cabinet Office.
- Hardin, G. (1968), «The Tragedy of the Commons», *Science*, 162, 1243-8.
- Hindmoor, A. (2010), «Rational Choice», in D. Marsh eta G. Stoker (arg.), *Theories and Methods in Political Science*. Palgrave Macmillan, pp. 42-59.
- Hirschman, A.O. (1970), *Exit, Voice, and Loyalty: Responses to Decline in Firms, Organizations, and States*. Cambridge, MA: Harvard University Press.
- Horne, M. eta T. Shirley (2009), *Co-production in Public Services: A New Partnership with Citizens*. Discussion Paper. London: The Strategy Unit, Cabinet Office.
- House, J.S. (1981), *Work, stress and social support*. Reading Mass, US: Addison-Wesley.
- Hood, C. (2006), «Gaming in Targetworld: The Targets Approach to Managing British Public Services», *Public Administration Review*, 66, 4, 515-521.
- Jackson, T. (2005), *Motivating Sustainable Consumption*. Sustainable Development Research Network, Policy Studies Institute: London.
- John, P.; G. Smith eta G. Stoker (2009), «Nudge Nudge, Think Think: Two Strategies for Changing Civic Behaviour», *The Political Quarterly*, 80, 3, 361-69.
- Johnson, E.J. eta D. Goldstein (2003), «Do Defaults Save Lives?», *Science*, 302, 1338-1339.
- Jones, B. (2001), *Politics and the Architecture of Choice*. Chicago: University of Chicago Press.
- Joshi, A. eta M. Moore (2004), «Institutionalised Co-production: Unorthodox Public Service Delivery in Challenging Environments», *The Journal of Development Studies*, 40, 4, 31-49.
- Kahneman, D. eta A. Tversky (1979), «Prospect theory: An analysis of decisions under risk», *Econometrica*, 47, 313-327.
- Kahneman, D.; L. Knetsch eta R.H. Thaler (1990), «Experimental Tests of the Endowment Effect and the Coase Theorem», *Journal of Political Economy*, 98, 6, 1325-48.
- Knott, D.; S. Muers eta S. Aldridge (2007), *Achieving Culture Change: a policy framework*. Prime Minister's Policy Unit: London.
- Laibson, D. (1997), «Golden Eggs and Hyperbolic Discounting», *Quarterly Journal of Economics*, 112, 443-477.
- Lau, R.R.; R.A. Smith eta S.T. Fiske (1991), «Political Beliefs, Policy Interpretations, and Political Persuasion», *Journal of Politics*, 53, 3, 644-675.
- Le Grand, J. (1997), «Knights, Knaves or Pawns? Human Behaviour and Social Policy», *Journal of Social Policy*, 26, 2, 149-169.
- Lévi-Strauss, C. (1966), *The savage mind*. London: Weidenfeld and Nicholson.
- McKenzie-Mohr, D. (2000), «Promoting Sustainable Behaviour: an introduction to community-based social marketing», *Journal of Social Issues* 56, 3, 543-554.

- March, J. eta J. Olsen (1989), *Rediscovering Institutions*. New York: Free Press
- MORI (2003), *Exploring Trust in Public Institutions, Report for the Audit Commission* London: MORI.
- Newman, J. (2002), «The New Public Management, modernisation and institutional change: disruptions, disjunctures and dilemmas», in K. McLaughlin P. Osborne eta E. Ferlie (arg.), *New Public Management: Current Trends and Future Prospects*. London: Routledge.
- Nomura, H.; S. Cotterill eta P. John (2010), *The Use of Feedback to Enhance Environmental Outcomes: A Randomized Controlled Trial of a Food Waste Scheme*, Paper Presented at the Political Studies Association Conference, Edinburgh, 29 March-1 April 2010.
- O'Donoghue, T. eta M. Rabin (1999), «Doing It Now or Later», *American Economic Review*, 89, 1, 103-24.
- Ostrom, E. (1996), «Crossing the Great Divide: Co-production, Synergy and Development», *World Development*, 24, 6, 1073- 87.
- Ostrom, E. (1998), «A Behavioural Approach to the Rational Choice Theory of Collective Action», *The American Political Science Review*, 92, 1, 1-22.
- Parsons, C. (2010), «Constructivism and Interpretive Theory», in D. Marsh eta G. Stoker (arg.), *Theories and Methods in Political Science*. Palgrave Macmillan, pp.80-98.
- Prabhakar, R. (2010), «Nudge, nudge, say no more», *Public*, Tuesday 9 March 2010.
- PMSU (Prime Minister's Strategy Unit) (2006), *The UK Government's Approach to Public Sector Reform*. Prime Minister's Strategy Unit: London.
- Putnam, R. (2000), *Bowling Alone: The Collapse and Renewal of American Community*. New York: Simon and Schuster.
- Putnam, R. eta L. Feldstein (2003), *Better Together: Restoring American community*. New York: Simon and Schuster.
- Samuelson, W. eta R. Zeckhauser (1988), «Status Quo Bias in Decision Making», *Journal of Risk and Uncertainty*, 1, 1, 7-59.
- Schedler, K. eta I. Proeller (2002), «The New Public Management: a perspective from mainland Europe», in K. McLaughlin, P. Osborne, eta E. Ferlie (arg.), *New Public Management: Current Trends and Future Prospects*. London: Routledge, pp. 163-180.
- Schofield, P. (2006), *Utility and Democracy: The Political Thought of Jeremy Bentham* Oxford: Oxford University Press.
- Scott, J.C. (1998), *Seeing Like a State*. New Haven: Yale University Press.
- Simon, H. (1997), *Administrative Behavior*, 4th edn. New York: Free Press.
- Simon, H.; M. Egidi; R. Marris eta R. Viale (1992), *Economics, Bounded Rationality and the Cognitive Revolution*. Aldershot: Edward Elgar.
- Stoker, G. (2010), «The Microfoundations of Governance: why psychology rather than economics could be the key to better intergovernmental relations», *Journal of Public Administration (China)* vol. 3 no. 2.
- Stutzer, A.; L. Goette, eta M. Zehnder (2006), «Active Decisions and Pro-Social Behaviour: A Field Experiment in Blood Donation», Working paper No. 279, Institute for Empirical Research in Economics, Zurich: University of Zurich.
- Tajfel, H.; M. Billig; R. Bundyand eta C. Flament (1971), «Social categorization and intergroup behaviour», *European Journal of Social Psychology*, 1, 149-77.
- Tajfel, H. eta J. Turner (1986), «The social identity theory of inter-group behavior», in S. Worchel eta L.W. Austin (arg.), *Psychology of Intergroup Relations*. Chicago: Nelson-Hall.
- Thaler, R.H. eta S. Bernartzi (2004), «Save More Tomorrow: Using Behavioural Economics to increase Employee Saving», *Journal of Political Economy*, 112, 164-87.

- Thaler, R.H. eta C.R. Sunstein (2008), *Nudge: Improving Decisions About Health, Wealth, and Happiness*. New Haven: Yale University Press.
- Taylor, M. (2002), «Social Exclusion and the New Public Management», in K. McLaughlin, S.P. Osborne eta E. Ferlie (arg.), *New Public Management: Current Trends and Future Prospects*. London: Routledge, 109-128. orr.



QUIM BRUGUÉ

Universitat Autònoma de Barcelona

Parte hartzea eta gizarte sareak, gizarte kohesiorako

Askotan, gure gizartearen kohesioaren gabeziak aipatzen dira, garai *zaharreko* ongizatea galdu izan bagenu bezala. Zentzugabekeria litzateke, ordea, iragana idealizatzea, eta hezkuntzan, osasunean edo ahulenen harreran lortutako aurrerapenak aintzat ez hartzea (Fink, Lewis eta Clarke, 2001; Gallego, Gomà eta Subirats, 2003; Navarro, 2003). Ez da egia iragan denbora oro hobea izan zenik. Alabaina, gaurko hobekuntzak ez dira nahikoak egungo tentsioak eta erronkak bideratzeko. Iragana alde batera utzita, oraina bera nahiko kezagarria da; beraz, jar dezagun arreta, bere errealitateetan eta pobrezia nahiz gizarte bazterkeria sortzen duten dinamiketan. Etorkizuna ziurtasunik gabea eta aurre egin beharreko arriskuz beteta ageri zaigu.

Datozen orrialdeetan, gure gizartearen kohesioari buruzko hainbat gogoetaren berri emango dugu. Horretarako, lehendabizi, gaur egungo berezitasunak definitzen dituzten erronkak identifikatuko ditugu. Bigarrenez, gizarte kohesionatu baten helburura hurbiltzeko, eman beharko genituzkeen erantzun motei —politika publikoak— buruz eztabaidatuko dugu. Hirugarrenez, politika horien nolakotasunari erreferentzia eginez, erantzun kolektiboak eta parte hartzaileak ematearen beharra azpimarratuko dugu. Amaitzeko, atal bat eskainiko diogu gure hausnarketak argitzeari, Bartzelonako gizarte ekintzako sareen adibidea azalduta.

1. Gizarte berria, erronka berriak

Mendebaldeko herrialdeetan, alde nabarmenak egon arren —Espainiako kasuarena bezala—, gizarte ongizate eta hazkuntza ekonomikoko garai luzea igaro dugu. Oraindik idealizatuta dagoen gizarte ongizatearen estatua arrakastaren eredu gisa agertu zen. Horren baitan biltzen ziren keynesiar ekonomia-politika, administrazio tekniko burokratiko ahaltsu bat, eta, ororen atsedenekurako koltxoi gisa, sozialdemokraziaren adostasun zabala (Martínez, 1998; Ginsburg, 1992; Ochando, 1999).

Hazkundeko eta bake sozialeko aldi bikaina izan zen horren emaitza, bere horretan jarraitu arren *goikoen* eta *bebekoen* arteko desberdintasun ardatzak, eta baita burgesiaren eta proletarioen artekoak. Desberdintasun ardatz garbia, baina baketua: erabilgarriak batzuk nahiz besteak identifikatzeko, baina gatazkak sortzeko gaitasunik gabe. Aldi honetan, azken finean, desberdintasunak egon ziren, baina gatazkak sortzeko ahalmenik ez zuten, hazkuntzaren eta ongizatearen itxaropena tartean zegoelako.

Premisa horietako bakar bat ere ez zaigu geratu: gure gizartea eraldatu da; politika tradizionalak, ordea, ez dute balio dagoeneko gizartea kohesionatzeko eta bere tentsioak baretzeko. Errealitatea bestelakoa da, eta bestelako erantzunak proposatu beharko ditugu horri aurre egiteko (Offe, 1990; Adelantado, 2000). Jarraian, eraldaketa horiek aztertuko ditugu, eta, horretarako, bi alderditan jarriko dugu arreta, oso zehatzak ez gabe, ongi laburbiltzen baitituzte erantzun beharreko erronkak:

- Deskribapen gisa, klase ertain berrien agerpena eta gizarte bazterkeriaren larritasuna, eta,
- Analisi gisa, ongizate estatuaren ezaugarri ziren proiektu komunak eta loturen kolapsoa.

1.1. «Gora-behera» desegin, eta «barne-kanpo» agertu da

Lehen aipatu dugun moduan, gizarte desberdintasunaren ardatz tradizionala gora-behera dimentsioan kokatzen da, eta egokia da gizarte klaseak baliabide materialen eta identitate erreferenteen arabera bereizteko. Labur-labur esanda, behe klaseek baliabide material gutxiago dituzte, tradizio sozialistari bozkutzen diote, eta sindikatu afiliazio indize handiak dituzte; haatik, goi klaseek errenta hobea dute, alderdi kontserbadoreen aldekoak dira, eta enpresa erakundeekin identifikatzen. Desberdintasun horiek garrantzitsuak izan arren, ongizate estatuak arindu egiten zituen, ondasunak eta zerbitzuak eskainita, hainbat itxaropen orokortzea lortzen zuelako. Hau da, behekoek goikoek baino gutxiago izango zuten, baina lehen baino gehiago, eta, edozein kasutan, beren segurtasun materiala bermatzeko adina. (Moreno, 2000).

Egonkortasun eta segurtasun materialeko egoera orokor hori desagertu egiten da, ongizate estatua garrantzian izandako gizarte eraldaketekin batera. Hainbat dira gizarte egiturari eragiten dioten aldaketak; hemen, ordea, bitan jarriko dugu arreta: klase ertain berriak eta gizarte bazterkeriako modu berriak.

Lehenik eta behin, ongizate estatua definitu zuten birbanatze politiken finkatzeak klase banaketa tradizionalen disoluzioa eragin zuen, arian-arian. Herritar gehienek goi edo behe klasearekin identifikatzeari utzi zioten, eta beren identitatea klase ertain berri eta lauso batean hasi ziren definitzen. Klase identitatearen zeinu tradizionalak —alderdi jakin bati bozkatea edo sindikatuko kide izatea— indarra galdu ahala, identitate zeinu berriak agertu ziren, kontsumo lehentasun indibiduali edo taldeko portaera modu jakinei lotuagoak, proiektu kolektiboek baino. Inglehart-ek (1991) azaltzen duen moduan, *klase ertain berria* agertzen da, eta, oinarritzko behar materialak gaindituta, arreta guztia jartzen du eskaera eta itxaropen *postmaterialistetan*.

Gizarte kohesioaren eta ongizate politiken ikuspuntutik, *klase ertain berri postmaterialista* horien agerpenak, gutxienez, bi ondorio nabarmen ditu:

- Alde batetik, klase ertainek eskubidetzat hartzen dituzte ongizate estatuaren zerbitzu unibertsalak, eta, aldi berean, beren itxaropen postmaterialistei lotutako zerbitzu berriak eskatzen dituzte. Dagoeneko, ez dira konformatzen «*gauza bera denontzat*» aldari politiko klasikoarekin; haatik, eskaera zatikatuak eta aldakorak egiten dituzte, tratu pertsonalizatua eskatzen dute, eta baita kantitatea eta kalitatea ere zerbitzu publikoetan. Klase ertain berriak, hobe hezitakoak eta sofistikuagoak, ez dira konformatzen ongizate estatu klasikoak eskaintutako zerbitzuekin; estatuak beraiek eskatutako zerbitzuak ematea nahi dute. Estatuak, denontzako gutxienekoak bermatzeaz gainera, bakoitzaren gehiengoei erantzuteko gai izan behar du. Pentsatzekoa denez, eskakizun berri horiek ongizate estatu *zaharraren* zerbitzu egituretan presionatzen dute. Hala, prestatuta egon gabe, eginkizun pertsonalizatuak eta zatikatuak eskaini

behar ditu, eta derrigorrez eman behar izan ditu gero eta jarduera gehiago, gero eta baliabide gutxiagorekin.

- Bestalde, klase ertain berriak, sofistikatuagoak ez ezik, ahulagoak ere badira. Ulrich Beck-ek (1998) bazterkeria arriskuaren demokratizazioari buruz hitz egiten du, eta gogoratzen digu egonkortasun zaharrak desagertu direla eta, gaur-gaurkoz, denok klase ertaineko kideak garen arren, edonor eror daitekeela gizarte bazterkeriaren espiralean. Taldeka edo banaka lortutako guztia (lana, familia, oporrak, erosotasuna) egun batetik bestera gal dezakegu, *arriskuaren gizarte berrian*. Gizarte bat, non maila be-rean dauden sofistkazioa eta hauskortasuna; oparotasuna eta ahultasuna.

Bigarrenez, onartu behar dugu ongizate estatuaren bake soziala aurrekaririk gabeko lorpena izan zela, herritar guztientzako gutxieneko bizitza duina hedatu zen neurrian. Horregatik, hain zuzen, harridura eragin zuen *pobreziaren berraurkikuntza* deitu zenak, 70eko hamarkadaren amaieran. Mendebaldeko gizarte aberatsak zeruan zeudela zirudien, baina infernua agertu zitzaizen hiri nagusietako plaza eta kaleetan, non gero eta pertsona gehiago zebiltzan noraezean etxerik, familiarik eta inolako baliabiderik gabe. Gabezia materialek berriro astindu zuten, ustez, eskakizun postmaterialistetan kokatuta zegoen gizartea.

Diskurtso nagusiaren (potmaterialismoa eta kontsumismoa) eta egoera pertsonalen (bazterkeria eta pobrezia) arteko asimetria izango da, ziur asko, bazterkeriako lehen faktorea; hau da, gure gizartearen ezintasunaren arrazoi nagusia, ez soilik pertsona horien egoerari aurre egiteko, egoera bera onartzeko baizik. Pobre berriek ez dute lekurik gizartean, ez goian, ez behean; beraz, kanpoan geratzen dira, baztertuak. Horrela agertzen zaigu desberdintasun ardatz berri eta krudelago bat: kanpokoak eta barrukoak, kide direnak eta baztertuak daudenak, *in*-ak eta *out*-ak (Percy-Smith, 2000; Bauman, 2005).

Gizarte bazterkeria gertaera konplexua da, eta luze eztabaidatu izan da azken bi hamarkadetan, gutxienez. Halere, sinplifikatzeko arriskua gorabehera, terminoari hurbiltzeko hiru modu osagarri nabarmenduko ditugu: egoera gisa, arrisku gisa eta prozesu gisa.

- Bazterkeria, egoera gisa*. Bazterkeriak, egiatan, pertsona edo talde baten egoera definitzeko balio du. Ikuspegi horren arabera, bazterkeria hainbat faktorek (materialak, hezkuntzakoak, hirigintzakoak, osasunekoak, ...) eragindako premia larriko egoeratzat definitu ohi da. Bazterkeria egoeraren faktore askoko izaera horrek erantzun politikoak zailtzen ditu; izan ere, esku-hartze sozialaren jardura tradizionalari arrotz zaizkio baztertuen bi ezaugarri hauek: ikusezintasuna eta zeharkakotasuna. Faktoreen metaketa horrek muturreko bazterkeria egoeran uzten ditu baztertuak, eta ezin dira ikusi jardura gune *arruntetatik*: kanpoan geratu dira. Era berean, sektorekako gizarte politikak ez dira egoera horri erantzuteko gai; izan ere, horrelako politikak arazo *bati* aurre egiteko pentsatu dira, baina ez dute gaitasunik batera emandako arazo *multzo* bati aurre egiteko, eta horixe da, hain zuzen, bazterkeria egoeretan gertatzen dena.
- Bazterkeria, arrisku gisa*. Bazterkeria ez da soilik gabezia pertsonalak metatzea eta areagotzea; egoera horri aurre egiteko taldeko nahiz banakako baliabideak ahuldu direla ere adierazten digu. Bazterkeria ez da soilik egoera bat; bazterkerian erortzeko arriskua areagotzen duen *bakardadeko* testuinguru bati ere egiten dio erreferentzia. Baztertua ez da soilik pobreena, pobrezia bakardadean bizi duena baizik; ez du harremanik eta ez du norengan babestu. Gizarte sarerik gabe, gizarte kapitala erabat ahulduta, familia egitura gero eta ahulagoarekin eta komunitate balio trinkorik gabe, bazterkeriak, muturreko pobrezia egoera ez ezik, erabateko konexiorik eza ere adierazten du. Baztertua oso behean dago, alabaina, batik

bat, erabat kanpoan dago. Bazterkeria egoera bizi duten pertsona ugari daude gure gizarteetan, eta, aldi berean, indibidualizazio prozesu bat ari da hedatzen, gero eta ahulago egiten gaituena eta bazterkeria arriskua orokortzen duena —harreman sarerik gabe utziz eta gure gizarte loturak hautsiz—. Baztertuen talde bat dago, egia da; baina denok gaude bazterkeria arriskuan.

—*Bazterkeria, prozesu gisa.* Amaitzeko, porrot pertsonal baten emaitza baino gehiago, funtsezkoa da aipatzea bazterkeria gizarte eta politika prozesu orokorren ondorio gisa. Tradizionalki, pobrea lagundu behar den ahalmenik gabeko pertsona gisa agertu izan da; baztertua, ordea, *aurrerapenaren* emaitza saihestezina da (Bauman, 1999; Wacquant, 2006). Gure hazkuntza ereduak sortzen ditu baztertuak; hartara, gizarte bazterkeriaren arazoa seriotasunez hartuz gero, ez da nahikoa gizarte politikak berriro diseinatzea; haatik, garapen ereduak da batez ere, berriro planteatu behar duguna. Ez du inork argi esaten, baina, bistan denez, eredu honen onurak jasotzen dituztenen artean, oso gutxi dira hori birplanteatzeko prest daudenak. Dirudenez, nahiago dute gero eta handiagoa eta mingarriagoa den gizarte bazterkeriaren prezioa ordaindu —gainera, beraiek ez, beste batzuek ordaintzen dute, kanpoan daudenek, alegia—.

1.2. Loturarik eta proiektu komunik gabeko gizartea

Klase ertain berrien eta bazterkeria modu berrien agerpenak gizarte berri honen larritasuna ilustratzen du. Agerikotasuna eta nabarmentasuna alde batera utzita, ordea, bi prozesuek gizarte honen moral kontzepzioari eragiten dioten aldaketak adierazten dituzte. Gizarteak batzuen eta besteen arteko mendekotasunak hautsi ditu, eta, horrela, partekatutako erantzukizunen sistemak ematen zion nerbioa desegin zaio. Dagoeneko, ez dugu geure burua besteen erantzule gisa ikusten; hartara, Levinas-ek dioen moduan, gure bizitza komunaren oinarri moralak ari gara desegiten.

Ongizate estatua borondate etikoen garaipen gisa definitua izan da; izan ere, kapitalaren eta lanaren arteko loturaren bidez, erantzukizun partekatuko proiektu bat bideratzeko idealari eutsi ahal izan zitzaion. Lehen aipatu dugun moduan, gizarte zatikatua zen, baina, aldi berean, batzuk eta besteak elkarren mendean zeuden gizarte horretan; hortaz, oinarri bat zegoen elkarren aitortzarako, eta konfiantza garatzeko. Horrelako gizarte mota batek, zatikatuta egon arren, kohesio maila handia izan dezake. Desberdintasunak onartzen ditu, baina harremanen eta elkarrenganako mendetasunen gune bateratuan biltzen ditu kide guztiak.

Industria lantegiaren irudiak elkarrenganako mendetasun hori irudikatzen du. Gune bat zen, non elkarrekin bizi ziren enpresaburuak eta langileak. Kapitalaren eta lanaren arteko konpromisoa indartu egiten zen, elkarren arteko osagarritasunari esker. Bauman-en hitzetan (1999):

«... lantegi erraldoiaren harresiek bi bazkide biltzen zituzten, presondegi berean. Kapitala eta lana aberastasunean eta pobrezian elkartu zirela esan genezake; osasunean eta gaixotasunean zeuden elkartuta, heriotzak banatzen zituen arte. Lantegia, denon etxea, aldi berean zen lubaki gerretarako zelaia eta itxaropen nahiz ametsetarako etxea.»

Lotura horiek, gainera, etorkizunerako aukerak eskaintzen zituzten: borrokatzea merezi zuen etorkizun bat, denon helmuga bihurtuta. Loturak ez ziren noizean behin sortzen; haatik, batzuen eta besteen arteko —gizarte maila desberdinen arteko— harremanetan lantzen eta finkatzen ziren. Etorkizun partekatu horren

dimentsio etikoa alde batera utzita, epe luzerako izaera horrek taldeko eta banakako proiektuak planteatzea, eraikitzea eta garatzea ahalbidetzen zuen. Egonkortasunak erreferentzia esparru bat ematen du, eta, bertan, herritarrek beren bizitzak eraikitzeko behar dituzten segurtasunak topatzen dituzte, eta gizarte sarea eratzekeo harremanak bideratzen.

Mundu aldakor eta dinamiko batean, egonkortasuna baliorik gabe geratzen ari da. Batzuek immobilismo edo geldialdiarekin lotzen dute hori; beste batzuek, berriz, komunitate bat eraikitzekeo denbora eta egonkortasun nahikoa ez izatearen arriskuaz ohartarazten digute. Gehiegizko egonkortasunak urmaelaren ura ustel dezake, baina gaizki ulertutako mugikortasun batek noraezean eraman eta nahas gaitzake. Richard Sennett-ek (2000) maisuki adierazten du berriro ere:

«Ohiturak degradatu dezake, baina babesera ere ematen digu; ohiturak lana desegin dezake, baina bizitza ere osa dezake.»

Gaur-gaurkoz, ordea, ez du zentzu askorik epe luzeari eta lana uzteari erreferentziarik egiteak. Mendekotasunak hautsi dira; ez dugu zertan harremanak ondu, eta, azken finean, epe motza nagusitu zaigu, indarrez. Dena da bizkortasuna, malgutasuna eta aldaketa. Gizarte indibidualizatu batean bizi gara, non besteekin harremanetan jartzeko denborarik eta gogorik ez dugun. Gizartearen segmentazio tradizionala gainditu dugula uste dugu, baina horrekin batera gure arteko loturak hautsi ditugu, gizarte kohesioaren mekanismoak kolokan jarrita.

Lantegietako harresiak erorita eta erantzukizun indibidualeko diskurtsoaren babespean, gure gizarte erreferentziak —klaseak, nahi izanez gero— galdu, eta bakarrik geratu gara. Hala, gutxi batzuek arrakasta handia dute, baina gehien-gehienok porrot egiten dugu, bakardadean. Horixe da Levinasek aipatutako moralik gabeko gizartea. Besteena bost axola zaigu gizarte honetan, besteen ongizateari buruz galdetzea ere ez dugu onartzen. *Beren arazoa da, esna daitezela!* Horixe izan daiteke gizarte indibidualizatuaren lema berria.

Testuinguru horretan biderkatu egiten dira ziurgabetasunak, eta dimentsio bereziki handia hartzen dute, ezin baitzaie taldeka aurre egin eta ezin baitira taldean bizi. Gaur egun, iraganean ez bezala, ziurgabetasunak bakarka bizi dira. Besteekin elkartzek ez du balio dagoeneko erronkak arintzeko edo horiei aurre egiteko. Ziurgabetasuna indibidualizatzeko indar handi baten gisa ageri zaigu. Zailtasunek elkartu baino gehiago zaitu egiten gaituzte. Elkartasuna ez da arrazionala, zentzua galdu du, eta, horregatik, bakardadean jasaten ditugu zailtasunak. Ulrick Beck-ek (1998) esango lukeen moduan, erantzun biografikoak eman nahi dizkiegu sistemarenak diren arazoei. *Eta horrela gaude!* Oso ahulak gara gehien-gehienak, denonak diren arazoei bakarka aurre egin ahal izateko.

Hala, klase ertain berrien deskribapena eta gizarte bazterkeria txanpon beraren bi aldeak dira. Bere adierazpen agerikoenaren aurrean, gizarte eredu berri baten definizioa ageri zaigu. Egia esanda, *ez-gizartearen* eredu da, gizarte egitura atomizatu eta loturarik gabea, proiektu eta aukera kolektibo bakar bat ere ordezkatzeko ez duena. Gizarte baztertuak bakarrik daude, klase ertain berriak bezala, zeinek, itxuraz, beldurra kontsumo konpultsiboan eta suizidan ezkutatu nahi duten.

Margaret Thatcher Erresuma Batuko lehen ministro ohiak egoera berria laburbildu zuen, esaldi honetan: «Gizartea? Ez dago horrelakorik». Indibidualismo berriaren eta salbatzailearen aldeko konfiantza eta poza adierazpena izan zen. Bi hamarkada geroago, gutxienezko kohesioa duen komunitatean bizitzeko gaitasunik

ezaren adierazpena dirudi. Gizartea behar dugu elkarrekin bizitzeko, eta, horixe da, hain zuzen, gure erronka nagusietako bat, eta horri egin beharko diogu aurre, ez soilik norbanakoaren ahaleginaren bidez, politika publikoen bidez baizik. Lana egin beharko dugu, herritarrak eta komunitatea eraikitzeko, txanpon beraren bi aldeak baitira biak (Rodger, 2000).

2. Gizarte kohesiorako politikak

Aurreko atalean deskribatutako egoera etsigarria da, baina ez gaitu geldiarazi behar. Haatik, abiapuntu bat izan beharko luke, herritarrak eta komunitatea eraikitzeko politika publikoak bultzatzeari begira; izan ere, horiek dira gizarte kohesioaren funtsezko osagaiak.

Azken urteotan, Espainiako politika publikoak —gizarte kohesiokoak, tartean— aztertzeke eta ebaluatzeke azterketa ugari egin izan dira (Grau eta Mateos, 2002; Gomà eta Subirats, 2001; Gallego, Gomà eta Subirats, 2003). Ezin dugu dokumentu honetan osorik jaso eztabaida horren aberastasuna; beraz, gure ekarpenak giltzarri diren hainbat ideiatan zehaztuko ditugu. Horretarako, Mora eta Cabezón (1999) egileen trenaren metafora erabiliko dugu. Lan interesgarri horretan, egileek (udalerrietako gizarte zerbitzuetako profesionalak) erreferentziako komunitatea alderatzen dute lehen, bigarren eta hirugarren mailako bagoiak daramatzen tren batekin:

- Makina —trena norabide jakin batean daraman motorra— garapenaren eredia da. Gure gizartea herrestan daraman indarra da, eta berak zehazten du zer erritmotan goaz aurrera.
- Lehen mailako bagoiak pribilegiatuen elitea daramana; leiho opakua ditu. Aurrera doan tren geldiezin baten abantaila guztiez gozatzen dute bidaiariek.
- Klase ertain berriak bigarren mailako bagoian daude. Bertatik, erritmoari eusten eta bidaiatzen saiatzen dira, erosotasun handirik gabe. Bestalde, bagoi horretan gero eta jende gehiago doa; gainezka egin dezake. Hala, barruan dauden batzuk ozta-ozta doaz. Hizkuntza grafikoa erabiltze aldera, leihotatik aterako direla ematen du. Koskarik txikiena zapalduz gero eroriko dira. Azken finean, etengabeko bazterkeria arriskuan daude: gainezka doan bigarren mailako bagoi ahuletik erortzeko zorian.
- Eta eroriz gero, hirugarren mailako bagoira doaz; deserosoa edo toki gutxikoa izan baino gehiago, aurrera doan trenarekin konexioa galdu duen bagoia da. Hirugarren bagoia geldirik dago, bide itsu batean abandonatuta; trenaren zati bat izateari utzi dio dagoeneko.

Gure ikuspegitik, metafora ona da, bazterkeria erakusten baitigu egoera gisa (geratutako bagoia), arrisku gisa (gainezka doan bagoia) eta prozesu gisa (itxaroten ez duen makina). Balio digu, halaber, kasu bakoitzari egokitutako erantzunetan pentsatzeko. Jarraian, gizarte kohesiorako politika publikoaren edukiak aletuko ditugu, eta horretarako gure gizarte trena izango dugu gogoan:

- Erantzuteko politikak, bazterkeria egoeran dauden pertsonen edo taldeen egoerari aurre egiteko.
- Aurrea hartzeko politikak, gizarte bazterkeriako arriskuan daudenei laguntzeko.
- Politika estrategikoak, gizarte bazterkeriako dinamikak eragiten dituzten prozesuei aurre egiteko.

2.1. Erantzuteko politikak, egoera gisa agertutako bazterkeriarako

Behar egoeraren aurrean, hura arindu *besterik* egiten ez duten gizarte politikak agortutzat eman izan dira askotan. Modu gutxiesgarrian *laguntzazko* gisa sailkatutako politika horiek, multzo profesional klasikoaren barruan egon arren, ez dute gaitasunik gizarte kohesioaren egungo zailtasunei aurre egiteko. Laguntza eta zerbitzuak jartzen dituzte behar larriak dituztenen esku, horien biziraupena bermatze aldera; alabaina, nekez lagunduko dute egoera gainditzen, eta, ondorioz, bazterkeriaren eraginpean daudenak gizarteratzen.

Esku-hartze mota horiek osatzen dute laguntza politika klasikoen multzoa, baina horrek ez du esan nahi dagoeneko baliorik ez dutenik edo beren beharra desagertu denik. Politika *zaharkitu* horiek baztertzeko joera dago, eta hori behar bezala hausnartu gabeko erabakia izan daiteke, baldin eta politika horiek benetako behar bati erantzuten badiete, eta gure ustez hala da.

Bazterkeria pertsona jakinen egoera erreala bada, eta izan hala da, orduan, laguntza jarduerak bultzatu beharko dira, pertsona horien gabeziak edo beharrak asetzeko. Badira pertsona batzuk etxerik edo diru-sarrerarik ez dituztenak, urritasunak dituztenak edo inolako prestakuntzarik ez dutenak. Horiek denek bizitza duin baterako gutxieneoak eskuratzen lagunduko dieten politikak eskatzen dituzte. Laguntza politika horiek ezinbestekoak dira edozein gizarterentzat, baldin eta behar handia dutenenei lagundu nahi badie.

Horiek martxan jartzen ditugunean, zalantza sortzen zaigu beren hedapenari eta intentsitateari dagokienez: nork eskuratu ditzake, eta zenbat baliabide jar ditzakegu pertsonako. Galdera horiei erantzutean, laguntza politika klasikoak pobreei egotzi izan die beren egoeraren errua; horrela, haiekin elkartasunez jokatu arren, beren pobrezia frogak eskatu, eta gutxieneo zerbitzuak eskaini izan zaizkie. Garrantzitsua zen lana egiteko gogo gutxi, eta aprobeztatzeko asmoa zuen inor ez *pasatzea*.

«Gogoeta horiek, eta antzeko beste batzuk, garrantzitsuak izango ziren 1820 eta 1830eko hamarkadetan “Pobreen legea”ren erreformistentzat; izan ere, eztabaida luze eta sutsuaren ondoren, lortu zuten ia aho betezko erabakia hartzea: gizartearen sektore behartsuei eman beharreko laguntza txiro etxeetako barrualdera mugatu behar zen. (...) Lehenik eta behin, benetako txiroak eta horren itxura egitearen susmopean zeudenak bereizi behar ziren, azken horiek lan egonkor baten eragozpenak saihestu nahi omen zituztelako. Benetako behartsu batek bakarrik bizi zitekeen harrera etxe batean, bertako baldintzak behar bezain lasgarriak izatea lortzen bazen (...)» (Bauman, 1999: 27-28).

Horrelako planteamenduak ematen dira oraindik laguntza politika askotan, eta, egia esanda, gaia berriro planteatu beharko genuke. Bazterkeria egoeran dauden pertsonak edo taldeak ez dira egoera horren errudunak, kaltetuak baizik. Bestalde, horrelako hurbilketa batek ez du inolako zentzurik egungo gizartean, non lana ondare urria den. Horren ondorioz, bazterkeria egoerei aurre egiteko erantzuteko politikak, desagertu baino gehiago, berriro definitu behar dira. Kontzeptualki, herritarren eskubidetzat hartu behar dira, eta, maila operatiboan, berriz, bizitza duinerako gutxieneo mailak bermatu behar dituzte.

Egia da, halere, oreka bilatu beharra dagoela politika horietan jarritako baliabideen eta beren helburu errealen artean. Ez dugu pentsatu behar bazterkeria egoerak baliabide gehiago jarrita irauli ahal izango ditugunik beti; beraz, erabaki beharko dugu beti urriak diren baliabide horiek nola banatzen ditugun, erantzuteko politiken eta jarraian aipatuko ditugun aurrea hartzeko politiken artean.

2.2. Aurrea hartzeko politikak, arrisku gisa emandako bazterkeriarako

Bazterkeria arriskuaren garrantzia azpimarratu dugu dagoeneko. Demokratizatu den eta gaur-gaurkoz herritar gehienei eragiten dien arriskua da. Duela hamarkada gutxi arte, pertsona baten baldintza sozioekonomikoak oso egonkorrak ziren. Oso zaila zen *estatus* jakin bateko pertsona batek egoera hori galtzea. Familia jakin bateko kide izatea edo ondare bat izatea etorkizunerako berme sendoa zen. Arriskua, beraz, oso txikia zen; jarraitutasun aukerak, berriz, ugariak.

Gaur egun, ordea, jarraitutasuna txikia da eta arriskua, berriz, handia. Edonork, bere jatorria edozein dela ere, gal dezake bere maila, eta bazterkeria prozesu batean erori. Iraganak ez digu balio oraina bizitzeko, eta ez digu etorkizunerako babesik eskaintzen. Inor ez dago guztiz babestua, eta denok bizi gara ziurgabetasunaren beldur. Gainezka doan bigarren mailako bagoi horretan erorketaren arriskuak, hots, bazterkeriarenak denoi eragiten digu.

Egoera horren aurrean, ezer gutxi balio dute lehen aipatutako erantzute eta laguntza politikek. Ez du balio, halaber, ez aritzeak, hots, erorketaren zain egoteak, tratamendu aringarria jaso ahal izateko. Bazterkeria arriskua hain dago orokortuta eta horren eraginak hain dira suntsitzaileak, ezen lana egin beharko dugula nahitaz arrisku hori murriztu nahi badugu. Behar ditugun politika publikoek, bazterkeria prozesuari aurre hartuta, baliabideak eskaini behar dizkiete herritarrei, etorkizuneko arriskuen aurrean babesteko.

Herritar guztiok, edo gehien-gehienok, politika horien beharra dugu, ziurgabetasun horiei aurre egiteko. Ez gara behar materialei erantzuteko ondasunei eta zerbitzuei buruz hitz egiten ari, etorkizunari aurre egiteko berezko baliabideak eta jarrerak sustatuko dituzten politikei buruz baizik. Ikuspegi horren arabera, aurrea hartzeko politikek, gutxienez, bi helburu izan beharko dituzte: giza kapitala sustatzea (herritartasuna eraikitzea) eta gizarte kapitala sustatzea (komunitatea eraikitzea). Herritarrak dira, komunitatean, gaurko arriskuak bere gain hartzeko beharrezkoa den indarra dutenak.

— *Giza kapitala sustatzea*. Iradokitzen ari garen aurrea hartzeko politika baten lehen helburua zeharo argia da: herritarrei prestakuntza hobea ematea, arriskuak arrakastaz gainditzeko aukera emango dien giza kapitala eskura dezaten. Politika horiek —askotariko hezkuntza programetan, ekintzaileentzako ikastaroetan, gaitasun bankuetan edo informatikako baliabideak eskaintzean gauzatzen direnak— funtsezkoak dira gaur egun, baina, aldi berean, gure gizartearen ezaugarri diren indibidualizazio prozesuak areagotu ditzakete. Baliabide nahikoak izango dituzten herritarrak sortu behar ditugu, baina kontu handiz jokatu behar dugu, ekimen horien eraginez jarrera indibidualistak areagotu ez daitezen. Giza kapitala ezinbesteko faktorea izango da etorkizunean; adi egon behar dugu, ordea, arduragabekeria kolektiboa areagotzeko pauso bat gehiago izan ez dadin. Beraz, giza kapitalaren osagarri gisa bultzatu behar dugu gizarte kapitala. Herritarrak behar ditugu; baita komunitatea ere.

— *Gizarte kapitala sustatzea*. Bazterkeria arriskuan gaude, baliabide pertsonal nahikorik ez dugulako eta bakarrik gaudelako. Etorkizuneko ziurgabetasunak eta arriskuak hain handiak direnez, onartu behar dugu oso zaila dela horiei bakarka aurre egitea, prestakuntza bikaina izan eta hainbat hizkuntza hitz egin arren. Beharrezkoa da, beraz, *indarra batasunean datza* aforismo zaharra abian jartzeko aukera emango dizkiguten gizarte gaitasunak eraikitzea. Politika publikoek, arlo honetan eskarmenturik ez izan arren, azken urteotan kezka agertu dute gizarte zibileko erakundeak indartzeko, parte hartze prozesuak bultzatzeko, harremanetarako guneak sortzeko edo bizilagunen zein belaunaldien arteko loturak eraikitzeko programak sustatzeko. Bi adibide ematearren, bizilagunarekiko harremanak edo talde jakin

bateko kide izateak indartsuago egiten gaitu. Ez da nahikoa norbera bizkortzea, besteekin lankidetzan aritzea ere beharrezkoa da. Soilik horrela izango gara herritarrak, eta eraikiko dugu komunitatea, hori baita, azken finean, gizarte kohesionatu bat eraikitzeke bidea.

Aurrea hartzeko politikak erronka bat dira botere publikoentzat, eremu ezezagunetan barneratzera behar-tzen dituztelako. Politika horiek, ordea, guztiz beharrezkoak dira bazterkeriari arrisku gisa aurre egiteko, eta, modu horretan, kontrolpean edukitzeko gure gizarteei eragiten dieten kohesio prozesuak. Hainbat lanek eta esperientziak eremu horretan aurrera egiteko aukera ematen diguten arren (Gorz, 1998; Gough, 2000), asko dugu oraindik ikasteko eta egiteko.

2.3. Politika estrategikoak, prozesu gisa emandako bazterkeriarako

Orain arte aipatu ditugun politikek, alde batetik, laguntza ematen diete egun beharrak dituztenei, eta, bestetik, banakako eta taldeko baliabideak eskaintzen dizkiete arriskupean daudenei. Halere, gogoratu behar dugu oraingo beharrak eta etorkizuneko arriskuak ez direla bat-batean agertzen, garapen eredu jakinen ondorioz baizik. Bazterkeria arriskuak eta egoerak sozialki sortzen dira, eta hazkuntza eta garapen dinamika jakinen ondorioz har daitezke. Jendea trenetik erortzen da, eta bide hutsean geratzen; trenaren motorrak, ordea, aurrera egiten du, batzuk erritmoari jarraitzeko gai ez direla kontuan hartu gabe.

Gizarte politikak ez dira eztabaida horretan sartzeko gai izan, eta garapen eredu jakinen eragin negatiboak jasotzera mugatu dira, horiengan eragiteko gaitasunik izan gabe. Erortzen direnei babesa ematen zaie, eta, berriki, erortzear daudenei babesteko eginahalak egiten hasi dira. Dena den, ezinezkoa da tren gidariarekin hitz egitea abiadura moteldu, eta bere erritmoari jarraitzeko gai ez diren pertsonen itxaron diezaien. Gizarte politiken egiturazko kokalekua bera da marjinala, horien arduradun politikoen profilak izan ohi diren bezalaxe. Bestela esanda, gizarte politikak ez dira bazterkeria dinamiketan sartzeko gai, eta horien eraginak arintzen saiatzen dira.

Eragin horiek kudeatu daitezkeen bitartean, ez dirudi gauzak gehiegi aldatuko direnik. Haatik, gizarte kohesio arazoaren hedapena eta intentsitatea handitu ahala, gero eta zailagoa izango da egoerari eustea. Gizarte zerbitzuak gainezka egiten hasiko dira, eta gizartearen eskakizunak eta presioak areagotuko dira. Gero eta abiadura handiagoan doan tren bat aurrerapenaren irudi ona izan daiteke. Alabaina, bidea abiadura horri eutsi ezin izan dioten *giza hondakinez* beteta uzten duen aurrerapena iragarritako porrotaren metafora ere bada (Barman, 2005).

Hortaz, batzuek uste dugu kohesio politikek ez dutela periferikoak izan behar, zentralak baizik. Garapenaren eragin maltzurak jasan beharrean, garapen horren erritmoa eta dinamikak zehaztu behar dituzte. Gizarte politiken lan eremuak ez du soilik azken bagoia izan behar, trenaren buruan sartzeko aukera ere izan behar dute. Gizarte politikak ez dira soilik erabili behar nagusitzat (ekonomikoak edo urbanistikoak) jotzen ditugun politiken ondorioak *ex post* arintzeko, beren edukiak *ex ante* definitzeko baizik.

Erdigune berri horrek kohesio politiken dimentsio estrategikoa eratuko luke. Zoritxarrez, ordea, dimentsio hori ez da agertzen ez gure gobernu arduradunen planteamenduetan, ezta, eta hauxe da kezkarriena, herritarren gehiengoarengan ere; izan ere, garrantzi handiagoa ematen diote abiadura handian doan trenak eskaintako pribilegioez gozatzeari, horren eraginak ikusteko atzeko leihotik begiratzeari baino. Eskatzen ari garen aldaketa estrategikoaren ardura politikariei dagokie, baina nekez egingo dute, herritarrok garapen eredu berri planteatzeko prest ez gauden bitartean (Margalit, 1997).

Aurrea hartzeko politikei buruz ari ginela, asko ikasteko eta egiteko genuela aipatu dugu lehen. Orain, kohesio politiken dimentsio estrategikoari buruz hitz egiten ari garela, asko dugu oraindik ikasteko eta egiteko, baina lan eskerga egin beharko dugu ere kontzientzia hartze kolektiborako. Eska diezaiekegu arduradun publikoei behar dutenei harrera hobea egiteko, baina ezin diegu eskatu gizarte bazterkeria arazoei aurre egiteko, makina gelan sartzeko aukerarik ematen ez badiegu edo indartsu baina baztertzailerak den garapen sistemaren hainbat onurari uko egiteko prest ez bagaude. Administrazio publikoetan ongi edo gaizki landuko dugu bazterkeria, baina gizarte kohesionatu bat soilik eraikiko dugu, gizarte gisa horren aldeko erabakia hartuz gero.

3. Parte hartzea, gizarte kohesionatu bat eraikitzeke

Aurreko atalean, gizarte kohesiorako politiken edukiei buruz hitz egin dugu. Edukiak berriak direnez, horiek ezartzeko moduak ere berritu beharko dira.

Azken urteotan, deszentralizazioa, gestio hurbila, zeharkakotasuna, lankidetzaren moduen erabilera edo sareen kudeaketaren aldeko ekimen ugari egin dira, administrazioak modernizatzeko. Berrikuntza horiek guztiak frogatzeko, gune ezin hobea izan da gizarte politiken arloa. Beste arlo batzuek jarrera itxia izan duten bitartean, gizarte politikek interes handia erakutsi dute, eta beren jardueretan berrikuntzak txertatzeko prest egon dira.

Ziur asko, beharrari lotuta egongo da jarrera berritzaile hori. Hau da, edukiak aldatzeko presio gehiago jasotzen ari diren arloetan, agerikoagoa da lana egiteko modu berrien beharra. Hori da, hain zuzen, kohesiorako politiken kasuan gertatzen dena; politika horien edukiak gero eta konplexuagoak dira, eta, horren ondorioz, horrelakoak diren aplikazio moduak behar ditugu.

Aipatu dugun moduan, azken urteotan, administrazioa modernizatzeko ekimenak bete-betean sartu dira gure jardueraren praktikoetan eta gure eztabaida akademikoetan, etiketa berritzaile mota askorekin (Osborne eta Gaebler, 1994; Kettl, 2002; Lane, 2006). Dena den, ezinbestekoa deritzogun ideia batean jarri nahi dugu arreta: hertsiki teknokratikoak diren jarduteko moduak gaintzearen beharra eta harreman moldeak areagotzeko borondatea. Hots, administrazio tradizionalak hierarkia eta segmentazio printzipioen arabera egin izan du lana, eta uste izan du politika publikoak arazorik gabe banatu daitezkeela, arlo bakoitzaren profesional adituen artean esleitzeke. Ikuspegi horrek nolabaiteko sinpletasuna dakar: egin beharrekoa argitasunez definitzeko aukera, eta hori egiteko aditu bat izatearen segurtasuna.

Argitasun eta arrazionaltasun tradizionalaren aurrean, ordea, gaur egungo arazoak konplexuak, integralak eta banaezinak dira. Horren ondorioz, ez da erraza horiek banatzea, ezta konponbidea monopolizatuko duten erreferentziazko profesionalen esleitzea ere. Hala, jokamolde hierarkiko eta zatikatuen aurrean, berrikuntzek elkarrizketaren, harremanen eta arazoak denon artean konpontzeko gaitasunaren alde egiten dute. Hori dela-eta, elkartzeko, lankidetzaren sustatzeko, herritarrak eta beren erakundeak barneratzeko (parte hartzea) erakundeen arteko harremanak errazteke (zeharkakotasuna) edo landu beharreko gaien gaineko ikuspegi bateratua ziurtatzeko (osotasuna) babilio duten lan moldeak dira garrantzitsuak (Brugué, 1996; Agranoff eta McGuire, 2003; Hajer eta Wagenaar, 2003; Kooiman, 2003).

Kohesio politikek forma konplexuak eskatzen dituzte, konplexua den errealitateari aurre egin behar diotelako. Gure gizarte gero eta anitzagoa, pluralagoa eta aldakorragoa da; horren ondorioz, nekez egingo dugu

lana, hori aintzat hartu gabe. Ongizate zerbitzu tradizionalak gizartea argazki finko baten modura hautematen dute; gaur egun, ordea, molde malguagoak eta moldakorragoak behar ditugu, hau da, eragin nahi den errealitatearen aniztasunean arreta handiagoa jarriko dutenak. Konplexutasun hori hauteman eta horren araberak jardun nahi badugu, jarrera hurbila eta irekia izan, eta elkarrizketarako prest egon beharko dugu.

Gure gizartearen aniztasunari eta konplexutasunari arreta handiagoa eskaintzen dion sentikortasun berri horren bandera askotan izan da herritarren eta beren erakundearen parte-hartzea. Orain xehetasun gehiago eman ezin ditugun arren, egiteko modu berri honen helburuak nabarmendu nahi ditugu, eta beren ahalmenak adierazi. Horretarako, erabat laburbilduta, hiru arrazoi planteatzen ditugu:

- Elkarrizketak eta parte hartzeak politiken edukiak hobetzen dituzte.
- Elkarrizketak eta parte hartzeak politiken eraginkortasuna hobetzen dute.
- Elkarrizketak eta parte hartzeak herritartasuna eta komunitatea eraikitzen dituzte.

3.1. Elkarrizketak eta parte hartzeak politiken edukiak hobetzen dituzte

Herritarrei lekua egitea eta beren ahots ugariak entzutea kohesiorako politiken edukia eta sormena aberas-teko modu bat da. Gaur egun hartu behar ditugun erabakien konplexutasuna dela-eta, ekarpen hori ezinbes-tekoa da.

Beste termino batzuk erabilita, gaur egungo alderdi askoko erronkei aurre egiteko —esate baterako, etor-kinen gaiak laguntza politikei, hezkuntzari, lan arloari, harrerari, kulturari edo hizkuntzari eragiten die—, al-derdi askoko erantzunak behar ditugu, eta erantzun horiek ez dira bilatu behar leku bakar batean (profesio-nal jakinen mahaietan), hainbat ikuspegiren arteko elkarrizketa hasteko gaitasunean baizik; hots, dimentsio bakarrera mugatu ezin den gai baten alderdi askoren arteko oreka bilatzeko gaitasunean.

Argudio hori bereziki garrantzitsua da aurrea hartzeko politiketarako. Kasu horretan berehala hautema-ten dira aditu eta/edo profesionalen ezagutzaren mugak, eta baita bazterkeria arriskupean daudenen ekar-penen garrantzia ere. Administrazioak lagun dezake, baina *beren* baliabide pertsonalei eta harremanei buruz ari gara.

3.2. Elkarrizketak eta parte hartzeak politiken eraginkortasuna hobetzen dute

Pertzepzio batzuk gorabehera, lana egiteari dagokionez, ziur gaude parte hartzea erabilgarria dela, gobe-rnuaren eta administrazioaren eraginkortasuna hobetzeko. Gizarte eragileen parte hartzeak kostu osagarriak ekar ditzake prozesuaren hasieran; horiek, ordea, berreskuratu egiten dira erresistentziak gutxitzeko eta lanki-detzak lortzeko lana egin ahala.

Pentsa dezagun, bestela, zer zaila izan daitekeen bulego baten bakardadetik presondegiak, zaborte-giak edo drogen mendekoentzako zentroak eraikitzea. Ez gara iradokitzen ari horrelako ezaugarriak dituen zentro bat eraikitzeko ardura delegatu behar denik, baizik eta horien ezarpena eraginkorragoa izango dela eragileen in-plikazioa lortzen bada, elkarrizketa eta parte-hartzearen bidez. Parte hartzeak lankidetza sortzen du, eta lan-kidetza da gaur egun administrazioaren eraginkortasuna bultzatzeko faktore nagusietako bat.

Parte hartzea eta elkarrizketa funtsezkoak dira, kohesiorako politika estrategikoen eraginkortasuna bultzatze aldera. Administrazioen arteko harremanen bidez eta administrazioaren eta gizartearen arteko zubien bidez sor daitekeen konfiantza eta konplizitatea izan ezean, nekez emango dira pauso esanguratsuak, kohesio politiketarako zentralitate berria proposatzeko eta martxan jartzeko.

3.3. Elkarrizketak eta parte hartzeak herritartasuna eta komunitatea eraikitzen dituzte

Aipatu dugu dagoeneko indibidualizazio prozesuak presioa egiten duela eta zailtasunak jartzen dituela gizarte kohesionatu bat eraikitzeko. Gizabanakook bakarka, herritartasunik eta komunitaterik gabe, nekez lortuko dugu gizarteratzeko helburua. Herritarrak eta komunitatea eraikitzeko, parte hartzea tresna egokia izan daiteke.

Mundua, berriro aipatuko dugu, konplexuago eta zorrotzago bihurtu zaigu, eta, halere —horra hor paradoxa— horri aurre egiteko indarrak batu beharrean, bete ezin ditugun erantzukizun indibidualak hartzen ditugu gure gain. Indarrak, izan, baditugu, baina eskas geratzen dira gehienetan, eta agerian uzten dute hainbat talderen ezintasuna, hala nola adinekoak, beren ardurapean pertsonak dituzten emakumeak, gazte *mileuristak* edo etorkinak. Etxebizitza eskuratzeko arazoa, adibidez, garapen ereduari lotuta dago; beraz, Estatuko gaiak izan beharko luke. Haatik, indibidualizatu egin dugu: agenda publikotik desagertu, eta gai pribatu bilakatu da (mailegu eta hipotekena).

Herritarrak eta komunitatea sortzen duen neurrian, parte hartzea lagungarria izan daiteke egoera hori iraultzeko. Parte hartzeak komunitateko kide egiten gaitu; izan ere, gai publikoetan barneratzen gaitu, eta beste baliabide, ikuspegi edo interes batzuk dituztenekin elkarrizketak izateko aukera ematen digu. Horrela eraikitzen da komunitatea, harremanetarako guneak sortuz eta elkarren arteko onarpenez. Komunitatea ez da berdintasun armoniatsua, aniztasuna eta gatazka eraikitzailea baizik. Parte hartzeak komunitatea sortzen du berdindu baino gehiago elkartzen gaituelako. Soilik horrela eraikiko ditugu gizarte inklusiboak.

Era berean, behin elkartuta, parte hartzeak arazo kolektiboak erantzun kolektiboak emateko aukera ematen digu. Komunitatea eta ekintza kolektiborako guneak eraikita, gure baliabide indibidualak eta komunitarioak indartzen ditugu, eta, modu horretan, aukera gehiago izango ditugu bazterkeria arazoak arrakastaz gainditzeko. Etxebizitza lortzeko zailtasunei *nire* arazo balitz bezala erantzuten badiegu, askok aitona-amonekin bizi beharko dugu luzaroan edo gure seme-alaben etorkizuna hipotekatuko dugu. Ez dugu arazoa konponduko. Aukeraren bat izango dugu soilik, baldin eta arazoa sakonki aztertzen, denon arazoa dela onartzen eta gure indarrak batzen baditugu. Parte hartzean horretaz jabetzen gara, eta, horrela, talde gisa indartzen gara. Horixe da lehen pausoa eta baita garrantzitsuena ere, gero eta kohesionatuagoa egongo den gizarte eraiki nahi badugu.

4. Gizarte ekintzako sareak: Bartzelonako kasua

Bartzelonak, lehen atalean adierazitako joerei jarraiki, bere gizarte eta ekonomia egituraren eraldaketa sakona egin du. Aurrerapen nabarmenak egin arren, politika publikoen beharra duten gizarte bazterkeria eta arrisku egoerak ematen dira, oraindik. Atal honetan erreferentzia gisa hartuko ditugun Godàs eta Gomà (2008) egileek horietako egoera batzuk nabarmendu dituzte, honela laburbilduta:

- Bartzelonan arazo ekonomiko nabarmenak dituzten gizonak eta emakumeak daude: pobrezia erlatiboaren tasa % 12 da (batezbesteko errentaren % 50, 375 € inguru hilabetea), biztanleen % 18 bizi dira egoera ekonomiko ahulean, edo, hirugarren datu bat ematearren, 3.153 pertsona kalean zeuden eta udal taldeen laguntza jaso behar izan zuten 2006an.
- Bartzelonan 65 urtetik gorako 332.800 pertsona bizi dira (biztanleen % 21,1), eta, horien artean, 123.626 pertsonak (emakumeak, batik bat) gutxieneko soldata baino gutxiagoko diru sarrerak dituzte. Bestalde, adineko horien artean, 83.104 bizi dira bakarrik (63.533 emakumeak dira). Mendekotasunari dagokionez, 164.000 inguru 75 urtetik gorakoak dira, eta 90.000 inguruk 80 urte baino gehiago dituzte.
- Bartzelonan ahalmen urriko 93.000 pertsona inguru bizi dira; horien artean, 19.600ek minusbaliotasun handia egiaztatua dute.
- Azken hamarkadan, immigrazioak nabarmen aldatu du hiriaren fisionomia. 1999. urtean, 40.903 etorkin bizi ziren Bartzelonan (% 2,7), 2002. urtean 133.809 bizi ziren (% 7,6), eta 2006. urtean 260.058ra iritsi ziren (% 15,9). Horien egitekoa erabakigarria da, gizarte, ekonomia eta kulturaren ikuspegitik.

Testuinguru berri horretan, Gizarte Inklusiorako Udal Plana (PMIS) sortu zen. Parte hartzea da horren ardatzetako bat. Datozen orrialdeetan, lehendabizi, PMISaren ikuspegi azkar eta panoramiko bat emango dugu, eta, gero, parte hartzearen alderdian jarriko dugu arreta nagusia; zehazki, kohesiorako gizarte sareen ezarpenean.

4.1. Gizarte Inklusiorako Udal Plana (2005-2010)

PMISa Ricard Gomá alkateordearen bultzadaz onartu zen, 2005eko martxoaren 4an. Godás eta Gomáren hitzetan, planak konpromisoa hartzen du «hiri baten alde egiteko, non pertsonak bere bizi proiektuak erabateko askatasun eta berdintasun baldintzetan eraiki ahal izango dituzten. Horrek inplikatzeko du harreman esparruak sortzea, non autonomia, elkartasuna, anaitasuna eta desberdintasunen onarpenaren balioak eta baldintzak emango diren» (2008: 289).

Bartzelonako gizarte bazterkeriaren azterketa zehatzetik abiatuta, PMISak hiri inklusiboa sortzea proposatzen du, honako 6 ildo estrategiko hauen arabera:

- Gizarte zerbitzuei eta mendekotasunaren arretari buruzko gizarte eztabaida bultzatzea.
- Lehen mailako gizarte arretari lehentasuna ematea, eta dagozkion baliabideak eta azpiegiturak jartzea.
- Arreta espezializatua kolektibo ahulen inklusiorako bitarteko gisa ulertzea.
- Inklusio zeharkako programak garatzea, hainbat arlotan, hala nola etxebizitzan, lan arloko sarbidean, osasunean edo hezkuntzan.
- Parte hartzea eta komunitate ekintza sustatzea, inklusio politiken harreman dimentsio gisa.
- Ezagutzaren, esperientzia trukearen eta berrikuntzaren alde egitea.

Ezin ditugu orain lan ildo horiek guztiak xehetasunez garatu. Beraz, gizartearen parte hartzea eta komunitate ekintza sustatzea proposatzen duen ildoan jarriko dugu arreta.

4.2. Gizartearen parte hartzea PMISean

Bartzelonako PMISaren diseinuak eta ezarpenak bere-berea izan dute gizartearen parte hartzea, eta baita hainbat erakunde eta udal arlorena ere. Komunitate dinamikak sustatzen, gizarte sareak indartzen eta eragile berriak inplikatzeko dituen parte hartzea kontsulta bat egitea baino gehiago da. Hala, gizarte sarea erantzukizunaren kideztat hartzen da, hiriak, ez soilik udalak, inklusioaren alde hartutako erabakietan eta egindako jardueretan:

«Inklusio plana udalak eskain dezakeen horretara mugatzea argi dago ez dela nahikoa, hirian dauden gizarte baliabide guztiak kontuan hartzen baditugu. Beraz, Bartzelonarako inklusio politiken hedapena hiriak osorik ematen digun ikuspegitik abiatuko da, gizarte ongizatearen arloan diharduten hainbat eragile kontuan hartuta» (Godàs eta Gomà, 2008: 292).

Hainbat dira herritarren parte hartzea ulertzeko modu hori indartzera bideratutako jarduerak. Orain, ordea, hiru aipatuko ditugu: Gizarte Ongizatearen Udal Kontseilua, Komunitate Ekintza eta Bartzelona Inklusiboaren aldeko Herritarren Ituna.

4.2.1. *Gizarte Ongizatearen Udal Kontseilua (CMBS)*

CMBS herritarren parte hartzerako aholku organo bat da, 1998. urtean sortu zena. Gizarte ongizateko zinegotzia buru den osoko kontseiluan, hiriko hainbat erakunde eta elkarte ordezkatzeko dituzten 71 pertsonak parte hartzen dute. Kontseilua, osorik, 535 herritarrek, 140 erakundek eta 34 adituk osatzen dute.

Informazioa, esperientziak eta ezagutzak trukatzeko dira CMBSen. Hala, beren helburuak hauek dira: txostenak egitea, jarduerak hitzartzea, erakundeen arteko koordinazioa hobetzea, eta hiriko bizi kalitatearen gaineko informazioa jasotzea eta horri buruz eztabaidatzea.

Duela zenbait urtetik hona, Kontseiluaren atal formalak osatze aldera, lan taldeak daude —ekintzako gizarte sarearen formatua dutenak—, bi baldintzapetan biltzen direnak: bata, eragile guztiak inplikaturik egotea aztergai, eta, bestea, laneko bilera guztiak ekintza proposamen jakin batekin amaitzea. Horrela, gizarte sareen multzo bat eratu da, porositate handikoa eta hiri inklusiboaren eraikuntzan zuzenean ekiteko gaitasuna duena. Lortu da, halaber, horrelako kontseilu askok duten izaera liturgikoa gainditzea, eta bere jarduerak eduki praktikoez hornitzea.

4.2.2. *Komunitate ekintza*

Gizarte ehunaren aliantzen garrantzia kontuan hartuta, Bartzelonako udalak komunitateko plangintza eta kudeaketa prozesuak areagotzearen eta indartzearen alde egin du. Horretarako, hiru norabidetan doazen jarduerak garatu dira:

- Komunitate proiektuak lehen mailako arretarako gizarte zerbitzuen esparruan*, pertsona eta kolektibo ahulenen gizarte kohesioa indartzeari begira. 2007. urtean, 38 proiektu zeuden martxan, eta 253 profesional eta 460 erakunde inplikatur, 4.700 inguru pertsonari arreta eskaintzeko.
- Hiriko komunitate programak*: denbora bankuen, elkartasun trukeko beste sare batzuen eta boluntariozaren arteko lotura egiten dute. 2007an horrelako 39 ekintza zeuden.
- Komunitatea garatzeko planak*: auzo bateko gizarte ehunak berak bultzatutako ekintza integratuak dira, gertuko zerbitzu publikoekin batera egindakoak. Plan horien helburua proiektuen bidez emaitzak lortzea da. Proiektuetan hiriko bizitzaren hainbat alderdi jasotzen dira, hala nola: gizarte, hezkuntza, ingurumena, lana, etab. 2007. urtean, Bartzelonak komunitatea garatzeko 16 plan zituen.

4.2.3. Bartzelona Inklusiboaren aldeko Herritarren Ituna (ACBI)

Itunaren aurrekaria Gizarte Ekintzarako Bartzelonako Elkarte (ABAS) da, 1999an eratutakoa hiriko gizarte erakunde eta instituzio guztiak gizarte ekintzako proiektuetan inplikatzeko xedearekin. ABAS elkarte 69 erakundek eta instituzio osatzen dute, eta kohesio politikak gidatzeko modu berriak ezarri nahi ditu, hausnarketa, konpromiso, parte hartzea eta baterako lanaren bitartez.

ACBI beste pauso bat izan zen, Bartzelonako inklusiorako politiken kudeaketa hitzartuan. Honela kontatzen dute protagonistek:

«Gizarte Ekintzarako Bartzelonako Elkartearen batzorde espezifiko bat parte hartzeko eta jarduteko eszenatoki berri hau eratzen joan da. Prozesu horren une gorena 2007ko apirilaren 7an izan zen, izaera anitzeko 375 erakundek orduan sinatu baitzuten hiri inklusiborako herritarren Ituna eta hortik eratorritako konpromisoen multzoa.» (Godàs eta Gomà, 2008: 297).

Gizarte sare bat da ACBIa; elkarrizketa gune bat eta lanerako konpromiso bat, udalak eta hiriko elkarteek, eragileek eta erakundeek partekatzen dutena. Udalaren eta gizarte sareen arteko harremanetan, bide bat egin da diru, laguntzetatik hitzarmenetara doana. Horrela, agerian geratzen da harremanetan modu hitzartuak eta berdintasunezkoak bultzatzeko borondatea. Era berean, hertsiki alde biko den hurbilketa gainditu da, administrazioaren eta erakunde talde zabalen arteko harreman esparruak bultzatuta. Akordioak 2.611.000 euro izan zituen 2007an, eta, baliabide horiek hiriko 190 gizarte erakunderen jarduerak egiteko erabili ziren.

Amaitzeko, gizarte sareen ikuspegitik, egokia deritzogu ACBIaren bi ezaugarri nabarmentzea: bere *modus operandi* eta *gaikako ekintza sareen* agerpena:

- ACBIa elkarrizketa eta konpromiso gune bat da, gizarte erakunde eta elkarte berrientzako etengabe irekita dagoena. Horrez gain, lana batera egiteko konpromisoa urtero berritzen da, sarearen lorpenak eta erronka berriak aurkeztearekin batera. ACBIak, aldeek sinatutako konpromisoa den heinean, lana batera egiteko adierazitako borondatearen bidez funtzionatzen du, eta lan hori eragile bakoitzaren gaitasunen eta gizarte inklusiorako udal planean ezarritako printzipioen arabera egiten da.

Sarearen dinamika errazte aldera, ACBIak informazioa errazago koordinatzeko eta helarazteko web orri bat du, hainbat ataletan banatuta: eragileen direktorioa, informazioa garrantzitsua eskuratzeko aukera, jardueren agenda, etab.

—ACBIa sinatu, eta elkarriketa eta konpromiso guneak egituratu ondoren, gizarte inklusioaren aldeko *gaikako ekintza sareak* jarri ziren martxan. Horien artean daude, besteak beste: etxerik gabekoen arretarako sarea, haurtzaroko zentro irekiak, gizarteratzea eta lan arloan sartzea, harrera eta kulturartekotasuna, zaintzan diharduten familientzako laguntza edo enpresen eta gizarte sareen arteko lankidetzaren sarea.

ACBIAREN babespean formalizatutako sare horietan parte hartzen dutenek sinatutako itunak hiru alderdi jasotzen ditu: helburuak adostea, ekintzarako tresnak proposatzea eta ekimenak martxan jartzeko baliabideak eta profesionalak izatea.


Ondorio gisa, Bartzelonan inklusio politikak beste modu batera egitearen arduradunek bi alderdi nabarmentzen dituzte, guretzat ezinbestekoak direnak gizarte ongizatearen sustapenean gizarte sareen funtzionamendua ulertu ahal izateko, alegia: «Lehen: elkarrekin sareekin harreman iraunkorrekiko estrategia batek denbora eskatzen du eta hainbat zailtasun gainditu beharra, hausnarketa estrategikoan, adostutako erabakietan eta ekintza bateratuan oinarritutako bada. Hasteko, tokiko administrazioak bere prozedurak malgutu behar ditu, gizarte eragileekin harreman irekia eta parte hartzailea izateko (...) Bigarrena: Bartzelonako gizarte inklusio politikaren dimentsio parte hartzaileak emaitza nabariak lortzera bideratu nahi ditu ekintzak. Horretarako, aurrebaldintza nagusia da onartzea tokiko gobernuek interes orokorra bultzatu behar duela, baitetik, elkarrekintza estrategikoaren bidez, eta, bestetik, gizarte dinamikaren gidari diren herritarren ekarpenekin eta erakunde ugariekin hitzartutako ekintza zehatzen bidez» (Godàs eta Gomà, 2008: 301-302).

Bartzelona, beraz, aurrez aurre dugun erroka bikoitzaren adibide egokia da: inklusio politikak denon artean eraikitzeko beharra eta elkarlana egiten ikasteko beharra. Besteen ekarpena onartzea eta gizarte sareak egituratzeko gune zehatzak sortzea oinarritzko osagai gisa ageri zaizkigu, inklusio eraginkorra lortzearren.

Bibliografia aipamenak

- Adelantado, J. (arg.) (2000), *Cambios en el Estado de Bienestar*. Bartzelona: Icaria.
- Agranoff, R. eta McGuire, M. (2003), *Collaborative Public Management*. Washington, DC: Georgetown University Press.
- Bauman, Z. (1999), *Trabajo, Consumismo y Nuevos Pobres*. Bartzelona: Gedisa.
- Bauman, Z. (2005), *Vidas Desperdiciadas*. Bartzelona: Paidós.
- Beck, U. (1998), *La Sociedad del Riego*. Bartzelona: Paidós.
- Brugué, Q. (1996), «La Dimensión Democrática de la Nueva Gestión Pública», *Gestión y Análisis de Políticas Públicas*, 5-6 zk.
- Fink, J.; Lewis, G. eta Clarke, J. (2001), *Rethinking European Welfare*. Londres: Sage.
- Gallego, R.; Gomà, R. eta Subirats, J. (2003), *Estado de Bienestar y Comunidades Autónomas*. Bartzelona: Tecnos.
- Godàs, X. eta Gomà, R. (2008), «Barcelona: la Política de Inclusión Social en el Marco de Redes de Acción» in Fleury, S.; Subirats, J. eta Blanco, I. (arg.), *Respuestas Locales a Inseguridades Globales. Innovaciones y Cambios en Brasil y España*. Bartzelona: CIDOB.
- Gomà, R. eta Subirats, J. (arg.) (2001), *Autonomía i Benestar*. Bartzelona: UB-UAB.
- Ginsburg, N. (1992), *Divisions of Welfare*. Londres: Sage.
- Gorz, A. (1998), *Misérias del Presente, Riqueza de lo Posible*. Bartzelona: Paidós.
- Gough, I. (2000), *Global Capital, Human Needs and Social Policies*. Londres: Palgrave.

- Grau, M. eta Mateo, A. (arg.) (2002), *Análisis de Políticas Públicas en España*. Valentzia: Tirant lo Blanch.
- Hajer, M.A. eta Wagenaar, H. (arg.) (2003), *Deliberative Policy Analysis. Understanding Governance in the Network Society*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Inglehart, R. (1991), *El Cambio Cultural en las Sociedades Industriales Avanzadas*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Kettl, D.E. (2002), *The Transformation of Governance*. Baltimore: The Johns Hopkins University Press.
- Kooiman, J. (2003), *Governing as Governance*. Londres: Sage.
- Lane, J.E. (arg.) (1996), *Public Sector Reform*. Londres: Sage.
- Margalit, A. (1997), *La Sociedad Decente*. Bartzelona: Paidós.
- Martínez, J. (1998), *Políticas de Bienestar*. Madril: Tecnos.
- Mora, R. eta Cabezón, J. (1999), *Els Serveis Personals Municipals: Una Proposta Metodològica*. Bartzelona: Ediciones del Serbal.
- Moreno, L. (2000), *Ciudadanos Precarios*. Bartzelona: Ariel.
- Navarro, V. (arg.) (2003), *L'Estat de Benestar a Catalunya*. Bartzelona: Diputació de Barcelona.
- Ochando, C. (1999), *El Estado de Bienestar*. Bartzelona: Ariel.
- Offe, K. (1990), *Contradicciones en el Estado de Bienestar*. Madril: Alianza
- Osborne, D. eta Gaebler, T. (1994), *La Reinención del Gobierno*. Bartzelona: Paidós.
- Percy-Smith, J. (arg.) (2000), *Policy Responses to Social Exclusion*. Buckingham: Open University Press.
- Rodger, J. (2000), *From a Welfare State to a welfare Society*. Londres: Macmillan Press.
- Sennett, R. (2000), *La Corrosión del Carácter*. Bartzelona: Anagrama.
- Wacquant, L. (2006), *Castigar els Pobres*. Bartzelona: Edicions de 1984.



ESTHER RAYA DÍEZ

*Herritartasun Demokratikoa eta Kultura Askatasuna UNESCO katedra,
Errioxako Unibertsitatea*

esther.raya@unirioja.es

Ongizatearen gizarte sareen etorkizuna

Laburpena: Historikoki, era askotako eragileek parte hartu dute gizartearen beharrei erantzuteko zereginen. Ongizate Estatu deiturikoaren hedapenak eta eskubide sozialak herritartasun eskubide gisa sendotu izanak protagonismoa kendu diete beste gizarte eragileei. Krisiak eta ondorengo Ongizate Estatuaren berregituraketak beste egoera batera ekarri gaituzte, eta egoera berri honetan, Hirugarren Sektoreak lidergoa eskuratu du gizarte politiken garapen eta exekuzioan; batik bat, programen eta zerbitzuen kudeaketan.

Ongizatearen gizarte sareen etorkizuna aztertzeko, lehenik sare horiek eratzen dituzten agenteen izaera aztertuko dugu, eta bereziki ikusiko dugu zer abantaila eta muga izan diren azken urteotan gizarte babesaren alorrean. Ondoren, gizarte ongizatearen sistemak dituen erronkei erreparatuko diegu, esku-hartze metodologiari eta maila anitzeko koordinazioari dagokienez. Amaitzeko, agenteen zeregina zehaztuko dugu; hain zuzen, ongizate eredu berriaren barnean gizarte herritartasunaren eraikuntzan duten egitekoa.

Edukiak: 1. Gizarte ongizatearen agenteak.—2. Ongizate agenteen Abantailak eta Mugak.—3. Gizarte ongizatearen sistemaren erronkak. 3.1. Koordinazioa. 3.2. Subjektuaren eta entitateen zeregina herritartasunaren eraikuntzan.—4. Ondorioak.—5. Bibliografia.

1. Gizarte ongizatearen agenteak

Hasteko, ongizatearen gizarte sareak eratzen dituzten agenteak aipatuko ditugu, honako zentzu honetan: pertsona edo talde baten gizarte beharrei erantzuten dieten agenteak. Demetrio Casadoren arabera (1991), lau dira gizarte beharrei erantzuteko moduak, oinarritzko lau agenterekin lotura dutenak:

Beharrei erantzuteko moduak	Motibazioa
Auto-probisioa eta Oinarritzko Laguntza	Biziraupena
Merkatua	Irabazia
Ekintza boluntarioa	Elkartasuna
Esku-hartze publikoa	Eskubide sozialak

Modurik zabalduena *auto-probisioa* da; hots, nork bere beharrei erantzuteko gaitasuna izatea. Hala ere, premia jakin batzuei erantzuteko, ezinbestekoa da hirugarren baten parte hartzea, eta badira ere premia bereziak dituzten pertsonak eta kolektiboak, beste batzuen laguntza behar dutenak.

Auto-probisioa amaitzen denean hetero-probisioa hasten da. Aipatzekoak dira, bigarren horri dagokionez, familiaren eta talde informalen laguntza, *oinarrizko laguntza* epigrafearen barnean; hainbat eratakoa izan daiteke: familiaren laguntza, auzoko bizilagunena, adiskideena, dohaintzak, laguntza pertsonalak, etab. Agente multzo honen barnean, biziraupena da gizarte premiak asetzeko motibazio nagusia, pertsonaren edo talde primarioaren biziraupena.

Bigarren modu gisa, *merkatua* aipatu behar dugu, gero eta garrantzi handiagoa duena gizarte ongizatearen sektorean. Guztiz sendo hezkuntzan eta osasun arloan, pisu handia hartu du ere gizarte zerbitzuetan, batez ere adindunei eta mendekotasun egoeran dauden pertsoneri eskaintzen zaien arretan. Agente hauen motibazio nagusia irabazi ekonomikoak lortzea da, zerbitzu bat eskaintzearen truke.

Hirugarren modua *ekintza boluntarioa* da, boluntarioen lanean oinarritzen dena. Kasu honetan ez dago ez irabazi ekonomikorik ezta agindu ofizialik ere, elkartasuna baizik. Epigrafe honen barnean sar daitezke Hirugarren Sektorea izenekoa osatzen duten erakunde eta entitateak.

Azkenik, *esku-hartze publikoa*, herri administrazioen bitartez, gizarte beharrei erantzuteko hiru baliabide nagusi erabiltzen dituztenak: a) *Ordenazioa, kontrola eta tutoretza*: jarduera pribatuak erregulatzeko mekanismo publikoa; b) *Diru-laguntza*: erakunde pribatuen jarduera finantzatzeko mekanismoa, haien politikak orientatzeko; c) *Esku-hartze zuzena*. Zerbitzu publikoei, gainera, arlo honi lotutako beste politiken eragina gehitu behar zaie, zerga-politikarena, bereziki. Esku-hartze publikoaren motibazioa eskubide sozialen bermean laburbildu daiteke, justizia sozialaren ikuspegi jakin batetik begiratuta.

Gizarte ongizatearen sareen etorkizunean, ezinbestekoa izango da agente guztien jarduera aktiboa eta proaktiboa, eta sinergian eta elkarrekikotasunean oinarritutako hartu-emanak ezartzea.

2. Ongizate agenteen Abantailak eta Mugak

Gizarte beharrei erantzuteko modu bakoitzean diharduten agenteek zeregin bat izan dute gizarte ekintza-ren historian zehar. Nolanahi ere, batzuen eta besteen protagonismoa aldatuz joan da, indar osaeraren arabera. Atal honetan, azalpen orokor batzuk emango ditugu agente batzuen eta besteen abantailari eta mugei buruz, kontuan izanik elementu iraunkor batzuk; hots, agentearen izaeratik beretik eratortzen direnak, ez kanpoko beste baldintzapen batzuetatik (ideologia, politika edo ekonomia alorretakoak).

Hasteko, ezinbestekoa da pertsona subjektu (agente) aktibotzat hartzea, bere gizarte beharrei erantzuten dien subjektutzat. Egoera ideala, alde horretatik, pertsonaren autonomia ahalik eta handiena litzateke. Kasu honetan, auto-probisioaren abantaila hauxe da: hots, pertsonak berak erantzuten die bere beharrei, hirugarrenekiko mendekotasunik gabe. Hala eta guztiz ere, oinarrizko premia gehienak horrela asetzen badira ere, ezinezkoa da erabateko auto-probisioa gaur egungo gizartean, eta horixe du muga nagusi agente honek. Lanaren zatiketa soziala handituz doa gizarte konplexuetan, eta gero eta handiagoa da besteekiko dugun mendekotasuna gure beharrak asetzeko, espezializazio handiaren ondorioz. Horixe gertatzen da, adibidez, hezkuntza, osasun, enplegu... arloetako beharren kasuan.

Hetero-probisio informalari dagokionez, abantailatzat hartu behar dugu babes sare sendo bat izateak subjektuari ematen dion gizarte kapitala. Muga gisa, subjektu batzuetatik besteetarako fluktuazioa aipatu behar-ko genuke. Gainera, ohikoa da premia handienak dituzten pertsonak babes sare txikiagoa izatea, eta beharrezkoa da beste agente batzuen parte hartzea, gabezia horiei aurre egiteko.

Merkatuari dagokionez, duela ez horrenbeste, pentsaezina zen irabazi asmoa duten erakundeak gizarte zerbitzuen alorrean arituko zirenik, eta ia hutsala zen haien jarduera. Biztanleriaren zahartzeak eta ongizate zerbitzuen eskaera gero eta handiagoak garrantzi handia izan dute agente honen garapenean.

Abantaila gisa, aipatzekoa da merkatuaren auto-erregulazio gaitasuna, eskaeraren eta eskaintzaren legean oinarritua, bi elementu horiek harmonizatu egiten baitira eragileen interesen joko librearen eraginez. Hala, agente hau gai da behar berriei bizkor erantzuteko, eta bere burua eraldatu edota desagertzeko, zerbitzu eskaerarik ez dagoenean.

Agente honen erabilera, *a priori*, librea eta unibertsala bada ere, hots, mundu osoarentzat, bi eragozpen aipa daitezke gutxienez, agentearen mugak agerian uzten dituztenak. Alde batetik, mugak lurralde ikuspegitik; hau da, enpresa batek, kokalekua erabaki behar duenean, ez die beharrei eta premiei erreparatzen, negozioa egiteko aukerei baizik. Horrek, adibidez, arazoak sortzen ditu landa eremuetan, arreta pertsonalerako zerbitzuen gabeziengatik. Bestetik, izaera ekonomikoko eragozpenak aipa daitezke, aurrekoak bezain garrantzitsuak: enpresek zerbitzua eskaintzen die soilik ordain dezaketen pertsonari. Hori dela-eta, gizarte premia jakin batzuen kasuan, eskubide sozialekin lotuta daudenen kasuan bereziki, ezin daiteke agente hau erantzun modu bakar edo nagusitzat hartu.

Ekintza boluntarioan agente ugari dhardute, Hirugarren Sektorea epigrafearen barnean bil ditzakegunak. Agente horien artean, gaingiroki aipatuz bada ere, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta auto-laguntzarako taldeak edo elkarteak bereiz daitezke. Lehenengo multzoan, elkartasunerako motibazioa zibikoa, erlijiosoa, politikoa edo sindikala izan daiteke. Bigarreni dagokionez, ekimen kolektibo eta antolatua izan ohi dira, denon premia bati erantzuteko, beste agenterik ezean.

Oro har, erakunde hauek helburu bikoitza dute: lehenik, premia asegabe batzuei erantzutea; bigarrenik, gizarte sentsibilizatzea eta administrazioaren aurrean aldarrikatzea.

Erantzun modu honen abantailen artean, honako hauek dira aipagarrienak: a) Arintasuna erantzunean; b) Gizartearen parte hartzea; eta c) Egokitzapena behar-eskaera-baliabide artean.

Administrazio aparatuen pisu handiaren aurrean, Hirugarren Sektoreko erakundeek bizkortasun handiagoz jokatzeko irtenbide azkarrak emateko gizartearen arazo berriei. Beren egiturari esker, gai dira mekanismo berriak martxan jartzeko, eskaera zehatz bati erantzuna emateko, pertsona hartzaileen arreta, langileen kontratazioa... bizkortuz.

Bestetik, gizarte ekimenaren bidez, gizarte arazoan irtenbidean parte hartzen du gizarte zibilak, erantzun antolatu baten bitartez. Gizartearen aberastasunaren eta haren inplikazio aktiboaren adierazle dira.

Azkenik, erakunde altruistek egiten duten lanari esker, egokitu egin daitezke beharra, eskaera eta baliabidea. Jarduera antolatu egin daiteke, pertsona jakin batzuek une jakin batean planteatutako eskaerei erantzuteko, eskaerok sortzen diren gizarte testuinguruaren beharren arabera.

Erakunde hauen mugei dagokionez, honako hauek aipatzen dituzte Giner eta Sarasa egileek (1995:16-18): a) Altruismo ideologikoa; b) Estatuarekiko mendekotasuna; c) Korporatibismoa; eta d) Aurkako egoerak.

Muga horietan lehena boluntarioen elkarten joera ideologikoa da. Erakunde horietako askok, neutraltasunetik urrun —adibide ugari aipa daitezke—, beren ideiekin bat datozen pertsonak eta taldeak soilik laguntzen dituzte.

Bigarren mugari dagokionez, boluntarioen elkarte eta talde askok ezinbestekoak dituzte gobernuen laguntzak, lan egiteko ez ezik, baita bizirik irauteko ere. Mendekotasun hori, jakina, elkarte horien erantzun ahalmenaren kalterako da, eta Estatuaren ekintzaren mesederako.

Korporatibismoak, aurrekoari lotuta, agerian uzten du zer-nolako zailtasunak dituzten erakunde altruistek beren jarduera egoki kudeatzeko. Gizarte ongizatearen sistemaren parte diren neurrian, sistemaren eskakizunetara egokitu behar dute nahitaez. Hala, gizarte arloan diharduten erakundeek garden jokatu behar dute beren kudeaketan, kontu ikuskaritzak egin behar dituzte, kalitate arauak bete behar dituzte, etab. Horrek guztiak zurrundu egiten ditu, eta arbuigarri iruditzen zaizkien jarrera burokratikoetara hurbiltzen ditu, beren asmoen kontrakoa litzatekeena.

Azkenik, elkarte altruisten eta estatuaren arteko lotura estuaren eraginez, aurkako egoera batean, bereziki egoera ekonomikoa txarra denean, moteldu egiten da nabarmen Hirugarren Sektoreko erakundeen lana, baliabide faltagatik, gizarte arazoak ugariagoak direnean, preseski. Eragozpen hau oso nabarmena da gaur egun bizi dugun krisi egoeran.

Esku-hartze publikoaren abantailen atalean, interes orokorra eta guztien onura bilatzen dituela esan daiteke, nahiz eta aldeekin, ideologiaren arabera, horren esanahiari eta lortzeko moduari dagokionez. Mugak aipatzekotan, gastu publikoak aurrekontu defizit egoeretan eragin dezakeen kostu handia nabarmendu beharko genuke. Azken berrogeita hamar urteotako mendebaldeko gizarte politikak Ongizate Estatuan oinarritu dira, eta eredu horren abantailak eta mugak biltzar honetako beste mahai batzuetan aztertu direnez, ez dugu gai honetan gehiegi sakonduko.

Aipatzekoa iruditzen zaigu, hala eta guztiz ere, Ongizate Estatuaren deiturikoaren krisi eta ondorengo berregituraketaren ondoren, laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan, agerian gelditu zela sarean lan egiteko beharra, sektore publikoaren eta batik bat izaera altruista duen sektore pribatuaren arteko elkarlanaren premia. Hortaz, indarberritu egin da Gizarte Ekimenaren eta gizarte zibilaren lidergoa, Hirugarren Sektorearen jardueraren bidez. Eredu aldaketa hau oso nabarmena izan da Gizarte Zerbitzuei buruzko legeetan. EAEko legeak, adibidez, 1982koak hain zuzen, Zerbitzu Publikotzat zituen Gizarte Zerbitzuak; 1996ko legea, aldiz, Erantzukizun Publikoko Zerbitzuez mintzo zen, gizarte ekimena barne hartuz. 2008ko legeak, azkenik, honako hauxe dio 5.2 artikuluan: «Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistema titulartasun publikoko eta itundutako titulartasun pribatuko prestazio, zerbitzu eta ekipamenduek osatuko dute».

Administrazioaren eta Gizarte Ekimenaren arteko erlazioa hainbat modutan gauza daiteke: a) kontrola eta tutoretza; b) sustapena; c) kontratuak; d) kontzertuak eta f) hitzarmenak. Erlazio hori, nolani ere, ez da batere erraza, eta batak bestearekiko dituen zenbait gaizkiulertu gainditu behar dira, García Rocak dioen bezala (1992).

Administrazioak gizarte ekimenarekiko dituen gaizkiulertuei dagokionez, ekimen hori bigarren mailakotzat hartzea da lehena. Ikuspegi horretatik, ekimen altruista premia handiko egoerei aurre egiteko sortzen da, baina desagertu egiten da Estatuaren baliabideak nahikoak direnean premia horiei aurre egiteko. Bigarren gaizkiulertu baten arabera, gizarte ekimena gizarte patologia jakin batzuen tratamendurako tresna da. Hori horrela, patologia batzuei aurre egin behar zaie, sistemak sortzen duen egiturazko miseria ezkutatzeko, eta Estatuak gizarte ekimenaren esku uzten du bere eginkizuna. Azkenik, gizarte ekimena kostuak murrizteko modutzat hartzen da, eskulan merke gisa kontsideratzen baita.

Aldiz, Gizarte Ekimenak susmo txarrez hartzen du Estatuaren jarduera zenbait arlotan. «Gu edo haiek» deitzen dio jarrera horri García Rocak. Gizarte ekimenaren ustez, gizarte laguntzaren arlo batzuk bereak bakarrik lirateke, eta Estatu ez du eskubide sozialen bermatzaile gisa ikusten, arrotz gisa baizik. Badago bigarren gaizkiulertu bat: «Esku har dezatela haiek, gu iristen ez garenean». Lehenik, gizarte ekimenari utzi behar zaio gizartearen arazoak konpontzen, eta gai ez denean horretarako, laguntza eskatuko dio Administrazioari, azken honek bigarren maila batean parte hartuko badu ere.

Amaitzeko, nabarmentzekoa da Gizarte Ekimenaren estrategia edo diskurtso bikoitza. Ideologiak administrazioetik aske jokatzeko eskatzen badiu ere, laguntza ekonomiko handia eskatzen dio bere lanari eutsi ahal izateko, eta harekiko mendekotasunean erotzen da.

Egoera honetan, García Rocaren arabera, beharrezkoa da, lehenik eta behin, gaizkiulertu hauek eragiten dituzten kontraesanek ohartzea. Hala, lankidetzarako estrategia berrien beharraz jabeturik, kultura *bitariko* baten eraikuntzari ekin beharko genioke, errealitatearen eta gizarte ekintzaren izaera sistemikotik abiatuz, honako printzipio hauen arabera:

- Elementu guztiak kateatuta daude eta batak bestea determinatzen du.
- Egoera bat aztertzean, beste egoera batzuekin erlazionatuta aztertu behar dugu.
- Ez dago neurri on edo txarrik, egoera edo une bati egokitutako neurri egoki edo desegokiak baizik.

Gainera, egoera berri honetan, kontuan izan behar dugu ere merkatuaren zeregin berria, eta horregatik entzuten dugu gero eta gehiago «laugarren sektorea» deiturikoaren aukera, «sektore publiko, pribatu eta sozialen elkargunean» kokatzen den erakunde multzo berria (Bankinter Berrikuntza Fundazioa, 2009:30). Laugarren sektore honen jarduerak agenteen arteko erlazio muga tradizionalak gainditu eta formula berriak erabiliko lituzkete, ekimen berritzaileak garatzeko asegabeko beharrei erantzuteko ahaleginean. Formula horietako bat, adibidez, gizarte ekimeneko entitateek gizarte erantzukizun enpresarialeko programen barnean garatzen duten gizarte ekintza da. Eredu berri honen emaitzak, baita herritartasun sozialaren eraikuntzan diharduten agente berrien agerpenaren emaitzak ere, gizarte ekintzaren historiari ikasitakoak baldintzatuko ditu, neurri handi batean.

3. Gizarte ongizatearen sistemaren erronkak

Jadanik aipatu dugunez, historiaren irakaspenek erakusten digute, alde batetik, gizarte beharrei erantzuteko prozesuetan parte hartzen duten agenteen aniztasuna, eta, bestetik, gizarte laguntzako prozesuetan aldaketek eta berrikuntzek duten garrantzia. Aldaketak bi norabidetan izan daitezke: lan metodologiari dagokionez eta agente aniztasunaren koordinazioari dagokionez. Hori guztia egiazko herritartasun sozial bat eraikitzeko ongizate eredu berrian.

Gizarte ekintzaren azkenaldiko historiaren lehen irakaspen bat hauxe da: gizarte ekintzaren eta gizarte politiken hartzaileak diren subjektuen izendapen aldaketa. Hizkuntza ez da neutroa, eta, alde horretatik, esan behar da izen aldaketak baduela lotura politika horien orientazio aldaketarekin.

Hasieran, *kasu* hitza erabiltzen zen, eredu klinikoaren eraginez-edo; gero, *gizarte egoera* esapidea erabiltzen hasi zen, neutroagoa. Ondoren, *bezero* hitza hedatu zen, Carl Rogersen eraginagatik, «askatasun esanahi

sinbolikoa» adierazten zuelako. Gizarte zerbitzuak zerbitzu publiko gisa garatzen hasi zirenean, beste bi hitz nagusitu ziren: *erabiltzaile* eta *onuradun* (prestazio ekonomikoen eskuratzearekin lotuta bigarren hori). Gaur egun, gero eta gehiago erabiltzen dira *pertsona* eta *subjektu* hitzak (C. de Robertis, 2003).

Pertsona subjektutzat hartzeak badu zerikusirik herritartasun kontzeptuaren adiera juridiko, politiko eta soziologikoarekin. «Pertsonak, subjektu gisa, ekintza bat, esperientzia bat, ezagutza bat gauzatzen du, objektuarekiko aurkakotasunean (zenbaki bat, paper sorta bat, problema bat). Subjektu nozioak pertsonaren gaitasuna adierazten du erabakitze eta gertakizunetan eragiteko, eta beregan eragina izan dezakeen guztian aktiboki parte hartzeko.» (Robertis, 2003:68). Subjektu sustantiboari eskubideen adierazpena gehitzen zaionean (pertsonak eskubide eta betebeharrak batzuk ditu gizarte jakin batean bizitzeagatik), orduan herritartasunaren kontzeptura iristen gara ezinbestean. Eta herritarra, kontzeptu horren arabera, «hiriaren bizitzan aktiboki parte hartzen duen pertsona da; parte izateaz gainera, gizarte bizitza modelatu, aldatu, sortu eta dinamizatzen du, bere ideiak azaldu eta transmititzen ditu, beste batzuekin antolatuta ideia horiek ezagutarazten ditu, proiektuak garatzen ditu, beretzat, beste batzuentzat, beste batzuekin batera. Herritarren dinamizazioa ez da idatzitako eskubideen berrespen hutsa, bizitza demokratikoaren eguneroko antolakuntza ere bada, bizitza zibikoan eragitea, aukera berriak sortzea etengabe» (Robertis, 2003:69).

Herritartasunaren kontzeptuaren dualtasun honetan —eskubideak erabiltzea eta herritarren ekintza—, berebiziko garrantzia du erronka metodologikoak. Erronka horretan, gizarte langileak —gizarte jarduerarako teknikari gaitua den aldetik— konpromiso bat garatuko du pertsonarekin eta pertsonarentzat. Bi maila horietako bakoitzean, gizarte langilearen helburuak gauzatzen dira: *errestaurazio helburuak* (irtenbideak bilatzea, bizi baldintzak hobetzea, duintasuna sendotzea eta autoestimua areagotzea) eta *promozio helburuak* (besteekiko loturak estutzea, bizitza kolektiboan parte hartzea, aitortzea erdiestea, gizartean erabilgarri izatearen sentimendua...) (Robertis, 2003:69).

Pertsonak, izaki indibidualak eta kolektiboak aldi berean, esku-hartze profesionalaren ardatz dira, eta laguntza eskaintzen zaie beren bizitzaren gaineko botereaz jabetzeko prozesuan. Prozesu horrek hainbat ezaugarri ditu:

- Nork bere irudia aldatzea.
- Berdinez osatutako talde bateko kide izatea.
- Proiektu komun posibleak lantzea.
- Urratsez urrats lortutako arrakasta erabiltzea konfiantza eta dinamismoa bultzatzeko.
- Gizartearen aitortza eta erabilgarri izatearen sentimendua, pertsona bakartu eta baliorik gabea herritar partehartzaile eta aktibo bihurtzen dutenak.

Anglosaxoiek *empowerment* deitzen diote gaikuntza prozesu honi; frantziarrek, aldiz, *accès à la citoyenneté*. Bi esapideok kulturalki desberdinak diren definizioei badagozkie ere, helburu profesional berberetik datoz: pertsonen garapena eta haien gizarteratze aktiboa.

Eta berri honetan, arreta eskatzen da gizarte arazoentzat, ez bakarrik diziplinartekotasunetik, baita instituzioartekotasunetik ere, gizarte zerbitzuen joera pribatizatzailearen eta, horrekin batera, hirugarren sektorearen protagonismo gero eta handiagoaren ondorioz. Izan ere, sektore horrek, auto-laguntzan edo bere elkarte-kideen interesen defentsan ez ezik, erantzukizun publikoko zerbitzu eta prestazioen kudeaketan ere dihardu, gero eta gehiago. Ekintza koordinatu hau erronka berria da gizarte ekintzaren etorkizunarentzat.

3.1. Koordinazioa

Egoera berriak nahitaz bete beharreko premisa edo eskakizun batzuk ezartzen ditu erronkei aurre egiteko. Pribatizazio saioen aurrean (hirugarren sektoreak azpikontrata gisa jarduten du horietan), erakundeen arteko lankidetzak edo koordinazio mugimendu bat sortu behar da. Koordinazioa, hiztegiaren arabera, honako hau da: «gauzak metodikoki antolatzea edo baliabideak eta ahaleginak bateratzea, ekintza komun bati ekiteko». Ahalegin hau beharrezkoa da, hain zuzen ere, funtzio zatiketa dagoelako. Ongizatearen pluralismoa deiturikoak agente aniztasuna dakar, eta agente horiek ez dute bata bestea «imitatu» behar, era kooperatiboan sortu baizik, pertsonen, herritarren eta gizartearen mesederako.

Antolakuntzaren esparruan, koordinazioa honela ulertzen da: zenbait jardueraren doikuntza eta sinkronizazio prozesua, batera jardun dezaten antolakuntzaren helburuak betetzeko. Gure kasuan, eskubide sozialak bermatzeko helburuak dira. Koordinazioa kooperazioa baino zerbait gehiago da. Kooperazioa borondateari dagokio, besteekin lan egiteko jarrera eta nahiari. Koordinazioak, aldiz, espiritu hori ere behar du, baina, horrekin batera, ahalegin kontziente bat ere behar du, ekintza horiek bateratzeko. Eta horrek lanaren plangintza eskatzen du, ez delako berez sortzen den zerbait. Hainbat modu daude erakundeen arteko koordinaziorako: a) Fusioa; b) Lankidetzak mugatua; c) Kide anitzeko zuzendaritza; d) Pertsonalaren mugimendua; e) Erregulazioa; f) Jarduera politikoa. Zerbitzuen prestaziorako, ezinbestekoa da modu horietako bakoitzaren abantailak eta eragozpenak baloratzea, erantzun egokia emateko eskubide sozialen bermearen testuinguruan.

Gaur egun, gizarte zerbitzuen eta gizarte ongizatearen esparruan, jada ez da ezbaian jartzen erakundeen arteko koordinazioaren beharra, koordinazio horretarako zailtasunak egon arren. Hiru motatako argudioak erabil daitezke, gutxienez, koordinazio horren alde: a) araudi alorrekoak; b) kalitatezkoak; c) teorikoak.

Araudi alorreko argudioei dagokienez, nabarmentzekoak dira dagoeneko aipatu dugun Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea eta Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistema deiturikoa. Hala, lege horren 7. artikuluko h) atalak Koordinazio eta kooperazio printzipioa ezartzen du, eta hitzez hitz dioenez: «Euskadiko herri administrazioek koordinazio eta kooperazio betebeharraren arabera jardungo dute, elkarrekin eta irabazi asmorik gabeko gizarte ekimenarekin. Era berean, elkarlanean arituko dira ere, subsidiarioki, gainerako ekimen pribatuarekin.» Antzeko zerbait aipatzen da 39/2006 Legearen 6. artikuluan (Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeko legea), mendekotasun egoeran dauden pertsonen Autonomia eta Laguntza Sustatzeko Sistema definitzen duenean: «erabilera publikoko sarea, zentro eta zerbitzu publiko nahiz pribatuz osatua, era koordinatu batean» (horrek aldaketarik eragiten ez badu ere haren titulartate, administrazio, kudeaketa eta mendekotasun organikoaren erregimen juridikoan).

Mendekotasunaren Legea izenekoaren artikuluko honek sistemaren ezaugarritzat du koordinazioa. Era berean, printzipio hau zehazturik agertzen da legearen printzipio gidari batzuetan; zehazki, 3. artikuluko c, d, l, m, n eta ñ ataletan:

- «c) Mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza, era oso eta integratua.
- d) Mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzarako politiken zeharkakotasuna.
- l) Gizarte eta osasun zerbitzuen lankidetzak zerbitzu egokia eskaintzeko Autonomia eta Laguntza Sustatzeko Sistemako erabilzaileei (Lege honek, Autonomia Erkidegoetako arauak eta Tokiko Entitateetan aplikatu daitezkeen arauak ezartzen dituzten zerbitzuak).
- m) Ekimen pribatuaren parte hartzea mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzeko zerbitzu eta prestazioetan.

n) Hirugarren sektorearen parte hartzea mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzeko zerbitzu eta prestazioetan

ñ) Administrazioen arteko kooperazioa.»

Legegintza arloko argudioez gainera, gizarte zerbitzuen kalitateari loturiko argudioak hartu behar dira kontuan. Motibazio mota honen arabera, gizarte zerbitzuen kalitateaz mintzo garenean, zerbitzuen prestazioa eta programen garapena koordinatzeaz ari gara. Autonomia Erkidego batzuek gizarte zerbitzuen kalitateari buruzko legeak egin dituzte; hala nola Errioxako erkidegoak, 2007an aitzindari izan zena era honetako lege bat aldarrikatzen. Jarduketa printzipio orokorren artean, sail arteko eta administrazio arteko koordinazioaren printzipioa aipatzen da (5.f. art.), politika publiko baten edo zerbitzu prestazio baten administrazio arduratsu gisa ulertua, beste administrazio batzuekin harremanetan jarriz erantzun eraginkorragoa emateko. Gainera, 6.10 artikulua, pertsona erabiltzaileen eskubideen artean, prestazioez gozatzeko duten eskubidea aipatzen du, legeak ezarritako esku-hartze programaren arabera, eta koordinazio egoki baten beharra ere nabarmen-tzen du, behar izanez gero, antzeko beste sistema batzuekin.

Koordinazioaren irizpidea, beraz, kalitate arauetan ere agertzen da; adibidez, etxeko laguntza zerbitzuari buruzko UNE 158301 Arauan. Arau horretako 3.7 irizpideak koordinazioa aipatzen du, bi mailatan: lehen mailan, laguntza indibidualerako esku-hartze prozesuaren koordinazioa egongo litzateke; bigarrenan, zerbitzuan parte hartzen duten beste agente batzuekiko koordinazioa.

Legegintza eta kalitate arloetako argudioei, azkenik, argudio teorikoak erantsi behar zaizkie. Aipatzekoa da, alde horretatik, gizarte arazoaren izaera multidimentsionala, esku-hartze integralak eta erantzun koordinatuak behar dituztenak, gainezarpenak saihesteko eta laguntza arlo guztietara hedatzeko. Teoria sistemikoak eta sareen teoriak koordinazioaren printzipio hau aplikatzen dute, pertsonen, taldeen eta komunitateen premia bio-psiko-sozialei erantzuteko.

Koordinazioa eraginkorra izan dadin, beharrezkoak dira baldintza batzuk. Besteak beste:

- Politika eta araudi esparru egokia.
- Koordinatu beharreko agenteen identifikazioa.
- Informazio egokia eta nahikoa ezarritako helburuak betetzeko.
- Konfiantzazko harremana agenteen artean.
- Prozesuen instituzionalizazioa lankidetzaz hitzarmenen bitartez.

3.2. Subjektuaren eta entitateen zeregina herritartasunaren eraikuntzan

Edonola ere, harri-jotzailearen istorioan bezala (errege batek, munduko izaki boteretsuenaren bila, harri-jotzaile batetik mendira jotzen du, menditik Eguzkira, Eguzkitik hodeira, hodeitik haizera, eta haizetik mendira itzultzen da, eta menditik berriro ere harri-jotzailer¹), ezin dugu ahaztu pertsona bera dela esku-hartze orotan subjektu garrantzitsua; subjektua, subjektu gisa eta ez objektu gisa, izaki eramankor eta pairakorra.

¹ Ipuinaren bertsio bat irakurtzeko: http://blogs.diariovasco.com/index.php/cuentameuncuento/2005/06/08/el_picapedrero

Hori dela-eta, makinaria engranatuta eduki behar da, gutxieneko baldintzak sortzeko, pertsonaren garapena (haren eskubide eta betebeharrekin) subjektu aktibo eta proaktibo gisa bermatzeko.

Hori horrela, egokia litzateke historiak eskaintzen dizkigun irakaspenak gogoratzea, eta, bereziki, Gizarte Lanaren oinarriak ezarri zituzten bi egile klasikoren ekarpenari erreparatzea: Octavia Hill eta Mary Richmond. Ikuspuntu metodologikotik, Hillen arabera, pertsonarekin lan egitea harreman bat eraikitzea da, bi aldeen artean komunikazioa ezartzea, portaera epaitu aurretik. Gainera, pertsona guztien balioa eta duintasuna aitortzea eskatzen du, eta bakoitzaren egoerari buruzko ikuspegi partikularra errespetatzea. Horrela, pertsona erlazioaren erdigunean kokatzen da.

Mary Richmondek, bestetik, denbora eskatzen du, bezeroen historia ezagutzeko, haien egoera ulertzeko. Hala, biek ala biek metodologia intentsibo bat (denboran) aldarrikatzen dute, pertsonarekiko harremana lantzeko. Gainera, Richmonden arabera, beharrezkoa da pertsonarekin lan egitea, baina baita ingurunearekin ere. Gizarte ekintza barnerantz zuzendu behar da, subjektuan aldaketak eraginez, baina baita kanporantz ere, gizartean aldaketak eragiteko, politika publikoen, sentsibilizazioaren eta pertsonentzako aukerak sortzearen bitartez.

Lan hau egiteko, gizarte arloko agenteek hiru elementu bateratu behar dituzte: sormena, egiten jakitea eta sistematizazioa. Jakina, lan zaila da, gizarte esku-hartzeko prozesua konplexua delako; ez da ez mekanikoa ezta matematikoa ere, aldakorra baizik, pertsona batzuetatik besteetara eta egoera batzuetatik besteetara. Horregatik, beharrezkoa da tresna metodologikoak erabiltzea, iparrorratz gisa profesionalaren lana gidatuko dutenak. Lehen tresna metodologikoetako bat, gizarte arloko zerbitzu eta programetan lan egitean, premia egoeran dauden pertsonen uneak eta prozesuak aintzat hartzea da.

Pertsonaren uneei dagokienez, kontuan izan behar dugu bizitza zikloaren zer etapatan dagoen, puntu kritikoak, aldaketa erabakiak eta gizarte, ekonomia eta politika testuingurua. Bizitza zikloko etapei erreparatuz gero, ez da berdina langabezian dagoen pertsonaren egoera edo lehen lana eskuratu duenarena; lan ibilbidearen hasieran dagoen pertsonarena edo erretiroa hartzetik hurbil dagoenarena. Une bakoitzak bere eskakizunak ditu, eta horien arabera egingo dio aurre pertsonak egoerari.

Era berean, kontuan izan behar dira ere pertsonaren bizi prozesua baldintza dezaketen puntu kritikoak. Aurreko adibidearekin jarraituz, seme-alabak heztea edo senitartekoak zaintzea, lana galtzearen bizipena edo lan birziklapen falta, lanean giro «negatiboa» edukitzea... pertsonarengan eragina izan dezaketen faktore erabakigarriak dira gizarte ongizateko erakunde batek egin ditzakeen proposamenei dagokionez.

Horrez gainera, aintzat hartu behar dira ere pertsonak aldaketarako hartu dituen erabakiak, zergatik hartu dituen, gizarte arloko prozesuari ekin aurretik. Zein diren aldaketarako motibazioak, sendoak diren ala ez, eta pertsona mugiarazteko motor izan daitezkeen. Langabezian dagoen pertsonaren adibidean, hainbat erabaki kontsidera daitezke: lan merkatuan berriro sartzeko langabezian denbora luzea eman ondoren; jardueraz edo sektorez aldatzeko erabakia; lan bilaketarako eremua zabaltzeko aukera; bizilekuz aldatzeko prestutasuna. Pertsonak berak hartu behar dituen erabakiak dira, eta ezin dira erakundeetatik inposatu. Arestian esan dugun bezala, errespetatu behar diren erabakiak dira.

Esku-hartzearen xede den egoeran kontuan hartu behar diren uneei buruzko alde aurreko kontsiderazio hauetan, ezinbestekoa da ere inguruneari erreparatzea, pertsona testuinguru batean murgildurik bizi delako. Alde horretatik, garrantzi berezia dute gizartean nagusi diren balioak, esku-hartzearen helburuari dagokionez: adibidez, langabezia. Zer iritzi du gizarteak langabetuei buruz? Erruduntzat ditu? Ala haien egoera uler-

tzen du? Zer ezaugarri dituzte lan merkatuak eta enplegu eta lan sustapenerako politikek? Hala, geure buruari galdetu behar genioke zer neurritaraino egin diezaiokeen aurre pertsonak egoerari, kontuan izanik egokitu zaion testuinguruaren baldintza zehatzak.

Esku-hartze prozesuei dagokienez, lau alderdi nagusi hartu behar ditugu kontuan: a) pertsonaren bizitza historia; b) gizarte arazoaren izaera multidimentsionala; c) agenteen helburuak eta igurikapenak; d) emaitzak.

Subjektuaren bizitza historia, ikuspegi subjektibo batetik kontatua, lagungarri izan daiteke egoerari buruz duen ikuspuntua ulertzeko. Haren ibilbide pertsonala ezagutzea, haren pertzepzio indibidual eta kolektiboa, besteek bere buruaz eskaintzen dioten ispilua (Cooley); lorpenen eta hobekuntza esparruen balantzea, baita oztopo eta porrotena ere. Hori guztia iparrorratz baten modukoa da, esku-hartze prozesu berrian hartu beharreko bidea erakutsiko duena. Izan ere, pertsona ez baita «birjin» iristen puntu horretara, bizi ibilbide bat egina du dagoeneko.

Esku-hartze prozesuei lotuta kontuan hartu behar den bigarren elementua gizarte arazoaren izaera multidimentsionala da. Jadanik ukitu dugu gai hau, agente aniztasunaren koordinazioaren beharra aipatu dugunean. Pertsonak gizarte zerbitzu edo baliabide batengana jotzen du, arazo jakin bati irtenbidea bilatzeko helburuarekin; izebergaren punta dei diezaiokegu horri. Arazo hori ez da arazo isolatu bat, ez haren zioetan ezta haren ondorioetan ere, eta osoki aztertu behar da esku-hartze prozesuan.

Hirugarrenik, era honetako prozesu batean, jokoan daude inplikaturako agente guztien helburuak eta igurikapenak; ez soilik esku-hartzearen xede den pertsonarenak, baita, alde batetik, familia eta adiskideenak, eta bestetik, baliabide eta zerbitzuetako profesionalenak (eta boluntarioenak). Gainera, kontuan izan behar dugu helburu eta igurikapen horiek ez dutela zertan bat etorri. Beraz, esku-hartze prozesuaren hasierako fasean, zer lortu nahi den eta noraino irits daitekeen zehaztu, determinatu eta partekatu behar da inplikaturako agente guztien artean. Helburuak oso handinahiak izan daitezke, baina kontuan izan behar dira helburu horiek betetzeko aukera errealak. Esku-hartze proposamenaren errealismo neurria neurtu behar da. Ezin daiteke plan bat ezinezko helburuetan oinarritu, frustrazioa eragin dezakeelako, bai hasitako esku-hartzean bai etorkizuneko esku-hartzeetan. Ondorioz, prozesua hasi aurretik, denbora pixka bat hartu behar da kontu hauek guztiak baloratzeko, baita beste gai garrantzitsu hau ere: hots, agenteen inplikazio maila, esku-hartzearen subjektu-objektu den pertsonatik hasita (pertsona horrekin/horregan landu behar baita aldaketa prozesua bizi esparru batean edo gehiagotan). Horrekin batera, beste agenteen inplikazio maila ere aztertu behar da: zer ekarpen egin dezaketen beren ezaugarrien arabera, zer espero daitekeen arrazoiz haiengandik eta, batez ere, eta kasu zehatz bakoitzean, zertan gauzatuko den haien ekarpena.

Fase honetan eginiko alde aurreko programazio lana baliagarri izango da ebaluatzeko, alde batetik, zer mailataraino betetzen dituzten emaitzek helburuak, eta bestetik, ezarritako planaren egokitasuna helburuak lortzeko. Gainera, lortutako emaitzen arabera, beste helburu batzuk ezarri ahal izango dira.

Gizarte arloko esku-hartze prozesu orotan, subjektuaren eta zerbitzuaren arteko erlazioaren aurretik dauden elementu batzuk hartu behar dira kontuan. Hona hemen elementu horietako batzuk, C. de Robertisen arabera (1992): a) pertsonaren mobilizazioa; b) zerbitzuaren hautaketa; c) profesionalarenganako jarrera. Elementu horiek guztiek baldintzatu egingo dute, era batean edo bestean, esku-hartze prozesuan egin beharreko lana.

Laguntza jakin bat eskatu aurretik, bere ezinegona edo beharra adierazi aurretik, pertsonak egina du dagoeneko bidearen zati bat. Hau da, mobilizazio bat egon da. Arazotzat hartu du bere egoera, eta aurre egin

dio nolabait, bai hura gainditzen saiatu delako (eta horrek pertsonaren historiaren existentzia adierazten du arazoari dagokionez), bai arazoaren existentzia aitortu duelako (laguntza eskatzera bultzatu duena). Azken batean, estuasun eta sufrimendu sentsazio bat izan du, eta aldatzeko gogoia piztu dio horrek, egoera konpontzen ahalegintzeko. Horrela, pertsonak helburu eta xede batzuk ezartzen ditu, zehaztasun handiagoarekin edo txikiagoarekin, eta baliabide batzuk bilatzen ahalegintzen da, aldaketa gauzatzeko.

Litekeena da ere pertsonak ustekabeko egoera edo arazo bati aurre egin behar izatea. Kasu hauetan, beraz, ez dago aldez aurreko mobilizaziorik, eta profesionala da laguntza eskainiz agertzen dena, pertsonak izango dituen zailtasun eta premiei aurrea hartzen saiatzen dena. Larrialdi egoeren kasua da.

Bestetik, laguntza eskaintzen duen zerbitzuaren hautaketa ez da neutroa. Esku-hartzearen xede den egoera bizi duen pertsona denean eskaera egiten duena, pertsona horren ezagutzak eta zerbitzuari dagokionez aurretik izan duen esperientzia daude eskaeraren oinarrian. Zer iritzi duen zerbitzuari buruz, haren langile eta funtzioei buruz. Eskaera boluntarioa denean, itxaropentsu hurbiltzen da pertsona zerbitzura, konfiantzarekin, bere beharrei erantzuteko gaitasuna izango duelakoan.

Azkenik, kontuan izan behar da ere profesionalarekiko jarrera, bien arteko erlazioari ekin aurretik. Hasierean, estuasuna, beldurra eta mehatxua dira nagusi. Subjektuak hobetzeko igurikapenak proiektatzen ditu profesionalarengan, uste du kapaz izango dela bere egoera konpontzeko. Dena dela, profesional batekin harremanetan jartzea, arazo pertsonalak konpontzeko, mendekotasun egoeratzat ere har daiteke; hau da, pertsonak ezgai ikusten du bere burua bere arazoak bere kabuz konpontzeko. Laguntza eskatzea norberaren porrotaren adierazpen publikoa bihurtzen da.

Esku-hartzearen arrakasta, beraz, elementu horietako bakoitzak adierazten duen gatazka konpontzeko moduak baldintzatzen du. Izan ere, erantzunak hain talka gogorra eragin dezake, ekintza bera eragoztera irits daitekeela.

Ongizate agenteekin harremanetan jarri aurreko prozesua grafikoki adieraz daiteke horrela:



Laguntza eskatzaile potentziala testuinguru global batean murgilduta dago (ekonomikoa, politikoa, ideologikoa, kulturala, etab.). Eskaera, hortaz, pertsona horrek egiten duen analisiak (espontaneoki edo informazioen bidez) baldintzatzen du, testuinguru globalean gertatzen diren aldaketei buruz (hainbat arlotan: legedia, gizarte arazoak), eta horren inguruan egiten duen irakurketak, bere egoeraren eta ingurunearen arabera. Erakunde edo profesional jakin batek eskaintzen dizkion erantzun aukerak aztertzen ditu, eta informazioa eskatzea erabakitzen du, eskabidea egitea, etab.

Eskaera hau, kasu askotan iragazia, programa edo zerbitzura heltzen da, profesionalen bidez (gizarte langileak kasu askotan), eta langile horiek azertu egin behar dute nola, zergatik eta zertarako egin den eskaera; bezeroaren eskaera eta igurikapenak ulertu behar dituzte, erantzun egokia emateko.

Erantzuna programa, zerbitzu edo profesionalaren ahalmenaren arabera izango da, eta ahalmen horrek zerikusia du harrerako profesionalak entzuteko eta analizatzeko duen gaitasunarekin eta haren prestakuntza mailarekin. Baita bere antolakuntzaren ezaugarriekin ere, ingurunearekin, eta unean uneko gizarte politikarekin.

Lehenengo elkarrizketan, esku-hartze hipotesi bat egiten du profesionalak, bezeroaren portaeraren, eskaeraren adierazpenaren eta arazo estaliaren edo begien bistakoaren arabera. Hortik aurrera, pertsonaren erantzun gaitasuna edo nora ezezko ibilbidea hasten da, erantzun integralik gabeko espediente bat osatuz. Eta, hain zuzen ere, puntu honetantxe ehundu beharko genuke ongizate sareen etorkizuneko estrategia. Pertsonari arreta eskaintzeko moduan. Esku-hartzearen erdigunean kokatua, koordinazioa bultzatzea agente guztien artean, oinarritzat hartuz orientazio etiko berriak (C. de Robertis, 2003:62): *gizakiarekiko kombikzioaren etika*, izaki bakar modura; pertsona modura garatzeko eskubidearekin, eta gizartearen ongizateari ekarpena egiteko betebeharrarekin; *erantzukizunaren etika*, enpatia gaitasuna barne, bestearekin batera sentitzea; eta *eztabaidaren etika*, nolabaiteko berdintasuna ezartzen duena pertsonen artean; hau da, gizarte langilearen eta sistema-bezeroaren artean, proiektu komun bat partekatu, landu, erabaki eta garatzeko, horrek dakarren guztiarekin (gatazkak, negoziazioa, kontzesioak, akordioak bilatzea...); hots, laguntza, edota gizarte lana.

Egoera berri honetan, oinarri etiko handiko zeregin bat egotzen zaio Gizarte Lanari; hau da, elkartasunaren bertute zibikoak indartzea. «Politikarien eta goi karguen kontsignak itsu-itsuan betetzen dituzten gizarte zerbitzuek —S. Ginerren arabera (1988)—, beren altruismo eta elkartasun programa proposatu gabe, boterearen morroi izango dira, eta azkenean, ez-eraginkorrak». Kontua da nork eta nola egin dezakeen eraberrikuntza hau. Inozoa litzateke pentsatzea ongizatearen administrazio egituretatik (Estatukoak, autonomia erkidegoetakoak edo tokian tokikoak) edo pribatizazio politiken bidez bultzatuko den zerbait izango dela, eta errealagoa dirudi uste izatea elkargune berriak sortuz burutuko dela, elkarguneak Gizarte Laneko praktiken, beste diziplina tradizio batzuen (soziologia aplikatua, gizarte pedagogia, gizarte psikologia, etab.), gizarte mugimenduen eta ekintza politikoaren artean (Barbero, 2002:160). Elkargune ireki bat izango da, parte hartze errealari, sormenari eta pentsamendu estrategikoari irekia, eta —Barberok gehitzen duenez— «gizarte langilearen zeregina birformulatuko du, haren posizionamenduak eta prestakuntza: antza denez, jarrera edo pentsamendu korporatiboetan oinarritzen diren praktikak galtzaile izango dira. (...) Gune berri horretan, gizarte langilea ez da profesional bakarra izango (gizarte ikertzaileak, hezitzaileak, komunitatearen psikologoak, pedagogoak, etab.), eta beste agente batzuekin partekatu beharko du protagonismoa (biztanleriak, elkarteak, politikariak): sinergien unea da». Egoera berri honetan, ezinbestekoak dira agente aniztasunaren koordinazioa eta esku-hartzeen diziplinartekotasuna.

4. Ondorioak

Lan honetan, ongizate sareen etorkizuna aztertu dugu, herritartasun sozialeko eskubideak eraiki eta hedatzeko erronkari lotuta.

Hasteko, gizarte beharrei erantzuteko moduak identifikatu eta aztertu ditugu, modu bakoitzaren abantailak eta mugak deskribatuz. Hainbat motatako agenteen parte hartzeak duen garrantzia aipatu dugu, gizarte garatuetan bereziki: familia, oinarrizko laguntza sarea, merkaturia, ekintza boluntarioa eta esku-hartze publikoa. Era berean, gizarte ongizatearen sareen etorkizunari begira, agente guztien parte hartze aktiboaren eta proaktiboaren beharra nabarmendu dugu, erlazio sinergikoak eta elkarrekikotasunezkoak sortzeko.

Hala, historikoki zeregin hauetan era askotako agenteek parte hartu badute ere, faktore ekonomikoek eta politikoek, batik bat, batzuen protagonismoa indartu dute. Ongizate Estatu deiturikoaren krisiarekin eta ondorengo berregituraketarekin, xx. mendeko laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan, agerian gelditu da sarean lan egiteak duen garrantzia, sektore publikoaren eta gizarte ekimenaren arteko lankidetzeta, eta gizarte zibila berrindartu egin da, Hirugarren Sektorea izenekoaren jardueraren bitartez. Nolanahi ere, azkenaldiko historiako irakaspenek erakutsi digutenez, ezinbestekoa da Administrazioaren eta Gizarte Ekimenaren arteko gaizkiulertuak gainditzea, kultura *bitariko* bat bultzatzeko, errealitatearen eta gizarte ekintzaren izaera sistemikotik abiatuta.

Gainera, egoera berri honetan, xx. mende amaieran eta xxi. mende hasieran, beste gizarte eragile bat agertu da, hots, gizarte programa eta zerbitzuen kudeaketan irabazi asmoa duen merkaturia, eta horrekin batera, baita «laugarren sektorea» izeneko ere, sektore publiko, pribatu eta sozialen elkargunean kokatzen diren antolakuntzek osatua.

Agenteen ezaugarriak ikusi ondoren, lanaren bigarren zatian, ongizate sistemaren erronkak aztertu ditugu, norabide bikoitz batean, lan metodologiari eta agente aniztasunaren koordinazioari dagokienez. Erronka horietako bat, hortaz, esku-hartzearen xede den subjektuaren herritartasuna onartzea da, haren eskubideak eta betebeharrak onartzea, esku-hartzearen erdigunean kokatutako subjektu gisa, eta laguntza eskaintzea bere bizitzaren gaineko botereaz jabetu dadin. Zeregin hori baliabideen kudeaketa hutsetik haratago doan zerbitzu da. Helburu hau betetzeko, gizarte arazoei ekin behar zaie, diziplinartekotasunetik eta instituzioartekotasunetik, eta koordinazio lana eskatzen du horrek.

Gizarte zerbitzuen eta gizarte ongizatearen esparruan, begien bistakoa da koordinazioaren beharra, hiru eratako argudioek berresten dutena: araudi arloko argudioak, kalitatezkoak eta teorikoak. Koordinazioa eraginkorra izan dadin, baldintza batzuk behar dira: politika eta araudi esparru egokia; koordinatu beharreko agenteen identifikazioa; informazio egokia proposatutako helburuak betetzeko; konfiantzazko harremana agenteen artean; prozesuen instituzionalizazioa lankidetzeta hitzarmenen bidez. Gaur egun, komenigarria litzaiteke aurrera egitea bereziki azken hiru baldintzen garapenean.


Ikuspegi metodologikotik, koordinazioa beharrezkoa baldintza da, baina ez nahikoa gizarte herritartasuna hedatzeko; horrekin batera, beharrezkoa da ere pertsonarekin lan egitea, haren prozesuekin eta haren zailtasunekin. Ezinbestekoa da baldintza egokiak sortzea pertsonaren garapena bermatzeko, subjektu aktibo eta proaktibo gisa. Horregatik aldarrikatzen da akonpainamendua edo laguntza metodologia gisa, esku-hartzearen xede den pertsonaren uneak eta prozesuak aintzat hartuz. Uneei dagokienez, bizitza zikloaren etapa hartu behar da kontuan, puntu kritikoak, aldatzeko erabakiak eta pertsonaren testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoa. Prozesuei dagokienez, aldiz, bizitza historiari erreparatu behar zaio, gizarte arazoen izaera multidi-

mentSIONalari, arazoan zeresana duten agenteen helburu eta igurikapenei, eta espero diren eta lortzen diren helburuei. Gainera, eskaera egiteko motibazioa eta harremanaren aurreko elementuak ere hartu behar dira kontuan. Pertsona historia pertsonal batekin iristen da zerbitzu batera, agentei laguntza eske, eta horrek ondorengo erlazioa baldintzatu dezake.

Azkenik, amaierako laburpen gisa, esan daiteke historiaren irakaspenek agerian utzi dutela beharrezkoa dela eskubide sozialak bermatuko dituen politika eta araudi esparru bat ezartzea, herritartasun aktiboa erakitzeko. Dena dela, herritartasun hori biztanleriaren sektore guztietara zabaltzeko, talde ahulenetara bereziki, ezinbestekoak dira pertsonaren arazoetan esku hartuko duten prozesu eta dinamika berriak. Eta egoera berri honetan, ongizate agenteen arteko lankidetzara eraiki behar da, helburu komun bat betetzeko; hau da, herritartasun eskubideak bermatzea denontzat.

5. Bibliografia

- Aliena, R. (2008), *Los equilibrios del Tercer Sector. Una filosofía del pluralismo de funciones*. Hirugarren Sektorearen IV. Foroa, Madril, Luis Vives Fundazioa.
- Barbero, J.M. (2002), *El Trabajo Social en España*, Zaragoza, Mira arg.
- Casado, D. (1991), *Introducción a los servicios sociales*, Madril, Acebo arg.
- Bankinter Berrikuntzaren Fundazioa (2009), *Innovación social, reinventando el desarrollo sostenible, Future Trends Forum*. Bankinter Berrikuntzaren Fundazioaren 12. Argitalpena, <http://www.fundacionbankinter.org/es/publications/social-innovation-reinventing-sustainable-development>
- García Roca, J. (1992), *Público y privado en la acción social. Del Estado de Bienestar al Estado Social*, Madril, Popular arg.
- Giner, S. (1988), *Valores morales, intereses comunes y servicios sociales*, *Treball Social* aldizkarian (112 zk.), Bartzelona, Col·legi Oficial DTS i Asistentes Sociales de Catalunya.
- Giner, S. Sarasa, S. (1995), *Altruismo cívico y político social*, Institut d'estudis socials avançats, Working Paper, 95/13, Bartzelona, Universidad Pompeu i Fabra.
- Robertis, C. de (1992), *Metodología de la intervención social*, Bartzelona, Ateneo arg.
- Robertis, C. de (2003), *Fundamentos de Trabajo Social, ética y metodología*, Valentzia, Tirant Lo Blanch arg.



OLIVIER DE SCHUTTER

*PhD Lovainako Unibertsitate Katolikoan (UCL),
eta CPDR-UCLko kidea;
PhD Europako Eskolan*

Oinarrizko eskubide sozialak eta Europako Itunen helburu ekonomiko eta sozialen balantzea

Bere dimentsio historikoaren ikuspegitik, Europa soziala eraikitzeak bi ezaugarri nagusi ditu. Batetik, denbora luzez, Europa soziala ez zen berezko eskubidezko helburua izan, baizik eta Europako Erkidegoko estatu kideen eta ondorengo Europar Batasunaren arteko txertatze ekonomikoaren lagungarria. Eta, bestetik, pixkana-pixkana lege metodo ugari garatzen joan da, eta eragile andanaren esku-hartzea lortu du. Oraintxe bertan, funtsezkoa da Erromako Itunaren hornidura jakin batzuen, lege neurri batzuen eta Europako Justizia Auzitegiaren (EJA) jurisprudentzia batzuen emaitza. Alabaina, lege loturarik ez dakarten adierazpen politikoak egitearen emaitza ere izan da; esate baterako, Langileen Oinarrizko Eskubide Sozialen Erkidegoaren Gutuna (1989) eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2000) —Lisboako Itunari esker, legez loteslea bihurtu zen arte—, eta baita Europako elkarrizketa sozialaren eta estatu kideek enplegua eta gizarte bazterketaren aurkako borroka gaietan «irekitako» koordinazioaren emaitza ere. Metodo horien guztien nahasketa dela eta, oso zaila egiten da diagnostiko orokor bat ematea. Nolanahi ere, Europa soziala eratzekeo etapa historikoak identifika ditzakegu, eta bide beretik, etapa horiek esparru teorikoarekin erlaziona ditzakegu, lotzen dituen logikaren berri jakiteko.

Tesi honek argi azaltzen du oinarrizko eskubide sozialek zeresan handia dutela Europako Itunen helburu ekonomiko eta sozialen balantzean, eta eskubide horien rola gutxietsi egin dela orain arte; batez ere, nazioarteko eta Europako giza eskubideen legedian EBren legediaren erreferentzia sistematikoagoa ekarri beharko luketelako. Aldi berean, erreferentzia horrek ez du traba izan behar oinarrizko eskubide sozial berriak bilatzeko. Oinarrizko eskubide sozial berri horiek, bestalde, langileak edo birbanaketarako helburu hutsa duen Ongizatearen Estatu sozialaren dimentsioa babesten dituen ondare sozialaren defentsarantz begira egotea baino hobe lukete banako guztiak eskubide multzo berarekin parekatzea, globalizazio garaian egoera hobean egon daitezen eta ekonomiaren berregituraketan modu aktiboan parte har dezaten.

Proposamen honen oinarrian, mugimendu progresistaren gaur egungo egoeraren diagnostikoa dugu. Orain, eskuina bi aldetan banatuta dago. Alde bat merkatuen indarraren eta globalizazioaren aurka dago, uste baitu desberdintasun eta arrisku handiagoak sortzen ari direla eta, zehazki, ekonomia garatuenetako industria sektoreko langileen egoera hartzen du hizpide. Alabaina, industria oinarria bere horretan beharrez

doanez, eta enplegu kontratuak geroz eta indibidualizatuagoak direnez, eskuineko alde hori geroz eta baztertuago dago: gizadiaren interes unibertsalak defendatu beharrean, interes matxinatu batzuk defendatzen ari direla dirudi; bere hauteskunde barrutia etenik gabe ari da behera eta behera, nola biztanleria globalaren atal moduan, hala kontuan hartzeko eragile politiko moduan. Beste aldeak, berriz, oro har «sozialdemokrata» izenarekin ezagunak, zabaltze prozesuko eraginkortasun iturri moduan ikusten ditu merkatuak, eta Ongizatearen Estatu soziala hornitzen duen eta hazkunde ekonomikoaren hobekuntzak ekarritako irabaziak modu orekatuan banatzen dituen aukera multzotzat jotzen du globalizazioa. Eskuineko bigarren alde honek Europako bateratze ekonomikoaren aldeko apustua egin du; eta horixe izango da, beharbada, J. G. Ruggiek «liberalismo txertatu» moduan aipatzen zuenaren adierazpenik garbiena, II. Mundu Gerraren gerraosteko egoera ekonomikoaren ezaugarria (Ruggie, 1982). Egoera honetan, Ongizatearen Estatuaren arteko aduana oztopoa murrizteak edo desagerrarazteak baliagarria izan behar du Estatu bakoitzak bere herritarrei begira dituen birbanaketa gaitasunak goratzeko eta, era horretan, etxeko araudizko Estatu nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa osatzera bideratzeko. Merkataritzako irabaziek Ongizatearen Estatuaren onurarako izan beharko dute, Ongizatearen Estatuak nazioarteko merkaturako galtzaileak babesten dituen modu berean; eta hartara, nazioarteko merkataritzak politikoki gomendagarria den aukera izaten jarraituko duela ziurtatzen du.

Nolanahi ere, horrek ekarri zuen aurreuposatzea Ongizatearen Estatuak ez zukeela derrigortuta egon behar, merkatuaren liberalizazioaren presiopean, bere funtzio arautzaileei uko egitera. Eta, bide beretik, onartu zen etxeko politikan, Estatuak ez dutela motibaziorik izaten, printzipioz behintzat, euren nazioarteko lehiakortasuna hobetzeko premiagatik; esan nahi baita, ez daudela Ongizatearen Estatu izatetik «Estatu lehiakor nazional» izateko bidean, J. Hirschen (Hirsch 1995) kontzeptua erabilia. Dena den, Europa osatzeko lehenengo urratsetatik, kezka izan da nagusi; izan ere, merkataritzari jarritako oztopoen murrizteak eta EB barnean kapital askearen mugimenduak, onura eraginkorra eragiteaz gainera, EBko estatu kideentzako pizgarriak ere ekar ditzakete, beharrezkoak jotako legedi edo politikak onar ditzaten; gutxienez, bateratze honen ondorioz desabantailan egon ez daitezten. Azkenaldian esaten ari direnez, langileen kalterako izan liteke hori; batez ere, prestakuntza txikia dutenen kalterako, kapitala mugitzea baino gehiago kostatzen baita horiek mugitzea. Horregatik, Europa sozialago bat eraikitzeke deia egin dute, batez ere «zabor-tegi sozialerako» arrisku horrek bultzatuta, estatu kide guztietan babes sozialerako legedien askotarikotasuna egonda eta «eskubide oinarri» loteslerik gabe (Rhodes 1992).

Gaur egun, eskuineko bigarren alderdi hau ere huts egiten ari da; ikusi dugun moduan, ez baitu soilik Bretton-Woods-ekin lotutako «liberalismo txertaturako» aukera ahuldu zuten lehia arautzailearen arriskuak gutxiestera jo. «Liberalismo txertatuak», hain justu II. Mundu Gerrari jarraitu zion, eta hazkunde ekonomikoa mugagabe eta biziki indartsutzat jotzen zuen; eta, azken batean, aurrerabide ekonomikoaren bitartez lortutako irabaziak modu orekatuan langileen artean banatu ahal izateko etxeko gaitasun aurrerakoiaren idealizazio arruntzat.

Eskuineko hirugarren alde bat behar dugu orain, interes orokorra ordezkatzeko nahia justifikatuko duena; baina globalizazioaren eta ekonomiaren finantzaketa bizkorraren eraginak arintzen dituzten birbanaketarako politiken itzaropena baino harago joan beharko du. Oinarritzko eskubide sozialen multzo berri batek lagun lezake eskuin honen nortasuna definitzen.

Ekarpen honetan, lehenik eta behin, Europa Soziala eratzeko izan ziren etapa nagusien laburpena dugu. Jatorritzko itunetan, eskubide sozialak garrantzirik gabekotzat jo ziren, Europako Ekonomia Erkidegoaren etengabeko proiekturako; eta hori hala izateko izan ziren arrazoiak gogoratu ditu. Ondoren, Europa Soziala sortzeko etapa guztietan barrena ibiliko da, batera eta bestera. Gero, lortu denari buruzko gogoeta egin, eta

ondorioztatuko du oinarrizko eskubide sozialen erreferentzia are gehiago indartu beharko litzatekeela, EBren helburu sozialen eta ekonomikoen arteko oreka egokia finkatu ahal izateko. Alabaina, litekeena da horrelako erreferentzia bat ez izatea nahikoa, eta, beharbada, etorkizunean, beste eskubide multzo bat landu beharko da.

1. Hastapenak (1957-1974): Merkatu Bateratua

Agian, eskubide sozialen eta merkatu bateratuaren arteko harremana ulertzearekin hasi beharko genuke; izan ere, horixe izan zen joera nagusia Europako Erkidegoak ezarri zirenean. 1995. urtean, Lanaren Nazioarteko Bulegoaren Administrazio Kontseiluak hala eskatuta, Bertil Ohlin suitzar ekonomialaria buru zuen aditu talde batek «Europako Ekonomia Erkidegoaren Lankidetzarako Alderdi Sozialak» aztertu zituen. Eta ondorioztatu zuen merkatuaren beraren funtzionamenduak ekarri beharko lukeela, funtsean, bizi maila hobetzea eta merkatu bateratuaren lan baldintzak hobetzea; nola horrek ekarriko zukeen prezioaren ekualizazioarengatik (izan ere, langile ugari horien herrialdeetako soldatek nabarmen egingo lukete gora, eta ondorioz, herrialde horiek langile intentsitate handiko ondasun gehiago esportatuko lituzkete), hala lan eraginkorrenaren nazioarteko banaketari begira espero diren ekoizpen gorakadengatik (Ohlin *et al.*, 1955).

Ondorio honen oinarrian, neurri handi batean, garai hartarako merkataritza gaitako adituek Heckscher-Ohlinen teorema moduan ezagutzen zutena zegoen. Ohlinek 1933ko «Eskualde arteko eta nazioarteko merkataritza» liburuan azaltzen duenaren arabera, teoremak baieztatzen du herrialde bat ondasunen ekoizpenean espezializatuko dela, intentsitate handi samarrean erabiltzen dituen ekoizpen faktoreak erabilia; eta batere ekoizpen faktorerik ez duten produktuak inportatu egingo dituela (Ohlin, 1933)¹. Eta hortik ondorioztatzen da merkatuaren liberalizazioa faktoreen mugikortasunaren ordeko partziala izan litekeela, eta hemendik denbora batera, prezioak ekualizatzeko faktore bat ekarriko duela; izan ere, faktore ugariaren ordainsaria handitu eta faktore urriaren ordainsaria txikitzen du. Teoremak, beraz, nazioarteko merkataritzaren onurei begirako ikuspegi baikorra eskaintzen du: ikuspegi honetan, faktore horniduran izandako aldean araberakoak dira merkataritza fluxuak, eta horien eragin orokor garbia positiboa da; izan ere, faktore ugariena merkataritza den herrialdeetan autarkia egoeran baino sari handiagoak eskuratuko dira.

Ohlin aditu taldeak ispilatzen du, hein handi batean, baikortasun hori. Adituek argi eta garbi adierazi zuten fede handia zutela nazioarteko merkataritzak bizi maila hobetzeko zuen gaitasunean, herritar kategoria guztien onurarako, eta denborarekin, EB osora baldintza sozial hobeak eta berdintasunezkoagoak ekartzeko. Alabaina, aldi berean, aditu horiek onartu zuten emaitza horiek lortuko direla soil-soilik «Europako herrialdeetako sindikatu mugimenduaren indarra eta europar gobernuak helburu sozialekiko duten begikotasuna kontuan hartzen direnean, lan baldintzak hobetzea eta okerrera ez egitea bermatzeko» (Ohlin *et al.* 1955: 210. paragrafoa). Gainera, azpimarratu nahi izan zuten lan arauen «goranzko berdinketa» hori are errazagoa izango litzatekeela Europako herrialde orok bat egingo balu Lanaren Nazioarteko Erakundeak edo Gutun Sozialak onartutako nazioarteko hitzarmenekin, eta ondoren, negoziazio fasean, Europako Kontseiluak onartutakoekin. Adituen aburuz, baliagarria litzateke «Europako herrialdeek aipatutako hitzarmen horien xedapenak era zabalagoan aplikatzea sustatzeko eman litezkeen pausoak kontuan hartzea; eta ondorioz, Euro-

¹ PhD E.F. Heckscher-ek 1919an argitaratutako Artikulu baten eragina izan zuela onartu du Ohlinek, haren ikaslea izan baitzen. Ikusi Samuelson 1948, eta Flam eta Flanders 1991.

pako lankidetza ekonomiko zorrotzenarekin lotutako zenbait arazo sozial ebazteko tresna moduan xedapen horiek duten eraginkortasuna handitzea» (Ohlin et al 1955: 273. paragrafoa, at vi). Azkenik, adierazi zuten nazioarteko merkatu askeagoak sortuz gero, «sindikatuaren eta enplegatzaileen erakundearen artean nazioarteko harremanak sustatu litezkeela, hainbat herrialdetan industria beraren ordezkari moduan», eta horrek «langileek parte-hartze bidezkoago baterako eskubidea izatea bermatzen» lagundu beharko lukeela, «ekoizpena handitu ahal izateko»; eta, aldi berean, «soldatak, kostuak eta prezioak gehiegi handitzeko arriskua murriztu beharko lukeela, osterantzean, herrialde batzuetan, inflazio presioak ekarriko babiluzke» (Ohlin *et al.* 1955: 215. paragrafoa).

Ohlin txostenaren tonu nagusia, haatik, baikorra zen. Txostenaren ideia nagusia, hauxe zen: nazioarteko lehiakortasuna, merkatu bateratu baten barnean, ez litzatekeela traba izango ekoizpenaren gorakadarekin batera pixkanaka bizi maila hobetzeko; baina horretarako, ekoizpen faktoreen zirkulazio askearen bitartez baliabideak modu eraginkorragoan esleitu beharko dira. Etorkizuneko Europako Ekonomia Erkidegoarentzat, arlo sozialean lehiakortasuna atxiki izana ez zen ez beharrezkoa, ezta gomendagarria ere. Jakin badakigu hala azaldutako ikuspegiak eragin nabarmena izan duela Messinako gobernu arteko biltzarraren ondoren aurkeztutako Spaak txostenean, eta geroago, 1957ko martxoaren 25eko Erromako Ituneari (Barnard, 1996; Davies, 1993; Deakin, 1996, Kenner, 2003: 2-6). Azken horrek ez du aipatzen inolako eskubide sozialik. Europako Erkidegoari ez dio egozten arlo honetako lege eskumenik. EEEK, bere 118. artikuluan, xedatzen du «Batzordeak estatu kideen arteko lankidetza estua sustatzeko zeregina izango duela, arlo sozialean»; batez ere, enpleguarekin, laneko legedi eta lan baldintzekin, lanbide prestakuntzarekin, laneko gizarte segurantzaren, osasun eta segurtasunarekin, eta enplegatzaileen eta langileen arteko negoziazio kolektiborako eta asoziaziorako eskubidearekin lotutako gaitan. Xedapen berak dioenaren arabera, «helburu hori lortzeko, Batzordeak harreman hertsia izango du estatu kideekin; ikerlanak eginda, iritziak emanda eta kontsultak antolatuta, nola estatu mailan sortutako arazoei begira, hala nazioarteko erakundeei interesatzen zaizkien kontuei begira». Alabaina, Erromako Itunak klausula bat dauka EE Itunaren 119. artikuluan (gaur egun, egindako aldaketa batzuen ondorioz, EE Itunaren 141. artikulua), lan berbera egiten duten gizonen eta emakumeen soldaten berdintasun printzipioari buruzkoa; eta baita EEE Itunaren 120. artikuluan ere (gaur egun, EE Itunaren 142. artikulua), ordaindutako oporren erregimenei buruzko xedapenari dagokiona. Gainera, Europako Gizarte Funtsa merkatu bateratuan enplegu aukerak hobetzeko zereginarekin sortu zen; horretarako, langileen mugikortasun profesional eta geografikoa sustatuta, eta ondorioz, «bizi maila hobetzen lagunduta» (EE Itunaren 123. artikulua). Azkenik, EE Itunaren 51. artikulua (gaur egun, egindako aldaketa batzuen ondorioz, EE Itunaren 42. artikulua) xedatzen zuen hainbat neurri hartuko zituztela langile migratzaileen eta horien kargura dauden pertsonen taldekatzea bermatzeko, laguntza sozialetarako eskubideak lortzeko eta horiei eusteko xedez, eta estatuetako hainbat legedik aintzat hartutako denboraldietan horien zenbatekoa kalkulatzeko eta estatu kideen lurraldean bizi diren pertsonen laguntzak ordaintzeko xedez. Azken xedapen hori izan zen, hain zuzen, 1958ko² lehenengo araudia onartzeko oinarria, eta harrezkero egindako erregelamendu guztiak besteren kontura dabilzan langileen eta Erkidego³ barnean joan-etorrian ibil-

² Langile migratzaileen gizarte segurantzako 3. erregelamendua. 1958/12/16ko 3. DOK. 561/58 or.

³ 1971/07/05eko OJ L 149, 2. or. Erregelamendu hau askotan aldatu dute. Berriki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005eko apirilaren 13ko 647/2005 Erregelamendua (EE), besteren konturako eta norberaren konturako langileen eta Erkidego barnean joan-etorrian ibiltzen diren euren senitartekoen gizarte segurantzako erregimenei buruzko 1408/71 Erregelamendua (EEE) eta 1408/71 Erregelamendua (EEE) (2005/05/04ko L117 DOK., 1. or.) aplikatzeko moduak xedatzen dituen 574/72 Araudia (EEE) aldatzen dituena.

tzen diren euren senitartekoen gizarte segurantzako erregimenei buruzko 1971ko ekainaren 14ko 1408/71 Erregelamendu Kontseiluan (EEE) egonkortu ziren; izan ere, nahiz eta etengabe aldatzen egon, gaur egun, aplikatzeko moduko lege esparrua baita. Nolanahi ere, EE Itunaren 51. artikulua eta hori aplikatzeko baliagarriak ziren arauak (ezinbestekoak, langileen zirkulazio askea eraginkorra izateko; gizarte segurantzari buruzko hainbat estatutako legediek zigor zitzaten galarazi zutelako) ez zuten inolako ahaleginik egin lege horiek bateratzeko. Aitzitik, 1408-1471 araudiak askotarikotasun hori antolatu zuen.⁴

Erromako Itunaren egileek Ohlin txostenaren filosofiari begira duten zor nabarmena agerikoa da; izan ere, Europa bateratzeko helburu sozialak merkatu bateratua sortzearen mende jarri izan dituzte. Merkatu bateratua sortzeko oztupoak desagerraraztea tresna denez, aurrerabide soziala horren ondorioa izango da. Hala, EE Itunaren 2. artikulua (gaur egun, egindako aldaketa batzuen ondorioz, EE Itunaren 2. artikulua) xedatzen du «Erkidegoaren egitekoa, merkatu bateratu bat ezarrita eta estatu kideen politika ekonomikoak pixkanaka hurbilduta (...), bizi maila bizkor-bizkor hobetzea» dela. Ildo beretik, EE Itunaren 117. artikulua (gaur egun, egindako aldaketa batzuen ondorioz, EE Itunaren 136. artikulua) xedatzen du «estatu kideek langileek bizi-baldintza eta lan baldintza hobekuntza izan ditzaten sustatzeko premiari buruzko erabakiak hartu behar dituztela, hobekuntzari eutsi bitartean, horiek bateratu ahal izateko». Bigarrenak, berriz, estatuei adierazten die era honetako bilakaera bat gertatuko dela «bai merkatu bateratuaren funtzionamenduaren eraginez (...), baina baita Itunean aurreikusitako prozeduren eta lege, erregela edo administrazio xedapenen hurbilketaren eraginez ere».⁵ Europako Justizia Auzitegiak, hainbat erabakitan, jatorrizko Erromako Itunaren xedapen sozial horien izaera programatikoa egiaztatu du —xedapen horiek ez baitzien estatu kideei inposatzen lankidetzan jarduteko inolako lege betebeharririk, Itunak euren finkatutako helburu sozialak lortzeko asmoz—. Erabaki horien arabera, «bizi maila bizkor-bizkor hobetzea sustatzeari dagokionean, batez ere, (...) Europako Ekonomia Erkidegoa sortzea bultzatu zuten helburuetako bat izan zen, eta bere izaera orokorra dela tarteko, Merkatu Bateratua finkatzeari buruzko mendekotasun sistematikoa dela tarteko eta politika ekonomikoen pixkanakako hurbilketa dela tarteko, ezin ditu estatu kideak lege betebeharretar derrigortu edo ezin dizkie banakoei eskubideak eman».⁶ Horrenbestez, 1993ko⁷ martxoaren 17ko *Sloman Neptun* epaian, Justizia Auzitegiak Alemaniako legediari buruzko iritzia eman behar izan zuen. Legedi horren aurka egin zuten, ez zuelako debekatzen atzerriko herritartasuna zuten marinelak kontratatzea —kasu honetan, Filipinetako bost marinel—; gainera, ordainketa tasa txikiagoa zeukaten (alemaniar marinelen % 20ko soldata), eta baita lan baldintza kaskarragoak ere. Enpresa batzorde batek Auzitegi Gorenari eskatu zion onartzeko legedi hori ez zettorrela bat erkidegoko eskubidearekin; bai estatuen legez kanpoko laguntzen parekoa zelako, bai EEE Itunaren

⁴ Ondorioz, ondorengoak ez du jasotzen langile migratzaileen gizarte segurantzari buruzko inolako eztabaidarik.

⁵ EE Itunaren 136. artikulua klausula gehigarri bat dauka, besteak beste, «Erkidegoko ekonomiaren lehiakortasunari eusteko premia» aipatzen duena. EE Itunaren 117. artikuluko zenbait adierazpen ere aldatu egin dira; alabaina, estatu kideek (gaur egun, Erkidegoak eta estatu kideak) uste dute euren aurrerabide orekatua ahalbidetuko duten lan eta bizi-baldintzak hobetzea «ez dela soilik etorriko sistema sozialak bateratzeari mesede egingo dion merkatu bateratuaren funtzionamenduaren eraginez, baizik eta baita Itun honetan aurreikusitako prozeduren eta lege, erregela eta administrazio xedapenen hurbilketaren eraginez ere».

⁶ 126/86 Kasua, *F.R. Giménez Zaera* (1987), ECR 3697, 11. paragrafoa. Ikusi aurreko Kasua, 149/77, *Defrenne* (2. zk.), (1978) ERC 1365, 19. eta 31. paragrafoak; 170/84 Kasua, *Bilka-Kaufhaus GmbH*, (1986) ERC 1607; eta, oraingo honetan IAEE Itunaren testuinguruan, antzeko helburuen definizioak baititu, 3-18, 25 eta 26/58 Kasuak barne, *Barbara Erzbergbau eta beste* (1960), ERC 173.

⁷ C-72/91 Kasua, *Sloman Neptun* (1993), ERC I-887.

117. artikulua urratu zuelako. Auzitegiak, alabaina, uko egin zion arrazoibide horri; izan ere, azken xedapen horrek behartu egiten ditu estatu kideak «hirugarren herrialdeetatik datozen langileen ugaritasuna zaintzera, zabor soldatak eta lan merkatuko beste gorabehera batzuk saihesteko, eta Erkidegoan lanean hasiz gero, langile horiek aurrerabide sozialean parte har dezaten neurriak hartzeko». Haatik, EEE Itunaren 117. artikuluaen izaera programatikoa berretsi zuen: «Erkidegoko ekintzaren emaitza izan behar duena lortzeko helburu sozialak, estatu kideen arteko lankidetzak estua eta Merkatu Bateratuaren funtzionamendua baino ez ditu aipatzen» (25. paragrafoa).

Garrantzitsua da honen guztiaren esanahia ulertzea. Estatu kideak, hain zuzen, barne merkatu bat ezartzeko arauak errespetatzera derrigortuta badaude ere -Erromako Itunak Europako Erkidegorako ezartzen dituen helburuen hierarkian, irismen handieneko helburuak garatzeko tresna da, besteak beste, «bizi maila bizkor-bizkor hobetzea» (gaur egungo EE Itunaren artikulua «bizi-kalitatea eta maila hobetzea» aipatzen du); ez daude, alabaina, zuzenean helburu horri begira dauden neurriak hartzera derrigortuta, eta ez zaie debekatzen horiek gauzatzearen aurka doazela diruditen neurriak hartzea ere. Auzitegiaren aburuz, beraz, barne merkatu bat ezartzea ez da Erromako Itunaren helburu jakina; baina bada hainbat helburu sozial erdiesteko bitartekoa. Dena den, horrek ez omen dakar estatu kideek, euren erantzukizunekoak diren eskumenekin dabiltzanean, helburu horiek lortzeko lagundu behar izatea (Ball 1996; Majone 1993).

2. Bigarren fasea (1974-1985): Europa Sozialaren sorrera

Hamasei urte igaro ziren beste etapa bat etorri zenerako. Hain justu, Kontseiluaren ebazpen batean⁸ ageri den Gizarte Ekintzarako Programa bat onartu zenean gertatu zen, 1974ko urtarrilean. Aldi berean, Europako Erkidegoan hiru estatu kide berri sartu zirenez, gobernuek politika soziala bateratzeko borondatea erakutsi zuten, eta horretarako, euren eskura zituzten tresnak erabili zituzten —seguru egoteko, nahiz eta irismen txiki samarra izan—, Erromako Itunari jarraiki. Petrolioaren prezioaren gorakadak bultzatutako krisialdiaren ondorioak nabarmentzen hasi ziren; larrialdi egoera zen nagusi. EE Itunaren 100. artikulua (gaur egun, egindako zenbait aldaketaren ondorioz, 94. artikulua) Kontseiluari aukera eman zion estatuetako legedien hurbilketarako zuzentarauak, aho batez, emateko; betiere, merkatu bateratua ezartzean edo horren funtzionamenduan zuzeneko eragina baldin bazuten. Gainera, 235. artikulua (gaur egun, EE Itunaren 308. artikulua) dio, «merkatu bateratuaren funtzionamenduan», Erkidegoaren ekintza «beharrezkoa bada Erkidegoaren helburuetako bat lortzeko, eta honako Itun honek ez baditu ezarri beharrezko eskumen guztiak», Kontseiluak, Batzordeak aho batez hala eskatuta, eskumen inplizituak egikaritzeko baimena izango duela. Kontseiluak xedapen horiek erabiltzeko gomendatu zion Batzordeari, Erromako Itunaren helburu sozialak lortzeko bidean aurrerapausoak emateko asmoz. Erkidego mailan jarduteko premiak, ordea, handiagoa zirudien; izan ere, garapen paralelo batean, erkidego barneko merkataritza, zuzenean edo zeharka, modu errealean edo potentzialki, oztopa zezaketen merkataritza arauak aztertzen hasi zen Auzitegi Gorena, EEE Itunaren 30. artikulua debekatutako inportazioaren muga kuantitatiboan pareko eragina duten neurrien moduan.⁹ Jurisprudenzia horrek Erkide-

⁸ 1974ko urtarrilaren 21eko ebazpena, gizarte ekintzarako programa bati buruzkoa, OJ 1974, C013, 1. or.

⁹ 8/75 Kasua, *Dassonville*, 8/74 (1974), ECR, 837. or., 5. paragrafoa (1974ko uztailaren 11ko epaia).

goan txertatze «negatiboa» bizkortuko zela iragarri zuen, merkataritzarako oztopo zuzen zein zeharkako guztiak apurka-apurka kentzen joanda. Era berean, zuzenean edo zeharka, helburutzat eskubide sozial batzuk babestea zeukan lege multzo batek salgaien zirkulazio askearekin zuen bateragarritasuna aztertzerantz bultzatu zuen Auzitegia (Poiars Maduro, 1999: 453-455; Poiars Maduro, 1998). Ezinbestekoa zen, beraz, erkidegoan txertatze «positiborako» ahalegin handiagoa egitea. Eta halaxe jarri zen abian politika sozialaren bateratzea.

1975-1986 denboraldian (alegia, Gizarte Ekintzarako Programaren eta Europako Akta Bakarraren artean) onartutako zuzentarauak, batez ere, krisialdi ekonomikoaren eta industria eraldaketen geroz eta ugariagoak ziren eragin sozialak mugatzeko neurri moduan hartu ziren (Kenner 2003: 27). Badaude adibide garrantzitsu batzuk: 1975eko otsailaren 17ko Kontseiluaren 75/129/EEE Zuzentaraua, kaleratze kolektiboegi begira estatu kideetako legediak bateratzeari buruzkoa;¹⁰ 1977ko otsailaren 14ko Kontseiluaren 77/187/EEE Zuzentaraua, enpresak, negozioak edo enpresa zatiak eskualdatuz gero langileen eskubideei eusteari begira estatu kideetako legediak bateratzeari buruzkoa;¹¹ eta 80/987/CEE Zuzentaraua, enplegatzailearen kaudimen gabezia gertatuz gero soldatapeko langileen babesari begirako estatu kideetako legediak hurbiltzeari buruzkoa.¹² Zuzentarau horien helburua, beraz, Erkidegoko estatu kideetan langileen babesaren hein batean bateratzea lortzea zen. Kontseiluaren 80/987/EEE Zuzentarauaren atarikoan adierazten den bezala, asmoa ez zen estatu kideen arteko aldeak desagerraraztea, baizik eta «merkatu bateratuaren funtzionamenduan zuzeneko eragina izan dezaketen aldeak murriztea». Gainera, zuzentarau horiek gutxienezko arau batzuk inposatu zituzten, eta esplizituki, inolako aldaketarik gabe geratu zen estatu kideek langileentzat mesedegarriagoak diren xedapenak aplikatzeko edo ezartzeko duten gaitasuna. Ezaugarri horiek guztiak, ziur asko, oinarri juridiko moduan EE Itunaren 100. artikulua erabiltzeagatik finkatuko ziren. Printzipioz, Europako Erkidegoak politika sozialari begira dituen eskumen mugatuak kontuan izanda, Europako ongizatearen legea, ezinbestean, barne merkatuari laguntzeko legea da, gizartearen dituen eragin negatiboak leuntzeko asmoa duena. Alabaina, hemen modu esplizituagoan adierazten dena beste ideia bat da: Europako legedi soziala —orduan sortzen ari zena— modu positiboan baino gehiago negatiboan onartu behar izan zutela; izan ere, merkatu bateratua sortu izanak eragindako berregituraketaren ondorioak mugatzen zituen bai, baina ez zeukan Erkidegoa Europako eredu sozial jakin baterantz eramateko nahirik.

Denbora tarte horretan gizonezkoek eta emakumezkoek ordainsari berbera izateko egindako aurrerapauso ikaragarri guztiak ere eskubide sozialak barne merkatuaren zerbitzura diharduen tresna moduan ikusten dituen logika batek agintzen ditu, batez ere; nahiz eta Itunak berak merkatu bateratuaren proiektua bizi maila bizkor-bizkor hobetzea eta langileen lan eta bizi-baldintzak hobetzea sustatzeko aurkeztu zuen. Nolanahi ere, arlo horretan finkatu zen, pixnaka-pixkana, Erkidegoaren helburu ekonomikoaren eta

¹⁰ 1975/02/22ko OJ L 48, 29. or. 92/56/EEE Zuzentarauak (1992/08/26ko OJ L 245, 3. or.) aldatutakoa eta kaleratze kolektiboegi begira estatu kideetako legediak hurbiltzeari buruzko 1998ko uztailaren 20ko 98/59/EE Zuzentarauak (1998/08/12ko OJ L 225, 16. or.) bateratutakoa.

¹¹ 1977/03/05eko OJ L 61, 26. or. Gerora, Zuzentarau hau aldatu egin zen (Kontseiluaren 77/187/EEE Zuzentaraua (1977/03/05eko OJ L 61, 26. or.); Kontseiluaren 98/50/EE Zuzentaraua (1998/07/17ko OJ L 201, 88. or.)), eta berriki, bateratu egin da: 2001eko martxoaren 12ko Kontseiluaren 2001/23/EE Zuzentaraua, enpresak, negozioak edo enpresa zatiak eskualdatuz gero langileen eskubideei eusteari begira estatu kideetako legediak bateratzeari buruzkoa (2001/03/22ko OJ L 82, 16. or.).

¹² 1980/10/28ko OJ L 283. Harrezkero, testu hau aldatu egin du 2002ko irailaren 23ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/74/EE Zuzentarauak (2002/10/02ko OJ L 270/10, 10. or.).

helburu sozialen arteko oreka berria. Auzitegi Gorenak 1976ko Defrenne bere bigarren epaian EEE Itunaren 119. artikulua zuzeneko eragina berretsi zuenean —hein batean, aurreko urtean gai berari buruz onartutako Zuzentarauaren¹³ legedira geldo egokitu izana konpentsatzeko—, lehenik eta behin, lehia eraldatzea saihesteko premiaren oinarriaren gainean egin zuen, xedapen hori itunean sartzeko hasierako arrazoiari men eginda: estatu kide guztietan legedi sozialaren garapenak dituen hainbat etapari begira, 119. artikulua helburua da ordainsari berdinketa aplikatu duten estatuetan kokatuta dauden enpresek ez izatea lehia desabantailarik erkidego barneko lehian, ordainsari gaietan emakume langileen aurkako bazterketa oraindik desagerrarazi ez duten estatuetan kokatuta dauden enprekin alderatuta.¹⁴ Aldi berean, Auzitegiak adierazi zuen «bigarrenik, xedapen hori Erkidegoaren helburu sozialetako bat dela; ez dela bateratze ekonomiko bat besterik, baina bere asmoa dela, ekintza bateratu baten bitartez, aurrerabide soziala bermatzea eta bere herrien lan eta bizi-baldintzak etengabe hobetzea» (10. paragrafoa), eta era horretan, «helburu bikoitx horrek, aldi berean ekonomikoa eta soziala denak, argi adierazten du ordainketa berdintasunaren printzipioa Erkidegoaren oinarrietako bat dela» (12. paragrafoa). 1976ko otsailaren 9ko Kontseiluaren 76/207/EEE Zuzentarauak, enplegurako, lanbide prestakuntzarako eta lan baldintzetarako sardideari begira gizon eta emakumei tratua bera emateko printzipioa aplikatzeari buruzkoak,¹⁵ dagoeneko bidea irekita zeukan aste batzuk lehenago.¹⁶ Zuzentaru horrek botere inplizituen klausulari jartzeko errekurtsioa eratu zuen (EEE Itunaren 235. artikulua; gaur egun, 308. artikulua), eta horrek oinarri juridikoa eman zuen, ideia hau aintzat hartuta: «Gizonezko zein emakumezko langileen tratua berdintasuna, hain zuzen, Erkidegoaren helburuetako bat da; izan ere, hobetze bideari helduta, lan eta bizi-baldintzak bateratzea sustatu behar dugu».

Ondorioz, etengabeko pauso txikiei esker, Ituneko helburu sozialei txertatze ekonomikoarekin lotutako helburuen estatus bera eman zitzaion. 2000ko otsailaren 10eko Schröder epaian, sexu arazoak direla tarteko baztertua ez izateko eskubidea oinarritzko giza eskubideetako bat dela onartzearen ondorioak hizpide hartuta (Gortea derrigortuta zegoen horri eustera),¹⁷ Auzitegiak ondorioztatu zuen «Itunaren 119. artikulua bilatzen duen helburu ekonomikoa; alegia, estatu kideetan kokatutako enpresen arteko lehia eraldaketak desagerraraztearena, bigarren mailakoa dela xedapen berak bilatzen duen helburu sozialarekin alderatuta, oinarritzko giza eskubide baten adierazpena baita».¹⁸ Epai hori oso adibide ona da ikusteko nola 1970 amaierako Itunaren helburu ekonomikoen eta sozialen arteko orekaren pixkanakako negoziazio berria bultzatu zuten eta hori posible izan zen, hain justu, oinarritzko eskubideak Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian txertatu zirelako, Erkidegoko zuzenbidearen printzipio nagusi moduan, hainbat konstituzio

¹³ 1975eko otsailaren 10eko Kontseiluaren 75/117/EEE Zuzentaruak, gizonen eta emakumeen ordainketa berdintasunaren printzipioa aplikatzeari begira estatu kideetako legediak hurbiltzeari buruzkoa (OJ L 45, 19. or.).

¹⁴ 43/75 Kasua, *Defrenne Sabenaren aurka* («2. zk.»), (1976) ECR, 455. or. (9. paragrafoa) (1976ko apirilaren 8ko epaia).

¹⁵ OJ L 39, 40. or. Zuzentaru hau aldatu egin zuen 2002ko irailaren 23ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/73/EE Zuzentaruak (2002/05/10eko OJ L 269, 15. or.).

¹⁶ 76/207/ECC Zuzentaruak, luzatu egin zena 1978ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 79/7/EEE Zuzentaruak onartzeagatik, gizarte segurantzaren gaitan gizonen eta emakumeen tratua berdintasunaren printzipioa pixkanaka aplikatzeari buruzkoa (1979/01/10eko OJ L 6, 24. or.), oinarri juridiko moduan EE Itunaren 235. artikulua ere erabilita.

¹⁷ 149/77 Kasua, *Defrenne* («3. zk.»), (1978) ECR, 1365. or., 26. eta 27. paragrafoak (1978ko ekainaren 15eko epaia); 75/82 eta 117/82 Baterako Kasuak, *Razzouk eta Beydoun vs. la EREN Batzordea*, [1984] ECR, 1509. or., 16. paragrafoa (1984ko martxoaren 20ko epaia), eta C-13/94 Kasua, P. v. S. [1996] ECR, I-2143. or., 1. paragrafoa (1996ko apirilaren 30eko epaia).

¹⁸ C-50/96 Kasua, *Schröder*, (2000) ECR, I-743. or., 57. paragrafoa (2000ko otsailaren 10eko epaia).

auzitegi nazionalek adierazitako izuei aurre egiteko; izan ere, 1964. urtean ezarritako Erkidegoko zuzenbidearen nagusitasuna baieztatzeko joera estatu kideen konstituzio nazionaletan dagoeneko egonkortutako giza eskubideak urratzeko zorian zegoen.

Negoiazio berri horrekiko paraleloan, Erkidegoa bere ekintza zabaltzen joan zen laneko osasunaren eta segurtasunaren alorretara ere. 1975ean, berriro ere Erromako Itunaren botere implizituen klausularen oinarriaren gainean, Kontseiluak Bizitzako eta Laneko Baldintzak Hobetzeko Europako Fundazioa¹⁹ eratu zuen. Fundazioari aditu batzorde batek lagundu zion bere egitekoa gauzatzen, eta bere zeregina izan zen, hain justu, «lan eta bizi-baldintza hobekak ezartzen eta horren plangintza egiten laguntzea, garapen horretan laguntzeko ezagutza egokiak landu eta zabaltzeko asmoz».²⁰ Zehatz-mehatz, Erkidegoak azterketarako, azterlanerako eta ikerketarako aukera edukitzeko tresna izatea zuen helburu, lan eta bizi-baldintzak hobetzeak dakartzen arazoei sistematikoki ikuspegi zientifikoa eman ahal izateko. 1978. eta 1984. urteetan onartu zituzten osasun eta segurtasunari buruzko lehenengo ekintza planak. Laneko osasun eta segurtasunari buruzko lehenengo zuzentarau esparrua, berriz, 1980an onartu zuten; eta hain zuzen, lanean eragile kimiko, fisiko eta biologikoe-kin jarduten zuten langileen babesari buruz ziharduen.²¹ «Zuzentarau ahizpak»²² izenez ezagunak diren «banakako» zuzentarau batzuen bitartez osatu zuten.

Aurrerapen horiek guztiek bi kezka ekarri zituzten. Batetik, erkidegoan lanerako baldintzetarako gutxieneko babes atalaseak finkatzea, estatu kideek, beren lurraldean dauden enpresen lehiakortasunari kalterik ez eragitearren, maila handiko babes bermatzeko asmoa baztertu ez dezaten. Eta, bestetik, eskarmentu handia eta Estatu bakoitzarentzat definitutako irtenbideen alderaketa eskatzen duten arazo zientifikoetarako irtenbide egokienak bilatzea. Eta horrexek bultzatu zuen, hain zuzen, Erkidegoaren, eta ez soilik Estatu indibidualen, laneko osasun eta segurtasun arazoak ebazteko justifikazioa. Eskatutako eskarmentua zenbat eta espezializatuagoa izan, orduan eta gehiago dira baliabide ugari erabilita egin dituzten azterlanak (esate baterako, lan giroan hainbat substantzia kimikok dakarten arriskuari buruzkoa), eta orduan eta gehiago eskatzen zaie ikerlan horiek egiteko Europako agentziei (adibidez, Dublin Foundation), estatu guztientzako eskala ekonomiak ordezkatzeko baitituzte.

3. Hirugarren etapa (1985-1997): Europako Akta Bakarretik Amsterdamgo Itunera

1985-1986an, Europa sozialaren bilakaeraren beste etapa bat hasi zen. 1986. urtean, Espainia eta Portugal Erkidegoan sartu ziren (azkena sartzen Grezia izan zen, 1981ean), eta horrek zalantzan jarri zuen ea nola bizi zitezkeen elkarrekin esparru ekonomiko bakarrean garai hartan oso bestelako bizi mailak zituzten herrialdeak.

¹⁹ 1975eko maiatzaren 26ko 1365/75 Zuzentaraua (EEE), bizitzako eta laneko baldintzak hobetzeko Europako Fundazio bat sortzeari buruzkoa (1975/05/30eko OJ L 139, 1. or.).

²⁰ Arestian aipatutako 1365/75 Zuzentaruaren (EEE) 2. § 1. artikulua.

²¹ 1980ko arazoaren 27ko Kontseiluaren 80/1107/EEE Zuzentaraua, lanean eragile kimiko, fisiko eta biologikoe-kin jarduten duten langileek dituzten arriskuen aurkako babesari buruzkoa (1980/12/03ko OJ L 327, 8. or.).

²² Esate baterako, amiantoarekin lanean dabiltzanak: 1983ko irailaren 19ko Kontseiluaren 83/477/EEE Zuzentaraua, lanean amiantoarekin jarduten duten langileek dituzten arriskuen aurkako babesari buruzkoa (80/1107 / EEE (1983/09/24ko OJ L 263, 25. or.) Zuzentaruaren 8. artikulua esparruko bigarren Zuzentaraua, gerora 1991ko ekainaren 25eko 91/1382/EEE Zuzentaruak (1991/07/29ko OJ L 206, 16. or.) aldatu zuena.

Hala, «zabortegi sozialerako» beldurrak agertzen hasi ziren.²³ Zenbat arlotan, legedi nazionalak hurbiltzeko edo bateratzeko premia benetan argia zen, batez ere, ongizate sozialari dagokionean; eta are gehiago, jurisprudenziak txertatze ekonomiko «negatiboa» bultzatu zuenean, arau nazionalen pixkanakako erronka baten bitartez, merkataritzari oztopoak jarrita eta estatu kide bakoitzaren erregulazio erregimenak bata bestearekin lehia zuzenean jarrita. 1979ko otsailaren 12ko «Cassis de Dijon» epaian,²⁴ Auzitegi Gorenak salgaien zirkulazio askerako elkarrekiko aitortpenaren printzipioa berretsi zuen. Epaiak adierazi zuen Alemaniak ezin zuela debekatu bere herrialdera edari alkoholduinak inportatzea, «baldin eta estatu kideren batek legez ekoitzi eta merkaturatutakoak badira» (14. paragrafoa); betiere, oinarri alkoholduina duten produktu kategoria bakoitzerako gutxieneko alkohol kopurua finkatzen duen edari destilatuen salmentari buruzko araudi nazional baten eskakizunen arabera. Gortearen aburuz, aipatutako produktuen salmentari begira kaleratutako lege nazionalek erkidego barneko merkataritzari jarritako oztopoek ez lukete bateragarriak izan beharko inportazioaren muga kuantitatiboen pareko eragina duten neurriak debekatzearekin, salbuespen honekin: «Xedapenak aginduzko eskakizunak asetzeko beharrezkotzat jotzen badira, eta batez ere, zerga kontrolen eraginkortasunari, osasun publikoaren babesari, merkataritza eragiketen leialtasunari eta kontsumitzaileen defentsari begira» (8. paragrafoa). Alemaniako Gobernuak adierazi zuen, kontsumitzaileak gutxien babesten zituen araudiaren elkarrekiko aitortpena derrigortu izanagatik, pixkanaka-pixkanaka lehia desarautzeko modu bat nagusitzen joango zela Erkidegoan (horrek kiribil negatiboa ekarriko luke); eta ez zela egongo estaturik, estatu bizilagunetan indarrean dauden arauak baino arau zorrotzagoak ezarri nahi dituenik.²⁵ Argudio hori baztertzearan, baina horrek hainbat arau nazional inposatzea alde batera utzi gabe, salgaien zirkulazio askerako zenbait oztopo sortuagatik (beharrezkoak izan litezkeenak interes publikoaren lehentasunezko helburuak betetzeko), Gorteak ez zion uko egin zailtasun horri; alabaina, bazirudien bere ustez itunak bilatzen zuen zirkulazio askearen ondorio sailhestezina (baina, neurri batean, tamalgarria) izan zela.

Webb kasuan,²⁶ Auzitegi Gorenak gai bati heldu behar izan zion: ea itunak bermatutako zerbitzu eskaintzarako askatasuna bateragarria zen aldi baterako lana emateko zerbitzuen jarduerarako baimena eskatzen

²³ Kontzeptu hau definitzea, egia esan, bat-batean erabilia iradokitzen diguna baino konplexuagoa da berez. 1993. urteko *Europako Politika Soziala - Bateratzeko aukerak* Liburu Berdeak honela definitzen du «dumping soziala»: «Erkidegoko lehiarako abantaila bigabea, arau sozial onartezinetatik eratorritakoa» (Europako Erkidegoen Batzordea 1993: 7. or.). Ikusi, baita ere, *Europako Politika Soziala-Aurrepausa, bateratze bidean* Liburu Zuria, COM (94) 333 amaiera, 1994ko uztailearen 27koa, 19. paragrafoa (gai sozialetan gutxieneko arau bateratuen esparruaren alde egiten duena, gai sozialetako lehiakortasunaren arauak desagerrarazteko joeraren aurkako harresi moduan) eta 1994ko abenduaren 6ko Kontseiluaren Ebazpena, Europar Batasuneko politika sozialaren zenbait alderdiri buruzkoa: Europar Batasuneko garapen ekonomikoari eta bateratze sozialari egindako ekarpena, C 368 OJ, 1994, 4. or., 10. paragrafoa. Definizio horretatik ondoriozta daiteke estatu batek onartutako erregulazio politika hau edo beste bat ezin dela jo, berez, «dumping soziala», baizik eta soilik arau bateratu baten erreferentzia moduan; eta hori urratuz gero, hala egin duen estatuak lehiarako gehiegizko izaera daukala pentsatuko da. Halere, definizio ekonomiko zorrotzago bat ere erabil daiteke, merkataritza dumpingarekin zuzeneko lotura duena; horren bitartez, produktu bat bere ekoizpen kostuaren azpitik saltzen dute merkatuan, lehiakideei aurre egin ahal izateko. *Dumping* soziala, beraz, soldata praktika moduan ulertu behar dugu: langileei ekoizpen errealetik beherako soldata ordaintzen bazate edo soldaten mailak ez dionean jarraitzen ekoizpenaren gorakadari, lehiakideen aurka egin, eta lehiarako abantailari eutsi ahal izateko.

²⁴ 120/78 Kasua, *Rewe-Zentral AG v. Bundesmonopolverwaltung für Branntwein* [1979] ECR, 649. or. (1979ko otsailaren 20ko epaia).

²⁵ Ikusi epaiaren 12. paragrafoa, honako argudio hauek ematen dituena: Alemaniako Gobernuaren arabera, «alkohol edukia murrizteak lehiarako abantaila bermatzen du, alkohol eduki handiagoa duten edariek alderatuta; izan ere, alkohola da edarien produkturik garestiena, berez daukan zerga tasa altua dela tarteko». Gainera, «ekoizten den herrialdeak xedatutako arauak betetzen dituzten produktu alkoholduen zirkulazio askea nonahi baimentzeko, euren alkohol edukia kasu eginda, estatu kideetan baimendutako gutxieneko alkohol edukia Erkidegoan arau bateratu moduan inposatzea ekarriko luke, eta baita eremu horretako baldintza guztiak baliogabetzea ere; izan ere, beheragoko muga estatu kide batzuen arauetatik kanpo geratuko litzateke».

²⁶ C-279/80 Kasua, *Webb* (1981), 3305. or. (1981eko abenduaren 17ko epaia).

duen araudi nazional batekin. 1981eko abenduaren 17an emandako epaian esan zuen araudi hori «lanbide ikuspegitik eta ikuspegi sozialetik bereziki sentibera den» eremu batean ematen bada (18. paragrafoa), printzipioz, onartu egin behar dela,²⁷ nahiz eta adierazi zuen neurri hori «gehiegizkoa izango litzatekeela bilatzen den helburuarekin alderatuta, baldin eta lizentzia batek dituen baldintzak bat baldin badatoz baimena eratu-tako estatuan eskatutako proba eta bermeekin» (20. paragrafoa); eta hain zuzen, Auzitegi Gorenak zerbitzuetara ere zabaldu zituen bere «Cassis de Dijon» epaian jasotako irakaspenak. Harrera herrialdeko legea aplikatzearen ondorioz zerbitzuen eskaintza askeari jarritako oztopoak onargarriak izango dira soil-soilik jatorrizko herrialdearen araudiak ez badu bermatzen pareko babesik. Era berean, hilabete batzuk geroago, Justizia Auzitegiak adierazi zuen beste estatu kide batzuetan diharduten enpresaburuei ere eragiten dien araudi nazional batek estatu horretan dituen langileen enpresa kuota bertako gizarte segurantzari ordaintzera derrigortzen dituela (noiz eta enplegatzaileek dagoeneko bazutenean, enplegu denboraldi horietarako, langile horiei dagozkien antzeko zergen erantzukizuna), eta hori, azken batean, zerbitzuen eskaintza askeari jarritako oztopo bidegabea dela adierazi zuen, beste estatu kide batean finkatutako zerbitzuen hornitzaileak baztertzen baitira, lehenengo estatuan lanak egiten direnean.²⁸ Epaia araberan, horrek ez luke justifikazio handiagorik izango, nahiz eta «enpresak, lana egiten duen estatuan gutxieneko soldadari buruzko araudia betetzen ez duelako, eduki ditzakeen abantaila ekonomikoak konpentsatzeko» asmoa izan, eta Auzitegi Gorenak inplizituki onartu zuen elkarrekiko aitortpena derrigortzeak zabortege sozialerako arriskua ekarriko lukeela. Baina horixe zen, ziur asko, estatuei bateratze sozialerako bidean aurrera egitea bultzatzeko modurik onena; urte batzuk geroago argi eta garbi ikusi zenez, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak zerbitzuak eskaintzeko esparruan egindako langileen lekualdatzeari buruzko 1996ko abenduaren 16ko 96/71/EE Zuzentaraua²⁹ onartu zuenean. Eta hori izan zen, hain zuzen, 1990eko martxoaren 27ko Rush Portuguesa Limitada epaiari³⁰ eta honako epai honek zerbitzu eskaintzaren arloan langileen eskubideen babes txikiagoa duten estatu kideen bidegabeko lehia bizitu zuela adierazten zuten beldurrei emandako erantzun zuzena.

1985ean Jacques Delors Europako Batzordeko lehendakari izendatu zutenean, Europa bateratzeko bidean jauzi kualitatibo bat egiteko baldintza egokiak zeuden. Europako Akta Bakarra onartzea (1985-1986 bitartean negoziatua eta 1987ko uztailaren 1ean indarrean jarria), hain zuzen, Erresuma Batuak barne merkatuko lehian bizkorrago aurrera egiteko zuen borondatearen (horregatik jarri zuten 1992ko abenduaren 31ko data sinbolikoa) eta beste estatu batzuek (batez ere Frantziak) era honetako proiektu batean politika sozialeko beste aurrerabide batzuek ere izan beharko luketela-eta zeukaten kezka arteko nahasketaren emaitza izan zen. Batzordearen 1985eko Lan Programak esplizituki adierazi zuen lotura horren premia: «Merkatu handian eskuratutako ondorio positiboak desagertu egingo lirateke estatu batzuk, atzerapen so-

²⁷ «Estatu kideei baimena emango zaie legez aukeratzeko interes publikoan eraman beharreko politika eta lizentziak emateko sistema baten bitartez euren mugen barnean langileak hornitzeko modua zein izango diren; hain justu, jardura horiek lan merkatuko harreman onei kalteak eragin diezazkieketela edo zerikusia duten langileen interesak behar bezala babestuta egongo ez direla pentsatzeko arrazoiak biltzen dituzten egiaztagiriak baliogabetzeko asmoz. Batetik, estatu kideen artean lan merkatuaren baldintzei begira egon daitezkeen aldeei begiratuta, eta bestetik, era horretako jarduerak egikaritzearekin lotuta aplikatu daitezkeen irizpideen askotarikotasunari begiratuta, zerbitzuak hornitu behar zaizkion estatu kidea bera da, zalantzarik gabe, bere baimen nazionalen baldintza berberetan emandako baimena eskuratzeko eskubidea daukana» (19. paragrafoa).

²⁸ 62 eta 63/81 Baterako Kasuak, *Seco and Desquenne & Giral v. Etablissement d'assurance contre la vieillesse et l'invalidité*, (1982) ECR, 223. or. (9. paragrafoa) (1982ko otsailaren 3ko epaia).

²⁹ 1997/01/21eko 29 OJ L 18, 1. or.

³⁰ C-113/89 Kasua, *Rush Portuguesa Limitada v. Office national d'immigration*, [1990] ECR, I-1417. or. (1990eko martxoaren 27ko epaia).

zial baten bitartez, gainerakoekin alderatuta lehiarako abantaila lortzen ahaleginduko balira. Europako Esparru Soziala egoteak, beraz, saihestu egin behar du zabortege sozialaren jardun horietara jotzea, erabateko enpleguari begira kaltegarriak baitira guztiak ere».³¹ EEE Itunaren 8a artikuluan, Europako Akta Bakarrak —bere Atarikoan pauso garrantzitsua eman zuen, Giza Eskubideen Europako Konbentzioa eta Europako Gutun Soziala aipatuta— honelaxe definitu zuen barne merkatua: «Barne mugarik gabeko espazioa; Itunaren xedapenekin bat eginda, salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea bermatuko duena». Batzordeak erabakiko du zein izango diren «barne merkatua, pixkana-pixkana ezartzeko neurriak; 1992ko abenduaren 31n amaituko den denboraldian». EE Itunaren 100a artikulua berriak (gaur egun EE Itunaren 95. artikulua) helburu hori lortzeko bidea erraztu zuen; izan ere, Kontseiluari gehiengo kalifikatu bidez neurriak onartzeko aukera eman zion, salbuespen hauekin: zerga xedapenei aplikatzen direnak, pertsonen zirkulazio askearekin lotutakok eta besteren kontura dabiltzan langileen interes eta eskubideei buruzkoak.³² Baina bada gauza garrantzitsuago bat. Akta Bakarrak, aurreneko aldiz, hornidurak txertatu zituen Erromako Itunean, eta bertan azaltzen zen Erkidegoak bazuela bere zeregina alor sozialean. 118a artikulua berriak xedatzen duenaren arabera, Kontseiluak, gehiengo kalifikatu bidez, estatu kideei gutxieneko baldintzak eskatuko dizkieten zuzentarauak onartuko ditu, «hobekuntza sustatzeko asmoz, batez ere lanaren testuinguruan, eta hala, langileen osasunaren eta segurtasunaren babes handiagoa bermatu ahal izateko». 118b artikuluan, aldiz, Erkidegoan eztabaida soziala egiteari buruzko lehenengo erreferentzia jaso zen.³³ Azkenik, Europako Akta Bakarra Erkidegoko kohesio sozial eta ekonomikoa indartzen ahalegindu zen berehala, eta horrek beste izenburu bat ekarri zuen Erromako Itunera: egitura Funtsek (Europako Gizarte Funtsa, Nekazaritza Bideratzeko eta Bermatzeko Europako Funtsa eta Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsa) egindako ekintzen helburua, hain zuzen, eskualdeen arteko aldeak eta premia handieneko eskualdeen atzerapena murriztea zen.³⁴

EEE Itunaren 100a artikulua baimena ematen zion Kontseiluari, gehiengo kalifikatu bidez, barne merkatua sortzearekin behar besteko lotura zutela ematen zuten hainbat zuzentarau onartzeko, oinarri juridiko honen erabilera justifikatzeko.³⁵ Auzitegi Gorenak gerora egiaztatu ahal izan zuen moduan, zuzentarau batek barne merkatua ezartzeko helburua izateaz gainera, helburu soziala ere izate hutsak ez du baztertzen xedapen hori oinarri juridiko moduan edukitzea.³⁶ Hala, norbanakoaren babeserako ekipoei begira

³¹ Batzordearen 1985eko Lan Programa, Bull. EE, 4. gehig. / 85, 56. paragrafoa.

³² EEE Itunaren 100 A § 2 artikulua, Europako Akta Bakarraren 18. artikulua sartua.

³³ Xedapen honek honela dio: «Batzordea ahaleginduko da Europako solaskide sozialen arteko elkarrizketa bultzatzen, eta bi aldeek hala nahi izanez gero, erabakian oinarritutako harremanak ekarriko lituzke horrek».

³⁴ Europako Akta Bakarraren 23. artikulua, EEE Itunaren Hirugarren Zatiari V. Izenburua gehituta (130 A-tik 130 E-rako artikulua).

³⁵ 100 EEE Itunaren 100. artikulua (EE Itunaren 94. artikulua aldatu zuena) ez zen hain erraza lege oinarri juridiko moduan erabiltzeko; izan ere, guztien adostasuna behar zuen. Alabaina, denboraldi horretan, besteak beste, kaleratze kolektiboari begira estatu kideetako legediak bateratzeari buruzko 1998ko uztailaren 20ko Kontseiluaren 98/59/EE Zuzentaraua (1998/08/12ko OJ L 225, 16. or.) onartzea baimendu zuten.

³⁶ C-491/01 Kasua, *Regina vs. Osasunaren Estatu Idazkaria, British American Tobacco Konpainiaren alderdi ohia*, 2002ko abenduaren 10eko epaia (tabako produktuen ekoizpen, aurkezpen eta salmentarekin lotutako gaietan estatu kideek dituzten lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak hurbiltzeari buruzko 2001eko ekainaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/37/EE Zuzentarauaren baliagarritasunari buruzko aurretiazko erabaki eskaera (OJ L 194, 26. or.)). Cf., EE Itunaren 95. artikulua erabiltzearen mugari buruzkoa (aldaketaren ondoren, EEE Itunaren 100a artikuluari dagokiona), C-376/98 Kasua, *Alemania vs. Europako Parlamentua eta Europar Batasunaren Kontseilua*, (2000) ECR, I-8419. or. (2000ko urriaren 5eko epaia).

estatu kideetako legediak hurbiltzeari buruzko³⁷ 1989ko abenduaren 21eko Kontseiluaren 89/686/EEE Zuzentarauak justifikatu zuen barne merkatua sortzeko egindako bere ekarpena; izan ere, ohartu zen norbanakoaren babeserako ekipoei buruzko xedapen nazionalak (gehientsuenetan, xehetasunez betetakoak) oso bestelakoak direla estatu kide batean zein bestean, eta hori «merkatuarentzako oztopoa izan litekeela, eta ondorio zuzenak izango lituzkeela merkatu bateratua sortzeari eta beronen funtzionamenduari begira».

Ziur asko, dimentsio soziala barne merkatuaren sorrerara eramateko borondate horren adibiderik garbiena 1898ko abenduaren 8 eta 9an Estrasburgon Kontseilu Europarrak onartutako Langileen Oinarrizko Eskubide Sozialen Erkidegoaren Gutuna izan zen (Vogel-Polsky eta Vogel, 1992: 173-180; Bercusson, 1991: 195-295; Bercusson, 1996: 575-598; Betten, 1989; Hepple, 1990). Alabaina, Gutunak adierazpen politiko irmo baten tankera hartuko du, hamabi estatu kideetako hamaikak onartutakoa (Erresuma Batuak ez sinatzea erabaki zuen, eta ez dauka inolako ondorio loteslerik), eta ez du, gai sozialari dagokionean, Erkidegoari gehitzeko eskumenik. Hala, 27. artikulua adierazten du Gutuna aplikatzearen erantzukizuna, batez ere, estatu kideei dagokiela. Azkenik, oso nahi apalak ditu; izan ere, langileen oinarrizko eskubide sozialak baino ez ditu aipatzen; eta ez, Europako Batzordeak 1989ko maiatzeko eta irailerako proiektuetan³⁸ proposatu zuen bezala, oinarrizko eskubide sozial guztiak. Nolanahi ere, helburu bakarra dauka: estatu kideak eta Europako Erkidegoa bera oinarrizko eskubide sozial batzuk onartzeko lan egitera bultzatzea, nork bere eskumenen mugen barnean. Beraz, Erkidegoaren eskumeneko arloetan Batzordea Kontseiluari politika sozialei buruzko proposamenak egitera bultzatu izana da bere meriturik handiena.

Europar Batasunari buruzko Maastrichteko Itunak, 1992ko otsailaren 7an sinatu eta 1993. urteko azaroaren 1ean indarrean jarri zenak, ez zuen ekarri espero zitekeen politika sozialaren jauzi kualitatiborik. Politika Sozialaren Akordioak (hamabi estatu kideetatik hamaikak sinatua hori ere), Maastrichteko Itunean eranskin moduan joan zen Politika Sozialerako Protokoloan gehitutakoak, Akordioa sinatu zuten estatuetik politika sozialaren arloetan lankidetzeta estuagoa izateko hainbat modu ezarri zituen; izan ere, Protokoloak baimena eman zien «Itunaren erakunde, prozedura eta mekanismoetara jotzeko, euren artean aipatutako Akordioa praktikan jartzeko beharrezkoak diren ekintzak eta erabakiak hartu eta aplikatzeko asmoz» (Protokoloaren 1. paragrafoa) (Watson, 1993; Whiteford, 1993). Alabaina, Ekonomia eta Diru Batasunak —zalantzarik gabe, itun berriko gai nagusietako bat, eta bere erkidego dimentsioko gai nagusia— Batasunean, politika sozialaren gaiari berriz ekitea ekarri zuen, aurretik zehaztutako moduan. EE Itunaren 121 § 1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ekonomia eta diru batasunaren eta diru bakarraren hirugarren fasean parte hartu nahi duten estatu kideentzat Maastrichten ezarritako bateratze irizpideek derrigorrean eskatzen dute estatu horiek nork bere inflazioa kontrolatzea (printzipioz, ezin dute gainditu —ehuneko 1,5 puntutik gora— interesa duen estatu kidearen egoera aztertzeko egindako analisiaren aurreko urtean prezioen egonkortasunari begira garapen onena izan zuten hiru estatu kideen inflazioa). Era berean, barne produktu gordinari (BPGd) begira, urteko defizit publikoaren ratio bat (aurreko ekitaldi ekonomikoaren amaieran, ezingo du gainditu % 3), eta BPGd-ari begira, baita zorpetze publiko gordinaren ratio bat ere (aurreko aurrekontu ekitaldiaren amaieran, ezingo du gainditu % 60) inposatu zituzten. Irizpide horiek direla tarteko, deflazio politikak onartu ahal izan dira, baita hazkundearen eta epe laburreko enpleguaren kontura ere, nahiz eta gerora horrek erantzuna izan. Kontzientzia berri horren lehenengo zeinuak hazkundeari, lehia-kortasunari eta enpleguari buruzko Batasunaren Liburu Zuriarekin agertu ziren, 1993. urtean; eta Kontsei-

³⁷ 1989/12/30eko OJ L 399, 18. or.

³⁸ 1989ko maiatzaren 31ko COM (89) 248; eta COM (89) 471.

lu Europarrak 1993ko abenduaren 11n onartu zituen Liburu horren ondorioak (Europako Erkidegoen Batzordea, 1993). Alabaina, Liburu Zuriko proposamen guztiei jarraitzeko gogo bizirik ez zuten estatu kideek, eta ez zuten argi eta garbi onartu estatu kideetako enplegu politiken koordinazio hobearren premia zegoela, harik eta enpleguari buruzko ezohiko Kontseilu europarra egin zen arte, 1997ko azaroaren 20 eta 21ean, Luxenburgon —horixe izan zen, hain zuzen, soil-soilik enpleguari buruz egindako lehena—. Kontseilu Europar horren lorpen nagusia —eta ez da enpleguak orain Europako politikan hartu duen profirik altuena— Amsterdamgo Ituna indarrean jartzea aurreratzea izan zen. 1997. urtean sinatu zuten, eta 1999ko maiatzaren 1ean jarri zuten indarrean. Erromako Itunak enpleguari buruzko izenburu berri bat gehitu zuen eta estatu kideek euren «enplegu politiketan kontuan hartzen dituzten» enpleguari buruzko gidalerroak onarraziz zizkion Kontseiluari, Batzordeak halaxe proposatuta (EE Itunaren 128 § 2 artikulua).

Luxenburgoko Kontseilu Europarraren ondorioen arabera (2. paragrafoa), «helburu eta bitartekoen orientazio bateratu» horietara jotzea, beraz, estatu kideen eta Erkidegoaren «politika ekonomikorako jardunbide lerro nagusien» erduan oinarrituta uler daiteke. Maastrichteko Itunaz gero, ekonomia eta diru batasuneko estatu kideen politika ekonomikoetan bateratasun maila jakin bat bermatzea dute, hain zuzen, jardunbide horiek helburu. Estatuaren arteko elkarrekiko mendekotasunak euren politika ekonomikoaren definizioa (interese bateratuko auzi moduan) justifikatzen zuen bezalaxe, euren enplegu politikak ikuspegi³⁹ koordinatu baten zati izatea ere justifikatuta zegoen. Bestalde, estandarizazioak ez du baliokidetasuna esan nahi, eta EE Itunaren 128 § 2 artikulua xedatzen duenaren arabera, enplegurako gidalerroek politika ekonomikoaren orientazio nagusiekin «koherenteak izan beharko dute»; alegia, horien mende egoten jarraitzen dutenekin.

4. Laugarren etapa (1997-2009): Amsterdamgo Itunetik Lisboako Itunera

1997ko urriaren 2ko Amsterdamgo Itunak 1992ko Politika Sozialaren Akordioa EE Itunean txertatu zuen, berriro ere; Erresuma Batuko gehiengo politikoaren aldaketa esku-hartzaileari esker. Eraitza, oro har, ez zen batere ona izan (Betten, 1997; Robin-Olivier, 1999). Orain «xedapen sozialak» jasotzen dituen EE Itunaren atalak ez ditu formalki onartzen oinarritzko eskubide sozialak. Nahiz eta Erkidegoak eta estatu kideek «hainbat oinarritzko eskubide sozial kontuan hartuta» parte hartu arlo sozialean, «esate baterako, 1961eko urriaren 18an Turinen sinatutako Europako Gutun Sozialean edo Langileen Oinarritzko Eskubide Sozialen Erkidegoaren 1989ko Gutunean xedatutakoak» (EE Itunaren 136. artikulua), EE Itunaren 137. artikulua dio, apaltasun osoz, Erkidegoak «estatu kideen ekintza babestu eta osatzen» duela, hainbat eremutan (langileen osasuna eta segurtasuna, lan baldintzak, langileen informazioa eta kontsulta, lan merkatutik baztertutako pertsonen gizartratzea, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna, etab.), «pixkanakako aplikaziorako gutxieneko baldintza batzuk» izan behar dituzten zuzentarauak onartuta. Kontseiluak, halaber, aho batez onartu ahal izango ditu langileen gizarte segurantzarako eta babes sozialerako neurriak eta langileak kaleratuz gero horiek babesteko neurriak (langileen eta enplegataileen ordezkariak eta defentsa kolektiboan, legez Erkidegoan bizi diren hirugarren herrialdeetako pertsonen lan baldintza nazionalak zehazteko). Oraindik ere, erabat baztertuta geratzen dira, zeinahi bateratze modutan, elkartzeko edo ekintza kolektiborako (greba edo ugazaben itxiera) eskubideen ordainketak. Nizako Itunarekin, akordio

³⁹ Hauxe 1997ko abenduaren 20 eta 21eko Luxenburgoko Kontseilu Europarreko ondorioetan adierazi zutena: «Bi arloen arteko eta banakako Merkatu Egoeren arteko aldeak errespetatuta (bai enplegua sortzeko, bai politika ekonomikorako), helburu komunak, egiaztagarriak eta eguneratuak lortzeko bateratasunaren alde egin behar da».

politiko bat sinatu zuten 2000. urteko abenduan. Alabaina, ez zen indarrean jarri 2001eko otsailaren 1era arte. Ondoren, EE Itunaren 137. artikulua eraldatu zuen, aldaketa garrantzitsu bakarra eginda.⁴⁰ Amsterdamgo Itunari men eginda soilik bazterketa sozialaren aurkako borrokarako aurreikusitako koordinaziorako metodo irekia (KMI), EE Itunaren 137. artikulua aipatutako arlo guztietara zabaldu zen. 137§ 2a artikulua xedatzen du Kontseiluak estatu kideen arteko lankidetzak sustatzeko hainbat neurri hartu ahal izango dituela, ezagutzak hobetzeko, informazio eta jardunbide egokien trukea gauzatzeko, formula berritzaileak sustatzeko eta esperientziak ebaluatzeko ekimenen bitartez; betiere, estatu kideen lege eta araudiak bateratzeko ahalegin ororen salbuespenarekin.

2000ko martxoaren 23 eta 24ko Lisboako Kontseilu Europarrean sortu zen, egiazki, MMA; eta horixe jo zuten benetako aukeratzat, bai gobernu artekotasun garbirako eta estatuen arteko lehiakortasuna arautzeko, eta baita Erkidegoari eskumen gehigarriak emateko eta bateratze handiagoa lortzeko ere. Baina gobernu metodoen berrikuntzari begira berehalako bultzada, azken batean, kezka batek ekarri zuen; hain justu, globalizazio ekonomikoaren testuinguruan, estatu kideen lehiakortasun ekonomikoaren hobekuntza batetik eta kohesio soziala bestetik esparru orekatu batean uztartzeak sortutako kezkak. Lisboako estrategiaren helburua, beraz, Kontseiluaren ondorioetan argi adierazita dagoen moduan, ezagutzan eta ekonomian oinarritutako gizarterako trantsizioa prestatzea zen, «Europako Eredu Soziala modernizatzea, pertsonetan inbertituta eta bazterketa sozialari aurre eginda», eta baita hazkunde ekonomikoa sustatzea ere. Helburu horiek erdieste-ko estrategia global bat gauzatzeko asmoz, koordinaziorako beste metodo ireki bat ezarri zuten, «jardunbide egokiak zabaltzeko eta EBren helburu nagusiei begira bateratasun handiagoa lortzeko» (Lisboako Kontseilu Europarraren ondorioetako 37. paragrafoa).

Koordinaziorako metodo irekia, ororen ginetik, gobernatzeko modu bat da. Batasunaren gidalerroak ezartzean oinarritzen da, gerora estatuko eta eskualdeko politikak bihurtzeko. Horretarako, alderaketa egiteko eta parekoak ebaluatzeko hainbat adierazle ezarri behar izaten dira. Bitartekari sozialek eta gizarte zibileko eragileek parte hartuko duten ikuspegi deszentralizatu eta enplegurako eta txertatze sozialerako ekintza plan nazionalen ebaluazioak bermatutako koordinazioa uztartzea da helburua⁴¹. Eta dimentsio horretan jarri du arreta berezia, hain zuzen, komunitate zientifikoak (Scott eta Trubek, 2002; Pochet eta Magnusson, 2005). Bere ekarpena anibalentea izan da, Batasunaren barnean helburu ekonomikoen eta helburu sozialen artean oreka definitzearen ikuspegitik. Kasu batzuetan, gobernu nazionalak gai izan dira enpleguarekin lotuta Europako strategiaren esparruan onartutako gidalerro edo aholkuei jarraitzeko, edo bazterketa sozialaren aurkako borrokan onartutako helburu komunak aintzat hartzeko; bai euren iritzi publikoak onar ditzaten, bai onarpenik ez duten erreformak parlamentuetan onar ditzaten, legitimazio hori gabe, ziur asko, onartuko ez liratekeenak (Visser, 2005). Ongizateari eta enpleguari buruzko politika horien despolitizazioak, estatu kideek Batasunerako gomendatutako jardunbide egokienekin egindako instrumentalizazioarekin batera, hainbat erreforma egitea bultzatu du. Aldaketa horiek, hain zuzen, gizarte laguntzak aktibatze joera dute, eta eko-

⁴⁰ Bestalde, Nizako Itunak ezabatu egin zuen Amsterdamgo Itunaren bertsioan ageri den EE Itunaren 137. artikulua erreferentzia (Kontseiluak, aho batez, «enplegua sustatzeko eta enplegua sortzeko laguntza ekonomikoei (...)» begirako neurriak hartzeari buruzkoa) (ikusi EE Itunaren 137 § 3 artikulua, 5. paragrafoa, aurreko bertsioan). Gainera, Nizako Itunak aldatutako bertsio berriak ezartzen du EE Itunaren 137. artikulua arabera onartutako xedapenek «ez dutela eraginik izango estatu kideek euren gizar- te segurantzarako sistemaren oinarritzko printzipioak definitzeko duten eskubideetan, eta ezingo dutela eraginik izan, halaber, beronen finantza orekan»; Amsterdamen onartutako bertsioan, berriz, ez zen jaso puntu hori.

⁴¹ Metodoa ulertzeko, komenigarria da 2000ko lehenengo seihilekoan batasunaren lehendakaritza portugaldarraren pean bildu zen aditu taldeko kideen saiakuntzak kontsultatzea, Maria Joao Rodriguesek argitaratutakoak (Rodrigues, 2004).

nomikoki aktiboak ez direnak lan merkatuan sartzea bilatzen dute; batez ere, Europako joera demografikoek gure gizarte segurantzarako sistemen etorkizunari begira dakarten erronkari aurre egin ahal izateko. Oinarrian, kohesio soziala indartzeko helburua, txertatze sozialari begirako ekintza plan nazionalak onartzeagatik nabarmendu zena, sekula ez zen bereizi enplegu tasa handitu, eta hartara, egonkortasun makroekonomikoa bermatzeko helburutik. Hori guztia egia bihurtu zen 2005eko udaberrian, Lisboako estrategiaren bitarteko ebaluazio baten bidez, Kontseilu Europarrak estrategia berriz indartzeko hartutako erabakiarekin (izan ere, arreta handiagoa jarri zien hazkundeari eta enpleguari). Eta ondorioz, Kontseiluak hainbat gidalerro onartu zituen; azken batean, politika ekonomikorako eta enplegurako orientazioak direnak.⁴²

Koordinaziorako metodo irekia, hain zuzen, enplegu politikan (Luxenburgoko prozesua) eta bazterketa sozialaren aurkako borrokan (Lisboako estrategiaren esparrurik zabalenean) aplikatzen da; horregatik, ez dakar estatu kideek betebeharrak loteslerik onartu beharra, baina bai esperientzia nazionalen parte-hartze antolatutakotarako lotutako helburu komunak definitzea, estatu kideen arteko ikaskuntza sustatzeko asmoz. Era honetan, gertakari hauekin zerikusia duten eragile guztiak hiztegi bateratua erabiltzen hasi dira; eta horrek argi ispiatzen du aurre egin beharreko erronkak eta 2000ko martxoko Lisboako Europar Kontseiluan⁴³ definitutako helbururantz aurrera egiteko bitartekoak modu berean hautematen dituztela. Babes Sozialerako Komiteak garbi adierazten du 2002ko abenduan Enplegu, Politika Sozial, Osasun eta Kontsumitzaileen Kontseiluari aurkeztutako txostenean jasotako aldaketa horien bitartez ikus dezakegun ideia nagusia. Kontseilu horrek, hain zuzen, bazterketa sozialaren aurkako borroka buruzko MMAREN helburu komunak (hasiera batean, 2000ko abenduan, Nizako Kontseilu Europarrak onartu zituenak) aztertu zituen: «Enplegua da bazterketa sozialaren aurkako babesik onena. Kalitatezko enplegua sustatzearen, ezinbestekoa da enplegarritasuna handitzea; batez ere, etengabeko trebetasunak era irakaskuntzak eskuratzea bultzatzen duten politiken bitartez. Enpleguarekin lotutako Europako strategiaren baitan Europar Batasunak onartu dituen helburuak aplikatzea, horrenbestez, bazterketaren aurkako borrokarako funtsezko ekarpena da. Hazkunde ekonomikoak eta kohesio sozialak elkar indartzen dute. Hala, kohesio sozial handiagoa eta bazterketa gutxiago dituen gizarteak sortzea alde aurretiko baldintza da, etekin ekonomiko hobea izateko. Babes sozialerako sistemek ere zeregin garrantzitsua dute. Testuinguru horretan, laguntza nazional eta soziala, eta baita gutxieneko errentak ere, zinez tresna garrantzitsuak dira babes sozialerako politikan. Enplegurako sarbidea erraztuko duten babes sozialerako sistema modernoak sortzea, beraz, benetan garrantzitsua da Estatu sozial aktibo baten testuinguruan. Erretiro garaiko pentsioek eta osasunaren arreta eskuratzeko moduak ere zeresan handia dute bazterketa sozialaren aurkako borrokan».⁴⁴

Proposamen orokor hau dezente indartu zen 2000-2010eko Lisboako Estrategiaren bitarteko berrikusketaren ondoren. Holandako Lehen Ministro Ohia (W.Kok) buru zuen goi mailako aditu taldearen 2004ko

⁴² 2005eko martxoaren 22 eta 23ko Bruselako Kontseilu Europarraren ondorioetan (Kontseiluaren 7619/1/05 dok., 1. berr.) hauxe adierazi zen: «BEGPk, politika ekonomikoaren koordinaziorako tresna nagusia denez, politika makroekonomiko eta mikroekonomikoaren multzo guztia biltzen jarraitu beharko luke, eta baita enplegu politika bera ere; izan ere, politika horiekin elkarrengiaren dabil. BEGPK strategiaren hiru alderdien (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) arteko koherentzia ekonomikoaren alde egingo du» (38. paragrafoa). 2005eko apirilaren 12an, Batzordeak hazkundeari eta enpleguari begirako gidalerroak aurkeztu zituen, 2005-2008 denboraldirako.

⁴³ Ikusi, zehazki, Politika Sozialaren Agenda (2000-2005) (Europako Erkidegoen Batzordea, 2000), 2000ko abenduaren 7-9ko Nizako Kontseilu Europarrak onartutakoa; eta Europako Erkidegoen Batzordea, 2004.

⁴⁴ Txirotasunaren eta bazterketa sozialaren aurkako borroka: Ekintza Plan Nazionalen bigarren txandarako helburu komunak, 2002ko azaroaren 25a (Kontseiluaren 14164/1/02 dok., 1. BERR.).

azaroko txostenak,⁴⁵ berehala Europako Batzordeak⁴⁶ eta Batasuneko Kontseiluak onartutakoak, adierazi zuen Lisboako estrategiak ez zituela erdietsi esperotako emaitzak; bereziki, gehiegi kargatutako agenda bategatik, lehentasun gatazkatsuengatik eta estatu kideen arteko konpromiso gabeziagatik. Hazkunderari eta enplegua sortzeari buruzko ikuspegi berria lehentasunezko tokia hartzera zihoan Lisboako Estrategian aurretik definitutako hiru kapituluetakoa batean (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa), 2001eko uztaileko Göteborgeko Kontseilu Europarrak⁴⁷ berrikusi zuen moduan. Kohesio soziala estatu kideek enplegu gaitan duten egitekoan hobekuntzak txertatzeko dagoen premiaren emaitza moduan definitzen da. Oraindik ere bete gabe dagoen helburua da hori. Nolanahi ere, erreformarako ahalegin guztiek arreta txikiagoa eskainiko diote bazterketa sozialari eta handiagoa, aldiz, enplegu gaitako pizgarriei. Gainera, hainbat hornidura egingo dira, besteak beste, honako hauek bermatzeko: lan merkatuaren malgutasuna eta enpleguaren segurtasuna uztartzea, lan mugikortasuna sustatzea eta enpleguan segurtasuna ziurtatzea (gaitasunak egokituta eta hobetuta), eta lanpostuari eusteko lege eskubidea sustatu baino gehiago, enpresa berriak sortzen laguntzea.

5. Bosgarren etapa (2009-): Lisboako Itunaren ondorenekoa

Lisboako Estrategiaren bitarteko berrikusketa dugu, behin-behinean, helburu ekonomiko eta sozialek Europaren integrazioaren historia laburrean izandako dialektikaren azken ekintza. Goizegi da, oraindik, horren eragina ebaluatzeko. Alabaina, etapa honetako hiru ondorio nabarmentzen dira, gainerakoen ginetik. Aztertu dugun dinamika nagusia merkatu bateratu baten eraikuntzaren dimentsio sozialaren hutsegitetik 70-80ko hamarkadako bateratze sozialerako aurrerapauso handirantz joan da, eta baita 90eko hamarkadaren amaieran izandako dezeleraziorantz ere. 1986ko Europako Akta Bakarrak adierazitako nahiak —1992ko abenduaren 31rako barne merkatu bat osatzea— eta 1992ko Maastrichteko Itunean definitutakoak —ekonomia eta diru batasuna eta Euroguneko estatuen artean diru bakarra sortzea, 1999an— ekonomia eta diru bateratzean aurrerabidea ikusteko nahia sortzen dute bi-biek, ongizate sozialaren testuinguruko aurrerapausoekin lagunduta. Alabaina, hainbat eta oso bestelako teknikak erabili izan dira. Hasteko, arau ekimenak onartu dira; berriki egindako fasean, berriz, estatu kideen arteko koordinazio irekia, enplegu politikiei eta bazterketa sozialaren aurkako borrokari buruz. Mugimendu horietako bakoitza laguntzeko, oinarrizko eskubideen erretorika jakin bat: 1989ko Langileen Oinarrizko Eskubide Sozialen Erkidegoaren Gutuna; eta atzetik, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna, 2000ko abenduan Nizan egin zen Goi Bileran onartua (Sciarra, 2004). Nolanahi ere, testu horiek eragin mugatua eta zehatza izan dute politika sozialaren eremuan; eta ez ez direlako juridikoki lotesleak, baizik eta gutunek ez dutelako aldatzen estatu kideen eta Europako Erkidegoaren artean dagoen eskumenen banaketa. Oinarrizko Eskubideen Gutunak, esate baterako, oinarrizko eskubide sozialen tokia handitu dezake, nolabait, erkidegoko legeak eta politikak egitean; eta eragina izan dezake

⁴⁵ Erronkari aurre egitea: *hazkunderarekin eta enpleguarekin lotutako Lisboako Estrategia* (2004ko azaroa).

⁴⁶ Europako Erkidegoen Batzordea (2005).

⁴⁷ Lisboako Estrategiak jasotzen zituen berriz ekiteko moduak berretsi zituen Udaberriko Kontseilu Europarraren Komunikazioan, Batzordeak honako hau proposatu zuen: «Lisboaren programa, garapen iraunkorren helburuekiko modu koherentean, hazkundera eta enplegua sustatuko duten ekintzetara bideratzea. Estrategia horretan txertatutako ekintzek Batasunak bere ingurumen helburuak eta helburu sozialak betetzeko eta are gehiago garatzeko duen gaitasuna indartu beharko dute. Alabaina, erronkari begira, beharrezkoa da Europa bide onetik ez doan arloetara bideratutako estrategia bat definitzea orain (esate baterako, gure hazkundera duen etena eta sortzen den enplegua nahikoa ez izatea)» (Europako Erkidegoen Batzordea, 2005: 13).

Europako Justizia Auzitegiak, batetik, zirkulaziorako eta lehiarako eskubidearen askatasun ekonomikoen, eta bestetik, eskubide sozialen arteko oreka definitzeko daukan moduan (De Schutter, 2002; Hervey eta Kenner, 2003). Baina, jakina, hori ez da nahikoa emaitzan dagoen desoreka aldatzeko; izan ere, barne merkatutako arauak Erromako Itunean eta hortik eratorritako zuzenbidean daude definituta. Lan arloko legedia eta babes soziala, berriz, estatu kideetan erabakitzen dituzte, batez ere (De Schutter, 2000). Europa soziala sortzea are gauza zailagoa dirudi etorkizunean; Batasuna 27 estatu kidera zabaldu zenetik, arlo horretako erabakiak hartzea benetan neketsua eta zaila baita, estatu kide bakoitzak daukan ikuspegia bestea ez bezalakoa dela kontuan izanda. Enpleguari eta bazterketa sozialaren aurkako borrokari aplikatutako koordinaziorako metodo irekiak pentsio eta osasun arloko erreformei begira pentsatuak ere badauden arren, horien helburu nagusia da ekonomia eta diru esparru bateratu baten barnean estatu kideek duten elkarrekiko mendekotasuna kontuan izatea, horietan guztietan diziplina komun bat inposatzeko asmoz eta estatu jakin batek erreforma ekonomikoen gabezia (edo gaizki diseinatutako erreformak) izateak arlo horri begira beste estatuengan ondorio negatiborik izan ez dezan saihesteko. MMA horien helburu lehena ez da, ordea, estatu kideen arteko lehiakortasuna desarautzeko dagoen arriskua mugatzea; hori, seguru asko, oinarrizko eskubide sozialen babesaren kalterako izango litzateke. Nolabait, MMAk justu kontrako ondorioa izaten dute. Pare erregularren arabera, berrikusketaren presiopean, herritarrek nekez onartuko dituzten erreformak egitera bultzatzen dituzte estatuak; eta horrek, jakina, kaltea eragiten dio, gutxienez epe laburrera, kohesio sozialari. Estatu kideen jardun ekonomikoa hobetzeko beharrezkoak diren erreforma ekonomiko horiek hauteskunde gorabeheretatik urrun jartzen dituzte MMAk, eta hainbat gobernu nazionalen arteko jarraikortasuna finkatzen dute. Inbertitzaileak erakartzeko asmoz Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialdeetatik datorren eta izugarri zabaldu den «lehia liberalizazio» edo «zabortegi sozialerako» arriskua (arrisku horri buruzko hainbat ikuspegi ikusteko: cf. Vaughan-Whitehead, 2003 eta Europako Erkidegoko Batzordea, 2004) ez da jotzen Batasunerako beharrezkoak diren erreforma ekonomikoei begira euren rola ez jokatzeko estatu batzuek daukaten arriskua bezain errealtzat. Hain zuzen, «munduaren ezagutzan oinarrituta, Batasuna ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena bihur dadin; hazkunde ekonomiko iraunkorra izateko gai izango dena, enplegu gehiago eta hobekia eta kohesio sozial handiagoa izanda», 2000ko martxoaren 23 eta 24ko Lisboako Kontseilu Europarrean definitutako helburu estrategiko berriarekin bat eginda (5. paragrafoa).

Ondorioz, funtsezkoa da erreforma ekonomikorako prozesuak (eta baita lan merkatuen erreforma eta lana errentagarria izateko ongizate sozialerako sistemen modernizazioa ere) oinarrizko eskubideei egindako erreferentziarekin lotura izatea (Smismans, 2005; Lo Faro eta Andrónico, 2005). Goi mailako taldeak Europar Batasun zabalduko politika sozialari buruzko iritzia eman du, eta bere aburuz, «zabortegi sozialerako» izuak neurri batean baino ez dira eduki behar; batetik, estatu kide berrien (batez ere, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako zortzi herrialdeak) eta estatu kide zaharren arteko lan kostuen aldeak ekoizpen errearen arteko aldeei dagozkielako, eta denborarekin murriztu egingo direlako; eta, bestetik, EBko estatu kide guztiek nazioarteko konpromisoetan parte hartzen dutelako, bai Lanaren Nazioarteko erakundean eta baita Europako Kontseiluan ere (Europako Erkidegoen Batzordea, 2004: 13). Ikusi dugun moduan, azken argudio hori erabili dute 1956ko Ohlin Txostenean. Baina ez dute kontuan izan, nazioarteko konpromisoen itxurako nortasunaz harago, konpromiso horien irismena eta berauek egikaritzeko moduak asko aldatzen direla estatu kide batetik bestera. Ondorioz, bada, Europar Batasunean, estatu kideek oinarrizko eskubide sozialen behaketa lana zain dezaten mekanismo bat ezartzeko justifikazioa, estatuen artean gehiegizko aldeak egoteko arriskua murrizteko eta Europa sozialaren erdua indartzeko (De Schutter, 2005).

Lehiakortasuna desarautzeko arriskua mugatua bada ere, Europar Batasun zabaldua kontuan hartuz gero, handitze horrek, estatu kideen arteko aldeek beren horretan dirautenez, enpresak berregituratzeko prozesua

bizkortzea izango du ondorio, Europako esparru ekonomikoaren barnean lehia handieneko eskaerei egokitzera derrigortuta. Berregituratze horiek ez dira, berez, arraroak edo ezohikoak; aitzitik, Lisboako Estrategiaren zati dira. Izan ere, testuinguru globalizatuan, Europar Batasunaren lehiakortasuna indartzeko tresnatzat hartzen ditu Estrategia horrek. Alabaina, industria sektore arriskutsuetan, eragin sozialak nahiko nabarmenak dira; horregatik ematen zaio berebiziko garrantzia estatu kide «zaharren» eta «berrien» arteko berehalako elkartasunari, azken horiei eguneratzen lagundu ahal izateko (egitura funtsen zeregina, zalantzarik gabe, funtsezkoa da kohesio ekonomiko eta soziala bermatu ahal izateko), eta baita ere, jakina, estatu bakoitzaren barneko elkartasunari, berregituraketak mehatxatutako sektoreen arteko elkartasunari eta gehiago babestutako beste sektore batzuen arteko elkartasunari.

Nolanahi ere, gaur egun buruan dugun galdera da ea estatu kideek ez ote dioten uko egin sektore ahulentzako babes egokia bermatzeko gaitasunari (1999ko gremioa, Ferenczi, 2005). Izan ere, batetik, ekonomia eta diru batasunaren zati direnez, ezarri zaien aurrekontu diziplinaren (egonkortasun eta hezkunderako itunean⁴⁸ sinatua) mende daude. Eta, bestetik, benetan zaila egiten zaie defizit publikoak ordaindu ezin ditzakeen programa sozialak ordaintzeko asmoz zergak igotzea. Zehazki, gaur egun onar daitezkeen zerga erreformek mesede handiagoa egiten diete, sistematikoki, enpresei eta ez etxebizitzeei; eta errenta pertsonalaren zergak ordaintzeari dagokionean, mesede handiagoa herritar aberatsenei, eta ez txiroenei. Honen guztiaren mekanika benetan sinplea da: estatuek arinkeriaz tratatzen dituzte faktorerik mugikorrenak (adibidez, diru sarrera handienak dituzten enpresak eta partikularrak dira, oro har, Europar Batasunean mugikortasunari etekin handiena ateratzen diotenak); izan ere, faktore horien gaineko zerga handiegiak ordaindu beharrak beste toki batera bizitzera joatea ekar lezake ondorio moduan. Enpresek non inbertitu erabaki behar dutenean horiei gidatzeko faktoreen artean zerga karga bigarren mailan geratzeak ez du garrantzi handirik (hain zuzen, merkatuen azpiegituren kalitateak edo eskura dauden langileen gaitasun mailak baino garrantzi txikiagoa). Enpresek kokalekuz aldatzeko edo pertsona aberatsenek herrialdea uzteko beldurra, sarri askotan, nahikoa arrazoi izaten da, berez, erreformen orientazioan eragina izateko. Zergak ordaintzearen alorrean⁴⁹ enpresen arteko zerga lehiakortasunaren fenomeno hau nabarmen areagotu da Batasuna zabaldu denetik; izan ere, duela urte dezente Irlandak lehengo aldiz eta arrakastaz aurrera eramandako estrategia gauzatu nahian dabil-tza hainbat estatu kide (Irlandan, sozietateen gaineko zerga % 12,5koa da). 2005. urtean, berriz inbertitutako irabazien gaineko zerga % 0koa zen Estonian; Polonian eta Eslovakian, berriz, % 19koa, eta Frantzia, % 33koa. Alemanian, % 40tik % 25era murriztu zen, Schröder Kantzilerraren Koalizio Gorri-Berdeak bultzatuta. Ondorioz, «hamabosten Europan, sozietateen gaineko zergaren batez besteko tasa nominala 1982ko % 48tik % 32ra jaitsi zen 2002an. Beharakada horren bizkortzerik handienak, hain zuzen, bateratze ekonomikoak aurrera egiten zuenean gertatzen ziren: 90eko hamarkadaren hasieran (barne merkatua osatu zen) eta 2000ko hamarkadaren hasieran (euroa sartu zenean)» (Moatti, 2005).

⁴⁸ EE Itunaren 104. artikuluan gehiegizko defizit publikoari buruz aurreikusitako prozedura, hasiera batean, aurrekontuen gainbegiratzea indartzeari eta politika ekonomikoen gainbegiratze eta koordinazioari buruzko 1997ko uztailaren 7ko 1466/97 Erregelamendua (EE) finkatu du (1997/02/08ko OJ L 209, 1. or.). 2005eko ekainean prozedura berrikusi zen (2005eko ekainaren 27ko 1056/2005 Erregelamendua (EE), defizitaren prozeduraren gehiegizko aplikazioaren bizkortze eta azalpenari buruzko 1467/97 Erregelamendua (EE) aldatzen duena (2005/07/07ko OJ L 174, 5. or.)), eta horrek hobekuntza nabarmena ekarri zuen; izan ere, kontuan hartzen ditu faktore kualitatiboak —alegia, gehiegizko defiziten iturria— eta estatu kideen heterogeneotasun ekonomikoa.

⁴⁹ Fenomeno horrek ez die eragiten balio erantsiaren gaineko zergei (BEZ), horri buruzko koordinazioa baitago estatu kideen artean; eta ezta aurrezkiaren zerga arloari ere, horri buruzko akordiora iritsi baitziren estatu kideak 2003ko ekainean. Bestalde, partikularen errentaren gaineko zergari buruzko lehiakortasun pixka bat bada; batez ere, zerga tarte handienei dagokienean (Moatti, 2005).

Eta hortxe gaude, oraintxe bertan. Europar Batasunaren sorreratik bertatik, dimentsio ekonomikoa eta soziala orekatzeko saialdiek muga bat izan dute beti oztopo: estatu kideek uko egin diotela ongizatearen estatuari eta zergak ordaintzeari begira ditzuten eskumenetako gehienak alde batera uzteari. Baina lehenengo oztopo honen atzetik, bigarren bat ere etorri da: arlo ekonomikoaren eta sozialaren arteko transakzio moduek —horiek definitu behar dute Europaren eredu sozialaren berezitasuna— geroz eta gehiago diruditela globalizazio ekonomikoaren bilakaerak eta Batasunak bere lehiakide nagusiei begira (batez ere, Estatu Batuak) lehiakor izaten jarraitzeko duen kezka agindutakoak. Lisboako Estrategiaren helburua, batez ere, Europar Batasuna globalizazio ekonomien talkari aurre egiteko prestatzea eta estatu kideen arteko harremana kudeatzea zen, esparru ekonomiko bateratuan estatu kideek norik bere estrategia askeak ezartzeko egiten zituzten saialdiak mugatzeko. Baina estatuen arteko eta euren barneko elkartasun mekanismoak indartu ezean, dimentsio sozialak —betiereko bazkidea berau— ortodoxia makroekonomikoaren eta aurreratutako globalizazioaren aginduen menpe egoten jarraitzeko egiazko arriskua dago. Badirudi, beraz, orain inoiz baino gehiago, baldin eta estatu kideek merkatuen aurrean galtzen ari diren subiranotasuna berriz eskuratu nahi badute, hori egikaritzeko zenbait modu Batasunari uztea onartu beharko dutela, eskumen gehiago besterenduta.

6. Etorkizunerantz (I): Oinarrizko eskubide sozialekiko erreferentzia indartzea

Alabaina, EBn oinarrizko eskubide sozialak indartzeko asmoz EBra eskumen gehiago eramateak —EB mailan gutxieneko eskubideen multzo handinahia— gaur egun, politikoki, oso joera errealista dirudi; eta EBko estatu kideen arteko hurbilketetan dauden alde nabarmenak kontuan izanda, lortu beharreko helburua ote den ere zalantzan dago. Helburu horren atzetik ibili beharrean, estrategia bikoitza gauzatu behar da: estrategietako batek, hain zuzen, bermatu behar du erkidegoko legediaren garapenak ez mehatxu egitea EBko estatu kideek oinarrizko eskubide sozialen babes handiei eutsi ahal izateari edo horiek garatzeari (batez ere, langileen eskubideenak); eta besteak, berriz, EBko estatu kideak bultzatu behar ditu norabide horretan aurrera egitera, kontrako norabidean mugitzeko joerari aurre egiteko.

Bi estrategia horiek osagarriak direla eta elkar nola indartzen duten ulertu ahal izateko, gogoratu behar dugu, EB bitartez, Europa bateratzeko joeraren garapena oinarrizko eskubide sozialen babesarekin, oro har, eta eskubide sozialekin, bereziki, elkarerraginean ibiltzeko bi modu daudela (De Schutter, 2007). Batetik, eskumenak EBra eramateak, hain justu, botere horiek egikaritzeko modua oinarrizko eskubideen baldintzekin bat ez etortzeko arriskua dakar. 1970eko hamarkadaz gero, asko eztabaidatu den gaia da; izan ere, orduan argi eta garbi ikusi zen Europako Erkidegoek eurek finkatutako helburu ekonomikoetatik harago zihon kaltea jasango zutela, eta garatu zuten legeak eragina izan zezakeela euren eragile ekonomikoetan, baina oinarrizko eskubideetan ere kalteak eragiteko moduan. Horixe da, hain zuzen, Europako Justizia Auzitegiak,⁵⁰ eta gerora, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak bideratu nahi izan zuten kezka: bi jurisdikzioek ondorioztatu zuten, beharrezko kontrolak egin ezean, EEren eskumenak eta orain EBrenak ugaltzeak eragina izan lezake oinarrizko eskubideetan; horregatik, euren betebeharra omen zen gertakari horien ustezko biktimei babesa ematea.

Nolanahi ere, oinarrizko eskubideen alorrean duen jurisprudentzia garatzean, Europako Justizia Auzitegiak aukerako ikuspegia erabili izan du; izan ere, ez ikusiarena egin die estatu kideek esku hartzen duten giza

⁵⁰ 29/69 Kasua, *Stauder vs. Ulm Hiria* (1969), ECR 419; 11/70 Kasua, *Internationale Handelsgesellschaft v. Einfuhr- und Vorratsstelle Getreide* (1970) ECR 1125.

eskubideen nazioarteko hamaika ituni. Babestea merezi duten oinarrizko eskubideak aipatzeko eskatzen zaie-nean, Europako Justizia Auzitegiak aztertzen du ea eskubide hori gaur egun txertatuta dagoen edo Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean (bere «esanahi berezia» beti jaso izan da bere jurisprudentzian)⁵¹ edo estatu kideek hitzartutako giza eskubideen babeserako nazioarteko beste tresnaren batean. Auzitegiak erabilitako ohiko formula, beraz, «estatu kideek izan dituzten edo atxiki zaizkien giza eskubideen babeserako nazioarteko tresnek emandako adierazleen inspirazioan oinarritzen» dela da.⁵² Praktikan, halere, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena ez beste iturri batzuk erabili direnean, modu lasai eta aukerakoan egin da. Orain gutxira arte, Auzitegiak erabat gaitzetsi du 1961eko Europako Gutun Sozialaren Konbentzioaren garrantzia, nahiz eta badiren zenbat xedapen kasuan agertzen diren hainbat auzirekin zuzeneko harremana dutenak, eta nahiz eta estatu kide guztiak diren 1961eko jatorrizko ituneko partaide⁵³. Badirudi Justizia Auzitegiak aldatu egin duela Europako Gutun Sozialaren Konbentzioari begira 2007ko abenduan erabakitako Laval eta Viking kasuetan erakutsi zuen jarrera mespretxatzailea. Haietan, «ekintza kolektiboak gauzatzeko eskubidea (grebarako eskubidea barne)» onartu zuen, erkidegoko Zuzenbidearen printzipio orokorren esparruan; izan ere, «hala onartua izan da estatu kideekin sinatu edo horiek gauzatzeko hainbat nazioarteko tresnatan (esate baterako, Europako Gutun Soziala...) eta espresuki halaxe adierazten du EE Itunaren 136 artikuluan eta Sindikatu Askatasunari eta Elkartzeko Eskubidea Babesteari buruzko 1948ko 87. Konbentzioan [ILO]... eta baita estatu kideek erkidegoan edo Europar Batasunaren testuinguruan osatutako tresnetan ere —Langileen Oinarrizko Eskubide Sozialean 1989ko Erkidegoaren Gutunean, esaterako—, eta hor erreferentzia egiten zaie, halaber, EE Itunaren 136. artikuluari eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunari».⁵⁴ Alabaina, kasu horiek guztiak ere zalantzarriak dira: Europako Gutun Sozialean aldarrikatutako eskubideak erkidegoko Zuzenbidearen printzipio orokorren garapenerako inspirazio iturritzat jotzen dira, soil-soilik Oinarrizko Eskubideen Gutunean aipatzen diren neurrian. Eta EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunak Giza Eskubideen

⁵¹ C-260/89 Kasua, ERT (1991) ECR I-2925, 41. paragrafoa; 2 / 94 irizpena, *Europako Erkidegoa Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenean txertatzea*, (1996), ECR I-1759, 33. paragrafoa; C-274/99 *P Kasua, Connolly vs. Batzordea* (2001), ECR I-1611, 37. paragrafoa; C-94/00 Kasua, *Roquette Frères* (2002), ECR I-9011, 25; C-112/00 Kasua, *Schmidberger* (2003) ECR I-5659, 71. paragrafoa; C-36/02 Kasua, *Omega* (2004), ECR I-9609, 33. paragrafoa. EBren Itunaren 6 (2) artikulua Giza Eskubideen Europako Konbentzioa baino ez du aipatzen, eta alde batera utzi ditu estatu kideek izan dituzten edo sinatu dituzten bestelako giza eskubideen itunen erreferentziak (Erreformatarako Itunak ere ez du horrelakorik aipatu EBko Itunaren 6 (3) artikulua bertsio aldatuan).

⁵² 4 / 73 Kasua, *Nold KG vs. Batzordea*, (1974) ECR 491. Idazketak ez du bilakaera handirik izan. Ikusi, esate baterako, C-94/00 Kasua, *Roquette Frères* (2002) ECR I-9011.

⁵³ CETS 035. Ikusi 7. 16., 17. eta 19. artikulua. Europako Gutun Sozialari dagokionean, hauxe adierazi zuen (107. paragrafoa): «Tresna horiek lotutako estatu kideei dagokionean, modu berean gogorazi behar da Zuzentarauak, bere 3 (4) artikuluan, xedatzen duela Europako Gutun Sozialaren aldekoagoak diren xedapenei kalterik egin gabe dela». *Albany, Brentjens eta Drijvende Bokken* kasuetan Jacobs Fiskal Nagusiaren baterako irizpenek (99/01/18an aurkeztuak, 146. paragrafoa; Europako Gutun Sozialaren balio juridikoa gaitzesten dutenak) Gortearen jarreraren azalpena eman dezakete. Justizia Auzitegiak berak ez zuen inolako irizirik eman erabaki horien gainean. C-67/96 Kasua, *Albany International BV* ECR (1999) I-5751; C-115/97, C-116/97 eta C-117/97 Baterako Kasuak, *Brentjens' Handelsonderneming BV vs. Stichting Bedrijfspensioenfonds voor de Handel in Bouwmaterialen* (1999) I-6025; eta C-219/97 Kasua, *BV Maatschappij Drijvende Bokken v Stichting Pensioenfonds voor de Vervoer-en Havenbedrijven* ECR (1999) I-6121.

⁵⁴ C-438/05 Kasua, *Finlandiako Arrantzaleen Batasuna, Garraio Arloko Langileen Nazioarteko Federazioa vs. Viking Line ABP, OÜ Viking Line Eesti*, oraindik ere laburbildu gabea, 43. paragrafoa (2007ko abenduaren 11ko epaia), eta C-341/05 Kasua, *Laval un Partneri Ltd vs. Svenska Byggnadsarbetareförbundet, Svenska Byggnadsarbetareförbundets avd. 1, Byggettan, Svenska Elektrikerförbundet*, oraindik ere laburbildu gabea, 90. paragrafoa (2007ko abenduaren 18ko epaia). Ikusi, batez ere, AG Mengozziren itxuraz erabakigarriak diren ondorioak (78. paragrafoa).

Europako Konbentziotik eratorritako eskubideei egindako ekarpenean ez bezala, ez dago ziurtasunik hor agertzen diren eskubide sozialak (baita Europako Gutun Sozialetik ateratakoak direnean ere) Eskubide Sozialen Europako Komiteak eskubide horiei emandako interpretazio formalarekin bat eginda interpretatzen ote diren.

Baina bada EB barnean txertatzeak oro har giza eskubideekin eta zehazki oinarritzko eskubide sozialekin elkarreaginean jarduteko bigarren modu bat ere. EB barnean bateratze ekonomikoan sakontzeak hainbat pizgarri ekar ditzake, EBko estatu kideek merkatuaren bateratzeak sortutako aukerei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko beharrezkotzat jotako legediak edo politikak onar ditzaten, edo gutxienez, bateratze horren eraginez estatu kideak desabantailan egon ez daitezten. Legedi edo politika horrek ez du halabeharrez bat etorri behar giza eskubideak erabat egikaritzea sustatzeko dagoen modurik eraginkorrenarekin. Alabaina, agintaritzaz nazionalen arabera, hori justifikagarria izan daiteke, baldin eta irabaziek edo onurek giza eskubideen kostuak gainditzen badituzte. Onargarria litzateke, dena den, estatu batek hainbat neurri hartzea giza eskubideen babesa hobetzeko; baina estatuak hori egiteari uko egin liezaioke, baldin eta horrek enpresek euren jarduerak beste toki batzuetara eramateko arriskua badakar (EB barnean kokatzeko duten askatasunari men eginda) eta nahi duten estatu kidetik atzerrira salgaiak bidaltzeko edo zerbitzuak eskaintzeko erabakia har dezaten arriskua badakar.

Horrek deskribatzen du, modurik estilatuenean, «lehiakortasunaren arautzailea» izenez ezaguna den arazoa. Tradizioz beren egitekoa oinarritzko eskubideak babestea bada ere, auzitegiek oso hornidura kaskarra dute arazo horri modu eraginkorrean aurre egin ahal izateko. Auzitegiek, jakina, esku hartu ahal izango dute erregelamendu arloko eskumenaren eraginez estatuak oinarritzko eskubideak ahultzen dituztenean eta azkeneko eskubide urratzeak salatzen badira (oso gutxitan, alegia). Horri begira, gutxieneko edo oinarritzko babesa eskaintzen dute; alabaina, horrelako egoerak ez dira oso ohikoak. Askoz ohikoagoak dira, ordea, legegile nazionalak —edo negoziazio kolektiboaren esparruan, enplegatzaileek— atzerriko enpresei begira «lehiakortasuna» lortzeko edo horri eusteko baldintzen babesa eskatzen duten egoerak; esate baterako, laneko legeditik, kontsumitzaileen babesetik edo ingurumen erregelamenduetatik hainbat baldintza askatzea justifikatzeko (esate baterako, barne arauetan hitzartutako baldintzak).

Galdera honi tradizioan eman zaion ikuspegiaren oinarrian, hain zuzen, «desarautzearen» (maila nazionalan) eta «berrarautzearen» (Europa mailan) arteko dikotomia gordina dago; hurrenez hurren, horiek bat datoz Europaren bateratzeari begirako dimentsio «negatibo» eta «positiboekin» (Scharpf, 1999: 3. atala). Sinplifikazio hori alferrikakoa izan da, eta beharrezkoak ez ziren nahasmenduak ekarri ditu. Lehenik eta behin, «bateratze negatiboa» maila nazionalan «desarautzeko» iturri moduan ikustean, ez baita inolako bereizketarik egiten barne merkatuaren eskakizunek (zehazki, oinarritzko lau askatasunak) gobernuak erregelamendu neurrigabe edo baztertzailerik batzuk (zirkulazio askerako oztopoko justifikaezinak izan litezkeenak) desagerraraztera derrigortu izanaren eta barne merkatuak desarautzeko pizgarri moduan jokatu izanaren artean (batetik, gainerako estatu kideei begira lehiarako abantaila lortzen laguntzeko, eta bestetik, geroz eta mugikorragoa den kapitalarentzako erakargarriagoa izateko). Alabaina, bereizketa hau funtsezkoa da: azken kasu honetan, desarautzearen aldeko aukera maila nazionaletik egiten da, eta beraz, interes publiko nazionala definitzeko lehian dabiltzan eragileen botere borroken emaitza da. Lehenengo kasuan, «desarautzea» gainditzeak («bateratze negatiboa» inposatutakoaren arabera), EB barneko ekintza kolektibo bat eskatzen du; eta hori lortzea askoz zailagoa izan liteke, berez dauden beto puntu ugariak eta Batasun zabalduan akordio batera iristeko dagoen zailtasuna kontuan izanda. Hala, estatuak merkatuan duen zereginari buruz geroz eta gehiago urruntzen ari diren iritziak daude.

Bigarrenik, eredu honek, gehiago ala gutxiago modu esplizituan, Gobernuak euren posizioak definitzea dakar (nola erregelamendu nazionalen dagokienean, hala EBk onartutako erregelamenduen dagokienean) euren eskumeneko eremuan kokatutako enpresen interesei begira (euren helburua saritzea izango da), eta euren lurraldean kokatutako diren enpresa berriak erakartzeko premiaren oinarriari begira. Oso susmo gordina da hori; eta batzuetan, ez oso errealista. Hain da horrela, eskura dagoen ebidentziaren arabera, gobernuak, batzuetan, EBren bateratzearen eskakizunen atzean gordetzen direla, zenbait enpresa kondenatzeko (beste estatu kide batzuetan daudenak bezain lehiakorrak ez diren enpresak), eta gainerakoak defendatzeko (araudi esparruari egokituta edo zerga pizgarriak hornituta, euren lehiakortasuna hobetzen dutenak): Youngek adierazi duen moduan, «politikariek argi ikusi zuten komenigarria zela merkatu bakarra eta “Bruselako” murrizketak estalki moduan erabiltzea, bai politika nazionalen aldatetarako, eta baita ekintzarik eza edo etxeko ekintza justifikatzeko ere» (2005: 111). Nazioarteko merkataritzaren oinarrian dagoen lehiarako abantailaren teoriarekin bat eginda, enpresek euren artean lehiari jarduten duten bitartean, herrialdeek ez dute bide horretara jotzen: lehiarako abantaila daukan ondasunaren ekoizpenean edo zerbitzuaren eskaintzan herrialde bat espezializatzen den bakoitzeko, herrialde guztiek irabazten dute. Horrek esan nahi du herrialde baten interes guztiak eta euren industrienak ezin dutela bat etorri, industria horiek beste estatu batzuetako industriak bezain lehiakorrak ez direnean. Nahiz eta lana nazioartean banatzeak aurrerapen teorikoak ekarriko dituen, gauza jakina da gobernu askok euren industriak babesteko lan egingo dutela, horrek ekarriko dituen eraginkortasun galerei asko erreparatu gabe. Nolanahi ere, hala egiten dutenez, eragile ekonomikoek erabakiak hartzeko prozesu politikoa harrapatzeko duten gaitasunaren araberrako auzi ekonomikoa izango da: ezinbestekoa da enpirikoki aztertzea, eta ez modu teorikoan onartzea.

Hirugarrenik, «desarautze/berrarautze» ikuspegiak gehiegi sinplifikatzen du ideia bat: maila nazionalen erregelamendu funtzioak egikaritzen dituen estatu baten hautabide bakarra Europan «super-estatu» bat sortzea baino ez dela, Europako Ongizatearen Estatu baten eszenatokia aukera erreala balitz bezala. Zalantzarik ez da, zenbait eremutan, norabide horretan aurrera egin ahal izateko EBk egikaritu ditzakeen eskumenak ditu (eta langileen eskubideak organo legegile garrantzitsu baten —EB— helburuak dira). Dena den, aurrerapen nabarmen horiek oraindik ere Europako Ongizatearen Estatu baterako, edo eskubide sozialak sustatzeko eta babesteko erakundea den heinean, Europar Batasunerantz joateko lehenengo pausoak ematetik urrun daude. Eszenatoki hori hain da urrunekoa, desmobilizatorako eszenatokia dela hautabidea, eta ez erreformaren norabidea egiazki adierazten duena.

Horregatik, geure buruari galdetu behar diogu ea zer hautabide ditugun, maila nazionalen desarautze arriskuari begira (lehiakortasuna arautzearen emaitza moduan) eta Europa mailako araudi berri baten ameskeriarako (sari askotan, oso errealista ez dena). Nire interesaren ardatzak, hain zuzen, EBk jarduteko eskumenik ez duen egoerak edo hala egiteko borondate politikorik ez dagoen egoerak dira; eta egoera horietan (nahiz eta beste termino batzuekin adierazi), EB mailako «berrarautzea» ez da aukera errealista. Lehiakortasuna arautzeko mekanismo itsuetara kondenaturik al gaude? Edo baditugu beste aukera batzuk? Nahiko deigarria da Fritz Scharpf-ek, «desarautze/berrarautze» ikuspegiaren erakusle nagusiak, «imitazio politikoa» aipatzea «lehiakortasuna arautzeagatik» arautzaileengan egindako presioaren kontrako pisuzko faktore moduan (zenbait alorretan; esaterako, prozesuak arautzean, faktore mugikorren zergak ordaintzean edo era honetako lehia egon daitekeen etxetan); alabaina, gero esaten du «imitazio politikoa» hori ez dela aintzat hartuko lehiakortasuna arautzeko eztabaidaren analitika harago (Scharpf, 1999: 90-91). Zergatik ez? Nola antolatu daiteke komunikazio hori jurisdikzio guztietan, arauak hobetzeko onuragarria dela bermatzeko —«gailurrerantz egindako lasterketa», eta ez «hondorantz egindakoa»—, lehiakortasuna arautzeko eszenatokian gertatzen den bezala?

Kontuan izan dezagun, alderatzeko asmoz, haurren eskubideen alorrean sustatu dena. 2006ko uztailean, Europako Batzordeak komunikazio bat aurkeztu zuen, haurren eskubideei buruzko EBren estrategia bat proposatzen duena.⁵⁵ Estrategiaren oinarrian ideia bat dago: «EBk oinarritzko eskubideak —haurrenak barne— errespetatzeko duen obligazioak, eskubide horiek urratuko dituzten ekintzei uko egiteko betebeharrak orokorraz gainera, Itunetako oinarri juridikoetan (bateratzea)⁵⁶ bere berariazko politikak garatzeko garrantzitsuak badira, eskubide horiek kontuan hartu beharko ditu». Batzordeak onartzen du EBk ez daukala eskumen orokorrik haurren eskubideak sustatzeko, eta gainera, ekimen orok subsidiarioritasun eta proportzionaltasun printzipioak errespetatu behar omen ditu. Alabaina, Batzordeak adierazi du EBk balio erantsia ekar diezaiokeela Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren aplikazioari; izan ere, «estatu kideei euren ahaleginean babesa eman diezaike, eta hainbat arlotan lagundu, ekintza guztietan haurren eskubideak kontuan izanda eta elkarren arteko ikaskuntzarako esparru bat sortuta —esparru horretan, estatu kideek Batasunean barrena dauden jardunbide egoki ugari definitu eta onartu ahal izango dituzte—. Ekintza zabal eta koordinatuetan oinarritutako ikuspegi honek, beraz, balio erantsia emango lieke estatu kideen ahaleginei, eta indartu egingo luke Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren printzipioak errespetatzeko eta onartzeko joera; bai Batasunean bertan, bai hortik kanpora».⁵⁷

Haurren eskubideei buruz Batzordeak proposatutako estrategiak osatu egiten ditu gobernuen artean eta modu ez formalean dagoeneko jazo diren gertaerak. Haurtzaroarekin eta Nerabezeroarekin lotutako Gobernu Arteko Talde Iraunkor bat (L'Europe de l'Enfance) Frantziako lehendakariaren agindupean sortu zen 2000ko bigarren seihilekoan.⁵⁸ Haurrarekin lotutako politikez arduratzen diren EBko herrialdeetako ministroak⁵⁹ edo gobernu arteko goi mailako funtzionarioak modu ez formalean bildu ohi dira. Sortu zenez gero, L'Europe de l'Enfance Taldea estatu kideen arteko konparazioak sustatzen eta jardunbide egokiak zehazten ahalegindu da. Noizean behin, Haurtzaroz arduratzen diren ministroek hainbat ondorio ateratzen dituzte, oso orokorrak egia esan; alabaina, haurren egoera hobetzeko lehentasunak bateratzeko ahalegin moduan eta erkidegoko lege eta politiken diseinu eta aplikazioan haurrak kontuan hartzeko dagoen premia moduan uler daitezke.⁶⁰

L'Europe de l'Enfance Taldea babesteko asmoz, zientzia erakunde bat sortu zen, azterlanak egiteko eta haurtzaroari eta nerabezeroari buruzko datuak trukatzeko eta alderatzeko.⁶¹ Haurtzaroari buruzko Zentro eta Behatokien Europako Sare honi ChildONEurope izena eman zitzaion. Florentzian jarri zen abian, ofizialki, 2003. urteko urtarrilean. Bere helburuak haurtzaro eta nerabezeroarekin lotutako lege, politika, programa, estatistika, ikerlan, ikerkuntza eta jardunbide egokiei buruzko ezagutzak eta informazioa tru-

⁵⁵ 2006/07/04ko COM (2006) 367, amaierakoa.

⁵⁶ 3.ean.

⁵⁷ 6.ean.

⁵⁸ Ikusi Batzordearen Komunikazioren I. Eranskina, «Haurren eskubideen aldeko EBren Estrategia baterantz», 3.2. paragrafoa.

⁵⁹ Hasiera batean, «Haurren Gaietarako Ministroen Europako Topaketak» izeneko bileretan; orain, berriz, bilera horiei «Haurren Gaietz Arduratzen diren EBko Ministroen Bilerak» izena ematen zaie.

⁶⁰ Ikusi Bruselako Adierazpena (2001eko azaroaren 9an hartutakoa) eta Luccako Adierazpena (2003ko irailaren 25-26ko bileraren ondoren onartutakoa).

⁶¹ Atal honetako informazio guztia ChildONEurope-ren web orritik ateratakoa da: www.childoneurope.org (azkenekoz, 2007ko martxoaren 20an egin zen kontsulta).

katzea eta metodologia eta adierazleak trukatzeko da, informazioa alderatzeko eta gai espezifikoiei buruzko analisi konparatiboak egiteko. Beste jarduera batzuen artean, ChildONEuropak Haurraren Eskubideen Batzordearen azken behaketa lanak aztertu ditu. Batzorde hori, hain zuzen, EBko estatu kideei zuzendutako Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioaren bitartez eskubideak betetzen ote diren zaintzen duen aditu taldea da.⁶²

Metodo horren bikoizketa, aditu talde batek bildutako informazio fidagarri eta konparagarrian oinarrituta bere parekoak berrikusteko bidea ematen duena, erraz imajina dezakegu EBko estatu kideak eurak parte hartzen duten oinarrizko tresnetan —zehazki, Europako Gutun Soziala— txertatutako oinarrizko eskubide sozialak praktikan jartzera bultzatzeko egin dela, 27 estatu kideetan hautemandako jardunbide egokietan oinarritutako ikuspegiarekin. Horrek kontrapisua egin liezaioke «lehiakortasuna arautzeko» joerari, oinarrizko eskubide sozialen arloan aurrerapausoak ematen jarraitzearen bizkar. Alabaina, ez dakar eskumenen transferentzia gehigarriarik, eta ondorioz, «desarautze/berrarautze» aurkakotasunetik harago doa. Hein batean, horixe lortzen ahalegindu da Oinarrizko Eskubideei buruzko Aditu Independenteen Sarea 2002. eta 2007. urteen artean. Zalantzarik gabe, Oinarrizko Eskubideen Europako Agentziak etorkizunean aztertu nahiko duen zer-bait izango da.

7. Etorkizunerantz (II): Eskubideek gaitasunak sortzen dituzte

Aurreko paragrafoak, hain zuzen, Europako Justizia Auzitegiaren jurisprudentziako oinarrizko eskubide sozialen erreferentziak indartzea proposatzen du; batez ere, Europako Gutun Sozialari begira konfiantza espizitu eta jarraituagoa izateko. Gainera, EBko estatu kideen bitartez, konparazio sistematikoak egingo dira, oinarrizko eskubideak maila handiagoan aplikatzera behartzeko. Lehenengo proposamenaren helburua da, hain zuzen, bermatzea EBren legedia ez dela interpretatutako EBko estatu kideek euren betebeharren artean salbuespenak ezartzeko inposizio moduan, oinarrizko eskubide sozialak babesten dituzten giza eskubideen nazioarteko tresnei jarraiki. Bigarren proposamenaren helburua, berriz, «lehiakortasuna arautzeak» dituen arriskuak arintzea da; izan ere, analista ugari arriskuak ugaltu egin direla uste baitute orain, Europako Justizia Auzitegiaren jurisprudentziagatik (batez ere, zerbitzuak aske ematearen alorrean). Oro har, bi proposamen horien xedea da oinarrizko eskubide sozialekin EBko bateratze ekonomikoan parte hartzeko dauden bi bideak lantzea. Baina bietako inork ez du aurreikusten, inola ere, Europar Batasunari eskumen gehiago ematea, ez bailitzateke oso joera errealista izango, gaur egungo egoeran.

Nolanahi ere, aurretik defendatutako bi muturreko estrategia oraindik ere ez da nahikoa. Defentsarako ia zera baino ez du. Hitz ematen du ondare soziala gordetzea bermatuko duela, eta baita Ongizatearen Estatuaren birbanaketarako mekanismoekin EBn merkatua sortzearekin bat egitea ere. Bide horretatik, gaur egun lehian dabilzan bi ezkerrek har zezaketen programa izan liteke; alegia, merkatuen aurka eta mehatxu moduan ikusten duten globalizazioaren aurka langileak babesten dituen ezker tradizionala batetik, eta merkatuei eta globalizazioari ongietorria egiten dien ezker berria, bestetik, bi horiek Ongizatearen Estatu indartsu eta

⁶² ChildONEurope-ren lan metodoak, neurri handi batean, behatoki parte-hartzaileek egindako galdetegien araberakoak izaten dira. 2006ko ekainean, EBko bederatzi herrialde hartzen zituzten aintzat. Beste 14 estatu kide «elkarteko kideak» ziren, eta horrek esan nahi du «azken horiek noiznahi erabaki dezaketela Sareko kide izatea, haurren eta nerabeen egoerari buruzko datu ofizial publikoak emateko gai den erakunde nazional bat izendatuta».


eraldatu batekin funtsean bateragarriak direla uste duena. Bestalde, bateragarritasuna ziurtatzea ez da nahikoa. Ezinbestekoa dugu bateratzearen bidean aurrera egitea: merkatuko instituzioak demokratizatzea, arlo ekonomikoaren eta sozialaren arteko tirabirak leuntzeko asmoz. F.D. Roosevelt-ek eratutako «New Deal», alegia, Europako Sozialdemokratek Keynes-en tresnak erabiltzea, azken batean, aberastasunaren birbanaketa bermatzeko bitarteko modua izan zen politika sozialean; baina hori egitean, boterea birbanatzea ahaztu zizaion, eta ez zen gai izan politika soziala boterea eta gaitasuna emateko zerbait dela ulertzeko.

Erreferentziak

- Ball, C.A. (1996), «The Making of a Transnational Capitalist Society: The Court of Justice, Social Policy, and Individual Rights Under the European Community's Legal Order», *Harv. Int. L. J.*, 37. liburukia, 307. or.
- Barnard, C. (1996), «The Economic Objectives of Article 119», in Hervey, T., and O'Keeffe, D. (arg.), *Sex Equality Law in the European Union*.
- Betten, L. (1989), «Towards a Community Charter of Fundamental Social Rights», *Netherlands Quarterly of Human Rights*, 77.-97. or.
- Betten, L. (1997), «The Amsterdam Treaty: Some General Comments on the new Social Dimension», *International J. of Comp. Labour Law and Indus. Relations*, 13. liburukia, 188. or.
- Bercusson, B. (1991), «Fundamental Social and Economic Rights in the European Community», in Cassese, A., Clapham, A., eta Weiler, J.H.H. (arg.) (1991), *Human Rights and the European Community: Methods of Protection*, Baden-Baden, Nomos Verlagsgesellschaft.
- Bercusson, B. (1996), *European Labour Law*, London-Charlottesville-Dublin-Durban-Edinburgh-Kuala Lumpur-Singapore-Sydney-Toronto, Butterworths.
- Commission of the European Communities (1993a), *Green Paper – European Social Policy – Options for the Union*, Commission of the E.C., COM (93)551 final.
- Commission of the European Communities (1993b), *Growth, Competitiveness, Employment: The Challenges and Ways Forward into the 21st Century*, COM (93) 700 final, 1993/12/05.
- Commission of the European Communities, *Communication from the Commission to the Council, the European Parliament, the Economic and Social Committee and the Committee of the Regions, Social Policy Agenda*, COM(2000)379 final (2001/05/30eko JO C 157).
- Commission of the European Communities, *DG Employment and Social Affairs, Report of the High Level Group on the future of social policy in an enlarged European Union*, 2004ko maiatza.
- Commission of the European Communities, *Communication to the Spring European Council, Working together for growth and jobs. A new start for the Lisbon Strategy*, COM(2005)24, 2005/02/02.
- Commission of the European Communities, *Communication from the Commission to the Council, the European Parliament, the European Economic and Social Committee, and the Committee of the Regions, Scoreboard on implementing the social policy agenda*, COM(2004) 137 final.
- Davies, Paul (1993), «The Emergence of European Labour Law», in W. McCarthy (arg.), *Legal Intervention in Industrial Relations: Gains and Losses*, 313.-359. or.
- De Schutter, O. (2000), «La contribution de la Charte des droits fondamentaux de l'Union européenne à la garantie des droits sociaux dans l'ordre juridique communautaire», *Revue universelle des droits de l'homme*, 12. liburukia, 2000ko iraila, 1.-2. zk., 33.-47. or.

- De Schutter, O. (2002), «Les droits et principes sociaux dans la Charte des droits fondamentaux de l'Union européenne», in Carlier, J.-Y., eta De Schutter, O. (arg.), *La Charte des droits fondamentaux de l'Union européenne*, Bruxelles, Bruylant, 117.-148. or.
- De Schutter, O. eta Deakin, S. (arg.) (2005), *Social Rights and Market Forces. Is the open coordination of employment and social policies the future of Social Europe?*, Brussels, Bruylant.
- De Schutter, O. (2005a), «L'affirmation des droits sociaux fondamentaux dans la Charte des droits fondamentaux de l'Union européenne», in A. Lyon-Caen eta P. Lokiec (arg.), *Droits fondamentaux et droit social*, Paris, Dalloz, 145.-184. or.
- De Schutter, O. (2005b), «The Implementation of Fundamental Rights through the Open Method of Coordination», in O. De Schutter eta S. Deakin, 279.-343. or.
- Deakin, S (1996), «Labour Law as Market Regulation: the Economic Foundations of European Social Policy», in Davies, P., Lyon-Caen, A., Sciarra, S., eta Simitis, S. (arg.), *European Community Labour Law: Principles and Perspectives*, 62.-93. or.
- Ferenczi, T. (2005), «Budapest refuse que l'austérité exigée par Bruxelles nuise à sa cohésion sociale», *Le Monde*, azaroak 26.
- Guild, E. (1999), «How Can Social Protection Survive EMU? A United Kingdom Perspective», *European Law Review*, 24. liburukia, 22.-37. or.
- Hepple, B. (1990), «The Implementation of the Community Charter of Fundamental Social Rights», *Modern Law Review*, 643.-654. or.
- Hervey, T. eta Kenner, J. (arg.) (2003), *Economic and Social Rights under the EU Charter of Fundamental Rights*, Oxford, Hart Publ.
- International Labour Office (1956), *Social Aspects of European Economic Co-operation*. Report by a Group of Experts, Studies and Reports, New Series, 46. zk.
- Hirsch, Joachim (1995), *Der nationale Wettbewerbsstaat: Staat, Demokratie und Politik im globalen Kapitalismus (The Competitive National State: State, Democracy and Politics in Global Capitalism)*, Edition ID-Archiv, Berlin and Amsterdam, 1995.
- Kenner, J. (2003), *EU Employment Law: From Rome to Amsterdam and Beyond*, Oxford, Hart.
- Lo Faro, A. eta Andronico, A. (2005), «Defining Problems: the Open Method of Coordination, Fundamental Rights and the Theory of Governance», in De Schutter, O. eta Deakin, S., 41.-98. or.
- Majone, G. (1993), «The European Community Between Social Policy and Social Regulation», *J. Common Market Stud.*, 31. liburukia, 153. or.
- Moatti, G. (2005), «Face à la concurrence fiscale», *Le Monde*, urriak 18, IV. or.
- Poiars Maduro, M. (1999), «Striking the Elusive Balance Between Economic Freedom and Social Rights in the EU», in Ph. Alston (arg.), *The EU and Human Rights*, Oxford Univ. Press, 449. or.
- Poiars Maduro, M. (1998), *We The Court. The European Court of Justice and the European Economic Constitution. A Critical Rereading of Article 30 of the EC Treaty*, Hart Publ., Oxford.
- Rhodes, Martin (1992), «The Future of the "Social Dimension": Labour Market Regulation in Post-1992 Europe», *Journal of Common Market Studies*, 1992ko martxoa.
- Robin-Olivier, S. (1999), «La référence aux droits sociaux fondamentaux dans le traité d'Amsterdam», *Dr. soc*, 609. or.
- Ruggie, John G. (1982), «International Regimes, Transactions, and Change: Embedded Liberalism and the Postwar Economic Order», 36(2) *Int. Org.* 379.
- Scharpf, Fritz (1999), *Governing in Europe. Effective and Democratic?*, Oxford, Oxford University Press.

- Sciarra, S. (2004), «La dimension sociale. La constitutionnalisation de l'Europe sociale, entre droits sociaux fondamentaux et soft law», in De Schutter, O. eta Nihoul, P. (arg.), *Une Constitution pour l'Europe. Réflexions sur les transformations du droit de l'Union européenne*, Larcier, Brusela, 2. atala, 171.-194. or.
- Scott, J. eta Trubek, D.M. (2002), «Mind the Gap: Law and New Approaches to Governance in the European Union», *European Law Journal*, 8. liburukia, 1. zk., martxoa, 1.-18. or.
- Smismans, S. (2005), «How to Be Fundamental with Soft Procedures? The Open Method of Coordination and Fundamental Social Rights», in de Burca, G., eta de Witte, B. (arg.), *Social Rights in Europe*, Oxford Univ. Press, 217.-240. or.
- Vaughan-Whitehead, D. (2003), *EU Enlargement versus Social Europe? The Uncertain Future of the European Social Model*, Edward Elgar, Cheltenham.
- Visser, J. (2005), «The OMC as Selective Amplifier for National Strategies of Reform. What the Netherlands Want to Learn from Europe», in Zeitlin, J., Pochet, P., eta Magnusson, L., 5. atala, 173.-215. or.
- Watson, Ph. (1993), «Social Policy After Maastricht», *C.M.L. Rev.*, 30. liburukia, 480. or.
- Whiteford, A. (1993), «Social Policy After Maastricht», *E.L. Rev.*, 18. liburukia, 202. or.
- Zeitlin, J.; Pochet, P., eta Magnusson, L. (arg.) (2005), *The Open Method of Co-ordination in Action. The European Employment and Social Inclusion Strategies*, P.I.E. Peter Lang, Brussels-Bern-Berlin-Frankfurt am Main-New York-Oxford-Vienna.



LUIS ORTEGA

*Zuzenbide Administratiboko katedraduna,
Batasuneko Zuzenbideko «Jean Monnet» katedraduna,
Gaztela-Mantxako Unibertsitatea*

Luis.ortega@uclm.es

Europa Soziala

1. Europa Sozialaren bereizgarriak

Europar Batasuneko politika sozialaz aritzeko, edo —beste era batera esanda— estatuak herritarrei oinarritzko premia eta eskubide sorta bat bermatzera eta errentaren banaketaren berdintasunik eza zuzentzera bideratzen dituen jardunbideez aritzeko, kontuan hartu beharra dago, lehenik eta behin, zenbaterainokoa den legezko arautze maila edo hertsadura, herritarren izaera sozialeko oinarritzko eskubideen aitortzari eta oinarritzko premien estalduraren bermeari dagokienez.

Politika sozialak, definizio horren arabera, hiru tresna nagusi baliatzen ditu: gizarte zerbitzuak, nagusiki hezkuntza eta osasuna; errentarik ez dagoen egoerarako estaldura, egoera hori gertatuz gero (erretiroa, etxe-ko norbaiten edo senitartekoren baten heriotza, eta ekoizpen jarduera garatzeko ezintasuna) errenta bat edo pentsio bat kobratzen dela bermatuko duen aseguru publikoen sistema baten bidez; eta oinarritzko gabezia egoerei aurre egiteko laguntzak (etxebizitza, familia zama handia, langabezia eta gizarte bazterketa).

Politika sozialetik harago, baina harekin estuki lotuta, lan arloko politika dago. Lan jardueraren esparruan besteren konturako langileen oinarritzko eskubideak bermatzean datza, kasu honetan. Hala, lan arloko politikaren xedea ez da, berez, langileen eta haien familiaren bizi baldintzak bermatzea, baizik eta lan baldintza egokiak ezartzen laguntzea eta negoziazio kolektiboaren bidez langileek baldintza horiek finkatzen parte har dezaten laguntzea.

Aztergai dugun esparruan, alderdi soziologikoa oinarri hartuta, herritarren oinarritzko premien eta eskubideen estaldura zenbaterainokoa den aztertu beharko litzateke, lehen aipatutako hiru arlo horietan: hezkuntzan eta osasunean, ordezko errentetan, eta etxebizitza eta bizi baldintza duinetan. Azterketa hori ez da mugatu behar, ordea, errealitate soziala zein den egiaztatzen; izan ere, estatuaren jardueraren gainetik dagoen elementu bat du atxikita: alegia, zenbateraino gauzatzen den edo gauzatu beharko litzatekeen gizartearen beraren (gizarte zibilaren) ekimen eta jardunbide sorta bat, estatuaren lege ekintzaren izaera hertsatzaileaz haragokoa, borondatezkotasunaren eta gizarte hurbiltasunaren printzipioan oinarritua izanik.

Era berean, ikuspegi ekonomikotik, politika sozialera bideratzen diren baliabideen barne askitasuna eta eragingarritasuna ebaluatu behar da. Ez da balioetsi behar soilik kostuen (gastuen) eta baliabideen (sarrerren)

arteko erlazioa edo bideragarritasuna; baizik eta merkatuak, zeinak bilatzen baitu interes propioa edo onura pribatua, zerbitzu eta premia sozialak estaltzeari dagokionez duen presentzia areagotu edo murriztu ote daitekeen eta hala egin behar ote den, borondatezkotasunaren printzipioan oinarritutako gizarte zibilaren protagonismoa areagotu edo murriztu daitekeen modu berean.

Lan honetan, Europa Sozialaren kontzeptua eta adierazpenak ikertuko dira. Europa Soziala esapiderearen esanahi hau ardatz hartuko da ikerketa horretarako: Europar Batasunaren esparru hertsian gauza daitezkeen politika sozialak eta biltzen diren estatu sozialaren osagaiak, eta estatu kideetako politika sozial komunak eta estatu sozialaren elementu komunak. Eta kontuan hartuko da Europa Sozial horrek eredu konstituzional eta jarduera politiko jakin bat ezaugarritu duela, estatuaren elementuak eta merkatuarenak eta garapen ekonomikoa eta gizarte babesa konbinatuz.

Batasuneko Zuzenbidea oinarri hartuta Batasuneko erakundeek zuzenean garatzen dituzten politika sozialei buruzko azterketa ere planteatu zitekeen. Baina politika horiek oso urriak dira, Batasunaren eta estatu kideen arteko eskumen banaketaren arabera Batasunari baitagozkio berariaz politika ekonomikoak eta merkataritza-ak, eta bigarrenen eskumenak baitira, funtsean, politika sozialak. Arrazoi horregatik, estatu kideetan indarrean dauden politika sozialez arituko gara lan honetan.

Hain zuzen ere, datu horrek erakusten duenez, Europa Sozialaren gaur egungo dimentsioaren gakoia Batasunak garatzen dituen barne merkatuko politiken eta estatu kideek gauzatzen dituzten politika sozialen arteko bateragarritasuna da, kontuan hartuta baliozko moduan aldarrikatutako Batasuneko politikek gaina hartzen dietela estatu kideen eskumeneko politikei, Europar Batasuneko Zuzenbidearen nagusitasun printzipioaren eraginez.

Hain zuzen ere, Europar Batasunak garrantzi handiko erabaki konstituzionala hartu zuen bere garaian —behar adinako eztabaida politikorik gabe—, zera xedatu baitzuen Europako Erkidegoaren Tratatuaren (EET) 4. artikuluan: «(...) ekonomia-politika ezartzea izango da Erkidegoko estatuen eta Erkidegoaren ekin-tza, lehia askeko merkatu-ekonomia irekiaren printzipioen arabera gidatuta». Hala, hasiera-hasieratik bazter-tuta gelditzen da Batasunaren printzipio hori ezartzea eragotz lezaketen zerbitzu publikoen bidez estatu kideek garatutako politika ekonomiko eta sozial oro.

Nolanahi ere, merkatu batasunari begirako Batasuneko politika horrek ezinbestean aintzat hartu behar EETren 2. artikuluko helburuetan aipatzen diren estatu sozialaren oinarri politiko eta juridikoak: enplegu eta babes sozial maila altua, garapen iraunkorra, ingurumenaren babes eta hobekuntza maila altua, bizi maila eta kalitatea hobetzea, kohesio ekonomiko eta soziala, eta estatu kideen arteko solidaritatea.

Planteamendu hori sendotzen du, gainera, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunak. Nizan aldarrikatu zuten adierazpen hori estatu kide guztiek, eta Europako Konstituzioaren proiektuari atxiki zaio, II. zati gisa; konstituzio horretan, gainera, Batasunaren alderdi soziala nabarmendu da I. zatian eta III. zatian.

Nolanahi ere, herritarren ikuspegitik hauteman dena hauxe izan da: enpresa edo ekonomia edukia zuten estatuaren garai bateko zerbitzu publikoen liberalizazio prozesua; hala nola, airetik garraioarena, telekomunikazioarena, hornidura elektrikoarena eta erregai eta gas banaketarena, burdinbideko garraioarena, etab. Horiek guztiak lehia askeko baldintzetan ematen dira gaur egun, antzinako monopolioak deuseztatuta. Eta prezioetan murrizketa nabarmena izan den arren —airetik garraioan, esaterako— eta merkatu zerbitzu berrien orokortze erabatekoa lortu den arren —telefonía mugikorrarena, esaterako—, zerbitzu publikoen pribatiza-

zio prozesuak merkatu arauen eraginez zerbitzu horien bermeak deuseztatu dituela eta zerbitzu horiek esku-ratzeko berdintasunik eza areagotu duela ikusi da Europan, kasu askotan.

Aldi berean, diru politikak —adierazle ekonomikoen baldintza jakin batzuk ezartzen baititu, aurrekontu defizitari eta zor publikoari dagokienez— sektore publiko industrialaren eta sareko zerbitzuen enpresa horni-tzaileen parte handi baten salmenta bultzatu du, goian aipatutako liberalizazio prozesu horrekin batera.

Era berean, lehia askeko politiken aplikazioak kontrol zorrotzagoa ekarri du enpresentzako laguntza pu-blikoei dagokienez, enpresa publikoenak barne. Alderdi horretatik, bereziki adierazgarria izan da Espainian itsasontzi eraikuntzaren kasua.

Prozesu horiek guztiek, mundializazio ekonomikoaren ondorioekin eta Europako enpresak eskulan mer-keagoa eta kostu sozial txikiagoak dituzten beste herrialde batzuetara deslokalizatzearekin batera, mesfidantza sortu dute, eta beldurra: Europako herrialdeetako estatu sozialaren egiturak desegiteko beldurra.

Kontuan hartzekoa da Frantziak Europar Batasunaren Tratatu berresteari uko egiteko arrazoia hau izan zela, behatzaile askoren aburuz: garai hartan, zerbitzuen liberalizaziorako zuzentarauari buruzko eztabaida egiten ari zirela Europar Batasunean, eta eztabaida horrek areagotu egin zezakeela europar politiken ikuspegi «liberala» eta Batasuneko agintariek Europa Soziala alde batera uzteko beldurra.

Funtsezkoa da, beraz, beti aintzat hartzea barne merkatua, lehia askea eta kapitalen eta salgaien zirkulazio as-kea ezartzeari begirako politikak eta Europa Sozialaren kontzeptutik eratortzen diren premiak modu egokian uztartzeko beharra; izan ere, litekeena da faktore batzuen eraginez —hala nola erabateko enpleguaren edo herri-tarren bizi kalitatearen eraginez— Batasunari protagonismo handiagoa eman behar izatea, birbanaketaren eragi-le den aldetik, edo gizarte bermeko sistema publikoei egokitu behar izatea merkatuko elementu jakin batzuk.

Nolanahi ere, abiapuntua Europako pobrezia-aren egiaztapena da, Europako Kontseiluak 2001eko aben-duan bere egindako Laekengo adierazlearen arabera neurtuta. Gizarte bazterketari eta pobrezia-ri buruzko da-tuak biltzeko 18 adierazle adostu zituzten Laeken-en, eta, 2003ko uztailean, Gizarte Babeseko Komiteak ego-kitu egin zituen: 12 adierazle primario eta 9 sekundario sailkatu zituen, aurrekoen bidetik eta haiek bilduta, baina arazoaren beste alderdi batzuk ere kontuan hartuta.

Europar gisa ongizate egoeran gauden arren, eta egoera hori bereziki adierazgarria bada ere munduko beste es-kualde batzuekin alderatuta, ezin ditugu ahaztu hainbat datu gordin, hala nola *The State of Working Europe* txos-tenekoak: txosten horrek dioenez, «EB-15eko errenta handieneko pertsonen % 20k jasotzen dute errenta osoaren % 40; eta, aldez, errenta txikieneko % 20k errenta osoaren % 7 jasotzen dute».

Baina adierazle horiek ematen dituzten datuen aberastasunak agerian uzten du ongizateari loturiko ara-zoak herrialde bakoitzaren arabera direla; hala, askotariko pobrezia mapak daude, eta ez dute denek emaitza bera erakusten.

Ikuspegi ekonomikotik, eta abiapuntu gisa hartuta Batasunaren aurrekontuetarako ez dagoela gizarte pre-miei erantzuteko kosturik txikienari aurre egiteko baliabide aski, honako adierazle hauek kontuan hartzen dira politika sozial nazionaleri dagokienez: estatu bakoitzak gastu sozialera bideratzen duen BPGaren ehune-koa, gastu hori politika sozialen arabera nola zehazten den (ehunekoak), eta gastu horren finantzaketa itu-rriak eta epe ertain eta luzera begirako iraunkortasuna, biztanleria eta zahartze adierazlearen arabera. Ikuspegi horrek erakusten digu, bere horretan, Europako herrialdeen artean askotariko finantza errealitateak daudela arlo sozialean.

Azkenik, Europan azken urteetan bizi izan den konstituzionalizazio prozesua aztertuko dugu, eta aditzera emango dugu nola joan diren politika sozialaren alderdiak nabarmentzen, oraindik behar adinako indarririk ez duten arren.

2. Abiapuntua: Estatu Soziala, xx. mendeko europako errealitatea

Badira bi alderdi historiko oso gogoan eduki beharrekoak, xx. mendearen hasieran estatu sozialaren sorrera ekarri zuten bi gertaera: merkatuaren mugak, hau da herritarren gehiengoaren premiei erantzuteko ezintasuna; eta langileriaren botoak politika publikoetan izandako eragina. Merkatuaren krisia eta demokrazia, beraz, funtsezko eragileak izan ziren estatu sozialaren sorreran.

XIX. mendeko gizarteko berdintasunik ezak bultzatuta, langile borrokak indarra hartu zuen mende haren amaieran. Borroka hartan, funtsezkoa izan zen botoaren unibertsalizazioa, eta, hortik abiatuta, bide demokratikoak erabiliz estatuko boterea hartzea, gizartea eraldatzeko, berdintasuna lortzeari begira. Hala, sufragioa hedatu ahala, gero eta garrantzi handiagoa hartu zuen estatuak premia sozialen bermatzaile gisa zuen egitekoak.

Hala, ekonomiaren arloan estatu neutrala bermatzea xede zuten garai liberaleko interes tipikoez bestelako interesak islatzen hasi ziren legeetan. Langileak elkartzeko eta ekintza sindikala bideratzeko eskubidea aitortu zen, baita lan egiteko eta lan kontratuak legez arautzeko eskubidea ere; zerbitzu publikoen ezarpen masiboa bideratu zen, eta langabeziari eta erretiroari aurre egiteko gizarte prestazioak sortu ziren.¹

Hau da estatu soziala deritzonaren funtsezko ikuspegia: merkatuak ez duenez ematen premia sozialak aseztzeko bermerik, estatuak hartzen du bere gain biziraupena bermatzeko eginkizuna, prestazioak ezarriz eta aberastasuna birbanatuz.

«Zuzenbide estatu demokratiko eta sozialaren» formula Louis Blancék planteatu zuen 1848ko Parisko Iraultzan. Gauza jakina denez, iraultza haren eragile nagusia langabezia izugarria izan zen, eta lanpostuaren bermea izan zuen oinarrizko aldarrikapena. Hortik abiatuta, langile mugimendu antolatuaren proposamenek bere egin zuten konstituzio materialeko elementu nagusietako bat —berdintasun politikoaren eta juridikoaren kontzeptua— berdintasun sozial eta ekonomikora hedatzea, eta, horretarako, estatuak funtsezko zeregina bete behar du politika ekonomikoaren orientazioan.²

Prozesu horren emaitza gisa, konstituzioak onartu zituzten Europako herrialde demokratiko gehienek, Bigarren Mundu Gerraren ondoren. Konstituzio haietan politika sozialen jarduera esparru zabala zehazten zuten hainbat ezaugarri bildu zituzten. Hala nola, jabetza funtzio sozialari atxikitzea, zerbitzu publiko jakin ba-

¹ Ikuspegi horretatik, ikus Giannini (1979), «Le pubblici poteri negli Stato Pluriclasse», *Rivista Trimestrale di Diritto Pubblico*, 2-3 zk.

² García Pelayok (1977) estatu sozialaren eta estatu liberalaren balioez egindako sintesiaren arabera: «Estatu sozial demokratiko askeak ez ditu ukatzen balio horiek; are gehiago: horiek gauzatu nahi ditu, horiei oinarri eta eduki materiala emanez, eta abiapuntu gisa hartuta gizabanakoa eta gizartea ez direla kategoria bereziak eta elkarri kontrajarriak, baizik eta elkarri lotutako bi termino, bata bestea gabe ezin gauza litezkeenak». García Pelayo (1977), *Las transformaciones del estado contemporáneo*. Madrid: Alianza Editorial.

tzuen prestazio eskubidearen aitortza, zerga progresibotasuna, eta sektore ekonomiko batzuk estatuaren esku uztea, interes orokorrekoak direlako.³

Horren guztiaren ondorioz, Europako gaur egungo estatuetan askotariko jarrerak ikusten dira, pluralismo politikoaren aitortzari esker; eta, jarrera horien arabera, eragin handiagoa edo txikiagoa dute estatuek merkatuaren erregulazioan, eta eragin korrelatibo handiagoa edo txikiagoa babes sozialean. Nolanahi ere, gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen gertaera politikoaren esparruan estatuak eta gainerako botere publikoek duten lidergoa, politika sozialeko helburuekin lotura duten politika ekonomikoko helburu jakin batzuk lortzeari dagokionez.

3. Inflexio puntua: estatuak politika sozialen antolaketan hegemonia galtzea

Laurogeiko hamarraldira bitartean, honako urrats hauek ikusi ditugu Europan: erakunde publikoen demokratizazio erabatekoa, herri subiranotasunaren dogmaren mende; berdintasunaren printzipioa balio konstituzional gisa hartzea; eta zerbitzu eta prestazio publikoen bidez herritar guztientzako gutxieneko bizi maila bat bermatzeko agindua ematea botere publikoei.

Hala ere, aurreko mendearen azken hamarraldietan, bi gertaerak arriskuan jarri dute Europako estatuak beren herritarrei eskaintzen dizkieten ongizate estandarrei eusteko duten gaitasuna. Bi gertaera hauek, hain zuzen: ekoizpen sistema berri bat agertu izanak, teknologia berrien ezarpen masiboaren eraginez; eta horren ondorioz gertatutako ekonomiaren mundializazioak.

Estatu sozialaren ereduaren ituna hitzarmen politiko eta soziala izan zen, funtsean, eta, hitzarmen haren baitan, merkatuak onartu egin zuen barne produktu gordinaren parte handi bat sektore pribatuaren eskue-tatik kanpo geldituko zela eta zerbitzu publikoak eta prestazio sozialak finantzatzeko erabiliko zela. Baina goian aipatu ditugun elementu horiek kolokan jarri dute estatuak gerraondoko itun sozialeko konpromisoak bere gain hartzeko duten gaitasuna.

Teknologia berriek eragin hirukoitza izan dute lehen deskribatu dugun estatu sozialaren eredu horretan. Lehenik eta behin, teknologia horiek kapitala metatzea eskatzen dute, horiek ezartzeak kostu handia duelako eta ikerketa inbertsio handiak egin behar direlako landutako produktuen eta eskainitako zerbitzuen etengabe-ko berrikuntzarako. Hala, azken hamarraldietan, estatu sozialaren ereduak garrantzi handiko lehiakide gisa jardun du kapital merkatuaren barruan, bai zergen bidez jasotzen dituen baliabide ekonomikoaren ehuneko dela-eta bai bere defizita finantzatzeko behar duen kapital bolumen handia dela-eta. Zerga gutxiagorekin, diru gehiago gelditzen da kontsumitzaileen eskuetan eta hauspoa ematen zaie merkatuko stockei.

Aldi berean, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek ekarri duten ekonomiaren mundia-lizazioaren eraginez, munduan ekoizten da aberastasuna, eta horrek baldintzatu egiten du gizarte demokrati-

³ Hessereren hitzetan (1983), «garapen zientifiko, tekniko eta industrialak, biztanleriaren gaur egungo hazkundeak, espezializazioak eta lanaren banaketak eta horren ondoriozko bizi erlazioen trinkotze eta eraldaketa gero eta nabarmenagoak estatuaren eginkizunen ugartzea eta aldaketa ekarri dute: estatuaren “pluralizazioa” eta “demokratizazioa”. Gero eta eginkizun gehiago esleitu zaizkio estatuari, bizitza ekonomiko, kultural eta sozial modernoak plangintza, zuzendaritza eta konfigurazioa behar dituelako; eta indartu egin da “laguntza existentzialaren” eginkizuna eta estatuaren eginkizuntzat hartzen dira, gero eta hein handiagoan, segurtasun eta asistentzia soziala». Hesse (1983), *Begriff und Eigenart der Verfassung*. Madril: Española Centro de Estudios Constitucionales.

koaren adierazpen politikoak egotz liezaiekeen birbanaketaren helburua betetzeari begira estatuek aberastasunari zerga-zama ezartzeko duten gaitasuna.

Era berean, ekonomiaren oinarrizko alderdiak arautzeko nazioarteko botererik eza dela-eta, ez dago bide politiko-demokratikotik nazioen artean aberastasunak birbanatzeko modurik. Estatu nazionalak ez duenez mundu mailako merkatua arautzeko gaitasunik, merkatutik estatura ere hedatzen da lehiaren araua, eta eskaintzari, eskariari eta etekin gorenari buruzko bere arauak ezartzen dizkio.

Azken batean, teknologia berriek ekonomiaren mundializazioa dakarte, eta mundializazio horrek, era berean, erakunde politiko-demokratikoen gainetik ezartzen ditu merkatu arauak. Mundu mailako merkatua ezarrita, lehia nagusitzen da, esparru ekonomikoan ez ezik, esparru sozialean ere.

Gauza jakina denez, gobernuek estatu sozialera bideratzen dituzten baliabideen zenbatekoak eragina izaten du produktuen kostuan; hortaz, inolako muga politikorik-demokratikorik gabeko nazioarteko lehiakortasunaren logikak zera onartzea dakar: bere produktuei estatu sozialerako kosturik txikiena ezartzen dion hura izango dela lehiakorrena.

Egoera horren arriskua da —eta azken urteetan ikusi izan ditugu horren adibide batzuk— areagotu egin ditzakeela Europako estatuetak barne tentsioak, tolerantziarik ezaren eta arrazakeriaren edo jarrera xenofobo ondorior edo lurraldeen arteko solidaritaterik eza ekar dezaketen nazionalismoen ondorioz.

Ekonomia mundializatuaren lehiaren eraginez Europako estatuek ez badute beren herritarren eskakizun sozialak asetzeko baliabide nahikorik eskuratzetik, «gabezia demokratiko» larria gertatzeko arriskua dago, ez Europako erakundeei dagokienez soilik, baizik erakunde nazionalai dagokienez.

Horregatik, ekonomia mistoaren eta estatu sozialaren ereduaren baitan politika sozial publikoak ezarri merkatuaren arauaren eragin negatiboak zuzentzen saiatzen diren eredu politikoek tresna berriak eraiki beharko dituzte, eredu horren eraginkortasunari eusteko. Merkatuko arauen mundializazioak ez dezan haien legea ezarri estatu soziala aitortuta dagoen herrialdeetako balio konstituzionalen gainetik.

Horixe da Europa sozialaren kontzeptuak aurrez aurre duen erronketako bat: Europaren indar politiko eta ekonomikoak estatu sozialaren ereduaren alde jardun dezan lortzea.

4. Europar Batasunak politika sozial propioak ezartzeko eta Europako Estatuaren politika sozialak bermatzeko gaur egun dituen mugak

Begi bistakoa da Europar Batasuna sendotzeak sakoneko aldaketa ekarri diela Europako estatuei, subiranotasun ekonomikoari loturiko gai nagusien gaineko erabakitze prozesuei dagokienez. Gogoan izan beharra dago gaur egungo integrazio politikoko ereduaren abiapuntua merkatu bateratu bat ezartzeko ideia izan zela, hastapenean. Subiranotasun nazionalari buruzko erabakiak, ordea, beren esku eduki dituzte Europako estatuek. Eta, hori dela-eta, ikusiko dugunez, askoz ere indartsuagoak dira Batasunak politika ekonomikoak arautzeko dituen tresnak, politika sozialei buruzkoak baino.

Horrek ez du esan nahi, hala ere, Europako integrazio prozesuak —batez ere, Europar Batasuna sortu zenez geroztik—, ez duenik agerian utzi kohesio sozialaren printzipioei eusteko premia, printzipio horiek hartuta Europako ereduaren bereizgarritzat. Baina ez dugu ahaztu behar prozesu horretan barne merkatua sor-

tzeko politikak eta zerbitzu publiko ekonomikoak privatizatzeko prozesuak ere gauzatu direla, Europako ekonomia munduko merkatuan lehiakorra izateko premiak berak bultzatuta.

Hortaz, adituak ez diren kanpoko behatzaileentzat ez zen batere erraza egoera horretan Batasuneko Tratatuaren politika ekonomikoen eta sozialen artean lehentasuna zerk zuen argitzea.

Europako Erkidegoaren Tratatuaren (EET) 2. artikuluan honako helburu hauek agertzen ziren:

- jarduera ekonomikoen garapen harmoniatu, orekatsu eta iraunkorra, Batasunaren baitan;
- enplegu eta babes sozial maila handia;
- emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna;
- hazkunde iraunkorra eta inflaziorik gabea;
- ekonomiako emaitzen lehiakortasun eta bateratze maila altua;
- ingurumenaren babes eta kalitatearen hobekuntza maila handia;
- bizi maila eta kalitatea areagotzea;
- ekonomiaren eta gizartearen kohesioa; eta
- estatu kideen arteko solidaritatea.

Era berean, EETren 3. artikulua zioen Batasunaren jardueran honako ekintza hauek bideratu behar zirela 2. artikuluan zehaztutako helburuak betetzeko:

- politika soziala, Europako Funtsa barne dela;
- ekonomiaren eta gizartearen kohesioa indartzea;
- ingurumenari buruzko politika;
- ikerketa eta teknologiaren garapena sustatzea;
- Europar batetik besterako sareak sortu eta garatzeko sustapena;
- osasunaren babes maila ona lortzen laguntzea;
- kalitatezko irakaskuntza eta prestakuntza lortzen laguntzea, baita Batasuneko estatuen kulturen garapen osoa lortzen ere;
- garapenerako lankidetzari buruzko politika; eta
- kontsumitzaileak indar gehiagoz babesten laguntzea.

Helburu eta politika horiek estatu sozialaren berezko balioei erreferentzia egiten diete, argi eta garbi, eta uste izatekoa da Europako botere publikoen esku-hartze maila altua beharko litzatekeela horiek lortzeko. Nolanahi ere, horretarako, aipatutako sektoreak arautzeko eskumen zehatzak eduki behar dituzte Batasuneko botereek, baita horiek sustatzeko finantza baliabide nahikoak ere. Eta Batasuneko botereek politika sozialak ezartzeko eskumenak oso tresna juridiko ahulak ditu, barne merkatuaren eraginkortasuna ezartzekoekin alderatuta.

Hain zuzen ere, EET konstituzio ekonomikoaren ikuspegitik adierazpen sendoa eta konstituzio sozialaren ikuspegitik adierazpen ahula zela esan daiteke.

Alde batetik, zera xedatu zen EETren 4. artikuluan:

«1. Goiko 2. artikuluan aipatutako helburuak lortzeko, Erkidegoko estatuen ekonomiari buruzko politiken arteko koordinazio estuan, barne-merkatuan eta helburu bateratuak adostean oinarritutako *ekonomia-politika* ezartzea izango da Erkidegoko estatuen eta Erkidegoen ekintza, *lehia askeko merkatu-ekonomia irekiaren printzipioen arabera gidatuta*, beti ere itun honetan aurreikusitako baldintzetan eta erritmoaren arabera.

2. Horrekin batera, eta itun honetan aurreikusitako baldintza, erritmo eta prozeduren arabera, ekintza horrek, diru bakarra (ecua alegia) ezartzeko, ezeztazinezko moduan finkatuko ditu truke-tasak; era berean, *diru-politika eta truke-tasen politika bakarra zehaztu eta aplikatuko du, politika bion helburu nagusia prezioen egonkortasunari eustea izanik*; helburu horren kontra joan gabe, Erkidegoaren ekonomia-politika orokorrari laguntzea ere ekarriko du, lehia askeko merkatu-ekonomia irekiaren printzipioen arabera.

3. Erkidegoko estatuen eta Erkidegoaren ekintza horiek *printzipio gidari* hauek errespetatzea eskatzen dute: *prezio egonkorak, finantza publiko eta diru-baldintza sendoak, eta ordainketa-balantza egonkorra.*»

Bestetik, berriz, zera zioen EETren 16. artikulua:

«Erkidegoak eta Erkidegoko estatuek, bakoitzak bere eskumenen arabera eta itun honen aplikazioeremuan, 73, 86 eta 87. artikuluen kontra jarri gabe, eta Batasunaren balore bateratuen artean ekonomiari buruzko interes orokorreko zerbitzuek betetzen duten tokia, eta gizartearen eta lurraldearen kohesioa sustatzeko zerbitzuok jokatzen duten papera ikusita, aipatutako zerbitzuok beren eginkizunak betetzeko moduko printzipioen eta baldintzen arabera jardun dezaten jagongo dute.»

Horiek aztertuta, ohartuko gara 4. artikuluan «ezartzea» eta «printzipioak» aipatzen direla eta, aldiz, 16. artikuluan «jagon» eta «balore bateratuak» esapideak agertzen direla; bistan da, beraz, lehenei indar handiagoa ematen diela bigarrenei baino.

Era berean, lehia askeko merkatu ekonomia irekiaren printzipioek gidatutako Batasuneko politika ekonomikoari begirako tresna sorta sendoa finkatu zen tratatuetan⁴:

- EETren 14. artikulua, barne merkatua ezartzeari buruz diharduena;
- EETren 28. artikulua eta hurrengoak, estatuek salgaien, kapitalen eta zerbitzuen joan-etorri askea mugatzeko debekua ezartzen dutenak;
- EETren 81. eta 82. artikulua, lehiaren arau nagusiak zehazten dituztenak, eta akordioak eta hitzartutako jardunbideak eta merkatuko nagusitasunezko jarreraren abusua debekatzen dutenak;
- EETren 87. artikulua, estatuek enpresa edo ekoizpen sektore jakin batzuei emandako laguntzen kontrolak zehazten dituenak;

⁴ Maduro (1998), *We the Court. The European Court of Justice & the European Economic Constitution*. Oxford: Hart.

- EETren 104. artikulua, estatu kideen defizit publikoak eta zorpetze maila mugatzen eta arautzen dituen; eta
- EETren 105. artikulua eta hurrengoak, diru politika bateratua gauzatzeko tresnak ezartzen dituztenak.

Hori dela eta, Batasuneko Zuzenbidearen ikuspegi orokorretik, Europako Konstituzioaren Tratatu berria idaztean, funtsezko zenbait elementu txertatu ziren, egiturazko bere printzipioetan merkatu askeko politiken eta politika sozialen pisua berrerekatzeko, hala nola, Europaren eredu ekonomikoa «merkatuko ekonomia sozial» gisa definitzea, eta Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aitortutako eskubide sozialen edukia Europaren eredu sozialaren interpretazioan har lezakeen garrantzia.

Giddensek adierazi bezala⁵, ezinbestekoa zen «justizia soziala» kontzeptua txertatzea Lisboako eztabaidan, mahai gainean jartzeko, ez soilik hazkunde ekonomikoari loturiko elementuak, baita hazkunde horrek Europako biztanleriaren parte handi bati eska diezazkiokeen sakrifizioen aringarriak ere.

Prozesu horrek gaur egungo Lisboako Tratuaren duen adierazpenak merkatu politiken eta politika sozialen arteko oreka lortzeko bidea eman dezake.

Hain zuzen ere, zera dio Europar Batasuneko Tratatuaren 2. artikulua:

«Batasunak oinarrizko balio ditu gizakiaren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatu eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barnean direla. Estatu kide guztiek erkide dituzte balio horiek, aniztasuna, bereizkeriarik eza, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezaugarri dituen gizartearen baitan.»

Enunziatu hori Maastrichteko Europako Erkidegoaren Tratatuaren lehengo 6. artikuluekin alderatuz gero, aise ohartuko gara berdintasunaren eta solidaritatearen balio berriak jasotzen dituela.

Balio horiek era esplizituan zehaztuta daude EB-Tren 3. artikuluan:

«Batasunak gizarteko bazterkeriaren eta bereizkeriaren aurka egingo du eta gizarte-justizia eta -babesa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, belaunaldien arteko elkartasuna eta haurren eskubideen babesa sustatuko ditu.

Batasunak estatu kideen arteko ekonomia-, gizarte- eta lurralde-kohesioa eta elkartasuna bultzatuko ditu.»

Europar Batasunaren Funtzionamenduari Buruzko Tratatuaren (EBFT) 9. artikulua ere zera dio:

«Politika eta ekintzak zehaztu eta gauzatzeko lanetan, Batasunak kontuan hartuko ditu honako arlo hauei lotutako eskakizunak: enplegu-maila handia sustatzea, gizarte-babes egokia bermatzea, gizarteko bazterkeriaren kontra borrokatzea, eta hezkuntzan, prestakuntzan eta giza osasunaren babesean maila handia lortzea.»

⁵ Giddens (2006), «Debating the Social model: Thoughts and Suggestions», in *The Hampton Court Agenda: a Social Model for Europe*. Londres: Policy Network, 96. or.

Egia da EETren lehengo 4. artikulua EBFTren 119. artikuluan jasota dagoela, EB-Tren 3. artikuluan aipatutako helburuak lortzeko tresna gisa. Baina helburu horien definizioan ñabardura berriak agertzen dira, barne merkatua ezartzeari dagokionez besteak beste:

«Batasunak barne-merkatua ezarriko du. Europaren garapen iraunkorraren alde egingo du lan, horretarako oinarritzat hartuta ekonomia-hazkunde orekatua eta prezioen egonkortasuna, enplegu betea eta gizartearen aurrerabidea jomuga dituen lehiakortasun handiko merkatuko ekonomia soziala, eta ingurumenaren babes-maila eta kalitatearen hobekuntza-maila handia. Era berean, aurrerabide zientifikoa eta teknikoa ere sustatuko ditu.»

Helburuen adierazpen horretan, «merkatuko ekonomia soziala» esapidea agertzen da, eta Europako eredu ekonomikoari ñabardura berri bat atxikitzen dio horrek.⁶ Gerraondoko Alemaniaren esanahi historikoa berreskuratzeko asmorik gabe,⁷ erreferentzia berri horretaz eztabaida egin zuen Europako Konstituzioaren Tratatu idazteko Konbentzioaren Europa Sozialari buruzko IX Lantaldeak, eta hauxe nabarmendu zuen: «Garapen ekonomiko eta sozialaren arteko lotura eta politika ekonomikoen eta sozialen arteko koherentzia areagotzeko egindako ahalegina».⁸ Ildo horretatik, zera adierazi da merkatuko ekonomia sozialaren kontzeptu berria txertatzeari buruz: «Europar Batasuna merkatuarekiko kezka bakarretik abiatuta helburu sozialen eta ekonomikoen arteko parekidetasunezko erlaziora eta mendekotasunik ezeko erlaziora iristeko egiten ari den prozesua islatzen du, Europar Batasuna sortu zeneko espirituaren eta Batasunaren ibilbidearen parte diren aldetik».⁹

Guk ere zera adierazi genuen bere garaian¹⁰ kontzeptu horri buruz: «Europar Batasunaren eredu ekonomiko konstituzionalaren beraren definizioan integrazio proiektuaren alderdi ekonomikoaren eta sozialaren arteko erlazioen ikuspegi berria islatzeko ahalegina adierazten du, azken batean».

Lehia askean soilik oinarrituriko barne merkatuaren eta kohesio sozialaren arteko oreka berria nabarmentzen da, halaber, EBFTren 14. artikuluan, zeinak baitio:

«Batasunak eta Batasuneko estatuek, bakoitzak bere eskumenen arabera, Tratatuaren aplikazio-eremuan eta Europar Batasunaren Tratatuaren 4. artikulua eta tratatu honen 93., 106. eta 107. artikuluei kalterik egin gabe, eta Batasunaren balio erkideen artean ekonomia-interes orokorreko zerbitzuek betetzen duten tokia eta gizarte- eta lurralde-kohesioa sustatzeko zerbitzuok jokatzeko baldintzen arabera (ekonomia-eta finantza-arlokoak batez ere) jardun dezaten jagongo dute. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ezarriko dituzte printzipio eta baldintza horiek erregelamendu bidez, legegintzako prozedura arruntari jarraituz eta estatu kideek, tratatuak errespetatuz, zerbitzu horiek emateko, gauzatzeko eta finantzatzeko duten eskumenei kalterik egin gabe.»

⁶ Ikus, zabalago, Ortega eta Arroyo (2007), «Constitucionalismo europeo y Europa Social», in *Revista Española de Derecho Europeo*, 2007ko uztaila-iraila.

⁷ Joerges eta Rödl (2004), «Social Market Economy as Europe's Social Model», in *EUI Working Paper LAW 8/2004*, 17. or. eta hurrengoak.

⁸ XI Taldearen Amaierako Txostena, CONV 516/1/03. Brusela, 2003ko otsailaren 4a, 10. or.

⁹ Malatet eta Marsal (2005), «Constitución europea y derechos sociales», in *Documentación Administrativa* 271-272. zk., 93. or.

¹⁰ Ortega eta Arroyo, *op. cit.*, 350. or.

Agindu hori Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 36. artikuluekin erlazionatu behar da; zera dio artikulua horrek:

«Batasunak aitortu eta errespetatu egiten du ekonomia-interes orokorra duten zerbitzuez baliatu ahal izatea, estatu bakoitzeko lege eta jokaerak ezarritako moduan, Tratatuarekin bat etorriz, Batasuneko gizartearen eta lurraldearen kohesioa sustatzeko.»

Bi artikuluek aitortzen dute eduki ekonomikoko zerbitzu jakin batzuk emateko egitekoa dutela, ez estatu kideek soilik, baita Europar Batasunak ere, lehia askeak gidatutako merkatuarenez bestelako ekonomia eta finantza baldintza batzuen arabera, gizarte eta lurralde kohesioaren helburua lortzeko.

Azken batean, alderdi sozialarekiko orekaren alderdi berri hori lehia askeari atxikitzeko beharrezkoak diren arren Batasuneko erakundeen lege garapena eta jurisprudentzia, egia da Lisboako Tratatu berrietan oinarri juridiko berri bat ageri dela, alderdi soziala Europako konstituzioaren kontzeptuan bertan maila estrukturalan txertatzean datzana, eta ez merkatu askean oinarrituriko politiken hondar emaitza soil gisa.

Maila estruktural hori EB-Tren 3. artikulua lokalizazio sistematikoak adierazten du, batik bat (artikulu horretan merkatuko ekonomia soziala aipatzen da, I. Tituluan, «Xedapen Erkideak» atalean); baita EBFTren 9. eta 14. artikuluek ere, non nabarmentzen baitira gizarte bereizkeriaren kontrako borroka eta interes ekonomiko orokorreko zerbitzuei begira printzipio eta baldintza ekonomiko berriak txertatzeko ahalegina, «Aplikazio Orokorreko Xedapenak» biltzen dituen tituluan (II. Tituluan). Aldiz, EBFTren 119. artikulua (EETren lehengo 4. artikulua) VIII. Tituluan ageri da, Batasunaren politiketako bat —Ekonomiari eta Diruari Buruzko Politika, hain zuzen ere— biltzen duen tituluan.

5. Ekonomiaren mundializazioaren eragina Europako Barne Merkatuaren araudian. Pribatizazioa, lehia askea eta zerbitzu ekonomiko unibertsalak

Esan bezala, xx. mendearen azken hamarraldietan, ideia berri bat sortu zen ordura arte zuzenbide estatu sozial eta demokratikoarekin nahiko bat zetorren europar konstituzionalismo berriaren esparruan: munduko erronka teknologikoari eta globalizazioaren erronkari aurre egiteko estatu kideen ekonomien luzapen modura jardungo zuen europar merkatu bateratu baten sorreraren ideia, hain zuzen ere.

Horrela, Batasuneko Zuzenbidearen eskutik, eztabaida sakona sortu zen zerbitzuei eta enpresa publikoei buruz, ideologia neoliberalaren eraginez ordura arte maila nazionalen gertatzen ari zen eztabaidaren bide beretik; izan ere, Batasuneko Zuzenbideak xedatu zuen merkatuko arauen arabera antolatu behar direla herritarrek ordura arte zerbitzu publiko edo diruz lagundutako enpresa publikoen bitartez jasotzen zizuten prestazio edo jardura jakin batzuk, batik bat energiaren, garraioen eta telekomunikazioen sektoreetan.

Idea horren oinarrian, sektore horietan eskariaren eta eskaintzaren europar esparru bat eratzera bideratutako politika industrial eta politiko bat dago, zeinaren helburua baita Europako teknologia eta ekonomia lehiakorrek izatea munduko beste eskualde batzuetako aldean —garai hartan, batik bat, Japonia eta Amerikako Estatu Batuen aldean—.

Lehen esandakoaren bidetik, Europar Batasunak garrantzi handiko erabaki konstituzional bat hartu zuen, zera ezarri baitzuen EETren 4. artikuluan: «(...) ekonomia-politika ezartzea izango da Erkidegoko estatuen eta Erkidegoaren ekintza, lehia askeko merkatu-ekonomia irekiaren printzipioen arabera gidatuta».

Esparru horretan, eta Batasuneko Zuzenbidearen nagusitasun printzipioaren ondorioz, alde batera utzi ziren honako alderdi hauen arautze askea ahalbidetzen zituzten estatu kideen oinarri konstituzionalak: kontratazio administratiboaren erregimena, diru laguntzen banaketa, eta galduzko zerbitzu publikoak eta monopolio erregimeneko enpresa jarduerak.

Batasuna lehen alderdia arautuz joan da, pixkanaka, estatuak, beren aurrekontu ahalmenari jarraituz gastu publikoa zehazteko garaian, kapitalen eta enpresen joan-etorri askearen printzipio erkidea urratzerik izan ez dezaten, formaz edo izatez mugatuz enpresa ez-nazionalak kontratu publikoak eskuratzeko lehian sartzeko aukera, edo botere publikoek kontratu publiko horiek lehia askeko erregimenean ari ez diren enpresei ematea.

Hala ere, merkatu politiken batasunaren eta lehenitasunaren aldeko Batasunaren politika horrek ezinbestean bat etorri behar du EETren 2. artikuluan jasota dagoen europar konstituzionalismoaren urrezko beste arau batekin, zeinak aldarrikatzen baititu helburu hauek Batasunarentzat: enplegu eta babes sozial maila altua, garapen iraunkorra, ingurumenaren babes eta hobekuntza maila altua, bizi maila eta kalitatea hobetzea, kohesio ekonomiko eta soziala, eta estatu kideen arteko solidaritatea.

Europako balio konstituzionalen —lehia askearen eta kohesio sozialaren— arteko uztartze horrek isla du EBFren jurisprudenzian (Corbeau eta Amelo auziak), baita merkatuko lehiaren mende dauden sektoreetan zerbitzu unibertsalak bermatzeari buruz Batzordeak hartutako jarreretan ere. Horien emaitza da, hain zuzen ere, EETren 16. artikulua, zeinak aitortzen baitu «ekonomiari buruzko interes orokorreko zerbitzuek betetzen duten tokia, eta gizartearen eta lurraldearen kohesioa sustatzeko zerbitzuok jokatzeko duten pape-ra»; eta, haren arabera, Batasunak eta estatu kideek «aipatutako zerbitzuok beren eginkizunak betetzeko moduko printzipioen eta baldintzen arabera jardun dezaten jagongo dute» hortik abiatuta.

Zenbaiten aburuz, Batasuneko Zuzenbideak interes orokorreko zerbitzu ekonomikoak liberalizatu ditu, eta zuzenbide orokorraren diziplinaren mende jarri ditu. Baina horri buruzko ñabardura interesgarri batzuk egin behar dira.

Lehenik, gogoan izan beharra dago liberalizazio horren aurretik, sareko zerbitzuak zuzenbide pribatuaren mende zeudela, operadoreak erabiltzailearekin duen harremanari dagokionez. Era berean, xehea eta zorrotza izan daiteke sektore horien erregulaziorako eskumen publikoa; Espainiaren kasuan, esaterako, telekomunikazioen esparruan, erabiltzailearen eta operadorearen arteko liskarrak prozedura administratiboaren mailara eramaten ditu, eta, errekurtsorik jarriz gero, auzien jurisdikzioraino iristen dira.

Mota horretako zerbitzuei dagokienez Batasuneko Zuzenbideak dakarren benetako berrikuntza hau da: konkurrentzia erregimeneko ekimen pribaturako askatasuna ezartzen duela, arautzailearen eta kudeatzailearen posizioen bereizketari buruzko eta sareen arteko loturaren eta haietarako sarbidearen eskubidearen ondorioei buruzko ohar osagarriekin. Baina berrikuntza horien xedea ez da erabiltzaileen posizioa arautzea, zuzenean. Erabiltzaileen posizioa zerbitzu unibertsal deritzenen arauak arautzen dute, nagusiki, baina horien osagarri izan daitezke kontsumitzaileen eskubide espezifikoak; Espainiaren kasuan, hala gertatzen da, adibidez, Telekomunikazioen Lege Orokorrarekin.

Edonola ere, zerbitzu unibertsaleko arauak ez dute zerbitzu publikoaren kategoria berri bat eraikitzeke biderik ematen, arautzaileak zerbitzu edo jarduera bat eskaintzen duen horri ezarritako obligazioak edo zamak baitira, eta sektoreko araudiaren kategorian sartuko bailirateke gehiago.

Zerbitzu liberalizatuak arautzea ez denez Batasunaren eskumen materiala, haren esku hartzearen xedea ez da izan politika bateratu bat ezartzea, politika nazionalak deuseztatzea baizik, guztiak merkatuaren eragin bateratzailearen mende jarrita.

Elementu kualitatibo bat aipatu behar da hemen: zerbitzu unibertsalarena ez da politika publikoa, baizik eta merkatuaren funtzionamendu karga bat. Karga hori artikulatzeko, jarduera ekonomikoaren hartzailearen irudia jartzen da beste ezeren aurretik, eta, horrela, estrukturalki, hobeto egokitzen zaio kontsumitzaileen zuzenbideak zerbitzu unibertsalari buruz ezartzen dituen arauak, berdintasun sozialerako politikari baino.

Zerbitzu unibertsalari kohesio sozialerako baliagarritasuna aitortzeko oinarria da gizartearen funtzionamendurako beharrezko jardueratzat hartzen dela eta, ziklo historiko honetan, haren funtzionamendua hobekien antola dezakeena merkatua dela jotzen dela, teknologia arloko inbertsioei esker eta lehia askeak dakartzan ondorioei esker.

Merkatuarekiko konfiantza horrek bultzatuta, agian, ez dago iraunkortasun printzipioaren porrot ekonomiko edo materiala gertatuz gero zerbitzuari eusteko berme publikoa jasotzen duen klausula espliziturik. Nolanahi ere, aipatu behar da Espainiako telekomunikazioen legedian jasota dagoela berme hori, zerbitzua behar bezalako lege baldintzetan ematen ez duten operadoreen jarduerak bere gain hartzeko eskumena aitortzen baitio estatuari.

Hortik beste gogoeta bat eratortzen da: operadorea desagertzeari aurre egiteko berme publikoek ez ote dituzten kokatzen zerbitzu horiek Duguitek zerbitzu publikoei buruz emandako definizioaren ildo ideologikoan, hau da, gizarte elkarreraginarekin duten loturaren arabera estatuak bermatu beharreko jardueren esparruan.

Edonola ere, agerikoak dira zerbitzu publikoaren eta zerbitzu unibertsalaren arteko aldeak, bi ikuspegi-tatik. Zerbitzu publikoaren ezaugarri klasikoak dagokienez, aipatzekoa da zerbitzu unibertsalak ez duela eskatzen antolamendu publikorik, konkurrentzian jardungo duten antolakunde ugari baizik. Nolanahi ere, araudi publikoa aplikatu dakiok, baita esku hartze administratibo zorrotza ere, operadorearen eta erabiltzailearen arteko kontratu harremanaren legezkotasunari dagokionez. Hau da, hein handi batean, emakiden baldintzetako klausulen edukia arau gisa ager daiteke buletin ofizialetan. Zerbitzu unibertsalaren xedea interes orokorren babesa da, zerbitzu publikoarena bezalaxe, baina sektore araudietan edo zerbitzu inpropio deritzenetan (hala nola taxi zerbitzuan edo botiken zerbitzuan) ezartzen direnen antzeko kargen bidez artikulatzen da.

Azter ditzagun, orain, zerbitzu unibertsaleko erregimenean eskaintzen diren zerbitzu liberalizatuen ezaugarriak. Ikus dezagun zer egoeratan gelditzen diren erabiltzaileak. Konkurrentzian zerbitzua emateko askatasunaren araua abiapuntu hartuta, abantaila nagusiak aukera askatasuna —askotariko kalitatea duten zerbitzuen artean aukera egitekoa— eta lehiari esker gerta daitekeen prezio eta kalitate hobekuntza dira. Nolanahi ere, era horretako zerbitzuen finantza hein handia dela eta, oligopolioak sortu ohi dira zerbitzu horiek eskaintzeko, oro har. Horrek erakusten du ez dagoela, kontsumitzaileari dagokionez, enpresa kopuru jakin batzuen arteko konkurrentzia eskatzeko eskubiderik. Hala, merkatuan oligopolio egoera gertatuta ere, kolusioa dakarten jarduerak direnean baino ezingo du salaketarik egin erabiltzaileak. Ildo horretatik, akatsa izan daite-

ke sektore horietan oligopolioaz bestelako egoera sortuko dela pentsatzea eta, hala, araudiak irudipen horren arabera eratzea.

Araudiaren eta kudeatzailearen arteko bereizketa bermatu beharra dago, iparramerikar esperientziari jarraituz arautzailearen atzemate efektua saihesteko. Botere independenteen irudia eztabaidarako gaia izan daiteke estatuak bere enpresak pribatizatu dituen tokietan eta enpresa askatasunaren ondoriozko arrisku politiko nabarmenik ez dagoen tokietan; eta, edonola ere, botere horiek dagokion sektoreko adituek osatuak izanik, bermatu egin behar da aditu horiek sektoreari buruz erabateko independentzia dutela. Neutraltasunaren bermea ezartzeko, estatutu gardena behar da aditu horiek beren posizio publikoa uzten dutenean hartuko duten bide profesionalari buruz. Hala ere, sektoreari buruzko independentziak erabatekoa behar du: merkatu baldintzak erabiltzaileen mesedetan etengabe aldatzeko moduan jardun beharko luke arlo politikoak, bereziki zerbitzu unibertsalaren edukiak hedatzeari dagokionez.

Berdintasunaren eta jarraitutasunaren printzipioak, ordea, gero azalduko dugun unibertsaltasunaren printzipio berriari lotuta daude. Dena den, premia duten sektoreentzako diru laguntzak bideratzekotan, zorrotz zaindu beharra dago laguntza horiek ez izatea enpresa jakin batzuentzako laguntza publiko mozorrotuak.

Hobekuntza teknikoetarako egokitzapena irizpide politikoa da oraindik; erabiltzaileak ez du eskubide subjektiborik horri buruz, eta nekeza da eskakizun hori bide judizialek artikulatzea. Edonola ere, ez dugu ahaztu behar hobekuntzetara egokitzeko gaitasunik eza izan zela aurreko mendean zerbitzuak udalen esku uzteko arrazoi historikoa.

Unibertsaltasun printzipioari dagokionez, zalantza handiak sortzen ditu haren aplikazioak. Printzipio hori Estatu Batuetan sortu zen, eta, hasieran, zera aldarrikatzen zuen: sareen arteko elkarlotura, ekimen pribatuan oinarrituriko zatiketak zerbitzuaren hedapena muga ez zezan. Zerbitzua balizko erabiltzailearen bat dagoen lurraldeko azken txokora eramatea hartzen bada orain helburu gisa, zerbitzua ezartzeko eskubide subjektiboa sortuko genuke, eta horren kostuak eragina izango luke erabiltzaile guztiengan, prezioen bidez.

Baina, ikusi dugun moduan, zama ekonomiko izugarria dutela-eta uko egiten bazaio eskubide sozial konstituzionalen eraikuntza dogmatikoari, estatuaren aurreko benetako eskubide subjektibo gisa, nola lortuko dugu merkatuak kostu hori bere gain hartzea, enpresa publikoek ere beren gain hartzen ez bazuten, diru laguntzak jaso arren eta monopolio erregimenean jardunez? Zer gertatuko da zerbitzu jakin batean operadore nagusirik ez badago? Zalantza horiek ikusita, gerta liteke unibertsaltasunaren printzipioa sarbide berdintasunaren printzipio bihurtzea, instalazioak erabiltzailearen eskura badaude; edo zerbitzu unibertsalaren edukia bertsio minimoan aitortzea. Egia da kontrol publikoak zorrotzak direla; baina egia da, halaber, ekimen pribatu askeko sistema nekez egokituko zaiela unibertsaltasunaren printzipioaren edukiei.

Azken batean, Batasuneko Zuzenbidetik eratorritako erregimen unibertsaleko zerbitzuen liberalizazio prozesuak gorabeherak eragin ditu estatuak eta erabiltzaileek zerbitzu horiei buruz zuten posizioan. Estatuak galdu egin du politikak lantzeko aukera, dagoeneko ez baitu zerbitzua ematen duten agenteen gaineko kontrolik. Hau da, esku hartzeko ahalmenaren erabilera bera eta hark aukerako elementu gisa duen indarrarena dira desagertzen direnak.

Bestalde, interes orokorreko zerbitzu ekonomikoen kudeaketa pribatizatu arren, merkatu harreman zuzenen babesak publikatuta jarraitzen du, kontsumo zuzenbidearen eraginpean. Era berean, monopolio erregimena lehia askeko erregimenera aldatu arren, publikatuta jarraitzen du lehiaren arauen gaineko kontrolak, dagokion Administrazioaren babespean.

Nolanahi ere, babes horiek legezkotasunaren babes soil gisa dihardute, Administrazioak ez baitu modu prozedimentalizatuan esku hartzen zerbitzua eskaintzeko aukeraren eta eskariaren premien arteko interesen egituraketan.

Batasuneko Zuzenbideak aldaketa juridikorako erakutsi duen ahalmena handia izan arren, zerbitzuak liberalizatzearen eta konkurrentzia erregimenean eskaintzearen aldeko apustua ezinezkoa izango zen aldez aurretik zerbitzu publikoen erregimen juridiko-publikoaren ahultasunari antzeman izan ez balitzaio eta zerbitzu operadoreen prestazio jarduerarik ezeko balizko egoerei aurre egiteko bermeen eskakizun gero eta handiagoari erantzun izan ez balitzaio, zerbitzu unibertsalaren kontzeptuaren bidez.

Zerbitzu publikoaren jatorrizko eskema, antolakunde publikoek zuzenbide publikoaren araudiaren baitan prestazio jakin batzuk bermatzea oinarri zuena, ezin izan zen koherentziaz kontzeptualizatu, hasieratik; eta, pixkanaka, jarduera publikoaren hedaduraren eta moldeen ugaritasunaren ondorioz haren baitan sortutako kontraesanek kolokan jarri zuten kontzeptu politiko edo sozialetik harago jotzeko zuen gaitasuna.

Alde batetik, hiru bidetatik gainditu da estatuak jarduera jakin batzuk bere esku edukitzea zekarren funtzio publikoen edo aginteen arteko bereizketa. Lehenik, funtzio publikoak eskuordetu zaizkie pertsona juridiko pribatuei, adibidez, historikoki, merkataritza sozietateen bidezko zuzeneko kudeaketaren bidez, emakidaren titularrari botereak eskuordetuz, edo, berrikiago, kontratu bidezko eskuordetzearen bidez, eta egiaztapenen bidez, esaterako IAT (ibilgailuen azterketa teknikoak), kontratu publikoei buruzko legedi orokorrari berari kontra eginez.

Bigarrenik, jarduera pribatua arautzen duten baldintza publikoak betetzeari dagokionez baliozkotzat hartu dira egiaztapen pribatuak, adibidez ekoauditoreak eta ingurumen inpaktuaren adierazpenak, baita «arau teknikoak» deritzenen adierazpenak ere, ekoizpen jarduerak eta zerbitzuak garatzeko azken baldintza gisa onartzen direnak. Weberren administrazio eredua, ezagutza teknikoak zilegitua, krisi sakonean murgilduta dago, eta ez dago jakiterik krisi horrek zer ondorio izan dituen ikerketa biokimikon eta teknologikoan.

Hirugarrenik, botere funtzioek ez dute eragotzi merkatu paralelo baten sorrera; merkatu horren adierazgarri dira, besteak beste, segurtasun enpresak eta posta zerbitzuak.


Krisi kontzeptualaren bigarren adierazpena zerbitzu publiko, administratibo, sozial eta ekonomikoen arteko bereizketa egiteko saiakera da. Jarduera ekonomikoaren ikuspegitik, administrazio zerbitzuetan eta zerbitzu sozialetan ere sortu da merkatu paralelo bat, eta horren erakusgarri dira aholkularitza bulegoak, osasun pribatua, hezkuntza pribatua, turismo pribatua, hirugarren adinekoentzako zerbitzuak, kultura, ikerketa zientifikoa, etab. Zerbitzu ekonomikoekiko bereizketarako irizpide implizitua izan da estatuak zerbitzu horiek emateko, enpresa moldea erabiltzen zuela eta izaera juridiko pribatua hartzen zuela. Baina horrek ez du esan nahi zerbitzu sozial deritzen horien aurrez aurre ez daudenik lehia askea ezartzea eska dezaketen beste merkatu handi batzuk. Hain zuzen ere, Batasunari dagokionez, dagoeneko esku hartu du posta zerbitzuen sektorean, eta, enpresa sektore pribatuaren esparrutik, berdin eska liteke konkurrentzia gainerako zerbitzu soziale-tara ere hedatzea. Aipatu nahi dut, hala ere, sektore horietan nabarmen gelditu dela, hain zuzen ere, zerbitzu publikoaren eta merkatuaren arteko bateragarritasuna; izan ere, instantzia publikoek diseinatutako esku hartzea kolokan jarri gabe, merkatuak asmatu egin du bere jarduera espazio propioa aurkitzen, alderdi kualitatiboaren eskaintzaren bidez. Era berean, zerbitzu publikoetan jarduera ekonomiko paralelo hori sortzearen ondorioz, ez da batere erraza horiek «interes orokorreko zerbitzu publiko» kategoria komunitarioaren barruan sartu behar diren edo ez erabakitzea, sektore sozial deritzen horietan batera ageri direlako bi ikuspegiak, ekonomikoa eta interes orokorrarena. Besteak beste, alderantziz ere gertatzen delako; alegia, ezin uka daitekeela

sareko horniduretako zerbitzu ekonomiko deritzenek izaera sozialeko eginkizuna dutela. Biek, zerbitzu sozialek eta ekonomikoek, dute atxikita alderdi soziala eta biek dihardute merkatu batean. Jarduera publikoak ez du beti erabili izan enpresa moldea ere, hala nola posta zerbitzuan eta, bere garaian, burdinbide zerbitzuan. Eta, era berean, irrati eta telebista zerbitzu publikoak, kulturakoak, aisiakoak, etab. enpresa modura ematen dira, eta ez dira zerbitzu ekonomiko gisa sailkatzen.

Funtsezko zerbitzuak jabetza publikoaren esku utziz egindako akats larriak paradoxa handi bat ekarri du; zerbitzu publikoaren kontzeptua merkatuarekiko kontrakotasun modura ezaugarritu dutelako. Paradoxa da, kontuan hartzen badugu funtzio publikoak gauzatzen ziren eremuan merkatua onartu dela eta funtzio ekonomikoak gauzatzen ziren esparruan, berriz, jabetzaren erreserbaren gaia planteatu dela. Monopoliorako erreserbarekin batera, estatuak ekonomian zuen presentziak kontraesan handia sortzen zuen ekimen ekonomiko askearekin, eta, aldi berean, estatuaren kudeaketa ekonomikoaren gogobetetasunik ezak eta ustelkeria politikoaren arriskuak bidea ireki zion zerbitzu publikoen sistemaren kritikari, Europar Batasunak monopolio erregimenean gordetako ekonomia jarduerako sektore estatalen liberalizazio prozesuari ekin zionean. Kontuan hartu beharra dago, halere, zer gertatuko litzatekeen zerbitzu ekonomiko deritzenek ekimen pribatu askea onartu izan balute, jarduera publikoaren paraleloan, eta sare publikoetarako elkarlotura eta sarbiderako eskubidea ezarri izan balitz.

Bistan denez, ez elementu subjektiboa, ez elementu juridiko formala eta ez elementu objektiboa ez dira baliagarriak zerbitzu publikoak zedarritzeko, merkatuak eman ditzakeen zerbitzuen aurrean. Zerbitzu publikoak jarduteko, estatuak askatasunez abian jar dezakeen funtzio batez jardun beharra dago, berme maila aldakorrekin eta erregimen juridiko aldakorrekin, xede konstituzionalen arabera, betiere askatasun hori mugatzen ez badute Batasuneko merkatu irekiko eta lehia askeko ekonomiaren printzipioek.

Aurreko atalean azaldu bezala, Lisboako Tratatuak idatzita, finkatu egin da Europaren konstituzio ekonomikoaren formulazio berri baterako bidea emango duen oinarri juridikoa; orain, zedarritu egin beharko dira estatuei ez ezik Batasunari berari ere kohesio sozialaren eta lurralde kohesioaren mesederako interes ekonomiko orokorreko zerbitzuak ezartzeko aukera emango dieten printzipioak eta baldintza ekonomiko eta finantzarioak.



LAURA GÓMEZ URQUIJO

*Europar Batasuneko Ekonomiako Irakasle Titularra,
Deustuko Unibertsitatea*

laura.gomez@deusto.es

Ekonomia eta Diru Batasunaren krisitik

Europa sozialaren krisira

Edukiak: 1. Sarrera.—2. Hasiera batean aurreikusitako eredia Ekonomia eta Diru Batasunean, eta politika sozialarekin duen lotura.—3. Eskakizun berriak Ekonomia eta Diru Batasunarentzat eskakizun berriak Lisboako Itunaren esparruan.—4. Zerga pizgarrietarako edo austeritaterako politiken ezarpenak dakarren dilema: Ekonomia eta Diru Batasunaren bereizgarriak.—5. Doikuntza planen ezarpena EDBren zorraren krisian: gastu sozialaren murrizketa.—6. Gobernamendu ekonomikoa indartzea: esparru berri bat kohesio sozialarentzat?—7. Ondorioak.

1. Sarrera

Europa soziala deritzana tradizioz lotzen zaio europar integrazio ereduari, nahiz eta merkatu komun bat sortzek ez zuen politika sozial komun bat planteatzen, ezta babes komunerako eskema bat ere; Ongizate Estatu talde honen estandarte bihurtu da, historikoki presente bere kide guztiengan. Erromako Itunetik aurrera, merkatu komuna izan zen, ustez, herritarren bizi mailaren hobekuntza helburua beteko zuen bidea, eta, horrela, proiektuaren hastapenetik, garapen soziala eredu ekonomikoaren garapenari lotu zitzaion. Hala, barne merkaturkoa izateak modu funtsezkoan markatu du politika sozial komunaren norabidea, bereziki enpleguarekin, lan baldintzekin eta langileen mugikortasunarekin zerikusia zuten auzietarantz bideratuta. Langileen eta kapitalen zirkulazio askeak edo lehiakortasunaren defentsa politikak ezinbestean eragindakoa, politika komuna pixkanaka zabaltzen joan da beste arlo batzuetara, besteak beste, berdintasun arlor edo gizarte bazterkeriaren aurkako borrokaren arlor. Hala ere, politika sozialaren «corea» Estatu kideen esku egon da, eta politika sozial komunaren pisu txiki hori are eta nabarmenago gelditu da agerian zenbat eta aurrerago joan integrazio proiektua.

Merkatu bakarretik Ekonomia eta Diru Batasunera pasatzea da Europa sozialaren dimentsioa gaur egun gehien baldintzatzen duena, eta, horrela, «Europa Sozialari» inposatzen zaion konbergentzia ekonomikoaren marko bat eratzen da, eta esparru horretan har litezkeen Batasuneko naiz estatu mailako erabakia markatzen da.

Jadanik mahai gainean zegoen eredu sozialaren kuestionatzea —mantentzea izugarri garestia zen zerbaiten ikur gisa— areagotu egiten da finantza eta ekonomia krisia iritsi orduko. «Europar eredu sozial» bat ez badago ere, berez badira ukituta geratzen diren Estatu kideen eta haien politika sozialen ezaugarri komun batzuk (esa-

te baterako, errenta berdintasun handiagoa edo hainbat gertakizunetan dagoen babes handiagoa, besteak beste, gaixotasuna, langabezia edo zahartzaroa, munduko beste ezein eskualdetan gertatzen ez dena). Sortuz joan dira kontraesan nabarmen bat agerian jartzen duten gertakari batzuk: Europar Batasunak gastua murrizteko neurri batzuk ezarri ditu antza; Estatu Batuek, berriz, politika sustagarriekin jarraitzen dute; Europar Batasuna bere eredu soziala desegiten ari dela ematen du, haren gaineratik bere finantzen saneamendua jarriz; Estatu Batuek, berriz, bere babes sozialaren zati bat indartu dutela ematen du, osasun estalduren erreformari esker.

Egoera horren aurrean, Ekonomia eta Diru Batasunaren eskemak politika sozialean duen eraginaren alderdi garrantzitsuenak aztertuko dira ondoren, eta bereziki azpimarratuko da egungo krisi ekonomikoari ematen zaizkion erantzunekin duen lotura, egiazko test bat bihurtu baita Europar Batasunaren ekonomia kohesio eta integrazio ereduarentzat.

2. Hasiara batean aurreikusitako erdua Ekonomia eta Diru Batasunean, eta politika sozialarekin duen lotura

Batasuneko sortzaileek babes soziala integrazio ekonomikoaren bitartez iritsiko zela uste bazuten ere, egia esan, hura kaltegarria izan daiteke babes sozialeko sistementzat eta, are gehiago, ekonomia eta diru batasun batean. Argudia liteke integrazio batean hazkunde ekonomikoa gertatuz gero, horrek hazkunde gehiago ekarriko duela eta horrek aukera gehiago eman dezakeela babes sozialeko sistema bat finantzatzeko; hala ere, kontrako zentzuan, arrazoitu liteke integrazio ekonomikoaren nazioarteko lehiakortasunaren aurrean, herri-tarrek babes sozial handiagoa eskatzen dutela. Bestalde, nazioartekotzeak faktoreen mugikortasun handiagoa dakar, pertsonak beste leku batzuetara joaten baitira etekin sozialak gozatuko dituztelakoan, eta horrek behe-rantzko elkarganatzea ekar dezake, eta, ondorioz, eskuzabalenak diren babes sistemak murriztu, herrialde horiek euren lehiakortasun posizioak ahulduta ikustean. Ez da begien bistakoa, beraz, ikuspegi teoriko batetik, integrazio ekonomikoak babes sozial handiagoa edo txikiagoa ekartzen duen, eta sistemen berezko elkargana-tzea egongo den edo ez.

Batasunaren helburuen artean kohesio ekonomiko eta soziala eta Estatu Kideen arteko elkartasuna sartzea Ekonomia eta Diru Batasuna abian jartzearekin batera egiten da. Maastrichteko Itunean indartzen dira bi alderdiak, jadanik presente daudenak Akta Bakarrean, eta han ematen dute beren emaitza ona azken lau hamarkadetan egindako ahaleginek, europar diruek elkarren artean gorabeherarik izan ez dezaten. Azkenik, onartu ondoren helburu hori lortzeko eta diru politika partekatu ahal izateko ekonomiek elkarren antz handiagoa izan beharko luketela, hau da, «elkarganatu» beharko luketela, hurbiltzea zer alderditan egongo litzatekeen mugatzen da. Parametro horiek —«elkarganatzeko irizpideak»— ekonomia eta finantzako irizpideei dagozkie eskusiboki. Oinarria finantza publikoak saneatzea zenez gero, erabaki egin zen erreferentziarik ez egitea irizpide sozialei edo Ongizate Estatuarekin garapenarekin zerikusia zutenei (bizi maila, jarduera tasa, gazteen enplegua,...), eta hori politika ekonomikoaren aukera erabakigarria izango da politika sozialaren etorkizunerako.

Ordura arte, europar politika sozialak garapen mugatu samarra izan zuen, bere erdigunea Estatu Kideen eskuetan gelditu baitzen, fiskaltasun desberdinak eta Ongizate Estatuari buruzko ikuspuntu desberdinak zituzten Estatuak, hain zuzen. Europar integrazioaren prozesuan zehar, arlo sozialaren ikuspuntua zabalduz joan da: mugikortasunean eta langileen baldintzetan oinarrituta egotetik, beste arlo batzuk txertatuz joan da —berdintasuna nahiz gizarte bazterkeria, adibidez—, eta, bestalde, politika sozialean elkarganatzeko ahalegin batzuk egin dira, bereziki langileen mugikortasun askea ez eragozteko eta Estatu Kideen artean «dumping soziala» saihesteko.

Ekonomia eta Diru Batasunaren eredia sartzeak bat egiten du, zentzu honetan, 90eko hamarkadako hasierako «krisiarekin»; langabezia tasa handiak enpleguaren aldeko Batasuneko ekintza bat planteatu eta diseinatzea ekarri zuen. Bultzada horretan, eta Maastrichteko eredia begien bistan, guztiz interesgarria izan zen hainbat Estaturen proposamena enpleguari zegokionez nahitaez bete beharreko zenbakizko irizpide batzuk finkatzeko, gauzatzea iritsi ez zen auzia, bestalde, zenbait Kide aurka agertu zirelako, ez baitzuten euren burua gai ikusten erronka horri erantzuteko. Hala eta guztiz ere, neurriren batean, elkarganatze ekonomikoan erabili zen eskema eremu sozialera lekualdatzen hasi zen; hori koordinazio metodo irekiaren bitartez egin zen, lehenik eta behin enplegu politikei ezarria (Batasunaren aldetik enplegu eta hazkunde plan nazionalen irizpideak eta gainbegiratzeko ezarria), eta, ondoren, gizarte bazterkeriaren aurkako politikei ezarria. Elkarganatze sozialaren prozesu hori, nolana ere, «intensitate apaleko» eredu bat izango litzateke, konpromiso maila apalarekin, bai Batasun mailan, bai estatu mailan, ez bailirateke zenbakizko mugarik ezarriko, ezta zigorrik ere, ez betetzeagatik.

Begien bistakoa da, beraz, EDBren formulazioa elkarganatze ekonomikoan oinarritu zela, eta elkarganatze soziala haren ondorio natural gisa utzi zela. Kezka nagusia ekonomiaren dinamismoa da, eta ongizate sozialari atxikitzen zaio beharrezko eratorri gisa. Horregatik, 90eko hamarkadan, estrategia aktiboago bat sustatu zen Batzordearen eta Kontseiluaren aldetik politika sozialen elkarganatze helburua indartzeko. Lisboako Agendak (2000) politika eta helburu sozialen elkarganatze baten helburua bere egin zuen, Europar Batasuna ekonomia dinamikoena eta lehiakorrena bihurtzeko bidean, batetik, hazkunde ekonomiko iraunkorrean oinarritua, eta, bestetik, kohesio sozial handiagoan funtsatua (Caminada, 2010). 2001eko Nizako itunak politika sozialaren aurrerabidea bere egiten du aipatu Koordinazio Metodo Irekiaren bitartez, aldi berean aitortuz politika soziala Estatuaren esku gelditzen dela subsidiarioritasun printzipioaren mende: Estatuak ez dute soilik modu koordinatuan lan egin behar eta gizarte bazterkeria edo enplegu arloak gainbegiratu, baizik eta helburu komunak eta gizarte adierazleak ere definitu behar dituzte.

Adierazi den bezala, EDB eredia kargarik gabeko finantza publiko batzuetan oinarritzen da —bereziki kontrolatuz defizit publikoa—, horrek utziko baitu ekonomia interes tasa apalekin gobernatzen, inbertsioaren eta jarduera ekonomikoaren sustatzaileak. Akuilagarri horren ondorioz, enplegu gehiago sortuko da, eta horrek estatu mailako diru sarrerak sortuko ditu zergen ordainketaren bitartez; horiek guztiek defizitaren murrizketa handiagoa dakarte eta ekonomiaren «zirkulu bertutetsu» hori mantentzea eta geroago bultzatzea. Ereduek, beraz, arlo soziala eta ekonomikoa lotzen ditu enplegu sorreraren bitartez, eta horrek, begien bistan denez, gizarte ongizatea eta Estatuak kargarik gabeko kontuak izan ditzaten dakar, eta, ondorioz, gastu soziala egiteko askoz ere gaitasun handiagoa.

Baina, a priori, ekonomia dinamikoago batek Ongizate Estatu bati hobeto eutsi ahal izango diola begien bistakoa badirudi ere, ezerk ez du bermatzen Estatuaren kargarik gabeko finantzak osasun eta hezkuntza sistema hobeak edo herritarrei egindako transferentzia sozialak ekarriko ote dituzten. Bestalde, aipatu «zirkulu bertutetsu» delakoa egoera ekonomiko aldeko bati lotutako aurreikuspen bat da, egungo krisiari loturik ondoren aipatuko dena; bestalde, arlo ekonomikoaren eta sozialaren arteko lotura guztiz mehatxatuta dago Egonkortasun Itunean ezarritako defizitari jarritako mugak gainditu ez ditzaten Estatuaren gain egiten den izugarritzko presioaren ondorioz, Estatuak gastu sozialari begiratzen baitiote, hura murriztu daitekeen alderdi-tako bat balitz bezala.

Egoera hori are larriagoa da Ekonomia eta Diru Batasunean parte hartzeak dakarren politika ekonomikoaren lagapena dela-eta, euroguneko gobernuak ekintzarako aukerak mugatzen baitzaizkie euren ekonomia gobernatzeko orduan. Ekonomia biziberritzeko gastu publiko handitzea ohiko baliabidetzat erabiltzea mugatuta gelditzen da BPGren gaineko defizitaren % 3aren muga apalaren ondorioz, baita finantzaketa lortze-

ko zorpetzeari dagokion baliabidea ere (% 60 BPGren gain). Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunen konpromisoek bi aukera horiek mugatu ondoren, Estatuak ezin dute tresna klasiko batera jo lehiakortasuna berreskuratzeko, esate baterako, diruaren baliogutzitzea, eskumen hori galduta baitute Europako Banku Zentralaren aldeko diru politika bateratzearen ondorioz. Horrek, honela, beste bi tresna funtsezko ditu esku artean ekonomia bat gobernatzeko: diru gehiago jaulkitzea eta interes tasak definitzea.

Horrekin guztiarekin, euroguneko Estatuaren politika ekonomikoaren oinarria zerga politika da, azken batean, Estatuaren esku gelditzen den ekonomia gobernatzeko tresna pisudun bakarra ia. Horrek izugarri presionatzen du gastu soziala, europar Estatuaren gastu publikoaren zati mamitsu gisa, eta 90eko hamarkadan, Ongizate Estatuari buruzko eztabaida trinkoari irekitzen dizkio ateak. Era berean, zerga politika horrek hartzen duen protagonismoak are gehiago korapilatzen du harmonizazio handiago baterako iragaitea Europar Batasunean eta subiranotasun nazionalaren zati handi horren balizko lagapena zerga politika bakar baten alde, eta horrek ere, aldi berean, beste eztabaida interesgarri batera garamatza.

Estatu politikak mugatzeko eskema horrek ezinbestean estutu behar zuen gastu soziala, euroguneko konpromisoak betetzeko modu gisa; hala ere, badira gastu sozialaren murrizketa potentziala mugatzen duten hainbat faktore. Batetik, kontuan hartu beharra dago EDBren garapena bere lehen urteetan oparoaldi ekonomiko orokor batekin batera gertatzen dela (90eko hamarkadako hastapeneko hasierako krisia gainditu ondoren). Bestalde, kontuan izan behar da EDBren garapena lehen urtean garai oparo ekonomiko orokor batekin batera gertatu zela (90eko hamarkadako hasierako krisia behin gainditu ondoren). Bestalde, Estatuak Egonkortasunerako Itunaren konpromisoak hausten dituzten lekuan zigorrak ez dela ezartzen ikusten dugu; EHIk aurreikusitako isun sistema ez zen ezartzera iritsi, eta Alemaniaren aldetik egon zen ez-betetzea hura berritzea eta malgutzea ekarri zuen. Kontseiluak urrats hori derrigortu zuen Estatuak mesfidati agertu baitziren euren ekonomien loturagatik besteei zigorrak ezartzeko orduan eta eurek ere epe labur batean ez-betetze egoeran egon zitezkeelako. Horrela, gastua kontrolatzeko Estatuaren gainbegiratzea eta gastu sozialaren gaineko presioa, ondorioz, arindu ere egiten da.

Azkenik, egoera aldeko horretaz baliatuz eta orokortze bat eginez, esan liteke europar gobernuak ez diete la haien boto-emaileei aurka egiten, politika sozialaren alderdi garrantzitsuei eraso egingo lieketen egiturazko erreforma sakonak eginez. Erreforma horiek, ongizatearen alderdi funtsezkoak eta Estatuaren aurrekontuari dagozkienak (herritarren zahartzeari aurre egiteko politikak, erretiro sistemak, osasuna, lan merkatua, langabehararako prestazioak...) aurreikusita zeuden elkarganatze ekonomikoaren espirituan. Begien bistakoa ematen zuen Estatu Kideak ezin izango zirela Ekonomia eta Diru Batasunaren arauetan mantendu «adabaki» igarokorrekin, eta aipatu egiturazko erreforma horiek egin beharko zituztela, ezinbestean. Hala ere, giro ekonomikoak eta esijentzia politikorik ezak aurrera egiten laguntzen zuen haiek egin gabe; eragiketa horren moteltzeak oso egoera korapilatsuan utzi zuen politika soziala abagune aldaketa bati begira.

3. Eskakizun berriak Ekonomia eta Diru Batasunarentzat Lisboako Itunaren esparruan

Abagune ekonomikoaren aldaketa horrek EDBren eskemak estaltzen ez zituen behar berriak planteatuko ditu, eta, gainera, Lisboako Itunean estreinatu berri den lege esparrua zalantzan jarriko du. Itun berriaren onespenean jokoan zeuden alderdi gatazkatsuak —indarrean 2009ko abendutik aurrera—, besteak beste, Kontseiluaren boto banaketa, EBko presidentetza edo Kanpo Arazoetarako Ordezkaritza Gorenaren irudia, bigarren tokian utzi zuten gobernamendu ekonomikorako sistemaren erreforma handinahia.


Auzi horren inguruan nolabaiteko eztabaida piztu bazen ere, Lisboako Itunak botereen banaketa ia berbera mantendu zuen. Europar politika ekonomikoaren gobernamentu egiazko bat sortzeko aldiari behingo eskaerak alde batera utziz, eta euroguneko diru politika izan ezik, gobernuen esku gelditzen da modu burujabea edo, gehienez, modu koordinatua. Lisboako Itunak subsidiariorik printzipioa ezarri zuen arlo honetan; beraz, politika ekonomikoko harmonizazio osoa soilik justifikatuko litzateke Estatuaren jardura burujabearekin baino emaitza hobeen lorpenetan oinarrituz (Mulas Granados, 2009).

Batasuneko gobernuen borondate politikoak ez bazuen harmonizazio maila handiago bat ekarri, Lisboako Itunak aldaketa txiki baina interesgarriak sartu zituen eurogunearen gobernamentuan, nazioz gaindikoa gobernuaren hiru erakunde indartu baitzituen eurogunearen gobernamentuan. Batetik, Eurotaldearen eginkizuna indartu zuen, batetik, aurrekontu diziplinaren koordinazioa eta gainbegiratzea indartuko zuten arauak onartzeko aukera emanez, eta, bestetik, harekin beste Estatu Kide batzuk bat egiteko baldintzak finkatzeko ahalmena emanez. Europako Banku Zentrala, gainera, indartuta atera zen, bereziki zehaztu baitzen bere finantza independentzia eta bere aitortza Europar Batasuneko erakunde gisa, Kontseiluarekin, Parlamentuarekin eta Batzordearekin batera. Azken hark bere hasierako posizioa sendotu zuen Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunaren ezarpenen; beraz, betetzen ez duen Estatu batentzako zigorrak proposamen bat blokeatzeko beharrezkoa da ahobatezotasuna. Era berean, bere rola azpimarratzen da politika ekonomikoen koordinazioan; beraz, Estatu Kide baten politika ez dagoenean Jarraibide Orokorrekin bat edo Ekonomia eta Diru Batasunaren jardunbide egokia arriskuan jartzen duenean, Batzordeak ohartaraz dezake gobernuak.

Aurrerapen horiek proban jarri dira ia berehala finantza krisia lehertu zenean; harekin batera, politika ekonomiko komun baten gaineko behar berriak eta ustekabeak sortu dira. Haren gaineko ikuspuntua erabat aldatu zen 2008. urtean: erreforma instituzionaletik (Lisboako Itunean adierazi den bezala), finantza gelditzea eta haren ondorio sozial berehalakoenari —langabeziari— erantzuteko balioko duten tresna zehatzen garapenera pasatzen da.

Krisia lehertzean egoera berdingabea sortzen da EBN, Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunak eta EDBren diru politika bakarrak euren ekonomia gobernatzeko orduan gehiegi lotzen dituela sentitzen baitute zenbait gobernu. Zenbaitek ere proposatu zuten euroan geratzea arriskutsua zela krisiak gehien jotako ekonomientzat, ezin baitzituzten euren errealtatearentzat egokienak ziren errezetak aplikatu: EBZk markatutakoak baino interes tasa apalagoak eta hazkunderaren akuilatzaileak baimentzea, baita diru baliogutxitzeak ere, euren esportazioak bultzatzeko. Gainera, ugariak izan dira Europako Banku Zentralari zuzendu zaizkion kritikak, finantza sisteman izandako gainbegiratze eta kontrolik ezagatik.

Aurretik deskribatu den eredutik, defizit publikoaren kontrolean oinarrituta, jauzi egiten da, lehen une batean, defizit horren etengabeko handitze batera. Higiezin burbuila lehertu eta, ondorioz, «credit crunch» delakoa gertatu zenean, inbertsioen, eskariaren eta enpleguaren gainbeherak areagotu egin zuen Estatuaren sarreraren eta gastuen arteko zuloa. Batasuneko ereduaren aurreikusitako «zirkulu bertutetsua» egiazko «zirkulu biziotsu» bihurtu zen, eta, ondorioz, defizitaren ondoko hazkunderak iritsi ziren. Hasierako ereduak interes tasa apalak zituen, inbertsioaren eta eskariaren sustagarriak, eta, ondorioz, inflazioarena (beraz, funtsezkoa zen Europako Banku Zentralaren eginkizuna inflazioaren kontrolatzaile gisa). Aldiz, krisia lehertzean interes tasaren eginkizun akuilatzaile horrek ez zuen funtzionatu, Ora jaisteko joera duena, eta saihestu beharreko agertokia ez da inflazioa, deflazioa baizik. Estatuak inbertsio pribatuaren gabeziari erantzun behar diote, eta euren gastua areagotu; ondorioz, defizita Egonkortasunerako Itunaren mugetatik harago eramaten dute.



Iturria: Europako Banku Zentrala

Defizit publikoaren bilakaera Eurogunean, %tan, BPGren gainean

Euroguneke herrialdeen defizita eta zorra (2009ko datuak %tan, BPGn)

	Defizita	Zor publikoa		Defizita	Zor publikoa
Alemania	-3,3	73,2	Espania	-11,2	53,2
Frantzia	-7,5	77,6	Irlanda	-14,3	64,0
Austria	-3,4	66,5	Holanda	-5,3	60,9
Finlandia	-2,2	44,0	Eslovakia	-6,8	35,7
Italia	-5,3	115,8	Eslovenia	-5,5	35,9
Belgika	-6,0	96,7	Malta	-3,8	69,1
Luxenburgo	-0,7	14,5	Zipre	-6,1	56,2
Grezia	-13,6	115,1			
Portugal	-9,4	76,8	EB-16	-6,3	65,95

Iturria: Eurostat.

Aurreikusitako «zirkulu bertutetsu ideal» horren eraldaketarekin batera, integrazio ekonomikoaren eredu osoak birplanteamendu bat izan du. Beraz, europar integrazioetik krisiari nola aurre egin dioten hainbat proposamen ikusiko dira, zenbaitetan kontraesankorrak. Hala, badira integrazio maila handitzea proposatzen dutenak, zerga batasunerantz bidea eginez, krisiari eman beharreko erantzun sendo eta koordinatuagoekin.

Paraleloki, kontrako bidearen alde apustu egiten duten planteamenduak daude: integrazio maila apaltzea, krisiaren ondorioak arintzeko tresna gisa. Sortu dira ere hainbat joera protekzionista Estatu Kide batzuetan, baita une hauetan lehiakortasuna ustez zailtzen duten hainbat eskakizun eteteko iradokizunak ere. Proposamen horiek guztiek politika sozialari eragiten diote neurri handi batean, baina haien artean diziplina ekonomikoa eta gastuaren kontrola eteteko edo ez eteteko planteamenduak bete-betean ukitzen du auzia, eta ezta baida politiko eta ekonomiko handi bihurtzen da.

4. Zerga pizgarriarako edo austeritaterako politiken ezarpenak dakarren dilema: Ekonomia eta Diru Batasunaren bereizgarriak

Jatorrian, eta finantza sistemaren jardunbidean eta kredituaren murrizketan izan zuen inpaktua kontuan hartuz, krisia «konfiantza» krisi eta «likidezia» krisi gisa kalifikatuko da. Diziplina ekonomikoa mantentzetik edo ez mantentzetik sortzen den ikuspegitik bi alderdi horiei jaramon eginez, beharrezkoa da bi hauen artean lehenestea: konfiantza areagotzen da edo likidezia areagotzen da, bata zein bestea bultzatzen duten neurriak kontraesankorrak baitira. Finantzak saneatzeko ahalegina, ondorengo gastu murrizketarekin eta politika sozialean duen ondorio zuzenarekin batera, egoki ematen duen bidea da, Estatuak merkatuen konfiantza berreskura dezaten. Hala ere, likideziaren mesederako den aukerak aurrekontu zorrotasuna malgutu eta gastu publikoa handitzearen alde egiten du; bide hori da, gutxienez hasiera batean, politika sozialari babesa eskaintzen diona, eta krisiaren ondorio zuzenak nozitzen dituztenei sostengu sareak eskaintzen dizkiena.

Dilema hori, tradizionala ekonomian, indar betean planteatu da EBn, eta iritzi kontrakoak ditu bazkideen artean. Batetik, zerga pizgarria eskaintzen duten politikak eskariaren eta enpleguaren sustapenari lotzen zaizkio, baina zama gisa dute metatzen duten zorra, eta, ondorioz, finantzatzaileen konfiantzarik eza. Bide horretatik kreditua garestitu liteke azkenean, inbertsioa zigortu eta krisia sakondu.

Politika horien arrakasta, neurri handi batean, gastua banatzeko moduaren mende egongo da (egiturazko berrikuntzentzat edo egoeraren araberako konponbideentzat den, azpiegitura iraunkorrei, berrikuntzari edo hezkuntzari eskainitako partidak handitzen diren, besteak beste). Diru politika bakarra duen merkatu integratu batean zerga pizgarria ezartzeaz badihardugu, eurogunea esaterako, funtsezkoa da erantzunen koordinazioa. Elkarganatzea zenbat eta handiagoa izan, zerga etekinak handiagoak izango dira. Arazoa lehenago suspertu eta geroago suspertzen diren herrialdeen arteko desorekek eragiten dute, eta lehenek bakarrik handitzen badute gastua. Azkenik, funtsezkoa izango da ere politika horien emaitzetan haiek zer unetan ezartzen diren; krisi baten hasiera une egokia izan daiteke haren ondorio onenak gerta daitezen, haiek abian jarzteak denbora ematen baitu arazo ekonomikoen hedadura aztertu arte eta herritarrei sakrifizio gehiegi eskatu gabe modu automatikoan birbidera ote daitekeen ebaluatu arte.

Sakrifizio horiek, ezinbestean, austeritate politikei lotzen zaizkie, eta haien ondorio gozoenei: finantza saneamendua eta, ondorioz, merkatuaren konfiantzaren hobekuntza. Hala ere, gastuaren murrizketak eta zergak handitzeak eskariari eta hazkunderari eragiten diete, eta, ondoren, gizarte ongizateari. Berriz ere funtsezkoa izango da zer modu zehatzetan aplikatzen diren politika horiek; gastuaren mugari buruz eta haren arriskuei buruz egiten ditugun gogoetak neurri horietan eragiten duten errentek baldintzatuko dituzte, biztanleriaren zer sektoreri bideratzen zaizkien zergen handitzeak edo prestazio sozialen murrizketak (nagusiak, gazte langabeak...) eta murriztapenek gastu sozialaren zer arlo zehatzei eragiten dieten (besteak beste, jaiotza tasaren, hezkuntzaren eta osasunaren babeserako politikak).

Kontuan hartu behar da krisiak desberdintasunak handitzeko aukerak areagotzen dituela; hazkundera funtsezko helburua denez gero, egoera ahulenean daudenek babes publikoak murrizteko arriskua izan dezakete, gizarte zerbitzu horietarako eskaria handituz doan neurrian. Zenbat eta langabe gehiago, orduan eta txirrotalde berri gehiago, herritar talde berri gehiago gizarte laguntzen eta zerbitzu publikoen eske. Dhéretzek (Dhéret, 2010) argudiatzen duen bezala, pobreenak dira beti murrizketa publikoak gehien eragiten diena, baitetik, mendekoenak direlako eta, bestetik, egoera okerrean daudelako hezkuntza maila altuago duten pertsonekin «lehiatu» behar dutenean zerbitzu publiko horiek eskuratzeko; ondorioz, auzi hau «argipean» jartzen da, krisian bazterkeria arriskua larritzean haien rola kohesio sozialaren erabakigarria baita. Azken hori da 2020 Estrategiaren (Europako Batzordea, 2009) auzi nagusietako bat. «Bide orri» horrek agerian jartzen du osteratarlo ekonomikoaren eta sozialaren artean dagoen lortura. Helburu nagusiak, Europar Batasunaren eta Estatu Kideen artean partekatutako helburu gisa finkatuak, auzi sozialetan oinarritzen dira (ikerketaren eta garapenaren hobekuntzarekin, eta igorpenen murrizketa egiteko konpromiso handiago bat): % 75eraino igo 20 eta 64 urte arteko herritarren enplegu tasa, hezkuntza mailak hobetzea eta gizarteratzea sustatzea, batik bat pobrezia gutxituz. Proposamen horiek hainbat Estatu Kidetan eragiten dituzten kritikak politika jakin batzuk onartzeko egiazko borondaterik ezaren eta EBk politika sozialean duen esku-sartzea geldiarazi nahiaren isla dira.

Alderdi horien guztien aurrean, harrigarria iruditu lezake, nahiz eta eredu sozial eta ekonomikoa desberdina izan, Europar Batasunak krisiaren lehen fasean hartutako neurriak ez direla ELGAko (Ekonomia eta Lankidetzaren Garapenerako Antolakundera) beste herrialde batzuek hartutakoetatik bereizten. Gehiengoak gastuaren epe laburreko gehikuntzak konbinatzen ditu diru sarreren epe luzeko gutxitzeekin, —errenta pertsonalari egiten zaion zergen murrizketa orokor baten barruan eta gastuaren gehikuntzarik eza, bederen enplegu publikoan, geroko gastuak saihesteko— oro har, honako hauek laguntzeko: inbertsioak azpiegiturretan, gizarte babeserako sareak eta teknologia garbiak (Nazioarteko Diru Funtsa, 2010). EBren barruan ere atentzioa ematen du erantzun zehatzetan dagoen aniztasuna, zerga esparruak zerga politika bakarra inposatzen duela dioen ideia ezeztatzen baitute. Hala, Alemania, zerga murrizketen defendatzaile ohikoak sorta zabalenetako bat jaurti du; Frantziaren edo Erresuma Batuen pizgarriak, berriz, beste bazkideei esku-hartze handiagoak eskatzen zizkietenak, ez ziren horren handinahiak izan.

Biziki interesgarria da ikustea Estatu Batuek eta Europar Batasunak antzeko egonkortzaileak erabili zituztela krisiaren lehen fasean, nahiz eta aldea egon haien joko arauetan eta haien banku zentraletan. Estatu Batuetan, Erreserba Federalaren burujabetasuna aldi baterako eten zen; Europar Batasunean, berriz, indartu egin zen. Paradoxikoa izan arren, eta gobernamentu onaren filosofiak ezartzen duenaren kontra, egonkortasun ekonomikoa lehenestea amerikar agintariak eraman zituen erakunde horiek markatutako mugei jaramonik ez egitera; estatu europarrek, berriz, errespetatzeko nahiaren alde egin zuten auzi politikoak zirela medio (Schelke, 2009).

Hasieran, gobernuen erantzunak krisiaren aurrean erreskate funtsen neurriaren eta haiek abian jartzeko bizkortasunaren arabera baloratu ziren. Bushen agintaldiaren amaieran jaurtitako zerga pizgarriaren ondoren, Obamak bere suspertze eta berrinbertsio plana sinatu zuen (American Recovery and Reinvestment Act, ARRA) 2009ko otsailean, 787 mila milioi dolarreko gastua baimentzeko. Paraleloki, Europar Batasunak bere Suspertze Ekonomikorako Plana jaurti zuen, 2008ko abenduan hitzartua, Estatuentzako aurrekontuen jagoletza egiteko gastuaren esparru bateratu baten barruan. Aurreikusitako pizgarrien 200 mila milioi eurotatik, 30 mila soilik datoz Batasunaren aurrekontutik.

Estatu Batuek eta Europar Batasuna krisiaren aurkako neurriak aplikatzen hasten direnean, Krugmanek (Krugman, 2009) mahai gainean jarri zuen «ongizatearen Estatu handiak» ez zirela Europako krisiaren arrazoia, baizik eta, berez, hura arintzeko alderdi funtsezkoa direla. Arazoa ez da, hark esaten duen bezala, kri-

siari ematen zaion erantzun okerra; hark minimotzat deitzen duen erantzuna, Estatu Batuek emandakoarekin konparatuz. Aitzitik, azpimarratzen du Europaren alde egiten duen gauza bakarra dela hain zuzen kritika gehien sortzen dituen: haren ongizate estatuen neurria eta indarra, krisiaren inpaktua arindu arren, «ekintza positiboa» ordezkatzeko ez dutenak. Krugmanen iritziz, europar erantzunaren defizita lidergo politikoko auzi bat da, ez baitu aurrekontu globala duen erakunde bat krisiari kontraziklikoa zaion gastu bat egiteko. Ez dago, une funtsezko batean, multzo gisa eurogune osorako zerga erantzukizuna bere gain har dezakeen gobernu bat, baizik eta gobernu nazionalak, bakoitza bere interesekin.

Estatu Batuetan, gutxi gorabehera, estatu federatuen defizitaren erdia aurrekontu komunarekin estaltzen da. Batasuneko aurrekontu txit bikaina, berriz, ezin da Estatu gehiegikerien «konpentsatzailea» izan; Batasuneko aurrekontua BPGren ehunekoan txikia izateaz gainera, urtero «egokitu» behar da; beraz, aurrekontu zuzkidura handiagoa balitz ere, arazo nagusia da ez dagoela maniobrarako aukerarik ziklo ekonomikoaren arabera (kontuan hartu behar da aurrekontu komun egonkortzaile bat ez egoteak ez dela Egonkortasunerako eta Hazkundetarako Itunaren arauen lasakeria azal dezakeela, Estatuak eta ECOFINek autoezarriak). Azkenik, Europako Banku Zentralak ere ez du Amerikar Erreserba Federalak jokatzeko duen tarte bera; Erreserbak politika jakin batzuk egin ditzake bere arriskuak partekatzen dituen gobernu bateratu baten babesa duelako. Ondorioz, egilearen iritziz, Europar Batasunaren gobernamendu ereduak ahulago bihurtzen du haren egitura krisialdietan.

Ahultasun hori proban jarriko da berriz ere krisiaren hurrengo fasean, «zorraren krisian», alegia, merkatuetan finantzaketa lortzeko Greziaren zailtasuna —ondoren Irlanda, Portugal, Espainia, Italia— protagonista izatera pasatu zenean beste arazo ekonomiko edo sozial batzuen gainera. Zorraren krisi hau, aurrekaririk ez duena mundu garatua, mundu gerretan izan ezik, finantza krisi beraren eta zerga pizgarriaren erabilera luzearen ondorioa da. Zerga pizgarriaren erabilera zakar samar geldiaraziko da, merkatuetan sortzen den konfiantzarik eza dela eta, politika horietan irauten duten Estatuak zigorrak jasotzen baitituzte.

Greziaren finantzaketa arazoan atzean, eurogune osoa dago, ekonomikoki konektatuta eta konektatuta baita ere merkatuek ematen dioten balorazioaren eta sinesgarritasunaren ikuspuntutik. Gastuak, zor jaulkipenetan handituak, Europan babes sozialeko sistema mantentzeko finantza publikoen saneamendua zailtzen dute, eta horrek zorren jaulkipen berriak eragiten du, osasun eta pentsio sistemak mantendu ahal izateko. Bidegurutze bat planteatzen da, zeinean ahalegina areagotu egiten den, hain zuzen, herrialde pobreenen kasuan.

Zorraren krisiak eragina du bereziki euroaren gunean, hark dituen ezaugarri bereziak kontuan hartuta: besteak beste, haren egitura sozial eta demografikoa, eta herritarren zahartze altua. Orobat, bere eredu ekonomikoa, hau da, Ekonomia eta Diru Batasunean diseinatutako eskema, erabakigarria da zorraren krisiaren larritasunean eta austeritate politikak erabili behar izate horretan.

Diru politika lagatzeak zigortu egiten ditu lehiakortasuna berreskuratzeko neurri alternatibo gisa dirurik jaulki ezin duten edo euren dirua baliogutzitu ezin duten herrialdeak, eta gastuaren murrizketa ekarri eta eragin zuzena du politika sozialean. Hazkundera neurri pizgarriekin bultzatzeko aukerak (Estatu Batuen kasuan, adibidez) mugatu egiten dira eurogunean, haren diseinua dela-eta, haren helburuak direla eta. Ekonomia eta Diru Batasunean ez dagoen herrialde batentzat, dirua jaulkitzeko ahalmenak muga «logiko» batzuk ditu (*crowding out*, inflazioa), baina ez muga teknikorik; beraz, dirua inprimatuz gero, gastu publikoari eutsi ahal izango lioke. Horren aurrean, krisitik ateratzeko diru subiranotasuna laga duenak muga handiagoa sentitzen du tresnei dagokienez. Ondorioz, Europar Batasunean ahots ugari sortzen dira, beste Estatu batzuei begiratzen dietenak eta haien diru politikaren burujabetasuna eta enplegua eta hazkundera sustatzeko tresnen erabilera librea irrikatzen dutenak politika soziala zigortu gabe.

5. Doikuntza planen ezarpena EDBren zorraren krisian: gastu sozialaren murrizketa

Zorraren krisiaren aurreko lehen neurria politika pizgarriak bertan behera uztea da. 2010eko martxoko Kontseiluak eta 2020 Estrategiak krisia borrokatzeko hartutako babes neurri ezohikoak bertan behera uztea planteatzen dute, suspertze ekonomikoak behin osorik bermatu ondoren. Auzia da ea benetan badauden suspertze hori berresten duten baldintzak edo neurri pizgarriak kentzeak gehiago erantzuten dion finantzaketa estualdiei eta gehiegizko zorpetzeari.

Zentzu horretan ere planteatu zien geroago ELGak diru agintaritzei neurri pizgarri ezohikoak behin betiko amaitzea «finantza merkatuen ahultasunak larriagotu gabe», kontuan hartuz zor/BPG ratioa onartezina dela (Gurría, 2010). Kontuan hartuz EBko herritarren zahartzearen ondorioz zorra handitzeak herrialde horiek merkatuen aldakortasunaren esku utziko lituzkeela eta etorkizuneko arazo ekonomikoen aurrean erantzuteko espazioa murriztuko liekeela, zerga kontsolidatzea aintzat hartzen da zorraren krisiaren aurreko erantzunaren giltza gisa. Horrela, zerga egoera birbideratzeko gobernuengan galdutako konfiantzak haien gastuak handitzea besterik ez du ekarriko, eta baita ekonomia guztiena ere, epe luzean.

Europar Batasuneko herrialdeen barruan eztabaida teorikoa eta politikoa ireki arren, austeritate neurriak aho batezkoak egiten diren una iritsi da. Krisiaren hasieratik defenditu bazen ere zerga hedapenak hazkundera bizkortzen duela eta murrizketak zigortu egiten duela, agerian gelditzen hasten da horrek ez duela zertan izan; murrizketak oso defizit handia zuzentzen badu, horrek jarduera ekonomikoa bultzatzea dezake konfiantza irabaztean eta arrisku prima murriztean.

Europar Banku Zentralaren posizioa nahiz Batzordearenak zerga kontsolidatzeko ahaleginaren aldekoak izan dira, eta horrekin defendatu zuten konfiantza lehengoratu litzatekeela eta europar hazkunde ekonomikoa bizkortuko (geldiarazi orde) litzatekeela. Nazioarteko Diru Funtsak, bere aldetik, errepikatu du aldi honetan zehar saihestezina dela ekonomia garatu guztiak, eurogunekoak barne, zerga sendotzetik pasatu behar izatea. Horretarako agerian jartzen ditu keynesianismoaren aurkako argudio teorikoak eta ekonomia sustatzeko aukeren defendatzaileak, baita epe laburrera ere, aurrekontu defizitaren eliminazioaren bitartez. Azterlan enpiriko eta teoriko zabal batean (NDF, 2010), zerga kontsolidazioari lotutako alderdi adierazgarrietako batuk biltzen ditu; besteak beste, zorraren murrizketari interes tasen jaitziera lotzen diona eta, ondorioz, inbertsioaren pizgarria. Horren ondoan seinatzen ditu zerga kontsolidazioak kontsumoan eta inbertsioan duen inpaktua arintzeko koltxoi gisa balio duten bi alderdi: interes tasak jaitea eta diru nazionalaren balioa jaitea, baliogutzitzearen ondorioz eginkizun garrantzitsua duena esportazioak sustatzeko orduan. Garrantzi handikoa da gogoeta egitea honen inguruan: bi «koltxoi» horiek ez daude euren gobernu nazionalen eskuetan eurogunearen herrialdeen kasuan. Diru politikaren lagapenak tresna horiek jartzen ditu Europako Banku Zentralaren eskuetan, eta ez dio kide bakoitzari haiek egokitzen uzten une horretan bizi duen lehia-kortasun edo hazkunde diferentzien arabera.

Teoriatik adierazitako abantaila horiek ez dira nahikoak klase politikoak murrizketa neurriak lehenbailehen hauta ditzan bultzatzeko. Are gehiago, aitzitik, azken baliabidea dira zerga hedapenaren erabileraren (eta gehiegikeriaren) ondoren. Neurri horiek berandu samar ezartzen dira EBn, batere txalotuak ez diren tresnak aplikatzeko dauden errezelo politikoak direla eta, eta kreditua eskuratzeko zailtasun serioak egoteak mugatzen du batik bat. Nahiz eta politika arriskutsuak izan, gizarte gaitzespen handia eragiten dutenak, haien defendatzaileek argudiatzen dute defizita ezin dela behin betiko luzatu. Defizitak enpresen eta kontsumitzaileen konfiantza hondatzen du, eta azkenean eskatzen du gobernuaren arriskua eta zerga saneamenduarekin duen zorra jaitea, eta horrek, gastu pribatua areagotuko du konfiantza berreskuratzean. Argudia-

tzen da austeritateak, beraz, kontsumitzaileen eta enpresen gastua areagotu dezakeela, eta inbertsioak ere bizkortu, egon litezkeen zerga alorreko aldaketei buruzko itzaropen negatiboak murriztean.

Defizitaren murrizketak ekar ditzakeen hauteskunde ondorioei dagokienez, bereziki garrantzizkoa da berriki egindako azterlan bat (Alesina, Carloni, Lecce, 2010); 33 urtean 19 herrialdetan egindako lanak erakusten du nahiz eta herritarren protestak egon, hauteskunde mailako ondorioak ez direla negatiboak izan gobernuentzat, bereziki defizitaren murrizketa gastuaren murrizketaren bitartez bideratu denean eta ez zergak areagotuz.

Stiglitz Nobel saridunak (Stiglitz, 2010) austeritateari alternatibak ere planteatzen dizkio: zein izan behar dute joko arauak defizita murrizteko orduan. Begirada Estatu Batuetan jartzen du, eta azpimarratu egiten du nola defizitaren murrizketak kontuan hartu behar duen zer modutan gastatu den azken hamarkadan: alferrikako gerretan egindako gastu zentzugabeak, desberdintasun itzela, inbertsio eskasak azpiegituretan, sektore jakin batzuk bultzatzeko laguntza publikoak (banku, nekazaritza eta energia sektoreak, besteak beste). Defizita murrizteko egiten den planteamendua eraginkortasuna sustatzetik, hazkundea bultzatzetik eta desberdintasuna murriztetik pasatzen da. Iradokitzen du, eta, zentzu horretan, EBrentzat guztiz baliozkoa den gomendioa ematen du: gastu militarrik murriztea, errendimendu altuko inbertsio publikoak handitzea —epe laburreko defizita handitzen badute ere— eta eraginkorragoa eta justuagoa izango den zerga sistema bat sortzea, espekulatzailen aurrean errenta apalenak zigortuko ez dituen.

Beraz, ELGAK esaten duen bezala (Gurría, 2010), saihestu nahi da zerga kontsolidazioa hazkunderaren aurka-koa edo kaltegarria izan dadin. Nahiz eta ezinezkoa izan zerga igoerak saihestea, gobernuek lehendabizi gastu publikoa murriztu beharko lukete, horrekin zerga kontsolidazioaren iraunkortasuna bermatzen baita eta hazkunde ekonomikoan eta epe luzekoan duen inpaktua gutxitzen baita. Zentzu horretan, eta gastua murrizteko orduan egindako gomendioen artean, adierazten du badirela gastu batzuk hazkunderaren ikuspegitik beste batzuk bezain produktiboak ez direnak eta beste gastu batzuk, neurri handiagoan, hazkunde bultzatzen dutenak, besteak beste, hezkuntza, osasun gastuak, berrikuntza eta azpiegituren garapena. Zergen ikuspegitik gomendatzen du, aldi berean, haien egitura berrikustea hazkunderantz bideratuz, langileen errentaren zerga arloko enfasia kontsumorantz, jabeorantz eta ingurumen kutsadurari jarritako zergetarantz traspasatuz. Bere aldetik, Nazioarteko Diru Funtzak (NDF, 2010) azpimarratzen du gastuaren murrizketetan oinarritzen den zerga kontrakzioak hazkunderan ondorio gutxiago izateko joera duela zergen bitartez oinarritutako doikuntzetan baino; hori, normalean, arrazoi bati zor zaio: banku zentralak diru pizgarri gehiago ematen dute lehen kasuan, bigarrenean baino (diru pizgarria bereziki ahula izaten da goraka doazen prezioak izaten duten zeharkako zergen igoeren kasuan, BEZa adibidez).

Kontua, beraz, ez da soilik gobernuek krisi ekonomikoak eskatzen dituen doikuntzei aurre egin diezaieketen edo ez, baizik eta sarreren eta gastuen banaketari; norik ordaintzen duen doikuntza, alegia. Europar Batasuneko murrizketa plan gehienak diseinatu egin dira gastu soziala edo soldata publikoak murrizteak zergak handitzetik eta inbertsio publikoan murrizketak egitetik burututako doikuntzak baino etekin iraunkorragoak ekartzen dituela uste duten garapen teorikoei jarraiki. Hala ere, eta hori hala izan arren, arrisku eta sinesgarritasun arazoak ez dira hor bukatzen, zeren eta nahiz eta sinesgarritasuna oso bizkor galdu, hura berreskuratzea oso zaila izaten da. Nahiz eta Greziak bere doikuntza plana beste esparru batzuetara zabaldu behar izan duen, Espainiak, Portugalek, Italiak edo Irlandak beren murrizketa bideratu dute ustez frogatutzat jotzen zen susper-tze ekonomikoari kalte gutxien egiten dioten alderdi horietara; plan guztiek eragina izan dute gastu sozialean.

Zorren krisiak gehien jotako herrialdeetako doikuntza programek, gainera, gastuaren murrizketarekin bat joan daitezkeen gomendatzen diren beste alderdi batzuk ere badituzte hazkunde zigortu ez dadin: diru politika lasaia eta egiturazko berrikuntzak.

Finantza erraztasun handiagoei dagokienez, eta merkatuen konfiantza krisiaren aurrean, Europar Batasunak 2010eko maiatzean aurrekaririk ez duen neurri bat jaurti zuen finantzatzaileen konfiantza eskuratzeko: Batasuneko egonkortze funts bat sortzea euroguneko herrialdeak bermatzeko moduan. Helburua ez da soilik Grezia, Espainiak edo Portugalek finantzaketarako aukera izan dezaten bermatzea, baizik eta eraso espekulatioak euro osora zabal ez daitezen saihestea. Azken batean, eurogunearen aurkako eraso bat eta mundu mailako ekonomiaren atzeraldi bat geldiarazi nahi da.

Egonkortze funtsa sortzeko Europar Batasunak babestutako ia 60 milioi euro arterainoko bonoen jaulkipena egiten da, eta horri euroguneko herrialdeek bermatutako 440 mila milioi euroko funts bermatu bat eransten zaio eta Nazioarteko Diru Funttsaren 250 mila milioiko funts baten potentziala. Horrekin batera, Europako Banku Zentralak agintzen du merkatu disfuntzionalen oreka lehengoratzeko gobernuen zorra erosi egingo duela eta bankuentzako kreditu lerro berriak irekiko dituela.

Batasuneko ekintza horren balorazioa oso konplexua da; batetik, finantza boterearen (eta politika boterearen) erakustaldi baliotsua da, merkatuak lasaitzen dituena. Orobat, hura abian jartzeak erantzuteko denbora gehiago ematen die zailtasun handiagoak dituzten herrialdeei euren ekonomia sana dezaten. Bestetik, erreskate plan hau kritikatu egin dute bere zehazgabetasuna dela eta, eta hartan Europar Banku Zentralak hartu duen rolagatik. EBZk gobernuen zorra erosteak haien independentzia hautsi dezakeela uste da, eta, horrekin, eurogunearen inflazioaren kontrolatzaile gisa duen funtsezko eginkizunaren sinesgarritasuna honda dezakeela. Azkenik, bada arrisku bat: litekeena da erreskate paketeak, gobernuei denbora gehiago «erostean», egiturazko erreformen absentsia luzatzea eta kanpoko merkatuetan lehiakortasunik ezari aurka ez egitea. Azken batean, neurri horrek ez du saihesten halako krisialdi bat gerta dadin etorkizun hurbilean.

Aipatu diren planteamenduen baliozkotasuna, hau da, nola egin zerga kontsolidazioaren ahalegina, auzitan jartzen ari da hainbat alderditan: hasteko, hura defenditzen duten argudioak oinarritu egiten dira herrialde batzuen esperientzietan, hau da, gastua murrizteko neurri horiek aplikatu zituztenean finantzaketa kostuetan beharpenak eginez edo diruak baliogutzituz batera egin zituztela. Adierazi den bezala, bi alderdi horiek euroguneko herrialdeen ekintza eremutik kanpo daude, eta ez badago diru baliogutziterik edo interesen jaitzierarik egiterik, zerga austeritatearen eraginkortasuna indar gehiagoz egokitzen zaio egiturazko erreformak onartzeari.

ELBEK (Gurría, 2010) lehenetsun batzuk identifikatzen ditu egiturazko politika funtsekoetan hazkunde ekonomikoa bultzatzeko. Haien artean, politika sozialarekin lotuenak daudenak kontuan hartuz, hauek daude, besteak beste: hezkuntza berrikuntzak, langabeziaren onurak lan bilaketa zerbitzuak indartzera lekualdatzea (behin krisia amaitu ondoren), familiaren arretarako zerbitzuak hobetzea (haurtzaindegiak, aitatasun baimenak...) edo pizgarriak ematea emakumeek lan merkatuan parte har dezaten, besteak beste. Berrikuntza horiek, desiragarriak berez, krisiaren ondorio arginetako batzuei erantzuten diete gainera: lan merkatuen ahultasuna eta langabezia handia egiturazko bihurtzeko dagoen arriskua.

Eurogunearen kasuan, egiturazko berrikuntzez hitz egitea lan merkatuan eta gizarte segurantzaren sisteman aldaketa sakonak egitearen sinonimoa da. Kontseiluak, 2010eko bere ondorioetan, adierazten du «egiturazko berrikuntzak funtsezkoak dira suspertze sendo eta iraunkorra lortzeko, eta gure eredu sozialen bidegarritasuna iraunarazteko». Egiturazko berrikuntzak egiteko orduan, begien bistakoa baita Estatu Kideen eredu sozialen kostu altua globalizazioari aurre egiteko orduan. Herrialde bakoitzak ezin du hirugarrenekin lehiatu horren handia den kostu sozialaren eredu batekin. Zentzu horretan planteatzen da batetik eredu indartzea eta barne merkatuan harmonizatzea, edo bestetik Europar Batasunaren eta «kanpoko munduaren» arteko aldeak murriztea.

Zenbait sektore politiko eta sozial uzkur agertu arren, errealitateak bigarren aukera inposatzen duela ematen du merkatuaren indarrei aurre egin ahal izateko. Horri lagundu egiten dio, zalantzarik gabe, azken Estatu Kideak sartzearekin bat sortu den aniztasuna, dudarik gabe; herrialde horiek, guztiek, lan kostu txikiagoak dituzte. Mugikortasun osoa duen merkatu batean lan kostuen aniztasun askoz handiagoaren aurrean sortutako distortsioak balio du globalizazioaren konkurrentziaren indarrei aurre egiteko beharrezko erreformen lehen ebaluazio gisa. Behar horren isla da Batzordeak adierazi duen borondatea defizit komertziala ere gainbegiratzeko, eta kanpo defizita, Grezia edo Espainia bezalako herrialdeetan kalte handiago baten adierazpena direnak: kanpo konkurrentziarik eza.

Ekonomia lehiakorrago baterako bultzada mingarria da gizarte eta hauteskunde ikuspegitik; jokaleku ideal batean, egiturazko erreformak zerga hedapenarekin batera etorri beharko lukete, baina hori, gauzatzen ari den bezala, ez da posible doikuntza planak dituzten herrialdeetan (Grezia, Espainia, Irlanda, Portugal...). Testuinguru horretan, eta baliogutzitzearen bitartez euren kanpo lehiakortasuna berreskuratzeko euroguneko herrialdeek duten ezintasunaren aurrean, produktibitatearen hobekuntza lan kostuen beherapenean oinarritzen da. Galdera da: noraino ukitu du horrek babes sozialaren eredua?

Europar Batasunean austeritate planak bata bestearen segidan etorri ondoren, inbertsoreek eta merkatuek planteatzen dezakete ez ote dagoen gehiegizko austeritatearik. Gastuaren efektu biderkatzailea erabiltzen den bezala (kalkulatzen da gastu publikoaren euro batek gehikuntza baliokidea dakarrela BPGn), keynesiarrek esaten dute gastu publikotik murrizten den euro bakoitza BPGren murrizpena ere dakarrela kopuru berean. Aurrekontuaren murrizketa drastikoa bada, ekonomiak atzeraldia sakonduko du. Hala ere, EBko praktikan, murrizketak ez dira izan iragarpen horiek betetzeko bezain sakonak, murrizketak mailakatuak izan baitira (orain arte, herrialdeetan, 2010ean, Alemaniako % 0,5etik hasi eta Greziaren % 7ra iritsi artekoak izan dira) hainbat ekitaldi ekonomikotan zehar. Nahiz eta eragina euroguneko BPGren % 1en inguruan egon, Batasunak bere baitan errealitate sozial eta politiko desberdinak dituela islatu du. Errealitate horien eta egoeraren konplexutasunaren erdian, EB sekula iritsi ez zen tokira iristen da eta gobernamentu ekonomiko berri bat planteatzen du.

6. Gobernamentu ekonomikoa indartzea: esparru berri bat kohesio sozialarentzat?

Europako integrazio ekonomikoaren prozesuaren ikuspegitik, krisialdi honi *erantzun kolektibo* bat emateko erabakiak urrats bat gehiago egitea dakar eurogunearen gobernamentuan, eta *diziplina kolektibo* handiago baten eskakizuna sorrarazten du. Alemaniako boto-emaileak kexu dira Greziako langileak finantzatu behar dituztelako; beraz, Alemaniak Greziari laguntzen badio, Greziak erantzun beharra dauka. Egiaztatu ondoren EHren isunek betetzailak ez diren Estatuentzat ez dutela funtzionatzen, hainbat bazkideren zorpetze larriaren egoera delikatuak alarmak piztu ditu eta mekanismo berriak eskatzen ditu.

Horrela, Funtsa eta Egonkortasunerako Mekanismoa sortu eta berehala, Batzordeak epe laburrerako finantza sistema eta euroa bermatuz harago doa, eta Batasunaren barruan gobernamentu ekonomikoa indartzea proposatzen du, epe ertainerako eta luzerako hartutako neurriekin.

2010eko irailean Batzordeak onartutako lege multzoa Maastrichteko Itunetik europar gobernamentu ekonomikoari egindako errefortzu garrantzitsuena bezala hartzen da. Planteatutako berrikuntzak, 2020ko Estrategiarekin eta Lisboako Itunarekin bat egiten dutenak, Estatu Kideen politika ekonomikoak sendotzeko jauzia dira desoreken aurrean; sakontze berria inposatzen da politika sozialari buruzko erabakien gain eragina duten politiken koordinazioan eta haien gauzatzeen zaintzan eta gainbegiratzean.

Zaintza eta gainbegiratze esparruari dagokionez, eta Egonkortasunaren Ituna praktikan jartzeak izan duen porrotaren ondoren, aldatu egiten dira prebentzio arloan nahiz zuzenketa arloan. Lehen alderdian, berrikuntzak «zerga politika zuhur» baten ideia bultzatzen du, bermatu ahal izateko Estatu kideak ez direla helburuetatik desbideratzen, nahiz eta egoera ekonomiko aldekoak izan. EHIren alderdi zuzentzaileak, bestalde, gehiegizko defiziterako erabilitako prozedura hedatzen du zor publikora. Bi alderdiek isun ekonomikoak aurreikusten dituzte, betetzailerak ez den Estatuak egindako gordailuen bitartez (BPGren % 0,2 bat, isun bihurtzen dena gomendioa betetzen ez bada, alderdi zuzentzaileak egindakoa). Haren eraginkortasuna bermatzeke, eta EHIren alde aurreko exekuzioan gertatutako gabeziak gainditzeko, «alderantzizko botoa» sartzen da: Batzordearen isun proposamena hartutzat hartzen da, Kontseiluak ez baldin badu behintzat gehiengo kualifikatuz baztertzen. Diseinu hori osatu egiten da gutxienekoen harmonizazioarekin aurrekontu esparru nazionaletan, zeinei eskatzen zaien EHIIn helburuak isla ditzaten.

Gastu sozialaren plangintzari begira, Egonkortasunerako Itunaren berrikuntza baino garrantzitsuagoa da beste mekanismo batzuk sartzea desoreka makroekonomikoak zuzentzeko. Horrela, Estatu kideen ekonomien arriskuen aldia behingo ebaluazio sistema berri bat proposatzen da, Batzordeari lagunduko diona arriskuak dituzten Estatuak azterketa zorrotzak egiten. Estatu batek Ekonomia eta Diru Batasunaren funtzionamendua arriskuan jartzen duela irizten zaionean, abian jar dezake «gehiiegizko desorekaren prozedura» bat (GDP). GDPk eskatzen dio desorekan dagoen Estatuari Kontseiluak berrikusiko dituen neurrien plan bat aurkez dezala. Estatu horrek ez baditu Kontseiluaren gomendioak betetzen, isun bat jarriko zaio, eta isun hori eten ahal izango da soilik, berriz ere, alderantzizko botoaren tresna erabiliz. Estatuak, beraz, euren ekonomien zaintza eta esku-sartzea izango dute desoreka gertatuz gero, eta horrek eragina izango du, zalantzarik gabe, gastu sozialari dagokionez hartzen dituzten erabakietan.

Proposamen hauetako batzuk ezartzen diren bitartean, EBk, gertakariak behartuta, (Irlandari egindako espekulazio eraso berriak) finantza egonkortasunerako funts bat sortu du, zabalagoa eta iraunkorragoa. Gehiegizko zorrari jarritako isuna edo eurobonoen jaulkipena bezalako beste neurri batzuk eztabaida pean jarraitzen dute oraindik. Mekanismo berri horiek hedatzeaz gainera, bi jokaleku berri irekitzen dira EBko kohesio sozialari dagokionez. Batetik, eta zigorrak eskatzeko dauden zailtasunak egiaztatu ondoren, betetzen ez duten Estatuak arau zorrotzagoak ezartzeko dioen joera batek (Alemaniak bultzatuta) hainbat neurri proposatu ditu, besteak beste, maileguak garestitzea edo Batasuneko Funtsetara sartzeko zailtasunak eta, baita ere, euroguneko erabaki politikoetan esku-sartzea. «Elkartasun mugatuko» eredu bat dei genezakeena izango litzateke.

Horren aurrean, bete korrante politiko batek apustu egiten du gobernamentu ekonomiko berriak diru eta zerga subiranotasunaren indartzea ekar dezan. Egiazko europar gobernu ekonomiko baterantz joatea litzateke kontua (ez soilik diru arlokoa), eta aurrekontu komuna izango duena, europar birbanaketa mekanismoak mantentzeaz gain haiek ere indartzeko. Azken proposamen horrek, zailtasun politiko handia duena, balioa ikaragarria du EDBk gastu sozialari inposatzen dizkion zailtasunen konpentsatzaile gisa.

7. Ondorioak

Ekonomia eta Diru Batasuna bidegurutze interesgarri batean aurkitzen da; azkenaldian konponduz joan da, Batzordeak proposamenak egin edo Kontseiluak erabakiak hartu ahala, sarritan gertakariak behartuta, norabide politiko garbirik gabe, baizik eta Estatuak interesen edo merkatuen presioaren bultzadaren esku.

Ekonomia eta Diru Batasunak bere diseinutik gasturako baldintza garrantzizkoak markatzen baditu ere, hasierako oparaldi ekonomikoak Estatuen erabaki politikoei leku egin zien, politika sozialean nola eta zenbat gastatu erabakitzeko orduan. Egungo krisia test bikaina da, austeritate politiketan sartzeari *ezinbestekoa* duen eredurako. «Ezinbestekoa» kanpoko arrazoirengatik —merkatuen diktadura— eta barne arrazoirengatik —EDBren diseinuagatik beragatik—. Lehen alderdiari gobernamentu ekonomikoaren errefortzua aurka jartzea proposatzen dugu, eta bigarrenari, europar gobernamentu ekonomikoaren errefortzua.


Politika ekonomikoaren armak aipatutako diziplina kolektiboaren sistemagatik deuseztatzeak euroguneko Estatuak utzi ditu osatu gabeko gobernu ekonomiko batekin, bai maila nazionalan, bai nazioaz haraindikoan. Diru politikarik gabeko zerga politika nazional bat eta zerga politikarik gabeko europar diru politika bat. Estatu Batuen esperientziak balioztatu egiten du EDBn dagoen «herrentasun» horren deuseztapena, baita gastu nazionalen aurrekontu komun zabal eta orekatzaile baten eginkizuna ere.

Joko horren barruan jadanik, ezinezkoa da atzera egitea, ez baitirudi posible denik ekonomia batek alde bakarretik bizirik iraun dezan merkatuetatik kanpo, ezta zorpetuen diren euroguneko herrialdeen kasuan ere, EDBtik at. Aurrera begirako bideak, egungo politika sozialaren murrizketaren ondoren, lan merkatuen erreforma gehiagotara darama, europar lehiakortasuna bere lehiakideen errealitatera egokitu dadin. Bide horretan, kaudimengabeziak ez du injustiziak bezain kezkarria izan behar jadanik, eta kohesio ekonomiko eta sozialaren oihartzunak, europar proiektuaren nortasun adierazleak, inoiz baino sendoago entzun beharko dira.

Erreferentziak

- ARRA, American Recovery and Reinvestment Act of 2009, http://www.recovery.gov/About/Pages/The_Act.aspx, Consultado 4/12/2010
- Alessina, Alberto; Carloni, Dorian; Lecce, Giampaolo (2010), *The electoral consequences of large Fiscal Adjustments*, www.Economics.harvard.edu/faculty/alesina/unp
- Bini Smaghi, Lorenzo, (2008), *The economic governance of the European Union in the light of the Treaty of Lisbon: harmonisation or competition between countries?*, <http://www.ecb.int/press/key/date/2008/html/sp080124.en.html>, Kontsulta 2010/10/14
- Caminada, Koen; Goudswaard, Kees; Van Vliet, Olaf, «Patterns of welfare state indicators in the EU: Is there convergence?», en *Journal of Common Market Studies* 48, 3, 529.-556. or.
- Consejo Europeo (2010), *2010eko martxoaren 25 eta 26ko Europako Kontseiluaren ondorioak* http://www.consilium.europa.eu/uedocs/cms_data/docs/pressdata/es/ec/113613.pdf Kontsulta 2010/10/14
- Dhéret, Claude; Zuleeg, Fabian, (2010), *Impact of the economic crisis: greater income equality but less well being?*, Policy Brief 2010, European Policy Centre.
- European Commission (2010), *Surveillance of Intra-Euro-Area Competitiveness and Imbalances*, http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/european_economy/2010/pdf/ee-2010-1_en.pdf
- European Commission (2008), «EMU@10 - Successes and challenges after 10 years of Economic and Monetary Union», *European Economy*, 2. zk.
- European Commission (2010), *Reinforcing economic policy coordination*, COM (2010) 250 final.
- European Commission (2010), *Proposal for a Regulation on the effective enforcement of budgetary surveillance in the euro area*, COM(2010) 524 final.
- European Commission (2010), *Proposal for a Regulation on enforcement measures to correct excessive macroeconomic imbalances in the euro area*, COM(2010) 525 final.

- European Commission (2010), *Proposal for a Council Directive on requirements for budgetary frameworks of the Member States*, COM (2010) 523 final.
- European Commission (2010), *Enhancing economic policy coordination for stability, growth and jobs-Tools for stronger EU economic governance*, COM(2010) 367/2.
- European Commission (2010), *Proposal for a Regulation of the European Parliament and of the Council on the prevention and correction of macroeconomic imbalances*, COM(2010)527 final.
- European Commission (2010), *Proposal for a Council Regulation amending Regulation (EC) No 1467/97 on speeding up and clarifying the implementation of the excessive deficit procedure*, COM(2010) 522 final.
- European Commission (2010), *Proposal for a Regulation amending Regulation (EC) No 1466/97 on the strengthening of the surveillance of budgetary positions and the surveillance and coordination of economic policies*, COM(2010) 526 final.
- European Commission (2010), *Europa 2020. Una propuesta para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador*. http://ec.europa.eu/commission_2010-2014/president/news/documents/pdf/20100303_1_es.pdf
- Guerot, Ulrike (2010), «El rapto de Europa: la crisis desde Alemania», in *Política Exterior*, 136. zk., 50.-60. or.
- Gurria, Angel (2010), *Economic outlook and requirements for economic policy*, OCDE, <http://www.oecd.org/dataoecd/23/23/46311514.pdf> Kontsulta 2010/10/14.
- International Monetary Fund (2009), *The State of Public Finances: Outlook and Medium-Term Policies After the 2008 Crisis*, <http://www.imf.org/external/np/pp/eng/2009/030609.pdf> Kontsulta: 2010/9/15.
- International Monetary Fund (2010), *World Economic Outlook, September 2010*, <http://www.imf.org/external/pubs/ft/weo/2010/02/pdf/c3.pdf> Kontsulta: 2010/10/13.
- Jones, Erik (2005), *European Economic Governance: Forging an integrated agenda*, http://www.chathamhouse.org.uk/files/3219_european_economic_governance.pdf, Kontsulta: 2010/10/14.
- Krugman, Paul (2009), «A Continent Adrift», *New York Times*, 2009-3-16.
- Molina, Ignacio (2010), «Innovar Europa en tiempos de tribulación», in *Política Exterior* XXIV, 136. zk., 76.-88. or.
- Mulas Granados, Carlos (2009), *Improving economic governance in the European Union*, Real Instituto Elcano, http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/rielcano_eng/Content?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/elcano/elcano_in/zonas_in/ari12-2009 Kontsulta: 2010/10/14.
- Murray, Alasdair (2002), *Closing the delivery deficit: the future of economic governance in Europe*, Centre for European Reform, http://www.cer.org.uk/pdf/policybrief_deldef.pdf Kontsulta: 2010/10/14.
- Padoan, Pier Carlo (2008), *Europe and Global Economic Governance*, EU Diplomacy Papers, College of Europe, http://www.coleurop.be/file/content/studyprogrammes/ird/research/pdf/EDP2008/EDP_2_2008.Padoan.pdf Kontsulta: 2010/9/1.
- Schelle, Waltraud, (2009), «Good governance in crisis or a good crisis for governance? A comparison of the EU and the US» *LESQ Paper* 16/2009 zk.
- Stiglitz, Joseph (2010), *Alternatives to austerity, Project Syndicate 2010*, http://www.project-syndicate.org/series/unconventional_economic_wisdom/description.
- The European Convention, Working Group VI on Economic Governance, 2002, *White Paper on Governance*, http://european-convention.eu.int/doc_register.asp?lang=EN&Content=WGVI Kontsulta: 2010/10/14
- Tömmel, Ingeborg, Verdun, Amy (2009), *Innovative Governance in the European Union. The politics of multi-level policymaking*, Londres, Lynne Rienner.



JOHN E. ROEMER

*Yaleko Unibertsitatea,
Estatu Batuak*

Etorkizuneko belaunaldien eskubideak eta klima aldaketa

1. Etorkizuneko belaunaldien eskubideak

Nire iritziz, etorkizuneko belaunaldien eskubideak norberaren jaitzte dataren hautu moralaren mende daude. Hori dela-eta, etorkizuneko belaunaldiek, baldin badaude, gurearen mailako ongizaterako eskubidea izango dute, gutxienez. Jakina, horretarako, orainetik etorkizunerako ibilbide bat eduki beharko dugu, gutxienez gure ongizatearen mailari eutsi ahal izango diona. (Lur planetaren bizia amaitzearen denean, eguzkia berotzen denean, ezin izango da ibilbiderik egin, baldin eta hori gertatzen denean *homo sapiens* existitzen bada).

Etorkizuneko belaunaldiak gu baino *hobe* egoteko egin beharra gurea da? Ezetz uste dut: beraiek bezain ongi egoteko eskubidea dugu, arrazoibide berari jarraituta. Hala, etorkizuneko belaunaldikoak gu bezain ongi baldin badaude, etorkizunean ez dira inoren eskubideak urratuko —iraganari dagokionez ezin dugu ezer egin—. Dena den, gure nahia izan daiteke etorkizuneko belaunaldiak gu baino hobeto egotea. Giza garapena, denbora pasa ahala ongizatea areagotzeari dagokionez, belaunaldi bakoitzaren ondasun publikoa izan daiteke. Guk, gaurko belaunaldiak, etorkizuneko belaunaldien ongizate maila bera izateko eskubidea ez eskatzea erabaki dezakegu, eta gu baino hobe egon daitezen ekintzak egin ditzakegu. Eskubideak ez dira zertan eskatu, horien onuradunek hala erabakitzen badute.


Giza garapena ondasun publikoa izan daiteke, gizakientzat hezkuntza hobea, bortizkeria gutxiago edo gaitortasun gutxiago nahi ditugun neurrian. Horrez gainera, gurasoen nahia izan daiteke beren seme-alabak beraiek baino hobeto egotea, eta, nahi hori kolektiboa izan daiteke, hurrengo belaunaldiko kideak egungo belaunaldikoen seme-alabak izango baitira. Horrek, halaber, beraiek bezain ongi egoteko dugun eskubideari uko egitera eraman gaitzake. Nolanahi ere, gaur egungo belaunaldian, seme-alabarik ez duten helduak erabaki horren aurka egon daitezke.

Belaunaldi bat ez dago hurrengo belaunaldia sortzera derrigortuta. Belaunaldi batek ez ugaltzea erabakitzen badu, ez da inoren eskubidea urratzen. Sortu ez direnek ez dituzte eskubideak. Hortaz, nire iruzkinak existituko diren etorkizuneko belaunaldiei aplikatuko zaizkie. Ugaltzeko erabakia hartuz gero, hurrengo belaunaldia gu bezain ongi egotea saiatu behar dugu.

Horrela, belaunaldi bakoitza gizabanako bakar batez ordezkaten dugula onartuko dut inplizituki: batezbesteko gizabanakoa. Horrela, belaunaldi barneko desberdintasunen alderdi garrantzitsuak saihestuko ditut. Etorkizuneko belaunaldiak gu bezain ongi egotea esatean, anbiguotasuna dago; izan ere, «gu» esatean, aberatsei, pobreei edo horren batezbestekoari buruz ari gara? Hitzaldi honetan, belaunaldi arteko alderdiari erreparatuko diot; beraz, azkenaurreko atalera arte, alde batera utziko ditut belaunaldi barneko gorabeherak.

2. Berotze globalaren gertaerak

Hitzaldi honetan, gizakiaren jardueraren eraginez sortutako negutegi efektuko gasen igorpenaren eragina, karbonoaren metaketa eta tenperatura igoeraren ondorioak aztertuko ditut, eta baita etorkizuneko belaunaldiengan eragina izango duten gaiak ere, hala nola uraren krisiak, itsas mailaren igoera, erauntsi handiak, lehortekak, espezieen desagertzea edo gaixotasun eta izurrite berrien agerpena. Nire ustez, negutegi efektuko gasen igorpena zorrotzasunez murriztu ezean, etorkizuneko belaunaldien eskubideak larriki urratuko ditugu; izan ere, gurea baino egoera okerragoa utziko duten kalteak jasan behar izango dituzte.



1. Grafikoa

Karbonoaren kontzentrazioa atmosferan azken 800.000 urteetan

Lehen grafikoa atmosferan dagoen CO₂-ko kontzentrazioaren azken 800.000 urteetako erregistroa ageri zaigu. Batezbesteko hori milioiko 220 zatiren gainean egin da (ppm). Azken 150 urteotan izandako jauzi handia gizakiak industria iraultzaz geroztik erabilitako energiaren eraginez gertatu da. Gaur egungo kontzentrazioa 385 ppm ingurukoa da. 1850. urtearen aurreko CO₂-ko kontzentrazioen oszilazioak karbono igor-

pen naturalek eragin zituzten: sumendien jarduera, etab. Duela milioika urte, karbono kontzentrazioa gaurkoa baino handiagoa zen, eta hori, ziur asko, sumendien jarduera eragin zuten plaka tektonikoen aldaketen eraginez gertatu zen. Hain zuzen, gaur egun India den lur masak gaurko Txinaren kontra talka egin zuenean, Himalaiako mendikatea sortu zen. Imajina dezagun, beraz, milioika urtean izandako gertaera horren ondoriozko sumendien jarduerak igorritako karbonoa.

Aldaketa naturalak grafikoan adierazitakoak baino askoz ere handiagoak izan dira. Duela lau milioi urte inguru, Pleistozenoan, atmosferako karbono kontzentrazioa gaur egungoaren parekoa zen: 400 ppm inguru. Aro horretan, izotz asko urtu zen Lurrean. Itsas maila gaur egun baino 16-20 metro gorago zegoen. Tenperaturak eta karbono kontzentrazioak denbora asko behar dute orekatzeko. Neurtutako datuak duela lau milioi urteko orekaren erakusgarri direla onar dezakegu. Hartara, atmosferako CO₂-ko kontzentrazioak gaur egungo mailan jarraituko balu, Lurrak izotz gutxiago izango luke eta itsas maila 16-20 metro igoko litzateke. Lur masaren tamaina txikiago izango litzake, eta kostaldeko hiri guztiak desagertuko lirateke, itsasoa geldiarazteko harresi erraldoiak egiteko gai izango ez bagina. Egoera horretara irits gaitzke 1.000 urte barru, 500 urte barru edo, agian, 200 urte barru. Oraingoz, ez dakigu. Dena den, zalantzarik gabe, gaur egungo karbono kontzentrazioei dagokien tenperaturan Lurreko izotzaren zati handi bat, edo dena, urtu daiteke. Zientzialariek uste dute Groenlandiako izotz geruza urtzeko karbono kontzentrazio kritikoa 350 eta 400 ppm artean dagoela.

Atmosferako karbono kontzentrazioaren eta tenperatuaren arteko harremana logaritmikoa da. Forma hau da:

$$T = \frac{\sigma}{\log 2} \log C, \tag{1}$$

non C karbono kontzentrazioa den eta T tenperatura. Gaur egun, ez dugu segurtasunez ezagutzen *klima sentikortasuna* deritzon σ -ren balioa. Kontzentrazioa bikoizten badugu: lehen ekuazioaren tenperaturaren T -a bigarren ekuazioaren T^* tenperaturara aldatzen da:

$$T = \frac{\sigma}{\log 2} \log 2C = \frac{\sigma}{\log 2} \log 2 + \frac{\sigma}{\log 2} \log C = \sigma + T$$

hala, hau idatz dezakegu:

$$T^* - T = \sigma.$$

Erlazio logaritmikoaren ondorioa da karbono kontzentrazioa bikoiztuta tenperaturaren igoera beti izango dela bera — σ -ren igoera—.

Gaur egun, neurri handi batean, ezezaguna da *klima sentikortasunaren* balioa. Kalkuluen arabera, 1,5 eta 10 Celsius graduen artekoa da, edo handiagoa.

Zientzialariek kalkulu independenteen bitartez kalkulatu dute klima sentiberatasuna, denbora tar-te luzeetako Lurraren tenperatura eta karbono kontzentrazioa kontuan hartuta. Egiteko horretan erabilitako metodoak nire irismenetik eta eskumenetik kanpo daude. Yaleko Unibertsitateko geofisikari Mark Pagani kideak, milioika urteko tenperaturari eta karbono kontzentrazioari buruz egindako ikerketan oi-

narrituta, klima sentikortasuna 6 Celsius gradukoa dela uste du. Hori zuzena baldin bada, hau idatz dezakegu: $\sigma = 6$.

1850. urteaz gero, karbono kontzentrazioaren igoera $385/290 = 1,33$ faktorekoa izan da, eta, horrek esan nahi du, karbono kontzentrazioak bere hartan jarraitzen badu, tenperatura globala $\frac{\sigma}{\log 2} \log \left(\frac{385}{290} \right) = 2,45$ Celsius gradu igoko dela industriaurreko balioekiko.

Gaur egun industriaurrean baino 0,5 Celsius gradu gehiago daude, eta ziur asko berotze globalaren ondorioz izandako hondamenak jasan ditugu dagoeneko, esate baterako: 2003an Europan izandako bero bolada, Frantzian 14.000 pertsona baino gehiagoren heriotza eragin zuena, eta aurtengo udan Errusian izandako bero bolada eta horrek eragindako suteak, Moskuko heriotza tasa bikoiztu dutenak.

2010eko abenduan, klima aldatetari buruz Kopenhagen egindako nazioarteko bileretan, herrialde gehienek informalki hitzartu zuten neurriak hartzea tenperaturaren igoera 2 gradura mugatzeko, industriaurreko mailarekiko. Mark Paganiren arabera, tenperatura 2,45 Celsius gradu igotzeko adina karbono igorri dugu dagoeneko. Karbonoa atmosferatik atera, eta lurpean sartu beharko genuke 2 graduren muga lortzeko. Nabarmendu nahi dut 6 graduko klima sentikortasuna epe luzeko sentikortasuna dela: beharbada, datozen mendeetan, oraingo karbono kontzentrazioak 1,5 graduko igoera eragingo du bakarrik, tenperatura globalean.

Gaur egun, atmosferako karbono kontzentrazioa 1-2 ppm igotzen da urtean. Lehen pausoa igoera hori gelditzea izango da, eta bigarren pausoa, berriz, atmosferako kontzentrazioa murriztea; horretarako, ordea, gaur-gaurkoz eskura ez ditugun teknologiak erabili beharko genituzke.

Harrigarria bada ere, agian ez da hain zaila izango negutegi efektuko gasen igorpena murriztea. Ikatza eta petrolioaren ordez, energia garbiak erabili behar dira eta basoen mozketaren eten behar da, garatze bidean dauden zenbait herrialdetan batik bat (Brasil, Indonesia). Bestelako energiak ere badira: haize eta eguzki energiak, energia nuklearra, eta, beste batzuk (fusioa). Arlo horretan berrikuntza saio txikiak egin dira, eta, estimazio guztien arabera, sustapen egokia eginez gero, berrikuntza horrek emaitzak emango ditu. Bestela esanda, teknologia oztupoak gailendu daitezke. Gure energia ekoizpena forma garbietara eraldatzeko arazo nagusia politikoa da: sortutako interesak, ikatzaren eta petrolioaren industriarenak nagusiki, kontra daude. Interes horiek eskura duten guztia egiten dute energia garbiaren ezarpena saihesteko Estatu Batuetan, eta, herrialde horrek aurrea hartzen ez badu, oso zaila izango da helburua lortzea. Txina eta AEB dira negutegi efektuko gas gehien igortzen duten herrialdeak. Biek batera osoaren % 40 igortzen dute. Nire iritziz, Txinak ekintzen bidez AEBren mailara iristeko prest dagoela adierazi du, eta AEB katearen kate mailarik ahulena da. Aurrerago helduko diot berriro gai horri.

2006an, globalki, 4,4 tona igorri genituen pertsonako; hots, 29 gigatona inguru guztira. AEBk 19 tona igorri zituen pertsonako; Txinak, berriz, 4,6. EBk urtean 8,1 tona igortzen ditu pertsonako. Igorpen globala aintzat hartuta, Txinak, AEBk, EBk, Errusiako Federazioak, Indiak eta Japoniak % 70 baino gehiago igortzen dute. Zientzialari askok gomendatzen dute 2050. urterako igorpen globala pertsonako 2 tonara murriztea. Ordurako, bederatzi mila milioi pertsona inguru biziko dira munduan, eta 18 gigatona igorriko dira guztira. Horrela, helburua da igorpen osoa % 61 murriztea. Proposamen horren arabera, AEBk % 90 murriztu beharko ditu pertsonako igorpenak. Europan, Frantzia da gailentzen den herrialdea; izan ere, energia elektrikoaren % 80 energia nuklear gabiaren bidez lortzen du. Portugalak ere aurrerapausoak eman ditu, erregai fosilen ordez energia berriztagarria erabiltze aldera.

1. Taula

CO₂-ko igorpenak biztanleko, hainbat herrialdetan, 2006an

Globala	4,4 tona biztanleko
Estatu Batuak	19,0
Kanada	16,7
Txina	4,62
Errusia	10,92
Japonia	10,11
Alemania	9,74
S. Arabia	15,78
Arabiar Errepublikak Batua	32,8
Frantzia	6,24 (energia nuklearra)
India	1,31
Mexiko	4,14

Pertsonako bi tona igortzeko helburua lortzeko 2050. urtean, AEBk egin beharko duen berrikuntza-idea bat izan nahi badugu, demagun AEBko BPGa % 1,5 igotzen dela urtean, datozen 40 urteetan. Datu historikoetatik abiatuta, azken 30 urteetan CO₂-ko igorpenen eta BPGaren arteko proportzioa urtean % 1,7 murriztu dela kalkulatu dezakegu. Horrela jarraituz gero, 2050. urtean CO₂ eta BPG proportzioa hau izango da:

$$1,015^{40} * 0,983^{40} = 0,914$$

gaur egungoaren % 91 ingurukoa, hau da, lortu nahi den ia % 90eko murrizpenetik oso urrun. Horrek erakusten du energia ekoizpenaren eraldaketa sakonagoa egin behar dela. Harrigarria bada ere, zientzialariek eta ingeniariak hori posible dela uste dute. Kalkuluarekin jarraituta, 2050ean Estatu Batuetako biztanleria 1,42ko faktorerera haziko da. Urte horretan pertsonako bi tona igortzeko helburua lortzeko, murriztu beharreko igorpena-BPG proportzioaren urteko tasa ekuazio honen *r* erroa da:

$$19 * (1 - r)^{40} / 1,42 = 2,$$

non *r* = 0,046. Horrela, aurrerapen teknologikoaren eta energia garbia ezartzearen *erritmoa* —igorpenak-BPG proportzio bidez neurtzen dena— areagotu beharko genuke urteko % 1,7tik % 4,6ra. Ia saialdirik egin ez den arren, bideragarritasun teknologikoaren mugen barruan dago. Herrialde gehienek pertsonako AEBk baino askoz ere gutxiago igortzen dute; hortaz, gutxiago areagotu beharko dute beren berrikuntza erritmoa.

Dena den, esan dudan bezala, 2050erako pertsonako igorpenak bi tonara murriztea gutxiegi izan daiteke. Sei graduko klima sentikortasunaren kalkulua zuzena baldin bada, atmosferako karbono kontzentrazioa 350 ppm-ra murriztu behar dugu. Hain zuzen, «350» eslogana ezaguna egin zen Kopenhageko bileretan.


3. Nola eta zer kontsumitu beharko genuke etorkizunean?

Klima aldaketari aurre egiteko, giza jardueraren ibilbide hobezinak kalkulatu dituzten hiru ekonomisten talde txiki bateko kidea naiz. Eredu bat aztertu genuen belaunaldi kopuru infinitu batekin; belaunaldi bakoitza heldu batek eta haur batek osatutako familia baten bidez ordezkatu genuen. Hori, jakina, belaunaldi barneko desberdintasun guztietatik ateratzen da. Belaunaldi bakoitzak ongizate maila bat du, bost ondasun hauen arabera: ekoiztako salgai baten kontsumoa, hezkuntza maila, bere aisialdia, orain arteko giza ezagutzaren maila osoa eta biosferaren kalitatea, karbonoz kutsatu gabeko atmosfera kantitate gisa neurtua. Helduak hiru jardueratan banatzen du bere lana: salgaia ekoizteko lana, seme-alabaren heziketa eta ezagutza berriak sortzeko ezagutzaren industriari eginiko lana, non kontuan hartzen diren artea, zientzia, literatura eta salgaiak ekoizteko teknologia berrien garapena. Salgaiak ekoizteko, lanez gainera, ezagutza eta kapitala behar dira. Ekoizpen horrek biosfera kutsatzen duten negutegi efektuko gasen igorpena eragiten du. Data bakoitzaren hasieran, helduak lau ezaugarri ditu: hezkuntza maila bat, kapital erreserba bat, biosferaren kalitate erreserba bat eta ezagutza erreserba bat. Belaunaldiaren amaieran, haurra hurrengoaren heldu bihurtuko da, eta lau ezaugarri horiek aldatuta heredatuko ditu, aitaren, hots, helduaren jardueraren eraginez. Bigarren grafikoak jarduera ekonomikoaren irudia ematen digu. Salgaiak belaunaldi barneko eta belaunaldi arteko jarioak eta erreserbak deskribatzen dituzten ekuazio batzuen bidez irudikatzen dira. Ibilbide posibleak infinituak dira, eta aldagai garrantzitsu guztien denborarekin jarrai daitezke.

Eredua kalibratzeko, AEBko datuak erabili genituen, ez Estatu Batuetako abertzaleak garelako, fidagarriak direlako eta erraz eskuratu daitezkeelako baizik. Horrela, deskribatutako ibilbideak Estatu Batuetako ekonomiarako jarduera ekonomiko gisa interpretatu behar dira. *Giza jardueraren ibilbide iraunkorrak* kalkulatu nahi ditugu: belaunaldiz belaunaldi ongizate maila ahal bezain goian mantenduko duten ibilbideak, gure igorpenen muga kontuan hartuta, 450 ppm-ko karbono kontzentrazioa ez gainditzea bermatzeko gai izango direnak. Igorpenen ibilbide horiek Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldeak (IPCC) 2007an eginiko txostenetik hartu ditugu. Aukeratu dugun igorpenen ibilbidea eta karbono kontzentrazio globalaren emaitza 2a eta 2b grafikoetan agertzen dira. Ibilbide horren igorpenak mugatzeak salgaien ekoizpena mugatzea esan nahi du; horregatik da, hain zuzen, negutegi efektuko igorpenak egiten dituen ereduaren jarduera bakarra.

Informazio horretan oinarrituta, 450 ppm-ko kontzentrazio maila altuegia da, ziur asko. Halere, 2007ko IPCCren txostenean horixe da helburu gisa gomendatutako maila. Zientzia kontseilua azkar aldatu da, eta ziur asko kalkuluak egin beharko ditugu berriro, kontzentrazio maila txikiagoko helburua jarrita.

Horrela, egin daitezkeen jarduera ekonomikoaren ibilbide guztien artean, *betirako iraun dezakeen giza ongizatearen mailarik onena emango duena* kalkulatu nahi dugu. Optimizazioaren teoriak ibilbide horren hurbilketa kalkulatzeko aukera ematen digu.



2. Grafikoa

Ekonomia aldagaien erreserbak eta jarioak gure eremuan

2000. urtean hasten da eredia, Estatu Batuetako kontuetatik ateratako kapital, ezagutza eta lan kualifikatuaren arabera. Ez ditut soluzioaren xehetasun guztiak aurkeztuko, nabarmenetako batzuk baizik.

Lehenik eta behin, igorpenen IPPC ibilbidea globala da: igorpenak AEBri esleitzeko modua erabaki behar dugu, Estatu Batuetako ekonomia aztertzen ari baikara. Jarraian aurkeztuko dudan horretan, igorpen globaletatik AEBk pertsonako *dagokion igorpena* egiten duela suposatzen dugu; hots, osoaren % 4. Gaur egun, AEBk igorpen globalen % 24 igortzen du; beraz, azalduko dudan ibilbidean, estatubatuarren igorpena askoz ere murriztagoa da, bai termino absolutuetan bai termino erlatiboetan.

Bigarren taulan, ereduaren hainbat emaitza ematen ditut. Belaunaldi bakoitza 25 urteko epe gisa interpretatu behar da: lau belaunaldik mende bat osatzen dute. Lehendabizi esan behar dugu 2000. urtean baino % 16,9 handiagoa den ongizate mailari eusteko gai garela, igorpenen murrizketari dagokionez eta AEBk igorpen globalen % 4 igortzen duela suposatuz. Ikusten denez, kontsumoa 27,8tik 23,6ra *jaisten* da. Ongizatea igotzen da, hezkuntza 1,4tik 1,88ra igotzen delako; hala, estatubatuarren hezkuntza mailak % 34 egiten du gora. Ezagutzaren igoera erabatekoa da, hiru baino gehiagoko faktore batez. Esan dudan bezala, arteak,

zientziak eta teknologiak osatutako ezagutzari buruz ari gara. Horren barruan sartzen da, adibidez, bizitza lu- zera areagotzea, gaixotasunak sendatzeko aurkikuntza berriei esker.

2. Taula

Ibilbide iraunkorra AEBk igorpen globalen % 4 igortzen duenean, IPPC ibilbidearen gainean

Urtea/Belaunaldia	Ongizatea	Kontsumoa	Hezkuntza	Ezagutza
2000	1	27,8	1,396	15,64
2025	1,169	32,5	1,648	48,82
2050	1,169	29,9	1,663	55,61
2075	1,169	23,6	1,884	55,61
2100	1,169	23,6	1,884	55,61

Hirugarren taulan, lan banaketaren aldaketa ematen dut, orainetik hasita ibilbide hobezinera iritsi arte.

3. Taula

Lan frakzioak 2000. urtean eta ibilbide hobezin iraunkorrean

Lan frakzioa	Hezkuntza	ekoizpena	Ezagutza, I+G	Aisialdia
2000an	% 3,3	% 28,3	% 1,67	% 66,7
2100ean	% 2,8	% 27,9	% 3,58	% 65,7

Ikus daitekeenez, salgaiak ekoizteko lan frakzioa ia oraingoaren parekoa da, aisialdirako denboraren frakzioa bezalaxe. Dena den, lanaren gaitasun maila % 34 handituenez, aisialdiko jarduerak oraingoekin alderatuta oso bestelakoak direla pentsa dezakegu: pertsonak opera gehiago eta futbol gutxiago ikusiko dute. Interesgarria da ikustea hezkuntzako lan indarraren frakzioa apur bat jaisten dela. Dena dela, gertaera nabarmena da ezagutzari eskaintako lan denbora hasierakoa halako bi baino gehiago dela. Kontsumoaren zati bat ezagutza eta gaitasunaren bidez ordezkatu duen gizarte bat da.

Nabarmendu behar dut kopuru hauek ongizate iraunkorra maila gorenera ematen duen ibilbideari lotuta daudela. Ongizatea nola definitzen dugun galde dezakegu. Hauxe da funtzioa:

$$c^{.32} (s/l)^{.65} (S^n)^{.02} (\bar{S} - S^m)^{.01}$$

non c salgaien kontsumoa den, s/l aisialdi denbora gizabanakoaren hezkuntza mailaz biderkatuta, S^n giza ezagutzaren erreserba eta $\bar{S} - S^m$ biosferaren kalitatea. Ikusten denez, oso pisu gutxi jarri dugu azken bi puntue-

tan: pisuaren % 97 kontsumoan eta aisia hezitzailean dago. Horrela, funtzio praktikoak emaitza «berdeak» ematea saihesten dugu: nekez gertatuko da. Nolanahi ere, ikus dezakegunez, iraunkortasunak pauso bat ematea eskatzen du, kontsumotik ezagutzera eta hezkuntzara.

Hasieran esan dudan moduan, giza ongizatearen ibilbide hauxe da belaunaldi bakoitzaren eskubideak beste edozein belaunaldirenak bezain onak izatea eskatuko duena: ongizate maila hauek etengabe ordezkatu daitezke, espezieak existitzen diren bitartean. Dena den, esan dut, halaber, giza garapena lortzea, hots, ongizatea haztea izan daitekeela gure xedea. Hurrengo tauletan, kalkulu horren emaitzak azaltzen ditut: giza ongizatea maila gorenera eramatea lehen belaunaldian (2025ean), *ongizatearen hazkuntza tasa urteko % 1 dela bermatuta* (urteko % 1ek % 28a ematen du belaunaldiko). Igorpenen mugak bere hartan jarraitzen du.

4. Taula

Belaunaldiko % 28ko ongizatearen hazkuntza *ad infinitum* finkatzen duen ibilbidearen ezaugarriak

Belaunaldia	Ongizatea	Kontsumoa	Hezkuntza	Ezagutza
2000	1	27,78	1,396	15,64
2025	1,159	32,18	1,648	48,39
2050	1,486	38,08	2,156	71,49
2075	1,906	38,80	3,134	91,19
2100	2,444	49,89	4,029	118,16

Oraingoan, kontsumoa areagotu egiten da. Aldagai guztiak bizkor areagotzen dira. Non dago oreka? Taula honetan, lehen belaunaldiaren ongizatea 2000koa halako 1,159 da; haatik, zero hazkuntzako suposamenduan, lehen belaunaldiaren ongizatea 1,168 zen. Horrela, lehen belaunaldiaren ongizatea zertxobait murrizten da zero hazkuntzako ibilbidearekin alderatuta, etorkizunean ongizatearen hazkuntza bizkorra ahalbidetzeko. Oreka horrek merezi du? Etorkizuneko giza hazkundearen garapena hobesten duten pertsona kopuruaren baitan dago hori.

Hurrengo taulan, ibilbide hobezinari lotutako lan banaketa ematen dut.

5. Taula

Lan banaketa, belaunaldiko %28ko hazkuntza ematen duen ibilbidearen gainean

Urtea	Hezkuntza	ekoizpena	Ezagutza	Aisialdia
2000	% 3,33	% 28,3	% 1,67	% 66,7
2100	% 3,63	% 27,9	% 3,77	% 64,7

Orain, ikus daitekeenez, lan baliabideak aldatzen ditugu, hezkuntzan eta ezagutzan. Kontuan hartu, hala-ber, lanaren gaitasuna 1,4tik 4,03ra igo dela. Beraz, irakasleen hezkuntza maila 2000. urtekoa halako hiru da ia. Bitxia bada ere, aisiak behera egiten du; alabaina, hori berdindu egiten da *aisa balioa igotzearekin batera, pertsonen hezkuntza maila askoz ere handiagoa baita.*

Laburbilduta, guztiz posiblea da igorpenen mailari eustea eta ongizatea areagotzea urteko % 1ean. Dena den, horrek eskatzen du ekoizpen jarduerak berriro banatzea, hezkuntza eta ezagutzaren ekoizpena orain baino askoz gehiago nabarmenduta.

Izatez, posiblea da ere hazkuntza tasa handiagoa izatea. Hazkuntza tasa igotzearen *kostuak* lehen belaunaldiaren ongizatea murriztea inplikatzeko du. Hemen agertutako ongizatearen murrizketa oso txikia da, itxuraz. Gure kalkuluen arabera, urteko % 2ko hazkuntza ibilbidean (belaunaldiko % 64ko ongizate hazkuntza), lehen belaunaldiaren ongizatea 1,169tik 1,146ra jaitsiko da; hau da, ongizatea % 2 murriztuko da. Belaunaldiko ongizatearen % 64ko hazkuntza tasa ezarri ahal izateko, lehen belaunaldiak bere ongizatea etorkizuneko belaunaldikoen parekoa izateari uko egingo dion ala ez irekita uzten dugun auzia da.

4. Arazo politikoa

Demagun, guk, etorkizuneko belaunaldien eskubideez kezkatzen garenok, giza jardueraren ibilbideetako bat ezarri nahi dugula. Aurkeztu berri dudana adibide bat baino ez da: ideala izango litzateke antzeko kalkulak egitea munduko eskualde askotarako. Horrelako ibilbide bat merkatu ekonomia batean ezartzeko, beharrezkoa izango litzateke estatuaren esku-hartzea: zergak eta dirulaguntzak diseinatu beharko lirateke, eragile ekonomikoiei laguntzeko, beren jarduerak ibilbide hobezinen jardueretara egokitzeari begira. Adibidez, askoz ere diru gehiago jarri beharko genuke hezkuntzan, eta ezagutzan ekarpenak egiten dituztenen soldatak igo beharko genituzke, oraingo langile kopurua halako hiru ingurura iristeko. Ez dut inbertsio eta kapital eraketa tasa aztertu. Horrek ere aldaketa eskatuko du, eta horretarako aurrezteko eta inbertitzeko pizgarriak aldatu beharko dira. Hasiera batean, ekimen hauek guztiak egin daitezke, baina merkatuen esku-hartzeak nabarmena izan behar du. Kontua ez da mugatzen, ordea, belaunaldi arteko ibilbide hobezina sortzeko merkatuen gaitasunera.

Jakina, kontserbadoreak estatuaren esku-hartzearen aurka egongo dira, eta baita iraunkortasun ibilbide edo hazkuntza iraunkorrerako eredu hauen aurka ere. Zehazki, ikatzaren eta petrolioaren industriak igorpenak eskatutako moduan murrizteko energia ekoizpena eraldatzearen aurka egongo dira. Baten batek galde dezake: ikatzaren eta petrolioaren enpresak zergatik daude eskatutako eraldaketa egitearen guztiz kontra? Azken finean, beren zuzendariek ere ilobak izango dituzte. Nire ustez, hainbat gertaera psikologikoren ondorioa da jarrera hori.

Lehenengoa, desadostasun kognitiboa da. Estatu Batuetan klima aldaketari buruzko ohartarazpenak ez-kerrari lotuta ageri dira. Al Gore ez da erradikal sutua, demokrata baizik, eta, beharbada, klima aldaketaren arazoari aurre egiteko ekintzen defendatzaile nabarmenena izango da. Kontserbadoreek ulertzen dutenez, ohartarazpenak zuzenak baldin badira, estatuaren esku-hartze masiboa nahitaezkoa izango da, eta hori ez da gatazka bat beraientzat; kontua izango da, beraz, erreklamazio hori ez egotea guztiz justifikatuta. Azeriak ezin baditu mahatsak hartu; orduan berde daude.

Bigarren ezaugarria da festa zapuztu nahi ez izatea. AEBko finantzen lider batek honela deskribatu zuen finantza porrotaren aurreko egoera: «Musika entzuten den bitartean, dantzan jarrai dezakezu». Petrolio/ikatzaren sarearen buruen artean, inork ez du izan nahi lehena dantzaldia uzteko unean. Zure enpresaren portaera aldatzen baduzu (energia garbia ekoizteko eraldaketa) eta mugimendua gaizki ateratzen bada, zu izango zara erantzulea. Dena den, portaera inork aldatzen ez badu eta hondamena iristen bada, ez da errudunik izango, hondamena naturalizat hartuko baita.

Hirugarren ezaugarri psikologikoa miopia da: beren eragiketetan aldaketa masiboak egin zituzten enpresek epe motzeko irabaziak jasan behar izango zituzten. Balore merkatuen portaera dela-eta, zuzendariak kanporatuak izango ziren, Estatu Batuetan behintzat. Bankan emandako egoeraren antzekoa da; portaera taldekoia esaten zaio horri. Askoz ere seguruagoa da masari jarraitzea, norbere kontura jartzea baino. Masa baten barruan, anonimotasuna dago.

Petrolioaren eta ikatzaren enpresek, energia garbiaren legedia saihesteko legegileak estutzeaz gainera, zuzenean egiten dute propaganda herritarren artean. Esate baterako, estatubatuar gehienak gasolinaren zergak igotzearen aurka daude, zerga horiek Europakoak baino nabarmen txikiagoak izan arren. Ondorioa da AEBn motorren eraginkortasuna askoz ere txikiagoa dela Europan baino. Autoak handiagoak dira, eta automobilaren industria eraginkortasunaren aurka dago. Hala, kontsumitzaileak izutzeko, erregaien eraginkortasuna eskatuz gero, autoen prezioa ehun eta milaka dolarretan garestituko dela esaten dute. Estatubatuarrek 3\$ inguru ordaintzen dute gasolina galoia; 0,6 euro litroko gutxi gorabehera. Zerga hori igotzearen aurkako erresistentzia handia dago: politikariek beren kontra gomendatzen dute horren igoera.

Nire iritziz, politikariek eta, batez ere, presidentek dute iritzi publikoa aldatzeko erantzukizuna. AEBko Diputatuen Ganberak igorpenak mugatzen dituen lege proiektua onartu zuen joan den urtean. Ez da nahikoa, baino zerbait bada. Aurten, Senatuaren lege proiektu batek porrot egin zuen, Obamaren administrazioak klima aldaketaren gaiari ematen dion lehentasun eskasaren eraginez. Lehenengo urte eta erdian, administrazioaren lehen bi eginkizun nagusiak osasun eta finantza sistemen erreforma izan dira. Begien bistakoa denez, administrazioak ez zuen kapital politiko nahikorik hirugarren fronte bati aurre egiteko, aldi berean. Osasun eta finantza sistemen erreformaren aurkako oposizioa erabatekoa izan da. Senatari edo kongresuko kide errepublikano bakar batek ere ez zuen bozkatu osasun sistema erreformatzeko lege proiektua. Errepublikanoek lege proiektu hori Obamaren administrazioa garaitzeko aukera gisa ikusi zuten, eta batu egin ziren bere aurka. Obama aukeratu zutenean, herritarren erdiak baino gehiagok onartzen zuen osasun erreforma. Senatuak lege proiektua onartu zuenean, berriz, herritarren babesa heren batera jaitsi zen, Alderdi Errepublikarrak lege proiektuaren aurka asmo txarrez eginiko propagandaren eraginez. Europarrentzat ulergaitza da borroka hori: alde batetik, Estatu Batuetan eskuineko politikak duen boterea erakusten digu, eta, bestetik, eskuin horrek konpromisoak hartzeko duen borondate eskasa.

Azken 30 urteotako (1997-2007) ekonomia hazkuntzaren % 58 familiengana iritsi zen, *aberastasunaren banaketaren gehieneko % 1ean*. Hori ulertuta, botere politikoa eskuinera aldatu izanak ez gaitu hainbeste harritzen. Hazkundearen irabazien banaketa hori politikoki ahalbidetu izan da herrialdeko politikari gehien-gehientzat, denentzat ez bada, merkatu bateratuak dena dakielako eta gobernu ez-eraginkorra eta ustela delako; beraz, ahal den guztia egin behar da estatuak botere gehiago bereganatu ez dezan (osasun eta finantza sistemen erreformaren bidez). Iritzi hori eskuineko propagandaren bidez zabaldu da.

Obamaren administrazioaren ahalkea hautematen da, energia garbiaren aldeko argudioak ematen ditue-
nean. Hauek dira, hurrenez hurren: lana sortzea, segurtasun nazionala (hau da, Erdialdeko Ekialdearekiko
mendetasuna murriztea), eta klima aldaketa. Oraingo belaunaldiak etorkizunekoekiko dituen betebeharrei
buruzko eztabaida publikorik ez dut entzun.

Industriako handi-mandien portaera kritikatu dut, baina kritikatu behar dugu, halaber, Estatu Batue-
tako politikarien koldarkeria. Beren erantzukizuna da herriaren heziketa. Adibide ona dugu John McCain:
politikari errespetatua, inkorformista gisa ezaguna eta, duela gutxi arte, karbono igorpenak arautzearen alde
zegoena. Orain, ordea, igorpenak arautzearen alde jarraitzen badu, argi dago senatarirako hauteskundeak
galduko dituela Arizonan; eskuineko estatu batean. Hori dela-eta, errotik aldatu du gaiari buruz zuen iri-
tzia. Demagun, orain klima aldaketari buruzko printzipioen aldeko jarrera hartuta, McCainek hauteskun-
deak galtzen dituela. Ez al du politika ibilbide nahikorik egin? Ez al da hobe galtzea baina printzipioei eus-
tea? Dirudienez, ez.

5. Hazkundera eta pobrezia

Klima aldaketari aurre ez egiteko gehien erabilitako argudioetako baten arabera, pobreenen ongizatea-
ri arreta gutxiago eskaini beharko zaio, gaiari heltzen bazaio. Freeman Dyson fisikari ezagunak argudiatzen
duenez, ikatza hain merkea izanda, ikatz planta elektrikoak eraikitzen jarraitu behar dugu garatze bidean
dauden herrialdeetan, hori baita pobreen bizitza maila igotzeko modurik errazena. Ikatza sakrifikatzeak,
ordea, kalte egingo die. Zuzenbideari dagokionez, gaur egun garatze bidean dauden herrialdeetan okerren
dauden pertsonen eskubideak eta etorkizuneko belaunaldienak haztatu behar ditugu.

Dyson optimista dela esan behar dugu: uste du klima aldaketaren gaineko kezka atzeratu daitekeela, den-
bora tarte batez. Behin munduko pobrezia arazoa behar bezala konponduta, giza asmamenak bilatuko du
konponbideren bat.

Onartu behar dut ezagutza nahikorik ez dudala Dyson-en iritzi optimista ebaluatzeko. Nolanahi ere, ten-
peratura globalaren igoerari buruzko ziurgabetasuna hainbestekoa izanik, kontu handiz ibili behar dugula
uste dut. Bangladeshen 140 milioi pertsona bizi dira, eta lurralde osoa itsas maila baino 10 metro beherago
dago. Uholdeak nahiko maiz gertatzen dira. Ez dakigu zenbateko bizkortasunez igoko den itsas maila. Nire
ustez, zuhurtziak eskatzen du gai hori negutegi efektuko gasen igorpenaren kontrolaren bidez bideratzea.
Oro har, temperatura globalaren igoerarekin batera, uholdeak, lehortekak edo erauntsiak jasan behar izaten di-
tuzten herrialde gehienak pobreenetakoak dira. Nekez sinets dezakegu horiek baino kalte handiagoak jasango
dituztenik ikatzaren erabilera bertan behera geratuz gero.

6. Kargaren banaketa

Nola banatu beharko litzateke munduko herrialdeen artean, karbonoaren kontzentrazio onargarriaren
mugara iristeko beharrezkoa den negutegi efektuko gasen igorpenaren murrizketa? Ekonomia baten *hazkun-
tza faktorea* bere hazkuntza tasa baino puntu bat gehiago da. Nire iritzi, igorpen mugak ezarri behar dira,
nahiko garatuta dauden herrialde guztien hazkuntza faktoreak frakzio berean murriztuta.

Azalduko dut nola. Demagun, A eta B herrialderen BPGak y^A eta y^B direla, eta, aurreikuspenen arabera, beren hazkuntza tasak g^A eta g^B direla eta konstantetzat hartzen direla. T urte igaro ondoren, bere BPGaren proportzioa hau izango da:

$$\frac{(1 + g^A)^T y^A}{(1 + g^B)^T y^B}.$$

Orain, demagun herrialde bakoitzak bere hazkuntza faktorea murrizten duela r frakzioan; orduan, hau izango da hazkuntza faktore berria: $(1 - r)(1 + g)$. Beraz, T urte igaro ondoren, bere BPGaren proportzioa hau izango da:

$$\frac{((1 - r)(1 + g^A))^T y^A}{((1 - r)(1 + g^B))^T y^B} = \frac{(1 + g^A)^T y^A}{(1 + g^B)^T y^B}.$$

Bestela esanda, beren BPGaren proportzioa aurreikusitako bera izango da. Uste dut hori zentzuzko konponbidea dela.

Zer gertatzen da Txinarekin? Demagun, AEB eta Txina beren igorpenak murrizteari buruz negoziatzen ari direla —negoziazio horiek martxan daude maila pribatuan—. Demagun negoziazio horien gai nagusia dela Txina, biztanleko BPGari dagokionez, AEBren mailara iritsiko den data. Hori hiru belaunalditan gerta daiteke; 75 urte inguru. Proposamen bat egiten bada, non Txinako eta AEBko biztanleko BPGa 100 urtean berdinduko den, txinatarrak ez dira ados geratuko: zer dela-eta, zuek, herrialderik aberatsena, atera behar diozue guk baino etekin handiagoa klima aldaketaren gaiari? Modu berean, AEB kontra agertuko da, txinatarrak proposatutako igorpenen mugekin AEBko eta Txinako biztanleko BPGa 50 urtean berdintzen bada. Negoziazio horien gune nagusia *AEB eta Txinako biztanleko BPGa berdintzeko data bere hartan uztea* dela iradokitzen dut. Hala, lehen aipatutako arrazoibidea aplikatzen da: bi herrialdeek beren biztanleko BPGaren hazkuntza faktoreak frakzio berean murrizteko mugak onartzea.

Zer gertatzen da herrialde pobreekin? Herrialde aberatsetatik pobreetara transferentzia egitea iradokitzen dut; horrela, ohian tropikalen mozketak saihestuko ditugu eta herrialde pobreek ez dituzte beren jarduerak murriztuko, biztanleko BPGaren gutxieneko maila lortu arte. Hori lortuta, erregimen berbera aplikatuko zaie: beren hazkuntza faktoreak murriztea, herrialde aberatsen frakzio berean. Politikoki arrazoizkoa dela uste dut. Ez da izango, agian, formularik egokiena ikuspegi etiko batetik, baina herrialde aberatsek eta zehazki Estatu Batuek onartuko zuten.


7. Txina eta Estatu Batuak bat egitea, hiru belaunalditan

Lehen esan dudan bezala, gutxi gorabeherako kalkulu batek iradokitzen digu Txinako eta AEBko biztanleko BPGak hiru belaunalditan edo 75 urtean berdinduko direla. Zehatzak izateko, datozen 75 urteetan AEBko biztanleko BPGa urtean batez beste % 2 igotzen bada eta Txinakoa, berriz, urtean % 5a, 71,5 urte barru berdinduko dira.

Gure ikerketa taldeak lehen deskribatutako eredia aldatu du, Hegoaldea eta Iparraldea eduki ditzan: data bakoitzean Iparraldea eta Hegoaldea ordezkatzen dituzten «familiak» daude. Iparraldea AEBko ekonomia parametroetara hurbildu dugu, eta Hegoaldea, berriz, Txinako ekonomia parametroetara. Bestalde, bi eskualdetako biztanleria benetako biztanleriaren bidez dago ordezkatuta, eta datozen 75 urteetako biztanleen kopuruaren igoyerari dagokionez, NBERen aurreikuspenak erabili ditugu Iparralderako eta Hegoalderako. Hauxe da geure galdera: baliabideen zer ibilbide da erakargarriagoa Hegoalde eta Iparralderako, ezaugarri hauek kontuan hartuta:

- (1) Iparraldeko eta Hegoaldeko biztanleko ongizatea hiru belaunalditan parekatzea;
- (2) Ibilbidean zehar, negutegi efektuko gasen igorpenak IPCC IVren igorpenen ibilbidearen bidez mugatzea, atmosferako karbono kontzentrazioak 450 ppm-ra elkartzen baititu;
- (3) Eta ibilbide honetan, Iparraldearen eta Hegoaldearen biztanleko ongizatea haztea.


Hirugarren grafikoan, Iparraldeko eta Hegoaldeko biztanleko ongizatearen hazkundea agertzen da, kontuan hartu dugun ibilbide hobezinean.



3. Grafikoa

Iparraldeko eta Hegoaldeko ongizate hazkundearen ibilbideak, gure eredian

Laneko erreserbak eta jario guztiak, kontsumoa, hezkuntza, ezagutza eta negutegi efektuko gasen igorpenak zenbatu egiten dira, ibilbide hobezin hau eratzeko. Nabarmentzen dut eskualde bakoitzaren igorpenak ibilbide hauek sortzeko optimizazioaren parte bat bezala zenbatzen direla. Igorpenak endogenoak dira, hiru belaunaldietan bateratzeko helburu globalarekiko. Jakina, muga da data bakoitzaren igorpenek ezin dutela gainditu 450 ppm-ko karbono kontzentrazioa, hori baita bateratzeko eskakizunetan ezarritako maila. Lau garren grafikoan, Iparraldeari eta Hegoaldeari ibilbidean zehar dagozkien igorpenak zehazten ditut.




4. Grafikoa

Igorpenak, guztira: Iparraldekoak, Hegoaldekoak eta Mundukoak, gure eremuan

Zero belaunaldia 2000. urtea da, lehen belaunaldiak 2000-2025 aldia hartzen du, bigarren belaunaldiak 2025-2050 aldia, etab. Ikus dezakegunez, ibilbide hobezinean, Hegoaldeak lehen belaunaldian du igorpen mailarik handiena, eta hurrengo bi datetan ere bereak dira igorpen maila handienak. Bosgarren grafikoak ibilbide honen *biztanleko igorpenen eredu*a erakusten digu:

Ikusten dugunez, bigarren belaunaldira arte, Iparraldeak negutegi efektuko gas gehiago igortzen jarraitzen du: une horretan, Hegoaldea biztanleko gehiago igortzen hasten da Iparraldea baino. Hirugarren belaunalditik aurrera, Iparraldeak eta Hegoaldeak biztanleko maila txiki bera igortzen dute.

Orain atzera egingo dugu, eta gure ikuspegiari buruz hausnartuko. Eztabaida handia dago igorpen globalak murrizteko moduari buruz eta herrialdeek edo eskualdeek denon ondarea den biosfera karbonoz kutsatzeko dituzten «eskubideei» buruz. Deskribatutako ikuspegiaren abiapuntua ez da eskubideen arazoaren konponbidea. Haatik, ikuspegi politikoa da, izan ere, premisa da Txinaren eta AEBren arteko negoziazioen oreka, beren biztanleko BPGa berdintzeko data mantentzeari dagokionez. Oro har, herrialdeen arteko negoziazioen orekak herrialde horien *hazkuntza faktore erlatiboak* zainduko dituela defendatzen dugu. Nik esango nuke hori izango dela AEBren, EBren eta BRIC nazioen arteko negoziazioen ezaugarria.



5. Grafikoa

Igorpenak biztanleko: Iparraldea eta Hegoaldea, 2000-2075

Hauxe esan dugu: klima aldaketari buruzko krisia alde batera utzita, demagun Iparraldeak eta Hegoaldeak 75 urte barru bat egingo dutela. Hona hemen gure galdera: Zer ibilbide hobezinek mantenduko du data hori, eta errespetatuko ditu negutegi efektuko gasen igorpenaren mugak? Hala, bi eskualdeen arteko banaketa hobezina bilatuko dugu ibilbidean zehar, igorpenei dagokienez. Eskubideak ez ditugu aipatu. Politikoki zentzuzkoa den proposamen bat egiten saiatu gara.

8. Ondorioa

Hasieran, etorkizuneko belaunaldiak gutxienez gure ongizate maila bera izateko eskubidea dutela suposatzen dut, eta klima aldaketaren hondamena saihesteko negutegi efektuko gasen igorpenen murrizketek hori ahalbidetuko ote duten galdetu dit. Gure ikerketa taldeak giza ongizatea ahal den mailarik gorenean etengabe mantentzen duten ibilbide hobezinak zenbatu ditu, eta horren emaitza batzuk aurkeztu dizkizuet. Lanaren banaketa nabarmen aldatu beharko genuke; zehazki, baliabide gehiago jarri beharko genituzke ikerkuntzan, garapenean eta ezagutzaren sorreran.

Gero, argudiatu dut belaunaldi bakoitzak giza garapena ondare publikotzat hartu dezakeela eta etorkizuneko belaunaldiek beraiek baino hobeto egotea nahi dezaketela. Aurkeztu ditudan emaitzek erakusten dute belaunaldiko % 28ko ongizate hazkuntza tasa eduki daitekeela, bat etortzeko mugen barruan, hots, 450 ppm-ko karbonoa atmosferan.

Kalkulu horien arabera, ekonomiaren eta teknologiaren ikuspegitik ibilbide bideragarriak egin daitezke: horiek ezartzeko, petrolioaren eta ikatzaren multinazionalak erregai garbiak erabiltzearen aurka duten jarrera gainditu beharko dugu.

Amaitzeko, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko ekonomiaren garapena eta igorpenen banaketa posiblea aztertu ditut. Politikoki bideragarria den konponbide baten alde egin dut. Gehien igortzen duten herrialdeak, hau da, Txina eta AEB kontuan hartuta, bion arteko negoziazioen oreka bien biztanleko BPGak bat egiteko data bere hartan uztea izango litzatekeela proposatu dut. Gero, gure taldeak egin duen ibilbide hobezinaren xehetasun batzuk eman ditut. Ibilbide horren arabera, Iparraldeko (AEB) eta Hegoaldeko (Txinako) biztanleko ongizateak bat egingo dute 75 urteren buruan. Bi herrialderen igorpenen banaketa optimizazio arazoaren konponbidearen zati bezala ageri zaigu. Ikuspegi hori eta herrialdeek igortzeko *ex ante* dituzten eskubideetan oinarritzen dena oso bestelakoak dira. Bitartean, erakargarriagoa izan daiteke esatea herrialde bakoitzak bere biztanleriarekiko proportzionala den karbonoa igortzeko eskubidea duela, baina ez dut uste ikuspegi horren bidez itun globalik lor daitekeenik. Haatik, ongizatea bateratzeko datak bere hartan uztea proposatzen duen helburuak adostasuna lor dezake; hau da, nahiko garatuta dauden herrialde guztien hazkuntza faktoreak proportzio berean murriztea.

Laburbilduta, berotze globalaren errealitateak ez du zertan eragotzi giza ongizatearen hazkuntza edo Txina eta India bezalako herrialdeek datorren mendean herrialde garatuekin bat egitea, bizi kalitateari dagokionez. Arazo nagusia politikoa da, ez ekonomikoa, eta AEB da arazoaren eragile nagusia. Hitz gutxitan esanda, petrolioaren eta gasolinaren industriak eta beren ordezkariak, hots, AEBko Alderdi Errepublikarreko kideek eta Alderdi Demokratikoaren zati kontserbadoreko kideek, berotze globala gezurra dela sinestarazi nahi diete beren boto emaileei. Estatu Batuetako beste politikari batzuk programa erreakzionario horri aurre egiteko gai izan ezean, porrot egingo dugu etorkizuneko belaunaldiak gu bezain ongi egon daitezen dugun betebeharran.

Erreferentziak

Hitzaldi hau H. Llavador-ek (Pompeu Fabra Unibertsitatea), John Roemer-ek (Yaleko Unibertsitatea) eta Joaquim Silvestrek (Californiako Unibertsitatea, Davis) idatzitako txostenetan oinarrituta dago. Eskerrak eman nahi dizkiek nire kideei gure lana horrela aurkezteko aukera emateagatik.

1. «A Dynamic Analysis of Human Welfare in a Warming Planet».
2. «Intergenerational justice when future worlds are uncertain» (prentsan, *Journal of Mathematical Economics*).
3. «The ethics of intergenerational distribution in a warming planet» (prentsan, *Environmental and Resource Economics*).
4. «North-South convergence and the allocation of CO₂ emissions».

Txostenak helbide honetan eskuratu daitezke: <http://pantheon.yale.edu/~jer39/climatechange.html>

